



Iturria: *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Sebastian Mendiburu
(Patxi Altunaren edizioa). Euskaltzaindia, 1982.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuIgande.htm>

IGANDE ETA FESTE GUNETARAKO IRAKURRALDIAK

Sebastian Mendiburu

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

IRAKURLEARI

Bide estali-gordeak dira Jangoikoaren bideak, eta bide, Jangoiko berak agertzen dituen aldian ezpada, batek ere ezin ekusi ditzakenak. Anitz aldetara agertu oi ditu Jangoikoak bere bide oriek. Zenbait aldiz agertzen ditu bide beraz eragiten dituen lan ta gauzak agertuz, ta orieta-tik bat egiña ekusten duenean, esaten du egilleak: «Ona, lan edo gauz hau niri eragiteko zen aldi onetan Jangoikoak arrerazi didan bidea». Eta hau da irur aldiz beintzat Jangoiko berak niri esan-erazi didana; eta esan-erazi dit ark niri bein Loiolan, gero Madrillen ta orain azkenik emen Itali berean. Ara nola.

Nere Relijioko birtut-ikasteak eta estudi guziak Gaztelerrian egin ta igorri edo bidaldu nindu(t)en Iruñeko gure Kolejiora ta bederatz urtez bein Gramatika ta gero Filosofia an erakutsi ta Loiolakora. Loiolan, Jangoikoari eskerrak eta nere zori onez, asi nintzan soñekoz Aita S. Ignazioren seme izaten.

Ara ninjoan aldian uste nuen Jangoikoak nendaramala birtutez hor-duraño ez bezala ta behar den eran Aita S. Ignacioren seme on egitera, eta ez bestetara; baña bestetarako ere bidea zela Jangoikoaren bide hau ezagutu nuen nik an fite aski ta laster, ta ezagutu nuen diodan nere lanez-ko bidez.

Hastia nuen guzian (ta Iruñean bizitu nintzan urteetan izandu nuen nik hasti hau) euskaldun menditarren errietan egiten nituen misio zen-bait eta banatzen nuen Jesusen Bihotz maitagarriaren Debozia. Hau an banatzen asi ta laster ekusi nuen Debozi onek an bere zain ta sustrai onak egiteko eskatzen zuela artako zen libruren baten intza ta euria, ta Loiolan egin nuen aldi piskan artu nuen hau egiteko asmo-gogoa; ta egin ere nuen garizumako nere sermoiak eta zortzi erritan egin nituen zortzi misio ez laburrak, misio berak eskatzen zituzten ibiller-egitekoak eta beste gauzak ango nere bederatz illetan utzai zidaten hasti piskan. Aita



Croiseten Franziko bat eskuan artu ta egin nuen euskerazko nere liburu hau; gis artan hau egiñik ekusi nuenean, ezagutu nuen hau ere niri Loiolan eragiteko izandu zela aldi artan Jangoikoak ni ara bidaltzea; bada ara ni joan ezpantintz, ez nuen urte artan beintzat liburirik egiñen.

Liburu hau an bukatu horduko izandu nuen Iruñeko kolejo berera itzultzeko ta berriz an maisu izateko ordena. Izandu ere nintzan urrengo beste bederatz urtez. Horduan ere, leneko gisan, estudi-tarteko hasti aldietan atera nintzan zenbat beste misio gitera, Jesusen Bihotzaren Debozio eztitua banatzera ta artako ziran errietan Bihotz beraren Kongregazio santak ezartzera. Len ezarri nituen anitzekin agitu zena ekusi ta esan zidan Bikari jaun fraide batek bere ta beste nerekin arkitzen ziran Eliz-nagusi jaunen izenean: «Aita, zure Kongregazioak iraunen ez dute otoitz-gaiezko ta artako diran libruz laguntzen ezpadi guzu».

Ezagutu nuen nik ere egia zela jaun ark esaten zidana, baña ez nintzan horduan artarako behar zen diña hastirekin arkitzen. Horduko nere egitekoen ta urte orien buruan bidaldu ninduten beste egiteko batez Madrilgo Kortera, ta nere egiteko hau an egin ta laster itzultzeko ustean Iruñetik atera banintzan ere, an lotu baten eran egondu nintzan urte ta erdiz. Ara ta laster ezagutu nuen angore nere egiteko onen luzanza; gogorra zitzaidan euskaldun on Bikario jaun ark len esana, ta kongregazioen kargudunei lagundu naiez ta beste euskaldun guzien onerako asi nuen iru liburu andiskotan arkitzen diran otoitz-gaietako lana. Nere lan onen bukantz an biztu zen horduraño illaren gisan egondu zen beste nere egitekoa ta esan dezaket S. Francisko Xavierren egunetik Jesusen Amaren Konzepti edo Askunz garbiaren urrengo egunen erdiraño edo amar egunez bezala asi ta bukatu zela hau ere; ta bukatu, nik eskatu nuen gisan ta eran, ta ezagutu nuen Jangoikoak baterako ta besterako eman zidan bide zela horduko nere Madrilla joate(a).

Madrildik Iruñera ta urrengo amar urtez haritu nintzan misio ta Kongregazi berriak egiten ta zarrak eta berriak zaitzen, bai ta euskaldun beren onerako ta orien Eliz-nagusi jaunen lan andia arindu naiez Kristau-dotrin ta Katezismo luze bat egiten ere. Hau nik bukatu ta laster artu genuen Jesusen Konpañiko guziok Espanitik atera ta Errom bazterretara etortzeko ordena. Orden hau aditze berean ekusi nuen zer esan ani zuen Jangoikoaren aldetik urt-erdiz lenago Jangoiko berak ongi maite duen batek gaztigatu zidan hitz edo mandatu misteriozko neretzat gordestali batek, eta hordu ezkeru banekien zer zen nere ibillet ta Italiko neke pisekin Jangoiko maitagarriak eragin nai zidana. Zori onekoa azkenean ni, hau nik ta Jangoiko berak nai duen beste guzia zuzenki egin ezkeru.

Geroztik nere erbestantzan ta an Errom-alde artan eragin zidana ekusi ta ikasi nuen lan hau ere an eragin nai zidala ta baterako ta besterako zela an eman zidan osasun, hasti ta toki ona.

An, Jangoiko maitagarriak ala nai ta, aldi artan nere gogora zen eliztar euskaldun anitzek zenbait aldiz adirazi zidaten gauz bat; eta gauz niri oriek emen Españan adirazia zen naiko zutela jai-igandeetako euskal sermoiezko nere laguntza. Ez-aditu egiten nien an nik oriei, zeren uste nuen behar adiña lagunduko niela esku-tartean nekarren ta emen bertan bukatu utzi nuen Kristau-dotrin Katezismo luzearekin; baña Jangoikoak artarako an eman zidan hasti ta gogoarekin artu nuen atsegín hau oriei egiteko asmoa ta nere eskuetara ziran libruetan arkitu dudán gai piskarekin ta Jangoiko maitagarri berak laguntzen zidala egin nuen oriek nai zutena ta zerbait geiago. Ta egin dut oriek uste baño geiago beren lana ta neke arintzen diedala. Ara nola ta ara zergatik.

Eliztar euskaldun jaunak egiten dira Eliz-jau ta predikari beren estudi guziak erdal-errien batean egin ezkeru. Estudiora joaten dira aur-euskara bai ta besterik ikasi bage, ta zekiten pisk orretan ere moteltzen dira angore beren lanak bukatu horduko; ta Eliz-jau ta predikari egiten diranean arkitzen dira aurtasunean diña euskar ere ez dakitela. Eliz-jau egiten diranak zerurako badira, beren euskaldun erritarrei igandeetan ta jaietan beintzat (Trentoko Konzilioz Jangoikoak dionaz) agertu ta adirazerakutsi behar diete Ebanjelioko doktrina ta zeruko biderako ta bizitz on baterako jakin behar dutena, ta adirazerakutsi beren hitzkuntzan ta errazki aldi dezakeen eran.

Badagikee beren lan andi hau hitzez ta predikuz, bai ta libruz ere, ta libruz egiten dute erdal erri askotan ta zenbait Obispadutan, ta egin nai duten guzientzat egiña da ta Obispo jaunak ontzat emana orretarako gure Aita Eusebio Nierembergek eginik utzi zuen Kristau-dotrin-katezismoa. Aren luze hau baño zerbait luze andiagora ta jai-igandeetako Ebanjeli guziak klaratzen dituen da Eliz-jaunentzat ta nai duten beste euskaldunendako bukatu utzi nuena Ital-aldera baño len.

Eliz-jau beren egiteko bererako orra orain berriro egiñak Ebanjeli berei dagozten irakurtz ta irakurraldi erderaz *Sermones* edo *Discursos morales* esaten diranak. Eman ani izandu diet izen berri hau, zeren egiñak diran gogoz ta memoriz artzeko nekerik bage ta eskuan artu ta pulpitutik edo aldaretik leituz ta hastiro irakurriz Eliz-jaunak errazki dagiten erritarrei jai-igandeetan erakusteko beren egitekoa. Hau egiten duten Eliz-jaunak ez dute bururik sartuko esan behar dutena gogoz ta memoriz artzeko arazotan, ez eta beste zenbait neketan ta esankizunetan



ere; bada gogoz arturik eta beren buruko gauza bezala esan nai balute irakurraldian arkitzen dutena, ez lukee hau bakarrik eta zerbait iratsi bage esan naiko; ta lan orretara baño len euskeran trebatzen ezpadira, nik eza gutzen ditudan S. Franciscoko fraide maisu euskal-gaitzeko errian jaiobat eta zenbait beste Eliz-jaun ta apaiz trebatu diran bezala, ta lenik ikasten ezpadute irasket orrek eskatzen duen dendaltza ta sermoi egitea, ez dut uste agertuko dutela pulpitan oial batezko soñekorik edo sermoirik eta beldur naz esan dezan aditzen dutenetatik batek edo bestek: «Orra gure Apezarena ta orra zein egia Aita Larramendik bere kartan Aita Mendibururi bein esaten ziona» (Kart hau arkitzen da Jesusen Bihotzaren Debozioaren euskarazko libruaren asi aldean). Libruan arkitzen den bezala ikasi ta esanagatik ango irakurraldia, libruaren berria duenen batek esan lezake: «Etzaio gure Apez jaunari anitz kosta esan digun sermoia». Eta gogotik zerbait joan ta esaten badu ordezkoren bat eta esaten badu aldi orrelakoetan esan oi den bezala, esan lezake orrek berak edo besteren batek: «Obeki egiñen zuen librua artu ta poliki irakurri baligu an arkitzen zuena».

Esankizun, arazo ta neke orrelakoetatik Eliz-jaunak ateratzeagatik, bada, egin dut librua sermoiez ez, baizik irakurraldiz edo diskursoz betea, ta beren lan andirako onen laguntza nai duten Eliz-jaunak aski dute jai edo igande bezperatik urrengo eguneko irakurraldia bein edo bitan irakurtzea ta leitzea, non puntuak, non komak edo non ta nola hitzen atsedentegi bakoitza arkitzen den kontuz ekustea ta oriek eskatzen duten eran, bein geiago, beste aldi gutiago ta dagokan eran geldituz urrengo egunean behar bezala irakur-leitzea. Hau egiten dutenak egiñen dute beren egitekoa, oituko dira euskar garbira eta erakutsiko diete beren erritarrei jakin behar dutena, bai ta zekitenaren gain zerbait euskal garbiren zati on ere.

Bi edo iru zatiz egiña da (ekusiko dugun bezala) irakurraldi bakoitza, ta Elizan egiteko anitz den egunen batez utz dezake Eliz-jaunak zati bata arratsalderako edo beste aldiaren baterako; bada prisaka ta gaizki guzia baño obe da erdia edo ditekera kontuz ta poliki irakurtzea. Irakurtzen zaien guzitik hitzik ere gal ez dezaten erritar gaisoak, irakurleak arkitzen badu libruan lenbizioan adituko ez duten hitzen bat, aren ondoan esan behar du ari dagokan ta guziak aditzen duten hura bezalako besteren bat; eta aditzen ezpadute zer den *laster*; iratsi ari aditzen duten *fite* ta esan *laster ta fite*; orrekin bigarren aldirako jakinen dute len aditzen etzuten hitzak esan nai duena. Hitzetan egiten dezuna egizu hitz-kuntzetan ere ta zure hitzkuntza bada *badijoa, mugaz etorri da, eman diozkat*

ez, baizik *badoa, garai onez etorri da, eman dautzat*, eta libruan arkitzen badezu lenbizikoa, aren irakurraldian esazu: *badijoa edo badoa, mugaz edo garai onez etorri da, eman diozkat edo dautzat*, eta gertatuko da hitzketan ere hitzetan geniona ta urte gutiren buruan len baño errazkiago elkar adituko dute euskal erriko Nafartarrak eta beste euskaldun guziak eta edertuko ta luzatuko da euskara.

Jai-igande bakoitzerako egiten dudan lenbiziko gauza da Ebanjelio bera euskaraz ezartzeak; baño behar den aldi klaratuz euskaldun gaisoak bestela adituko ez lukeen ango gauza. Hau bera egiten dut gero esaten dudanaren alde sartzen ditudan Eskriturako testo ta Doktoren hitz-kuntzen batzuetan ere.

Hau ta beste guzia egin dut nik nere ustez Jangoikoaren zerbait honra billatu naiez ta al dudan ona zur egiteagatik. Badut uste Jangoiko maitagarriak ontzat artuko dituela nere naikunz hau ta nere lan piska. Atsegin artuko dut, egiten badezu zuk ere hau bera.



I

Jai-igandeetako Eliz-irakurtzak.

Abenduaren lenbiziko igandeko irakurraldia

Et tunc videbunt Filium Hominis venientem in nube cum potestate magna, et majestate. Luc. 21.

Gaia: Ez bekaturatzeko gogoan erabilli behar dira iru gauza

Gaur Jesusek etorkizun izugarri bat agertuz arrerazi nai digu biza- giro dagokiguna, ta arrerazi nai, suleze infernu nekagarritik urrun-erazi ta zeruko ondasunez ta gloriz beterik uzteko. Artako gaur agertzen digun gauza da gure eriotza, eriotzari darraikon kontua ta kontuari dagokan gaiztoen neke gogorra ta onen betiko sari ona ta gloria, ta agerzen digu egungo bere Ebanjelio santuan esaten ta adirazten digunarekin.

Illak arkitzen dira gu baño len bizitu ziranak; illen gara (ta anitz luzatu bage) oraindik bizi garanok eta ill beharrak dira gure ondoren bizi-ko diranak ere. Azkenen ill-hordu hau urbilzen den denboran illunduko da, dio Jesusek, zeruko eguzkia, odoltuko da ango illargia ta galduko dute an bertako izarrak beren tokia. Aserretuko dira elementu guziak eta bel- durrez, gosez, egarriz ta lorik ezin egiñez igartuko dira horduko gizonak. Oriek ere alde batera batzuek eta bestera besteak illen dira ta lenago ilzen ez diranak illak utziko ditu azkeneko su, bazter guziak erreak eta auts egiñak uztera Jangoikoak aldi artan igorri-bidaldu beharrak.

Beren ill ondoko kontu guziak eman ta bertan beste guzien gisan biztuko dira azken-ill berri oriek ere. Oriek eta gu, bai ta sulezeko etsai amurratu guziak ere, bilduko gara Josafatko soro-aran andian. Hordu berean zerutik aterako da odei baten kataderan ta tronu guztiz egoki batean guzien kontu zorrotzak arzera datorren Juez andi Jesus Jangoiko- gizona ta fit-aski ta laster urbilduko da gu gauden aren-sorora; ta urbil- duko Jauntasun ederrez ta guzizko indarrez jaunzia ta anitz mill-milloi aingeru bere bi bazterretan ta inguru guzian dituela. An egiñen du Jesusek horduko bere egiteko zuzena ta gutatik bakoitzari emanen dio beraren leneko bizitzak eskatzen duen bidea ta saria.

Zeruko sariari dagokan bizitz on bat guri arrerazteko Apostol S. Pabloren egungo Epistolaren esaten digu Jesus maitagarriak: «Jaiki-garai ta (bekatuko) loaren utz aldia etorri da; alde bat, bada, jan-edan makurrak, aragiaren zikinkerri loitsuak, ondasun-kontu galgarri guziak, gudu-erriet- tak eta auzi-pleituak, bai ta antuste arro ta gogoaren erakeri utsak ere ta argizko armak arturik ibill garbiro zeruko bidez ta behar den eran». Orra, bada, bi gauz dira Jesusek orain bere Apostoluz ta gero S. Joanen ezañez dionaz, bizitz on batek eskatzen dituenak eta eriotz obero zuzenki daramatenak; bata da mundu galduaren gauzak eta aragiaren, ondasunen ta antuste arroen naikunz errebes-eroak alde bat uztea, zeren guziak diran mundu galgarriaren gauz galduak: *omne, quod est in mundo, concupiscentia carnis est, concupiscentia oculorum, et superbia vitae* (1 Joan. 2,16); ta bestea ongi ta Jesusen eran bizitzea. Bi gauz orietako gaur berak agertzen digun bidea da argizko armak artzea edo zeruko argiarekin geren eriotza ta mundu galduaren iru gauz oriek kontuz, maiz ta ardura ekustea; bada oriek guk ongi ta maiz ekusi ezkerro, ezagutuko dugu orien ezer-eza, ta oriek utzi ta billatuko ditugu zeruko ederrak eta egiñen dugu billanz onek eskatzen duen bizitza. Asi gaitezen oriek ekusten ta ekus dezagun lenbi- ziko aldian.

§ I.

Aragiaren atseginz txarren deus gutia ta nekagiro gogorra.

Munduko anitzek leneko ero zenbaiten aide urbillak dirudite; bada aldiak ematen dien guzian orien gisako erakeri txarretan hari oi dira. Leneko eroak uste zuten gorputzaren eriotzarekin ilzen dela gure anima, zezenarena bezala, ta orregatik ibilli oi ziran al zituzten emengo atsegintzen ondoren, elkarri esaten ziotela: Ots emazue, bigar edo fite ta laster ill beharrak gara gu guziok eta hordurik galdu bage ar ditzagun al ditugun atsegintzak: *venite, et fruamur bonis, quae sunt, et utamur creatura... celeriter* (Sap. 26); ta hau bera da diogun oraingo eroak egiten dutena, aldia datorten aldian emengo gauz txarren ta atsegintzen ondoren ibiltzea, atseginz oriek izanagatik Jangoikoaren legez debekaturik edo perillez beteak arki- tzen diran gauzak. Begir egiezu ezperen aisa bizi diran munduko zenbai- ti ta ekusiko dezu gogoak ematen dien gauzen billan dabilzala goizetik



arratseraño ta bitarte guzian dakarten egiteko ta lana dela hordu osoak hitzket erotan galtzea, begiak eta gogoia nai dituzten leku ta toki guziak ekusten erabilzea, jan-edan luzeak eta beroak egitea ta beren pasione sutu-galgarriari ta aragi galduari al dituzten atseginz zikiñak ematea.

Begir egiezu haste guzia lan-tartean ta neketan daramaten beste zenbaiti ta ekusiko dezu jai-igandeen zati andiak eta duten piska borondegiko euli egiñak edo edantegi gaiztoren batean edo joko galgarrian sartuak eta tripazanzan galdu oi dituztela.

Begir egiezu gazteetatik anitzi ta ekusiko dezu orien egiteko ta naikunz guzia dela mutil-neskak (eta jai-igandetan berezkiago) elkar ekustea, elkargana biltzea, eta elkarrekin jostatze ta ez dagozten jan-edanak eta beste gauzak egitea. Eta orra oriek eta orien erako beste guziak len genion eroen aide urbil edo lagun egiñak.

Zergatik uste dezu? Zeren gogoratzen etzaien beren antust-arroen, tripazanz beroen ta aragiaren atseginkunz makurren ezer-eza, ez eta gauz oriei beren ill-denbor illunean ta geroko sekula guzian emanen dien nekagi gogorra ta naigabenz urratzalle amurragarria ere. Ill ziran leneko eroak eta orien eriotzarekin bukatu ziran orien arrontz, atsegintz eta ondasun guziak; baña bukatuko ez dira oriek oriekin irabazi zituzten betiko neke-tormentu madarikatuak, eta mugaz ta lenik uzten ezpadituzu zere langiro gaizto eroak, azkenean leneko ere beren betiko bazter amurratura jaitziko zara zu ere. Zu ara ez jaisteko bidea da artako len errege David bekatariak beretzat artua ta aren gisan erakeria dela aragiaren naikunz makurra ezagutzea: *vanitas, et ilusio est carnis concupiscentia* (S. Joan Chrys. sup. *Lumbi mei impleti sunt illusionibus*, Ps. 37, v. 8); ta munduko arrotantz ta ondasundi guzien ezer-eza ekusi ta orien bidez egiñaz ongi damaturik berriz ez orien bideratzea, ta artako bein ta berriz ta askotan gogoan artzea. Len edo gero aitortu beharko dezu egi hau David beraren seme andi Salomonek adiña atsegintz, ondasun ta honra izaten bazenitu ere, bereen buruan onek aitortu zuen bezala.

Jangoikoak emanik izandu zuen errege Salomonek bestek ez diña jakiunz-honr-ondasun ta atseginz, bai ta anitz eta anitz geiago ere. Bere jakinzarekin ta zituen ondasun andiekin egin zituen sekulan ekusi etziran atseginz-tegi eder galantak. Etxean ta ez etxean bazituen errege onek begi, trip, gogo ta aragiaren naikunz guziak asetzeko diña gauza, ta guzia guztiz egokia ta ezin obea; eta izandu zuen ark hau beti-beti bere erre-ganz luzean ta ill arte guzian, ta izandu ez ezik, artu ere bai kupide bage ta gogoak ematen zion aldi guzietan. Baña azkenean ezagutu zuen beraren aita Davidek bezala, ezer-eza ta erakeria zela hau guzia; baña ezdaki-

gu bere ezagunz guziarekin ere atera ote zen bere erakeriagatik zeraman sulezeko bide galgarritik.

Atera zaitzen ortik zu, bide orretan arkitzen bazara, edo ara etzozazen, oraindak an sartu ezpazara, ekus zazu bein ta berriz ta maiz ere zere ill beharra, bai ta emengo atseginkunz zikiñen ta beste gauzen ezer-eza ere; bada bi gauz oriek ongi ta maiz ekusten badituzu, gogoan sartuko zaitzu zeruko atsegintz-tegi garbi ederra, bai ta erio gaiztoari darraikon neke izugarriaren beldurra ere, ta neke orien beldurrez ta zeruko atsegintzak ez galtzeagatik aisa utziko dituzu erio gaiztora daramaten gauzak eta aragiaren loi zikin laburrak.

Bai, laburrak dira emengo atsegintzak, bada aurtan bukatzen dira aurtan artzen diranak; gazte denborako guziak gaztetan ta zartu bage, ta geroko beste guziak emengo gure biziarekin; ta gure aur denbora, gazte denbora ta beste gure denbor guziaz tximenitik atera ta laster galtzen den kea bezala da, dio Santiagok: *vapor ad modicum parens* (Jacob, 4,15). Bizi(t)z onari darraizkon atsegintzak dira atseginz andiak eta atseginz betiko luzeak: *aeternum gloriae pondus*. Ar zatzu, bada, gogoan arduza ta maiz batac eta besteak, lurreko txar laburrak utzi ta zeruko andi luzeak billatzeko. Billatze bererako lagunduko dizu era berean ekusteak.

§ II.

Lurreko gauzen ezer-eza ta bukanz labur galgarria.

Lurreko ondasunik andienak ere ezer-ezeko edo ezer gutiko gauzak dira, ta gauz, anitzentzat beintzat kezka beteak eta bukanz agitz gaiztozkoak. Bai, kezka beteak; bada izerdi ta neke andiarekin biltzen diranak dira ta nolainai bilduak izan, bildu ondoan galdu edo aitu ditezen beldurrekin jabearen bihotza kezka, aranzez ta arazoz betetzen dutenak beintzat, an, emen, jokoan, tripazanzan, atseginkunz zikin zenbaitetan edo egin behar ez litzaken beste gauzaren batean gastatzen asi ezker; ta neke da ondasundun aberatsak bide batez ezpada, beste artara bage luzaro irautea ta bere burua bekatuz bad-ere ez kezkatzea; zeren, esan oi denaz, aberatsa den gaiztoa edo gaiztakume, bere aitaren bidez ibilli oi dena: *dives aut iniquus, aut iniqui heres*; ta alakoa bizitzan ere bai, baña eriotzeko hordu illunean ta ifernuan gero suzko negarra dariola esaten ta esa-



ten beti-beti egon beharra: «Zer atera genuen geren diru, izate ta ondasun guzitik?»: *divitiarum jactantia quid contulit nobis?* (sap. 5,8). Egin dugun gaiztaginza ta emen infernu sutuan dugun neke ta tormentu amurragarri kezcaria ta sekulako damu ta atsekabe agitz mindua!

Nolerenai azkenean aberatsak eta ondasundun guziak dira errumes, behartsu, ameslari baten gisako gizonak. Inditar, ondasun guzien jabe dela errumes batek amets egiñagatik, iratzarzen den aldian arkitzen da lotara zen horduan bezain behartsu ta gabe, ta ondasunik geiena izaten duten aberatsak ere ill horduko arkitzen dira errumes ameslari hau bezain gabe ta behartsu, ta beren esku utsak ekusi ta ezagutzen dute ameslari baten gisakoa izandu dela orien bizitza ta ondasundi guzia: *dormierunt somnum suum, et nihil invenerunt omnes viri divitiarum in manibus suis* (ps. 75,6). Hau ezagutu dute Españan, Franzian ta Alemanian ill diran errege ta enperadore andiak, bai ta beste bazter guzietako aberats andi txiki guziak ere, ta orien artean Salomon jakintsu munduko aberatsenak; bada ardit bat bage atera dira mundutik onen ta ill diran ondasundun beste guzien animak. Era berean aterako dira gañerako guzienak ere ta beren zor txiki txar baterako ere etzaizte baliatuko izandu zituzten urre te zillar guziak: *argentum eorum, et aurum non poterit liberare eos in die irae Domini* (sphon. 1,18).

Lurreko gauz-ondasunen ezer-eza onen ta ondoren galgarri amurragarri gogorraren ezaguntzak eta noizean beingo oroitzapen kontuzkoak eskurako du, bai, erotu ez den edozein zenzakor, ta bere izanen ta ondasunen arte berean ere eragiñen dio dagokan bizkunza ta landi ona ta erabilliko du ondasun-bage baliz bezain lasai ta dituen ondasun guzietan ematen diela dagoten bidea edo ondasun-gauz berekin berepeko gauzak zuzenzen, hume guziak ongi azitzen, dituen zorrak ateratzen, bekatu zarren zorrak urratzen, berri guziak urrun-erazten ta anitz gauz on egiten dituela ta ondasun galgarririk ezpalu bezala garbiro ta Espiritu Santu jaun berak nai duen gisan ta eran dabilela: *divitiae si affluent, nolite cor apponere* (ps. 61,11). Hau da ondasundun guziak egin behar dutena ta egiñen ere dutena, kontuz ta maiz ekusten badute beren ill-behar urbil dabilena ta beren eriotzak kenduko dieztela dituzten gauz-ondasun guziak; baña ez ondasun oriekin egin dituzten, (egiten badituzte) bekatu galduak eta oriei darraizten betiko neke-tormentuak.

§ III.

Antuste arroaren ezer-eza ta bukanz galgarria.

Gaizki ill ta betiko gal ez gaitezen aragiaren lan-gai zikiñen ta ondasunen bide makurren gisan, burutik kendu behar ditugu gogo gaiztoaren antust eta arroket eroak, eta oriek ere beste bi gauzak bezain aisa ta agitz errazkiago kenduko ditugu, kontuz ta maiz ekusi ezkeror orien ezenz eroa, ta beste biena baño agitz errazkiago ezagutzen da orien ezenz ero edo ezer-eza, ta erakeri hau; hau alabaña uste utsa da, dio Apostol jaun S. Pablok, bada dio: «Uste duenak bera, berez ta lagunik bage, bai dela zer edo zer, ez daki zer esaten duen ta uts egiten duen gizona da»: *si quis existimat, se aliquid esse, ipse se seducit* (Gal. 6,3). Eta bat berez edo Jangoikoak eman ta duenagatik zerbait den aldian ere, andik arzen duen antust arroa, bera ta beraren edozein beste gauz baño len bukatzen den ezer-eza da, bai ta artako duen gaia Egiptoko erregein andi Cleopatrak bere baterako izandu zuena bezain andia den aldian ere.

Erregein Cleopatra zen bere aldian munduak zuen dam-andrerik ederrena. Gazterik eta mugaz ezkondu zen Erromako enperadore Marco Antoniorekin. Marco Antonio urrutitik zijoan aldi batez, urez atera zen aren bidera, ta atera zen zituen edergarri andiez jaunzia ta agitz apaindua. Urrezko plantxer estalia zeraman bere itsas-ontzi guzia. Zaldunak ziruditen ontziko mariñel guziak. Gañetik zillarrez estali ta zeuden orien arraunak eta egiten zituzten beren arraunkak artako zeraman musikak adirazten zien aldian. Urrezko ariz egiña zen onziko bandra, granaz gorritu-ederrak ontz-egal-belak eta sed urdin-zuri-berdez egiñak. Berekin ta toki agerian eraman zituen eun donzell agitz ederki jaunziak eta orien erdian ta guzien buruei gañez egiten zien tronu urrezkoan arkitzen zen bera, itsaso guziaren erregein zirudiela. Zer antust-gaiak aldi artan ark an zituenak! Baña noizdañokoak? Bere ibiller-aldia egin ta etxera artekoak. Eta aren erreinu andi ta beste gauzak? Beraren azken hordurañoakoak.

Noiz argana zen aren ill-hordu hau? Fit aski ta laster, bada argana zen ogei ta amar urte zitueneko; ta argana, berak berariz deiturik eta suge bati bere ozkarekin zuen izurri guzia bere bularrean sarrerazten ziola. Zer egin ziran aren antust-arroa, guztizko edertasuna ta billatu zituen edergarri guziak? Aize ta auts. Eta beraren anima gaisoa? Infernuko sugai ta ikatz belz itsusi. An datza geroztik edo bi milla urtez bezala nekez



ta tormetuz betea; an bertan ta era berean egon beharra da sekulan, beti ta eternidade guzian; ta an egon beharra, ark eta hura bezalako beste emen arrotu ziran guziak, esaten dutela: «Zer da geren antust arrotik atera duguna?»: *quid nobis profuit superbia* (Sap. 5,8).

Orra, mugaz uzten ez diran arrotasun eroen, aragiaren loikeri zikiñen ta lurreko beste gauz galgarri guzien bukanza; eta bukanz, gauz beren jabea ill bezain laster galdurik uzten dutena! Gal etzaitezen, bada, zu ere ta zori tristeko Cleopatra erregiñarena bezain gogorra izan ez dedin zure bukanz eta zoria, idiki maiz zere begiak kontuz ekusteko urbil dabillen zure eriotza, ta zere gogotik utzi ez, erio gaiztora eraman deza-ken aragiaren loikeri galdua, lurreko gauz galgarri txarren ezer-eza ta antuste eroa.

Begira, oriek guziak zure bizitzaren bazterrean geldituko diran gauzak dira; orietatik batek ere ez dizu lagun egiñen beste bizitzan. Arako zure lagunak dira emengo zere gauz oriekin egiten dituzun gauz onak edo gaiztoak. Gaistoak utzirik, bada, ta zere buruko arrotasun galgarri guziak lerzen dituzula, bai ta aragiaren naikunz zikiñak eta ondasun zureak eragin litzaken gaiztaginz guziak ere, asi zaitzez gauz on anitz ta bizitz berri bat egiten, bere aldian egin dezazun eriotz ohea ta gero erdits dezazun Jesusen sentenzi ona ta sekulako gloria. Orretarako noizean bein gogoan artu zere fite ta laster ill-beharrak eta aldi onetan adirazi dugun beste guzia. Bai arren, bai.

II Abenduaren bigarren igandeko irakurraldia

*Ecce qui mollibus vestiuntur, in domibus regum
sunt.* Matth. 11

Gaia: Zerurako denak osatu behar du
bataioko bere hitza

Mezako irur otoitzetan eskatzen diozka gaur Elizak Jangoikoari iru gauza: lenbiziko otoitzan eskatzen dio geren aldetik guganako etor-bide zuzen bat Jesusi egiteko grazia; bigarren otoitzan otoitz humillez bera guk palakatzeko eskua ta laguntza, ta azkenekoan eskatzen dio sendor gaitzala komunioko bere sakramentuz ta digula emengo erakeri guziak utzi ta zeruko ondasunak eta glori ederra billatzeko naikunz andia. Naikunz andi hau gure gogoan ongi sartu naiez ta lurreko gauz galgarri atseginz debekatu ta arrotantz eroak begitan arrerazteko agerzen digu Jesusek meza bereko Ebanjelio santuan S. Joan Baptistak len onetan egin zuena; ta agerzen, esanez bere aldean zeduzkan zenbait S. Joanen alde esan ziena. «Nor dela uste dezue» (esan ta adirazi zien Jesusek, bere basotik etorri ta Jordango bazter orietan sermoi ta prediku hari den) «gizon hau? Hau dela uste dezue antustez ta arinkeriz burua beterik dakarren ta aizeak alde batetik bestera darabillen kañabera bezalako giza txar arroren bat? Hau dela uste dezue olandez, eun meez, soñeko leunez ta sedaz jaunzirik dabillen gizona? Jauregitar andiak (eta orien gisan arinki ta aragiaren gogara dabiltzanak) dira era orretan ibilli oi diranak».

«Oriek eta orrelako beste guziak baño geiagoko gizona da S. Joan Bautista; bada profeta da», zion Jesusek, «gizon hau, ta profet baño ere geiago; hau da alabaña Eskritura santako aingerua edo aingeruarena dirudien bizitza dakarren gizona; ta gizon, nere bideak egitera ta zerbait nere berri ematera Jangoikoak igorri ta bidaldia; hau da, bai, zuek ekusten dezuten eran bizi bad-ere, bere amaren sabeletik asi ta orain arte guzian gizon santua; ta santu, aurtasun beretik eremu batean sartua, soñeko latzez jaunzia ta jateko txar-min laburrekin azia; ta azkartu ta ere, ta geroko bere predik denbora guzian len bezain gogorki jaunzia, baru ta



baru ta penitenzi bizitua, munduko arinkeri, ondasundi ta antust guziak bere oinpera dituen, ta bataitzen dituen beste guziei bizimodu bera erakusten diena». Orra aldi artan S. Joanen alde Jesus maitagarriak esan ta adirazia.

Baña zer ote da Jesusen esate ta laudanz onekin ta ekusi ditugun mezako iru otoitzekin Elizak gaur adirazten diguna? Zeer? Gogo aroko antust eroak eta soñeko leunen erakeri guziak utzi ta geren bataioko egunean artu genuen karga arinki ta ill arte guzian utzi bage eramatea ta egun artako gure hitzak ziona ta Jangoikoaren legeak eskatzen duena zuzenki egitea. Nola hau egiten ote da? Orain zuk ekusiko dezun gisan ta eran.

§ I.

Zeruko bidea da Jesusen Elizako bizitz humil garbia.

Jaio ziñan horduan etziñan zu Jesusen Elizakoa, ez eta zeruko bidekoa ere. Bide zuzen onetara naiez, Eliz atarian jaso zinduenaren ezpañez eskatu zenion Jangoikoari bere bataioa. Eliz batailleak eranzun zuen emanen zizula eskatzen zenuen bataioa ta bataioko fedea ta grazia, egin nai bazenituen eliztar onak egiten dituzten gauzak.

Galdegin zizun gero egin nai zenituen ziran guziak. Baietz zuk bataioko zere jaslearen hitzez eranzun ta eman zizun zere bataioa ta Jangoiko maitagarriak bere grazia.

Hau ekusi ta, «Ots, bada», esaten dizu Doktore andi S. Ambrosiok, «gogoan ongi artu ta iduki, horduan zuri galdegin ta eskatu zitzaizuna, bai ta zuk zerorrek erantzun zenuena ere»: *repete, quid interrogatus sis: recognosce, quid responderis*. Ongi zuk hau ta zure bataileak aldi artan galdegin zizun beste guzia gogoan artu ezker, jakiñen dezu orren ariña ez dela zere soñean ta gain orain zuk dezuna; bada galdegin zizun utziko zenituen deabru gaiztoak agertu ta erakutsi dituen ta mundu eroak beretzat daduzkan antust, arinkeri ta apainket arroak: *abrenuntias Satanae... et omnibus pompis ejus?*, ta «Bai, jauna», eranzun zeniola zuk: *abrenuntio*. Zugandik hau aditu ta «Ongi, bada» esan zizun zere bataile berak; «baña begira, Jangoikoaren legeak eskatzen duen gisan zuk hau ez egitera, ez da zuretzat zerurik»: *si vis ad vitam ingredi, serva mandata*.

Orra, bada, ez du Eliz bidez ibilli ta zerura nai bataioz eman zuen hitza ta Jangoikoaren legeak eskatzen duena egiten ez duenak, eta egiten ez duen gezurti gaiztoari zeruko gloria eman lekuan, bere hitza autsi ta bataioko tratua urratu zuenari bezala, kenduko dio Jangoiko Juezak bataio berean eman zion grazia, fede santaren prend eta gai ederra; ta emanen dio beraren urrantz oni ta gaiztagintz itsusiari dagokan saria ta sulezea; multaturik gelditzen da alabaña multapean egin zen iguala austen ta urratzen duena, ta mult orren pean artu zituen bataioz bataitu zenak Jangoikoaren grazia ta zerura ustea. Sulezera bage, bada, ta grazidun ta zerurako deretx-eskuarekin gelditu nai duen bataituak osatu behar ditu bataiko bere hitza ta tratua ta betiko utzi munduko erakeri, soñeko, arrotanz eta gogo eroaren antuste guziak.

Hau da Jangoikoak ebanjelari S. Joanen ezpañez esaten diguna, bada esaten digu: «Begira, ez onetsi, ez maitatu mundu eroa, ez eta mundu onetan arkitzen den gauz galgarrikeri ere»: *nolite diligere mundum, neque ea, quae in mundo sunt* (1 Joan, 2,5). Hau bera esaten digu ta agitz argiroago S. Pablok, bada onen ezpañez esaten digu: «Biz bitez bataitu guziak munduarekiko illak bezala ta munduaren usanz eta ibiller txarrei begiratu ere bage; bada mundu ero galgarriarekiko, Jesus bera eriotzez bezala, beren bataioz illak dira»: *consepulti estis cum Christo per Baptismum in mortem* (Rom. 6,4), eta ekusten dezu emen bizi zen denbor guzian ill baten gisan izandu zela munduarentzat Jesus maitagarria. Zein humilla ta arrotanzik bagea aldi artako Jesusen bizitza! Zein gutikoa denbor bereko Jesusen jauntzi-soñekoa! Zein egoki-zuzena Jesusen hitza eta jolas bakoitza! Zein garbia ta behar zen gisako Jesusen sartu-atera ta ibiller guzia! Bai ta non nai agertzen ta egiten zuen guzia ere! Bada era berekoa izan behar du zureak ere, izan nai badezu bataitu ona ta Kristo jaunak bere Eliz santan egin zigun bidez dabillen ta zerura igan nai duen fededuna.

§ II.

Alakoa izandu zara oraindañoan zu? Begitan artuak iduki dituzu munduko erakeri ta arrotasun guziak? Ez dezu noizbait apaindu zere buru txar ori Jangoikoak bataioz debekatu zizkitzun erakeri zenbaitetan ibilzeko? Ori da Jesusen bere ibiller humillarekin zuri erakutsia ta zuk bataioko grazia ta zeruko gloria erdits-naiez bataio berean Jangoikoari agindu zeniona ta hitzez esana?



Al dituzun apainket eta edergarri guziak soñean artu ta danzez danz ta festez fest arroturik ibiltzea, ta ekus zaitzakeen begi arinei zere burua agertzea da mundu eroaren ta deabru galgarriaren langiro gaiztoei osti-koz ematea ta Jesusen Elizako bidez ibiltzea?

Nai ez dezun hitz bat aditu horduko bazterrak asaldatzea, uste zenuen agur bat egin ez dizunagana begi zorrotzak irautzea, zurea zela uste zenuen gauza auziz ta pleitoz eskatzen zizunarekin andi gelditzea, era bereko beste gauzaren batekin barrenez erretzea, zere mihira dator-kizuna esatea, Jesusek agertu digun ta geren bataioz Jangoikoari agindu genion humiltasuna da edo mundu eroak bere lege makur ustelekin era-kusten duen antuste ta arrotasuna?

Zu bazara era onetako bataitua edo lenago agertu ditugunen gisa-koa, zara zere bataioan munduarekiko Kristo Jaun bera bezala illa ta orzia, edo zara bataio berean eman zenuen hitza urratu ta munduko era-keri, arrotasun, antuste ta naspil galgarritan sartua? Ez da zuk zer eran-zun; ekusten dugun gauza da.

Gis onetako bataitua txarrak gure Jangoiko bizi-egitsu ezin obearen legerako baño agitz obeak dira Babilondarrak Jainkotzat artu zuten idolo txar baten legerako. Idolo hau Babilondar berak zur puskaz egin zuten giz-anza zen, ta ginz-anz agitz itsusia; baño urrez ta zillarez ta beste apai-garriz gañetik edertua ta orregatik zen arrokeritan ta gogo zikiñak ema-ten zien gauzetan zebilzan Babilondarrenzat Jangoiko guztiz egokia; bada Abacuk profetak dion bezala, azala baizik etzen Jangoikoa zen idol hau ta orregatik zen Babilondarrak nai bezalakoa ta orien gaiztaginzak eta erakeri galduak kastigatzeko eskurik eta indarrik etzuen Jangoikoa; ta Jangoiko, orien gaiztakeri berak ekusteko ere bururik eta ezagunzik etzuen: *ecce iste coopertus est auro, et argento, et omnis spiritus non est in visceribus ejus* (Habac. 2,19).

Hau bezalako Jangoiko bat nai lukee antust arroan ta erakeritan dabilzan bataitua galduak, gogoak ematen diena emen egiñagatik nekerik bage ta libre gelditzeko emen ta beste munduan; baño ez dute oriek ori ekusiko sekulan, ez, ez; ta bizi diran aldian utzi ezkeri bataioko orien hitzak eskatzen duena ta egiten dutela Babilondar ero-arroak egiten zuten lan debekatu gaiztoa, bere aldian arkituko dute guzia dezaken Jangoiko, betiko nekadi bukanziki izanen ez duen tormentu-pill guztiz izugarri bat ematen diena.

Jangoiko hau da gauz guzien egillea ta jabea; ta jabe ta jaun, Babilondarrei, nafartar, giputzar, espaindar ta edozein beste aldetan ilzen diran guziei beren ibiller zuzen-makurren kontu estu-ertsia arzen

diena ta bakoitzari betiko bere saria ematen diena; humilki ta garbiro bizitu denari zeruko atsegindi andi ederra ta betiko gloria; ta bataioko bere hitzaren urratzaleari ta an ta emen ta gero arrotu ta bere gogara ibi-lli denari suleze izugarriko neke-tormentu guzia. «Ala da, bai», dio Eskritura Santan Espiritu Santuak, bada dio: «Onaren begira dago bera-ren bizitzari dagokan sari ona, ta ez da irriz ta farrez ibilliko emen bere gogara dabillen arrotzar antustaria; ba-da alabaña nori berea ta dagokan bidea emanen dion Jangoikoa; ta Jangoiko, nai duen guzia dagikena»: *utique est fructus justo: est Deus judicans* (David, ps. 57, v. 12).

Sekulako bere kaltearekin ekusi zuen hau Torquato zeritzan gizon bataitua batek. Agertu ziran bein hau ta beste bataitua Tiburcio bat, zitza-ken bataitua guziak galtzen zebillen juez baten aitzin tribunalean. Galdegina zion an juezak Torquator batak zion ta Kristo Jaunaren lege-koa. Baietz, eranzun zion Torquatok eta egia zion; bada bataitua zen ta fededunen artean zebillen gizona; baño gizon batai-azala baizik etzuen. Bazekien hau an arekin agertu zen bataitua ta fededun on S. Tiburciok, bai ta nolakoa zen aren bizkunza ere, ta bideak ala eskatzen ta, «Bai, jauna», esan zion bien juezari, «bataitua zen hau bere aldian beste anitzen gisan, baño denbor da bataioko bere hitzaz azturik bizi dela, beraren soñeko apaindu leun arroak eta begirun ta egoer ariñak adirazten duten ta zero-rrek fite-laster ekusiko dezun bezala»: *quam primum agnosces, qualis iste christianus sit*; ta ekusi ere zuen, bada Torquatok martiriko tormentuz bizia galtzeko beldurrez galdu zuen bataiko fedea ta bere anima.

Hau bera agi-gertatuko zaio bataitua arro arin antust-aizeen ta atse-ginzen ondoren dabillen beste edozeni ere. Bitart orretan ori ekusten dutenak asiko dira esaten lendanik Dabidek adirazi ziguna, esan zigun aldian: «Orra, orra ori, Jangoikoz baliatzen ez den ta berezkoa dirudien gizona edo emakumea! Orra bere zillar-urreekin ta dituen beste ondasun guziekin zoraturik arkitzen dena ta bere burua agertu naiez ta antustez beterik dabillen eroa!»: *sed speravit in multitudine divitiarum suarum, et preva-luit in vanitate sua* (Ps. 51,8). Egi garbi garbia da aldi orretan oriek esanen dutena; bada S. Bernardok dionaz, «zenbat-ere bat bere buruaren apain-zan sartuago, Jangoikoaren amorean anbat galduagoa»: *quanto amplius in compositione corporis laetatur, tanto magis a supremo amore disjungimur* (Serm. 9 de modo bene vivendi). Zergatik, uste dezu? Zeren apainket oriek egiten diran norbaiten gogo beretu naiez edo ekusle eroen begian beren buruak ederrerazteko, ta hau egiten dutenentzat ezpaliz bezala den Jangoiko maitagarria. Eta Jangoikoaren zer amore, leioan, klean, plazan, danzan ta ekusiko dituztela uste duten beste edozein aldetan ez ezik, Eliz



berean ere hau egiten dutenen bihotz loitsu galgarrian? Ekusten dezu: S. Bernardok zion, lureko amoreetan trukatua. Beren buruen gis orretako apainkariekin hitz egiten zuen Isaias profetak ere, esaten zuen aldian: «Zori gaiztoko humeak erakeriaren sokaz loturik zeren gaiztakeria dakar-zuenak»: *vae qui trahitis iniquitatem in funiculis vanitatis* (Isai. 5,12); bada soñeko arrokeria ta apainketa berez ez izanagatik gaiztakeria, izan oi da gaiztakeritan bukatzen den gauza, zeren andik etorri oi den edo apaindu arro beraren naikunz gaiztoa edo ekusten dutenen naikunde galgarria, bai ta, askotan beinzat, humeen azkunz galdua, itxeko biziaren ta lanen naspilla ta ekusten dutenen errankizuna, murmuranza ta gal-bidea ere.

Noizdaño, bada, bataitu txar eroa, ibilli uste dezu orren itsu ta munduko arinkeri arroten sartua?: *fili hominum, usquequo gravi corde: ut quid diligitis vanitatem* (Ps. 4,3). Idiki zatzu noizbait begi oriek ekusteko ongi dago-kizuna. Hau da bataioko iturri garbian eman zenuen hitz onean beti bizi-tzea ta mundu galgarriak bere erakeriren batera deitzen zaituen aldian oni Jepte israeldarren juezak bein esana erantzutea: «Jangoikoari eman nion orrelako guazarik ez egiteko hitza ta ezin dagiket»: *aperui os meum ad Dominum, et aliter facere non possum* (Iudic. 11,35), ta ez ara joatea.

Eta noizbait jaunzi behar badezu soñeko oberen bat, esan Ester erregin onak era bereko aldian esaten zuena: «Jauna, badakizu» (zion ark), «begitan artuak daduzkadala onelako egunetako apainket arroak eta ezin bestez nere soñeratzen ditudala»: *tu scis necessitatem meam... tu scis, quod abominer signum superbiae, et gloriae meae, quod est super caput meum in diebus ostentationis meae* (Esther 24). Esazu, bada, orrelakoa aldian zuk ere: «Nere gogo guzia ta naia da, Jauna, bataioko nere hitza beti osatzea, humil humilki bizitzea ta nere gauz guzietan zuri atsegin egitea». Egiten bade-zu, egiñen dezu bataitu on batek egin behar duena; iraunen dezu bataio-ko fede santan ta grazian ta irabaziko dezu zeruko gloria. Jangoiko mai-tagarriak dizula artako behar den grazi guzia. Bai arren, bai.

III Abenduaren irugarren igandeko irakurraldia

Dirigite viam Domini. Joan. 1.

Gaia: Jangoikoaren serbitzuko
naginzatik datoz anitz kalte

Jangoikoagana gu zuzenzen dabill Eliz Ama santa ta mezan zuzen-zen gaitu Jesusen Ebanjelioko hitz onak eta Espiritu Santuak adirazi dioz-kan gauzak agerzen dizkigula. Egungo Ebanjelioko hitzak Jesusi dagoz-kanak eta S. Joan Baptistak esanak dira, ta mezako irur otoitzetakoak Ebanjelio bereko hitzei darraiztenak. Ekus ditzagun batak eta besteak, zer nai duen gugandik gaur Eliz berak edo Jesus maitagarriak ekusteko.

Ikasi zuten Jerusalemgo kargudunak eta gizon jakintsu andiak S. Juan Baptistak bere eremutik atera ta hitzez ta urez Jordan aldean egiten zuena, ta jakin naiez zer giza-giro zen predikari berri hau, argana igorri ta bidaldu zituzten beren arteko zenbait apaiz ta lebita. Oriek hura ekusi ta laster galdegin zioten: «Nor zara zu?», ta galdegin zioten jakin naiez ote zen Kristo. Ezagutu zuen S. Joanek orien barrengo gogoa ta oni ta egin zioten galkunzari eranzun zion: «Ez naz ni Kristo». «Nor, bada? Elias?» esan zioten mandatari berak. «Ez», eranzun zien S. Joan Baptistak. «Beste profetaren bat?», galdetu zioten berriz. «Ez eta», eranzun zien santuak. «Zertako, bada, sartu zara, esan zioten, orrelako gizo-nen egitekotan?». Eta Santuak behar zena eranzun ta galdegin zioten len-biziko aldian bezala: «Nor zara, bada, zu?»; ta eranzun zien horduan aiei ta orain guri dagokiguna; bada eranzun zien: Ni naz eremuan ojuka dagoenaren hitza ta otsa, ta nik diodana len ere Isaiasek zuei adirazia da, ta onek eta nik dioguna da: Zuzen zatzue ta prestatu onez datorkizuen Jaunaren bidea: *dirigite viam Domini.*

Egiteko berera zuzenzen ditu Elizak mezako irur otoitzak, bada lenbiziko otoitzan eskatzen dio guretzat Jangoikoari ken ditzala bere gra-ziaren argiarekin buruko gure laño ta illunzak, guk obeki ezagu dezagun S. Joan Baptistak adirazi digun egitekoa. Bigarren otoitzan eskatzen dio geren egiteko hau debozki ta biziro egiteko grazia, ta irugarrenean orain-



dañoko gure utsen barkanza ta birtutez geren barrenak apaindurik, Jesus jaio-berria ekusteko ontart eta faborea.

Orra nola darraizten Elizaren egungo mezako otoitzak meza bereko Ebanjelioko hitzei; bada Ebanjelioko hitzak agertzen digute geren egitekoa ta Elizaren otoitzak eskatzen diote Jangoikoari ori guk ongi egiteko grazia ta lagunza. Eta orra, Jesusek gaur Elizaren eskuz ematen digun egitekoa da naikunz epelak eta nagitasun galgarri guziak utzirik ongi, debozki ta biziro Jangoikoa beti billatu, serbitu ta maitatzea. Artara gaitezen, ekusi behar ditugu ez artaratzetik eta epelki ta nagiro Jangoiko maitagarria serbitzetik datozen irur kalte; oriek dira: bekatariaren zerura uste uts galgarria, lenbizikoa; zerura galdu duelako damu-min eskerbagea, bigarrena; ta oharkabean bezala galdurik gelditzea, irugarrena.

§ I.

*Zerura uste uts galgarria da bekatari epel nagí
alferrak duen lenbiziko kaltea.*

Lenbiziko kalte epelki, erdi-otz ta nagiro Jangoikoaren gauzak egitetik datorrena da, merkatari ta langille bere lan-egitekoan alfer ta nagí dabillenari etorri oi zaionaren erako bat. Merkatari nagiak ez nekatu naiez galdu oi ditu irabaz-aldi geienak edo beintzat anitz. Agitz txar laburrak dira lenbizian ark egiten dituen irabanzak eta oriek bezain labur-txarrek urrango ta beste guziak. Arte artan eramaten dio zuen dirua ta gauzondasuna edo beintzat geiena daraman tratu txarrak, zorrak, jokoak eta beraren ta bere etxeko guzien jan-edanak, soñekoak eta bizi-beharrak, eta anitz urte baño len buruz-gañ egiten diote bere zor zar ta berriak. Arzeko dutenak arzen dute preso, kenzen diote gelditu zaion piska ta gelditzen da gabe ta beharsu, ta bere behar ta nekepetik irten-aterazeko biderik ez duela.

Langille txar nagí alferrak gaizki ta berandu maneazen ditu bere bazterrak; ereinzeko zedukan bihia ta alea eramaten dio bere jan-edanak edo joko galgarriak. Jangoikoak daki non arkitzen duen ordeña, ta ori ere nolakoa? Ongarri guti ekusten dute aren alorrak eta orren aintzura dute dituzten jorrak. Bitarte orretan egiten dituen zorrena da udan biltzen duen gari ta arto piska, ta azkenean zorra, beharra ta gabea bere obira eraman oi duena.

Orra merkatari ta langille nagiarene zoria. Bada ez da batere ohea epelki ta nagiro Jangoikoaren gauzak egiten dituen gizonarena. Onek ere baditu bere lanak eta irabaz-bide zuzenak, bai ta irabazgai onak ere; bada Jangoikoak ematen dio beraren serbitzuko gauzak egiteko esku, lagunza ta grazia, ta Jangoikoaren lagunz eta grazi onekin gauz onek egiten haritzea zeruko grazi ta glori zati onak irabaztea da ta irabaz-bide berriak egitea. Baña bataitu nagí epelki bere gauzak egiten dituenak ez du araitiko merkatari ta langille alferrak baño irabanz anitz geiago egiten; bada orren irabanz-bide onak dira otoitz denbora, konfes-komun-aldia ta era bereko beste aldiak, eta aldi orietan fededun alfer-nagiak egiten du bere lan hau ekusi ditugun merkatari-langille lasaien gisan; bada bere aldiak egiten du otoitz zertan hari den ez dakienaren eran, gogoa barriaturik dadukala ta bera arrizko edo zurezko gizona baliz bezala. Konfesatzen den aldiak berrikeretan dagon aura dirudi; ain otz eta damuren intzikbagea da aren horduko konfesioa. Ogi puska bat arzera baloa bezain oharkabean joan oi da komunio santa arzera. Predikariaren hitzak aditzen ditu atso berritsuarenak adi litzaken gisan ta azkenean gelditzen da bat aditu ezpala bezain otz edo epel. Libru on bat eskuan artu ta irakurzen asi horduko uzten du baztertua ta bere tokian, ta ez du ark dion gauz onik egiten, ez eta ikasten ere. Onaren bideak bide gogorak eta aldapak dira nagientzat eta ez du an oñik ezarzen, edo sartu-ezarri ta laster ateratzen ditu ta geroz iduki oi ditu len bezain alfer-nagi ta geldi; onak esaten dioten gauzari ez-aditu egiten dio ta bere pausu lasai nagian dabil gero ere. Berandu elzen ta itsasten zaio bere egitekoari ta esku-tartetik erorzen zaiola dirudi artu ta laster edo artan hari den aldiak, ta azkenean gelditzen dira aren horduko ta lenagoko lanak guztiz moldekaitzak eta deus guti balio dutenak.

Bitarte artan galzen du oriek berak eta beste gauz on anitz egiteko Jangoikoak eman nai dion lagunza ta grazia; ez du irabazten beste bere gauzak obeki egiteko behar luken(a) ta leneko bere gauzak bezain epelki ta nagiro edo nagiroago egiten ditu urrango ta beste guziak, eta egun oro arkitzen da langille ta merkatari alferren eran behartsuago ta gabeago, ta bere bizimodu lasai epelarekin agerzen du zein egia den Espiritu Santuak diona, esaten duen aldiak: «Beharra ta gabenza da esku alferrak biltzen duena»: *egestatem operata est manus remissa* (Prov. 10,4).

Al-ere ongi ta aberats arkitzen dela uste du, ta gizon eri, burua galdu ta ere, osasun osoan arkitzen dela esaten duena ta eman nai dioten sendagairik artu nai ez duena dirudiela; bada ez du kasorik egiten Jangoikiaren adiskide urrikalti onak ta berari ondi nai dioten gizonak esa-



ten dioten onaz, zeren uste duen ez duela besteren beharrik eta ez dela arkitzen adirazten dioten bezain gabe ta beharsu, egonagatik Laodiceako Obispo liluratu bat bezain uts ta errumes eta ari Ebanjelari S. Joanek gaztigatu ziona gaztiga dakikeon gisan ta eran. Ari gaztigatu ta oni gaztiga dakikeona da: «A, gaisoa, zuk zere barren orretan badiozu ere, "aberats arkitzen naz ni ta ondasundun ta baten ere beharrik bage", arkitzen zara behartsu, gabe, itsu ta era guztiz urrikalgarri batean»: *dicis, quod dives sum, et locupletatus, et nullius ego; et nescis, quia tu es miser, et miserabilis, et pauper, et caecus, et nudus* (Apoc. 3,17). Uste gaizto artan arkitzen zen Obispo hura, zeren epelki ta nagiro zebillen Jangoikoaren gauz onak egiten: *quia tepidus es* (ibid. v. 16), ta epelki ta nagiro dabil Jangoikoaren gauz beretan orain guk diogun beste hau ere.

Nai dezu ekusi orrelakoa zaran edo ez? Ekus zazu, bada, zere biziera edo ekus zazu gogoaren gainka, bortxaz bezala, zere atsekanz barre-nekoarekin, nagiro ta epelki haritzen zaran arimako zere gauz onak egiten. Ekus zazu errazki ta aitzaki andirik bage utzi oi dituzun gauz oriek berak. Ekus zazu ezin utzi dituzun aldian arkitzen zaran enojuz betea, gogoa barraiatzan zatzula ta lenbaitlen andik atera naia. Bai ta kezka edo naigabenz andirik bage gelditzen zaran orien egin-aldian egiten dituzun utsak ekusi ta ere. Bada era onetan bazabilza Jangoikoaren serbitzu santuan, anim epel nagi galgarri txarretatik bat zara zu, ta zara nagi galgarri txar Jangoikoak beregandik ur epela artu duenak sabeleko bere gauzen gisan aurtekitzeko zadukana: *quia tepidus es, incipiam te evomere ex ore meo* (ibid.). Orra, bada, zer kaltea lenbiziko kalte Jangoikoaren gauz onak epelki, erdi-otz eta nagiro egite txarretik datorrena! Fededun epel nagiak zuen ondasuna galtzea, berririk ez bilzea ta al-ere aberats-ondasundun arkitzen dela uste izatea.

§ II.

*Zeru ederra galzen duelako damu eskerbagea da
bere ill-aldian alfer-epel-nagiak duen bigarren kal-
tea.*

Bigarren kalte Jangoikoaren gauzen egin-modu epel nagi beretik datorrena da ekusi dugunari darraikon bekatu izugarria ongi beintzat azkeneraño ez ezagutzea ta arte orretan bere gaitz andi hau egin ezpalu

bezain lasai gelditzea. Burua ez nekatu naiez egiten ditu epel nagiak uts eta bekatu txiki anitz asko, bai ta zenbait andi ere, ta egiten ditu andiak diran edo ez begiratu bage, ta izutzen ere edo kezkatzen ez dutela; zeren bere ibiller erdi-otz nagi ez utzi naiez, kontuz begiratzen ez dion bere lan gaiztoari, ta zeren bekatu txikitara oitu denak askotan andi berak ere txikitat daduzkan ta egiten dituen aisa ta beldurrik bage, interprete andi batek dionaz: *quaelibet peccata devorat, quae sibi tantum venialia videntur* (Alcazar apud Alap. in c. 3 Apoc.), ta nola edozein fededun epel erdi-otz animako bere gauzetan nagi den, len ekusi dugun Laodiceako Obispo gaisoaren erako itsua da ta aisa arzen ditu txikitat eta egiten ditu bekatu larri berak ere, naiz gogo loiak izan oriek, naiz hitz lizunak edo besteren deshonoragarri galduak, naiz jan-edan galgarri, jokatzeko gaizto, irabanz eta tratu makurrak, naiz egille berarenak izan, naiz berari dagozkan beste zenbaitenak, edo eragotzi ta debekatu behar liozkan besteren batenak eta ez eragotziz beretzen dituenak.

Er orretan bizi denak dirudi fededun bataitu ona ez, baizik Neron zeritzan ta erromatarrak izandu zuten nagusi ta enperador agitz gogorra. Gizon gaizto ta gogor onen atsegintzak ziran gaizki anitz lenen gain berriro egitea, ta gaizto galduei ez ezik, on berei ere ta orien arteko andienei bizia kenzea; ta bere buruari atsegin hau egin naiez, ill-erazi zituen Erromako zaldunik andienak, juezik eta senadorerik zuzen obee-nak, bai ta bere maisu andi Seneca ta Agripina bere ama bera ere. Eta bein atseginz geiago bere buruari egin nairik, anitz aldetatik sua arrezazi zion erri guzien erregin bezala zen bere kort eder Erroma berari, ta erri beraren mendi-gain batera igan ta egondu zen bazter guzietako suari begira, ta atseginza atseginz gain artu naiez, erriko gaisoak erretzen ta karrasiz, aika ta ojuka zebilzan denboran, zitar bat bere eskuan artu ta haritu zen musikan ta soñu ta soñu egiten; ta Erromako jauregi ederrak, kale osoetako etxeak eta orietan bizi ziranak erreak eta galduak ekusi ondoan, bere etxera, maira ta lotara joan zen artan gaitzik ezipazen bezain lasai ta sosegunz andiarekin.

Orra gizon gaizto ark aldi artan egiña, ta orra bataitu erdi-otz epel nagiak azkenean edo bekatu andiratzan den aldian egin oi duenaren aintzura ta gerizia; bada hura gaiztoa bezain eroa da hau, ta eroak jostaketan ta irriz ta farraz bezala egiten du, dio Espiritu Santuak, bere gaiztagintza: *stultus quasi per risum operatur sceles* (Prov. 10,23). Kajetan. *ridiculum rem, et nullius momenti ducit scelus operari*. Eta Neron enperadorearen gaiztagintza baño gaiztagintza andiagoa da bataitu alfer nagiarena, zeren ark baño agitz obe-ekusleagoak dituen onek bere begiak, animako gauzak ekuste-



ko; argituak daduzka alabaña zeruko fedez ta sinistanzez, ta etzuen izan-du zeruko sinistanzik eta federik enperadore Neronek.

Era onetan dabillen erdi-otz epen fededun alfer nagari esan dakioke len Jangoikoak Sardisko Obispo uts-dunari gaztigatua, ta ari Jangoikoak gaztigatu ziona da: «Biziaren antza ta izena badezu ere, illa arkitzen zara zu nere begietan; bada nagiz ekusi nai ez dezu zere bekatua ta bekatuz galdu dezun animako bizia»: *nomen habes, quod vivias, et mortuus es* (Apoc. 3,1). Hau alfer nagiz berak ere ezagutuko du egunen batez, baña berandu noski, gaizki ill ondoan, ta bere ibiller makurrak zuzeneko bide ta eskurik izanen ez duen aldian. Hordu artan, bai, zenzatu ta ekusiko ditu emengo bere erakeri guziak eta txikitzat zeduzkan bekatu larriak eta orien itsustasunaz arritu ta asiko da esaten lenik zenzatzeko esan behar zukena, ta esanen du bere bi begietatik negarra dariola: «Zer arpegirekin ager naiteke ni nere Jangoikoa bezain Ait onaren begi garbi ederretan?»: *qua fronte atollo oculos ad vultum Patris tam boni! A*, ta zein gauz arrigarria ni bezain seme gaiztoak Jangoikoa bezain Ait onagana begiak goratzea: *tam malus filius, talem Patrem offendisse, quam crudele!*

Ori, bada, ta orren erako beste guziak arriturik eta mututuak geldituko dira beren buruak uste etzuten eran ta bekatu larriz beteak ekusten dituzten aldian: *videntes turbabuntur timore horribili* (Sap. 5,2). Aldi artan oriek Jangoikoari zerbait esan naiagatik, histaz ta irriz artuko ditu Jangoikoak orien otoitzak: *illos autem Dominus irridebit* (ibid. 4), eta utziko ditu beren gisan ta gaizki ill ziranen artean damuz ongi lertuak, betiko galduak, alkez ta lotsaz beteak eta beti-beti honrarik bage bizi beharrak: *et erunt post haec decidentes sine honore, et in contumelia inter mortuos in perpetuum* (ibid.); eta orra epel nagiairen bigarren kaltea, bere naiez ta bizi gaiztoz betiko galdu delako damu eskerbagea.

§ III.

Alfer nagiz beraren irugarren kaltea da oharkabean bezala galdurik gelditzea.

Irugarren kalte anima erdi-otz epelari bere naginz gaiztotik dator-kiona da ez onzeko ta betiko galzeko perilla; ta perill ta kalte, bekatu larri ezagunarekin arkitzen denarena baño andi izugarriagoa. «Bai», dio Casianok, «egun oro ta maiz aski ekusten dugu onzen dirala bekatu larri

ezagunak egiten dituzten anitz eta asko; baña ekusten ez dugu ondurik Jangoikoaren gauz onetan epelki ta nagiro dabilzan guzietatik bat»: *frequente vidimus, de frigidis ad spiritualem pervenire fervorem, de tepidis omnino non vidimus* (Cool. c. 10), eta Kristo Jaun berak ere gaztigatu zion Laodizeako Obispo erdi-otz epelari: «Zere epeltasun nagiz orretan baño ekusi naiago zinduzket bekatuz illa edo nere graziz ta amorez errea»: *utinam frigidus esses, aut calidus: sed quia tepidus es, incipiam te evomere ex ore meo* (Apoc. 3,16). «Zer, bada?», galdetuko dezu; «ez da animaz erdi-ill egotea baño gaiztoago guztiz illa etzatea?». Eranzunen dizut: «izatez bai, etorkizunez ez». Ori; anim erdi-otz epel nagiak era ta gis orretan arkitzen den denboran badu oraindik graziaren zerbait bizi pisk; baña bizi pisk fit aski ta laster bukatzeko dagona, ta ori bukatu bezain laster arkitzen da zeruko grazi-inzik bage ta beste anim otza bezain bekatuz illa ta Jangoikoaren graziaren bizia berriz arzeko, hura baño agitz urrutiago.

Badakizu zergatik? Nik esain dizut; zeren bekatari ill-otz bekatu agerian datzana bekatuzten den aragiaren suak, bere barreneko grin gaiztoak edo etsai amurratuak bat-batean ta oharkabean bezala garaitu ta, berak bere gaizki egiña ezagutzen duela; ta artan datzan aldian laguntzallerik bagez bezala datza; bada liburu artako batek, konfesor onak, misio-predikuko argiak agerzen badiozka egin duen bekatuaren itsustasuna, bekatuari darraikon kontu ta sentenzi gogor zuzena ta bekatu berari dagokan neke ta erretze ta amurrantz izugarria, ikara, negarrez ta arritu baten eran gelditzen da ta egiñaz damuturik joaten da lenbaitlen konfesioko iturrira, kenzen du an animatik bere bekatuaren loa, edo onezko damuz ta kontrizioz erdisten du Jangoiko urrikalti animen maitariagandik aren barkanza ta graziaren bizitza, ta gelditzen da sendatua ta bekatuz ill ezpaliz bezain sendatua ta berriz ez bekatuzteko naiez ta gogo osoz betea.

Baña Jangoikoaren gauz on beretan erdi-otz epel ta nagiro ibilli ta bekatuzten den anima artaratzen da erdi itsuan ta zertara den ezpaleki bezala, ta bere bekatuan zabal-zabal etzanagatik zutik dagola deritza ta bekatuzteko bage, ta ez du hura beregandik kenzeko oñik igitzen, ta liburu onak dakarten guzia ekusi ta ere, ta predikari jaunak esaten dutena adituagatik, ez-ekusi ta aditu egiten du; zeren uste ez duen arentzat dela oriek dioten edo dakarten gauza; ta orretan gelditzen da bere eriotz gaizto bereraño ta Jangoikoak bere bekatu izugarriarekin, Sardisko Obispo galduari bezala, begitan eman arte guzian; ta arte orretan bekatu ageri zenbait egin ta ere, gogorzen da bere artan, ilzen da gero bere bekatuaren urrikizunik bage ta sekula guzirako galzen da gorpuz ta anima.



Hau da, berak dionaz, Casianok bere aldian ekusten zuena ta hau bera da etorkizun izugarri, Kristo Jaunak Laodizeako Obispo erdi-otz nagiarri gaztigatua edo ari gaztigatuak adirazten duena, ta onegatik zion Kristo Jaun berak naiago zukela epeltasun nagí artan baño bekatu larri agerian hura ekustea. Orra fededun epel nagiairen irugarren kaltea, ohar-kabeko eriotz izugarria.

Ekus zazu, bada, artara bage zuk zere egunak bukatzeko, epeltasun erdi-otz nagí berean arkitzen ote zaran ta nola egiten dituzun zere gauzak; epelki ta nagiro egiten badituzu, bertatik arzeko bi sendagai, Jangoiko urrikalti ezin obeak Obispo berari len bidaldu ziozkanak; bata da kolirioz ta zeruko ur ederrez zere begiak ongi garbitzea, den gisan ekusteko bekatu galgarria ta eriotz onari ta gaiztoari darraikon saria: *collirio inungꝰ oculos tuos, ut videas*, ta bestea, bekatu guziak konfesatu ta anima zereetik orien loiak eta alkekizunak kenzea, graziaren urrez aberasturik eta birtuteen apaingarriz ederturik gelditzeko: *suadeo tibi emere a me aurum ignitum probatum, ut locuples fias, et vestimentis albis induaris, et non appareat confusio nuditatis tuae* (ibid. v. 18). Jangoiko maitagarriak dizula oriek zuk maiz-maiz ta ongi arzeko ta behar den guzia zuzenki egiteko grazia. Bai arren, bai.

IV Abenduaren laugarren igandeko irakurraldia

Eta venit praedicans baptismum paenitentiae.

Luc. 3.

Gaia: Gogo osoz, lan onez
ta ongi bukatuz irabazten da zerua

Egungo igandean besteetan bezala bide batez dabilza mezako Ebanjelio santua ta Elizako otoitzak, eta bata ta besteak dabilza Jesusen jaiotzetik guganako bideko trabak ken-erazten. Gugana etorri naiez, bere ondasunez gu aberasturik uzteko da Jangoikoaren Gizonza ta jaiotza; baño ez gaitu aberastu nai geldirik gaudela ta geren buruak guk aren ondasunak arzeko prestatu bage. Gure prestanz hau da Jesusi guk guganako bideak zuzenzea, berdinez ta iautzea edo garbitzea.

Geren lan hau guri eragiteko bere eremutik atera zuen Jangoikoak S. Joan Baptista, Espiritu Santuz adirazten ziola artako egin beharra. Jaitzen S. Juan bere eremutik Jordan deritzan ibai edo ur bizi andi baten baztertera ta asi zen an egiten bere egiteko andi hau; ta artako an ark egin zuena zen predikuz erakustea nola kendu behar diran Jesusen bideko trabak, pausu gaiztoak, aldap gogorak eta zearkak; eta erakutsi zuen egiten dela hau bekatu egiñen damuz ta penitenzi humillez, lenagotik Isaiasek agertu zigun bezala: Presta zazue (Gizon eginik guganatzeko dagon) Jangoikoaren etor-bidea, utzazue zuek hau zuzendua, ingurukarik bagekoa, ta bekatuaren aldaparik eta zulorik ez duela; orrekin guziok ekusiko dezue Jangoiko salbatzallea: *et videbit omnis caro salutare Dei* (v. 6).

Esan nai du: andikeriz len ta antustez zeren buruak aldapen ta mendien gisan goratzen zenituztenak eta bekatuen leze ta zulo zeren animak egin dituzuenak, zoazte lepo ta buru humill meekin ta damuz beteak konfesor jaun baten oñetara ta alkez ta lotsaz beterik aitor-kiotzue zeren oben ta kulpa guziak; egizue ark an ematen dizuten penitenzia ta orain-dañoako zuen bizkunz galduari dagokan beste on guzia; bete zazue gero birtutez ta Jesus ekusi-nai andiz zeren barrena ta zoazte Jesus beraren



bidera, ongitorri ta agur humillak egitera ta komunio onerako zeren barren berak eskeinera.

Orra, bada, Jesus jaiio berria guganatzeko SJuan Baptistak egungo Ebanjelio santuan agerzen digun bidea: geren buru-animak bekatuaren damuz ta gorputzaren nekez eskuratzea ta eskuratze oni darraizkon konfesio ta gauz onak egitea, barrena birtutez apainzea, ongi-ongi prestatu-rik eta humiltanbez beterik komulgatzea. Eratsu berekoa da Eliz Ama santak mezako irur otoitzetan adirazten diguna, bada lenbiziko otoitzan eskatzen dio Jangoikoari datorkigula bere esku ta indar andiarekin geren bekatu gaiztoen trabak guri kenzera; eskatzen dio bigarren otoitzan ar dezala bekatu berak utzi diguzten zorren alde egungo gure meza, ta irugarrean digula gure onerako ta ongi ta maiz bere komunio santan arzeko grazia.

Onetarako bidea ta asiera da ekusi duguna: bekatu egiñen gogozko damuz, bihotz tristatuz ta gorputzaren nekez, illduraz, baruz ta penitentsiaz geren buruak ongi prestatzea; baña ziñezko ta betiko damuz ta penitentsia prestatzea, aldi onetan guk ekusi behar dugun bezala.

§ I.

*Zerura nai duenak mugaz ta bere horduan artu
behar du arako bidea.*

Guziak diote Jangoikoarekin ongi etorri nai dutela ta nai dutela Jangoikoaren adiskidanza ta grazia, ill ta emendik atera ta izateko Jangoiko beraren zeruko atseginza ta gloria; baña hitzez ta ezpañez guziak hau esanagatik, ez diote hau bera guzien eskuak eta lanak, bada hau dioten anitzen lanak ez dira Jangoikoagana daramaten lanak; zenbaitenak beintzat su-lezera daramaten lanak dira.

Zeruko bidea nekagiroz beterik arkitzen den bidea da; ta bide, indar andiarekin ta biziro dabilzanentzat Jangoikoak egiña. Bai, zion bein Jesusek, «zerua irabazi ta ara igan ani dutenak ongi nekatu beharko dituzte beren buruak; beste bidez ezin arako dira»: *regnum coelorum vim patitur; et violenti rapiunt illud* (Matth. 11.12); ta beste aldi batez zion: «Zerura igan nai duenak ibilli behar du nere ondoren ta (nerearen gisako ta nekezko, kezka-zko, naigabe garbizko ta lan onezko) gurutze bat bere soñean

duela»: *qui vult venire post me, abneget semetipsum, et tollat crucem suam, et sequatur me* (Luc. 9,23).

Dirudienaz (ez izatez) zabalagoa da deabruak bere gisako gaiztoei egiten dien infernurako bidea; bada da atseginz lasaiez, ondasunkunz lausegariz, andikeri goitituz ta arrotasunez bete, bai ta alferkeriz, lo-egite luzez, jostatze ariñez, jokoz ta tripazanzez ere. Zein zabala, mundutar eroak uste dutenez, deabru gaiztoaren bide galgarri zikin hau! «Eta anitz dira», dio Kristo Jaunak, «emen oñak sarzen dituztenak eta deabru beraren ondoren ta aren lan galgarri-galduetan dabilzanak»: *quam lata porta, et spaciota via, quae ducit ad perditionem, et multi sunt, qui intrant per eam* (Matth. 7, v. 13); ta oriek ere, bataituak badira, Jangoikoaren zeruko bidez ibilli nai dutela diotenak dira.

Siñisten ezpanazu, zoaz deabruaren lan gaiztoetan ta bidez dabilen edozeingana; gald-egiozu nai duen era artan ta ala igan zerura, ta ekusiko dezu eranzuten dizuna; bada eranzuten dizu ala ez, baña azkenean zerura igan uste duela. Gald-egiozu bein mundutar andikeriz, arrotasunez ta uts-tanzez beterik arkitzen den bati ta gero gizon ondasunketan, irabazian ta lurreko egiteko nekataritan emen beti bizi behar balu bezala sarturik dabilenari; bai ta gizon beste guzien artean ta aldi guzietan burua agertu nai duenari edo berea ta berea baizik ez denari ta berearekin beti atera-naiari ere, gald-egiezu, diot, era onetako gauzetan hari diran ta zeruko begiratze andirik egiten ez duten gizonei, galdu nai dituzten emengo honra ta ondasun txarrak gatik zeruko honra ta ondasun andiak, eta ezetz eranzuten dizute ta angoak ere irabazteko ta orretarako behar den bizkunz on bat arzeko asmotan arkitzen dirala. Gald-egiezu noiz, ta eranzuten dizute beste egitekoak bukatu ta dagoten bide on bat arzen duten aldian ta horduan; ta ekusiko dezu hordu hau ekusi bage joaten zaiela hastea, illa ta urte guzia, ta betiko beren egiteko andi zori oneko hau alde bat utzirik ketan ta autsetan geldituko diran beste gauz txar askotan hari dirala gau ta egun ta beren bizi guzian; ta al-ere zeruan sartuko diralako uste andian. Hau bera agi-gertatzen zaio apainketa, era-keria ta giza-gogoa baizik ez den neskatx eta andreki arroari ere.

Zoaz gero eskuket loi-zikinetan, danz-kontu nasgarri-galduetan, jan-edan luze, tripazanz galgarri beroetan ta aragiaren atseginz zikin askotan dabilenagana ta gald-egiozu ez dakien anitz luzatu bage ill ta ustelduko dela aren gorputza, ta gorputz ustel-gai oni atsegin txar hura egin naiez nai duen betiko galdu bere anima, ta eranzuten dizu: «Nik galdu anima? Ez ori ta mundu guziagatik ere»; eta esaten badiozu, «Infernuko bidez ibilli zu ta deabruaren ta aragi galgarriaren lan galdue-



tan, ta zuk ez galduko zere anima?». «Ez, jauna», eranzunen dizu. Baña ekusten badezu leneko bere ibiller makurretan dabillega gero ere, zer esain dezu? Hitz-ezpañez zeruko bidez dabillega, baña oñez ta lanez deabruaren makur-infernukoz.

Eta zer bidez dabillega esain dezu bakan baizik konfesatzen ez dena, nekez ta arrastan bezala Elizara dijoana ta animako beste gauz guzietan nag-i-nagi dabillega? Beste orren bide berez. Ongi diozu, baña zoaz berari gald-egitera zer bidez uste duen dabillega, ta eranzunen dizu: «Zeruko». Siñistuko dezu zuk ark diona? Ez ori. Zergatik ez? Zeren azkenean ilzen duten nagia bere naikunz alferrak eta bere alferkeri egun oro bekatu berriz astunzen zakonak: *desideria occidunt pigrum* (Prov. 21,25).

Ez da, bada, aski hitzez ta ezpañez Jesusen bidean sarzea zeruan sarzeko; lanez, nekez ta penitenziz sartu behar du Jesusen bidean zerura igan nai duen fededunak, Jesus emen bereganatu ta Jesus beraren ondoren zeruan gero sarzeko, ta artan orretako hari behar du beste gauzak utzirik ere; ta hari bear, garai onez, mugaz, alferkeririk bage ta biziro geroko bere gauzak egiteko asmo ta nai osoan.

§ II.

Zerura igan nai duen fededunak jarraiki behar dio arako bere bideari.

Bidean ongi asiagatik nekatu ta gelditzen den bidaria ez da billatzen zuen erriratzen; arako bada, ibilli behar du bidera zenean zuen gogo, asmo berarekin. Hau da Tobias gazteak bere bideko ibiller zuzenarekin erakutsi zigun gauza. Nai zuen onen aitak hau arzeko baten eske urrutiko erri batera bidaldu. Aitaren naikunza ikasi bezain laster artu zuen ark arako bidea. Bidean izandu zuen beste egiteko andi zori oneko ta ondasun andiak zekarziozkan bat ere. Egin zuen ark hau al-ik lasterrena ta artan zebilzanak zenbait egunez geldirazi naiagatik, «Ez, arren, berandetsiko lukee nere ait-am gaisoak»: *pater meus, et mater mea modo dies computant, et cruciatur spiritus eorum* (Tob. 10,9) esan ta atera zen orien artetik eta artu zuen bere aitagarako bidea.

Hau bera beren Jangoikoarekin egiten ez duten fededun zeruko bidean len sartuak, edo ark esaten diena egin naiez uzten ez dutenak beste edozein egiteko, edo egiten ez dutenak behar den eran ta aldian,

zerura igan nai dutela esanagatik, uzten ta galzen dute beren arako bidea, ta itsuskiago al-ere, bide artako lanak utzi ta infernuko gaiztoak egiten badituzte. Eraus dezatela, bada, nai dutena oriek berak eta orien gisako beste guziak; hitz-ezpañez dabilza zeruko bidean, baña eskuz, oñez ta lanez ez. Artu duen zerurako bidez ibilliko bada, egin beharko ditu fededunak aldian aldiko bere gauzak; eta egin, behar den gisan ta eran. Egin behar du bere aldian bere bekatu guzien konfesioa; baña konfesio iduriz ta aintzuraz ez ezik, mamiz ta izatez ere on-zuzena, damuz, egiz ta ondusmo beroz betea ta gauz on anitz eragiten dituen. Eta ez da, ez, eronetakoa fededun guziak egiten duten konfesioa; bada konfesatzen diranen arte berean arkitzen dira (ta guti ez) konfesatu ta len bezain bekat-gin ta gaizto diranak. Diogun egi hau aitor dezakee jokalaria ta edale gaizto, beren edate ta joko makur guziak konfesatu ta ere, beren joko ta edate galgarri beretara itzulzen diranak. Aitor dezakee, aldiak dakarren aldian ta Eliz berean ere begiratze gordin-lizunak egiten dituzten mutillak, gazte-tarte eroan loiki hitz egiten dutenak, danzan, danz-ondoan ta beste anitz alditan gogoz, eskuz edo nolerebait zikinzen diranak, bai ta berriz ta berriz konfesatu ta ere, erdizkako beren konfesioko naspillen ondoan onzen ez diranak ere.

Hau bera aitor dezakee beren apainket arro-eroekin ta erakeri galgarriarekin orien ondoan dabilzan neskatxak; lasaieria ta ajol-kabea baizik ez diran guraso ta ait-amak, nagusi ta kargudunak ere; bada konfesatu ta ere, ez dira zentzatzten, ez eta ari ere dagozten lan zuzenak, erakuste ta adirazte onak egiten, ta beren ta beren peko guzien bide makurrak urratzen ere, ta konfesio-ondo gerokoan len bezain arin, nag-i-gaizki dabilzanak dira. Eta hau zer da? Zer, baizik orietatik batek ere artu zuten zeruko bidean ez egitea, zeruan Jesus arkitzeko egin behar den ibillera, penitentzia, konfesioa ta lan guziera edo zerbait lankunz, ta on-itxura baizik ez egitea.

Ongi, ta ezin esan dakiok orietatik bakoitzari: *in imagine pertransivit homo* (Ps. 38,7), pinturako bataitua dirudi bataitu onek? «Bai», dio SBasilio, «elkarren parekoak dira bata ta bestea»: *nihil differunt vivientes homines ab imaginibus eorum, quae pictae sunt*. Ekusiko dezu noizbait giz-ainzur edo pintur belaunikatu bat, ezker eskuan S. Kristoa ta eskoiekoan arri gogor bat duela ta besoa goratu ta bere bekatu eginen damuz bularra urratzera dijoala dirudiena; baña puntu oro artarako dela badirudi ere, ez dela artaratzen bein ere. Bada hau bera da ekusi ditugun guziei agintzen zaiena: konfesatu ta ondu nai dutenen ainzuran ondu-gai gelditzea, bein



ere beren Jesus ganako biderik ez egitea ta zeruko bidean daudelako ain-zuran, infernukoan beti beren buruak arkitzea.

«Begira, bada», esaten digu Jesus maitagarriak, «gaizki zabilzten guziok; zuzenzen ezpadituzue zeren ibill makurrak eta behar den eran egiten konfesio, penitenzi ta beste gauzak, galduak zuek daramazuen sulezeko bide gaiztoz»: *nisi paenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis* (Luc. 13,6). Penitenzi ona da S. Pablok eta aren erako beste guziak egiten zutena ta artako oriek egiña da artu zuten zeruko bidean beren gogo gaiztoari, begi arinei ta gorputz atseginz-zale galgarriari ez-aditu egin ta egin behar zituzten nekezko ta beste gauz on guziak zuzenki egitea ta bide-nabar S. Pablok berak ziona esatea: «Ez», zion S. Pablok, «Jangoikoak beregana deitu ninduen hordutik ez diet nik utzi nai nere gorputz-anime, nai duten gaiztakeririk egiten»: *non acquievi carni, et sanguini* (Gal. 1,16), «ta geroztik eskupe gogorrean dakart bata ta bestea, azkenean gal ez nazaten beren egiteko nasle-makur gaiztoren batekin»: *et in servitute redigo, ne... reprobis efficiar* (1 Cor 9,27). Hau da S. Pablok eta beste on guziak beren aldi egiña ta zori oneko orien lagun izateko nik ere egin beharra: artu dudana zeruko nere bidean ongi ta kontuz ibiltzea ta esku-tik utzi bage artan beti haritzea. Bai.

§ III.

*Zerura nai duenak zeruko bidez ibilli behar du
bere eriotz oneraño.*

Ez, ez da aski Jangoikoaren bidean sartu ta zenbait pausu on an ematea zeruan sarzeko ta an Jesus arkitzeko. «Anitz eta asko», dio Kristo Jaunak, «asiko dira lan orretan, baña bukatu baño len utziko dute beren bide zuzen hau, ta zerura nai dutela esanagatik, ez dira sekulan arako»: *multi, dico vobis, quarent intrare, et non poterunt* (Luc, 13,24); zeren hitzez ta gogo nagiz oriek hau esanagatik, ez duten naiko gogo osoz, behar den eran ta ziñez. Zeruan sartu nai badezu, ekin bukatu arte guzian angobideko zere lan ta ibilkunz onari: *esto fidelis usque ad mortem, et dabo tibi coronam vitae* (Apoc. 2,10).

Izaten dira gaizto zenbait garizuman, misioko predikuren batean edo aita S. Ignazioaren ejerzizioak egiten dituzten aldi, arritu ta konfesarriari esaten diotenak: «Jesus, aita, ta oraindañoko guzian ni zein zenu-

bagea! bekatuz bekatu ibilli naz infernu bereko erz-ezpain-erzeraño ta gelditu ezpaninz ekusi dudana ekusirik, aditu ditudan gauzak adirazten dutenaz, arako ninzan noski anitz luzatu bage ta an nenzan gaur betiko nekez lertu-amurratua ta su ta gar egiña. Jangoikoak didala konfesi on bat egiteko grazia ta egin gogo dudana bizkunz onerako bere lagunza ta eskua; bada Jangoikoak lagunzen didala, nere ill arte guzian bizi uste dut gaizta-bide guziak utzirik gauz onik baizik egiten ez dudala. Bai, bai, ongi ta maiz, ardura konfesatzea, al ditudan mezak enzutea, lagun onetara baizik ez bilzea ta egun oro obeki bizitzea izanen da gaurgero betiko nere egiteko guzia. Dagitela nai dutena munduko eroak eta sulezeko etsai amurratu guziak nere asmo on hau niri gogotik kenzeko; alferrak izain dira orien alegiñak; nik esain dut beti Job santuak len ziona: artu dudana asmo hau baño len utziko dut nere bizia»: *justificationem meam, quam coepi tenere, non deseram* (Job, 27,6).

Orra orrelako aldi gaizto gaizki egiñaz damuturik arkitzen diranak esan oi dutena. Orra zein ona orien askunza ta asiera. Zori onekoak oriek, era berekoa izaten baliz orien urrengo bizitza ta azken bukanza. Baña joaten zaizte geienei edo beinzat anitzi aldi orietako beldurrak eta itzulzen dira fite-laster mundu galgarriaren adiskanzara ta beren etsai amurratuaren egiteko gaiztora, ta izaten dira geroz len ziran bezain gaiztoak edo izaten dira Nabucodonosor erregek ekusi zuen estatu baten ainzur galgarri gaiztokoak.

Naburok ekusi zuen estatuak eta giz-ainzurak zuen urrezko burua, zillarrezko bularra, bronzeko izterra, burdinezko gidall-aztala ta lurrezko oña, eta ekusi ditugun mundutar orien asiera urrezkoa da ta santu batena. Denbora joan ta epelzen zaie ongi bizitzeko beren gogo ta asmoa, ta zillarrezkoa da geroz, ta ez len bezain beroa ta deboziozkoa, orien horduko ibillera. Andik laster bronzeko da edo ez bigarren aldi bezain ere ona orien beren ibiller-bizkunza. Geroiseago burdinezkoa da edo agitz gutiango balio duena; bada hordurako erdi oztua arkitzen da orien leneko asmo beroa, ta uzten dute gaur meza, bigar beste aldi batez egin oi zuten otoiña, etzi debozioa ta gero konfesio ta komunio santa, ta ibilliz ibilli otzetik otzera dabilza ta laster sarzen dira leneko beren bide galgarri makurrean, lagun gaiztoen artean, tripanzanz, joko ta jostatze zikinean ta azkenean leneko beren bekatu ber-beretan; ta gelditzen dira bekatutik atera ziranen baño zerutik urrutuago ta gaizkiago; bada gelditzen dira eritasun andi batetik atera den ta jan-edan gaiztoak egin ta berriro len baño ere gaizkiago eritzen den bat bezala; bada eri hau arkitzen da sukar ta kalentura andiarekin; ta arkitzen, odol-isurtze ta sen-



dagai ta erremedio andiak artu beharra, ta denbor berean indar gutirekin oriek arzeko ta bere gaitzaren neke gogorak eramateko, ta len bekatu-pean erdi lerturik zedukan anima oraingo eritze ta bekatu berriekin uzten du deabru gaiztoak len baño lertuagoa ta berriz onzeko len diña zeruko indar ta lagunz ez duela. Eta onzen baliz ere, onzen ezpada betiko ta onean ill arte guzian irauteko, ez du Jesusek beretzat artuko ta azkenean ez da zerurako; bada gogo osoz, lan onez ta azkeneraño zuzenki dabiliena da Jesusek beretzat eta bere zerurako arzen duena: *qui perseveraverit usque in finem, hic salvus erit* (Matth. 10,22). Jangoikoak dizula hau egiteko gogoia ta grazia: bai arren, bai.

V

Eguerri eguneko irakurraldia

Ecce enim evangelizo vobis gaudium magnum.

Luc. 2.

Gaia: Ziñezko ta betiko amorea da Jesusek guri ordañez eskatzen diguna

Jangoiko gizon egiña Belenen jaio zeneko joan zen aingeru bat berri on hau ango bazterraldian arkitzen ziran arzaiei ematera ta zeruko argiarekin egun eginik utzi zuen horduko gau illuna. Aingeru ederrak bere berri hau eraman zien arzaiei esaten ziela: «Arkituko dezue oialtan bildua ta estalbi batean ezarria guzien onerako Daviden erri Belenen jaio den Kristo Jauna». Artu zuten bertan arzaia arako bidea, ibilli ziran agitz bizi ta arkitu zuten billatzen zutena; bada arkitu zuten Jesus bere estalbian, aingeru onak esan bezala, ta beraren Ama Birjiñak eta San Josepekin zaitzen zutela. Guzia ekusi ta itzuli ziran arzaia beren lanera, asi ziran banatzen ekusi zutena ta banatu zuten aditzen zutenen poz-atseginz andiarekin.

Nola itzuli ote ziran arzaia onak Jesus ekustetik? Dirudienaz, zeruko argiz ta Jangoiko-gizon beraganako amorez beteak; bada deitzen duenaren onerako ta on andirako da Jangoikoaren deitza ta gizonarentzat onik andiena; ta on, gizonak beharren dutena da Jangoiko beraren argia ta maitanza edo Jangoikoaren behar bezalako ezagunza ta amorea, ta ematen asi ezker, emanen zien Jesusek beharren zuten ondasuna.

Ondasun onekin ta Jangoikoaren amore andiz beteak andik itzuli ziralako siñu ta señaile da oriek gero beren lagun ta aditu zituzten guzian erdian egin zutena; bada arritu ta txarmaturik utzi zituzten beren adile guzia ekusi ta esan ziezten gauz on onen berriarekin, ta hau oriek ezin egin zezakeen, Jesusen amorez beteak egon ezpalira.

Bestela ere beraganako amore bero hau da Jesus jaio-berria ekusten edo ezagutzen duten guzia billatu behar dutena, egungo mezako bere otoitz guzietan Elizak adirazten digunaz. Hau guri obeki adirazteagatik, orietatik batean esaten dio Jangoikoari: «Iguzu, guzia dezakezunak bezala, Jesus jaio-berriaren ezagunzak eskatzen duena zuzenki egiteko behar



dugun on guzia»; ta orretarako behar duguna da grazi anitz ta Jesus beraganako amore andi bat; bada amore oni darraikona da beste guzia ta hau guzia da Jangoikoaren lagunz onarekin errazki egiten den gauza.

Orra, bada, Jangoiko maitari gere amorez gizon egin ta jaio denak gugandik gaur eskatzen duena: beraganako gure amore; baña amore, Jangoiko beraren gudanako amorearen erako langillea; amore nekez izutzen ez dena ta amore betikoa.

§ I.

Bai, gugandik gaur Jesus jaio-berriak eskatzen duen lenbiziko gauza da Jesus beraganako gure amore; baña amore alferra ez, baizik langillea. Ebanjelari S. Joan da Apostol Jesusek geienik maitatu zuena, bai ta Jesus beraren maitatzailerik andiena ere, ta orregatik da amore beraren erakuslerik onena. Badakizu zer dion amore hau guri erakusteko amore beraren maisu andi Apostol onek? Onek diona da amore utsa ta illa dela hitzezko ta mihizko maitanza, ta maitatzen asi ezker, maita dezagula eskuz, lanez ta bihotzez gure Jangoikoa ta Jangoikoaren izenean maitatzen duguna, zeren hau den izatez ta ziñezko maitanza ta amore: *filioli, non diligamus verbo, neque lingua, sed opere, et veritate* (1 Joan. 3,18). Gauzaren izanza da ta ez gauzaren hitza ta otsa gauza billatzen dugun aldian guk gerok ere billatzen duguna; bada goseti arkitzen bagara, ez gabiltza janari otsen ta hitzen billa; soñeko bage arkitzen garan aldian ez ditugu billatzen soñekoaren hitza ta otsa ta ez dugu geren arzeko dugunaren alde artu nai diru-hitza ta otsa ta soñua; arzeko gureen alde artu nai duguna da geren arzeko bera edo hura diñako dirua ta gauza; geren otza ta goseazkenzeko behar diran ta billatzen ditugun gauzak dira soñeko ta janariotsak ez, baizik ongi datorkigun soñekoa ta janari on ongi maneatu, erre, egosia.

Jangoikoak ez du behar gure gauzarik, ez eta gure amorerik ere; baña zor diogu guk bere amorearen alde ta beste mill aldetara gure amore, ta amore, izatezko eder beroa; bada zor diogu amore, beraren amorearen erakoa, ta Jesusen gudanako amore amore ziñezkoa da, ta amore, bere grazia ta zeruko beste ondasun anitz guri eman-erazten diozkana.

«Ez», dio S. Gregoriok, «ez; alferrik ibilliko zara; zuk gaur ta bigar ta beti esanagatik, maite, maite ta beste guzia baño maiteago dezula Jangoikoa, egiten ezpadezu bere maitatzalle onagandik Jangoikoak nai

duen guzia, maitanz uts-ustela da arganako zure maitanza»: *si operari renuit, amor non est* (Homil. in Ezech.); maitanz ona alabaña, santu berak dionaz, suaren gisakoa da ta suak ez daki geldirik egoten. Suaren egiteko guzia da beti-beti berotzen, erretzen ta argi egiten haritzea. Sua zabalzen ta luzatzen da al duen guzia edo alik geiena. Lurpetik edo ar-tartetik ateratzeagatik, an sarturik arkitzen bada, urratu ta goititzen ditu suak gañeko arri ta mendi guziak eta non-nai egiten du bere ater-bidea, ta geldirik ezin egonez egiten du suak hau guzia. «Orra, bada», dio Aita Santu andi onek, «orra nolakoa gugandik Jangoikoak nai duen amore, su bizi onen erakoa, geldirik egoten ez dakiena»: *nunquam est Dei amor otiosus* (ibid.).

Hau ala dela ederki ekusten dugu Jesus beraren gudanako amorean. Bere Aitaren ta gudanako amorez egin zen gizon ta jaio da gaur Jesus maitagarria. Baña noiz egin zen gizon ta noiz jaio da? Aitak berezi zion ta beraren gudanako amoreak eskatzen zuen aldi ta horduan. Jaio da urteko sasoirik gogorreanean, neguko gaurik otzanean, munduko tokirik txarreanean ta erarik ez-egokienean; bada jaio da negu otzean, jaio da eguerri gauean, jaio da erriz kanpoan ta itxol txar erdi urratu batean, jaio da ganadutegi erdi urratuan ta ganadu beren artean; ta jaio da sasoi, egun, toki ta gis orretan, zeren luza-biderik ez dakien ziñezko amore beroak eta hitzezkoa ta ezpañezkoa ez, baizik bihotzezkoa ta ziñezkoa zen Jesusek zigun amore.

Era berekoa, bada, ta lanetan agerzen den amore da Jesus maitariak gugandik nai duena; bada hordu oroko lanak eta gauzak dira, dio Aita Santu berak, ziñezko amorearen agerle zuzenak: *probatio dilectionis exhibitio est operis*. Esazu ezperen: zertan ezagu zaitzu maite dezula zere humea edo senarra, ezpada orrek behar edo nai dituen gauzak luzatu bage, bere aldian ta ongi egite zurean? Egizu, bada, ark zu bezala Jesus zuk maitatzeko, zugandik Jangoikoak nai duena ta egizu zuk hau urte oro, ill oro, haste oro, egun oro ta hordu oro, ta egizu Jangoiko berak nai duen eran. Orretara deitzen zaitu gaur Jesus jaio-berriak, beste aldi batez mairu belz bat bezala bere aldera.

Napolesko galer batean egin zuten urte batez onzi gañeko toki onean Jesusen Belengo jait-itxolaren gisako itxol bat eta itxolan lastozko etzintegia. Emen ezarri zuten Jesusen ainzur edo bulto polit bat eta aren bi saietetan beste bi, Jesus beraren Amarena bata ta S. Josefrena bestea, eta iruren inguruan zenbait arzairenak. Hau guzia zer zen ezpazekien ere, ekusten zuen galer berean urrutiseago ta katez loturik arkitzen zen mairu batek.



Gabaz bere argiarekin idukitzen zuten onziko mariñelak Jesus ta al zuen gisan ari begira zegokan mairu katetua ta bere begiraldi batez ekusi zuen eskuz deitzen ziola Jesusek bere aldera. Atseginzez beterik gelditu zen mairu gaisoa, baña ezin zijoakela eranzun zion, eskuz erakutsiz loturik zedukan katea. Deitu zion berriz Jesusek eta ark deitze berean urratu zen mairuaren katea. Joan zen lasterka Jesus jaio berriagana. Argana bezain laster berotu zion Jesusek zeruko suz bere barrera. Ikasi zuen ekusten zuenak adirazten zuen Jesusen gure amorezko gizonza ta jaitza; ikasi zituen jakin behar diran gure legeko beste misteri guziak eta eskatu ta artu zuen bataio santua ta asi zen amorez ta lanez eranzuten Jesusen amore guttiz ongillari.

Orra, mairu onek ere erakusten digu len ebanjelari S. Joane eta Doktore S. Gregoriok erakutsi digutena: amore langillea dela gugandik Jangoikoak nai duen amorea. Hau bera esaten digu S. Joan Krisostomok ere, bada esaten digu: «Alferrik da Jangoikoa agitz eta zere burua baño ere geiago maite dezula zuk esatea, maitanz orrek eskatzen dituen (otoitz, barur, maiz konfesa-komulgatze, egin dizuten txarkeria barkatze ta era bereko beste) gauzak egiten ezpadituzu»: *ne mihi dicas: diligo Deum plus quam me ipsum: verba sunt ista: ostende hoc ipsis operibus.*

Egin izandu dituzu oraindañoko zere aldi? Ekus zazu. Ala bada, langille ona izandu da Jesus maitagarriagana zure amorea. Bai, noski, ta sendor-bortiz ez-izukorra ere. Goazen orain hau ekustera.

§ II.

Lanez ta nekez izutzen ez dena da amore langille gugandik Jesusek eskatzen duena ta gure amore hau alde onetatik ere Jesus beraren amorearen erakoa da; bada neke ta neketan zen ta eskerbageen artean jaio zeneko gure Jesus maitagarria. Jesusen horduko neke gogorrek adiraziak gelditzen dira, ukituz len esan dugunarekin, noiz, non ta nola jaio zen agertu dugun aldi; bada badakizu zein ozkorra ta zein minbera den aur jaio berria; badakizu, jaio horduko oial berotan bildu ta seaskan luma edo koltxoi gain leunean ezarri ta estali ta ere egon oi dela aur gaisoa negar ta karraisi, egonagatik gela beroan ta aizerik sarzen ez den tokian; ta badakizu aditu dezunarekin zenbat otz-bide ta negar-gai arkitu zuen Jesusek eta jaio zeneko arkitu zela itxol txar urratu, gelarik, seaskarik, lumarik, koltxoirik, surik edo berogarririk bagekoan, ta itxol, bazter

guzietatik edo askotatik beintzat aizeari sar-bidea ematen zion batean. Al-ere etzen oztu, ez eta epeldu ere Jesusen guganako amore andia. Bere amore sendor bortiz onen erakoa da Jesusek gugandik nai duena; orregatik da neketan kezkatu eta naigabez beteak arkitzen garan aldi ere itotzen ez den amorea, ta amore, geren nekaldi orietan egin behar ditugun gauzak egiten lagunzen diguna ta Jangoikoaren legeko bidean beti gaduzkana.

Era onetakoa izandu zen S. Pablok Jesusi zion amorea, bada izandu zen amore esan-erazten ziona: «Orra, Kristo Jauna gure onerako jaioa da, gugatik mill lan ta neke eraman zituena ta guzien buruan ill ta biztu zena, ta zerura igan zen puntu beretik bere Aitari gure alde eske ta eske dago kana; bada nola utz dezaket nik» (zion gero Apostol jaunak), «hau ziñez ta beti maitatzea?. Ez eta munduko naspill, naigabenz, kezka, auzi, gos-egarri, behar ta neke guziak elkar artu ta biziak kenduko balidate ere. Orrenbat maitatu ninduen Jesusen alde prest arkitzen naz ni, hau guzia ta geiago ta geiago ere nere gain arzeko, ala Jesus berak nai izatera»: *in his omnibus superamus propter eum, qui dilexit nos* (Rom. 8,37).

Tobias zarrak urrikarizko bere lan onetan gastatu zuen bere ondasun guzia, galdu zuen ekuste bera ta gelditu zen itsutu, beharsu ta irabaz-biderik ere bage, ta al-ere gelditu zen Jangoikoaren len bezain maitatzalle sendor-bortitza. Errege Job aberatsari kendu ziozkan etsaiak zituen ondasunak, kendu ziozkan hume guziak, bai ta gorputzeko bere osasuna ere, gelditu zen burutik oñeraño zauri bat egiña ta bazter guzietatik materia ta usteltasuna zeriola, ta al-ere esaten zuen: «Jangoikoak emanak ziran nik nituen ondasun ta gauz guziak, berak kendu dizkit ziranak, egin du guziaz guzien Jaun eta Jabeak bezala berak nai zuena, bedeika dakiola egin duen guziagatik».

Orra oriek beren aldi esaten zutena. Eta zer da zuk zere nekaldi, naigabenz eta ez bai aldi esan oi dezuna? Nigatik anbat ekusi zuen Jangoikoaren izenean izan dedilla guzia? Egiten zizkitzuten txarkeriei txarkeriz eranzun lekuan, ongitorritz ta hitz mez eranzun uste zenielea? Hau zen zuk, maite zaituen Jesus maite bazenuen, egin beharra? Baña egin izandu dezu oraindañoko zere aldi? Zenbait aldiz ez, bada nai etzenuen hitz bat aditu horduko asaldatzen ziñan ziñan guzia, hitz bidebageko txarrari eranzuten zenion bidebageagokoz ta txarkeriari txarkeri andiagoz, ta noizbait egiten ez pazenuen zuk hau, gelditzen ziñan andi ta mutur ta egilleaganako barren ta begi illunarekin.

Bada ez da hau Jesus maite duenak egiten duena; Jesusen amoreak edo Jesus maite duenak «garaitzen du sua, garaitzen du burdiña, garai-



tzen ditu presondegiko kateak, bai ta itxekok, auzokok, errikok eta ez errikok ematen diozkan naigabenzak eta egiten diozkan hista ta txarkeri guziak ere», dio S. Lorenzo Justinianok: *ignem, ferrum, vincula, carceres, per-sevutiones, flagella adversaque omnia Christi amor tolerare facit* (In fascic. c. 16). Zori onekoa zu hau zuk emendik aitziaña egiten badezu, ta egiten osoro ta beti.

§ III.

Jesusen amore ziñezko batek eragiten du hau guzia ta eragiten bein edo berriz ez-ezik, aldiak dakarren guzian; bada ziñezko gure amore hau Jesusek izandu zuen amorearen erakoa da ta betikoa izandu zen Jesusen guganako amore. «Bai», dio S. Buenaventurak, «ekus zazu lenbizitit azkeneraño Jesusen bizitz eta ibillz guzia ta arkituko dezu guztia gurutzet, neke-penaz ta naigabez bete»: *olve, etolve vitam boni Jesus, et non invenies eam, nisi in cruce: ex quo enim carnem assumpsit, semper in poena fuit*.

Gurutze, neke ta pena zen Jesus maitagarriarenzat jaio zen eran ta toki txar galduan jaiotzea; gurutze, neke ta pena zen andik zorzigarren eguneko gelditu zen gisan odolez ta oñazez beterik gelditzea; gurutze, neke ta pena zen andik laster ta negu gogorra joan baño len mendiz-mendi Egipto belzeraño igeska ibilzea ta Egipto berean erbestatu bat bezala zenbait urtez bizitzea; neke, gurutze ta pena zen andik itzuli bezain laster esku-lanen sartu ta bere ogei ta amar urtetaraño lan ta lan ta izerditan haritzea; ta neke, gurutze ta pen andiagoo, urrengo irur urteetan bere Apostol guziak bilzen ta moldazen ta judatarrei ta Galileako errietako guziei predikuz ta predikuz erakusten ibiltzea ta gero gelditzea bein odolez izertua, gero sokaz lotu, arrastatu, ostikatu ta okabilkatua, illeetatik tiraka erabillia, zapladaz ta listuz ta karkaisez aurpegian zikindua, ero baten gisan zuriz jaunzia ta azkenera azotez urratua, soñera eman zioten gurutzez erdi lertua ta gurutze berean josia ta mill oñaze ta flakiren erdian odolez ustua ta illa. Hau izandu zen Jesusen jait-hordutik ill arteko bizia; orra gurutzez, nekez ta penaz zein bete!

Baña orrenbat bere neke-pena ta gurutzeren erdian galdu zuen noizbait Jesusek guri zigun amore? Ez eta instant edo ezbai batez ere. Beti-beti maitatu ginduen ta aldi aldiko gurutze, pena ta neke guziak eramane zituen gure amorez ta gure onerako, ta bere neke ta tormentu guzien erdian maitatu ginduen, nek-tormenturik bage arkitu baliz bezain

sosegu ta indar andiarekin. «Bai», dio ebanjelari S. Joanek, «maitatu zituen Jesusek bereak bere bizitzan ta bizitzaren azkenera», edo S. Agustinek klaratzen duen bezala, «bere eriotz nekezko bereraño»: *cum dilexisset suos... in finem* (usque ad mortem) *dilexit eos* (Joan. 13,1).

«Orra, bada», esaten dizu S. Bernardok, «orra nolakooa gugandik ordañez Jesusek eskatzen duen amore: beraren amore, neke ta pena guzien artean ere itotzen ez zenaren erakoa»: *disce, o Christiane, a Christo, quomodo diligas Christum*.

Nek-arteko amore hau errazkiago guri arrerazi naiez egin zuen Jesusek besterik ere; bada bere pasioko neke ta tormentu guzietara joan zen aldi egin ta utzi zigun aldareko Sakramentu andia ta Sakramentu berean gelditu zen munduaren bukanz azkeneraño, ta gelditu zen zerura igan ta ere, alderagotik gu maitatu naiez ta obeki guri lagunzeko, esaten zigula: «Ni zerura iganagatik, ez da zuek zer penatu; bada an nagola ere, zuekin emen arkituko naz, mundua mundu den arte guzian»: *ecce ego vobiscum sum usque ad consummationem saeculi* (Matth. 28,20).

Aditzen dut, bai, Jesus maitagarria, aditzen dut zuk zere jaiotzetik hitzez ta lanez esaten didazun guzia. Aditzen dut esaten didazula ar ditzadala nik ere zure izenean ta zuri zor dizudan amore andiaren alde nere barreneko naigabe ta kezka txiki-laburrak, bai ta egiten dizkidaten bidebagenz eta txarkeri guziak ere. Ez dut hau egin beti beinzat oraindaño nore ere; baño ekusi dudanez ezkeroko egiteko berean zuk egiña, egin gogo dut eta nere ustez ziñez emendik aitziaña.

Baña badakizu, Jesus maitagarria, ezin dagikedala nik bakarrik eta zure lagunzik bage, eta hau eskatzen dizut ukatuko ez didazulako uste osoan; eta eskatzen, zere Bihotzeko amore langille betiko andi-nekatuaren izenean. Indazu, bada, Jesus maitagarria. Bai arren, bai.



VI

S. Esteban eguneko irakurraldia

Ecce relinquetur vobis domus vestra deserta.

Matth. 23.

Gaia: Ezin bestez bezala ematen du
Jangoikoak betiko kastigua

Esker gaiztoa da geienez beintzat predikari onak beren hitz onen alde gaizto geienez aldetik artu oi duten saria. Hau ongi zekienak bezala esan zien bein Kristo Jaunak eskrib ta farisetzar zenbaiti (dio egungo Ebanjeli santuak): «Nik igorriko dizkitzuet profetak, gizon jakinsu ta erakusle onak; baña orietatik zenbait illen dituzue zuek, beren gurutzeetan josiko dituzue beste zenbait eta besteak azoteka erdi urratu ta botako dituzue erri batetik bestera, andik urrengora ta gero bestera ta bestetik bestera; baña begira, ori izanen da zuen gaitzerako ta Jangoikoaren eskutik arzeko zuen gaiztakeri ta beste obenei dagoten neke ta kastigu guzia. Hau ala gertatuko da ta kontu aditzen dezuten hitzarekin. Jerusalem, Jerusalem», esan zien gero berei, «izandu dituzun profeten ta predikari onen iltzalle ta arrikari gaiztoa; zenbat aldiz bildu nai izandu ditut zure hume gaiztoak, olloak bere egope beroan bere txitak bezala ta ez didazu nai nuenik egiten utzi; orra, bada, izanen dezu azkenean dagokizuna ta geldituko da utsa zure etxedi ta erria». Ala gertatu ere zen urte anitz joan bage.

S. Esteban izandu zen Kristo Jaunaren predikari on orietatik bat. Jangoikoak eman zion esku ta indar andiarekin egiten zuen anitz gauz on ta milagro. An bertako ta beste bazterretatik etorri ta an arkitzen ziran jakintsu zenbaitek artu zuten bein erdian S. Esteban ta egin zuten alegiña gure legeko gauzetan hura gezurtatzeko; baña zeruko bere jakinz eta hitzket ederrarekin mututurik utzi zituen guziak eta lotsaz, alkez ta amurranzez beteak. Jangoikoari eskerrak emateko bezala goititu zuen Santuak burua ta ekusi zuen zeruan Jangoiko beraren gloria ta Jesusen egoer-egonza ta asi zen esaten begira zegozkanei: «Ara, ekusten ditut zabaldu-idikiak zeru guziak eta Jesus Jangoikoaren eskoi aldean eseri-

jarria», adirazten ziela nor zen Jesus, berak ill-erazi zutena, ta aren eskuz egunen batez artu beharko zuten irabanz ona edo pena ta neke gogorra.

Orra, gaur Eliz Ama santak Jesus beraren ta bere predikari S. Estebanen ezpañez adirazten diguna: jangoikoak agerzen diela gaizki ta makur dabilzanei ere zerurako bide zuzena eta onez-onean arzen ezpadute, beldurzen dituela zenbait aldiz besteren eskuz ta beste aldi zenbaitetan emengo bere kastiguz ta geroko arrigarri andien izutasunez. Ekus dezagun nola; gaizki bagabilza, geren bidera ateratzeko ta zuzena bada daramagun bidea, oñik ez aldatzeko.

§ I.

Iru bidetik bat artu oi du Jangoikoak makur dabillen bekataria zuzen-eratzeko: leuna bata, latza bestea ta latzagoa azkenekoa. Orretako Jangoikoak arzen duen lenbiziko bidea leuna da ta ardi errebes dabilleanekin arzai onak artu oi duenaren gisakoa. Arzaiak ardi onekin egin oi duena da bere lagunetara ta etxeko bidera erakarzea ta erakarzeko txistu egitea; ta Jangoikoak makur dabillen bekataria errebelatuarekin egiten duena da beraren arzai Eliz-nagusiaren, konfesor onaren, predikariaren edo ongi nai dion besteren baten hitzez agerzea amiltegi gaiztora darabala daraman bideak, eta andik malkortu ta betiko galdu nai ezpadu, utz dezala hura ta atera dedilla zerukora ta fededun onak daramaten garbi zuzenera. «Ala da», dio S. Bernardinok: *tribus modis vult Deus tollere peccata: primum per predicatorum, et confesores* (Serm. 47 per 5 Dom. Pas.).

Bekatu da bekataria bere Jangoikoarekin gaizkitzen duena. Bekatu da Jangoikoari bekatariganako asertza ta begi illuna arrezazten diona, bai ta bere zuzentasunaren ta justizi izugarriaren ezpat zorrotza ere; baña hau erabili ta legokan ukaldi latz min gogorra eman baño len adirazten dio Jangoikoak gurasoz, maisuz, predikariz, libruz edo nolerebait len israeldarrei bere profeta Isaiasen ezpañez ta gero Ecijako erritarrei zerutik S. Pablok bidaldu ta adirazi ziena.

Israeldarrei Jangoikoak len Isaiasez adirazia da: «A, zori tristeko jendea, jende zere naiez bekatupe gaiztoan zautzana ta Jangoiko aserretua ezpat izugarri zorrotz bat eskuan duela zere gañaldetik dadukazuna»: *vae genti peccatrici, populo gravi iniquitate* (Isai. c. 1,4). Eta gero bere Apostol S. Pablos Ezijatarrei Jangoikoak adirazia? Orain zuk adituko dezuna.



Igorri-bidaldu zion bein Jangoikoak Ezija deritzan erriko kargudun bati bere Apostol S. Pablo, ta igorri zion bere ezpat zorrotza eskuan zuela ta begi belztasunez ta suz beteekin esatera: Ekusi nai ezpadezu gain-barren errea ta den guzia auts egiña zere erri hau, bil zaitetz erriko beste kargudun zere lagun guziekin ta guziok elkar artu ta egizue erritarrak agitz aserre dadukaten Jangoikoa palakatzeko den bidea. «Iru dira», esan zion S. Pablok kargudunari, «begitan agitz Jangoikoari ematen dioten ta aserre dadukaten zuen gauzak. Lenbizikoa da Jai-igandeetako; bada jai-igandeak Jangoikoaren egunak dira ta egun orietan egiten dira emen lan-egun beretan baizik zillegi ez diran saldu-erosi, gauzen karratze, moldanz eta era bereko beste zenbait. Jai ta igande beretan anitz dabilza tripazanzan, jan-edan luzean, danzan, jokoan, jolasket loi-lizunetan ta anima gaisoa zikinzeke diran beste anitz gauzetan, ta bitart orretan Elizak eremu egiñak utzi ta or dabilza beste anitz soñeko arroz, antuste galduz ta hitzket galgarritz ta naikunz zikiñez beteak ete Jangoikoaren egunen zikinle gaizto egiñak.

Bigarren gauz Jangoikoari emen begitan ematen diona da gizonak Jangoiko beraren izena deshonoratzen duten gisan juramentuz, maldizioz ta blasfemiz deshonoratzea; bada anitz dira beren saldu-erosian ta beste lan ta egiteko askotan hau egiten dutenak. Eta irugarrena da aisa bizi diranak, salzalle, langille ta beste beharsu gaisoekin duten gogorza; bada beren langille, salzalle ta zor dituzten beste ematen ez die edo nekez, laburki ta berandu ematen die zor diena, ta bitarte guzian badute arzalle gaisoak nork daki zenbat zer egin, negar ta neke. Eta denbor berean fite ta gogorki ateratzen dute berei beharsu berak zor diena, ta eskean dabilzan erumes erdi-illei nekez ta laburki ematen diete urrikarizko zerbait».

«Iru gauz gaizto makur oriek gatik, bada, erri onetako gaiztaginetara agitz aserre dago Jangoikoa», esan zion azkenik Apostolu Jaunak kargudunari, «ta magitik nik orain nere hau bezala, aterea daduka bere ezpata zorrotza ta eritasun gogorrez galzeko dago erri guzia». Eta egiñen ere zuen erritarrak hau ikasi ta egin ezpalute egin zutena. Ara zer.

Aditu duguna esan ta gorde zen Apostol santua ta utzi zuen erdi illa ta guztiz arritua karguduna. Hordurik galdu bage billatu ta bildu zituen bere lagunak. Agertu zion aditu ta ekusi zuena. Izutu ta beldurtu ziran aren lagunak ere ta Jangoiko aserretua palakatzeko ta aren kastigupe izugarritik beren buruak eta erritar guziak ateratzeko, artu zituzten bide ta neurri guztiz onak; bada billatu zituzten erlijioso, misionistak; adirazi zuten oriek pulpitotik, kalez kale zebilzala ta al zuten alde guzietara Jangoikoaren aserkunz zuzena ta erritarren penitenzi andi ta bizitz on

bana egin beharra. Beldurtu ziran erritarrak ere ta negarrez, konfesioz, limosnaz ta egin zituzten beste gauz on anitzekin geldirazi zuten Jangoikoaren ezpata. Eta kargudunak betiko urratu naiez leneko gaiztaginzen bidea, beren ordenanz berriekin kendu zituzten jai-igandeen leneko zikingarri guziak eta nekazari, langille ta beharsu gaisoen alde, eta juramentari ta blasfemigille gaiztoak eskura erakarzeko ezarri zituzten lege ta kastigu egokiak. Eta zeren lan on hau eragin zien Apostol jaun S. Pablok, berezi zioten urten oroko bere fest andia ta beren ondorengontzat utzi zuten gilzape sendorrean gordea aldi artan agituaren ta egin zuten guziaren berria. (apud P. Martin de Roa).

Zori oneko bekatarri damuz beteak Ezijaren eran aditzen dituztenak Jangoikoak predikariz, konfesozez, libruz edo edozein beste bidez igorzen diezten mandatu onak eta Ezijar berak bezain humilki ta laster beren gaizki guziez urrikiturik konfesio zuzenak eta beste gauz onak egiten dituztenak; bada ori egiten dutenak Ezijar berak bezain fite ta laster erditsiko dute egiñen barkanza ta bekatu berririk ez egiteko Jangoikoaren lagunza ta grazia.

Baña bekatarri gaiztoak ez-aditu egiten badio Jangoikoari edo Jangoikoak predikariz ta beste bidez bidalzen dion mandatu onari, bekatarri beragana berriro aserretuko da Jangoikoa. Al-ere kastigutara baño len, balegike S. Bernardinok dion bigarren gauza ta igor lezoke bere bigarren mandatua; baño mandatu, lenbiziko mandatua baño gogortxeagoa, ta mandatu, munduko zenbait jaunen eskuz egiña: *secundo per principes*. Hau da len Faraonekin Jangoikoak egiña ta geroztik beste gaizto zenbaitekin ere egin oi duena.

Egiptoko errege Faraonek neke gogor andian zeduzkan bere erreinuko israeldar on guziak. Negarrez eskatu zioten orien arteko zenbaitetik etzitzala, arren, anbat nekatu; baño Faraonek ez-aditu orien otoitzei egin ta leneko neke gogorrek arindu lekuan, eman ziezten leenen gain neke berriak eta utzi zituen len baño ere agitz nekatuagoak. Faraonen gogorrez gaizto hau ekusi ta urrikaldu zen bere israeldar onez gure Jangoikoa, ta igorri ta bidaldu zion Faraoni beraren Jangoiko edo gizon milagrodun egiñik Moises zeritzan ta Egipton arkitzen etzen beste israeldar bat. Eman zion Jangoikoak Moises oni Faraon-petik israeldarrak ateratzeko bidea. Bidea zen Faraoni eskatzea Egiptotik atera ta baso-eremu batean beren promes bat ateratzeko baimena ta eskua, ta ark hau ematen ezpazien, Jangoiko berak berari adirazten ziona zuzenki arekin egitea.

Eskatu zion Faraoni Moisesek Jangoikoaren egiteko onetarako bere baimen-eskua, ukatu zion Faraon gogorrek eta artu zuen Moisesek



Jangoikoak emanikako eskua, ta asi zen egiten Jangoiko berak adirazten ziona ta Faraon bezain gogortua arkitzen etzen bat beratzeko aski ta sobera zena. Bein bete ziozkan odolez gere ibai andiko ta bazter guzietako urak; gero laur oñeko zikiñez bere jauregi bera ta jauregiko gauzak, geletako maiak, oatzeko maindirak ta bazter guziak, bai ta erreinuko beste guzien itxe ta bazterrak ere; ta gero ezten zorrotzak dituzte euli zanka luzez, zeruko suz ta milagrozkko aizez erre ziozkan bazter guzieta-koko gari ta labore ziranak, bai ta frutaldietako sagar, udare, txermen, mats eta beste jan-gai guziak ere ta oriekin batean larreetako ta mendiko belar ta osto guziak. Azkenean Faraon berari ta beste aren erreinutar guziei aingeru baten eskuz ill ziezten Jangoikoak beren etxeetako seme nagusi guziak. Zori oneko erregea Faraon, jangoikoaren orrenbat zenza-gai gogorren buruan gelditu baliz zenzatua ta damuz ta graziz ondua!

Hau da aldi artan Jangoikoak Faronekin egin zuena. Onekin bezain gogorki ezpad-ere, egin oi du beste bekatari anitzekin ere, bekatari berak bere predikariz ta konfesor onen hitzez ta esanez ezin eskura dituen aldian, era bereko zerbait kastigu. Gorputzez anditua ezpada bekataria, aski da onetarako beraren gurasoa edo maisua; bada esanez, mehatxuz ta behar den aldian zeatuz, adirazten dio bere zenzatu ta ondu beharra. Gizon egiña edo andia bada bekatari moldakaitz zuzendu beharra, zenzarazten du Jangoikoak alkate jaunen, erriko kargudunen edo justizi andien zeanzez, kastiguz, erbestuz, presondegiz, katez edo beste bideren batez.

Ezpaliz Jangoikoa den bezain ona ta urrikaltia, inguruk oriek artu bage emanen lioke bekatariari dagokan sari ta pena gogorra; baña ez da ori Jangoikoaren gogo; Jangoikoaren gogo ta naia da bekatariari bere gaizki guziak barkatzea, zerurako gauz onak egiten lagunzea ta zeru bereko atsegin andiz beterik gero beti idukitzea, ta hau guzia egiteko nai duena da bekatari bera gaizki egiñaz damuturik eta onzeko asmo garbi beroan uztea. «Bai», dio Jangoikoaren izenean Jeremias profetak, «aldatzen badira gaiztoak gaizetik onera, aldatuko naz ni ere oriek galzeko nuen asmo neretik oriei berei onak eta ongi andiak egiteko asmora»: *si paenitentiam egerit gens illa a malo suo... agam et ego paenitentiam super malo, quod cogitavi, ut facerem eis* (Jer 18,8).

Hau da len ta gero Jangoikoak egin izandu duena ta bein Ninive andiko gaiztagin guziekin egiña. Igor-bidaldu zien bein Ninibetar bekatari andiei Jonas profeta aien erria berrogei egunen buruan arrasatuko zuelako berri izugarriarekin: *adhuc quadraginta dies, et Ninive subvertetur* (Jon. 3,4); baña berri hau aditu bezain laster asi ziran engo errege ta erri-

tar guziak baru ta baru ta penitenzi, ta palakatu ere zuten Jangoikoa ta gelditu ziran beren erri ta zituzten ondasun guziekin ta sasoi ta osasun onean. Israeldarrak gaiztatzen ziran aldian, igorzen ziezten Jangoikoak bere profetak eta predikari onak. Orien esanak arzen ezpazituzten, igorzen ziezten beren bazterretako jende, geiago zezaken gogor, anitz gaitz egiten zienak; baña beren gaizki egiñaz damuturik ekusi bezain laster, ateratzen zituen beren etsaien atzapar ta nekepe gogor guzitik. Ekusi dugu Ezijarrak, Ninivetarrak eta israeldarrak Jangoikoaren predikari onak aditu ta egin zutena. Ekus dezagun egiten ez duten gogorrekin azkenik egin oi duena.

§ II.

Besteren eskuz eskuratzen ezpaditu, arzen du Jangoikoak gaizto guziak eskuratzeko, ta aren eskura nai ezpadute, galdurik uzteko eskua. Ez da onetaratzen Jangoikoa azken horduraño edo onez-onezko bideak egin arte guzian; da ta animale guzien errege leoia bezalakoa; ta leoiak ez dio bati ere, S. Cirilok dionaz, atzaparrik luzatzen itsatsia ta orzez urratzeko, an datorrela lenik orroz adirazi bage: *cum leone se Deus comparat, non prius insiliente, et ex ira praedam devorante, nisi minas praemiserit*.

Hau bere dio S. Basiliok ere, ta dio, Jangoikoak bekatariarekin egi-tuen duena S. Cirilok baño geiseago agerzen digula; bada dio: «Zein ona ta zein urrikaltia gaizto galduekiko Jangoiko-gizon maitagarria! Bada ekusten badu ere orien gaiztakeri galgarriak eskatzen duen saria ta sekulako galduak uzteko ematen dion gaia, geldi-geldirik daduka bere eskua ta adirazten die gaiztagin berei begira dutela, betiko galduak dirala, beren gaizki guziez damuturik onzen ezpadira»: *clementiae Dei erga homines peculiare hoc est: non clam, aut silenter ingerit supplicia, sed intendens comminationes, ea praedicit affore, per hoc peccatores invitans ad paenitentiam* (in Isai. 5).

Hau bera bekatari berei adirazten die Jangoikoak S. Bernardinok dion irugarren bidez ta eran ere, edo gerraz, izurriz ta gosez: *tertio per bellum, pestem, et famem* (ubi supra), edo iru gauz oriek adirazten dituzten gauzetatik batez edo beste. Gauz oriek adirazten dituzten gauzak dira gorputzeko eritasunak, barreneko kezak, zerua galzeko beldurrak, bere gañera datozkiola deritzan infernuko neke gogorrak, etxeko norbaitek bizten diozkan kudu-miñak eta erriertak, auzoko batek egiten diozkan naigabenz eta esker gaiztoak, eta oriekin batean ilzeko ta bere bizi gaiz-



toaren kontu zorrotzak emateko ta oni dagokan zori gaiztoko saria arze-ko dagolako gogoranz eta oroitzapen illunak. Orrenbat aldetara ta askotan geiagotara ere estutzen du Jangoikoak bekataria, len Tambornalek artu nai zituen erriak bezala, ta ertsi-estutzen du hau kastigura baño len bere eskura naiez.

Persiko errege izugarri Tambornalek gerran zebillen aldian inguru-zen zuen armaz ta soldaduz artu nai zuen erri murrutua. Lenbiziko egu-nean agerzen zien erritar guziei bander zuri bat eta adirazten, ematen bazioten bertan beren erria, artuko zituela bere pean ta ongi erriko guziak. Hura ekusi ta ere igitzen ezpaziran, urrengo egunean agerzen zien bander gorria ta adirazten, eskuratzen ezpaziran egun artan, illen zituela erriko zaldun guziak. Al-ere eskuratzen ezpazituen, agerzen zien azkenean bander belz bat eta adirazten zien, luzatzen bazuten aren esku-ratzea, ill-eraziko zituela suz, ezpatez ta alde guzietara erriko andi ta txiki ta on ta gaizto guziak, eta utziko zuela erri guzia auts ta arri-pill egiña (Paul. Jov in elog).

Era orretan, bada, Jangoikoak eskura nai du bekataria, lendabizian leunki ta meeki adiraziz ongi dagokana. Aski ezpada deikunz leun-mee hau, ots egiten dio gogorkiseago ta gizonen zenbait kastiguz edo esate ta adirazte zorrotzez. Eta lena ta hau aski ez diran aldian, arzen du eskuan zigorra ta ematen diozka eritasunak eta adirazi ditugun beste ukaldi ta golpe gogorrak. Al-ere zenzatzen ta Jangoiko urrikaltiarene eskuratzen ezpada, ematen dio azkeneko ukaldia ta ondutzen du betiko sulezean; bada ezkenean nori berea emateko dagon Jauna da gure Jangoiko epedun urrikalti maitea: *Altissimus enim est patiens reditor* (Eccl. 5,4).

A, gure Jesus maitagarria! Ez, arren, orretarañokorik, ez! Zenzagabe bat bezala bizitu naz ni nere gaiztakeri eroetan ta orien kastigatzallerik ezpaliz bezain aisol-kabenzan ta nere gogoz ta lanez esaten nuela: gaiztakeri anitz egin ditut nik, baño zer andik? Deus ere: *peccavi, et quid mihi accidit triste?*, ta zure mehatxu, adirazte ta onezko kastigu guziez irri egin ta egin dut nere gogo gaiztoak nai zuena; eta orra non zure esku-pe gogorrean galzear nazan eternidade ta sekula guzirako! Ez, arren, Jesus maitea, ez. Idiki ditut noizbait nere begiak ekusteko leneko nere erakeri guziak. Zori gaiztoko nere galgarriak oraindañoko nere ibiller makur ta bekatu gaizto, sekulako begitan naik gaurdanik artuak! Indazu, bada, orien barkanza ta zere grazia, bai ta nere eriotzerañ ongi bizitze-ko zere lagunza ta indar andia ere. Bai arren, bai.

VII S. Joan Ebanjelariaren eguneko irakurraldia

Recubuit in coena super pectus ejus. Joann. 21.

Gaia: Jesusen Bihotzeko onen gisan bizi ta ill nai duenak egin beharra.

Elizak gaur Jangoikoari eskatzen dio digula Ebanjelari S. Joanek erakusten diguna ikasteko argia ta ikasten duguna egiteko grazia; ta S. Joanek gaurko bere Ebanjelio santuan erakusten diguna da Jesusen Bihotzerako bidea; ta ark hau erakusten digu hitzik atera bage ta berak Ostegun Santu arratsez egin zuena agertuz. Badakizu zer den arrats artan ark egiña? Gaurko Ebanjeli santuak diona: Jesusen Bihotza billatu ta bere burua aren gañean me-meeki ezarzea; ta hau ark an ezarzea isillik Jesusi galdegiteko berak eta beste Apostol guziak jakin nai zuten ta Jesus beraren alde zen gauza.

Maian jarri ta afalzen hari ziralda gelditu zen Jesus naigabe andi batekin arkitzen zenaren gisan ta asi zen maiko guziei esaten: «Zuen arteko bat artan dabil ta saldu behar nau ni». Hau aditze berean arritu ziran bat ez beste guziak eta guzien izenean diogun eran jarri ta galdegin zion S. Joanek Jesusi: Jauna, zein da diozun eskerbage gaiztoa? Galdetu zion neke artan Jesus ez ekusi naiez ta beren kezkatik Apostol onak ateratzeko. Ikasi zuen S. Joanek Jesusi galdetu ziona, artu zituen bidenabar Jesusek bere Bihotzeko onei egiten diezten zeruko anitz on ta ill zen azkenean Jesus beraren maitazalle onari zegokan gisan ta eran. Baña etzion Jesusek hau guzia S. Joani egin S. Joan geldirik zegoela; ta izan nai badugu S. Joanen gisan Jesusen Bihotzeko onak eta Jesusen ondasun andietan ta eriotz zori onekoan S. Joanen lagunak, ikasi ta egin behar dugu S. Joanek artako egin zuena. Goazen, ekusiz geren aldian guk egiteko, berean ark ederki egiña.



§ I.

Jesusen Bihotzeko maitari ona izateko ta adirazi ditugun beste ondasun andiak erdits naiez Ebanjelari S. Joanek egin zuen lenbiziko gauza zen garbi-garbiro beti bizitzea; bai, ala da, dio Nizeako Doktore S. Gregoriok: *diligebat eum Jesus, quoniam specialis praeogativa castitatis ampliori dilectione fecerat dignum.*

Orra, bada, Jesusen Bihotzekoa izan nai duenak orretarako ta adirazi dugun beste guzirako egin behar duen lenbiziko gauza: gogoz, hitzez ta lanez garbi garbia izatea. Badakizu zergatik? Zeren garbiak diran, Espiritu Santuak dion bezala, Jangoiko Erregea beren adiskide egiten dutenak: *qui diligit cordis munditiam, habebit amicum regem* (Prov. 22,11), ta zeren adiskideak adiskideenzat dituen bere ondasunak. Eta beste alde, zeren gogoz, hitzez ta lanez garbi ez diranak sartuko ez diran Jesusen Bihotzean, ez eta zeruan ere: *non intrabit in eum aliquid coinquinatum* (Apoc. 21,27).

Jesusek berekin du Jangoikoaren edertasun garbia ta garbitasun bazterrik bagekoa ta ezin ekusi du aragiaren loikerirekin urbilzen zaion anima. Ez du izutzen Jesus otzak, ez du izutzen gabeak edo beharrak, ez du izutzen itxol txarrak edo ganadutegi ezkaratzak eta estalbiak, ez eta eri baten leprak, zauri izugarriak, usteltasunak edo materi loi itsusiak ere; bada gauz orien erdian bizitu zen Jesus ogei ta amar urtez naigabe bat agertu bage ta eririk zikin(en)ei ere onak eta ongi andiak milagroez ere egiten ziezitela; bekatu loien zikinkeria da Jesusek bein bad-ere begi onez ekusten ez duena.

Ez da anitz hau, bada zeruko aingeru andienak ere ez dute Jesusen garbitasun eder-zuriaren zazpi mil-milla-milloi zatititik baten laurdenik ere, ta al-ere ezin ekusi dute aragizko bekatu baten zikinkeria, orain adituko dezunak adirazten duenaz.

Zaldun prinzipa batek zuen etxean beste anitzen gisan bere mez-emallea. Zalduna gizon birtuteduna zen ta egun oro enzuten zuen bere meza. mezakoan ekusten zuen meza ematen zionaren aingerua, ta ekusten zuen aingeru onak atseginz andiarekin eskeinzen ziola Jaongikoari mezako hostia. Egunak joan ta goiz batez besterik ekusi zuen zaldun berak; bada ekusi zuen aingeru bera tristuraz ta illuntasunez betea, ta ekusi zuen mez-astetik mezaren bukanz azkeneaño haritu zela itsas-afar gogortu edo esponja batekin mez-emalle zikinduaren burua garbitzen ta jautzen; baña nai zuenik erditsi bage ta bere zikinkeritik bat ere ari ken-

zen etziola; ta azkenean ekusi zuen eskuan bildu zuela aingeru onak esponja ta ongi estutu-ersi-prensatu ta bota ziola burutik bera esponjak zuen zikinkeria guzia ta gelditu zela burutik oñeraño mez-emalle tristea infernuko belz itsusia zirudiela.

Bazter batera eraman ta esan zion gero zaldunak mez-emalle gaisoari: «Gizona, nik mezakoan ekusi dudana, atzo goizetik egun goizeraño egin dezu zuk gauza gaiztoren bat; esazu egia». «Bai, jauna», eranzun zion alkez ta lotsaz beterik, «bart egin dut bekatu zikin bat». Hau aditu ta eza-gutu zuen zaldunak zergatik zen egun artako aingeruaren illunza ta tristura (In bibliot. PP. 12 S. Petr. Dam. ep. 1).

Baña hau baño ere egokiagoa da diogun onetarako beste gauz hau. Deabru batekin bere joan-etorri gaiztoak zituen gizon batek egin zuen beste bekatu zikin bat. Jarduki nai zukean gero bere deabru berarekin. Egin zituen hura sulezetik erakarzeko ziran arrasto ta hitzket zenbait. Baña oi zuen gisan etzen agertu deabru gaiztoa. Haritu zen gizon bekatuz zikindua bere lan berean ta deabruari ots eta ots, agertu zitzaion arte guzian, ta azkenean ere agertu zen agitz urruti. Galdetu zion gizonak, zergatik etzen etorri lenago ta zergatik etzen argana urbilzen. Ire bekatu zikiñaren usai gaiztoagatik, eranzun zion deabruak (Cantimpr. 1. 2, apum. c. 39).

Bada aingeru onak ez ezik deabru gaiztoak ere ezin ekusi badu aragi sutuaren zikinkeria, nola naiko du ekusi oriek biak baño milletan ta milletan begi argi ta garbiagoak dituen Jesus maitagarriak? «Zikinkeria loi oni beren bihotz gaiztoan toki egiten dioten gizonak ez dira Jesusen eskola-koak, deabru belz zikiñaren eskupekoak dira», dio S. Gregoriok: *dum fornicatores desiderii carnis assentiunt, potestati malorum spirituum subduntur* (In 1 reg. 14). Jesusen eskolakoak, Jesusek emen maite dituenak eta zeruko bere ibilleretan ta paseanzen darabilzanak dira emen garbiro bizi diranak. «Bai», dio egungo gure S. Joanek, «eun ta berrogei ta lau milla zebilzan zeruan Jesus maitagarriarekin ta guziak ziran andre konturik eta aragiaren zikinkeririk izandu etzutenak»: *virgines enim sunt: hi sequuntur Agnum, quocumque ierit* (Apoc. 14,4).

Era onetako garbi ederren erdian dabillega Jesus Bildots garbi maitagarria lenago ta lenago ere adirazia daduka Eskritura santak; bada hor-dutik esaten digu lilio zuri ederren artean arzen duela Jesus Bildotsak bere belarra: *pasatur inter lilia* (Cant. 2,16), ta anima lilioak garbiro bizi diran animak dira.



§ II.

Beste Apostoluak ere, Jesusek Apostol egin zituenetik beinatz, gizon garbiro bizitu ziranak ziran; baña guzien artean S. Juan zen len ta gero agitz garbiro bizitu zen Apostol gizona; ta gizon ta Apostol, Jesus ekusteko begirik garbien ta argienekin arkitzen zena, ta oni ta beste Apostol guziei urrutitik agertu zitzaizen batez, onek ezagutu zuen ta bes-tek ez Jesus maitagarria: *Virgo Virginem agnovit*.

Berez zetorkion ta nekerik bageko garbitasuna ta birjindadea etzen S. Joanen birjinz garbi hau; berak bere gaztetasun beretik billatu zuen birjinza zen eta berak bere nai andiz ta kontuz billatu gordea; ta orregatik zen, Euthimiok dionaz, zeruko aingeru garbiei atseginz andi bat ematen ziena; ta atseginz, horduko denbor aldietan gaurko guretan baño agitz andiagoa ematen ziena; bada S. Geronimok dionaz, Jangoikoa gizon egin ta mundura zen arte guzian, etzen munduan birtute ezaguna ezkontzara bage garbiro ta birjen bizitzea, ta al-ere garbiro ta birjen bizitu zela dio beti S. Joan Ebanjelaria: *Virgo electus ab eo (Jesu) virgo in aevum permansit*; ta S. Pedro Damianok esaten digu betiko bere birjen-tasun garbi onen alde utzi ziola Jesusek ilzeko hordu berean amatako bere Ama maite Birjen Maria, ta Birjen Mari bere Ama maiteari semetako ta bere orde bezala birjen garbi S. Joan Ebanjelaria: *cui Christus in cruce Virginem virginem commendavit*. Eta onek guziak adirazten duenaz, orra zein andia S. Joanen birjenza ta aragiaren zikinkeririk bagea. Eta orra bidenabar Jesusen ontart andi hau ta beste anitz erdisteko ta eriotz on baterako S. Joane egin zuen lenbiziko gauza: garbiro beti ta aingeru baten eran bizitzea.

Eta orra era berean ta ongi ill nai dutenak alegin guzian egin behar dutena: ongi ilzeko naia ta gogoa arzen duten egunetik kontuz ta garbiro bizitzea; bada era orretan bizi diranei, beste gisan len bizitu baziran ere, ematen die Jangoikoak eriotz on batek eskatzen duen lagunza ta grazia, bai ta bere aldi eriotz on bera ere, ta bitarte guzian zeruko mil ondasun ta doai. Hau guri adirazteko berri egokia da Gala Erromako konsul Simakoren alabarena.

Izandu zituen dam onek ezkonz andiak Erroman. Ema zion hordu onez bere aitak orietatik bat, baña ezkondu ta laster gelditu zen senarrik bage ta alargun egiña. Len billatu zutenak billatu zuten berriz ere ezkonz berrirako; baña oriek utzi ta artu zuen bakarrik eta garbiro bizitzeko asmo-gogoa. Hau ikasi zuten aldi, argana ziran aren aide zenbait, baita

mediku bat edo beste ere. Aide ara ziranak esan zioten zekiten guzia hura berriz ezkon-erazi naiez. Ez-aditu egin zien alargun onak oriei. Hau ekusi zutenean esan zioten, an zeuden mediku jaunak esaten zutenaz, ezkonzen ezpazen etzuela izanen osasunik. «Naiz ez», eranzun zien damak; «bada badut uste, osasunik ez izanagatik, ez nabela utziko anima garbiei ongi nai dien Jesusek». Eta bere aldetik mediku ta aide guziak ken-erazi ta asi zen alargun garbi onaren bizitza egiten ta bizitu zen etxeko egitekoa, Elizako serbitzua ta Jangoikoaren maitanza baizik gogoan etzuela.

Eman ziozkan Jangoikoak maite ditueni eman oi diezten emengo ondasunak eta zerurako gaiak eta orien artean bere eritasunak eta ezkenen azkenekoa. Gabaz izaten zituen bi argi bere gelan ta azkenekoan ekusi zuen argi orien erdian S. Pedro Jesusek igorri bidaldua. Ekusi zuenen esan zion poz eta atseginz andiarekin: «Zeruko gilzak dituzun nere Apostol andia, idikiko dizkidatzu ango atea eta atariak? Barkatu ote dira nere bekatu guziak?»: *Domine mi, dimissa sunt peccata mea?* «Bai, atoz», eranzun zion Apostol santuak: *dimissa sunt. Veni*.

«Ongi ta mil esker, nere Apostol santua», esan zion eriak S. Pedrori, «baña ez nuke bakarrik igan nai zerura. Emen dut Benita deritzan lagun bat eta nai nuke igan ledin nerekin hau». «Ori ez», eranzun zion Apostol S. Pedrok, «ez da oraindik prestaturik arkitzen ta prestatuko da ogei ta amar egunen buruko». «Hau ezpada, bada, datorrela nerekin bigarren nere laguna», esan zion alargun garbiak Apostol santuari. «Ori bai», eranzun zion santuak eta gorde zitzaion. Deitu zituen bertan eriak itxeko guziak eta kontatu zien ekusi ta aditu zuena ta andik laster ill ta igan zen bigarren bere lagunarekin zerura (P. Catt. t. 2, disc. 213).

Alargunak eta ezkongai garbiak ez ezik, ezkondu berak ere zerurako jaiok dira ta nai du Jangoikoak guziak beren ill-hordurako arki ditzeten arako gai egiñak eta ongi prestatuak. Arako prestanzak eskaten die beste bezala ezkondu guziei ere animako garbinza ta ontasuna. Ezkondu onak garbinz on hau izateko bizi beharko dute ezkonzako lege zuzenak eskatzen duten eran ta Jangoikoaren legek gauzarik urratu bage. Ala bizitu ziran len Ana, Samuel juez ta profet andiaren ama, S. Joakin ta Sant Ana, Jesusen Amaren ait-amak, S. Joan Baptistaren ama S. Isabel ta lege zarreko beste anitz eta asko, eta gero beste anitz mill-millaren erdian S. Agustinen ama Santa Monika, S. Isidro nekazaria ta Portugalko errege S. Isabel, guziak ezkondu onak eta humedunak, guziak Jangoikoak emen bere ondasunez beteak eta gero ongi illak eta guziak bere aldarean Eliz Ama santak ezarriak daduzkanak.



§ III.

Ez du mundukok erditsiko S. Joan Ebanjelariarena diñako birjindadea ta animako garbinza, baña edozeñek, naiz ezkondua izan ta naiz ez, erdits dezake eriotz on baterako behar den guzia; ta ori erdisten badu, arkitzen da S. Joanek bere andi ederrarekin adirazten ta erakusten digun ta Jangoikoak bere zerua emateko eskatzen duen guziarekin. Aragiaren zikinkeririk bageko bizitza ta animako garbinz hau billatzen duenak egin behar ditu sei gauza. Lenbizikoa da humilki hau ta askotan Jangoikoari eskatzea, Eskriturako jakinsuak egiten zuen bezala, ta egiten zuen ark hau, zeren zekien gis onetan baizik garbiro ezin bizi zitekela: *quoniam aliter non possem esse continens, nisi Deus dete... adii Dominum, et deprecatus sum illum* (Sap. 8,21).

Hau bera egiten zuen Thebaidako konbentu bateko abades Sarak. Amairu urtez izandu zituen Sara onek aragiaren ta etsai gaiztoaren tentanz andiak eta garaitzen zituen ziranak Jangoikoagana joan ta otoitz egiten ziola. Etzuela garaituko ekusi zuenean, utzi zuen etsaiak esaten ziola: «Garaitu nazu, Sara, garaitu nazu». «Nik ez», eranzun zion Sarak, «nik eskatu ta Jesusek garaitu zaitu»: *Non ego vici te, sed Deus meus Jesus*.

Bigarrena da gizaki ta emazteki arteko joan-etorri, ibiller ta egoer utzi al guziak uztea, gogoan arturik santa bati ta beraren alabari S. Geronimok esaten ziena: «Badakit zer diodan», esaten zien, «ta siñist nazazue: gizakiarentzat gauzarik bata galgarriena emaztekoa dela ta emaztekiarendako gizakia; bada bestearendako sua da batetik eta bestetik agotz-lastoa»: *credatis experto, nihil periculosius viro, quam mulier, nec mulieri, quam vir: uterque palea, uterque ignis* (In Reg. Mon. ad. Paul. et Eustoch.).

Irugarrena da elkargandik oriek begiak ere kenzea, oroitzapen ta naikunz zikinei biderik ez emateko: *virginem ne conspicias, ne scandalizeris in decore illius* (Eccl. 9,5); ta S. Paula berari ta Eusthoquiori, oriek ziran amalaben izenak, gaztigatu zien S. Geronimo berak etzutela gizoni zer begiratu, galdu nai ezpazuten anitz balio duen animako garbinza: *viri... quare tatis effugere faciem: cito perditur, nisi fortiter custodiatur, quod carum est* (ubi sup.).

Laugarrena da loan, janean ta ardoan kontuz ibilzea, geiegiak utzi ta indarrak arzeko behar denarekin gelditzeko; bada hau egiten ez dutenak, dio S. Anbrosiok, su ta su ematen diote aragi zikinleari: *pascitur libido conciviis, nutritur deliciis, vino accenditur* (Lib. de paenit. cap. 14).

Bostgarrena da gauzen egin aldian ta noizean bein gogoan arzea zere ill beharra, Jangoikoari kontu eman beharra ta lizunkeriarri darraikon betiko sulezea: *in omnibus operibus tuis memorare novissima tua, et in aeternum non peccabis* (Eccl. 7,40).

Seigarrena da gugatik Jesusek ekusi zuena ekusi ta beraren Bihotz gure amorez idikira etsaiaren tentaldi guzietan iges egitea ta gordeko gaituelako uste andiarekin hau guk egitea.

Gauz oiek guk Apostol garbi S. Joani garraizkola egiten baditugu, geren alde izanen dugu Jangoikoaren grazi andia ta lagunza, errazki itzailiko ditugu aragiaren suak eta garrak, bai ta etsai gaiztoaren tentaldi loiak ere; ta geldituko gara animan zikinkeririk bage ta S. Joan Ebanjelariak berean izandu zuen garbitasun ederraren erako garbinzarekin, ta alde onetatik eriotz on banatarako ongi prestatuak.

Alde guzietatik geren buruak prestatzeko egin behar dugun gañerako guzia da Santu beraren eran Jangoikoak gugandik nai duena zuzenki egitea. Santuagandik Jangoikoak nai zuena zen ark bere Jangoiko bera garbiro ta zinki maitatzea, ark Jesusen Ama bizi zen arte guzian ongi zaitzea, serbitzea ta honratzea, ta denbor ta aldi berean ta bere bizi guzian Jangoikoaren lege berri ona mundu guzian banatzea. Hau da guztiz ederki beti ark egiña, bada maitatu zuen beti bere Jangoiko maitagarria ta ari atsegin egin naiez egin zion beraren Amari, bere kontura artu zuen hortutik aren eriotzeko horduraño, seme on batek bere ama maiteari dagikeon guzia.

Jesusen Ama bizi zen denboran bakarrik hau ez uzteagatik, ibilli zen S. Joan Asiko Elizak zaitzen ta orietako guziei erakusten jakin behar zutena; ta Jesusen Ama zerura igan ondoan bere lan berean ibilli zen Jerusalemendik Erromaraño, bai ta bien arteko itsas isletan ere. Eta bere lan hau obeki egin naiez ta bazter orietakoei ez ezik munduko beste guziei ere jakin behar zutena erakusteko, ezarri zituen libruz Jangoikoak orretako agertu zoizkan gauz andiak. Eta bere lan hau oni eragozteko etziran aski izandu Erromako tormentu ta erbestu ta desterru guziak ere; ta zartu ta indarrak bage arkitzen zen denboran ere, joaten zen besteren besoetan Elizara, zegokien guzia an fededunei erakustera.

Orra, bada, S. Joanek guri erakutsia ta alegin guzian guk egin beharra, izan nai badugu aren zori oneko eriotzaren erako eriotza on bana: Jesusen Amari guk egitea beraren deboziozko lagunz ona ta guk ari hau egitea egun oro ta geren bizi guzian; beti gu bizitzea Jangoikoaren legeko bidetik oñik atera bage; munduko guziei ekusgai onak beti guk agerzea, maita dezaten guziak ongi ta ziñez gure Jangoiko maitagarria ta bide-



nabar onzat arzea Jangoiko berak bere edo besteren eskuz igorzen digun nekagirotan ta lan guzia.

A, nere Jesus maitagarria! Ori da nik zuzenki egin nai nukena; baña ez naz ni S. Joan Ebanjelaria; bekatari txar ezer-ez bat naz ni ta nerez ta zure lagunzik bage deus guti dagikedana ta gauz on bat ere ez. Egiñen badut, bada, diodan hau guzia, lagundu behar didazu zere beso bortitza-rekin ta grazi ta indarz anitz ematen didazula. Indazu, bada, egungo santu andi S. Joanen ta santu onek dakizun bezain ederki serbitu, honratu ta maitatu zuen zure Ama maitearen izenean. Bai arren, bai.

VIII Inozente santuen eguneko irakurraldia

*Accipe Puerum, et Matrem ejus, et fuge in
Egyptum. Matt. 26.*

**Gaia: Jangoikoaren, ekusten dituzten guzien
ta beren buruen etsaiak dira gaizki bizi diranak**

Egungo mezan arkitzen dugu errege gaizto baten amurranza ta onek ill-erazi zituen obenbageko aurtxo zenbaiten fest andia. Errege gaizto hau Jesusen jait-denboran Jerusalem bizi zen Herodes zen ta onek ill-erazi zituen aurrak Jesus jaio-berriaren erritarrak eta erri aldekoak; bada Belen berekoak eta Belen bazterretakoak ziran aur illak eta Jesus Belenen jaioa da. Erri ta bazter orietako aur bi urtera etziranak ill-erazi zituen Herodesek, ara bere soldadu gogorrek orretako igorri ta , ta ill-erazi zituen Jesus jaio-berria illik utzi naiez.

Lenagotik artu zituen Herodes gaiztoak bakarrik Jesus ill-erazteko neurri-bideak; baña ustel atera ziran aren bide oriek, bai ta beste bide ta neurri guziak ere; bada bizirik Jesus geldi zekion beldurrez, ill-erazi bazituen ere onen denborako beste aur guziak, bai ta lenago ta lenago jaio ziranak ere, bizirik gelditu zen Jesus, beste guziak ark ill ta ere.

Bere antuste gaiztoak eragin zion Herodesi lan makur itsusi gogor hau; bada eragin zion bere erreinu zuena galzeko beldurrez, eta beldur hau sartu zitzaion gogoan, zeren lenagoko egunetan aditu zien urrutitik etorri ziran errege edo gizon jakinsu zenbaiti: «Non arkitzen da judatarren errege jaio-berria?», ta zeren Jerusalem eskribak eta farise jakinsuak esan zioten judatarren errege edo Mesias hau Belenen jaioko zela.

Bata ta bestea aditu zituen hordutik artu zuen Herodes gaiztoak judatarren Errege Mesias hau ill-erazteko gogo; ta ikasi naiez non arkitzen ote zen, igorri zituen Belena aren billa zetozen errege edo gizon jakinsuak, esaten ziela, ari beren agurrak egin ta, zetozkiola non uzten zuten adiraztera, bera gero hura ekustera joateko. Baña beste bidez itzuli ziran gizon jakinsu errege onak beren etxeetara ta gelditu zen Herodes nai zuenik ikasi bage ta zein zen Jesus ta non arkitzen zen etzekiela.



Eritzi zion bere jaiterri Belenen edo Belengo bazterren batean arkituko zela, ta hura ill-erazi naiez, ill-erazi zituen ango aur guziak. Baña horduko S. Josefek Egiptora eramana zen Jesus, ta ango aur guzien artean Herodesek ill nai zuen Jesus hau, gelditu zen bakarrik bizia.

Anitz negar eragin zien Herodes gogorrak ill-erazi zituen aurtxo zori onekoan amei; baña berak ere artu zuen azkenean zegokan saria; bada ill zen eritasun guztiz izugarritz ta usteltasunez, arrez ta oñazez betea; ta ill baño len bere eskuz, eman baliote artarako eskatu zuen kani-beta, illen zuen bere seme bakarra.

Gaur ez dira arkitzen gorputzen illzalle Herodes gogorrak, baña animen illzalle Herodes gaiztoak bai. Oriek dira bekatuako bidea besteri agerzen dienak eta dira Jangoikoaren, beste orien ta beren animen etsai gaiztoak, orain guk ekusiko dugun bezala.

§ I.

Bai, Jangoikoaren etsai gaiztoak dira anima gaisoei bekatuako bidea ematen edo agerzen dienak. Bekatuako bidea ematen dute bekatua besteei eragiten diotenak eta oriek dira aldi onetako bidagillerik gaiztoenak eta Jangoikoaren etsairik andienak. Bekatuako bidea ematen du, dagila gaizkiren bat norbaiti esaten edo adirazten dionak, bai ta bekatuegia ez dakienari agerzen dionak ere; ta oriek Jangoikoaren oraingo etsairik gaiztoenen urrengoak dira. Badira beste zenbait oriek bezain gaiztoak ez izanagatik, bekatuako bideen agerle galduak eta Jangoikoaren etsai agitz gaiztoak; oriek dira ekusi behar ez lizaken zerbait besteren begitan edo norbait ohar ditoken eran egiten dutenak.

Egille gaizto orietatik dira juramentuka ta maldizioka egon oi diranak, jai-igandeen urratzalle gaiztoak, hume lotsabage zirzillak, guraso ta nagusi jokalarri galduak eta edantegietako euli egiten diranak, bai ta begiratze lizunak, eskuka loiak eta ekusi behar ez diran beste gauzak egiten dituztenak ere; bada ekusgai galgarri galdua da aldi orietan oriek ematen dutena; agerzen dute alabaña langiro gaizto bererako bide zabala; bide, ekusleen grin makurrak nai bezalakoa ta orregatik bide agitz galgarria.

Len ekusi ditugunak, bada, ta oraingo bidagille ta agerle guziak Jangoikoaren etsai gaiztoak dira. Badakizu zergatik? Zeren diran Jangoikoak beretzat egin dituen gauz ederren galgarri galduak edo bataioko graziz ta bere doaiez apaindurik zerurako zeduzkan animen gal-

garri gaiztoak. Eta badakizu emengo gauz txarren egilleak ere bere etsaitzat begitan arzen dituela beren naiez ta gaiztakeriz gauz oriek austen edo galerazten dieztenak; bada izanik, diran eran, anim gureak Jangoiko beraren gisako espiritu garbiak eta aintzur ederrak eta Jangoiko berarekin beraren zeruan atsegin-kontentuz beterik beti bizitzeko Jangoiko berak egiñak, Jangoikoak zer begiz begiratuko die orien galgarri bidagin gaizto oriei? Ekusten dezu, ezin gogorragoz.

Hau zuk obeki ekusteko jakin behar dezu emen bertan ere gure animak, S. Pablok dionaz, Espiritu Santuak beretzat artuak daduzkan Elizak dirala; bada dio: «Betiko Jangoikoaren Elizak zarate»: *membra vestra templum sunt Spiritus Sancti* (2 Cor. 6,19); ta gauza zein itsusi izugarria Espiritu Santuaren Eliza zikin-eraztea, zikin-erazten duen bezala besteri bekatuako bidea egiten edo agerzen dion gaiztoak! Ezagutuko dezu zuk hau, ezagutzen badezu zer bekatu den arez, arriz ta karez egiten den emengo Eliz bat zikinzea ere. Eliz emengo bat zikinzen da eriotzez, golpezko odol-isurzez edo beste bekatuaren batez. Zikinzen onek eliztasunik eta bendiziorik bage ta mezarik ezin eman ditoken eran uzten du emengo Eliza. Orra zein zikindu galdua! Bada agitz zikindu galduagoa gelditzen da Espiritu Santuaren Eliz bizi anima, bekatuz hau zikinzen den aldian, zeren galzen dituen horduan animak graziaren edertasuna ta bedeikanza, ta galzen graziari darraizkon birtute ta Espiritu Santuaren doakunz guziak ere, ta len Espiritu Santuaren Eliz ederra zen anima gelditzen den Espiritu Santuak begitan artua ta deabru belz gaiztoen leze izugarri egiña. Zenbat atsekabenz ematen dio, bada, Jangoikoari aren Eliz eder animan hau egiten duen bidagille gaiztoak edo animari bekatuako bidea ematen dionak. Erriko Eliza urratzen edo zikinzen duenak baño agitz andiagoa, dio S. Joan Krisostomok: *si ergo Ecclesiam destruere grave est, et sceleratum, multo magis si templo spirituali hoc fiat; augustior enim est homo, magisque venerandus, quam Ecclesia* (hom. 25 in Epist. ad Rom.).

Baña bada onetan besterik ere, bada Espiritu Santuaren Eliz eder anima zikinzen duenak Kristo Jaun berari egiten dio tiro ta ematen dio golpe, dio Apostol S. Pablok: *peccantes in fratres, et percutientes conscientiam eorum infirmam, in Christum peccatis* (1 Cor. 8,12). Badakizu zergatik? Zeren Kristo Jauna den anima guzien arzai, Jaun ta buru ta beretzat arzen duen orietatik edozeni egiten zaion gaiztakeria. Eta hau egiten duen gaiztoak egiten du, dio S. Bernardok, Kristo Jaun bera ill zutenak egin zutena baño ere izugarriagoa dirudien gaiztaginza ta sakrilejioa: *horrendum penitus sacrilegium, quod et ipsorum videtur excedere facinus, qui Domino Maiestatis manus sacrilegas injecerunt.*



S. Joan Krisostomok ere eratsu berean hitz egiten du; bada dio Jangoikoak begitan artuenak daduzkan bekatu gaiztoak dirala batek besteri eragiten diozkanak, eta edozein beste bekatu andi baño ere orietatik txikien bat gogorkiago kastigatzen duela: *tam Deo odibile est scandalum, ut peccata graviora dissimulet, in quibus ruina fratris non est, non autem levia, in quibus frater offenditur, et scandalizatur.*

Bada bekatuak bidea erakutsiz edo nolerebait besteri eragiten zaion bekatu txiki batek ere orrenbat aserretzen badu Jangoikoa, orri berari eragiten zaizkan bekatu andiak noraño aserrezaziko dute? Nork hau adirazi? Dakienak bekatari gaisoagatik Jangoikoak egin duena ta zein maite dituen Jangoikoak bere bizi ta odol guziarekin erosi zituen animak. Orra Jangoikoaren zein etsai andia besteri bekatu eragiten diona, naiz eragin dezola esanez edo konsejuz, naiz bekatuak bidea agertuz edo ez galeraziz.

A, nere Jangoiko maitea! Ni naz bekatari izugarri zure etsai andi orietatik bat; bada nereak ni galzeko aski ezpalira bezala, neretu ditut, nik bidea eman ta, bestek egin dituen bekatu guziak eta guziak gatik zure etsai guztiz izugarria naz ni; baña (zuri eskerrak) egiñaz agitz damuturik arkitzen naz gaur ta zure oñetako lurrean jarririk egin ta eragin ditudan guzien barkanza eskatzen dizudala. Ez, bada, zuk niri hau ukatu; ez arren, ez.

§ II.

Ez da bakarrik Jangoikoaren etsaia bekatu besteri eragiten dion anima; anim hau bekatu egiten duen beraren ere etsai da; bada Jangoikoaren etsai da bekatuaren eragillea, Jangoikoari egiten dion gaiztagin galgarriagatik, eta gaizki ta gaiztagin galgarria egiten dio eragille berak, ark artarako bidea emanez, bekatu egiten duenari, ta egiten dio bere diru-ondasun gauzatik zati andi bat kenzen balio baño gaiztagin eta kalte agitz andiagoo; bada lurreko kalte ta gaiztaginza da orretan ari egiñen liokena, ta beste mundurako ta eternidade guzirako, bekatu eragite berean egiten diona; zeren hau eragite berarekin kenzen dion zeruko deretxa ta grazia ta egiten duen eternidade guziko sugai izugarria. Orra, bada, kalte ta gaiztagin zein arrigarria ark orretan oni egiten diona.

Eta egiten dio deabru berak egin lezoken baño agitz errazkiago ta lasterrago, zeren bekatugin gaisoak ez dadukan bekatuak bidea egiten

edo agerzen diona deabru tentatzalletzat edo hura bezain tentatzalle gaiztotzat, eta askotan egiten du tentalle oni atseginez egin naiez deabru berak tentatu ta eginen ez lukena.

Ongi, bada; ta deabru tentaria bere tentanz eta bekatuak bid-agerze gaiztoagatik gure etsai galgarria bada, deabru gaiztoak baño bortitzkiago lan bera egiten duen bidagille tentaria zer izanen da? Deabru bera baño bekatari gaisoen etsai agitz gaiztoagoa; ta etsai, errerik ill zen batek bere ondorengoei baño ondoreko gaiztatu ditueni testament gaiztoagoa uzten diena.

Henrique Rauzoviok (in observat. astronom.) dionaz, lapur bat igorri zuen juezak sutan erretzera. Erre behar zuen suari, ekusi bezain laster, asi zitzaion, bi belaunak lurrera ta, esaten: «A, su eder zori oneko nere illtegi ta obia, ta nere ait-aionen obi ta illtegi izandu ziñana; gaurdanik testamentuz bezala uzten zaitut nik nere ondorengo guzien illtegitzat eta obitako». Orra orrek bere ondorengoei utzi ziena: fite ta laster ilzen den emengo sua. Baña gaiztagiñak bekatuak bidea egiñez edo agertuz gaiztatzen ditueni uzten diena da sulezeko sutan erretzen egotea, neke ta su lapur onek berei utzi ziena baño milletan ta milletan ta ezin esan al-diña milletan gaiztoagoa.

A, nere Jangoiko maitea! ta zuzenzen ezpanazu, nere galdua! Bada nik nere hitz arin-lizun-galdukin, nere maldizio ta juramentu galgarriekin, nere jan-edan, nere eskuka, ezpainka eta ibiller loi-zikinekin, nere artu-eman ta sartu-ater makurrekin, nere arrotasun apainket ta bidebakeko beste gauzekin egin dut deabru berak baño gaizki ta gaiztagin agitz geiago, ta ni izandu naz lan galgarri orietan ekusi nautenen etsai agitz gaiztoa ta denbora berean izandu naz nere buruaren etsai galgarri eroa. Bai.

§ III.

Bere buruaren ere etsai gaiztoa da gaizkirako bidea ematen duen bekataria ta beste bekatari berak baño etsai gaiztoagoa. Beste bekatari galduak ere egiten dituzten bekatu makurrak gatik beren buruen etsai gaiztoak dira; bada beren bekatu berekin puñalka bezala urratzen dute beren anima ta galzen dute zuten grazia ta birtutea, bai ta beren grazi birtutedunarekin egin zuten irabanza ta zerurako bildu zuten ondasun guzia ere; ta ezin uka diteke bere buruaren etsaitasun gogorra dela batek hau



bere naiez bere buruari egitea. Isilka ta niork ekusten ez duela edo nolainai egiten duen bekatuagatik, bada, bere buruaren ta animaren etsai gogor gaiztoa da gizon bekataria; baña ori baño bere buruaren etsai gaiztoagoa da besteren bekatua eragiten duena edo agerze ta erakuste gaiztoak agerian egiten dituena.

Zergatik, uste dezu? Zeren onek bere bekatuaren puñalkak ez ezik, besteri eragiten diozkan guziak ere ematen diozkan bere animari. Badakizu zergatik? Zeren beretzen dituen eragiten dituen bekatu guziak, bai ta ark artako bidea eman ezker, egin bage gelditzen diranak ere; bada arendako ta Jangoikoaren begietan berebat da besteri ark bekatu eragiten edo egiteko bidetan hura ezarzea, ta zenbat bekatu eragiten dituen edo zenbaterako bidea ematen duen, anbat bekatuzko puñalka ematen diozka bere anima gaisoari, ta orrelakorik bage ta bere bekatu beren kaltearekin ta animako puñalkekin gelditzen da besteri bekatu eragin ez diona; ta orregatik da hau baño bere buruaren etsai gaiztoago, ta agitz gaiztoago, bereak eta eragin dituen besteren bekatu guziak bere gain arzen dituen.

Hau egia dela ederki adirazten digu Jangoikoak Oseas Profetaren ezpañez ta arz aserretuak egiten duen lan izugarri bat esaten digula. Esaten digu Jangoikoak Profet onen ezpañez arzak egiten duena ta Jangoikoak gis onetako gaiztagillearekin edo besteri bekatu eragiten dionarekin egin gogo duena. «Bai», esaten digu bada: «humeak kendu diozkaten arza bezala aterako natzaio bidera ta urratuko diot bere barren guzia»: *occurram ei quasi ursa, raptis catulis, et dirumpam interiora jecoris eorum* (Os, 13,8).

Arza da mendian dabilzan animal gogor-sutu gaiztoenetatik bat. Hau beti da gizonarentzat izugarria, baña kendu diozkaten humeen billan dabillen aldiaren besteetan baño agitz izugarriagoa; zeren anitz kosta zaizkan bere hume txikiak (jaiotzen dira alabaña bizien anzik ez dutela ta gauziz moldakaitzak, eta bere mihi-mingañez ta neke andiarekin moldatzen ta azitzen ditu), ta orregatik agitz maite ditu guziak eta arrapatzen badu oriek galdu diozkan edo daramazkion gizona, urratzen du bere atzapar ortzekin ta egiten du bere bazk eta janari.

Era berean, bada, ta mill ta mill aldiz izugarriagoan agertuko zaio Jangoikoa bere tribunalean gaiztatzen dituen animen ta bere buruaren etsai gaiztoari edo bizia ta odola kosta zaizkan hume-animak gaiztatuz kendu diozkan bekatariari; ta dagozkan hitz erreak an esan ta ondatuko du bere suleze-infernu sutu arrigarrian ta bere eskuz; ta esku, animen gaiztatzalleekiko ezin gogorragoz, (bai ta gastagin berak an ondarazi

dituenean atzaparrez ere), erreko ta urratuko du atsedete bat eman bage sekulako eternidade guzian. Horduan zuk zere alde zerbait egin naiagatik, galdu ta galerazi dituzun guziak elkar artu ta gañerako zaizkitzu batbatean ta lertuko zaituzte edo lerzen ta penazen idukiko beti-beti: *manus omnium contra eum* (Gen. 16,12).

Zori gaiztoan jaoia ni, gis eta er onetan beti-beti an egoteko! Egoer zori gaiztoko onetan ez sarzeko ta zori oneko eran beti zeruan egoteko bidea da, nere Jesus maitagarria, nere buruaren, beste guzien ta zure adiskidanzan emendik ill arte guzian emen ni bizitzea. Ori egin uste dut, zuk leneko nere utsak barkatu ta lagunzen didazula, ta arte onetan gaizki egiñaz ongi damaturik eskatzen dizut onen barkanza ta zere lagunza ta grazia. Indazu, bada, bata ta bestea; bai arren, bai.



IX Zirkunzizio eguneko irakurraldia

Vocatum est Nomen eius Jesus. Luc. 2.

Gaia: Urte oneko bidea, Jangoikoak nai dituen ta Jesusek erakusten dizkigun gisan gauzak egitea

Eguerriz agertu zen gizon egiñik Jangoiko maitagarria ta egungo egunarekin artu zuen gure onerako den izena. Etzen len Jangoikoari begiz-begi begira zezokenik. «Ez, ez da biziko», zion berak bein, «ni emen ekusten nabenik»: *non videbit me homo, et vivet* (Exod. 33,20); eta lurreen bizi ziranei zerbait adirazi nai zien aldian, bidalzen zien bere Aingeru edo Profetaren bat. Gizon egin zen aldian agertu zen Jangoikotasunik ez duen baten gisan ta urrengo ogei ta amairu urteetan ta bere gurutzean guri ongi naiez illa gelditu arte guzian, bizitu zen besteen erako gizon bat zirudiela ta berak berez bere erakuste guziak egiten zituela: *apparuit... erudiens non* (Tit. 2,11).

Len-leneko bere izaera munduari adirazteko arzen zituen Jangoikoak izen guztiz izugarri andiak; baten esaten zuen: «Ni naz besteri deus bat zor ez diodana ta nere izanz eta izaer guzia nerez dudana»: *ego sum qui sum*. Bestean zion: «Ni naz ejerzitu andietako Jangoikoa, edo Jangoiko, ejerzitu guziak nere eskuan ta nai dudana eragiteko daduzkadana»: *Deus exercituum*. Besteetan: «Ni naz gaiztoari dagokan pagu ta saria bere horduz ta esku gogorarekin ematen diodana»: *Deus ultionum*. Ta «Ni naz», zion beste zenbait aldiz, «Errege andia; Ni naz besteri, nai ezpadut, urbilzen ere uzten ez diodan Errege, ta Errege, alde guzietatik guztiz izugarria»: *Deus magnus, Deus excelsus, Deus terribilis*.

Izenen erakoak izandu ziran Jangoikoaren horduko lanak; bada asialdi batez ito-ill zituen, zorzi bizirik utzi ta, munduko beste andi ta txiki guziak; beste batez suz erre ta auts egin zituen Pentapoliko erriak eta an arkitzen ziran gizon ta andre laur ez, beste guziak; beste batez ondatu zituen itsaso gorriko urpe izugarrian Egiptoko Errege ta Erregeren zaldi, zaldun, soldadu ta gerrako gauz guziak; eta beste anitz alditan ogei millaka ta geiagoka uzten zituen illak beren gaiztaginz galduak gatik munduko gizonak eta jende gaiztoak.

Gizon egin ta jaio zen hordutik zorzigarren egunean, ta egungo egunarekin, artu zuen Jangoikoak beste gisako izen maitagarri bat; eta izen, Jangoiko-gizonak duen egitekorako guztiz egokia; bada izena da Jesus; *et vocatum est Nomen eius Jesus*; Jesusek esan nai duena da Salbatzallea ta hau da Jangoiko-gizonaren egiteko guzia: bekatu petik gu atera ta bere zerura zuzen-eraztea.

Eta orra, izen hau artu duen Jangoiko-gizona gelditu da gure bekatari galduen Jesus ta Salbatzalle urrikalti egiña. Jangoiko-gizon gaurko bere Zirkunzizioan odoltuari ta Jesusen izena artu duen oni begira dagokala, galdetzen dio S. Bernardok Jangoiko berari: «Jauna, zer egin dira len agerzen zenituen anditasun ta esku alsu gogorrak? Zer, arako len askotan aditzen ziran ots izugarri. "Ni naz zuen Jauna, ni Jangoiko mundu guziaren ikaragarria?"»: *Ubi potentia, ubi maiestas? Ubi illud, quod tam terribiliter quam frequenter sonabat, Ego Dominus, Ego Dominus?*

Leundu dira Jangoikoaren leneko izenak orain artu duen izen berriarekin ta izen onen erakoak dira Jangoiko-gizonaren gerozko lanak; izandu dira alabaña gubanako amorez eztituak, bekatuz aserretu genuen betiko Aita palakatzeko ezin obeak eta denbor berean guri geren gauzak egiten erakusteko guztiz onak. Hau da urte berri on bat nai duenak egin beharra: Jesusek erakutsi digun gisan geren gauzak egitea edo Jesusek egin zituen gauzen gisakoak eta egin zituen gisan guk gereak egitea. Ekus dezagun orretarako zer gauzak diran ta zer bidez egiñak jesusek bere aldian egin zituenak.

Jesusek egin zituen beraren izenari zegozkan lanak, eta egin zituen beraren betiko Aitak nai zuen gisan ta eran. Salbatzallearen izena da, ekusi dugunaz, Jesusen izena ta Salbatzallearen lanak dira Jesusek egin zituenak. «Ardi errebelatu galduen gisan genbilzan gu», dio Jeremias Profetak; «zeruko bazkatagi onak utzi ta sartu giñan», dio, «bekatu gaiztoen lar-arte ta sasi galgarrian ta eman zion Jesusi Ait-eternoak andik gu atera ta zeruko belar onera zuzenzeko lana ta egitekoa, ta nolana ez, bai-zik bere soñean gu artu ta ara zuzenzen ginduela»: *omnes nos quasi oves erravimus; unusquisque in viam suam declinavit, et posuit in eo iniquitates omnium nostrum* (Jerem. 53,6).

Ona lan zein gogorra Jesus maitagarri beraren izenak eskatzen ta beraren betiko Aitak ematen diona: munduko bekatari guziak edo bekatari guzien zorrak soñean edo bere gain arzea, ta oriek eskatzen dutena ogei ta amairu urteko neke gogorrekin eta eriotz agitz gogorrako batekin irabaztea; ta, ais aski irabaz zezakela, betiko bere Aitari atsegin egin naiez era orretan ta orrenbat nekerekin irabaztea.



Asi zen Jesus gaztedanik bere lan latz gogor onetan ta etzuen esku-tik utzi guztiz egin ta bukatu arte guzian, ta bukatu zuen gurutzeko bere eriotz gogorarekin. Bai, berak dionaz, gaztedanik asi zen Jesus bere lan gogor onetan, bada dio: «Nekez beterik bizitu naz ni nere gazte denbor beretik»: *in laboribus a iuventute mea* (Ps. 87,16).

Eta egia dio, bada jaio bezain laster arkitzen zen Jesus otzez erdiratua ta zorzigarren eguneko edo egungo egunarekin Zirkunzisioko oñazez ta odolez betea. Negu erdi-erdian zen bata ta bestea, ta negutik atera bage zuten Jesus bere itxetik eta eraman mendiz-mendi ta eremuz-eremu andik urrutiko Egiptora. An bizitu zen zenbait urtez jendagirotzen artean. Andik itxera itzuli ta ogei ta amar urterañoeko denboran bizitu zen lanean, neke-izerdian ta besteren pean, esaten zioten guzia, naiz andia izan naiz txikia, naiz latza ta naiz gogorra, egiten zuela; ta egiten, hitz bat atera bage ta bere barrenean naigabetxo bat etzuela.

Urrengo irur urteetan bizitu zen Jesus limosnan bezala ta ematen zioten zatia jaten zuela ta interprete andi Maldonadok dionaz, garagarrezko ogia zen geienean jan oi zuena; ta bein beinzat atera zuen berrogei eguneko garizuma, janaririk edo edaririk aren eztarriratzten etzela. Aleregin zituen urte orietan nork daki zenbat prediku ta nekezko ibilze ta lan.

Jesusen hordurañoeko lan-neke ta izerdi guziak gauz errazak izandu balira bezala artu zuten beren kontura Judatarren arteko Eskrib, Fariseo ta gizon jakinsu geienak histaz ta deshondraz ta naigabez beterik Jesus erabilzeko lana, bai ta hura galdurik uzteko asmoa ere. Eta hura illik uzteko aldia zetorren artean, begitan arturik iduki zuten beti, ta beren onerako ta ongi-naiez Jesusek esaten ziena, izurri ta pozoi egiten zutela, arekin gero eriotz gogor baten edari miña berari egiteko ta al-ik lenena edanerazteko.

Azkenean zezen sutu egiñak bezala ingurutu zuten Jesus Salbatzallea beraren etsai oriek eta gure bekatu izugarri gaiztoak eta milla neke ta tormentu ta urratze odolezkoren buruan utzi zuten gurutze batean azpiratua ta illa.

Berak zekiela izandu ziran Jesus Salbariaren neke ta tormentu ta beste latzgarri oriek guziak. Eta betiko bere Aitaren izenean guziak arze-ko prestatzen asi zen batez, jarri zen zena tristuraz betea ta izerdi orde-odola ta odola zeriola; ta al-ere esan zuen bere gogoan Jeremiasen ezpañez len esanik zedukan guzia ta beste gauzen artean: Betiko nere Aita maitagarriak nai zuena egiteko utzi nuen nere amaren itxea ta (nere etsai ta borrero gogorren eskuan) nere bizia ta soñeko piska; (oriek ziran

nituen ondasun guziak): *reliqui domum meam, dimisi hereditatem meam, dedi dilectam animam meam in manus inimicorum meorum* (Jerem. 12,7). Zer dela uste dezu, dio Jesus berak Dabiden ezpañez, nerekin nere etsaiak egin zutena? Bost orzekoz langille batek bere alorra diña azotetz oriek nere bizkarrara urratzea: *super dorsum meum fabricaverunt peccatores* (Ps. 128,3); ilze lodi luzez gurutze batean nere oñ-eskuak jostea ta berak nai zuten gisan nere gorputzeko ezur guziak erabilzea: *foderunt manus meas, et pedes meos, et dinumeraverunt omnia ossa mea* (Ps. 21,18).

Artara baño len aranzeko koroiez josi zuten inguru guzian nere burua ta eman zidaten kañaberazko zetro bat eskura: *et plectentes coronam de spinis, imposuerunt super caput ejus, et erundinem in dextra ejus* (Matth. 27,29); ta histazko errege farragarri bati bezala, belaunikaturik agur andiak egin ta zaitzen ninduten soldadu gogor zenbaitek karkaisez ta listuz zikindu zidaten aurpegi guzia; beste zenbaitek ematen zizkidaten zaplada gogor-rak eta beste guziak burutik bera nere eskuko kañaber berarekin zitzakeen golpeak: *et genuflexo ante eum, illudebant ei dicentes: Ave, Rex Iudaeorum, et dabant ei alapas* (Joan. 19,3), *et expuentes in eum, acceperunt arundinem, et percutiebant eum* (Matth. 27,20).

Bakarrik ezin eraman nezaken gurutze bat soñean nuela atera ninduten Jerusalemik eta jaiki-erori ta erdi arrastan nenbillela eraman ninduten Kalbarioko mendira. Esku-oñak josi zizkidaten an nere gurutze berean ta hau puntaz lurrean sartu ta utzi ninduten ez zeruan ta ez lurrean, ta hirur horduz an ekusi nituen nik ekus nitzaken nekerik andienak eta ekusgarriki andi-txar-gogorrenak. Borrero zenbaiten eskura nintzan arte guzian izandu baninza ere Dabidek dion gisako ta munduko gizonik ederrena: *speciosus forma prae filiis hominum* (Ps. 21,7), utzi ninduten giz-anzik bage ta nere gorputz guzian neke bageko zati bat ez nuela: *a planta pedis usque ad verticem capitis non est in eo sanitas* (Isai. 1,6).

Banekien etorkizun gogor izugarri hau jaio baño len ta len ere ta banekien denbor berean Ait Eternoak nai zuela hau guzia nere gain nik arzea munduko gaisoen zorren alde ta beren bekatu zor ta larketa gaiztotik oriek ateratzeko, ta ikasi nuen puntutik artu nuen bihotz osoz artako asmoa (*in medio Cordis mei*), ta asmo, hau guzia nere Aitak nai zuen horduan ta eran egiteko: *ut facerem voluntatem tuam* (Ps. 39,9), ta egin ere dut pits batean ere uts egin bage: *consumatum est* (Ioan. 19,20).

Bere erakuste guziak eta lege berri bat ematea egin zitzaken Jesusek Aingeru batez, len lenagokoak bezain errazki ta aisa. Egin zituen len egun batez ta aisa Aingeruak lenagoko lege emate ta erakuste guziak. Eta beste batez egin zezaken Jesusek berez ere hau guzia, bai ta geiago ta



geiago ere; bada Jangoiko-gizona da Jesus ta Jangoiko-gizonak badagike Aingeru batek egiten duena ez ezik, Aingeru guziak egin dezkeena ta milletan ta bukanzik bageko milletan geiago ta geiago ere; berekin du alabaña Jainkotzaren ahal guzia ta ez da ahal onek noiznai ezin dagiken gauzarik. Ala ere gure lege berria agerzen ta jakin behar genuena guri erakusten egin zituen Jesusek irur urtez errenko, batetik bestera nork daki zenbat joan-etorri, prediku ta milagro; ta egin zituen oriek eta beste anitz gauza goseak, egarriak, otzak, beroak eta nekeak askotan penatzen ta estutzen zuela, ta al-ere egin zituen guziak beraren betiko Aitak nai zuena egin naiez ta guri erakusteko zeruko bidea. Orra Jesusek guri lendabizitik azkeneraño erakusten digun lenbiziko gauza: Jangoikoak nai duena zuzenki egitea. Bigarrena da hau nola egin berak egiñez guri erakustea. Aren eginkunz hau ongi ekustea da oraingo gure bigarren egitekoa.

§ II.

Bai, Jangoikoak nai duena guk egitea ta hau guk Jangoiko berak nai duen bidez ta Jesusi garraizkola zuzenki egitea da gure egiteko andia. «Igan nai duenak», dio Jesusek, «nerekin zerura, ar beza bere gurutzeta ta bebill nere ondoren, egin bitza bere gauzak Jangoikoaren izenean ta bere zorren alde, bai ta agitz nekezkoak ta gogorrrak diran aldian ere»: *qui vult post me venire, abneget semetipsum, tollat crucem suam et sequatur me* (Matth. 16,24); bada egiten dituen gogorrenak ere ez dira nereak bezain gogorrrak izanen. Nik nereen alde, Apostolu Jaunak dion bezala, artu dut izen guziei ta honrei gañez egiten dien izena ta honra; ta honra, zeruko, lurreko eta sulezeko guziak belaunak lurrean dituztela ematen didatena: *obediens usque ad mortem, mortem autem crucis, propter quod Deus exaltavit illum et dedit illi nomen, quod est super omne nomen, ut in nomine Jesu omne genu flectatur caelestium, terrestrium, et infernorum*. Ta ematen didate aitortuz nekezko nere lanen alde arkitzen nazala ni nere Aitaren glorian (ta beraren eskoï aldean): *et omnis lingua confiteatur, quia in gloria est Dei Patris* (Philip. 2,8); ta bere nekeen alde izanen du niri darraikidanak ere dagokan izen ta honra guzia, ta zenbat ere andi gogorrragoak ark emen nai onez arzen dituen neke-lanak, anbat eder andiagoa geroko aren atseginza ta gloria; bada ematen dio Jangoikoak bakoitzari egin dituen gauzen eginzari dagokan gisakoa: *prout unusquisque gessit* (2 Cor. 5,10).

Jangoikoak gugandik nai dituen ta guk beraren izenean ta geren onerako egin behar ditugun gauzak dira Jangoiko berak bere legean berezten dizkigunak. Orietatik zenbait Jangoiko berari bakarrik dagoz-

kanak dira ta besteak besteei dagoztenak. Orien artean badira zenbait ongi kezariak eta nekarri gogorrrak; bada egiñen badira, eskura beharko dugu gaitzerako geren naikunz eta grin gaiztoa; guk alabaña beti nai genuke atsedanza, jan-edan ona, gauz-gabenz bat ez ekustea ta guzien agurra ta eskumuña, ta orietatik anitz galzen dugula baizik, ezin dagizkegu Jangoikoaren gauz oriek edo beinzat zenbait; bada orietan badira otz-beroak, aldarte txarrak, eguraldi aserreak, eritasunak eta etsaien ta gañerako gaiztoen bide-bagenz eta esker illunak, bai ta oriek dakazten kezkek eta naigabe miñak ere. Oriek guziak, bada, ta orien erako edozein beste mee-meki ta Jangoikoaren izenean eramatea ta orien emalle gaiztoei alakorik ordañez ez, baizik ongi naiez ta amorez eranzutea ta hau guzia bein ez ezik, aldiak dakarren guzian guk egitea, egiteko latza ta gogorra da; baña guk baño len Jesusek egiña ta beste agitz eta agitz gogorrrago anitzekin batean egiña eta guri lagunzeko prest arkitzen den graziarekin guk ere azkenean dagikeguna.

Gure egiteko oni berari dagozkan gauzak dira Jangoikoa guk berari dagokan aldi guzietan onesturik eta honraturik uztea, ta orretarako ta geren onerako Elizak berezten dizkigun konfesio ta komunio, barur, mez-enzute guziak eta beste gauz onak egitea, bai ta gure bizi beharrak eskatzen dituen beste neke guziak onzat arzea ere; ta ekusten dezu gauz nekagarria dela hau guzia zuzenki ta utsik egin bage beti egitea.

Hau guzia zuzenki egiten dutenak beren gurutzeta arturik Jesusen ondoren dabilzanak dira ta Jesusek bereak egin zituen gisan beren gauzak egiten dituztenak, Jesus bera ederki honratzen dutenak eta zori oneko bataitua; baña hau egiten ez dutenak eta Jangoikoaren legearen urratzalle gaiztoak bataituen ta kristau izena dutenak dira, dio S. Agustinek; baña lanez, izatez ta biziz Jesusek gaur artu duen izen santuaren blasfemari gaiztoak: *qui male vivunt, et Christiani vocantur, injuriam Christo faciunt, de quibus dictum est, quod per eos nomen Dei blasfematur* (Trac. 50 in Joan. circ. init.). Ekus zazu oraindañokoan zuk egiña ta etorkizunean egin gogo dezuna.

A, nere Jesus maitagarria! Alkea ta lotsa da oraidañoko nere ibillerak ematen didana! Izandu da alabaña guztiz txarra ta makurra. Barkatzen bazenit gaur oraindañoko nere oben ta uts egite guzia, bertatik artuko nuke zuzenki ta zure eran bizitzeko bidea. Barkatu behar didazu, bada, gugatik eraman dituzun odol-isurze ta neke arrigarri guzien izenean, ta eman behar didazu emendik aitzina garbiro, zuzenki ta zure eran bizitzeko zere lagunza ta grazia. Eskatzen dizut bihotz osoz ta nai andiarekin. Ez ukatu, bada; ez arren, ez.



X

Erregeen eguneko irakurraldia

Per aliam viam reversi sunt in regionem suam.

Matt. 2.

**Gaia: kaltepe anditik atera ta zerura igan nai duenak
ibilli behar du egungo Errege onen eran**

Erregeen egunean agi-gertatu zen gertatuko zela Jangoikoak esanik zedukan guzia. Gertatu baño agitz eta agitz lenago Jerusalemgo erri ta erritar guziekin ziardukala, esaten zuen Isaias profetak: «Ots, begira ta erne, Jerusalem ta Jerusalemgo guziok; argitu da eguna eta orra non dezuten Jangoiko beraren gloria ta Jesusen jaiotza. Illunbe belzean geldituko da mundua ta lañope estalian sartuko dira erriak; baña jaioko da zuen Jangoikoa ta zuen emengo bazter onetan arkituko dute hau urrutiko jende arrotzak; arkituko dute zeruko argiz ta barrango jaunzez betea, ta arkituko beraren izar berri batek argi egiten diela. Ekusiko dezue zenbat diran urrutitik onen billan datozen ta zuen Jaun hau beren Jangoikotzat artu ta Jaun beraren hume egiñak geldituko diranak. Mandiango ta Efako kamelu ta dromedarioak arturik etorriko dira Sabatarrak, eta etorriko, urrez ta inzensoz beteak eta Jangoikoaren jaioko berri andi hau banatzen dutela». Eratsu onetan adirazi zuen Isaiasek (c. 60) gaur guk Ebanjelio santuan ekusten duguna.

Emen guk gaur ekusten duguna da sarzen dirala Jerusalemgo Isaiasek zion bazter urrutiko irur Errege beren dromedario ta kamelu urrez, mirrhaz ta inzensoz kargatu beteekin; ta sarzen, otsez ta galdez: «Non arkitzen da judatarren errege jaioko berria? Urrutiko goiztarrak gara gu; ta ara, berak igorri digun izar berriak gakarzi beraren oñetara, dagozkan agur eta eskumuniak egitera».

Hau aditu ta izutu ta asaldatu zen errege Herodes ta Herodesen itxe ta erri guzia, Errege jaioko berri onek bere erreinua ken zezon beldurrez. Deitzen ditu errege Herodesek erriko jakinsu ta eskrib ta farise guziak eta galdezen die non jaioko beharra den goiztar arrotzak dioten Errege berri hau. «Belenen», eranzuten diote oriek. Hau ikasi ta bazterzen ditu goiztar Errege berak eta isilik esaten die Herodesek doazela Belengo

errira, ta an arkitzen badute billatzen duten jaioko berria, datozkiola itxera-koan an ekusi dutenaren berri onek ematera, ark ere bere aldian egiteko jaioko berri berari dagokan agur ta honr guzia.

Atera ziran Errege goiztar onak Jerusalemendik. Agerzen zaie Jerusalemgo sarzean edo sartu baño len gorde zitzaizen izarra. Oni darraizkola sarzen dira Belenen ta Jesus Errege jaioko berri beraren itxean. Arkitzen dute Jesus bere Ama Maria Birjin andrearekin ta Jesus berak barrendik argi egin ta ezagutzen duten dentzat edo Jangoiko gizontzat; beren belaunak lurrera ta egiten diote dagokan adoranz eta agur andia, eta Erregetzat, Jangoikotzat eta gizontako ezaguturik, egiten diote urrezko, inzensozko ta mirrhazko present andi eder zegokan gisako bat. Orren alde Errege jaioko berri andiagandik artu zuten grazizko ta birtutezko beste agitz eta asko andiagoa; ta hau oriek artu ta Jesusi beren azken adio humillak egin ondoan, beren etxeetarako abian arkitzen ziran ta, gizon prestu onak bezala, Herodes erregeri eman zioten hitza osatu naizik eta Jerusalemgo bidea arzeko asmoan; baña Jesusen aingeru onak lotan adirazi zien Herodes gaitzez ta Errege jaioko berri hau ill naiez zebillela onen erriaren ta itxearen berri billa; ta arganako bidea utzi ta ar zezatela beste bat beren itxera itzulzeko. Eta Herodes gaiztoak nai zuena utzi ta egin zuten aingeru onak esan ziena; ta egin ziguten guk ere, geren zori oneko etxe zerurako bagara, gaurdanik artu behar dugun bidea.

Badakizu zer bide den zori oneko gure bide hau? Mundu arro eroaren esanei ez-aditu egin ta Jesusek diona zuzenki egitea. Hau egiten dutenak izanen dira zori oneko Goiztar Erregeen lagunak eta zeruko ondasun andien ta atseginz guzien betiko jabeak; eta egiten ez dutenak, emen bein ta gero sulezean zori gaiztoko kaltear galduak. Goazen ekustera bein, orain azkenik esan dugun hau.

§ I.

*Emen ta gero zori gaiztoko kaltearrak dira
mundu eroaren esanak egin naizik Jangoikoaren
esana uzten dutenak.*

Bai, emen bertan ere zori gaiztoko kaltearrak dira emengo eroen esana egin naiez Jangoikoaren esana egiten ez dutenak; bada Jangoikoaren esanak egiten ez dituzten gaisoak galzen dituzte esan oriek



egitez egin zitzakeen irabanz andiak; eta irabanz, Jangoikoaren esanen egin aldi orokoak eta aldi oro (berez) andiago ta andiagoak.

Baña zer irabanz-irabaziak? Guk adiraz dezakegun baño agitz andiagoak. Atozea ezperen; anitz eta asko irabaziko ez luke ogei urtez hordu oro edo egunean amar aldiz eun milla ogei zorziko irabazten lituen gizonak? Bai ta urte bat baizik irabanz orrelakotan egiten ezpalu ere; bada urte orretan irabaziko lituke irur ogei ta amar milletan mill ta geiago otxin ta ezkutu. Geiago irabaziko luke, irabazten balitu esan ditugun diru guziekin batean munduko beste guziak, lurpe gordean arkitzen diran urre ta zillar, diamante ta beste arri ederrak, itsasotik atera diran ta ateratzeko dauden perlak eta koral guziak; bai ta itsaso ta ibai ta mendi ta mundu guzia ere; baño zein ere andiak liraken irabazte oriek, ez luke pits bat balioko Jangoikoaren esana egin aldi bakoitzean fededun onak egiten duen irabaziaren aldean; zeren aldi orietan irabazten duen fededunak Jangoikoaren grazia, ta graziaren edozein zatik balio duen beste guziak baño agitz geiago. Irabazte andi hau, bada, ta munduaren esankizun eroagatik uzten dituen beste guziak galzen ditu Jangoikoaren esanak egiten ez dituen aldi oro. Orra zer kaltea alde onetatik orri datorkiona!

Jangoikoaren esanak besteren esankizun eroagatik egiten ez dituenak galzen du bigarren lekuan animako atseginz eta atsedete andi bat. Bai, Jangoikoak beretzat egiñak gara gu guziok eta gure Jangoiko berarekin ongi etorri ta bat egiñik bizi beharrak. «Ala da», dio S. Agustinek: *fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum, donec requiescat in te*; ta Jangoikoaren esanak munduko esankizunak gatik egiten ez dituen Jangoikoarekin ez da bat, Jangoikoaren igeska dabillen anima da; ta orregatik da amurrai uraren igeska idorrean lebilkena bezalakoa; bada amurrai hau idorrean kezka ta egarriz betez ta salto ta salto ta soseganzik bage lebilken bezala, Jangoikoaren igeska dabillen ta mundu eroaren beldurrez Jangoikoaren esanak uzten dituen bere atseginz-tegi leunetik urrun arkitzen da ta kezkatagi gaiztoan agitz sartua ta naigabez erdi ill-illundua.

Hau da Davidek adirazi nai diguna esaten digun aldian: anzi ta aztu zait nere ogia jatea ta igartu da nere bihotza: *aruit cor meum, quia oblitus sum comedere panem meum* (Ps. 10,15); bada animaren ogia da Jangoikoak nai duena bere aldian egitea ta eginz onen alde Jangoiko berak ematen duten grazia ta atseginza; ta grazi ta atseginz hau gabe gelditzen da Jaunaren esanak ez egiñez irabazten ez duena, ta agitzen ta gertatzen zaio mutil prodigo galgarri, bere aitaren itxetik atera ta urrutiko bazter batera joan zenari, gertatu ta agitua.

Bere Aitaren esanak ez egin naizik, joan zen mutil zenzagabe hau gogoak eman zion urruti batera. Ibili zen an mundu eroak eta aragi sutuak adirazten duten bidez ta eran. Bere igesk eroan galdu zuen aitaren maiko jan-edan goxoa ta itxeko lan garbia. Aren urrutiko egitekoa zen txerri-zanza. An zuen mai ta ogi-janari ta jaki guzia zen eremu-mendia ta mendiko ezkurra. Jaten zuen ezkurra etzen ari zegokan janaria, ta janagatik etzion onik egiten, ez eta kezken ere zuen gosea ta jangura ta nai bizia; ta egun oro arkitzen zen gaizkiago ta kezka ta illunkeriz bete galduagoa; ta bere illunckeri, kezka eta naigabetik etzen atera Aitagana itzuli, arekin ongi baketu ta itxeko mai onera zen arte guzian.

Munduaren esankizunak gatik Jangoikoaren esanank egiten ez dituen irteten ta ateratzen da Jangoikoaren adiskidanz ezin obetik eta itxetik, eta sarzen da mundu beraren ogi gogorrean ta pasione galgarri gaiztoen zanzan ta bazkanzan. Or jaten duena da pasione galgarri berak nai duten ta mundu gaiztoak arrerazten dion bazka ta jaki zikin izurritzkoa. Janari onek uzten du asea ez, baizik gose geiagoz galdua; bada Jangoiko bera da bere grazi eztidun goxoarekin animari dagokan janaria, ta janari onek ezpada, ezin ill dezake, S. Bernardok dionaz, animaren gosea: *capacem Dei, quod minus Deo est, non implebit* (Sup. Ecce reliquimus omnia); ta janari hau edo Jangoikoaren esanak utzi ta mundu galgarri gaiztoaren makurrak egiten dituenarena da ur gazizko itsaso, beti irakiten dagoanaren erakoa ta soseganzik bagea: *quasi mare fervens, quod quiescere non potest* (Isai. 57,20). Orra zer kaltea Jangoikoaren esana egiten ez duenak saiets onetatik izaten duena.

§ II.

Bere lan oker hau egiten duen animak badu beste kalterik ere. Hau da, mundu berarekin ere gaizki gelditzea. Hau ere bere naigabe berrirako gai egoki kezcaria da. Badira bataitu beren artean gaizto guti ez, ongi bizi diranei egiten dienak len leneko onei jentil ituak egiten ziena. Ekusten zuten len jentil ituak bataitu onak etzerala sarzen aien jostaket zikin, ibiller arin ta joan-etorri galgarri eroetan. Ekusten zuten horduko bataitu onen egiteko guzia zela beren Eliza, beren etxea, beren lana ta munduko erakeri arroi ez begiratzea ta aldi berean Jesus maiteak agertu zuen zeruko bidetik onik ez ateratzea, ta esaten zuten, dio S. Agustinek, gauz onen ezaguztik etzutela bataitu fededunak, baserritar motelak ziruz



ditela ta hitz egiten ere etzekiten gizonak: *ubicumque invenerit Christianum, solent insultare, exagitare, irridere, vocare hebetem, insulsum nullius cordis, nullius peritiae.*

Eta orain, ekusi ezkeroraingoa bataitu edale gaiztoak bataitu on bat edo beste ez dela orien edantoki galgarriratzen, ardit bat ongi gastatzen ez dakien gizona dela diote, ta aldi beran histaz ta irriz dagozka. Beste hitz-onzikeri ta berriket eroa baizik ez diran anitzek beren egitekoz ara dijoazen edo onara datozen onei begiratu ta, edo orien erausi eroak utzi ta Elizan sarzen dirala ta ango beren lanak egin ta beren itxerako bidea daramaela ekusten badute, buru, begi, ezpañez keñatu ta eskarnioka esaten dute ez aditzeko ohea den zer edo zer.

Gazte batek atera nai ezpadu beste eroen danz perillezkora, jan-edan berora edo beste erakeriren batera, egiten duela diote edo andiz edo dirurik ez eman naiez edo zeren ezertako ez dena den. Era orretako gauzak ez aditu naiez Jangoikoaren esanak utzi ta munduko ero gaiztoen bide makurra arzen dutenak birtutezko ta buruzko fededun guziekiko anitz galzen dute, bai ta galerazi dituzten gaizto berekiko ere.

Orien galgarri oriei begitan ematen die besteen birtuteak, zeren birtutez beteak oriek eta birtuterik bage beren buruak ekusi ta illunzen zaien bihotza, ta beldur diran, orien gisan bizi ezpazara, beste guziak zerurako dirala ta berak ez; ta naigabe hau beregandik kenzeko bidea dela uste dute, dio S. Geronimok, beren gisako gaizto beste guziak egitea: *remedium poenae suae arbitrantur, si nemo sit sanctus... si turba sit pereuntium, si multitudo peccantium*; baña azkenean ezagutzen dute gaizto galgarri berak ona dela ongia ta birtutea, ta hau dela, S. Ambrosiok dion bezala, bataitu guziak billatu behar dutena: *apud omnem christianum prima honestatis debet esse milita.*

Ekusten badute beren gisan beste oriek ere galdu dutela zuten on piska ta egin dirala orien ibiller arin ta makur galdukoak, esaten dute orien atze-ondotik elkarri begiratu edo bakoitzak berekiko: «Bai egizki, orra gure gisako galduak oriek ere»; ta geroz arros edo klabelin luzaro eskuan erabilliz galdu baten gisan baztertzen dituzte ta uzten deusezetako. Eta orra irugarren zure kalte andia: mundu ero galduari atsegin egin naiez, zere burua galdu ta mundu berarekin ere kaltear ta gaizki gelditzea.

§ III.

Baña laugarrena da zure kalterik andien gaiztoena, ta hau da munduko galdu eroekin ongi etorri naizik, Jangoiko maitagarriarekin gaizki gelditzea. Zere bataio santuan eman zenion Jangoikoare mundu eroaren esan ta arrotasunak utzi ta berak esaten zizun guzia zuzenki egiteko hitza. Hau zuk errazkiago egin zenezan, an bertan graziaz ta birtutez jaunzirik utzi zinduen Jangoiko berak eta krismaz ta gurutzez ongi sendortua; ta al-ere zuk mundutar eroen esankizunagatik uzten badezu Jangoikoak bere legez, bere gogargiz, bere predikariz, konfesor onez, libru zuzenez ta beste bideren batez esten dizuna, zere Jangoikoarekin nola gelditzen zara? Agitz gaizki ta galdua; bada Jangoiko berak dio zure gisako edozein bere tribunalean agerzen zaion aldian, ez-ekusi egin ta bere etsaien eskuan utziko duela: *qui me erubuerit, et meos semones, hunc Filius Hominis erubescet, cum venerit in majestate sua* (Luc. 9,26).

Bada gaizki gelditzen bada mundutarren esankizunagatik Jangoikoaren esanak uzten dituen, nola geldituko da Jangoikoaren esanak utzi ta mundutarren esanak egiten dituen ta mundutar galduen gisako edanketan, jostaket gaiztoan ta lan galduan dabilena? Itsutu galdua ta deabru gaiztoen atzapar sutuan agitz sartua, len esankizun txar baten beldurrez Errege Sedecias emengo bere etsaienean bezala. Esan zion Jeremias Profetak Sedecias Erregeri, galdu nai ezpazuen bere burua ta Jerusalemgo erria joan zedilla erria inguruturik zedukan ejerzituko Buru-Jeneralei onez hitz egitera. «Baña zer esan behar dute, Profeta», eranzun zion Erregek Jeremias, «gizon oriekin an arkitzen diran gure erritar gaiztoak?». «Esan dezatela nai dutena», esaten dio Profetak; «Jangoikoak diona da nik orain zuri esaten dizudana ta hau da beste orien erausi eroak utzi ta zuk egin beharra».

Al-ere etzuen Erregek egin Jangoikoaren esana ta kendu zion Nabukodonosor Erregeren jendeak bere Jerusalemgo erria, atera ziozkaten bere bi begiak ta eraman zuten Babilonira, ango presondegi latz gogorrean bere egunak nekez beterik bukatzera.

Era orretan, bada, mundu txar eroaren esankizunagatik Jangoikoaren esanak egiten ez dituenak urratzen du Jangoiko beraren legea ta sulezeko gogorak arzen du preso, ondatzen dute infernu bizian bere bekatu gaiztoak, uzten dute itsutu-galdua sekulako bere bizian ez ezagutzeko Jangoikoaren bide zuzena: *ambulabunt ut caeci, quia Domino pec-*



caverunt (Sophon. 1,17), ta gelditzen da suz, amurranzez ta tormentuz betea.

Orra zer kalteak mundutar eroen esan makurrak egin ta Jangoikoaren zuzenak egiten ez dituzten bataitu gaiztoenak; eta orra, zure begira daude orien etsai borrero berak, izaten bazara zu mundutar galduten beldurti txar eroetatik bat, zere aldiari zu orien aldera eramateko ongi prestatuak. Zori gaizto orretan zu ez gelditzeko, begir egiezu Jesus jaio berriaren billa datozen irur Erregei. Oriean erritarrak aditu zuten orien horduko asmoa ta , zeren ekusi zuten izar berri bat, joan nai zutela non jaio zen etzekiten Errege baten billa, «Ametsa», esanen zien, «ta erakeria! Noizean bein agerzen ez dutenak eta orietatik bat izanen da guzioki ekusten dugun ori ere. Zer erakeria, bada, ikasi bage egia den edo ez Errege berri orren jaitza, orren billara zuek zeren itxetik ateratzea?».

Orrelako eta era bereko beste anitz gauz adituko zituzten beren jendeetatik egungo Errege onak; baña orien erausi guziei ez-aditu egin ta Jangoiko Errege jaio berriaren izarrari ta Jangoiko berak barrendik adirazten zien gauzari begiratu, artu zuten hura billatzeko asmoa, ta anitz nekeren buruan bazen ere, arkitu zuten Belenen Jangoiko gizon Errege jaio berria, ta arkitu zuten beren atsegin ta poz ezin andiango batekin. Egin ziozkaten lurreko beren presentak. Artu zituzten zeruko agitz andiangoak. Itzuli ziran beren etxeetara. Bizitu ziran an behar zen gisan ta santuki, ta guziagatik zeruan arkitzen dira gaur ta arkituko dira beti atseginzez ta gloriz ase beteak.

Zori oneko humeak gu, arzen badugu orien bide bera, Jangoikoak nai duena zuzenki egiteko, ta egiteko geren bizitzan beti; bada geroz izanen gara orien beren zeruko lagun sekula guzian ta beti. Jangoiko-gizon jaio berri maitagarriak digula artako den lagunz eta grazi guzia. Bai arren, bai.

XI Erregeen urrengo Igandeko irakurraldia

Ecce Pater tuus, et ego dolentes quarebamus te
Luc. 2.

Gaia: Zein den Jesus arkitzeko bidea

Mundu onetako gauzak, Jangoikoaren serbitzuan ta ongi dabilzaneak ere, urteko sasoiaren erako gauzak dira. Urteak baditu negu otza, uda-berri epela, uda beroa ta utza edo udazar epelzen ta ozten asia, ta munduko gizonen onenak eta ondasun anitz dutenak ere izaten dituzte beren goraberak beren otz gogorak, etseginz epelak, atseginz beroak, bai ta naigabe erdi otz eta atseginz erdi beroak ere; bada Jesusen ama izandu da lurreko on guzien artean onena, ta onek ere izandu zituen bere aldi oriek eta beste edozeinek bezain andiak.

Bai, agitz andiak izandu ziran Jesusen Amak izandu zituen atseginzak, bereziki Jesusen jaitzan, Jesus bere besoan zedukan, Jesusi bularra ematen zion, Jesus ekusten zuen, Jesusen hitzak aditzen zituen, Jesusi hitz egiten zion ta era bereko beste hordu ta aldiari; ta izandu zituen beste ama guziak horduraño ta geroztik izandu dituzten guziak baño mill milletan ta agitz geiagok andiangoak; bada beste amen atseginzak emengo gizakume aurrak eman ditzaken atseginzak dira ta Jesusen Amarenak Jangoiko-gizon Jesusek emanak eta orregatik ziran parerik ezin zukeenak.

Atseginz orien erakoak izandu ziran Jesusen Amak beste aldi askotan izandu zituen kezak eta naigabeak, eta egungo Ebanjelio Santuak agerzen digun aldi batekoak beinzat agitz latzak eta andiak. Nazareth zeritzan erri batean bizi zen Jesus bere Ama ta S. Josefekin. Legeak ziona egitera igaten ziran Bazkoz Jesusen Ama ta S. Josef beren erritik urrutisko arkitzen zen Jerusalemgo Elizara. Amabi urtetan aldi orietatik batez igan zen biekin Jerusalemgo Eliz berera Jesus maitagarria ere ta igan ziran irurekin batean edo berez zenbait aide ta ezagun ere.

An beren egunak igaro ta Elizako lanak egin ta artu zuten Jesusen Amak, S. Josefek eta bien aide ta ezagunak beren errirako bidea; baña



Jesusek ez. Egun guzian ibilli ziran Jesusen Ama ta beraren Espos S. Josef Jesus an etzela ohartu bage, ta etziran ohartu, zeren uste zuten bien aide edo ezagunen erdian ta beren ondoren zetorrela. Arratseko gelditegira bezain laster, asi ziran aren billan, baña an ta emen ta aide ta ezagun guzieren artean billatu ta ere, etzuten arkitu, etzen an ta. Damuz ta naigabez beteak artu zuten bertan Jerusalemgo bidea; baña zenbat ere egin zuten, etzuten arkitu irugarren eguneraño. Arkitu zuten Elizan ta elizgizon jakinsu anitzen erdian, ta aurra bazen ere, Jangoiko-gizonak bezala legeko gauzak gald-eranzutez ederki klaratzen.

Jankinsu batek dio aren ustez aldi onetan izandu zuela Jesusen Amak beraren Pasione nekagarriko ta gurutzeko neke-tormentuz ekusi ta izandu zuen damu ta naigabenz izugarria baño naigabenz eta damu izugarriago bat; zeren, jakinsu onek dionaz, zekien Jesusen Amak Jesusek gure onerako nai zituela artu ta eraman horduko neke ta tormentu guziak eta andia izanen zela andik Jesusi zetorkion gloria ta munduko guziak izanen genduen ona ta zoria; baña etzekien zertako zen aldi artan Jesusek bera ta S. Josef bakarrik uztea, ta denbor berean beldur zen beraren obenez edo kulpaz ote zen Jesusen errebelanz eta berez ibilze hura; eta etzen bere kezkatik atera ta sosegatu, Jesus beragandik ikasi arte guzian berariz ta beraren betiko Aitak nai zuena egiteko gelditu zela Jerusalem horduraño.

Eta orra guk ere geren aldi illunetan ta eritasun nekezkotik, otzbero gogorretik edo beste alderen batetik datozkigun naigabenz illuntxiki-andietan egin behar duguna: gure obenik bage datozen aldian memeki ta Jangoikoaren izen-honran arzea, ta gure obenez diran beldur garan aldian ta ala dirala dakigun guzian, damuz beterik eta biziho Jesus billatzea ta berarekin bat egiñak gelditzea. Goazen onetarako zer den Jesus galzea ta zer bidez ta nola billatu behar den ekustera.

§ I.

«Gauz latz-gaizto-miña ta nekagarria da Jangoiko maitagarria galzea», dio Jeremias Profetak: *malum, et amarum est reliquise te Dominum Deum tuum* (c. 19). Egi zein ezaguna den hau ekusteko aski da ekuste bera zer den guk Jangoikoa galzea. «Gorputzaren bizia da anima», dio S. Agustinek, «eta animaren bizia Jangoikoa; anima galzen duen gorputza gelditzen da illa, bai ta Jangoikoa galzen duen anima ere»: *vita carnis tuae*

anima tua, vita animae tuae Deus tuus: quomodo moritur caro amissa anima, sic moritur anima amisso Deo (Trac. 47 in Joan). Animarik bage belditzen den gorputza ustelzen da fite-laster ta gelditzen da txisari-arren janari egiña, ta bere Jangoikoa galdu duen anima gelditzen da guztiz itsusia ta infernuko ar suzko ta deabru amurratu guzieren bazk edo bazkagai egiña. Orra zer geldiera ta zein negargarria bere Jangoikoa galzen duen anim gaisoarena!

Ill berrian bizia dirudi gorputz illak; baña animarik bage ezin dagike biziaren lan txikienik ere; bada ezin gora dezake esku bat, oin bat edo behatz bat ere; ezin dagike hitz bat edo keñu bat, ez eta begiratze bat ere. Eta Jangoikoa galdu duen anima eratsu berean gelditzen da zeruko gauzetarako; bada animak bere Jangoikoa galzea da Jangoikoak eman zion grazia ta indarra galzea, ta zeruko indarrik eta grazirik bage ezin dagike animak zeruko bizitzaren lanik edo zeruko gloria irabaz dezaken gauzarik. Eta hau da Davidek adirazten diguna, Jangoikorekin diardukala esaten dion aldi batez: «Jauna, zu zara», esaten dio, «nere pazientzia, zu zara nere indarra, zu zara nere uste ta esperanz guzia ta zu nere lagunza ta gordetegia»: *Quoniam tu es patientia mea, Domine, spes mea a juventute mea* (Ps. 70,5) *fortitudo mea... refugium meum et liberator meus* (Ps. 17,1).

Gorputz illak bere biziarekin galzen ditu zituen diru ta ondasun guziak, bai ta bere tresna piskak ere, ta obirako ematen dioten estalki-tzarrara ere fit aski ta laster kenzen diote obi bereko sisak, arrak ta usteltasunak, eta bera ere gelditzen da bein ezur uts eta gero auts edo lur egiña; ta bere Jangoikoa ta Jangoikaren grazia galdu duen animak ere galzen ditu grazi berarekin len egin zituen irabanz guziak eta gelditzen da sekulan bat ere egin ezpalu bezain uts eta gabe. Jangoikoak urrikariz gien-gienean uzten dion estalki piska da siñistanzarako ta uste-esperanz onerako zerbait sustrai, zain ta zeruko bihi; ta hau ere kenduko dio bere ill-hordu illunean, baldin bere gorputza utzi baño len Jangoikoarekin bakeak egiten ezpaditu, ta geldituko da bera eternidade guzian urratzen ta lerzen erabilliko duten sulezeko arren ta infernuko deabru gaiztoen atzapar zorrotz, gogor, galgarrian.

Orra zertaratzen den bere bekatuz ta obenez Jangoikoa galzen duen anima! Orra nora dijoan anima, galdu duen grazi onarekin zeruan sarze-ko ta ango atseginz andi betikoak arze-ko zegona! Eta era orretan hau galzea ez da gauz latz-gaiztoa, miña ta nekagarria? Bada hau da bekatuz anima gaiztoak bere Jangoikoa galzea ta galzeari darraikon sari gogor amurragarria.

Galdu dezu noizbait zuk era orretan zere Jangoikoa? Ezagutu dezu zere galze orretan egin dezun galkunza? Ongi damutu zaitzu zere gaizki



egiñaz ta galze zuretzat orren kaltetiaz? Etzuen orrenbat galdu Esau mutik gazteak katillu bat zukugatik galdu zuen aldian bere aitaren etxe-ko ondorentza, ta al-ere bere galkunza ta erakeria ezagutu bezain laster, asi zen orroz bazterrak urratzen, hume bereak galdu dituen leoi aserretua zirudiela: *irrugit damore magno* (Genes. 37,34). Etzuen orrenbat galdu Heli apaiz nagusiak eta aren Silotar gaisoak, galdu zuten aldian Testamentuko arka edo kutxa; ta al-ere galdu zutelako berria orietara bezain laster bere kataderatik erori ta illa gelditu zen Heli, ta aren erritar guziak asi ziran aiez ta orro arrituz aize guzia nasten: *ululavit omnis civitas* (1 Reg. 16,13). Etzuen orrenbat galdu Davidek bere seme gaizto Absalon galdu zuen aldian, ta galdu bazuen ere berari bere erreinu guzia kenzera zetorrela ta beraren soldadu berei eman zien batall gaiztoan, ill zelako berria aditu zueneko, damuz, bihotzeko miñez ta naigabez beterik asi zen esaten: «Absalon, nere nere seme maitea, nere seme Absalon, nork eman lezakedan zure orde z ni ill ta zu bizirik gelditzea»: *Absalon, Absalon fili mi, quis mihi det, ut ego moriar pro te* (1 Reg. 15,29).

Zuk zerorrek ere galzen badezu senarra, semea edo ongi nai diozun aidea, negarrez bazterrak betetzen dituzu; ta ilzen dezu bekatuz zere anima ta ez dezu negarrik egiten? Gauz arrigarria, esaten dizu S. Agustinek: *ut plangas corpus, a quo discessit anima, et non plangas animam, a qua discessit Deus!* (Serm. 13 de Sanctis).

Baña hau guzia baño agitz andiagoa da zure erakeria; bada negar ta negar egin beharrean anima bekatuz ilzen dezun aldian, irriz ta farraz zaude ta lan gaiztorik egiten ezpazenu bezain lasai ta aisa: *quasi per risum operatur scelus* (Prov. 10,23). Etzuen hau egiten Davidek. Bazekien Davidek anima bekatuz ilzen duenagandik urrun dela bere graziz Jangoikoa: *longe a peccatoribus salus* (Ps.), ta Jangoikoa berekin zuen edo ez etzekien aldi batez, esaten zuen: «Egun oro», esan zidaten denboran, «Non arkitzen da zure Jangoikoa, negarra ta negarra zen gau ta egun nere janaria»: *fuertunt mihi lacrymae meae panes die, ac nocte, dum dicitur mihi quotidie ubi est Deus tuus?* (Ps. 41,4). Orobat esanen zenuke zuk ere, baldin zuk bazenekin Davidek bezain ongi zer den bekatuan bat eta Jangoiko bage gelditzea; ta hau esan ez ezik, egiñen ere zenuke Jangoikoa billatu ta arkitzeko ark berak bein egin izandua. Zer ote? Bekatuz hura galdu dezula ezagutu horduko, damuz ta urrikiz beterik eta humilki Jangoikoari bere barkanza eskatzea; hau da alabaña bere aldian Davidek egiña.

§ II.

Bai, bekatuz galdu zuen Jangoikoa arkitzeko Davidek len egiña ta zuk orain egin behar dezuna da Jangoikoari humilki bere barkanza eskatzea. Egin zion Davidek bein bere gerrari prestu bati bidebageko lan itsusi bat eta kendu zion azkenean bizia, ta bere horduko lan onekin galdu zuen Jangoiko maitagarria. Hau guzia egin ta ere, egondu zen David denboraz alakorik ezpaliz ta gaizkirik eta galzerik egin ezpalu bezain lasai ta aisa. Agerzen zaio noizbait Nathan profeta ta asaldarazi bage agerzen dio bere gaizki guzia ta Jangoikoaren aserza, ta hau ark ekuste berean aritzen da dena ta bereganako aserre andiarekin ta Jangoiko maitagarria aserretu duelako damuz beterik, eskatzen dio Jangoiko berari humilki ta ziñez bere bekatu ta gaizki guzien barkanza; ta era artan David Jangoikoak ekusi ta urrikalzen zaio ta barkatzen dio guzia ta aren izenean ta orde z esaten dio profetak: «Bai, errege jauna, egin dezu zuk zere alde tik zegokizuna ta Jangoikoak ere egin du oi duena ta barkatu dizu zere bekatu guzia»: *Dominus quoque transtulit peccatum tuum* (1 Reg. 12,13).

Nai badezu, bada, bekatari urrikalgarria, barka dezan Jangoiko berak zure gaizki bekatu guzia ta bere graziz datorren berriz zure anim orain galdura, egizu lenbaitlen Davidek egiña ta zoaz damuz ta urrikiz beterik beragana ta zoaz bere barkanza emanen dizulako uste osoan humilki eskatzera ta zuzenduko dezu leneko zere makurra, zereganako dezu zeregandik urrundu ta aienatu zenuen grazia ta Jangoiko maitearen leneko adiskidanza, ta geldituko zara ill ta usteldurik zetzan gorputz bat Jangoikoaren milagro z biztu ondoan gelditzen den eran, bekatuaren usteltasunik bage ta Jangoikoaren begietan agitz edertua. Orrenbat ez ezik, orren laurdenaren laurdenik ere balio ez duten gauzak gatik hau da zuk zerorrek egiten dezuna. Eritzen zara noizbait eta galzen dezu zenuen osasuna? Zer egiten ez dezu hau arkitu naiez? Sendalleak esaten badizu idiki behar dirala zure esku-oin, besoetako zañak eta atera behar dizula dezun odolaren erdia ta bestela ez dezula arkituko galdu dezun osasuna, ongi dela eranzuten diozu ta bertan luzatzen diozkatzu esku-oñ-besoak edo aldian eskatzen dizuna.

Odol hau guzia kendu ondoan esaten badu burdin goriz erre behar dizula an edo emen zere gorputza, baietz eranzuten dezu ta zere oñaze ta naigabe andiarekin uzten dezu erretzen zere gorputza. Esaten badizu artu behar dituzula sendatzeko onak diran usai gaiztozko edari latz-miñak, ongi dela diozu ta edaten dituzu ematen dizkitzun guziak. Era



berean egiten duzu sendatzalle berak esaten dizun beste guzia eta egiten dezun bigarko edo etziko utzi bage, ta egiten, berriz ere betiko galduko dezun osasun txar bat bildu naiez.

Zer bada? Orrenbat neke ta arazo osasuna bezain gauza txiki laburragatik, eta Jangoikoaren graziak eta sekulako gloriak diña balio duen gauzagatik ez dezun artuko, bekatu gaiztoen damuak eta urrikanz onak eskatzen duten neke piska? Bururik duen baten lana ta ibillera da hau? Ori, bada; zenbat ere geiago hau artu bage zauden zu, anbat urrunago dijoakizu zere Jangoikoa ta anbat nekezago arkituko dezun zuk hau; bada zere beranz gaiztoarekin gogortuko zaitzu bihotza bekatu beren damu ona arzeko, ta bihotza gogorrago ta gaiztoago, bekatuz galdu den Jangoikoa ta Jangoikoaren grazia ta adiskidanza erdisteko: *quo longius nos Conditor deserit, eo mens nostra insensibilis obdurescit* (L. 9. mor. c. 34).

Begira: luzatzen badezu zere bekatu orien damuz ta urrikiz galdu dezun Jangoikoa billatzea, ez du bidalduko Jangoikoak Nathan profeta zu beldurrerazi ta begiak zuri idik-eraztera; ez, noski, ta aren erako beste gizonik ere; ta beste norbaitek oju ta oju egiñagatik, beldur naz ez dagizun anitz urte ez dela bidari batek egiña. Bazter elurtu batean ta bidea galdurik ibilli zen luzaro gizon hau. Andik onara zebillela, ekusi zuen toki zabal berdiña zirudien bat, eta bere bidea an arkitu ustez, artu zuen arako bidea. Argandik ez urruti arkitzen ziran toki aren berria zuten arzai bi; andik hura urrun-erazi naiez, asi ziran oju ta oju: «Begira, bidari errebelatua, begira; ez da toki zabal orretan arkitzen zuk billatzen dezun bidea; ori ur-putzu ormatu galgarria da ta aratzen bazara, galduko zara».

Etzuen siñistu esaten zioten egia; joan zen ara, zena bere begiz ekustera. Ara zen, nekez ta berandu bazen ere. Begiratu zuen erneki bazter guzietara ta ekusi zuen neguko zerbait orma zuen ura ta ura zela toki guzia, ta ur, ondorik agerzen etzuen; ta burutik oñeraño arritu zen, zen guzia; itzuli zen artzai onak zeuden toki berera ta oriek erakutsi ta artu zuen bere bidea.

Bein baño geiagotan esan dizute ongi nai dizuten predikari, konfesari, ezagun ta aide onak, ohar zaitezela non zabilzan ta nora zoazen; esan dizute zere oinpe berean dezula sulezeko putzu izugarria ta Jangoikoaren iraz beterik arkitzen den ta sufrezko suz egosten ta irakiten dagon infernu guzia; bai ta arako bide zabal zuzenez zabilzala ere, Jangoikoa utzi ta urrun ta bekatuan zabilzan denbor guzian. Idiki ditzatzula zere begiak; ohar zaitezela nora zoazen ta noiz arteko; ta beti ta beti ta sekula guzian erretzen ta lerzen ta amurrazio gaiztoz beterik an egon nai ezpadezu, itzul zaitezela eskoi aldera ta Jangoikoaren aldera, humilki

oni ta urrikiz beterik zere oben eta kulpa guzien barkanzen eskatzera ta berriz hura galdu bage biziko zaralako hitza ematera. Baña egin dezun esan zizuten gauz ori?

A, nere Jangoiko urrikalti maitagarria! Hau da aspaldi guzian nik egin beharra, ta nai izandu banu, zure lagunz orain dudana baño agitz andiagorekin errazkiago ta obeki egiñen nuena! Berandu bada ere, egiten dut bihotz osoz, egiten dut bertatik eta egiten dut lenago egin ez dudalako damuz beterik eta egiten dut arkituko zaitudalako uste osoan; bai ta zu berriz ez galzeko grazia erdits-nai andiarekin ere. Ala gerta dedilla; bai arren, bai.



XII

Erregeen urrengo bigarren igandeko irakurraldia

Nuptiae factae sunt in Cana Galilaeae. Ioan. 2.

Gaia: Zein ona ta zertako den ezkontza

Kristau-ekonzak izandu ditu etsai gaiztoak, baña etsai hereje galduak. Ezkonz-etsaiak ziran Simon Mago, Manes gaiztoa, orien eskolar guziak eta orien gisako beste zenbait. Orien aoran kristau-ekonza deabru galgarriaren lana da; ta lan, bere suzko infernura geiago eraman naiez ark egiña, zeren ezkonzez ezkonzik bage baño geiago datozen mundura, ta hereje oriek esaten dutenaz, geiago ta obe deabru gaiztoak nai duenerako ta infernua gizon ta andrez betetzeko.

Baña gezurra da oriek dioten hau, dio S. Epifaniok; eta hau bera diote beste anitzen artean S. Geronimok eta S. Agustinek; bada Jangoikoak egiña da, diote, ezkonza, ta Jangoikoak egiña, zerua santuz ta onez betetzeko ta fededun onak aingeru gaiztoen kathaderak arzeko ta zeren ezkonzan gaiztatzen ta galzen diranak beren obenez ta kulpaz gaiztatzen ta galzen diran, ez ezkonzaren kulpaz.

Geroztik ere Luterok eta onen gisako beste hereje gaiztoak esmatu ta iratsi diozkate ezkonzari ez diran anitz gauz, ta orien artean, ez dela betikoa kristau-ekonza ta ezkonduak utz dezakela gogo gaiztoak ematen dion aldian bere bizikidea beste bat arzeko edo gogo berak ematen diona geroz egiteko. Gezurra ori ere, gezurra, ta gezur, len ekusi duguna bezain andia; bada ezkonz sakramentuz elkarganatzen ditu Jangoikoak ezkonzen diranak eta era orretan Jangoikoak elkarganatzen dituenak «Utz bitez geldirik», dio Jesus maitagarriak, «bietatik baten eriotzak berez ditzan arte guzian»: *quod Deus conjunxit, homo non separet*.

Hau da erromatarrak ere Kristo Jaunak sakramentu hau egin baño len beren ezkonzan egiten zutena; bada ezkonzen zen andreak eramaten zituen iru sueldo edo diru txiki bere senarraren itxera; ematen zion bata senar berari; etxeko sukaldean erretzen zuen bigarrena, ta sarzen zuen bestea senarraren dirutegi zorroan, ta orrekin betiko beretzen zituen senarra, etxea ta itxeko ondasun guzia. Al-ere erromatarren ezkonza

ekonz-usia zen kristau-ekonzen aldean, bai ta munduko beste guzien ezkonzak ere; bada kristau-ekonza da munduko ezkonz guzietan Jangoikoaren sakramentua, ta sakramentu, S. Pablok dionez, gorde andia: *Sacramentum hoc magnum est* (Ephes. 5,32), ta erromatarren ta beste guzien ezkonzak lurreko tratuak ziran, sakramentuak ez.

Hereje-tzar ezkonz-etsaien ezpañak lotzeko guztiz egokia da egungo Ebanjelio santuak esaten diguna ta Kristo Jaunak bein egin zuen gauza. Ebanjelio santuak diona da Galileko Cana deritzan erri batean izandu zirala ezkonz bat eta ezkonz-ezteiak, an arkitu zela Jesusen Ama, bai ta Jesus bera ere berari zerraizkan Apostol zenbaitekin eta Jesusek aldi artan ezkonz onaren ta ezkondu bien alde ur utsa ardo on goxo egiñik utzi zuela.

Ezteiak bukatu baño len bukatu zen ezteitako ardoa. Ezteitarren ta bi ezkondu berrien alde hitz egin zion Jesusi beraren Ama maiteak, eskatuz zegiela egin zuen urrikarizko lan hau. Hau aditu ta maiaren inguruan zebilizanei esaten die Jesusek: «Bete zatzue urez onzi ustu oriek», eta bete zituzteneko esaten die: «Emai(o)zue ortik edatera maipuruan arkitzen den jaunari», ta ardo eder on egina arkitu zuten berak an bota zuten ura. «Orra», esaten du gero Ebanjelio santuak; «ur hau ardo egitea da Jesusek egin zuen lenbiziko milagroa». Egin zuen, ekusten dezun gisan, bere eskuz, bere Ama ta Apostol jaunak berekin zituela, ezkondu berrien ta orien beren ezkonzaren alde, ta gauz gaiztoren alde milagrorik ezin egin diteke. Beraz, berez gauz ona da kristau-ekonza. Bestela etziran ezkonz-ezteian sartuko Apostol jaunak eta Jesusen Ama ta gutiago Jangoikogizon Jesus bera.

Gauz ona dela ezkonza lenagotik ere adirazia daduka Espiritu Santuak; bada esana daduka iru gauzek egiten diotela atsegin Jangoikoari ta orietatik bat dela ezkondu bik elkar ongi arzea: *vir, et mulier sibi bene consentientes* (Eccl. 25,1). Siñisten dugu guk hau ta orain ekusi behar duguna da senar-emazte biak atseginz hau Jangoikoari egiteko egin behar dutena, ta lenbiziko aldian senarrarena.

§ I.

Bere emaztearekin bizitz on bat egin ta Jangoikoari atsegin egin nai dion senarrak ezkondu baño len asi behar du lan onetan; ta askunz ta aste hau da gaztedanik emaztegai on bat arkitzeko ongi bizitzea; bada



Espiritu Santuak dion bezala, emaztegai onak mutillak egiten dituen gauz onen saria da: *mulier bona... dabitur viro pro factis bonis*. Zori oneko mutill ezkongai da bide onez bizikide on bat arkitzen duena; bada bizikide ta emazte ona, Jangoikoak onen senarra ta bien humeak zerurako daduzkatzielako siñu-senallea da, dio Eskrituraren klaratzalle andi batek: *Palatius censet, bonam uxorem signum esse praedestinationis viri, ac filiorum* (Cornel. hic.).

«Baña begira», esaten dio Espiritu Santuak ezkondu behar duen mutillari, «begira; emazteki baten ondasuna ez da aurpegiko prinza ta edertasuna, ta ezkonzeko ez orri begiratu»: *ne conspicias mulierem in specie* (Eccl. 25,28), «ez eta aren apainketari ere»: *averte faciem tuam a muliere compta* (Eccli. 9,8); «begir egiozu», esaten dio azkenean, «zuri dagokizunaren birtuteari; bada emazteki Jangoikoaren beldurti birtutetsua da emazteki zure hondragarria ta zeruko bidean ongi lagunduko dizuna»: *mulier timens Deum, ipsa laudabitur* (Prov. 31,30). Hau da gauza, beste zenbaitek ere bai ta Enperadore Teofilok egia.

Aita ill ta amak azi zuen kontuz bere seme Theofilo hau. Ezkonzeko adin onean ekusi ta bildu ziozkan Inperio guziko ezkongai Dam, ari zegozkanak, guzietatik ar zezan berak nai zuena. Oriek ark ekusi baño len adirazi zion amak plumaz ta paperez bakoitza zein zen izatez, edertasunez ta birtutez edo beste bideren batez. *Perla* zeritzan Enperadore beraren jauregiko sal eder batean zeuden horduko ezkongai guziak eta sartu zen Enperadorea guziak ekustera. Begiratu ta hitz egin zion bakoitzari. Guztiz ederrak ziran zenbait; agitz ederki apaindurik arkitzen ziran beste zenbait; eztizko hitzak zituzten beste zenbaitek eta azkenean ekusi zuen Teodora zeritzan bat. Hau arkitzen zen arrotasunik bage ta besteen aldean humilki jaunzia; gutitan jasotzen zituen lurretik begiak, eta jasotzen zituen, fite berriz ta laster lurrera begira uzteko. Hau zen guzien artean geiena zekiena ta gutienik hitz egin zuena; baña bere egoera kontuzkoan ta beste gauz guzietan agerzen zuen hau zela amak Enperadoreari adirazi ziona ta buru onean, birtute zerukoan ta animako bere gauz guzietan beste guziei gañez egiten ziena.

Hau ta beste guziak ekusi ta egondu zen zenbait denboraz Enperadorea zer egin etzekiela ta azkenean urbildu zen Teodoragana ta eman zion amak artako prestatu zion urrezko sagar perlaz edertu bat, esaten ziola: «Nere begiak bakarrik ezkondu behar balu, beste batekin ezkonduko lizake; baña ezkondu behar dute nere adimentuak eta animak ere, ta oiek, ederragoak utzi ta artzen zaituzte zu nere bizikidetako ta zuk izan behar dezula nere emazte ta nere Inperio guziko ondasun andien

jabe adirazten dizu orain nik eman ta eskuan dezun sagar orrek». Hau ari esan ta beste guziei agur bat egin ta atera zen andik Enperadorea. Ezkondu zen gero Teodorarekin ta etzitzaion sekulan damutu arekin ezkonduaz, zeren Teodora izandu zen Constantinoplako Enperadorek izandu zuen emazterik oartuena, konsejaririk onena ta Teofilorekin beti bizikide onaren lanak ez ezik, ama maitariarenak ere egin zituen (Caus. Cort. s. p. 2). Nai badezu, bada, bizikide on bat, egizu ezkondu arte guzian Enperadore onek egia; bizi zaitez ongi ta garbiro; egizkitzu zeren amaren esan onak eta billa zazu buru ona duen neskatxa ta birtutetsua.

Hau arkitu ta onekin egizu Teodorarekin Enperadore Teofilok egia; egizkitzu bienak, dituzun ondasunak eta beste gauza; gizonarenak bezain esku onak dira oriek gordetzeko ta ongi erabilzeko andre birtute-tsuarenak eta biak elkar ongi arzeko ez da hau bezain bide zuzenik; bada hau da gauzak meeki eragiteko ta bake on bat izateko biderik onenonena ta, S. Agustinek dionaz, senar emazteen egiteko andia: *ordinata imperandi et obediendi concordia*.

«Ezkonzan buru da senarra, ez dut ukatzen», dio S. Pablok, «baña Kristo Jauna Elizaren buru den bezala»: *vir caput est mulieris, sicut Christus caput est Ecclesiae* (Ephes. 5,23). Elizaren buru Kristo Jaunak ongi nai dio bere Elizari ta beti-beti maite du ark Eliz hau, ta hau bera da bere bizikidearekin senar onak egin beharra; bada «Gizonak!» esaten die S. Pablok oni ta orrelako beste guziei; «gizonak! maitatu zuek zeren andreak, bere Eliza Kristo Jaunak onesten ta maitatzen duen eran»: *vir, diligite uxores vestras, sicut et Christus Ecclesiam* (ibid. v. 25).

Kristo Jaunak ekusi zuen bere Eliz hau lenbizioan guztiz aurra ta txikia; andik laster nekez, tormentuz ta martirioz erdi urratua, ta gero ta beti hereje gaiztoz ta geienen bekatuz ta gaiztakeriz agitz zikindu-loitua, ta alere ez dio bekaitzik agertu bein ere, ez eta ez dagokan hitz bat esan ere. Bere Eliz onekin egin du Kristo Jaunak agitz geiago ere; bada onetsi ta maitatu du beti-beti ta era berean maitatuko du emen bizi den arte guzian ta gero eternidadeko glorian. Eta orra senar onak bere bizikide emaztearekin egin behar duena: bera baño gutiagokoa izanagatik jaiotzez, adimentuz, dotez ta diruz aren andrea, begitan orrelakorik ari ez ematea; asaldaturik, aserreturik edo zaputuz noizbait ark hau ekusiagatik, ez-ekusi egin ta bere gauzak poliki egitea; etxeko gauzen maneaz, jan-edanen prestanzan, humeen ta ganadu guzien moldanzan ta gañerako bere egiteko guzietan labur ta eskas andre beraren eskuak ekusiagatik, hitzik ez ateratzea ta mindu bage gelditzea. Hau da Kristo Jaunak bere Elizari egiten dionarekin adirazten diona ta bere Apostol S. Pablaren ezpañez esa-



ten duena, oni esan-erazten dionean: «Gizonak, ez mindu zeren buruak, ez eta zeren andreak ere»: *virī, nolite esse amari ad illas* (Colos. 3,19).

Ez, bada, zuk orri naigaberik eman berandu itxera etorritz, etxean etxerako ta zere humeenzat behar dezuna bestetan galduz, ez eta bekaitzez, begiratze zorrotzez, hitz mingarritz, mututuz edo beste bideren batez ere; bada senarrak onetsi behar du bere andrea bere gorputz zatia bezala, dio S. Pablok: *virī debent diligere uxores suas, sicut corpora sua* (Ephes. 5,25); ta batek bere gorputza onestea gaitzik oni ez egitea da ta egin behar dituen gauz guzietan indarrak emanez, argi egiñez ta dezaken alde guzietara ongi ta meki lagunzea. Hau bera senarrak emaztearekin egitea da ark hau onetsi ta Jangoikoak nai duen gisan biak bat egiñik bizitzeko bidea: *erunt... duo in carne una* (1 Cor. 6,16).

§ II.

Baña gizonak bakarrik egin behar ez du onetarako den guzia; lagun-du behar dio emazteak ere bere lan onetan ta Jangoikoak nai duen gisan elkar ongi arzen ta elkar onesten, elkar arturik gero hume berak ongi azitzeko. S. Pablok senarrei bezain garbiro emazteei ere erakusten die beren lan onetarako jakin behar dutena, esaten diela: «Andreak beude prest senarrak nai dutena, Jangoikoak nai duen gauza bezala, ongi egiteko»: *mulieres viris subditae sint, sicut Domino* (Ephes. 5,22).

«Senarrak nai duena ongi egiteko andrea prest egotea andreri berez ere dagokan egitekoa da, dio Abulense deritzan Interpretate andiak (in c. 13, Gen. c. 7,55); zeren gizona andrea baño geiagokoa den ta geiagokoa buruz, eskuz ta beste anitz aldetara ere, ta orregatik den andrearen jauna ta burua, S. Pablok dion ta ekusi dugun bezala: *caput mulieris vir* (1 Cor. 11, v. 3), ta jaunak nai duena egin behar du jaunaren eskukoak. Bai ta zeren andrea gizonari dagokan gauza den ere; bada andrea, Eskritura Santak dion bezala, gizonaren kostill ta saiets-ezur batez egiña da: *os ex osibus, et caro de carne mea* (Gen. 12,23); ta gizonaren gauzezko gauza gizonak nai duenerako da, beraren sagardiko sagarra berak nai duenarenzat den bezala. Eta orra (...) andrea gizonak nai duena egiteko prest egotea andreri berez dagokan egitekoa den. Bai ta bere obenez dagokana ere.

Zergatik, uste dezu? Hitz berak dionagatik edo egin zuen bere bekatu ta lan gaiztoagatik; bada Evari deabru galduek arrotu zion burua Paradisuan esan zionarekin, esan zion aldian: «Jangoikoaren erakoak

izain zarate, berak debekatu dizuten arboletik jan-ezkerok»; ta izanen zela-koan jan zuen berak eta jan-erazi zion bere senarrari ta gelditu ziran biak Jangoikoaren erakoak ez, baizik deabru galgarriaren gis gaiztokoak eta bekatuz belztu-itsusiak eta sekulako su-gai egiñak. Egin ta eragin zuen bekatuagatik, bada, bigarren aldian gelditu zen andrea senar-pekoka ta leneko gisan senar jaun-pekoka ez, baizik senar nagusi-pekoka, Interpretate berak dionaz; ta Eskritura Santak adirazten duen gauza da Interpretate onek diona; bada bere lan errebes gaizto hau egin ondoan, esan zion, dio Eskritura Santak, Jangoikoak Evari: «Gizonaren eskupekoka zara gaurgero ta eragiñen dizu nai duena»: *sub potestate viri eris, et ipse dominabitur tui*.

Baña berez ta bere bekatuagatik egin behar duena gogoz ta bihotzez bere senararekin egiten badu, agitz lagunduko dio andreak oni bake onean ta behar den eran beren gauzak egiten; orregatik egin behar du emazteak senarrak nai duena, onek esaten dion guzian, «dagiela hau, utz dezala hura, joan dedilla onara edo ara, datorrela onelako edo alako hordurako, dagola geldirik, dabillela, apain dezala hau edo hura» ta era bereko beste gauzaren bat, baldin bekatuarekin bage egin ditezken gauzak badira ark esaten diozkanak; eta sinis beza hau dela berak nai duena azkenean egiteko bidea, gizon zar batek bein ezkongai bati esan zion bezala.

Ezkonzeko zegoen bein buru onezko neskatx bat eta bizitz on bat bere ezkonzan egin naiez ta artako bidea ikastera joan zen zar bat gana ta galdetu zion: «Jauna, ta zer da ezkonzan ongi bizitzeko dagikedana?». «Senarra zere eskuratzea», eranzun zion zarrak. «Baña nola, jauna?», esan zion gazteak. Eta zarrak: «Senarrak nai duena gau ta egun ta beti egiten dezula; hau da orretarako bidea»: *Si vis imperare viro, pareas; bona enim mulier parendo viro imperat*. Ala ekusi dute hau egin duten emazte onak eta bes-teen artean Franziko Erregin Clotildek.

Borgoñako Prinzipe baten alaba zen Clotilde hau. Beraren ait-amak ill ta azi zuen agitz ongi, hereje arriano bazen ere, osaba batek. Etzion osabak uzten etxetik ateratzen ta milagroek ekusten zuen batek ere. Al-ere izandu zuen onen berria Franziko Errege Clodoveok eta bidaldutuen ekustera ta aren berriak arzeria Aureliano zeritzan bere jauregitar prestu bat. Ara joan ta denbor andian ezin ekusiz Clotilde enoiatu zen Aureliano; ain gordea zedukan beraren osabak; baño hura ekusi bage bere erregegana itzulzeko asmotan arkitzen zen berean, aditu zuen alako egunez aterako zela Elizara ta bidenabar eginen zela limosna arganatzan ziran guziei. Alderagotik hura ekusi naiez, egun artan artu zituen Aurelianoek eskean zebilzanen tresnatar batzuek. Era artan sartu zen Clotilderaren itxe atarian arkitzen ziran errumesen artean ta artu zuen



Clotilderen eskutik limosna. Hau arzean muñ egin ta apatu zion eskuan Aurelianok Clotilderi. Artara ohartu ta bildu zuen bereala Clotildek eskua ta begiratu zion nor ote zen jakin naizik eta ezagutu zuen tresnak zirudiena baño geiagoko gizona zela limos-artzallea. Galdetu ziozkan anitz gauza ta bidenabar ikasi zuen Aurelianok nai zuena. Joan zen andik ostatura ta ostatutik Clodobeoren kortera ta eman ziozkan Clodoveori ark uste baño ere Clotilderen berri agitz obeak.

Clodoveok eskatu zuen Clotilde ta artu zuen bere andretako. Atera zen aren bidera Soisons deritzan erri bateraño ta hura ekusi zueneko, jaitzi zen Clotilde, belaunikatu zen aren oñetan ta buruz lurra ukitzen zuela, esan zion Erregeri an zetorrela aren serbitzari-eskupeko izatera. Eta izandu ere zen beti-beti bere bizi guzian ta nai zuena egin zezala bere gelara Erregek gaztigatu zion batez, eranzun zion etzuela ark Erregeren naikunza bai ta beste naikunzik. Eta esan oi zuen Clodoveo Erregek: «Nere andre Erregiñak adimentu ta oroitzapen ederrak ditu, baño ez du naikunzik eta borondaterik».

Ezkondu ta laster atera zen Errege ger gaitz-perillezko batera. Artako gauzak ark prestatu artean, egiten zituen Clotildek aren alde otoitz bero luzeak eta egiten zituen Erregeren atseginz andiarekin, ta esan zuen bein: «Erregiña pelean hari da nere etsai guziekin ta garaitzen baditut, egiñen dut ari atsegin eginen dion gauz bat». Garaitu zituen milagro bezala. Itxerakoan atera zitzaion bidera Clotilde S. Remigio Arzobispo Jaunarekin ta argana zen bezain laster, esan zion Erregek: «Clotilde, zere otoitz onekin garaitu dituzu nere etsaiak eta ni ere garaitu nazu zere ibiller polit humillarekin. Zuk nai zenuen ni kristau egitea ta hau bera da orain nik ere nai dudana». Bataitu zen alik lenena ta ibilli zen gero, nola beti ta nondik egiñen zion atsegin Erregin Clotilderi. Orra senar-emazte biak bat eginik bizitzeko ta Jangoikoari atsegin egiteko egin behar dutena: elkarri beti atsegin egitea, gogoaren bortxa noizbait eginen badute ere. Jainkoak diela artako behar den grazi-lagunza. Bai arren, bai.

XIII Erregeen urrengo irugarren igandeko irakurraldia

Domine, si vis, potes me mundare Matth. 8.

Gaia: Zertako ta nola artu behar den
azken Komunioa

Lepra zikiñez galdurik arkitzen zen gizon bat da lenbizikorik gaur Ebanjelio Santuan arkitzen dugun gauza. Edozein eri agitz urrikalgarri da, naiz dela gaztea, naiz ondasunduna, baldin lepra izan oi den bezain luzea bada aren eritasuna; bada ez bere gaztetasunak eta ez ondasundi guziak arintzen dio bere gaitzetik datorkion neke gogorra ta naigabenza, ta horduko bere naigabenz eta neke latzak kentzen edo nasten dio loa ta jangura guzia ta uzten dio burua oñazez ta barren guzia aiez, kezkaz, egarritz ta suspirioz betea. Gabeko ta egunaren zati andiak eraman oi ditu aika ta eztulka, ta oatze leun batean ta oial mezkoan egonagatik, ezin egon da geldirik; iraulka ta bein alde batera ta bein bestera dabill, bein ere arkitu bage billatzen duen atsegin-tegi soseguduna. Bitarte guzian sukarrrez, beroz edo duen beste gaitzez galzen du bere sasoi ona ta aurpegi-kolore guzia, ta igartuz doa ta urbilduz bein eriotz illun batera ta andik bere obira.

Urrikalgarria da, bada, era ta gis onetako edozein eri, baño urrikalgarriagoa ezkabi-lepraz beterik arkitzen dena; zeren beste eriantzat arkitzen diran gogo osoz ekusten dituzten zenbait eta lagunzen dienak, baño ezkabidun lepratsuari ez da gogo onez ta bere barreneko naskunzik bage begira dezokeonik, ezpada gure Jangoiko urrikalti maitagarria. Hau billatu zuen egungo gure lepratsu gaisoak, eta belaunikatu ta esan zion humil-humilki: «Jauna, zuk ni, nai badezu, sendatu ta garbi nazakezu». Argandik hau aditu ta bere lepr zikin gañean ezarzen dio Jesusek eskua ta esaten dio: «Ongi da, nai dut, garbi zaitetz, nai dezun bezala». Ta hau Jesusek egin ta esan horduko, gelditu zen sendatua ta garbi-garbia lepratsu gaisoa.

Urrikarizko bere lan andi ta milagro hau egin ta sarzen da Jesus Cafarnaungo errian ta an sarze berean bere oñetan du beste lenekoaren



gisako eskale humill on bat. Hau eun soldaduren nagusia zen. Onek zuen itxean aur edo mutil perlesiz galdu ta oñazez bete bat eta artaz urrikaldurik eskatu zion Jesusi urrikal zekiola ta atera zezala bere gaitz-oñazeen atzapar gogorretik. «Ongi da», eranzun zion Jesus maitagarriak; «joanen naz zure etxera ta sendatuko dut zure aur elbarria». «Ez, Jauna», esaten dio gerrari onak, «ez da zer nere aurratik orrenbat neke zuk artu; errazkiago ere badagikezu nik zuri eskatzen dizudana; bada zuk, nik nere soldadu bakoitza bezain eskuan daduzkatzu munduko eritasunak eta osasuna. Aski da nik edozein soldaduri nai dudana eragiteko "Oa ara, ator onara, egin hau edo hura" esatea; hau bera badagikezu zuk emen beretik eta askiko da nere aurra sendaturik uzteko; egizu bada; bada ni ez naz nere itxean zu arzeko diña».

Argandik hau aditu ta itzuli zen Jesus berarekin zetozenetara ta esaten die: «Ekusten dezue? Gizon hau ez da israeldarra, baña israeldarrak baño ekuste ta siñistaz agitz obekoa da. Ekusiko dezue, Israelgo erreinuko seme gaiztoak illunbe ta neke andian geldituko dirala, ta anitz goiztar ta arratstar jentil jarriko dirala Abrahamen, Isaken ta Jakoberen bazterrean zeruko nere mai atsegindunean». Jirutzen ditu gero begiak gerrari eskatzalle onagana ta esaten dio: «Zoaz bada ta agi-gerta dakizula uste dezuna», ta sendatu zen aur eria.

Orra leneko lepradunak eta oraingo gerrari nagusiak erakusten diguten gauza: geren eritasun andietan, gerez al badugu, komunio santan ta gerez ezin dugun aldian bestez Jesus billatzea, Jesusek digun, dagokigun aldian, gorputzeko osasuna, ekusi dugun gerrariaren aurrari bezala; ta hau ezpada, aldi artan dagokigun ta lepratsuaren sendanzak adirazten duen grazia ta sekulako bizitza. Hau da noiz ere baño kontuzago eritasun ta komunio santa azkenekoan guk egin bearra. Zertako ta nola egin behar den Jesus azken komunio santan billatze hau, orain ekusiko dugu Jangoiko maitagarriak lagunzen digula.

§ I.

Beti behar dugu geren alde ta billatu behar dugu geren egiteko ta neke guzietan Jesus maitagarria, billaldian digun orien aringarri aldi artan dagokiguna. Baña beste egiteko ta nekeetan baño kontuzago billatu behar dugu erinzako komunio santan, aldi artan digun dagokiguna, naiz

dela gorputzeko osasuna, naiz eriotza, ta bidenabar animako grazia ta indarza.

Nekeen aringarria da nekatu guziak nai duten ta geienak billatu oi duten gauza. Orregatik ongi arzen du eriak hitz onak dituen adiskid-ekuslea, ta agitz obeki ekustera datorren aldian ekarzen badio aren gaitzari dagokan lurreko sendagai, edari, auts edo belar onen bat; eta ongi siñisturik aren gain esaten diona pozik eta sendatzeko uste andian arzen du luzanzik bage ta bere aldian. Ez ala, guziak beinzat, animakoa ta adiskiderik andienak ekarzen diona edo Jesus berak komunio santan eman nai diona.

Atozea; badu eriak Jesus maitagarria baño adiskide andi oberik? Eriari hitz on aringarri geiago esan dezekenik? Badu gorputzaren sendanz andien berak ere nai obean ta merkeago eman ditzakenik? eta animaren sendagai oberik eman duenik? Ez da Jesus, Jangoiko gure amorez gizon egiña? Ez da hau bere hitz leun ederrekin aurdanik ere bere aora begira guziak zeduzkana ta edozein neke ta naigabenez arinzeiko behar diran gauzen bideak bere Ebanjelio Santuan utzi zituena? Ez da Jesus hitz birekin, ta bat esan bage ere, nai zituen eriak sendatzen, illak bizten zituena, bere milagrozu mundu guzia betetzen zuena ta nai duen aldi oro bete dezakena? Ez da Jesus eriak eta osasundunak behar dituzten indar, lagunz eta grazi guziak bere Pasiene santan irabazirik daduzkana ta eskatzen dituen edozeñi, bere eskuz edo sakramentuz, kupide bage ematen diozkana? Ez da oriei berei ta orrelako zerbait behar dutenei eman naiez ots egiten diena: «Atozte nigana, behartsu-naigabetu, nekatu edo eritasun-pe gogorrean arkitzen zarazten guziok; nik emanen dizuet behar dezuten janaria, indarra ta barreneko arinza»: *et ego reficiam vos?* (Matth. 11,28).

Baña siñisten dute hau eri bataitu fededunetatik erdiak ere? Orietatik geienak ez dute uste beren erinzan Jesus agerzea ta Elizako gauzak arzea dela eriotzaren atzapar gogorrean sarzea ta ilzeko bide labur bat arzea? Artan ezpaleude, illundu ta tristatuko lirake, tristatu ta illundu oi diran eran, oriek berak edo oriei dagozten etxeko beste zenbait, Elizako gauzak artu behar dituztela aditzen duten aldian? Luzatuko lukee, luzatu oi duten diña, komunio santa erakarzea ta arzea? Zenbat arkitzen dira beren luzanz beldurti onegatik Eliz gauzak eta sakramentu andi hau artu baño len burua galzen dutenak eta konfesatu ta komulgatu bagez betiko galzen diranak? Zenbat, horduko komunio santa artuagatik, arzen dutenak, arzen ezpalute bezain uts eta behartsu gelditzeko, zeren arzen duten erdi illak daudela eta zer egiten duten ez dakitela? Eta



zenbat eta zenbat ilzen dira, garai onean Elizako gauzak artu bagez, artu balituzte sendatuko ziranak?

Bai, sendatuko ziran, bada Elizako gauzak dira eriarri, dagokan aldian, osasuna emateko. Jesusen Konpañiko Santu gazte Estanislaos Koska, lenago bere estudi denboran bizitu zen Alemaniko korte Vienan ta hereje baten etxean. Eritu zen bein an agitz gaizki. Elizako gauzak artu nai ta etzekien nola, zeren itxeko hereje nagusiak naiko etzuen ark oriek aren itxean arzea. S. Barbarari zion anitz debozio ta arteko arturik zedukan oriek artu bage ez ilzeko, zeren aditu zuen ez dela Elizako gauzak artu bage illen Santa onekiko debozio duenik. Eskatu zion, bada, Santari erdis zezola Jangoiko maitagarriagandik bere zori on hau ta erditsi ere zion; bada Santak eskatuz Jangoikoak igorri ziozkan herejearen itxera zenbait aingeru komunio santarekin. Komulgatu zen Santua, bere ustez, ilzeko; baña Jangoikoa etorri zitzaion sendatu ta osasuna ematera. Sendatu ta laster joan zen Erromara, Erroman egin zen Jesusen Konpañiko ta Santu ta igan zen zerura, bai ta Elizako aldarera ere.

Ni nere estudiantan nebillela, Medina Campoko deritzan erri batean izandu zen eritasun aldi epidemizko bat. Anitz eta anitz ziran artatik ilzen ziranak eta noizbait bizi az etsirik eritzen ziranak asi ziran eritu ta laster Elizako gauzak eskatzen, ta hau egin zutenetatik etzen kasi bat ere ill. Ohartu ziran beste guziak artara ta geroz eritu ziranak egin zuten hau bera ta sendatu ziran ta denbor gutiren buruan bukatu ziran ango eritasunak eta epidemi guziak.

Orra zein eroa eri anitzek Elizako azken gauzak arzeko duten beldurra, komunio santan Jesus bizia kenzera baletor bezala. Egon zaitez, bada, zere aldirako ongi siñisturik, aldi artako Jesusen etorza Erregerik andienaren onginaizko etorza dela ta bere etorz orretan egiñen dizkitzula eskatzen diozkatzun ta zuri dagozkitzun on guziak; eta on, Marco Antonio ta Trajano zeritzan Enperadore andiak beren soldadu zenbaiti egin zieztenak baño agitz eta agitz andiakoak.

Enperadore oriek joan ziran zenbait aldiz beren soldadu eriak ekuster, soldadu beren atseginz eta poz-kontentu andiarekin; ta oriek aldi orietan soldadu eriei egiten zien on guzia zen, batak bere eskuz orien esku muturreko zain saltaria uki-ekustera, barrengo odola ta pulsua nola zebillen ekusteko, ta besteak, zerien odola gelditzeko, zekarren kapa urratu ta puskaka ematea; baña beren soldadu erietatik bati ere kendu bage zuen oñazea, buruko miña edo sukarra; zeren oriek Enperadore ta gizon andiak izanagatik, etzuten artako behar den indarrak eta eskurik.

Jesus maitagarria da eriarri darion odola lokarririk bage geldirazi dezakena ta edozein sukar ta kalentur, edozein min ta gaitz, sendagaiez edo sendagairik bage ken dezakena ta askotan ta askotan kendu ere duena. Jesus maitagarria da beren eritasunetan komulgatzen diranei ongi dagoten aldian gorputzeko osasuna ta bestela beren naigabeen arinza ta atsedanz ona ematen diena, orain adituko dezun berriak adiraziko dizun bezala.

Santa Liduvinak izandu zituen bere bizian, donzellek izandu dituen gorputzeko ta barrengo neke ta naigaberik andienak eta nioiz ere baño andiakoak azkeneko bere eritasunetan. Oriek ari nolerebait arindu naiez, bere konfessoreak esaten zion zerbait gauz on ta zenbait aldiz agerzen Jesus gurutzatua. Aditzen ta ekusten zuenarekin arinzen ziran zerbait aren neke ta naigabe andiak; baña berritzen ziran bereala ta anditzen puntu oro. Hau ekusi ta esan zion bein: «Kanpotik eta ainzuraz hitz egin dizu Jesusek orain arte guzian; hitz egin dezala barrendik ere ta berak berez; ta artako ar zazu bera ta komulga zaitez». Komulgatu zen Santa ta Jesusek berez egin ta adirazi zionarekin aienatu ziran aren kezka eta oñaze ta naigabenz guziak eta gelditu zen atseginzez ta kontentuz betea, ta atseginz geiago artu naizik, neke ta tormentu berrien naikunz andiarekin (Lyteus de imit. Chris. p. 64 et 402).

Jangoiko maitagarriarekin bat diranak izan dezaten azken artan hordu artako komunioz Jesusek onei eman oi dien atseginz hau, milagro igorri die zenbaiti, ekusi dugun S. Estanislaori bezala, komulgatza lleren bat; bada igorri-bidaldu zion Ridolfo apeza S. Deodatori, ta S. Honorato, S. Ambrosio ark uste baño gaizkiago arkitzen zenari, artako hau lotatik aingeruz iratzarririk. Eta Jangoiko berak biztu zuen S. Eloi, komulga zezan ilzeko beldurrez horduraño komulgatu etzen eri gaiso bat. Egin ditu Jangoikoak milagrozk gauza oriek, munduko guziei adirazteko zenbat balio duen azken komunio ongi egiñak etsaia garaitzeko ta zeruko grazian animak sendorturik uzteko; bai ta, S. Pascasiok dionaz, ongi bizitu denari zerura behar duelako señaile ta prend eder bat emateko ere: *immortalitatis praebet alimoniam, ut mortem non timeamus* (Apud Recap. Tra. 3 in dust. 3).

Eroak dira, bada, ta askotan eroak, gaizki dauden aldian orrenbat atseginz eta ondasun artu nai ez dutenak, lenbaitlen edo garai onean ez arzeagatik horduko komunio santa; Jangoikoa orretara ez, baizik bizia kenzera baletor bezala.



§ II.

Baña Jesusen eskutik horduan guk orrenbat ondasun arzeko artu beharko dugu horduko komunio santa ongi prestaturik eta Jangoikogizon Jesus maitagarriari dagokan eran. Orretako beharren den prestanza da anima Jangoikoaren graziz jaunzirik eta bekaturik bage idukitzea: bada bekaturik ez duen ta Jangoikoaren grazian arkitzen den anima Jangoiko beraren adiskidanzan arkitzen den anima da ta beraren adiskide den animagana pozik dator komuni santaz Jesus maitagarria ta bere eskuak ongi zabaldurik egiten diozka dagozkan on ta ongi guziak eta ematen diozka adirazi ditugun hordu artako ondasunak eta atseginzak.

Zer gerta ere, komunio santa arzeko zauden aldian, ar zazu zere bekatu guzien onezko damua edo zere bekatzuz Jangoiko ezin obe-maitagarriagoa aserretu dezulako damu andi bat; bada er eta gisa orretako damuarekin komuniatzen bazara, len barkatu ezpaziran ere, barkatuko dira zure bekatu berak eta zu geldituko zara Jangoikoarekin bat egiña; geldituko zara Jangoiko beraren grazi zori onekoan ta geldituko zara hordu artan Jangoiko berak egin oi dituen ondasunak eta atseginzak arzeko bidetan sartua.

Oriek zuk hordu artan arzeko anitz lagunduko dizu era urrikalgarri humil batean zere Jaun andia zuk arzeak. Santu zenbaitek artu dute beren azken komunio hau Eliz berean, ta hura artu ta sartu dira beren obian, ta, lotara baloaz bezala, etzin dira an ilzera, ta an bertan lotan daudenen gisan illak gelditu dira.

Ilzeko zeuden beste zenbait bestek lagunduz atera dira beren oatze-tik eta joan dira komunio santa zekarrenaren bidera. Aren eskuan Jesus sakramentua ekusi horduko, belaunikatu dira, esan diozkate Jesus maitagarriari al zituzten gauz egoki guziak. Eskatu diote guztiz humilki beren oben ta kulp guzien barkanza, eman diozkate bere etor-er onagatik milla ta mill esker, eskatu diote, artara datorren ezker, sar dedilla hordu onean orien bularreko gelan, ta sar dedilla zeruko anitz ondasun ta grazi an uztera, presta dezaten nola-ere-bait beren anima Jesus berarekin beraren zeuran sarzeko ta aingeru ta zeruko beste guzien lagun on an izateko; ta debozki an komulgatu ta itzuli dira beren oatzera, esker humillak an Jesusi ematera, zeruko biderako behar duten guzia eskatze- ta eriotz on baterako neurri zuzenak arzera.

Orrenbat bide egiteko etzeuden zenbait, penitenteen soñekoz jaunzirik belaunikatu dira oatz aitzinean. Ala komulgatu diranetatik izandu

zen Elizako Doktor andi S. Geronimo. Oatzea uzteko indarrak ez dute-nak goititzen edo erdi-gorutzen dira beren oatze berean, ta beren Jaun andia artu baño len eskatzen die itxeko guziei ta beste an arkitzen diranei eman diezten naigabenzen ta eskukai txarren barkanza, bai ta beren otoitzen lagunza ere.

Orrelakorik egiten ez dutenak artu behar dute Jesus beren azken komuni santan alik humilkiena ta deboziorik geienarekin, ta begi-bihotzak bildurik egin behar diote ongi-etorri eskerdun bat eta eskatu, bere Pasio santan izandu zituen neke ta tormentu guzien izenean, horduko neke-egari ta naigabe guziak me-meeki ta beraren neke andien izenean arzeko grazia. Egiten badezu, ekusiko dezu etorze ta ekuste zein ona egiten dizun Jesus maitagarriak.

A, nere Jesus maitagarria!; ta ekusiko ere ote zaitut nik nere ezken tranze izugarri artan? Ez dagote orrenbat zure ontarte, oraindiano nere ibiller ta bekatu galgarri gaiztoei! Baña ekusten nazu orain oriez ongi damutua, ta badut uste nitaz ta nere leneko erakeri guziez urrikaldurik barkatuko dituzula garu beretik eta emanen didazula bekatu berririk ez egiteko, nere eritasun azkenekoan komunio on batean zu arzeko ta beti ta beti zeruan zu ekusteko grazia. Eskatzen dizut bihotz osoz ta ez niri zuk hau ukatu: ez arren, ez.



XIV Erregeen urrengo laugarren igandeko irakurraldia

Domine, salva nos, perimus. Matth. 8.

Gaia: Judasen gisan galzen da
behar den horduz onzen ez dena

Aldi batez igan zen Jesus, egungo Ebanjelio Santuak dionaz, arranzaleen itsas-onzi-batel edo barka batera ta arekin batean igan ziran aren eskolako Apostol Jaunak ere. Itsasoa etzen aldi artan arkitzen asaldatu; itsasorako nai bezain ona zen zebillen aizea; aizean etzen odei belzik ageri ta ezin ohea zen aldi artako eguraldia. Beste alde berekin zuten an arkitzen ziran Apostol berak Jangoiko-gizon Jesus maitagarria (bere Aita betiko ta Espiritu Santu Jaunarekin), aize guziak eta itsaso bera egin zituen, aizeei beren ibilzak eman ziezkan, itsasoari bazter guzietan arrizko ta arezko mugak ezarri ziozkana; ta bere egillearentzat aserretuko etziralako ta bidanz on bat izanen zutelako uste osoan atera ziran Apostol marinelak itsaso zabalera ta an zebilzan kezkarik eta beldurrik etzutela. Bitarte arta loak artu zuen Jesus maitagarria; asaldatu zen gañeko aizea; orroz ta bagaz bazterrak urratu nai zituenaren eran batetik bestera zebillen itsaso guzia ta Kristo Jauna ta beraren onzi txikia zerabillen luma zirudiela ta ez-bai-puntu oro ondatzeko gisan ta eran: *et ecce motus magnus factus est in mari, ita ut navicula operiretur fluctibus.*

Zer bada? dio S. Joan Krisostomok hau ekusi ta; aize gaiztoak eta itsasoak etzioten begiratu behar beren egille Jangoiko maitagarriari, askotan Jangoiko beraren santu zenbaiti begiratu dien bezala? Bai bada, itsasoak santu zenbaiti begiratu ta askotan egin ditu berez egiñen etzituen gauzak. Bere zigorrarekin Moisesek bein bizkarrean eman zioneko, egin zen erdi bi itsaso gorria ta erdian utzi zien batetik besterako bidea Moises berari ta berekin zituen mill-milla andi txikiri ta orien ganadu guziari. Itsasoko urak utzi zuen bein bere gazitasuna, Moisesek bota zion zur batek ukitu ta, ta beste batez S. Francisco Xabierren oin-puntak ukitu zueneko. Onzirik bage ta bere bizkarrean eraman zuen itsasoak S. Francisco de Paula Siciliko bazterretik Napolesko bazterrera, ta S.

Raimundo de Peñefart Mallorcatik Cataluña. Zer, bada; orrenbat begitart on itsasoak Jangoikoaren Santu oriei ta begitar(t)on bat ere ez Jangoiko berari? Hau zer da?

«Nik esanen dizut», eranzuten du Santu berak. «Onzian zen Jesus Jangoiko gizona; onzian ziran Apostol onak; bai ta Judas gaiztoa ere, ta Judas salzallearen gaiztakeriak asaldatu zuen itsasoko aizea ta itsaso bera»: *etsi multa discipulorum merita navigabant, adhuc tamen naviculam perfidia proditoris agitabat*, eta Judas gaiztoa zen, ta ez aizea ta itsasoa, Jesus maitagarriari begiratzen etziona.

Itsasoa ta itsasoko aizea ain asaldatuak ekusi ta joan ziran lasterka Apostolu gaisoak Jesus maitagarriari ojuka iratzarri ta esatera: «Jauna, galduek gara, lagunzen ezpadiguzu»: *Domine, salva nos, perimus.* hau aditu ta bake on andian esaten die Jesusek: «Uste txarreko beldurti kezkatuak; zertako da zuen orrenbat asaldanz eta arazo?». Jaikitzen da gero ta hitz biz isilerazten ditu itsas-aizeak eta bien orro andiak.

Orra hordu artan Apostol onak egin zutena ta fededun kezkatu guziak beren kezka dion egin behar dutena. Zer bada? Beren kezka dion ito ez ditezen Jesus maiteari askotan ta biziro bere lagunza ta esku eskatzea ta emanen dielako uste osoan eskatzea. Hau da gure izenean Elizak egungo bere irur otoitzetan egiten duena. Eta emanen ere die, behar den eran beren lan hau egin ezker, eskatzen dutena edo aren orde dagoten ontarte edo beste zori onen bat. Judasen gisako gaiztoak dira hau ongi egiten ez dutenak eta azkenean, Judas bera bezala, betiko galzen diranak. Bata ta bestea da, Jangoiko berak argi egiten digula, guk gaur ekusi beharra.

§ I.

«Ez dut ekusi», zion Espiritu Santuaren argi garbiz gauzak ekusten zituen batek, «ez dut ekusi Jangoikoak bage utzirik, gogo onez ta bihotz osoz Jangoiko beraren lagunza ta grazia billatu duenik»: *non vidi justum derelictum.* Guk ere ez dugu ekusiko, behar den begiz begiratu ezker munduan izandu diran nekatu on guziei.

Esakritura Santako nekatu ta tentatu guzien artean agitz nekatua da Job santua. Artako Jangoikoak eman zion esku andiarekin tentatu zuen sulezeko etsaiak Job ezin geiago. Kendu ziozkan zituen hume ta ondason guziak; kendu zion bere gorputzeko osasuna ta utzi zuen burutik



oñeraño zauriz betea ta anitz aldetik loi-zikiña ta materi ustela zeriola. Zerion materi loi hau kenzeko zuen oial ta zapi mea zen tell-puska ta ladrill-zati bat. Aren horduko oatze guzia zen eskaratzeko gorotz loitsu zikiña. Eta nolakoa izan ziteken aren horduko jan-edana, loa ta beste guzia?

Onenbat gorputzeko beraren nekek nai-ta-ez azpian zeduka(te)n Joben anima. Zer kezkak, bada, ta zer naigabenzak aldi artan Joben animak izanen zituenak! Eta etziran al-ere aldi artan ark izandu zituen guziak. Aldi berean kezkatzen ta naigabetzen zuten sulezeko gaiztoak ez ezik, beraren ekusle hitz-onzi zenbaitek ere: sulezeko gaiztoak bere illuntasunak eta kezkgai gordiñak isilka beraren bihotzeraño sartuz eta beste oriek beren bidebageko erausi arroz ta funsik etzuten berriket luzez. Guziarekin ere zuzenki egiten zituen Job nekatuak horduko bere gauz guziak eta etzuen oin bat ere atera Jangoikoaren Legeko bidetik eta beti egondu zen Jangoiko beraren urrikalz andi ta esku indarsuaren begira, ta azkeneak eman ere zion Jangoiko maitagarriak eta agitz ongi zabaldua; bada kendu ziozkan bere zauri materdun ta eritasun guziak; eman zion osasun guztiz ona ta eman ziozkan len izandu zituenak diña ondasun ta beste anbeste: *duplícia* (Job, 42,10), ta utzi zuen bera len zen bezain gizon andi errespetatua.

David etzen izandu beti santu; egin zituen noizbait gauz itsusi ta bekatu lotsagarri andiak. Al-ere egin zituen gero Jangoikoarekin bake onak. Leneko bere bekatu gaiztoekin begitan eman zion Davidek bere erri ta erreinu guziari, ta er artan ekusi zutenak ar etzezaten aren eran ibilzeko ausardia, igorri ziozkan Jangoikoak David bekatariari naigabenz eta neke agitz andiak; bada seme batek ill zion bestea ta bere illob batek bere seme illzallea; Jangoiko berak irur egunez eritasun guztiz gaiztoz ill ziozkan irur-ogei ta amar milla gerrari ta gizon; bere seme gaizto batek kendu zion kasi bere erreinu guzia ta erabilli zuen bide luzean oñez ta igeska. Zenbat bere nekerekin ta naigaberekin! Ekusten dezu?

Guziatatik ere etzen David aserretu, ez eta asaldata ere; ta artu zituen bere deshona, naigabenz eta neke guziak bekatuz len aserretu zuen Jangoikoaren izenean ta egin zituen bekatu ta eragin-bide gaiztoen alde. Bein ta berriz ta geiagotan aitortu zuen beraren obenez zirala bere gain zituen neke ta lazeri guziak, eta eskuan, igorri ziozkan Jangoikoari, ap eta muñ egin ta guziak artu zituen humil-humilki ta pazienzi agitz andian. Denbor berean prestatu zen Jangoiko berak igorri nai ziozkan beste guzietara ta behar zen gisan eraman ere zituen geroz igorri ziozkanak.

Hau ekusi ta artaz urrikaldurik egin zion Jangoikoak Davidi, ta anitz luzatu bage, ontartedi agitz andia; bada Jerusalemik igeska atera zen alditik denbor labur baten buruan illa gelditu zen lenbiziko batallan beraren seme etsaia. Andik laster, hura utzi ta aren seme gaiztoagana ziran tribu ta jende guziak, itzuli ziran beraren eskupe lenbizikora ta egin zen leneko bere tribu, bazter ta erreinu guziaren jaun ta jabe. Eman ziozkan Jangoikoak munduko Erregek izandu dituen urre, zillar ta ondasun guziak baño ondasun ta urre ta zillar agitz eta agitz geiago; eman zion zarze on bat eta eriotz ohea. Utzi ziozkan bere seme errege Salomoni, Jangoikoari egin behar zion Eliz, munduan izandu den ederren ta aberatsen bat egiteko, beharko zituen ondasun guziak, eta ill ta joan zen Abranen linbora, beraren ta beste guzien onerako gizon egiteko zegon ta on guziak zerura eraman behar zituen Jangoikoaren begira egotera; andik igan zen gero Jangoiko-gizon berarekin zeruko glorira. Era bereko on nekedunetatik beste anitz arkitzen dira Eskritura Santan, bai ta Elizako libru ta Berri onetan ere. Beste guziak utzi ta agertu nai dut orain lurreko egitekoetan zu bezain sartua, ta al-ere ekusi ditugun Joben ta Daviden gisan bizitu den bat edo beste.

Orietatik da Espaniko Errege ta Alemaniko Enperarode Carlos bostgarrena. Nekez arkituko da onek diña ibiller-era, gerra ta neke izandu dituen gizonik. Bederatz aldiz joan zen Alemanira, amarrez Flandesa, zazpiz Italira, sei aldiz Espanira, laurez Franzira, bi aldiz Mairuetara ta beste biz Inglaterrara. Laur aldiz ibilli zen itsaso andian ta beste zorziz Mediterraneo edo *lur-tartekoa* esaten zaion bestean. Izandu zituen irur-ogei ta amar gerraldi Alemaniko herejeekin, Constantinoplako Turkoekin, Afrikako Mairu belzaraneekin ta Europako Erregeekin. Irabazi zituen berrogei batall ta ezin kont-al-diña erri murratu ta gaztelu ta artu zituen preso Saxoniko Duke ta herejeen buru D. Juan Federiko ta Franziko Errege Francisko lenbizikoa. Zenbat bere neke ta naigaberekin? Asma zazu, al badezu.

Orien guzien artean bere egiteko andiak egin ta nekantz gogorrek behar zen gisan arzeko, joaten zen beti Jangoikoari bere lagunza eskatzera, ta eskatzen zion egun oro, egitekorik andienak zituenean ere, hordu osoz otoitz egiten ziola ta Meza enzunez ta askotan ta maiz komulgatzen zela. Azkenean zor ziozkan zori on ta ontarte guzien eskerrek Jangoikoari emateko ta eriotz on batera bere burua ongi prestatzeko, utzi zituen bere Inperio ta Erreinu guziak eta Konbentu batean sarturik, bizitu zen bere ill arte guzian, otoitz on luzeak egitea, Mezak anzueta, maiz-maiz konfesa-komulgatzea ta beste gauz on askotan egunak



igarotzea baizik egiten etzuela. Ara baño len zuen guzia utzirik, Flandestik Laredoko portura zenean, Santo Kristo bat eskuan artu ta lurrean bere bi belaunak zeduzkala, esan zion Jesusi: Nere Jesus maitea, zu nere Kapitan ziñala ta zure lagunz andiarekin egin ditut nik orain-dañoiko nere gauzak eta eskerdun onak bezala zure serbitzu santuan bukatu nai ditut gañerako nere egunak. Orretarako ere eskatzen dizut zere lagunza. Leneko guzietan baño ere agitz obeki lagundu zion Jangoikoak bere azkeneko lan onetan ta bere Monjeen artean bizitu ta ill zen santuki.

Era berekoetatik da Carlos Quinto edo bostgarren onen illoba ta Alemani bereko Enperadore Ferdinando bigarrena. Onek ere, Carlos Quintok bezala, izandu zituen egiteko, gerraldi ta neke andiak Alemaniako Prinzipeekin, Sueziko Errege izugarri Gustavo Adolfoekin ta beste zenbaitekin. Ingurutu zuten bein bere korte Vienan kanpotik gerrako gizonak eta barrindik (h)ereje gaiztoak eta esan ere zioten, uzten ezpazien beren gisako bizitza ta legea, galduko zituela buruko koroa, eskuko zetroa ta Alemaniko Inperi guzia. Baña ark eranzun ziena da: «Bide gaizto ori oriei nik eman baño len galduko ditut oriek guziak eta beste nere gauzak, bai ta nere bizi hau bera ere».

Aldi berean edo andik fite ta laster hereje gaiztoak nai zutena egin lekuan, egin zuen Loreton boto, kenduko zituela Estiriko, Carinthiko ta Carniolako hereji guziak. Ama Birjinaren beste Eliz batean egin zuen Bohemiko erreinu guzian hau bera egiteko boto; ta zorzi urtez ill baño len egin zuen berriz Hungrian ere hau bera egiteko boto.

Artako bere Inperio andiko Probinzietan zituen Relijioso guziei ongiz ta ontartez eman zien esku luzea, Jesusen Konpañikoei egin ziezten amar Kolejio berri ta eraman zituen len an arkitzen etziran zorzi Relijio. Lan bererako enzuten zituen bi Meza egun oro, egiten zituen erromeri luzeak, komunio agitz beroak, otoitz andiak eta bidez zebillen aldian ere hordu osokoak; bai ta baruak eta beste anitz gauz on nekagarri ere; ta horduko aren bazterretako gauzen berria dutenak diote Enperador onek hereji gaiztoen atzapar-esku tartetik atera zituela gutie-nean ta ekarri gure Lege santara amar milloi edo amar milletan mill ta geiago hereje; garaitu zuen Gustavo Adolfo; ekarri zituen bere eskura gaizki zebiztan Alemaniako Prinzipe guziak eta utzi zituen nai bezain ongi Inperi bereko ta Probinzietako gauzak eta utzi zuen bere seme Ferdinando Ernesto erromatarren Errege ta Inperiko bere ondorengo egiña. Ill zen azkenean bake onean ta santu bat bezala ta aren honnretan

predikatu zuen hereje batek ere esan zuen: «Edo ez da fededun katolikorik zerura igan edo igan da Ferdinando».

Orra nola jangoikoa bere alde duen, bere egiteko ta estutasun guzietan Jangoiko bera nai onez ta ongi billatzen duenak. Baña Jangoikoaz azturik eta gaizki bizi denak eta bizi den eran billatzen duenak? Orrek ez.

§ II.

Ez, ez du bere alde arkitzen Jangoikoa, Jangoikoaren etsai bere azken tranze gogorrerāño billatzen ez duenak. Zergatik, uste dezu? Zeren bekataria den Jangoikoaren Tribunalean ta bere eriotzan itsas-onzi kargatu bat idorrean bezala ta Judas gaizto galduaren era-gisakoa.

Itsas-onzi bat, gerrako onzi andia denean ere, behar duen aizea badu, badabil egun batez ogei ta lau, berrogei edo berrogei ta amar lego bide; bai ta barrenean izanagatik sei eun gizon, denbor luzeko orien jan-edana ta zazpi mill anega gari edo amarlau milla erregu ta beste anitz gauz eta gerrako gai; baña ur bagez idorrean nonbait gelditzen bada, munduko aize guziak eta amar mill idirik ere ez dute igituko dagon tokitik. Bekatari gaizki dabilena era berekoa da emen bere bizitzan, bai ta gero eriotzeko tranze gogorrean ere. Emen arin aski dabil batetik bestera, dantzatik jokora, jokotik edanera, edanetik atseginz zikinera, andik lotara, lotatik konfesi onzerik bagekora, komunio galgarria ta guzitik berriz leneko bere ibiller makur gaiztora.

Bitarte orretan izaten badu eritasun edo naigabenz andiren bat izubeldurzen da, Judas lapurra bere lagun Apostol onekin itsasoaren egungo aserraldian bezala; baña Judas itsasotik atera ta bere lapurketan zen bezala, sendatu ezker bere ibiller galgarriratzten da bekataria ta badabil bekatuz bekatu ta gaizkitik gaizkira, ur biziak etorri ta idorreko onzia itsasora eraman ezker batetik bestera dabillen bezala. Azkenean zertan gelditzen da bekataria? Gobernurik ez duen itsasoko onziaren edo Judas gaiztoarenean. Zer gelditze da orien bien gelditze hau? Orain zuk ekusiko dezuna.

Onziak bere gobernurako badu, arraiak buztana bezala, ol luze urean gainbera sartu *lena* deritzan bat, eta arraiak buztanarekin bere burua bezala, ol onekin mariñel dakienak darama nai duen aldera ta tokira onzirik beteena ere; baña bere lema galdu duen onzia itsasoko aizeak eta bagak darabilte nai duten eran ta beren aserraldiren batean baztertu-



rik arkitzen bada, botatzen dute alde artako aitzen batera ta ango golpez urratu ta itsas ondoko lezera; ta itsa bazterretik urruti dabillen aldian, aize bizi-aserretuak urratzen diozka gañeko oial-egoak, zur luzeak edo mastak; botatzen dute saiets gañera, gainbera ta batetik bestera dabilzan bagak; betetzen dute urez ta ondatzen ta galerazten dute itsaso zabal beraren osin izugarrian.

Eta Judasen geldiera? Ez bat ere ohea. Judasen eskuan arkitzen zen Jesusek eta Apostol Jaunak beren jan-edanerako zuten diru puska. Oitu zen andik zerbait beretzat arzera ta Jesusi bere predikuan aditzen ziona ta bere lagun Apostol onetan ekusten zuena etzen aski izandu bere oikura gaizto hau ari kenezeko, ta azkenean, geiago izan naiez, saldu zuen bere maisu on Jesus maitagarria ta gelditu zen lo datzala girgillu-grilloz eskuak eta oñak norbaitek lotzen diozkan gizon bat bezala; bada bere egoer galgarri itsusia ekusi ta arritu ta andik atera naizik zerbait egin bazuen ere, etzuen egin bere bekatuaren kate gaiztoa urratzeko egin behar zuen guzia, ta amurraturik joan ta urkatu zuen bere burua, ta anima ta gorputz gelditu zen sekulako galdua.

Gizonaren gobernu da beraren ezagunza ta Jangoikoaren Legea; ta hau utzi ta, badabill beraren pasione sutu ta aragiaren aize-bagak nai duten gisan, aisa galeraziko dute bekatuaren aitz gaizto ta putzu izugarrian, edo geldituko da amurraziozko sokaz urkatua ta jatsiko da Judas galduaren lagun izatera sulezeko infernu bizira.

A, nere Jesus maitagarria, arkitzen ote naz ni ere orien eran ta bekatuz lotua? Era orretan arkitzen banaz, urratuko ote ditut garaiez nere bekatu gaiztoen kate lodiak? Nai nuke beinzat, sendorki zuk lagunzen didazula. Lagun zakizkit, bada, zere grazi onaren indar andiarekin. Eskatzen dizut, nere bekatu guzien damuz ta ondunai bizi-beroz beterik arkitzen nazala. Ez ukatu bada; ez arren, ez.

XV Erregeen urrengo bostgarren igandeko irakurraldia

*Alligate ea in fasciculos ad comburendum; triticum
autem congrega in horreum meum. Matth. 13*

Gaia: Gari-trillaren gisakoa da animarekin
Jangoikoak bere Tribunalean egiten duena

Gerta ziteken gauza gertatutzat artu ta agerzen zuen zenbait aldiz Jesus maitagarriak jakin behar genuen egiaren berria ta hau da egungo Ebanjelio Santuan egiñik ekusten duguna. «Orra, bada», esaten die aldi batez Jesusek aditzen zutenei; «orra, gizon batek bere alor-lurra maneatu ta egin zuen bein ereinz on bat eta uztan uste zuen bilze ohea. Baña hura ta aren langille guziak loak artu ta sartu zen aren alor ereinian gizon etsaia ta gari erein tartean ereñi zuen belar gaiztoa ta zakar galgarria ta gorde zen ber-bereala.

Garia jai ta azitzen asi zeneko, jai ta azi zen belar gaiztoa ere ta agertu zen gari guzia zakarrez betea ta agitz galdua. Hau ekusi ta arritu ziran itxeko mutillak eta esan zioten beren nagusiari: "Jauna, etzenuen zuk gari bihi ona ereini alor onetan? Nondik da, bada, garitartean ageri den belar gaizto ta zakar hau? Obe izanen da bertatik hau guk kenzea, ta, nai badezu, kenduko dugu". "Ez ori", erantzuten die nagusi buru onekoak, "galduko zenukee gari guzia. Utzazue geldirik garia aletu ta zoritu arte guzian. Igitan asten zarazten aldian bereziko dezue garitik zakarra; zakarra sutarako ta garia nere ganbaran ta alondegi artakoan sarzeko". Eta orra gertakizun Jesusek aldi onetan artua.

Zertako ote? Egun batez agituko den egia ta gauza guri agerzeko. Zer gauz, egi da egi ta gauz hau? Hau da garia larrañean belar gaiztotik berezten den gisako bere azken juzganzan onak Jangoikoak gaiztoetatik bereztea: onak zerurako ta gaiztoak beren sulezerako.

Belar gaiztoak errazkiago erretzeko igitari-mutillak egiten dituzte beren zamak edo sortak, eta Jangoikoak egun artan eragiñen ditu infernurako gaiztozko bereak, eta zam bakoitzean loturaziko ditu, dio S.



Agustiñek, elkarren erako mutik lapurrak, ezkondu zikiñak eta dirutsu itsuak: *rapaces cum rapacibus, adulteros cum adulteris, acaros cum avaris*.

«Zama orietatik bat izanen da (ta zam betiko surako gai agitz igartua) andreki galgarriz egiña», dio S. Vicente Ferrerek; «edo andreki, beren gorputzak bekatuz ez zikindu arren, beren apainket eta erakeri arroz, eragiten dituzten bekatuz besteen animak eta berenak zikinzen dituztenez egiña»: *decimus fasciculus de mulieribus vanis, et pomposis, quae, licet fuerint castae, et honestae, ex illis tamen picturis, et vanis ornamentis damnabuntur* (Dom. 4 post Epiph.).

Ez da bat ere ohea neskatx arin apainduz, orien lagun konsejariz, amatzar apai-zariz, mutill ekusle zikiñez, mehatxuz oriek zenzarazi etzituzten aitez ta aidez, kastiguz eragotzi etzituzten alkatez ta o(r)iei lagun du etzien predikariz Jangoikoak eragiñen duen zam andia: *filia superbe ornata, et mulier, quae ornavit, et iuvenis, qui adamavit, et ancilla, quae suasit, et pater, qui non correxuit, et concionator, qui non redarguit: omnes isti in fasciculum* (Matth. Fabr. hic.).

Zori gaiztoko zam oriek, bada, ta gañerako gaiztoz Jangoikoak egun artan eragiñen dituenak erreko dira sekulan ta beti sulezean, ta gari onak edo anima garbiak gordeko ditu zeruko bere ganbar ederrean, eta orien berezte andi hau utziko du azken juzganzako egunerako. Baña banakako beste berezte bat egin behar du Jangoiko berak, onak eta gaiztoak illez doazen horduz ta aldirik galdu bage. Berezte bakarkako onetan ekusiko ditu Jesus juezaki ongi bizitu diranak egin dituzten gauz onak eta gaiztoen gaiztoak, bakoitzari bertatik emateko dagokan bide-saria ta hau da aldi onetan guk ekusi behar duguna, Jangoiko berak lagunzen digula.

§ I.

Garidunak igit-denboran kendu behar ditu gariko belar gaiztoak zam egin ta sutan erretzeko, ta hau ark egin ondoan, baditu beste zenbait lan garian, ganbar-alondegira eraman baño len, egiten diranak; bada ganbar-alondegira ta aleen tokira ale ta grano uts garbia eramaten da, ta igit-denboran baditu aleak bere azalak, bere bizarrak eta bere lastoa ere, ta oriek kendu behar zaizka alondegira eraman baño len.

Kenzen zaizka bazter batzuetan iraburrez edo esku-trilluz ta golpez, ta besteetan larrañetako lanez. Era bateko edo besteko trilla bukatu ondoan, bilzen da pilla batean, larrañekoa bada trilla, agotz eta ale ta gari

zakar guzia, ta esku-trillan lasto luzea ez, beste guzia. Aize bizi bat datozen aldian arzen dute trillariak beren pala, ta palaka aizea datorren aldera botatzen dute pill guzia, ta alea baño ariñagoak diran lasto zati zakar ariñak badaramatzi aizeak aratago ta bertan erorzen da alea bere lur pusk eta zakar astunarekin. Arzen dute gero aleen diñako zuloak dituen galbai bat; arzen duten aldian, galbaiak artu-al ale gelditu den gari pillatik eta aldakako toki garbian eskuz batetik bestera ta inguruan galbaia erabilliz, botatzen dute aren zuloetatik lurrera ale guzia ta gelditzen dira galbai berean arri koskorrek eta beste zakarrak. Oriek beste aldera bota ta galbaidunak arzen du berriz gari zikin pillatik beste aldi bat eta egiten du aldi onekin ta urrengo guziekin lenbiziko aldian egiña, ta lenbiziko pill-nasi andiarekin egiten ditu irur: gari garbizkoa bata, lasto-agotzekoa bestea ta irugarrena zakarrezkoa. Uzten du datzan toki berean zakarra; sarzen du alondegiko ganbaran garia ta agoztegi agotza edo pillan lastoa.

Mundura datozenak ereintzen ditu Jangoikoak bakoitza bere itxean ta jaiotzen den bazterrean. Zenbait jaiotzen dira itxe ondasunduean; anitz doi-doia irauten duen etxean; baste asko erdiko etxean edo itxe, ondasun andirik ez izanagatik, behar andirik ekusten ez duenean, ta geienak edo beinatz asko jaiotzen dira maister ta itxe prestatuan; ta guziak jaiotzen dira larru gorrian, bai ta Job bera bezain itxe onekoak ere, ta guziak esan dezakee gero Jobek esaten zuena: «Uts utsa ta larru gorrian nere amaren sabeletik atera ninzan ni»: *nudus egressus sum de utero matris meae* (1,21).

Jaiotzen diran gisan ibilli oi dira mundura datozenak; bada ondasun gutirekin edo gabe arkitzen dira beren bizitzan geien jaiok. Ondasun andien erdian bizi oi dira ta egiten dute aisa lo, aberats jaiok ziranak. Oriek bezain ondasundun ez, baño ongi ta behar den guziarekin edo beinatz neke andirik bage arkitzen dira beste zenbait, eta beste anitz neketa arkitzen dira beti ta, lana lanaren gain egiten badute ere ta egun guzian jan-edan laburrarekin ta izerditan ibilliagatik, zorpe behartsutik beren buruak ezin atera dituztela. Ala ere egun batez berdinzen dira guziak ta gelditzen. batal bezain guti besteak duela; bada guziak gelditzen dira jaiok ziran aldiko gisan ta bat ere bage. «Bai», dio Job berak, eta dio bere ta beste guzien izenean; «bai, munduko gauzarik bage mundura ninzan ni ta izandu ditudan gauz guzietatik bat ere bage joan beharra naz nere obira ta beste mundura»: *et nudus revertar illuc* (ibid.). Bai ta beste aberats ondasundun batek bezain ongi bere gilzak gordeagatik ere.

Egiteko ta arazo andian, ibillera luze nekagarri ta aldarte ta tunda txar askorekin bildu zituen batek diru-sall ta ondasun andiak; baño



etzuen arkitu Jangoikoak nai duena baño geiago bere bizia luzatzeko biderik. Etorri zen guzioi etorriko zaikun azken hordua ta aitzinetik etorri oi den eritasuna. Hau bizitzen ekusi ta ezagutu zuen urbil zuela ta agitz aldean bere eriotza, ta zituen diru-ondasunak ez galdu naiez, artu zituen bere gilzak eta gorde oatzeko bere kuisiñaren pean ta, norbaitek artu ta eraman zitzan beldurrez, sarzen zuen noizean bein eskua an ote zeuden ekusteko, ta ekustera zetozkionak urbilzen baziran, ernatzen zen guzia ta etzituen begitik uzten andik joan arte guzian; guzia zen gilzak eta gilzapeko bere gauzak, ondasunak eta diru zituenak galzeko beldurrez. Baña azkenean ari gertatua? Galzen diran guziei agi-gertatzen zaiena: eriotzaren segak aren egunak ebakitzea, hura ill-otza gelditzea ta beren toki berean bere gilz, ondasun ta diru guziak uztea, ta bera, sekulan alakorik izandu ezpalu bezain uts eta gabe. Hau da arenzat eta aren erako beste guzientzat Espiritu Santuak esanik dadukana; bada guzientzat esana daduka: «Egin zuten beren loa ta ill dira aberatsak hordua etorri horduko, ta arkitu dira esku utsean ta deus ere bage»: *Dormierunt somnum suum, et nihil invenerunt viri divitiarum in manibus suis* (Ps. 75,6).

Munduko begiz emengo gauzei begiratzen dienak zori onekoa dela uste dute ondasunez ta diruz ongi arkitzen dena: *beatum dixerunt populum, cui haec sunt* (Ps. 143,15); baña lastoak, agotzak edo zakarrak dira oriek guziak, eta zakar, agotz eta lasto eriotzeko segak eta palak alde bat utzi beharrak. Bai, dio Job santuak, «bakoitza bere erioak segatuko du ta gaiztoa sega gaiztok, eta ibilliko dira ori ta orren gauzak aizetan trillariak darabilen lasto zatikatu agotza bezala»: *lucerna impiorum extinguetur, et erunt sicut palea ante faciem venti* (Job, 21,17).

Ilzen den zaldun aberatsak ill-hordu azkenekoan izanagatik milka ta milka diru-ondasunak, etxe andi jauregi egokiak eta orien ta bere burua-ren apaingarri ederrak, bere eriotzeko segan ta trillan gelditzen da bat ere bage. Errege berei, Erregeren urrengo gizon Biso-Rei, Kargudun ta etxe andiko seme guziei eriotzeko segak eta palak kenzen diezte zituzten titulo, esku ta gauz guziak eta utzi ditu alakori bage bizitu diranak bezain uts eta gabe.

Il dira orrazketaz, apainzez, zintaz eta edergarritz betea bizi zen Dama ta neskatx arroa, ta eriotzaren segak eta palak utzi ditu alakorik ekusi ezpalute bezain apainzik bage, kolorez galduak eta usteltasunaren atzaparretan sartuak. Orra munduko gauzen ta gorputzari dagozkanen geldiera: aizetan, bizitzaren aldakan ta bazterrean gelditzea, alearen bazterrean agotza ta gari zakarra bezala. Eta alearena edo animarena? Hau da orain guk ekusi beharra.

§ II.

Gari ale onak sarzen dira alondegri ganbaran edo artako den kutx andian, ta anim ona zeruko Paraisuan. Ale galduak dijoaz ganadu belzen ortzetara ta anima gaiztoak infernuko basurde gogorretara.

Urik bagez edo laño gaiztoz galdu oi dira zenbait aldiz azitzen hari diran garike zenbait ale ta gelditzen dira azal utsean ta mamirik bage edo mami usteldu galduarekin; ta anim anitz bekatz galduak gelditzen dira ez artu naiez Jangoikoak eman nai zien graziaren inza ta ura, edo zeren azpiratzen dituen buruko arrotasunaren, aregiaren atseginz zikinen edo ondasun-nai gaiztoaren aizeak eta lañoak. Zein diran gari-ale uts galduak, ekusten du jabeak aizez ta galbaiez bere zakarretik berezten dituen aldian, ta ekusten da zein diran anim bekatz galduak emengo gauzen agotz-lastoa ta gorputzaren bizia kendu ta Jangoiko argiaren tribunalean agerzen diran ez-bai puntu berean.

Gari-buruan ta last artean arki diteke ale ona edo ale galdua, ta soñeko ederrez jaunzia ta ondasunez betea izan diteke anima ona, bai ta galdua ere; ta ona baño errazkiago ta agitz sarri-usuago arkitzen da galdua, zeren galduak izan oi duten emen bertan beren atseginza ta saria: *habetis hic consolationem vestram* (Luc. 6,24); ta zerurako arzeorik bage ta infernurako zor andiarekin emendik atera oi diran emen galduak. Hau adirazten digu orain zuk adituko dezun berri onak.

Gazterik alargundu zen beste zenbaiten gisan munduko Dama bat. Munduaren ostiko ta errebes oni begiratu zion begi onez ta ezagutu zuen nai etzuela Jangoikoak ekusi ezkonzan sartua, ta ezkonz-usi ta asmo guziak utzi ta asi zen alargun gelan sartu baten bizitz on bakar berezi bat egiten; ta egin ere zuen bein ere utzi bage bere azken horduraño ta egin zuenaz damutu bage ta bere bihotzeko atsedenz eta atseginz andiarekin. Azkeneko bere eritasunean ta ill-hordu berearen begira zegoela, ekusi zuen ezkondu zen aldiko bere ainzur-pintura; ta pintur, horduko aren apainket eta arrotasun guziak agerzen zituena; ta hura ekusi ta asi zen negar ta negar ta esan zion bere aldakan zuen konfesoareari: «Ai, aita: ill baninzi ni garai artan ta pintur ark adirazten duen gisan bizi ninzala, zenbat lasto ta egur neraman gaur beste munduko sura!»; eta Santo Kristo bat eskuan artu ta asi zen esaten: «Eskerrak zuri, nere Jesus maitagarria, zeren garai onez atera ninduzun munduko kateen ta naspill galgarri



eroen artistik eta zeren eman didazun horduko nere bekatu guzietz damuturik ongi bizitzeko grazia». Hau esan ondoan eraman zituen bere ezpañak Jesusen bular idikira ta ala zegola gelditu zen soseganz andian illa ta igorri zuen anima beraren alargun denborako bizitz onari zegokan zeruko sari on betiko bat arzera. Eta berak zionaz, etzuen hau artuko, ill baliz bere arro denboran ta ondasun-arte eroan.

Bai, bizitz ona da zerurako den alea ta ale zori onekoa, ta bizitz hau da egungo Mezako Epistolari S. Pablaren ezpañez Elizak agerzen diguna: «Ea», esaten digu egungo bere Epistolari Apostol S. Pablok, «Jesussek beretzat berezi ta maite zaituen anima: bete zazu bihotza urrikaltzez, jaunz zaitetz humiltasunez, begitart onez ta pazienziz. Ar zazue ongi batak bestea, batak besteari barkatuz egin dion bidebagea edo eman dion naigabenza; bada hau da Jangoikoak zurekin egin duena ta zuk eta guziok elkarrekin egin beharra. Bizi zaitetz Kristo Jaunaren humeari ta Elizako guziei dagoten bake atseginz-dunean ta eskerdun ona bezala. Ez da zer utzi Kristo Jaunak agertu digun Lege berri garbia; hau da guziei arrezari behar diezun bidea, bai ta zeruko kantaz, laudanzez ta poz-atseginzez beterik eskerrak eta honrak Jangoiko maitagarriari ematea ere, ta hitzez ta lanez egiten dezun guzia, egizu Kristo Jaunaren izenean ta Jangoikoaren amoreak eskatzen duen gis-eran» (Coloss. 3).

Orra Elizak gaur S. Pablok agerzen diguna ta orra animako gari zeruko alondegirako guztiz egokia. Hau egiten dutenak, izanagatik bekatu larri len barkatuaren ta beste txiki zenbaiten zor zakar ta agotz, utziko ditu errete purgatorioko su andian ta artuko du zeruko bidea, ta zerurako da laster aski ango atseginz garbi andian beti beti bizitzeko, ta ilze-ko dagon horduan egin dezake Jesusen Konpañiko batek egin zuenaren erako gauzaren bat.

Azkeneko bere eritasunean artu zituen onek Santo Kristo bat, Konpañiko bere erreglak eta bere odolez egiña zedukan fedeko misteri andien siñistanza; ta misteri oriei zegoten eran, beraren erreglak eskatzen zuten gisan ta Kristo Jaunak nai bezala bizitu zelako siñutan ta señalez, sartu zituen burupeko kuisinaren azpian; ta egin zituen gauz onak gatik zerurako zelako uste osoarekin, ezarri zuen guzien gañean bere burua ta, oñazeak eta miñak estutzen zuen aldian, sarzen zuen an eskua ta eskuan oriek artu ta berritzen zuen bere uste ta esperanz lenekoa ta garaitzen zuen bere gaitz guzia; ta bere uste berean ta bake onean bukatu zituen bere egunak (Annal. Soc.).

A, nere Jesus maitagarria! Lagun zakizkit gizon on oni bezain sendorki bizitz on bat egiten, nere atsegin andiarekin nik ere nere ill-hordu azkenekoan eskuan arzeko Santo Kristo bat eta oni begira nagokala eriotz on bat egiteko. Bai arren, bai.



XVI

Erregeen urrengo seigarren igandeko irakurraldia

*Simile est Regnum Coelorum grano sinapis...
quod... fit arbor.* Matth. 13.

Gaia: Andia da gauza txikiak
ongi egiten dituenaren ona
ta egiten ez dituenaren kaltea

Gauz andia da zerua ta anitz balio duena zeruko atseginza ta gloria; ta gauz, erne ta kontuz dabilzanenat Jangoiko maitagarriak egiña. «Bai», dio Jesusek, «zeruko erreinua gauz nekagarria da ta buru onez ta nekal-di guzietan egin-ala egiten dutenak baizik irabazten ez dutena»: *Regnum Coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud* (Matth. 11, v. 17). Hau bera guri adirazi, ta zerua irabaziko bada, egin behar diran gauz andi ta txiki guziak guri eragin naiez, esaten digu Jesusek egungo Ebanjeli Santuan mostaz-ale bihiaren gisakoa dela zeruko erresuma; ta bihi ta azi hau izanagatik berez bihirik eta azirik txikiena, ereintzen badu batek bere baratz-lur maneatuan, egiten dela aza-girorik andiena bezain andia ta arbol baten idurikoa ta orren adarretan eta ost-artean egiten dutela txoriak beren etxea edo egontegi-kabia.

Guztiz gazia da mostaz-bihia ta alea ta ortz-arte berean darabillena negar eragiten diona, ta onen erakoa dela zeruko erreinua Jesusek guri esatea, guri adiraztea da zerua irabazteko den gauza, den txikiena ta mingarri latzena izanagatik, artu behar dugun gauza dela, ta bidenabar adiraztea, uzten baditugu geren obenez ta berariz zerua irabazteko diran gauzak, gauzak izanagatik mostaz-ale txarra bezain txiki-txarrak eta gure iduriz ezer-ezak, zeru bera galzeko ta sulezeko neke izugarri guziak irabazteko bideetan gabilzala edo gabilzkela, ezpagabilza.

Orregatik, bada, anitz balio duen gauza ta kristau-egitekoa da Jangoikoaren serbitzuko gauz txikiak ere kontuz egitea; ta beste alde, kalte ta bekatu anditarako bidea gauz oriei ez begiratzea ta oinpean artuak bezala erabilzea. Bata ta bestea da aldi onetan guk ekusi beharra.

§ I.

Bai, anitz balio duen gauza ta kristau-egitekoa da Jangoikoaren serbitzuko gauz txikiak ere kontuz egitea. Hau da egia Kristo Jaunak aspaldi esan ziguna, ta oi zuen gisan, gertakizun edo parabol egoki batekin esan ta adirazia. «Joan zen», zion Jesusek, «bein gizon aberats bat urrutiko bazterren batera, ta alfer egon etzitezen, utzi zion itxeko bere mutik bakoitzari bere diru-zatia. Bere egiteko guziak urruti artan egin ta itzuli zen itxera ta bere mutiletara, ta artu zion bakoitzari bere irabaz-kontua. Iru ziran aren artako mutillak eta lenbiziko biak eman zioten kontu nagusi berak nai bezain ona; esan zion lenbiziko mutillak: "Jauna, bost talentu ta diru-er ziran zuk niri emanak; egin ditut oriekin al nituen irabanzak eta ona non dituzun zere bostak eta beste bost". Esan zion bestek: "Jauna, bi ziran zuk niri emanak; irabazi ditut beste bi ta orra non dituzun zere laurak"».

Nagusiak eranzun zienarekin adirazten digu Jesusek Jangoiko dela nagusi hau ta fededunok garala onen mutillak; eta mutil, Jangoiko berak eman dizkigun indar, grazi ta lagunz onekin zeruko irabanzak egin behar ditugunak, eta egiten baditugu Parabolako mutik biak egin zituzten era-koak, oriek beren nagusiagandik aditu zutena geren Jaunagandik aditze-ko gaudenak. Orietatik bakoitzari nagusiak esana da:

«Bazaudezke kezkarik bage, mutil on, behar zen gisan zeren lana egin dezutenak; bada, zeren kontuz ta ongi nere lan-egiteko txiki orretan haritu zarazten, emanen dizkitzuet beste andiak eta sar zaitezte bertatik zeren Jaunaren atseginztegi andian»: *intra in gaudium Domini tui* (Matth. 25,32). Ekusten dezu zenbat esan nai duen hau bera Nagusi Jangoikoak bere fededunei, beren gauz andi-txiki guzien kontu ona ekusi ta, esaten dien aldian esate berak, eta sari zein andia den, gauz txiki zenbaiten alde Jangoikoaren itxeko atseginza ta gloria agitz andia, arzen duten gisan, arzeak.

Gauz txiki ongi eginei dagozten gloria ta zeruko ondasunak ez ezik, beste zenbait ere irabazten dituzte, oriek ongi egiten dituzten guziak; bada agi-gertatzen zaie zeruko irabanz beretan, lurreko batean Furio Cresino zeritzan erromatar bati gerta-agitua. Erromako zaldun baten eskupeko zen Furio Cresino. Noizbait nagusi ta jabe onak goratu zion eskua ta egin zuen bere eskuko. Bere gain bizitzen asi zen aldian, bazuen zer bait diru ta erosi zuen alor zati bat. Ongi maneatz ta erabiliz eman-



erazi zion ongi bere alorrari ta eragin zionarekin izandu zuen bere itxerako behar zuena, bai ta beste lur puska bat erosteko diña ere. Bi lur-puska ongi maneatuak eman zioten irugarren bat erosteko dirua ta bere erosi berriekin ta langite onarekin bazuen auzoko ongien bizi ziranak baño agitz geiago, oriek baño diru ta lur agitz gutiagorekin asi bazen ere.

Hau ekusten zuten auzoko gaiztoak ezin eraman zuten Furioren orrenbat on; ekusten zuten alabaña orien bazterrak bezalako laur ta gei-go zekartela Furio Cresinoren lur puskak; joan ziran Spurio Albizio zeritzan Erroma bereko Juez bat gana ta esan zioten sorginkeriz egiten zituela gizon ark bere lanak eta erakarzen ziola bere lurrari, lurrak zekarkena baño agitz geiago, ta kastiguz zenzaraz zezala. Deitu zuten Juezak beren Tribunalera ta galdetu zioten zer instrumentu ziran sorginkerizko instrumentu, ark bere lurrak maneatzeko zituenak. Zerbait arritu zen Furio hau aditze berean, baña laster asmatu zuen izan zitekena ta eranzun zien Juez Jaunei: «Ekusi nai badituzue, ekarriko ditut nik orretako ditudan guziak».

Baietz, zekarziela, esan zioten Juezak, eta ekarri zituen aitzur, golde, bost orzoke ta lurrak ongi maneatzeko zituen erremient andi-ederrak, bai ta idi-pare gizen bi ta bere alau, lur lanetako nekez, eguzkiz ta izerdiz belztu-gogortua ere; ta azkenean bere esku-kaloz beteak agerzen zituela, esan zien: «Orra, jaunak, nere alorrei labore onak eragiteko ditudan sorginkeri guziak»: *haec dixit, Quirites, sunt veneficia mea*, oriekin aldian aldiko lanak egitea ta lanak kontuz egitea da nere sorginkeri guzia. «Sorginkeria ez, nekazari on baten lana da ori; egizu beti, ta zu ongi biziko zara», esan zioten hau aditu ta Juezak Cresinori.

Orra, asi zen gizon erromatar hau ongi ta kontuz egiten bere lan txiki laburrak eta oriek ark orrela egitetik atera zituen langai onak eta irabaz-bide berriak eta berri andiak, eta bide oriek artuz ta geroko lanak egiñez lenbiziko bere lana bezain kontuz ta ongi, urte oro egiten zituen irabanz berriak eta lenak baño obe-andiangoak. Hau bera agituko zaio fededun langille onari ere, ta egiten baditu kontuz ta beren aldian animako bere egiteko andi-txiki guziak, eginaldian irabaziko du bere glori zati ona ta urrango bere lan onetarako indarza ta grazi berria. Hau bera agituko zaio urrango aldian ta urrango bere kontuzko lan-egite guzietan, ta orrekin irabaziko duen grazi berriarekin aldi oro egin ditzake zeruko irabanz eta irabazi andi ta andiangoak, eta esan dakioke S. Pablok Thesalonikako bere fededun on zenbaiti esaten ziena.

«Nere gogotik ezin utzi dut», esaten zien S. Pablok, «zein laster ta zein ziñez artu zenuzten agertu nizuten zeruko dotriña. Bertatik asi

ziñazten zuzenki egiten fededun onak egiten dutena. Jesusen izenean ta zeren neke andiarekin egin dituzue urrikarizko lanak eta Jangoikoaren Legeko gauz andi-txikiak, Jainko berak eta nik egin ditugun bezala. Kontuzko zuen ibiller onen ta birtutezko zuen lanen berria banatu da Macedonian, Akaiian, bai ta urrutiagoko beste bazterretan ere, ta bazter orietakoak ere hari dira zuen eran beren lan andi-txiki guziak kontuz egiten. Bizi zaitezte, bada, sari on bat Jesusen eskutik artuko dezutelako uste osoan». Orra oriei S. Pablok (1 Thes. 1) esaten ziena; orra bere Legeko gauza txikiak ere kontuz egiten dituenari esan dakikeona. Eta orra gauz zein irabazgarria ta ondasunduna, gauz txiki berak ere kontuz egitea.

§ II.

Irabazi andiko gauza dela ekusi dugu gauz txiki berak ere ongi ta kontuz egitea ta orain ekusi behar dugu gauz zein kaltearra den gauz txiki berei ez begiratzea ta bekatu ta uts-egite ariñak errazki ta aisa egitea. Hau guk ekusteko, aski da begiratzea bein bekatu txiki berei, gero orietatik etorri oi diran andiei ta azkenean guziei dagoten kastiguari.

Gauza zein kaltearra ta galgarria den bekatu txikia ezagutzeko begiratu behar diogu bein bekatu berari ta bekatuak ukitzen duen Jangoikoari. Bekatu txikiak ez du urratzen, egia da, beraren egillearen ta Jangoikoaren arteko adiskidanza; bada uzten du egillearen anima zeruko bere graziarekin ta Jangoikoaren adiskidea, ta Jangoikoak maite duen anima da zeruko grazidun anima; baña Jangoikoari atsekabe egiten dion gauza da bekatu, den txikiena ere, ta hau aski da gauz itsusi bat izateko bekatu txiki arin beniala; bada Jangoikoa gure guzien jaun ta jabe bazterrik bagekoa da, ta jabe ta jaun, guk egin-al begirun, honra ta errespetu zor zaiona, ta onelako jaun bati ez begiratzea, errespetu galzea, deshonra egitea ta atsekabe ematea, gauz agitz itsusia da ta denbora berean agitz kaltearra.

Badakizu zein kaltearra? Munduko kalte ta galkunz guziak garaitzen dituen, ta ekusten dezu kalte zein andi galgarria lizaken munduko urrezillar, perla, diamante ta ondasun guziak bat-batean batek galzea; ta kalte, gorputzeko neke-tormentuei, oñazerik gogorrenei ta eritasunik andienei ta denbor berean animako naigabeei, kezkarik estu-ersienei ta illuntasunik izugarrienei ere gañez egin ta guziak itotzen dituen; ta hau guzia baño geiago gu arritzeko dena, bekatu beniala Purgatorioko ta infernu



bereko su andia ta ango erretze, urratze ta betiko penatze guzia baño ere kalte agitz eta agitz gaiztoagoa da. «Ala da», dio Doktore guziekin Interprete andi Alapidek: *peccatum unum, etiam veniale majus est, quam omnia mala poenae*

Zergatik, uste dezu? Zeren bekatu txiki batek atsekabe egiten dion Jangoikoari, ta gure kalte ta naigabe ta tormentu guziak eta infernu berak ere, ez. Gezur txiki bat esatea, bada, sagar gordin edo azaburu bat bati arzea, naigabe labur bat besteri ematea ta era bereko edozein beste gauz txiki-makur nori-nai egitea orren gauz itsusi gaiztoa da; zeren den honra ta tseginz guztia zor zaion Jangoikoari egiten zaion deshonra ta ematen zaion atsekabenza, ta zeren Jangoikoari begiratzan zaion ta ez txarkeriaren izate txarrari, txarkeriaren itsustanza ta gaiztakeria ezagutzeko, S. Agustinek dionaz: *non enim considerandum est, quid fecerit, sed quem offenderit*.

Orra, bada, berez ere zein itsusi gaiztoa bekatu beniala ta denbor berean orra zein kaltearra egiten duen anima gaisoarendako ori bera; epelzen du alabaña Karidadea ta Jangoikoaganako amorea ta galerazten diozka anima gaisoari, egin ezpalu Jangoikoak emanen ziozkan zenbait lagunz eta grazi; eta grazi-zati txiki-arin batek ere balio du munduko ondasun guziak baño agitz eta agitz geiago ta hau galzeak egiten dio anima berari beste galkunz, gaitz eta tormentu guziak baño kalte ta dañu-gai geiago ta geiago.

Baña ez da hau bekatu txikienak ere ekarri oi duen kalterik andiena; andiagoo ta agitz andiagoo da bekatu txiki berak larri-andirako egiten duten bidea. «Bai», dio S. Joan Krisostomok, «bekatu txikitik asi oi da deabrua andiak eragiten»: *diabolus... a minimis plerumque incipit, et ad majora gradatim perducit* (Hom. 17 in Matth.); ta egiten du bekatariekin Semiramis zeritzan buru oneko Erregin batek bere senar Errege Ninorekin egin zuena.

Beste gauzetan behar bezalako bizikidea ta emazte ona zen Erregin hau. Egin oi zituen senarrarekin ongi etorzeko emazte batek egin ditzaiken gauzak. Begiratzan zion itxeko ta erreinu guziko nagusiari bezala, ta egiten zituen kontuz ta luzatu bage aren esanak, bai ta naiko zituela zeritzan beste gauzak ere. Beti egiten zion zegokan begitart ona ta atseginz guzia ta etzion egin bein ere bekaitz edo etzegokan gauzarik, eta orrekin bizi zen Erregez jabeturik eta nai zuena eragiten ziola, ta eragin zion azkenean egin behar etzuen gauz itsusi gaizto bat ere.

Bere erreinuko zaldun andiekin ta Erregin bera bazterrean zuela egin zuen bein Erregek barazkalz andi bat, eta onek eta beste guziak ongi jan ta edan ondoan, esan zion tenpora pasa bezala bere emazte

Semiramisek. «Komedian izaten dira gizonak, bi edo iru horduz errege diranak eta nai duten guzia eragiten dutenak, eta nik ere nai nuke egun batez nai dudana eragiteko eskua». Emain ziola, bada, esku hau, eranzun zion Errege senar oartu-bageak. Eta bertatik adirazi zien bere zaldun andi, konsejari ta gerrako gizona, onelako egunez egin behar zutela Erregin Semiramisek esaten ziena.

Egun artan agertu zen Erregiña guztiz ederki jaunzi-apaindua. Begitarte ezin ohea egin zien gerrako guziei ta beste gizon andiei, ta egin ziezten egin-al diña ontarte ta fabore, ta egin zituen guztiz zuzenki ta laster, ekarri ziozkatzen egiteko andi ta txiki guziak ere, eta arriturik esaten zuten hau ekusten zutenak: «Errege Ninok iratzarrik eta esnatu ta baño Semiramis Erregiñak geiago daki lo datzala». Denbor onetan egin zion Erregek hist edo burla txiki bat eta burlaz bezala esan zion senarrari: «Nai duen guzirako eskua duenari etzio burlarik egiten, Errege»; ta, «soldadu nereak» (esan zien gero oriei) «egin didanagatik preso gizon hau». Artu zuten bereala beren Errege ta sartu zuten preso.

Hau egin ondoan bildu zituen bere aitzinean soldadu berak, eman ziezten eskerrak egin zutenagatik eta esan zien gero: «Mindurik utzi dugu zuek eta nik geren Errege Nino ta gaurko eguna joan ezker, aren eskupe gogorrean bizia galzeko bidetan arkitzen gara zuek berak eta ni, gero-rako neurri onak arzen ezpeditugu. Artuko nituke nik, zuek niri lagundu nai badidazue. Zuen lagunza da zeren Erreginzat betikotzat zuek ni arzea. Nai dezue?». Baietz eranzun zioten ta pozik al-ere, ta an zeudela, nai zuen guzia bertatik egiteko. «Ots, bada», esaten die, «hordurik galdu bage ta ber-bereala Erregeri burua ta bizia kendu», ta gerrako lausengar gaiztoak hau aditu bezain laster joan ta beren Erregeri kendu zioten bizia ta burua.

Orra deabru galgarriak animekin egiten duenaren ainzur egokia: bekatu txiki ariñak bein eragitea, andik laster andiak eragiteko; zeren dakien egia dela Espiritu Santuak diona: Azkenean anditarako dela bekatu txikitara oitzen den anima: *qui spernit modica, paulatim decidet* (Eccl. 19,1).

Bekatu anditara, bada, ta andiei darraiten sekulako sura nai ez duena ez dedilla oitu txikitara; bada bi gauz izugarri orien zaña ta sustraia bezala da bekatu txiki arin beniala. Orregatik, bada, ta berez ere ezin kaltear itsusia den bekatu beniala mundu guziari adirazteko, egin ditu Jangoikoak aldi zenbaitez kastigu agitz izugarri andiak. Orietatik da Moisesen arrebarekin bein egina.

Moisesen arreb Mariak egin zuen bein murmuranz piska bat eta utzi zuen Jangoikoak zen guzia ezkabiz ta lepraz betea ta bere aide ta



beste jendarte guztik baztertua; ta gis artan iduki zuen Moisesen otoi-tzez ta bere milagroz sendatu arte guzian (Num. 12). Israeldarrak egarriz erretzen zeuden batez artu zuen Moisesek milagro andiak egiteko zuen zigor bat eta jo zuen aitz bat, ura ari emanerazteko, ta zeren urik eman etzuen ber-berala ta lenbiziko jo aldian, oztu zen zerbait aren uste ta esperanz andia ta bere uts txiki onegatik kendu zion Jangoikoak promisioko erri ederretan sarzea, hau ark agitz nai zuen gauza bazen ere (Num. 20), eta Purgategiko su izugarrian erretzen ta erretzen idukitzen ditu Jangoikoak urte ta urte emen egin zituzten zenbait bekatu txikigatik anima gaisoak.

Orra, bada, gauz zein kaltear galgarria bekatu txikitara bat oitzea ta orra betiko galzeko perill zein andian arkitzen den oriek egin al guzian bere baitatik edo beregandik kenzen ez dituen. Saiatuko ote zara zu oriek kenzero ta zere gauza txiki berak ere ongi, kontuz ta zuzenki egite-ra? Bai, baldin-bere; bada hau zuk egiten badezu, etzara sulezerako, zerurako zara; ta zerurako zara; ta zerurako, sekulako atseginz andien gaiak zerekin dituzula. Jangoiko maiteak dizula orretarako behar den lagunza ta grazia. Bai arren, bai.

XVII Septuagesima deritzan igandeko irakurraldia

Quid hic statis tota die otiosi? Matth. 20.

Gaia: onzeko luza-bideak galzen du bekataria

Egin behar diran bidez ta denboran gauzak ez egitea da gauz anima nagien agitz galgarria. Gure gauzen egin-bidea da Jangoikoak bere Lege zuzenez egin diguna ta orien egin denbora Lege berak berezten duena edo Elizak Jangoikoaren izenean Doktozez, Predikariz ta libruz adirazten diguna. Gauz oriek guk era ta denbor orretan egiteko egin behar duguna da egin aldia datorren horduan geren buruak ongi prestatzea ta aldia datorren aldian artan gu astea ta lana bukatu arte guzian kontuz ta biziro haritzea. Hau zen, dio S. Pablok egungo bere Epistolan, lasterkako ta ezpatazko beren jokoan irabazi nai zutenak egiten zutena: beren aldia arinki ibilzea ta batetik bestera beren gorputzak eta besoak erabilzea ta hau galerazen zuten jan-edanak utzi ta me-meeki janean ta olio zañak biguinduz beren buruak beren egitekorako ongi maneatzeara. S. Pablok ere, berak dionez, berea behar zen gisan egin naiez egiten zuena zen gorputzaren baruz ta nekez bere barrena ta barreneko pasione guziak eskur-ekarzea, oriek hura bere azpira ta gal etzetzaten beren aldiran bat arra- [...]

[Irakurraldi honen zatirik handienaz gain,
XVII.a ere falta da euskizkribuan]



XIX [Quinquagesima deritzan igandeko irakurraldia]

Gaia: Zer den munduko itsu Jesusek argitzen duenak zerurako egin behar duena

Igan zen bein Jesus beste askotako eran Jerusalem. Urrutitik artu zuen aldi artan arako bidea. Bidez igaro zen Jeriko zeritzan erri batetik; erri onetara urbilze berean arkitu zuen bidetik baztertua zegoen itsu eskele bat. Anitz ziran aldi artan Jesusekin bidez zebilzanak eta, oi den gisan, beren arteko hitzket-eratsi luzean zebilzanak. Oriean marmarrak aditu ta «Hau zer da?», galdetu zuen itsu erneak. Emen dator, eranzun zioten, «Nazarethko Jesus». Itsuak bide zuen horduko Jesusek behartsu gaisoei ta besteei egiten ziezten ontarteen berria ta ark ere beretzat erditsi naiez ongi zegokan gauz andi bat eta erdits-aldi hura galzeko beldurrez, asi zen bereala ojuka ta esaten: «Dabiden seme Jesus, urrikal zakizkit, arren». Aren ojuak aditu ta esan zioten Jesusen abr-aitzinetik zebilzanak. «Zaude isillik bazterren asaldaria». Baña itsuak berea zuen bere gogoan ta ezpañean ta orien isillak garaitzeko ta Jesusek adi zezan esaten ziona, len baño ere oju andiagor esaten zuen: «Urrikal zakizkit, Dabiden seme Jesus».

Itsuaeren parera zeneko aditu zuen Jesusek aren ots-hitza; gelditu zen bertan ta an berarekin zetozenei esan ta itsu-eskele beharsua erakarri zuen bere aldera, ta bere aldean hura ekusi ta galdetu zion: «Zer da nigandik zuk nai dezuna?». «Itsua naz, Jauna», eranzun zion, «ta begi ona ta ekuste garbia». «Orra, bada, zuk nai dezuna», esaten dio Jesusek; «zere uste ona baliatu zaitzu; ondu dira zure begiak; idiki zatzu ta ekusiko dezu». Eta ala zen, bada bertatik asi zen sekulan itsunzik izandu ezpalu bezain garbiro ekusten, ta artu zuen Jesusen ondoren Jerusalemgo bidea ta ibilli zen eskerdun on egiña ta egin zion onagatik Jangoikoari eskerrak ematen. Hau ekusi zuten bidezko guziak ere asi ziran Jangoiko berari zegokan honra eta honra egiten.

Aldi onetan bazituen berekin Jesusek beste gisako zenbait itsu ere; ta itsu, horduan ez baizik beste aldi batez ta bere neke-izerdi andien buruan argitu zituenak. Itsu oriek ziran beraren eskolako amabi

Diszipulu onak. Beren bidea arzean edo bidez zebilzala esaten die Jesusek: «Orra, Jerusalem goaz ta an agi-gertatu beharrak dira niri dagozkidan ta Profetak adirazi dituzten gauz guziak. Jangoiko-gizaseme hau egun batez or geldituko da jentilen eskuan ani dutena artaz egiteko. Egiñen diozkate anitz histata eskarni, azotez urratuko dute den guzia ta karkaisez zikinduko diote bere aurpegia, beren azotaldiaren ondoan kenduko diote bizia, baña biztuko da irugarren eguneko». Aditu zuten belarritz hau Apostol onak Kristo jaunaren aho-ezpañetik, baña adimentuz ez; bada adimentuz oriek hau aditzeko, itsua bere itsu denboran bidezko gizonak begiz ekusteko bezain itsu arkitzen ziran. Etzioten aldi artan eskatu Jesusi senda zitzala beren barrango itsumentutik eta itsu gelditu ziran adimentuz, gauzak aurpegiko begiz ekusi arte guzian.

Zer esan nai ote digu Elizak Ebanjelioko bi itsument oriek gaur agertuz? Bai dirala munduan itsu, ill arte guzian argitzen ez diranak, bai ta Jangoikoak beren bizitzan argitzen dituenak ere. Zein dira itsu argitu bage ta argitu oriek? Aldi onetan guk ekusi behar ditugunak.

§ I.

Bai, badira munduan itsu ill arte guzian argitzen ez diranak eta munduko ta zeruko gauzak diran gisan ekusten ez dituztenak. Itsu oriek beren argitu arte ontan dira egungo itsua Jesusek sendatu zueño izandu zenaren gisakoak eta eskean dabilzanak.

Eskean dabillen itsuari urrikalti onak ematen dio zerbait diru edo limosn on, baña histori galduak irriz ta eskarniz zerbait azal, diru gaizto edo gauz ustel. Itsu gaisoak arzen du onzat guzia, ta gauz ustel ta diru gaiztoa artu ta ere, pozdun ta bero dabill bere horduraño. Baña afal-hordua urbildu ta ona dela uste duen diru gaiztoz gairik ezin erosiz ibilli ta, zer artu ez duela arkitzen da ta gelditzen, engañatu dutelako damuarekin ta tripako bere gose gaiztoarekin.

Larru gorrian ta deus ere bage gatoz guziok emengo lurgain ontara ta urteetan sartu ta anditu ta ere, itsu arkitzen dira gutatik beinzat anitz, eta onzat artu oi dituzte eriotzeko arratsean pist bat balio ez duten gauzak. Arzen dituzte zenbaitek beren aitzineko ongi arkitzen ziranen itxe bateko gauzak eta bazterrak, eta arzen beren poz eta atseginz andiarekin. Etxe-bazterrik beren aitzinekoen ill-ondoan arkitzen ez dutenak, arzen dute bideren bat edo beste zerbait billatzeko ta geienak egunak, hasteak,



illak eta urteak egiñagatik nekezko eske ta billanz gogor batean, doi-doia izaten dute beren egunoroko gos-egarria ilzeko ta soñerako behar dutena; ta eriotzeko gau illunera ta, arkitzen dira berekin eramateko edo emen uzteko gauzarik bage.

Beste zenbaitek arzen dute merkatanzako bidea ta saldu-erosiz, gutiagoan artu ta geiagoan emanez, emen trukatu, ara bidalduz ta beste bidez egiten dituzte beren irabanzak eta ondasunak; baña ez bide hau arzen duten guziak, ez eta laurdenak ere; ta orietatik zenbait gelditzen dira zorpe gaiztoan, presondegi latz-illunear ta larru gorrian. Beste batzuek ondasundun ta honraz beteak gelditu naiez, arzen dute armetak ta gerrako bidea, ta billatzen zuten honraren ta ondasunen lekuan arkitzen dute geienak nekezko bizitza ta odolezko edo hospital bateko eriotza ta lurpeko etxea ta obia. Baña orrenbatetik zenbait egiten dira bein alferrez, gero kapitan, gero koronel ta gero geiago, ta izaten dute zerbait honra ta gizonen zerbait begirantz on ta besterik ez. Beste zenbait igaten dira ekusi ditugunak baño zerbait geiseago ta izaten dira batalletako nagusi, an edo emen Erreg-ordain edo Viso-Rey ta bidenabar izaten dituzte ango enkomienda, emengo errenta ta Erregek eman diezten bidez berak bilzen duten ondasuna.

Beste zenbaitek arzen dute Indietako bidea, baña geienak ez buru ta ez esku; ta anitz urtez an diru-eske bezala ibilli ta arkitzen dira Españan bezain gabe ta behartsu ta beren aldian ilzen dira zorritz ta gosez ongi beteak. Zenbaitek bilzen duten andik beren itxera itzulzeko, itxe bera ongitzeko, berritzeko edo berriro jasotzeko, len izanen etzuten ezkonza egiteko ta beren egunak nekatu bage igarotzeko diña; baña orien hume-illobak arkitzen dira oriek berak Indietara joan ziran aldian baño agitz txarkiago ta behar andiago illunear. Beste zenbaitek ekarzen dute zerbait geiseago ta ez dira ekusi ditugunak bezain gaizki bizi orien hume-illob eta beste ondorengoak. Eta beste zenbait ongi kontatuk ekarzen dituzte eun mill, bost-eun mill, milletan mil otxin ta geiago, ta ondasunez azpiratzen dituzte ondasunik geienak len Españan zuten anitz eta asko.

Azkenean etorzen zaie ondasundun oriei ta len ekusi ditugun beste guziei besteei bezala beren eriotzeko gau illuna, ta zeruko maian bokadu bat artu naiez agerzen badituzte dituzten ondasun ta diru guziak, esanen die Jangoikoak bere Tribunalean: Pist batek diña ez dute oriek onetarako balio. Zeruan sarzen ez diran gauzak dira oriek guziak; errazkiago bilzen diranak eta beste gisako gauzak dira zerurako egokiak. Onelakorik ez duten itxuak geldi bitez beren gosearekin ta zerutik kanpoan. Hau an aditzen badu, zer damua munduko ondasunzale alferrik nekatu denak

artuko duena! Arinzik bagekoa ta beti betikoa, bada galduko ditu zeruko irabaz-bide guziak eta geldituko da zakur gosez amorratua bezain gosez ta amurrantz betikoz betea: *famem patientur ut canes* (Ps. 58,16).

Hau bera agituko zaie Erromako ta beste bazterretako konsejari jakinsu ta gerran ta bakean eskurik geiena izandu duten beste guziei ere, beren eriotzan izaten ezpadute emengo jakinza ta eskua besterik; bada emengo jakinz eta esku guzia, den andiena izanagatik, soñeko tresna ta Erregeen eskuko zetroa bezala da, ta, munduko zetro ta soñeko guziak emen bertan ustelzen dira, ta jabeei, ill ezker, jabe ill beren ondoan egonagatik, onarakotz ere baliazen etzaiztenak, Alejandro Magno zeritzan Errege andi baten soldadu guziak ekusi zuten bezala.

§ II.

Ill zen Alexandro Errege hau mundu guzia beretzen zebillela ta Indiko bazter horduko agertu ziranak ere irabazi ezker. Ilzen zela eza-gutu ta artu zituen bere soldadu zenbait Erregetako, ta irabazirik utzi zuen mundutik eman zion bakoitzari bere zatia ta erresum ta erreinua. Errege berriak bildu ziran Alexandro Errege illaren inguruan, andik aitzin-abrera egin behar zutenaren berri ta konseju argandik arzera ta, «Jauna, zer deritza dagikedala aldi onelakoan edo beste artan?», galdetu zion batek, eta besteak ere egin ziozkaten ere bereko beren galdegiñak; baña egondu baziran ere aren eranzunen begira, etzioten hitzik aditu ta etzuten ekusi aren keñu bat ere; zeren horduko galduak ziran ta betiko galduak Alexandro Errege andiaren gerrako jakinz eta esku guzia. Hau bera agi-gertatzen zaie munduko beren gauz guziekin beste guziei ere; bada gauz orietatik bat ere ez da zerurako gauza.

Beste mundurako ez da Alejandrorena edo ekusi ditugun beste orien baño geiago balio duen gauza, gorputzeko tall, edertasun edo apaiketa; usteldu ta urratu ta soñetik erorzen den estalki txarra onarako bezala da beste mundurako bata ta bestea. Hau guri adirazteko da S. Agustiñek edo onen izenean besteren batek sermoi batean esaten duena: «Joan giñan bein beste anitz eta ni», dio, «Cesar Enperadore andi illaren gorputza ekustera ta arkitu genuen uste genuen baño era ta itxur itsusiagotan; bada ekusi genuen guziz itsustua ta izugarria; ekusi genuen buru, esku, oñetatik eta gorputz guzitik usteltasuna zeriola; ekusi genuen aren sabela gainbera urratua ta ar zikiñez betea, ta janari ta edari goxoz ase oi



zen barren hura ar zikiñen janari ta mai egiña. Burutik eroriak eta nas-pill-loitu egiñak zeuden leneko aren ille ederrak eta larrurik bage ta soil-durik aren kalaber ta buru guzia, ta aurpegiko begi-ezpañak eta buruko muñak materi loi ta ar egiñak eta azpiko orzak belztu ta erdi eroriak».

Hau ta onelako beste gauz anitz esan ondoan, galdetzen du ta dio: «Zer egin da edo non arkitzen orain Cesar Enperadorearen gorputz eder galanta? Zertan gelditu dira aren soñeko sedaz egiñak eta urrez ta perlaz beteak? Nora joan dira aren diru-sail ta ondasun andiak eta esku-aginze ta soldadeskak? Non da aren marfillezko oi-oatze ta Inperioko tronua? Beraren eriotzarekin aitu dira arendako beinzat guziak eta guzietatik etzaio gaueko amets batetik gelditzen dena baño geiago gelditu»: *omnia pariter defecerunt: transiit velut somnium avolans, et sicut visio nocturna* (Serm. 3 ad Fratr.).

Orra, bada, zerurako gauz ustelak edo galduak dira gorputzaren edertasun ta apaigarri guziak, bai ta munduko diru, jakinz, ondasun ta esku andiak ere. Eta arako zer gauz ote dira neska-mutillen danzak, hizket-egoer, ibiller, jan-edan ta beste joan-etorri guziak? Zer gizonen joko ta edate luzeak, alferkeri galgarri ta berriketak? Len ekusi ditugun gauzak baño agitz ustelagoak eta beti, geienez edo askotan beinzat, infernuko sugai igarrak. Orien jabe, orain itsu daudenak ere, erioko argiarekin ekusiko dute, damu gaizto dutela, egia dela hau guzia. Zori gaiztoko ekusketan orien horduko ekusket hau! Orietatik bat bazara, eska zagozu Jesusi hordura bage ta garu bertatik oriek eta zerurako onak diran gai ta gauzak ekusteko argia ta lagunza.

§ III.

Bekatuan bizi diran eder-apaindu-ondasundun-aberatsak eta nai dutena egiten ta eragiten dutenak itsuak dira ta sekulako galbide gaizto baten bazterrean arkitzen diran itsuak. Zori oneko itsuak oriek, egungo Ebanjelioko itsuak bezain ziñez Jesusi eskatuz erdisten badute, gai ta gauz ustel oriek utzi ta, zeruan sarzen dituzten onak ekusteko ta bizitz on baten oñez Jesusi darraizkola Jesus berarekin zeruko Jerusalem sartzeko beharko duten grazia.

Munduko itsuak Jesusen argiarekin ekus ditzakee diran eran emengo ta beste munduko gauzak, eta ekusi ta ekusten dituzten bidez artu ta

Jesusen ondoren ibilzen badira, Jesus berak lagunduz beren ondasun on ta garbi zuzenekin zerurako dira.

Ekusten ta beren gogoan ongi sarzen dutenak ill behar dutela orien gorputzak eta anitz luzatu bage ar zikin, usteltasun ta lur egiñik gelditu, esaten dute: «Ta itxura txar izugarri onetan gelditzeko dauden gorputzen zat onenbat seda, oial eder, estalki mee ta apaingarri, onenbat jan ta edan goxo ta onenbat loo ta atseginz? Gaurgero ez, Jangoikoak lagunzen didala; gaurgeroko nere lana izanen da kontuzko ta bere horduko jan-edanak egitea, soñeko garbi larrua estalzeko aski diranak arzea, dagozkidan ta Jangoikoaren Legeak eskatzen dituen gauzak osoki ta mug onean egitea, bai ta zenbait baru, zenbait penitenzi ta beste gauz on ere». Orra fededun itsu argituak argitu ta egiten duen lenbiziko gauza: ondunai on bizi bat arzea.

Bigarrena da bere antust arroa ta burua besteen artean goratu naia oinpera ekarzea ta mundu eroaren esankizunei urrutiko peregrino bidariak erri arrotzeko ele-erاضي baño geiago ez begiratzea ta zeruko bere peregrinanzan Jesusi darraikola zuzenki ta gelditu bage ibilzea ta bide onetako bere jan-edanak eta beste fededun onen gauzak kontuz egitea.

Irugarrena da bestela ere beren eriotzan galdu behar dituzten ondasunekin ta diru zatiarekin bata edo bestea duten fededunak gerorako irabanz andiak egitea, Jangoikoaren Elizak apainzea, beharsu gaisoei zerbait emateko ta Purgatorioko animen neke arrigarri gogorrek Mezaz arinzea, ta dirutik edo ondasunik onetako ez dutenak oriei berei Mezak enzunez, baruz, ilduraz ta otoitzez ongi lagunzea. Lagunz bata ta bestea lagunzaleen irabanz andirako bidea da, anitz aldetara Jangoiko berak adirazi duen bezala, ta bein Evagrio zeritzan fededun Filosofo bati gertatuarekin.

Aditu zuen Elizan Filosofo gizon jakinsu fededun onek beren gauzen emalle onak Jangoikoagandik artuko dutela ematen dutena bezalako eun. Hau aditu ta artu zuen irabanz andi hau egiteko gogo. Artu zituen kutxatik an zeduzkan urrezko irur-eun ezkutu ta billatu zuen bere Obispo Sinesio. Eman ziozkan eskura guziak eta eskatu zion beste mundurako orien letra ta papera. An bertan ta bat-ere trikatu bage artu zuen pluma ta tinta Obispo Sinesio; ezarri zuen paperean: «Nik Jesu Kristo jaunaren Prokuradore Sinesio artu ditut beharsu gaisoen onerako Evagrioren eskutik irur-eun ezkutu ta artu ditut bakoitzaren alde beste eun emateko kargarekin ta egia dela hau adirazteko ezarzen dut emen Jesus Kristo jaun beraren izenean nere firma: Sinesio»; ta eman zion Evagriori bere paper hau. Artu zuen Evagriok papera ta gorderik iduki



zuen bere eriotzeko horduraño. Ilzeko bere horduan esanik utzi zuen aren gorputza obian uztean sar zezotela eskuan paper hura ta egin zen ark esana. Aren gorputza orzi ta laster bere Obispo Sinesiori agertu ta esaten dio joan zedilla aren obira, zor ziona artu zuelako papera arzera. Joan zen ara Obispo Jauna, artu zuen illaren eskuko papera, ekusi zuen hura zela berak ari emana ta aren azpiko aldean arkitu zuen illak ziona; ta zion: «Jesusen eskutik artu ditut beraren izenean eman nituen irur-eun ezkutu ta bakoitzaren alde beste eun ta egia dela sinisterazi naiez ezarzen dut nere firma: Evagrio»; eta artu zituen eman zituen irur-eun ezkuturen alde irur mill ta irur-eun ta sekulako gloria.

Orra zer irabazia, bere diru piska bestela galduko zenarekin Jesusen argitze onek ari eragiña ta nai duen edozeñi eragiten diona. Jesusek dizula emengo ta zeruko gauzak zori oneko gizon onen gisan ekusteko ta onen irabazia baño irabanz agitz andiago bat egiteko grazia; bai arren, bai.

XX Garizumaren Ienbiziko igandeko irakurraldia

Et ecce Angeli accesserunt, et ministrabant ei.

Matth. 4.

**Gaia: Guk nai badugu gure onerako dira
emengo gure neke ta tentaldi guziak**

Zeruko atseginza da fededun guziok billatu behar dugun ondasuna, ta izanen badugu, billatu beharko dugu Jesusek hitzez ta lanez agertu digun bidetik oñik atera bage. Gaurko Ebanjeli berean ere agerzen digu Jesusek bide hau bere lanez ta nekez bein, ta gero hitzez ta esanez. Zeruko bide hau gaur agerzeko Jesusek bere gain artu duen lana ta nekea da berrogei eguneko baru luzea; baña baru zein nekagarria? Orrenbat egunez bokadu bat edo edar tantarik ere bagekoa; bada berrogei egunez baru zuen Jesus jatekorik edo edan piskarik ere artu bage ta bere baru nekatu hau bukatu ta arkitu zen gosez agitz flakutua: *postea esuriit*.

Zertako baru zuen Jesus orrenbat egunez ta baru onen gogorrean? Bere beharrez, ez; bada etzuen Jesusek gorputza baruz edo beste bidez zer nekatu, bere gorputzari eragiteko berak eta beraren betiko Aitak nai zutena; zeren etzen gureen gisan Adanen bekatuz gaiztatua Jesusen gorputza. Barutu zen, bada, Jesus guri erakusteko baruz edo beste bideren batez geren gorputzak nekatur irabazi behar dugula zeruko ondasuna ta gloria. Orra lanez Jesusek guri agertua zeruko bidea.

Zeruko bide hau agertu zigun Jesusek hitzez ere, gaurko Ebanjeli berak esaten digunaz. Nola, uste dezu? Ara: gure inguruan dabil gu galdu naizik deabru gaiztoa, orz zorrotzak eta atzapar galgarri gaiztoak daduzkan ta bazterrak orroz urratzen dituen leoi baten gisan ta eran, dio S. Pedrok. Ekusi dugun gisan baru ta arkitu zuen deabru tentaleak Jesus agitz gosetua, ta gizon besteen gisakoa edo Jangoiko-gizona zen ekusi naiez, asi zen jatekoz hura tentatzen ta aldeko arri pilla bat ari erakutsi ta esaten dio: «Orrako ari-pil ori hitz biz badagikezu ogi; egizu, bada, ta ase zaitetz». Nai zuenik ekusten utzi bage garaitu zuen Jesusek etsaiaren tentaldi hau; ta garaitu, Eskrituraz, Eskriturako berria zuen edozein gizonek



garai zezaken gisan, ta gelditu zen Jesus bere flaki ta gose guziarekin ta etsai gaiztoa nai zuenik ikasi bage.

Eremu batean agitu zen Jesusen ta bere etsai gaiztoaren joan-etorri ta lei-pele hau. Etzuen etsi etsaiak eta egin zion Jesusi beste bidez bigarren tentaldia. Artu ta eraman zuen bere eremutik Jerusalemgo erri santura ta utzi zuen ango Eliz gañeko egontegi batean ta esan zion: «Jangoikoaren Semea bazara, ez dezu zer nekatu emendik berañoko eskaleran; emazu salto bat eta miñik ar ez dezazun, artuko zaituzte beren eskuan Jangoikoak artako daduzkan zenbait Aingeruk eta utziko poliki an beko lur artan». Aldi onetan artu zuen Jesusek lenekoan artu zuen bide bera ta Eskritura bereko hitzez mututu zuen bere etsaiaren muturra.

Irugarren aldian itzuli zen etsaia leneko bere lanera ta andik mendigain batera hura eraman ta eman zion Jesusi bere naigabe bidea ta tentaldi berria. Agertu ziozkan munduko erresum, ondasun, atseginz eta honra-modu guziak, ta guziak emanen ziozkalako hitzarekin beretu nai izandu zuen hura. Baña horduan ere garaitu zuen Jesusek etsaia leneko bi aldietako gisan Eskritura Santako hitzez ta utzi zuen argana ez-baidan bezain illunbe andian ta nor zen Jesus etzekiela; baña etsaiak ere bere joan-etorri ta ibiller gaiztoekin utzi zuen Jesus len ere baño neke ta gose agitz andiangoan, ta joan zen bestetara bere egiteko galgarriren bat arzera. Hordu berean igorri zion Jesusi betiko bere Aitak behar zen guzia ta aitu ziran Jesusen neke-goseak. Orra, hitzez ere erakutsi zigun Jesusek len nekez ta anitz baruz erakutsi bera, ta agertu zigun zeruko ondasunen irabaz-bidea dela nekez ta tentaldiz betea ta emengo neke ta tentaldi guziak dirala Jangoiko urrikalti onak gure onerako arzen dituen gauzak, aldi onetan guk ekusi behar dugun bezala.

§ I.

«Etzigun alfer egoteko Jangoikoak eman bataioko grazia», esaten digu S. Pablok, Korintharrei egin ziezten bi kartetatik batean ta egungo Mezako Epistolari. «Gure biz-denbora irabaz denbora da», dio, «ta betiko irabanzen ta sekulako glori-ondasunen irabaz-denbora»: *ecce nunc tempus acceptabile; ecce nunc dies salutis* (2 Cor. 6).

Baña zer bidez ta nola irabaziko dugu zori oneko ondasundi hau? Jesusek egungo Ebanjelio Santuan agertu digunez, Jangoikoak nai duen gisan biziz ta munduko guzien begietan ere ongi diruditen gauzak egiten

ditugula ta orretako me-meki ta pazienzi andian artuz geren buruen nekagi guziak, naiz barrendik datozenak izan, naiz gorputz berekoak. Baña zer nekagi dirala, S. Pablok dionaz, uste dezu nekagi oriek? Geren barreneko naigabenzak, tristurak eta nasketak, bai ta gorputza nekatzen duten baruak, lo-galzeak, lan ta ibiller gogorrak, besteen asmanz ez-diranak, deshonorak, engañoak eta tranpak, bidebageko presondegia, auzia ta beste edozein kalte ta neke. Orra, bada, Jesusek hitzez ta lanez gaur agertu digun biderako S. Pablok berezten dizkigun zenbait pausu, lan eta gauz.

Langai nekagarri orietan badira fededun onak berez egiten dituzten gauzak, bai ta bestetatik eta etsai gaiztoagandik datozenak ere, Bakoitzak bere gogoz egiten dituen konfes-komulgatzeak, limosnak, baruak eta beste gauz onak izutzen ez dute fededun ona; baña fededun on bera ere noizbait anitz asaldatu oi da bere gain ekusi ezkerro beharra, gabenza, eritasuna, etxeko ta auzoko zenbaiten ta bere humeen mukerz, dollorza ta gaiztaginza edo sulezeko gaiztoaren zirika, sua ta tentanza, ta bere nekar-te orietan ez dio beti behar den begiz Jangoikoari begiratzen ta esan ere oi du: «Itsua bide da gure Jangoikoa ta eskurik bageko alsua bereei lagun-zeko; bada ekusten ezpargindu bezain guti lagunzen digu geren neke, lan gogor ta egiten dizkiguten bidegabenez galdu gaiztoetan».

Beste zenbaitek esan oi dute: «Ez bide du Jangoikoak guretzat anitz gaiztori ematen diezten ondasun ederri; bada oriei gaizki dabilzan aldian ere ematen diezte nai dituzten ondasun, atseginz, honorak; eta orren esku-tik guk arzen duguna da nekea, beharra ta naigabenza, geren aldetik egiten badugu ere al duguna, geren gauz guzietan berari atsekaberik ez eman naizik». Badira beste aldi orrelakoan esaten dutenak: «Nola Jangoikoak onzen ez ditu anbat aldiz nik eskatu ta ere, nere senarra, nere giarraba, nere suia, nere humea ta etxean ezkonzaz edo serbitzurako sartu zaidana; bada oriekin ezin burutu dut nik eta beren animen ta nerearen galgarri gaiztoak dira».

Orra zer dion ez dakien eroaren eran hitz egiten duen fededun gaiztoaren erausiak; bada bere on-aldera Jangoikoak zuzenzen diozkan neketentanzak arzen ditu behar ez den aldetik eta bere gaitzerako, ta egiten du orretan suge itu ziraunarekin botikari jakinsuak egiten duena ez, baizik orien izurritz bere burua ilzen duen eroak egiten duena.

Arzen du botikari jakinsuak burdiñezko korrik batekin zirau itu izurduna ta artako duen onzian utz-erazten dio duen izurri ta pozoi-beneno guzia ta zirau garbitu beretik arzen du erien sendagai on, triaka egiteko behar den zatia. Baña orrelakorik ez dakien eroak oñez ertsi-



estutzen dio zirau berari buztana ta zirauak arzen duen miñ-õñazearekin egiten dio õñean ozka ta orzez egiten dion zuloan uzten dio bere izur-pozoi-benenoa ta bertan anditu ta laster ilzeko gaia.

Ekusi ditugun ta era bereko beste neke ta tentaldi guziak badute beren mingai gordin gazia, bai ta irabazgai andi ederra ere; ta irabazgai, mingaiagandik berez ditekena, Job santu, Tobias zar eta beste anitzek Lege zarrean ta beste anitz geiagok berrian berezi dutena ta guk ere geren aldian berez dezakeguna, ta hau da gugandik Jangoikoak nai duen ta orain guk ekusiko duguna.

§ II.

Saia zaitezen, bada, zere lan on orretara ta dagizun aldi oro obeki ta bein ere enoiatu bage, jakin behar dezu bere edo besteren eskuz Jangoikoak igorzen ta bidalzen dizkitzun neke ta tentaldi guziak, ona bazara, obe zaitezen izaten dirala; gaiztoa bazara, on zaitezen ta, zere gaiztaginzak utzi badituzu, orien zorren alde; ta orra, Jaungoikoaren aldetik guzia da guri ongi naiez ta gure urrikalti ta maitari onak egiña bezala. Geren bekatu gaiztoen edo bekatu beren zorren alde Jangoikoak hau gurekin egiten duen aldian egiten du Persiko Juez jaunak ango zaldun obendun edozeinekin egiten zutena ta Españiko Errege Felipe lau-garrenak bere seme txiki Prinzipe berarekin egin oi zuena.

Persiko zaldunak gizonak ziran, ta gizon, besteen gisan gaiztaginzak zegizkenak. Egiten bazuten bat edo beste, bakoitzari ezarzen zien bere auzi-pleittoa ta auzian garbitzen ezpazuen bere burua eta obendun geldi ezkerro, aren gain zen Juezen sententzia; baña sentenzi, zaldun bera ukitzen etzuen; bala sentenziz kenzen zien zuten soñekorik onena ta bere buruko turbant ederra ta ezarzen zuten soñekorik onena ta bere buruko turbant ederra ta ezarzen zuten zur-adar batean bata ta bestea, ta beraren jabea ill nai bazuten bezala, betezen zuten saet-tiroz zen guzia; ta, andia bazen jabeak egin zuen gaiztaginza, bere tiroz ta saetez urratzen ta auts egiten zuten guzia. Orra Jangoikoak diogun aldian gurekin egiten duenaren ainzur ta itzal egokia.

Orren beraren ainzura da Errege Felipek bere seme txikiarekin egiten zuena. Present egin zioten Prinzipe aur oni Txinako txakur polit bat. Aurak bezala agitz nai zion bere txakurtxo oni; egun oro nai zuen ekusi bere gelan ta egiten ziozkan an bere aurkeri-fest eta kariño-moduak.

Ikasi zuen hau Erregek eta aur berak utsen bat egiten zuen aldian, etzion berari deus egiten; baña berriz alakorik egin etzezan, zearazten zuen Prinzipe bera begira zegoala aren txakurra.

Gure anim ederraren soñekoa da gure gorputza, ta animak gaizkiren bat egiten duen aldian, hura zenzaturik uzteko ta berriz alakorik egin ez dezan, zeatzen du Jangoikoak bere gorputzean; ta zeatzen, zenbait aldiz bere eskuz ta ematen dion õñazez, sabel miñez, eritasunez edo beste gaitz moduren batez. Beste aldian zeatzen du anima gaitzgillean etsai gaiztoen edo mundukoren baten eskuz. Etsai gaiztoen eskuz zeatu oi du Jangoikoak gaiztoa, etsai zeatzalleari barrena sarzen utzi bage ta kanpotik egiten dituen soñu ta eskanbill-nasi nekagarriekin ta burura ta bihotzera sarzen diozkan oroitzapen gaizto ta tentanz galgarri zenbaitekin baita noizbait gaizto bereei barrena sarzen utzi ta an ark egiten dituen nekanz eta urranz agitz mingarri gogorrekin ere.

Munduko gaiztoen eskuz ere zeatu oi du Jangoikoak anima, ta zeatu oi, aitak seme txikia zigorrez ta andia garrotez bezala. Hau da bein Nabukodonosoren eskuz Israeldar gaiztoekin egin zuena. Errege andi arro hau Israeldarrak gaizki zebilzan aldi batez igan zen orietara, bere ustez ta naiez oriek galzera, ta utzi zion Jangoikoak ara igaten, izan zedin beraren zigor ta garrote, ta zea zitza zegoten gis-era gogor mingarrian. Ala dio Jangoiko berak Isaiasen ezpañez, bada dio: «Asiriko Errege edo Nabuko nere aserraldiko zigor ta garrota»: *Assur virga furoris mei, et baculus*. Eta zenbat ere gaiztoagoak Jangoikoak orrela zeatzen dituen animak, anbat gogorragoa aren horduko zigor-garrote-bastoaia.

Constantinoplako Enperadore Mauricio ta aren peko anitz agitz gaiztatu ziran beren aldian herejiz, besteei berea kenduz ta beste asko aldetara. Oriek zenzarazi naiez artu zuen aldi artan Jangoikoak Focas zeritzan gerrari gaizto itsusi bat. Beren nastaldi batean Mauricio utzi ta egin zuten soldadu gaiztoak Focas Enperadore. Soldadu berak eman zioten eskua seguratu naizik, artu zituen Focasek preso Mauricio bera ta beraren bost seme. Bertan ta aita begira zegotela ill zituen borrero gogorren eskuz aren bost seme gaisoak eta orien ondolik aita Enperadore bera. Bizirik errerazi zuen Mauricio beraren soldadu Narsete, gaitzik egiñen etziolako hitza autsi ta. Bere soldadu berei eman zien erretzeko, ilzeko ta ost-ebasteko nai zuten esku guzia ta berak eta beraren soldadu gaiztoak egin zituzten Inperio guzian sekulan bestek ez bezalako zeanzak eta kalteak, dio berri hau dakarren Kardenal Baroniok: *omne genus malorum eo tempore in Imperium exundavit*. Hau ekusi ta agitz arriturik galdegin zion Jangoikoari Relijioso santu batek: «Nola, Jauna, fededunei



eman diezu Focas bezain Enperadore gaizto bat?». Eta Jangoikoak erantzun zion: «Gaistoagorik arkitu banu, aren orde z hau egiñen zuen orien Enperadore, zeren Inperi onetako gaiztaginak eskatzen zuten buru gaiztoen bat»: *deteriorem illo alium inveniri non potuisse, et hoc meruisse Graecorum flagitia* (Baron. An. 610).

§ III.

Orra; Jangoikoak zenbait aldiz berez edo besteren eskuz egiten du bekatar gaiztoekin beren zaldun obendunekin Persiko Juezak egiten zutena; bada zeatzen ta kastigatzen ditu animaren soñekoan edo berez erre ill beharra den gorputzean. Beste zenbaitetan egiten du Errege Felipek bere semearekin egiten zuena. Onen semeak bere zakurtzua bezala maiteegi du amak semea, aitak alaba, bata edo besteak, biak ezpada, beren ondasuna, ta egin dituzten bekatu gaiztoen alde ta zenzarazi naiez, igorzen die Jangoikoak ganaduaren pikorra, ondasunen auzia ta sentenzi gaiztoa edo beren humeen eritasuna ta gaitza. Zenbait aldiz egiten du Jangoikoak besterik ere; bada orien aita edo ama zeatzen ta naigabetzen ditu beren hume berez, oriek berak gatik edo bestela egin zituzten kulpen alde; ta zeatzen ditu humeen mukerkeriz ta esker gaiztoz edo oriei ezin eragiñez nai dutenik, edo oriei ezin kenduz arzen dituzten oikur ta bide gaiztoak, bai ta bizikidea bizikidez ere; ta hau ere izan oi da bata besteari egin edo eragin diozkan bidegaberen alde.

Zeakunz hau irabazten dute oben andirik egin ez duten guraso berak ere. Patriark Jacobek izandu zituen anitz seme ta guzien artean besteeteei baño geiago nai zion Josef zeritzan bati. Egin zion bein oni besteeteei ez bezalako soñekoa ta beren aitaren aldetik urruti ekusi zuten batez kendu zioten begitan arturik zeduzkaten beraren anaiak. Bera ill nai zuten anai zenbaitetik, besteak ez, ta azkenean saldu zion kargaketan zebiltzan Ismaeltar zenbaiti. Humerri baten odolez busti ta igorri zioten aitari ekus zezan aren semearena zen edo ez. Hura ekusi ta uste izandu zuen Jacobek otsoren batek jan zuela aren seme maite emazurz Josef eta betiko galdu zuelako ustean Jangoikoak daki norañoakoak izandu ziran aren bertako ta urrengo urteetako naigabenzak eta miñak. Anitz urteren buruan ikasi zuen etzela ill aren seme maite Josef; baño Josef beraren bidez ere izandu zituen berri hau aditu ta hura ekusi baño len naigabenz, kezka eta min berri andiak.

«Zergatik ote?», galdetzen du S. Agustinek eta bereak erantzuten du: «Zeren Jakob gizon ona ta bekatu larririk etzuen baten ere, len seme Josef berekin zuen denboran ta gero beste bere zenbait gauzetan, oi den gisan, txiki zenbait egin zituen ta zeren Jangoikoak kendu nai izandu ziozkan emen orien autsak eta zorrak»: *quoniam igitur sine istis minutis peccatis esse non poterat, voluit Deus illa parva peccata in hoc saeculo igne tribulationis consumere* (Augus. serm. 80 de temp.). Eta egin zuen Jangoikoak hau Jacobekin Jacobi onginaiez.

Eta orra, guri ongi-naiez dira Jangoikoak gugana zuzenzen dituen neke ta naigabe ta tentaldi andi ta txiki guziak. Bai ta gure obenik bage zuzenzen dizkigun aldian ere; bada horduan zuzenzen dizkigu neke orien suarekin, burdin garbia limarekin bezala, len baño garbiago ta leunago egiñak gure animak uzteko ta bidenabar zeruko irabaz andiak egiteko bidea guri eman naiez, bai ta ekusi naizik ere zertaraño maitatzen dugun guk hura bera: *tentat vos Dominus Deus vester, ut palam fiat, utrum diligatis eum* (Deuter. 13,3).

Jangoikoaren urrikalz gogorra da, dio S. Augustin berak, gaiztoa emen ondasundun ta kanpoko kezkarik bage uztea; hau da alabaña, dio Santu Doktoreak, Davidek dionaz, Jangoikoaren benganz izugarria ta gaiztoa bere gaiztagin galduak gatik sekula guziko nekepe izugarrian utzi nai duelako señailea: *Deus propitius fuisti eis, et ulciscens in omnibus adinventionibus suis* (Ps. 98,8).

A, nere Jangoiko maitea!: ta zein itsua bizitu nazan ni oraindaño nore nere aldian; bada nere urrikariz, zuk niri ongi naiez ta nere on andirako bidalzen zenizkidan neke ta naigabenz nik nai ez nituenak; baño agitz zegozkidanak, etzegozkidan kastigutzat arzen nituen nik, eta orien-pean irabazi onak egin lekuan, egiten nituen zor berriak eta bekatu gaiztoak; baño gauza den gisan ezagutu dudana ezker, besterik izanen da datorren aldian; bada onezkeru artu uste ditut zure ontartetako nere neke ta tentaldi guziak; eta artu uste, nere bekatu guzien alde ta zure izenean. Betoz, bada, zuk nai dituzunak eta betoz aldi berean zure grazi ta lagunz andiak, diodan gisan ta ongi guziak nik eramateko. Bai arren, Jesus urrikaltia, bai.



XXI Garizumaren bigarren igandeko irakurraldia

Si vis, faciamus hic tria tabernacula. Matth. 17.

Gaia: Zein zori onekoak zerua,
zeruko lagunak eta zeruko atseginzak

Etixerik ez duena etxe gura da; etxe txarra duenak izan oi du hura anditu ta edertu naia ta aren orde z jauregi bat egin al badu, gutiagoko etxez ez da asetzen, ta egiten duen jauregi edo etxea bere naiez betiko egiten du. Zerbait orrelako egin nai izandu zuen egungo Ebanjelio Santuak dakarren aldi batez S. Pedrok. Ebanjeli onek dakarren aldia da Jesus maitearen edertasun andi bateko aldia.

Artu zituen bein Jesusek S. Pedro, Santiago ta S. Juan Ebanjelari maitea ta besterik bage igan zen mendi luze gain batera. An irurak ekusten zutela, gelditu zen Jesus argiz ta edertasunez jaunzia; bada bazuen bere aurpegian eguzki beraren argi gisako argi bat eta elurra bezain zuri ederrak gelditu ziran burutik onieraño Jesusen soñeko guziak. Denbor berean an agertu ziran Moises ta Elias ta asi ziran ziranen gisan Jesusi hitz egiten.

Era onetan S. Pedrok Jesus ekusi ta an zuela uste zuen zeruko gloria ta, hau ez galdu naiez, esan zion Jesusi: «Jauna, nai badezu, egiñen ditugu emen iru bizitegi edo etxe, zuretzat bat, Moisedako bestea ta Eliaszat irugarrena». Baña etzien S. Pedrok behar zen begiz gauzei begiratzen ta beste mundurako utzi behar den atseginza nai zuen emen bertan, ta artu nai zuen neke-izerdirik bage. Aren hitz eroari ez aditu egin zion Jesusek eta, ark onetan zerausala, estalki zituen bat-batean odei guztiz argitu batek eta aditu zuten betiko Aitareen hitz hau: «Hau da atsegin egiten didan nere Seme maitea ta egin zuek onek adirazten dizuten guzia»: *ipsum audite*. Ekusi zuten odeiak eta aditu zuten hitzak erdi illak utzi zituen S. Pedro ta aren lagunak eta an bertan erori ziran auspez; ta auspez etzandu ziran Jesusek jo ta beldurrik bage jaiki zitezela berei esan arte guzian. Jaiki ta begiak idiki ta etzuten ekusi Jesus bera baizik, eta hau ere ekusi zuten lentxeago zuen edertasunik eta glori-anzik bage.

Bere edertasuna ta gloria ain laster gordetze onekin adirazi zien Jesusek guztiz txiki-laburra dela munduko atseginza ta poza, ta ez duela onek jauregi ederren edo etxe andien behar andirik. Adirazi zien besterik ere; bada adirazi zien ill ta biztu-beharra zela Jesus bera; ta biztu beharra, zeruko jauregi atsegin andi betikorako; ta adirazi zien hau, esaten ziela: «Begira, ez esan bati ere emen ekusi dezuten gauzarik, ill artetik ni biztu arte guzian». Bere biztu-behar hau agerze berarekin ta beste zenbait alditan esan ziezten gauz egokiekin adirazi zien Jesusek iru berak eta beste guziok ere biztu-beharrak garala; baña guziok ez, ez eta munduko laurdenak ere, zeruko jauregi ederrera; bada munduko jentil ta turko ta judatar adindu guziak edo kasi guziak sulezeko etxe gaiztorako biztuko dira ta oriek berak ere badira bataitu fededunak bezalako laur; eta fededun beren artean ere badira anitz eta anitz gaizto, ta gaizto oriek ere beste orien gisan sulezeko etxera beharrak dira.

Zori gaiztoko itxe onetaraten bagara, sekula guzian ta beti ango etxetiar izan beharrak gara, ta etxetiar, zori ezin gaiztoagokoak; baña zeruratzen bagara, ango jauregitar zori ezin obekoak izango gara ta azkeneko hau da gaurko irakurraldian ekusi behar duguna.

§ I.

«Azkenean sartuko da», dio Espiritu Santuak, «sekulako bere etxean mundura datorren edozein»: *ibit homo in domum aeternitatis suae* (Eccles. 12,5). Sulezekoa da etxe hau edo zerukoa. Sulezeko etxea illunbez, suz, negarrez, lagun gaiztoz, naigabez, tormentuz ta nekagi guztiz ta betiko nekagi izugarritz bete, ta orregatik da izan ditekene itxerik gaiztoen, deshonoragarrien ta amurgarriena. Beste gisakoa da zeruko itxea ta jauregi ederra. Gure eskuan dago batan edo bestean betiko sarzea ta eroegiak izan behar dugu, zerukoan sar gaitezkel, sarzen bagara suleze infernuko amurratuan; bada emen bertan ere agitz eroa da munduko itxerik onen, aberatsenen ta estimatuenean sar ditekela, txarren beharsuenen ta zikin-garrienean sarzen dena, ta emengo itxerik obeenak zerukoaren aldean ez dute orien aldean txoritegi txarrenak diña balio; ta emengo itxerik obeenean sarzen dena ere, sartu ta laster ta ill horduko andik atera beharra da; baña zeruko jauregi zori onekoan sarzen dena beti-betiko an sarzen da ta beti-beti zori on bateko ta atseginz garbizko bizitzan bizitzeko. Orra, bada, zein eroa sekulako jauregi zori oneko onetan sar ditekela, sarzen ez



dena. Eta orra zein zenzagabea sulezeko itxe gaiztora eraman behar duten lanak egiten hari ta zeruko jauregiratzen ez den bekataria! Ekusten dezuna.

Zori gaiztoko zenzagabenez ero hau zure burutik kenzeko ta zu zeruko jauregi ederraren zaleturik uzteko, hitz biz adirazi nai dizut zer jauregi den zeruko jauregi hau; nolakotsuak diran aratzen diranen lagun ango jauregitarrak eta norañoakoak ango bakoitzaren atseginzak. Zein andia dela uste dezu zeruko jauregi Jangoikoaren itxe hau? Adi zazu Baruk Profetak Israeldarrekin diarduela diona ta ekusiko dezu. «O Israeldarrak», esaten die Profetak, «eta zein andia Jangoikoaren etxea ta zein txarmagarria beraren ondasuntegi guztiz egokia! Bazterrik bagekoa, gañik ageri etzaiona ta neurri guzietan ezin obeki gañez egiten diena»: *O Israel, quam magna est domus Dei et locus possessionis ejus: magnus est, et non habet finem, excelsus et immensus* (Baruc, 3,24). Etxe onen kanpoko paretak dira guk gerok gau garbian ekusten ditugunak, izarrez ta zeruz ta firmamentuz egiñak: orra zein ederrak! zein ekusgai egokiak! Bada barrengo aren gauzak agitz eta agitz ederragoak dira. Zeren orren andi-ederra den Jangoikoaren itxe hau, ematen dio Eskritura Santak erri andi-murratua-zen izena; ta izen, erri murratu ezin obeki egiñaren ta ezin ederragoarena: *Urbs perfecti decoris* (Tren. 2,15). Itxe ezin obeki egiña ta ezin ederragoa baño obe-ederragorik ezin arkitu diteke, ta orra, zeruko itxea da den ta arki diteken itxerik onena.

Onelako etxe bati dagozkanak dira aratzen den zori oneko doatsuaren lagunak; bada guziak dira Jangoikoaren-pekoak, bai, baño guztiz andiak; dira alabaña zeruko prinzipte ta errege egiñak; eta errege ta prinzipte beren tronuan jarriak: *Reges et Principes sedentes super thronum* (Jerem. 17,25). «Eta ezin arki diteke», dio S. Buenaventurak, «errege tronudunak eta prinzipte andi berak baizik etxetiartako arzen ez dituen erria bezain erri hondragarririk»: *quam gloriosa Civitas illa esset, in qua nullus omnino, nisi Principes, et Reges habitarent* (In Genes.).

Honragarria lizake, bai, arkitzen baliz emen, era orretako erriren bat; baño bizitzeko ez lizake hau erririk onena; bada orrenbat errege ta prinziperen artean arkituko lirake anitz edo beinzat zenbait muker, buru gaiztoko gizon ta erriaren nasgarri arro, eta neke gogorra ta lan lizake oriekin an burutzea. Orregatik, bada, erri batean ez ezik, erreinu guzian ere buru ta errege bat eta geienaz zenbait prinzipte baizik ez dira arkitzen. Zeruko erri-itxea da erregez ta prinziperez betea egon ta ere, ta milaka ta milaka prinzipte andiak an izanagatik, bake osoan ta soseganz betikoan arkitzen den erri, jauregi edo itxea.

Zergatik, uste dezu? Zeren an sarzen diran guziak sarzen diran emengo eritasun gairik, odolaren irakiterik, buruko edo sabeleko miñik eta anima asalderaz lezaken gaitzik bage, karidade andiz ta elkar ganako maitanzez beteak eta batak bestea bere burua bezain maite dutenak; bada sekula guzian izanen ez da orien artean ezdabaidarik, ez eta beste kalterik ere; guzia da an batak besteari onginaia, aurpegi ona ta al duen on guzia beti ta beti egitea.

Ango errege ta prinziperik andienak edo grazi ta karidade geiena emen irabazi zutenak izanen dira beste guzietan begitarterik onena egiñen dienak. Oriek bezain kontent biziko dira grazi ta birtute guti dutenak, zeren besteak dutenaz berena baliz bezain ongi poztuko diran ta biziko beti Jangoiko maitagarriarekin bat-bat egiñak, bai ta bata beste guziekin ere, ta biziko zori oneko beren bakunz hau sekulan galzeko perillik ez dutela. Orra zein onak, zein hondragarri-maitariak eta zein nai bezalako lagunak zeruko jauregitar aratzen diran guziak!

§ II.

Zeruko etxe onen ta emengo etxetarren erakoak dira etxe onetan sarzen diranen zoria ta atseginza. Ez da etxe onetan sarzen gaiztakeririk. Adanen bekatua ta beste guziak uzten ditu ara baño len aratzen den edozeinek, eta uzten ditu sakrament-tartean ta purgatorioko suan, sugeak bere larru zarra ar-tartean bezala, ta sarzen da zeruan bein ere zartuko ez den graziaren ta birtuteen soñeko berri ederrarekin. An sartu ezkerro, ez da bekatu berriri, ez eta bekatu gairik edo biderik ere. Bekatua da malurren ta neke guzien ama edo sustrai gaiztoa ta, andik hau kendu ezkerro, kenduak dira oni darraizkon miñak, oñaze-auzi ta ezdabaida guziak, bai ta aserkunz, eritasun ta beste gaitz txiki-andiak ere ta oriekin batean barreneko illunzak, kezak, naigabenzak, ezin-egonak, amurrantzak eta beste neke ta ar guziak.

Emen ondasunik bage ta eskean edo behar andian bizitu diranak ere etxe artara ezkerro arkituko dira emengo andienak baño mill-milletan geiago balio duten ondasunekin; ta ondasun, bein ere aitzen, bukatzen ta galzen ez diranekin. Emen guti zekien baserritar gaisoak zeruan sartu horduko badaki Elizako Doktore ta gizon jakinsu guziak ikasi zutena baño agitz eta agitz geiago, ta gizon jakinsu ta Doktore beren artean sarturik hitz egiñen du oriek berak bezain garbiro ta ederki edo orien eran.



Emen besteren oinpe gogorrean dabillen ta bekaitza, ez-eskerra ta bidegabenez gain bedegabenza baizik ekusten ez duena zerura ezker, ibilliko da begitarte ona, onginaiezko hitza ta nai bezalako ongi-etorria baizik ezin dagikeen zori oneko doatsu bizien artean, ta orien ezpanetik adituko ditu adi ditzakeen zori on ta bere laudanz guziak. Emen bere seme ona, senarra edo ongi nai zion edozein beste galdu ta negarrez beterik gelditu zenak an arkituko du bere atsegin ezin esangarriarekin hura bera, ta arkituko du milletan obetua ta beraren guztizko maitari egiña ta aren aotik adituko ditu sekulan usteko etzituen hitz leunak eta eskerrak, eta elkarren aldetik kendu bage biziko dira beti ta sekulan ta negar-gai berrien biderik ekusten ez dutela.

Emen eriotzak len edo gero kenzen dio bakoitzari duen guzia, bai ta bere osasuna ta gorputza ere; baña zeruko etxeratzen diranendako ez da erio lapurrik, ez eta ebasle gaiztorik ere: *et mors ultra non erit*, eta biziko dira an aratzen diranak osasun osoan ta berak ain duten gisan. Onenat ditu Jangoikoak dituen ondasun ta atsegin guziak eta oriek arzeko prest arkitzen diranak artu-alak arzen dituzte bereala beren Jangoiko emalleagandik. Mundu galdu hau bekatutegi galgarria da, ta anitz eta anitz dira munduan oriek arzeko prestatu nai gabez galzen dituzten eroak; bada ez dute oriek, ziñez beinzat, prestatu nai bekatu guzian bide galgarria uzteko asmo on bat artu artean; bekatu gaiztoak eta bekaturako bideak utzi naia da alabaña prestanz onen asier ta askunza.

Beste fededunak arzen dute bekatua utzi ta onzeko zerbait asmo ta nolerebait onzen ere badira; baña ez osoki ta beren uts andi-txiki guziak uzteko diña; bada bekatu andiak utziagatik, egiten dituzte zenbait txiki; gordinzen dira zerbait, nai ez duten gauzaren bat ekusi edo aditu ta; ta behar ez den hitz bat esaten bazaie, eranzuten dute bestea ta egiten dituzte era bereko beste gauzak ere, ta gauz oriek usket andi-larriak ez izanagatik, Jangoikoaren ondasun andien galgarri gaiztoak dira. Eta egiten dituzten otoiitz, konfesio ta beste gauz onetan ere izaten dituzte beren nagi-aldiak eta beste uts txikiak; bada «ona ere uts orietan zazpi aldiz edo askotan sarzen da», dio Espiritu Santuak: *septies in die cadit justus* (Prov. 16,24); ta uts edo bekatu oriek ere galerazten dute Jangoikoaren zenbait ondasun zati.

Beste zatiak galerazten dituzte etxeko nagusi ta erriko kargudunen bekatu gaiztoak; bada orien bekatu oriek gatik ezipalitz, ematen diena baño grazi-lagunz eta ondasun geiago emanen lieke Jangoiko maitagarriak orien beren itxeko, erriko edo beste orien, gauz galgarri gaiztoen ekusle goikoei. Bekaturik ez duen zeruko itxea da Jangoikoaren ondasun

osoen ta atseginz andi garbien toki egokia, ta ematen diezte Jangoikoak bere itxetiar zori oneko guziei neurrik bage bezala ta bakoitzak duen graziarekin artu-al guzia; bada ara baño len utzi zituzten emen penitentiz edo purgatorioko suan nekez ta penaz egin zituzten bekatu guzien zorrak eta zakarrak, eta utsa ta ongi garbia eramane zuten zerura beren animako atsegin-onzi biotza eta oriei ori agitz beterik utzi die an Jangoikoak eta beti daduka gañeraño betea; bada zeruko guziak atseginzak edaten ta edaten hariagatik, beti-beti atseginz berriz beterik arkituko da orien animako onzi guzia; aitzen ta agorzen ez den atseginzko iturri bizia da alabaña Jangoikoa; ta iturri, ango doatsu bakoitzari edan-al-din atseginz puntu oro ta beti ematen diona; ta ematen dio, atseginz edaleari gaitzik egiten ez diona; ta edate, edan-aldian edan-nai garbi berriak ematen dituena; edate, edaten ta edaten eternidade guzian egonagatik, asperzen ez duena; ta edate, atseginz, Jangoikoaren amore goxoz edale bera zori oneko zorakunz batean beti-beti idukiko duena. Hau guzia da Jangoikoak Daviden kantaz bein guri adirazia: *inebriabuntur ab ubertate domus tuae; torrente voluptatis tuae potabis eos, quoniam apud te est fons vitae* (Ps. 35,9).

Naiz Ama Birjin berari, naiz aingeru oni, nai beste bati, naiz aldi batean anitzi hitz eginagatik, naiz Patriark santuen, Profet jakinsuen, Apostol jaunen, Martir ta zeruko beste guzien artean sartu ta bataren ta bestearen zori onak, hitz leunak eta eztizko jolas garbiak aditzen egonagatik, ez du bein ere bere begitik galduko Jangoiko maitagarria, ta Jangoikoa ekuste hau aski du adirazi ditugun atseginz guziak arzeko; ta Jangoikoaren ta zeruko guzien ekuste ederrak, hitz leun-meak eta begitarte ezin egoki obeagoak ematen dioten atseginz eta poz ezin adirazgarri guziarekin ibilliko da zeruko etxetiar edozein, poz utsez zer egin ez dakiela. Ala dabillega joanen zaizka urteak eta urteak eta milaka ta milloika izanagatik joan zaizkanak, guziak idurizko zaizka atzoko eguna bezain laburrak, eta hau bera agituko zaio eunka ta millaka ta mill-milloika urteak an era berean egin ta ere; ta arte guzian ta beti arkituko da asperzen, neketzen ez dela ta enoiu pitsik bage, ta beti-beti izanen du an illunzik ez duen atseginza, oñazerik bageko osasuna, zarzerik ekusiko ez duen gaztenza, laburzen ez den edertasunan, ozten ez den maitanza, epelzen ez den atseginza ta poza ta nai duen beste guzia, esaten du S. Augustiñek (Soliloq. c. 35).

Orra, bada, nolakoa zeruko jauregi, etxe ta erri ederra! Orra zein andi-jaunak eta onak ango etxetar lagunak eta orra nolakoa ta zein irau-le berdin-betikoa ango atseginz zuri garbia! Nork ez du, bada, sartu



naiko hau bezain etxe aberats betiko atsegindun batean! Behar bezalako orien berririk gogoan ez duen bekatari eroak. A, nere Jesus maitea; ta ez ote naz ni ero ori bera edo orren lagun izandu nazana! Ez ote naz ni gaurdanik zenzatuko, geiago luzatu bage arzeko ara daraman bide zuzena ta bizitza? Bai, Jesus maitagarria, bai, zuk sendorki lagunzen didazula. Lagun zakizkit, bada; bai arren, bai.

XXII Garizumaren irugarren igandeko irakurraldia

*Et cum eiecisset demonium, locutus est mutus. Et
fiunt novissima hominis illius pejora prioribus.*

Luc. 11.

**Gaia: Gaizki konfesatzeko bidea da
gutitan ta bakan konfesatzea**

Anitz gauz andi egiten zituen Jesusek emen beharsu gaisoen onerako, bada onez eskatu ezkeru ematen zien osasuna sukarrez erretzen zenari, perlesiz elbarrituari ta gaitzez galduari; ematen zien begi-ekusle ederra itsu oni, ari ta beste anitzi; bai ta bestek eskatu ta, edo eskatu ere bage, bizia illik zetzanari, obian erdi usteldurik zegonari; eta egiten zituen era bereko beste anitz on ta milagro ta orietatik da egungo Ebanjelio santuak dakarrena.

Ekarri zioten bein senda zezan gizon mutu, mututzat guziak ezagutzen zuten bat. Deabruturik arkitzen zen gizon hau ta bere barrenean zuen deabru gaiztoak kendu zion hitza ta iduki zuen luzaro mututua ta behar zuen hitz-bidea eman zion Jesus maitagarriak argandik urrunduz deabru gaizto mutaria, ta hau ark egin ta asi zen hitz egiten mutu gaisoa ta hitz egin zuen ekusten zutenak arriturik uzten zituela.

Deabru gaiztoak mututua daduka lotsaz ta alkez bere bekatu egiñak konfesariari agerzen ez diozkan edozein gizon ta andreki, ta Jangoikoak lagunzen diola aienatzen ezpadu deabrutzar alkegin hau, gero ere mututua ta galdua ibilliko da bekatari gaisoa; baña hura aienatu ta damuz betetik aitorzen ta agerzen badiozka, hitz egiñen du Jangoiko barkaleari esker emateko, ongi dagokan guzia eskatzeko ta zeruko guziak atseginz andiz beteak uzteko; bada, Kristo Jaunak dionaz, gis onetako bekatari bat ondurik ekusi ta, larogei ta emeretzi on ekusi ta baño atseginz geiago arzen dute zerutar guziak.

Kristo Jaunak sendatu zuen mutu hau etzen berriz mututu, baña konfesatzen diran bekatari mutu guziak ez dira betiko hitzdun gelditzen ta berriz bekatara bage bizitzen; anitz eta geienak berriz ta berriz ere



bekaturatzen dira ta deabru mutuari egiten diote beren animan berriro zori gaiztoko toki, ta gutik ez, betiko toki; ta hau da gaurko Ebanjelio berean ekusten dugun gauza.

Deabru gaizto Jesusek urrun-aienatuak ez du bere lan galgarriako bazter agorra baizik arkitu oi ta itzulzen da, dio Ebanjeli santuak, leneko bere itxe-animara. Arkitzen du hau konfesioz jautu-garbitua ta graziz ta birtutez apaindua ta bakarrik an sartuko ez delako beldurrarekin edo sartu ta an obeki gogoturik gelditu naiez, joaten da lagunena billa, arzen ditu zazpi bera baño sendor-gaiztoagoak eta sartu ta egiten dira itxetar betiko, ta gelditzen da anima gaisoa bekatur berriro mututua ta len baño ere agitz galduagoa: *et fiunt novissima hominis illius pejora prioribus*.

Nola, bada, berriro esanen dezu, deabruaren atzapar gaiztoratzen dira aren atzapar galgarritik bein iges egin zuten gaisoak? Leneko beren aztur gaiztoak eta gaitzerako makurzak berak nai ta azpiratzen dituela. Zergatik ez dira, diozu, berriz konfesioz andik ater-irteten? Zeren kontent arkitzen diran beren bekatuaren loan ta ibiller makurrean ta, konfesatzen badira, konfesatzen diran bakan-bakan ta berandutik berandura ta orregatik gaizki; bada gaizki konfesatzeko ta deabruaren atzapar gaiztoan gelditzeko bidea da berandutik berandura konfesatzea, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

§ I.

Izandu dira bekatar denbor luzean ez konfesatzeko mututurik egondu diranak, baño len konfesatu ezker, berriz mututzen edo bekatutatzen ez diranak. Orietatik dira neskatz len agitz galdu bat eta David errege. Neskatzaren berria ematen digu Kardenal Vitriaco deritzan gizon andiak eta David erregerena Eskritura santak.

Neskatz onek, Kardenal jaunak dionaz, egin zuen bere anaiarekin lan behargabeko gaizto bat. Izandu zuten lan onen berria neskatz beraren ait-amak. Eman zioten erriertan zegokan bezala bein amak eta gero aitak. Neskak, egiñaz damuturik eta negarrez gelditu beharrean, egin zuen beste lan gaiztoago bat; bada bere eskuz ito zuen ama gaisoa ta aitari, lo zetzala, kendu zion bizia ta burua, ta berea galzeko beldurrez joan zen errietik igesi ta bizitu zen anitz urtez ezin gaizkiago ta egin ta eragin zituen bere buruan ille diña bekatu ta geiago.

Orrenbat gaiztakeriren buruan sartu zen elizan ta aditu zuen predikari bat, norañokoa den Jangoikoaren urrikalza ta miserikordia klaratzen ta agerzen hari zena. Aditu zuen garaitzen dituela, dituen bezala, egin diran ta egin litezken bekatu guziak eta artu zuen bereen damu andi bat, bai ta orienpetik bere burua ateratzeko uste osoa ere. Billatu zuen predikari bera konfestegi berean ta esan zion: Orain ekusiko dut zuk esan dezun bezain andia den Jangoikoaren urrikalza ta miserikordia. Agertu ziozkan konfesioz lenbizitik azkeneraño egin zituen bekatu zikin izugarri andi ta txiki guziak eta eskatu zion zegoten penitenzi ta neke guzia.

Konfesarriak artu zuen bere denbora ekusteko zein ote zen eman behar zion penitentzia ta esan zion itzul zedilla urrengo eguneko prediku ta sermoira. Baña etzen hura eliztik atera ta an egondu zen ongi-ongi ekusten bere bekatu gaiztoen itsustasuna ta bekatu berekin aserretu zuen Jangoiko guztiz onaren maitagarza, bai ta irabazi zuen sulezeko neke izugarria ere. Orien orrenbat ekusterekin artu zuen damu agitz andia, ta artu zuen damuak kendu zion an bertan bizia ta bekatu berritarako bidea. Hura ala arkitu ta igan zen urrengo egunean bere pulpitora predikaria ta eskatu zituen ill berriaren alde an arkitzen ziranen otoitzak. Baña ark hau esan horduko aditu zuen zerutik: «Ez du ill berriak otoitz beharrik; berak badakike otoitz zuen alde, bada ill ta bereala zeruan sartu da» (Apud Mazarin. Miserere disc. 11). Orra neskatz damu onez onduarena.

David gizon ezkonduak zikindu zuen bere ta besteren ezkonza. Bere bekatu zikinlea estali naiez artu zuen bein bide bat eta gero bestea. Lenbiziko bidea etzen artako bide makurra, baño etzuen artaz erditsi nai zuena. Artu zuen gero beste gaizto bat eta hau zen, andre bekatudunaren senarra, ezpaliz bezala ta nior ohartu bage, gerra bizian illik uztea. Onen eriotzarekin estali zuen munduaren begietan bere gaiztaginza ta Jangoikoak begirik ezpalu bezain lasai etzandu zen zenbait denboraz bere bekatuaren oatze gaiztoan lo.

Gaistagin artara arte guzian gauz anitz on egin zituen Davidek eta artaz urrikaldurik igorri zion Jangoikoak Profeta Nathan bere lo gaiztoa galeraztera; ta galerazi zion agertuz bein bere aranzatik Israelko errege egin arte guzian ta geroz Jangoikoari zor ziona ta gero bere bekatuaren itsustasuna ta Jangoikoarekiko esker-gabenz gaiztoa. Hau ekusi ta arritu zen David eta bere bekatu galgarriaren ta Jangoiko maitea aserretu zuelako damuarekin aitortu ta konfesatu zuen bere gaiztaginz guzia ta esan zuen: «Galdu dut bekatuz nere Jangoikoa»: *peccavi Domino*, esan zuen ark ziñez ta Jangoikoaganako amore guztiz andiarekin ta bat-batean erditsi zuen Jangoiko urrikalt onagandik bere gaiztaginz guziaren barkanz osoa



ta aditu zuen Nathan Profeta beragandik: «Jangoikoak ere zure urriki ta damu andia ekusi ta barkatu du zure bekatua ta etzara galduko orain-dañoako zere langiro gaiztoak gatik»: *Dominus quoque trantulit peccatum tuum: non morieris* (2 Reg. 12,13).

§ II.

Zergatik egiten ez dute hau bera beren bekatu gaiztoak konfesatzen dituzten beste guziak, edo zergatik bein ongi konfesatu ta ere, berriz ta berriz bekaturatzen dira anbat eta anbat? Zeren ez bekaturatzeko egiten ez duten Davidek egiña ta zeren, berriz bekatura ta, mugaz, ta laster arzen ez duten konfesio berriko sendagaia edo soka.

Bai, konfesatu ta berriz bekaturatzen diran anitz artaratzen dira egin gabez ez artaratzeko Davidek egiña. Badakizu zer den Davidek berriz ez bekaturatzeko egiten zuena? Negar ta negar len egiñaz ta lengo bere bekatuarekin Jangoiko guztiz on maitagarria aserretuz, ta orretarako beti bere bekatua begitan arturik idukitzea: *peccatum meum contra me est semper* (Ps. 50,5); bere bekatua askotan ekusiz ta penaz beterik bizitzea: *non est sanitas in carne mea a facie insipientiae meae* (Ps. 37,4); penitentzia ta penitentzi egitea ta autsa ogitzat jatea: *cinerem tanquam panem manducabam* (Ps. 101,10); ta bere Jangoiko maitagarria noizbait galdu zuelako naigabez beterik eta berriz galzeko beldurrez humilturik bizitzea: *afflictus, et humiliatus sum nimis* (Ps. 37,9).

Orra Davidek berriz ez bekaturatzeko egiten zuena; ta orra gu ere, guk hau egiten bagenu, bekatu berritik urrun-eraziko ginduzken gauza, bai ta hau guzia ez eginagatik, orren zati on bat egiten bagenu ere. Baña ez dute orrelako trab onik artu nai konfesatzen diran geienak edo bein-zat anitzek; bada oriek nai dutena da konfesatu ezkerok sekulan bekatu egin ezpañute bezain lasai bizitzea, leneko beren ibiller galgarrira edo perillezkora itzulzea, len egiten zituzten gañezko jan-edanak eta jostaket makurrak egitea ta aragi loi situak eskatzen dituen atseginzak arzea ta gis orretan dabilena aisa ta laster berriz ere bekaturatzen da; ta bekaturatzen, egin nai gabez Davidek ez bekaturatzeko egiten zuenaren erdia ta laurdena ere.

Hau egiten dutenak edo era onetan dabilzanak bekatuko putzuan dautza edo putzuaren inguru-ezpane lasterka dabilza ta fite ta laster putzurako dira. Bekatuaren putzutik Jangoikoak David bere urrikalzaren

esku atera zuenetik, etzen urbildu bekatu putzura edo bekat-bidera ta okasiora, ta ara ez urbilzeko, trabatu zuen bere burua ta trabatu bekatuaren damuz, gorputzaren nekez, baruz ta penitentsiz, bai ta Jangoikoaren amorezko lokarriz ere, ta orrekin etzen berriz bekatu putzuan ondatu. Baña ondatzen dira trabarik bage bekatu bideratzen diranak edo bekatuaren putzu gañean arinki dabilzanak eta gertakizunera begiratzen ez dutenak, eta gis orrelako gaiztagiñak dira orain guk ekusiko ditugunak.

§ III.

Zori gaiztoko animak dira ongi konfesatu ondoan beren naiez, lasakeriz ta itsuki ibiliz berriro bekatuaren putzuan ondazen diranak; bada ortik atera bage ilzen badira, beti-betiko galduak dira, ta beren naiez putzu izugarri orretaratzen diranak, ortik berez ezin atera ditezkenak dira. Ortik oriek atera ditzakena bakar bakarrik Jangoiko alsua da; baña Jangoikoak oriek ortik ateratzeko eskatu behar diote mugaz, garai onean ta anitz luzatu bage konfesioko soka ta, hau ezin bada, onezko damu kontrizioa, bitarte perillezkoan bekatu berrien urez bete ta erio gaiztoz ito ez ditezen; ta hau da konfesatu ta bekaturatzen diran anitzek egiten ez dutena; bada beranzen dute beren bekatu berria konfesatzea ta arte artan bekatu berriz ta berriz betetzen dira, egarduna urez bezala: *bibit quasi aquam iniquitatem* (Is. 15,16), ta azkenean neurririk bageko ur-edalea ur-betez ta gorputzeko hidropesiz bezala, animako edanz gaiztoz galzen da bekataria. Ur geiegi edanez anditzen asi den eriak edari gutirekin edo bat ere bage ta jateko idorrek arzen dituela bizi behar luke; baña al duen guzian edaten ta edaten hari da; bere edanz guziarekin egiten duena da egarri andia ill ez, baizik berotu, berritu ta sutzea, ta denbor berean bere barreneko bero beste gauzetako behar duena galduz ta galduz bukatzea ta bere burua illik uztea. Hau bera da bere aragi situaren ta pasione galgarri gaiztoen egarriarekin bekatu berrien putzuratzen denari agitzen zaiona; bekatuz beteago ta egardunago arkitzea ta bekatupetik eta putzutik ateratzeko aldian indar gutiagorekin ta flaki andiagooz beterik gelditzea.

Konfesatu ta bekatuaren putzuratzen deneko egin behar lukena da edate berriak uztea ta an itorik ez gelditzeko igeri ta igeri bere besoak eta gorputz guzia nekatuz urgaña ez galzea, ta emengo putzuratzen denak egiten duen gisan oju ta oju egitea ta Jangoikoari bere eskua ta konfesio-



ko soka eskatzea; baña ori egin ez ta isillik eta geldirik bere bekatuaren putzuan badatza, agituko zaio ur-putzuan hau egiten duenari gertatzen zaiona.

Badakizu zer gertatzen zaion ur-putzuan erori ta geldirik eta isillik dagonari? Sok-emallerik edo beste bideren batez hura andik atera lezakenik an ez agerzea ta bitarte artan hura bere gorputzaren astuntasunarekin urpean sarzea, asnasea ezin idukiz asnaska asitzea, artu ta laster botatzen ez den ura arzea, urez betea ta aize aringarririk bage gelditzea ta aringarririk ez duen arri baten gisan ondora joatea ta itorik an gelditzea.

Era onetan, bada, bekatuaren putzuratzen den bekataria geldirik an ta isillik egoten bada, bekatu berrien edari astuna arzen ta arzen hariko da; bada damuz ta konfesioz kenzen ez den bekatuak, bekatu berriaren urperatzen du bekataria ta edanerazten dio bestea, dio S. Thomasek: *peccatum, quod per paenitentiam non diluitur, suo postmodum pondere in aliud trahit*. Bekatu biak errazkiago egiten dute hau irugarrena eragiteko ta irurak laugarrena ta urrengo guziak, eta aldian bekatari bekatu-putzuan isillik eta konfesatu bage datzana arkitzen da bekatutan ondatuagoa ta ater-bide guztiz gaiztoagoan geiago sartua.

Bere pasioneen egarri gaiztoak eramaten du bekataria edate gaizto ondagarri onetara, baña ez dira oriek bekatariaren egarria ilzen duten edariak; egarri hau ilzen edo kenzen dutenak dira Jesus maitagarriaren iturrian ta Elizako sakramentu andietan arkitzen diran graziko edari onak edo edari grazidunak, eta orietara zuzenzen gaitu Jangoikoak Isaiasen ezañez esaten digun aldian: «Zoazte ur eske Salbadorearen iturri egokietara»: *haurietis aquas de fontibus Salvatoris* (Is. 12,3).

Baña bakan konfesatzen ta bekatuaren putzuratzen diranak eta beren besoak eta gorputza baruzko igeriz, otoitzez, Mezak enzutez, alda-re bostak ekusiz, ziliziozko hilduraz, limosnak egiñez, joko, edantegi ta perillezko beste bazterrak eta era bereko gauzak utziz nekatu nai ez dituztenak, ez dira sakramentuen iturriko ur zale ta hau utzi ta itzulzen dira beren pasione egardunak nai dituzten edate zikin galgarri gaiztoetara ta beren bekatuaren putzu berean egiten dituzte edate ta edate gaiztoak eta bein edo berriz andik ateratzera egiñagatik edo urtean bein edo berriz konfesatuagatik bertan gelditzen dira edo berriz ere beren bekatuaren putzu berrerazten dira ta azkeneko beren konfesaldian agitzen zaie urez bete den ta azken-azkenean arkitzen den gizonari gañetik botatzen dioten soka-puntarekin gertatzen zaiona, edo hura artu ta idukitze-ko indarrrik bagez an hura utzi ta putzu ondora itorik jaistea; bada, zeren bere bekatu galgarriaren ur gaiztoak erdi itoa ta zeruko indar gutirekin

dadukan, etzaio behar bezalako damuz konfesioko sokari itsasten edo joaten zaio hau eskutik eta konfesatzen da besteetan bezala edo gaizkiago ta itotzen ta ondatzen da sulezeko osin izugarrian. Orra bekatari bakan edo gaizki konfesatu oi denaren bukanza ta akaballa.

Bukanz-akaballaren galdu izugarria! Ta izanen ote da nerea? Hau da beinza ni bezain bakan ta gaizki konfesatzen denari dagokana. Baña ez arren, Jesus maitagarria! Besterik izanen da emendik aitzina. Nere bekatu gaiztoen damu Davidenaren erako bat arturik konfesatuko dituz guziak eta berriz ez bekaturatzeko David beraren eran biziko naz bekaturako beldur andiarekin ta maiz-maiz ta askotan konfesatzen nazala. Indazu, bada, onetarako ta zin-ziñez zu maitatzen zaitudala bizitzeko grazia. Bai arren, bai.



XXIII

Garizumaren

laugarren igandeko irakurraldia

*Sequebatur eum multitudo magna, quia videbant
signa, quae faciebat.* Ioan. 6.

Gaia: Agitz urrikalgarriak dira
purgategiko animak
ango beren neke-tormentu andiak gatik

Kristo Jaunak ekusi zuen gizartean gizarte berean beste geienak ekusi oi dutena, bada ekusi zuen eskergabenez andia. Milagroz Jesusek bazterrak betetzen zituen aldian ta agerzen zituzten eri guziak sendatzen zebillen denboran bere aldetik ezin kendu zituen zerraizkon jende-gizonak; eta erriak utzi ta mendira igaten zenean ere, an zituen bere ondoren milka oriek. Hau da egungo Ebanjelio santuan ekusten duguna.

Milagro orietatik zenbait egin zituen batez igan zen Jesus mendi batera ta jarri zen an bere eskolar Apostol onekin atsedeten bezala. Begiratu zuen andik azpiko aldera ta ekusi zituen argana zetozen jenda-saill andiak, eta mendi egalera jaitsirik, Ebanjelio beraren bukanzak adirazten duenaz, (j)arrerazi zituen belar gain eder batean eta ekusirik urrutitik etorri zirala ta etzekartela behar zuten jan-edana, egin zuen bereetatik bat eta eman zien jatera nai diña bost milla gizoni bezala, (anbat ziran etorri ziran gizonak berak: *numero quasi quinque millia*); ta eman, mutil batek eraman zituen bost ogi ta bi arrairekin besterik bage, ta bost ogietatik, ere nai zuten guzia guziak jan ta gelditu ziran puskanitz; bada gelditu ziran puskekin bete ziran amabi saski, ta bost millak joan ondoan gelditu ziran oriei jaten emateko Jesusek eskuan artu zituen bost ogiak bezalako ogei ta geiago.

Gauza arrigarri ta milagro hau ekusi ta, arritu ziran Jesusen ogitik jan zutenak eta asi ziran aitzinerako beren neurri zenbait arzen. Uste zuten, Jangoikoak artako hitz eman ta, Mesias bat, eta Mesias hau, orien ustez, izanen zen ondasunez ta zori onez bete behar zituen gizon ta erro-matar guzien eskutik aterako zituen erregea ta len egiten zituen gauz andiak eta aldi artako milagro hau ekusi ta, asi ziran esaten: «Gizon hau

da guk uste genuen Mesias edo Profeta»; ta esaten zuten Jesus bera, berak nai ta ez, beren erregetzat artu behar zutela, ta artu zuten asmo hau beren onagatik eta zituzten neke gogorrek utzi ta on ta ondasun andiak Jesusen eskutik artu naiez.

Orra Jesusek ekusten zuena onez ta milagroz bazterrak betetzen zituen denboran: bere ondoan ta berari zerraikola munduko guziak. Baña gero bere lanerako artu behar zuen bide agorra artu zuen aldian? A, horduan ez, baizik orien beren eskerbagenz gaiztoa ta bere bakartasuna.

Jesusek mundura ekarri zuen lana zen bekatupe gogor galdutik gu ateratzea; ta gu ateratzea bere neke ta izerdi andiekin, bere Pasioneko odol isurze ta tormentu guziekin ta gurutze batean ilzez, flakiz ta oñazez bizia kenduko zion eriotz gogorrarekin, ta era onetan gu ateratzeko utzi behar zituen len bere Jangoikonza agertzeko egiten zituen gauz andiak eta milagro guziak; bada milagroka asi baliz bere Pasioko denboran, bel-durtu ta izutuko ziran beraren juezak eta borrero gogorrek eta etziran Jesus listuz ta golpez betetzera, Jesus azotez urratzera ta Jesus gurutze batean ilzez josirik uztera atrebituko, ta etzuen Jesusek egiñen bere lana ta egiteko agitz nekaria; ta osoki ark hau egiteko geldirik iduki zuen bere esku milagraria ta utzi zuen bere burua bere etsaien eskuan ta horduan ekusi zuen bere Apostol ta kasi beste guzien eskergabenza; bada bere etsaiak Jesus lotu zuteneko, hura utzi ta iges joan ziran Apostol guziak eta beste guzietatik agitz guti izandu ziran argana geroz ill arte guzian urbildu ziranak.

Orra Jesusekin ta beste edozein onekin mundutar gaiztoak egiten dutena; jateko ta edateko ta gauzak arzeko guziak aide ta adiskide, baña nekerako ta ari lagunzeko ezagun ere ez. Hau bera da purgategiko gaiso-ekin ere geien-geienak egiten dutena. Orietatik bat izan etzaitzen, ager-tu nai dizkitzut gaur purgategi bereko zenbait neke ta pena.

§ I.

Purgategi-purgatorioa anim fededunen garbitegi sutua da, baña bekatu txikirik baizik edo andi barkatu gabarik beinatz ez duten anime-na. Animen garbitegi Purgatorio hau lurpean arkitzen da ta beti-beti arkitzen da su izugarritz bete, beste aldi batez ekusi genuen bezala. Baña garbitzen dauden anim guziak ez dira an bertan beti garbitzen; garbitzen dira zenbait, garbinz-gaia egin zuten toki bazterrean.



Bernardino del Busto deritzan gizon jangoikotar batek, berak diot, izandu zuen Bartholome zeritzan anai txiki bat. Ill zen hau zorri urte zitueneke. Hura etziten zen gelan zeutzanak aditzen zuten lenbiziko arratsetik aur ill hau an bertan esaten *Aita gurea* ta beste otoitzak. Beldurtu ziran guziak eta urrengo arratsean sartu zituzten gela berean beste lagunak eta gelditu ziran beren argiarekin. Etziteko ta otoitzak esateko hordua etorri zeneko, ekusi etzuten batek aizez itzali ta emendatu zuen argia ta asi zen lenagoko arratsean bezala bere otoitzak egiten ta hau bera agi-gertatu zen beste zenbait arratsez ere ta gero ez. Aditu zuten guziak ezagutzen zuten hitza, ta hitza zen aur ill berriarena ta izandu zuen onek an bere purgategia, zeren an egin zituen bere bekatu txikiak eta bekatu oriek, beraren anaiak dionaz, ziran arratsetan etzin baño len otoitzak ez esan naia edo gaizki esatea (Part. 2 Ser. 2 del Rosar.).

Baña lur gañean beren garbitegi-purgatorioa dutenak ere berekin dute azpiko purgategiko sua. Vormaciako toki zabal batean arrats oro agerzen ziran gerrako gizonen ainzurako zaldizko zenbait eta batak batek eta besteak bestetik atera ta agertu horduko, elkarganatzen ziran lasterka etsai amurratu zenbaiten eran ta an zebilzan ezpataka ta lanzaka ta al zuten gisan elkar ill behar zutenak ziruditela. Bazter artan bizi zen eremutar bat eta zenbait lagun artu ta ara zen bein gauz hura zer zen ekusi ta ikasi naizik, eta agertu ziraneko Jangoikoaren izenean galdetu zien nor ziran ta zer zen zekarten egitekoa. «Gu gara», eranzun zioten, «probinzi onetan soldadu izandu giñan zenbait eta emen egin genituen ta konfesioz barkatu ziran gure kulp eta bekatu guzien zorrak ateratzen gabilzanak. Gure azpiko zaldiak, eskuko armak eta gerekin dakargun guzia purgatorioko sua ta garra da»: *quidquid enim gestamus, ignis est*, «ta itxura onetan dakargu bekatu berak egin genituen bidez orien zorrak atera behar dirala adirazteko» (Tritem. chronic. an 1098).

Eta orra, balizake bekatuagatik itxe berean purgatorioa duten zenbait animak eta berekin dakarten purgategiko suak eragiñak diran zenbait itxetan noizbait aditzen diran soñu, ots eta eskanbillak, eta eskanbil-soñu ta ots aditzen ta ikasten dituztenen otoitzak, mezak, barurak eta purgategiko zorrak ateratzeko diran beste lagunak eskatzeko. Zer gerta ere, ez ukatu oriei edo purgatorioko gaisoen izenean eskatzen dizkitzuten aingeru onei zeren lagunz oriek; bada on izain dira, beste bidez datozenak badira, eskanbill orien oriek egile gaiztoak ortik aienatzeko ere.

Gañerako fededun illen anim zordunak lurpeko presondegia dute purgatorio ta garbitegi. Batetik bestera dabilken batenzat neke andia da toki batean beti preso ta loturik egon beharra, urrezko presondegi eder

batean balego ere, ta purgatorioko ersi-mearrean dauden animak balebilzke Jangoikoak an lotuak ezpaleduzka (nola, uste dezu?) aize bizia baño agitz biziroago; bada balebilzke, Jangoikoak utzi ezker, eguzkia agerzen den bazterretik aren gorde-tokiraño; bai ta emendik zeru bereiraño ere zure begia bezain laster, ais eta ariñ. Bada beren gorputz nagi astunean dautzanean ere presondegi batek naigabetzen baditu animak, zenbat eta zenbat naigabetuko du gorputzik bage ta arintasun uts egiñik arkitzen den aldian ta arkitzen den denboran purgatorioa bezain presondegi estu, mear, illun, izugarri sutuan?

§ II.

Presondegi edozein presondegi da, presondegian izanagatik batek illezko ta maidirezko ta mantazko bere oatzea ta oatzean lo egiteko denbora; ta denbor berean izanagatik batetik bestera ibilzeko ta zutik edo jarririk egoteko toki ta hastia; zer presondegi izanen da, bada, purgatoriokoa? Purgatorioan alabaña ez da orrelakorik, ez da sua ta sua besterik, eta sua, dakizun bezala, lo egiteko (animak lo egin albaleza ere) oi-oatze gaiztoa da ta ez da ibiltegi edo atsedentoki ohea, batez ere purgatorioko sua.

Zer su dela uste dezu purgatorioko su hau? Infernuko su bera, zenbaitak esaten dutenaz, edo infernu berekoa bezain bizi, bero, erretzallea; ta su, bere labean edo sutegian ta sutegi edo labe aorik, zulorik edo zirriturik ere ez duen batean sartua; ta su, berez beti-beti ta era batean ta berdin erretzen duena.

Ango su orren erretz hau zer erretze den ekusteko, ekus dezagun emengo suak ere ersi-estuturik arkitzen den aldian egiten duena. Eskopet batean sarzen den polbor piskak sua arzen duen ezdabaidan aienatzen du egontegia kenzen dion bala, ta balak daraman indarrarekin, berunezkoa izanagatik, batzen badu bidean gizon bat, urratzen diozka aragi-ezurak eta igarotzen du batetik bestera. Eskopeta baño andiagoa da sutunba edo pieza, ta sutunbak edo artilleriak duen karga edo polbora sutzen zaionean, botatzen du ogei ta lau librako bala legu-erdi ta urratzen ditu bidean batzen dituen paretak, aritzak edo beste gauzak. Sutunb onen erdirik ez da luzez, zabaltxeago badere, mortero deritzan gerrako arrazmodu bat, eta sarzen badiote dagokan polbora ta polbor gañean bere bonba, naiz dela laur edo bost kintalekoa, polborari sua eman horduko tiratzen du odei aldera ta agitz urrutik, ta bonbak bere erortokian urra-



tzen du itxea, eliza edo azpian arzen duen gauza, ta berekin daraman metxaren suak barraneko polbora ukitu horduko, lertu ta bazterretara banatzen da bera ta zati bakoitzak erdi bi egiten du bidean arkitzen duena.

Guzia baño ere geiago da esatera noan gauza. Zula bedi azpitik murru edo murall luze lodi bat edo aitz andi bat; bete bekio polbor estutuz zuloa ta eman bekio sua; suak polbora ukitu horduko aize gañean ekusiko dituzu, txori egin balira bezala, aitz eta murru izugarria. Zergatik hau guzia? Zeren suak, non nai arki, eskatzen duen bere ater-bidea ta bazterrak urratu nai dituen bide hau arkitu arte guzian; bada purgatorio-ko suak ezpadu, ez duen bezala, ater-biderik eta sarturik arkitzen bada, arkitzen den gisan, ango anima bakoitzaren barren guzian zer neke-erretzak eta zer oñaze latz-gogor-miñak izan behar ditu an anima gaisoak; bada duen su ta gar guzia beraren barrenean arretzen ta egosten dagon su-garra da.

Noraño-ko gauzak diran animaren ango erretz eta oñaze oriek obeki jakiteko jakin behar dezu purgategiko suaren aldean emengo suak, anitzek dionez, su itzalak dirala; bada ango suaren itzal onek erretzen badu dakigun diña ta egiten baditu ekusi ditugun gauzak, zer gauzak eta zer erretzak egiñen ditu su bizia den purgategiko su andiak?

Badakizu zergatik den su itzala purgategiko suaren aldean emengo sua? Zeren berez duen indarra baizik ez duen emengo suak eta angoak duen guzia dezaken Jangoikoak eman nai dion guzia ta ematen dion agitz eta agitz andia. Zein andia?? Adituko dituzun berriak adirazten duten diñakoa.

§ III.

S. Franciscoko, ta S. Domingoko fraide bik eman zioten elkarri lenbiziko ilzen zena biziari agertu ta bere berriak ekartzeko hitza; ill zen S. Franciscokoa ta barazkaltegiko maiak zuzenzen zebillela, agertu ta esan zion S. Domingokoari garbitegi-purgatorio sutuan arkitzen zela hura. «Baña nola?» galdetu zion fraide biziak. «Bazter guzietatik eta barrendik guztiz errea», eranzun zion illak; eta ari adirazteko zer suz erretzen zen an, pasadan eman zuen eskuz aldakan zegon intxaur-olezko maian golpe bat eta ukitze berean utzi zuen ola barreneraño errea (Del Rio 1. 2, disquis. magic. c. 28, sec. 7).

Berrogei ta amalau urtetaraño hereje bizitu zen Hungarian Juan Clemente zeritzan gizon bat. Herejia utzirik itzuli zen gero Eliz santara ta bizitu zen fededun ona bezala gerozko beste zazpiz; ill ta agertu zekion bein bati ta gero besteei eun aldiraño. Etzuen hitzik esaten, baña ekusten zuten guziak ezagutzen zuten zein zen ta otoitz eskean zettorrela. Ekusi zutenetatik batek esan zion bein: «Siñis dezadan purgategiko suan arkitzen zarala, nolerebait adiraz hau zuk niri». Juan Clementek hau aditu ta egin zuen eskuko heri-behatzez an bere saskian tolestaturik arkitzen zen oial batean gurutz bat eta heri-behatzez oiala ukitu bezain laster heri-behatzeko suak erre zituen oial-tolest guziak ta egiñik gelditu zen saski ondoan gurutzeta. Hau bera eskatu zioten beste batez ta egin zituen era bereko iru gurutze gelan ilzetik zegon ur bedei-onzi batean; ta gurutze, onziaren barreneraño sartu ziranak eta noraño-koa den purgategiko suaren indarra adirazten zutenak. Testigu-anzak arturik klaratu zuen Juan Clemeteren Estrigoniko Arzobispoak egia zela hau guzia ta agertu ta klaratu zuena agitu zen 1640garren urtean.

Beste bidez ere adirazi zaiku purgategiko suaren indar andi hau. Oñaze ta min guztiz arrigarri gogorrek zituen eri batek eta eskatu zion Jangoikoari ziola bertan osasuna edo eriotz ona. Bidaldu zion Jangoikoak aingeru bat esatera min-oñazea zela aldi artan ari zegokana, zeruan gero sarzeko, ta ark emen edo purgategiko suan eraman beharra, ta eraman beharra urte batez emen edo irur egunez purgategiko su andian. Hau aditu ta «Irur egun fite ta laster joaten dira», esan zuen eriak, «ta urte bat emen baño naiago ditut irur egun purgatorio-ko su guzian». Bertan ill ta joan zen purgategira. Hordu bat an egin zueneko uste zuen joan zirala irur egunak eta aingeruaren begira zegon ezbai ta puntu oro; baña beste hordu ta hordu osoak joan ta ere, etzen aingeru ona agertu, ta gero ara zeneko, «Hau zer engañu da?», esan zion aingeruari. «Ill bete ta geiago da ni emen nagola ta irur egun baizik ez nik emen egin beharrak?». «Ez eta egun bat ere», eranzun zion aingeruak, «eta orañdik etzaio lurra eman zure gorputzari». «Zer diozu, nere aingerua? Beraz erakeria da nik egin dudana», esan zuen purgategiko suan erretzen zegonak; «eskatu behar diozu Jangoikoari naramala berriz mundura; bada beste bi egunez emengo suan egon baño naiago dut an egon azken juzganzako eguneraño ere leneko nere neke ta oñaze guzien artean» (Cantimpr. L. 2 Ap. c. 54). Eta Salvatoreko Frai Constantino zeritzan batek purgategitik atera ta agertu ta esan zion beste adiskide bati: «Egiñen nuke juramentu, nere eritiz bai zirala irur urte an egin ditudan irur egun bakarrak» (Baron. an. 1586).



Uzten balio Jangoikoak purgategiko edozeni zuekin egiten Enrique enperadorearekin Pullako Troia deritzan erri bateko mutiltxo zenbaitek egin zutena, ez lukee an ekusiko ekusten duten diña neke ta su. Mutiltxo orien erri Troiako errebelatu gaiztoak etzioten enperadoreari, berarena bazen ere, an sarzen utzi nai. Soldaduz ingurutua ta aren murall sendorrak urratuik zeduzkan enperadoreak eta soldadu guziak ezpatak artuik errian sartu ta erritarren odolez ta ondasunez asetzeko prestaturik arkitzen ziran. Erriko gaisoak hau ekusi ta bildu zituzten sei urtetik amarreaño zituzten mutil txiki guziak; egin behar zutena ongi erakutsi ta erritik bidaldu zituzten enperadorea arkitzen zen toki berera. Joan ziran aurrak negar ta negar ta bularrak okabilka urratzen zituztela ta enperadorearen aldera ziranean, belaunikaturik eta bekoki-kopetekin lurra ukitzen zutela, eskatu zioten, arren, barka zezala orien ait-amen ta erriko beste gaisoen kulp-oben guzia. Oriek era artan ekusi ta urrikaldu zen enperador jauna ta eman ere zien eskatu zioten barkanza ta sartu zen errian erritarrak atsekaberik eman ezpaliote bezain baketi ta ongille.

Purgategiko edozein arkitzen den gisan su ta gar egiña ta oñazez bete agertu ezkeru zure otoitzen, baruren, mezen, aldareak ekuste ta komunioko irabanzen eske, orrekin bere zorrak atera ta zerura igateko, etzenuke bihotzik izanen ari zuk ori ukatzeko; ta gutiago ori zuk ukatuko zeniokie ait-am-hume gaisoei edo beste aide, adiskide ta ezagunei. Eskatzen dizkitzue, bada, an bertatik su izugarritzko negarra dariela. Ez ukatu, arren, nai ezpadezu ori bera zurekin dagiten zure ondorengo beste guziak. Ez arren, ez.

XXIV Garizumaren bostgarren igandeko irakurraldia

Samaritanus es tu, et daemonium habes... Si dixeris, quia non scio eum, similis ero vobis, mendax.

Joan. 8.

Gaia: Gauza zein itsusia den
blasfemia ta gezurra

Judatarren aldetik anitz txarkeri ta bidegabenez ekusi ta aditu zituen Jesusek bere denboran ta ez da txikiena egungo Ebanjeli santuak dakarren aldikoa. «Zuetatik zein da», esaten zien aldi onetan Jesusek, «ez den gauzarik nigandik aditu duena? Baldin bada, bertan betor ni gezurtatzera ta gezurtatzen banau, galdua betiko nere egiteko guzia ta nik esaten dudana. Ez du perillik, ez, orrelakorik zuek niri egitea, (zeren egia den ta ezin uka diteken egia, nigandik zuek aditzen dezuten guzia). Egia bada, bada, aditzen dezutena, zergatik siñesten ez dezute zeren horretan gogortu bage? Jangoikoaren bidez dabillenak aditzen ditu Jangoikoaren hitzak eta ez dituzue aditu nai, zeren deabruaren bidez zabilzanak zarazten zuek».

Jesusen hitz onek agitz mindu zituen judatar mukerrak eta len zeuden baño ere gogortuagoak gelditu ziran ez aditzeko Jesusek agerzen ziena, ta siñetsi lekuan Jesus zela betiko Aitaren Seme bakar Jangoikogizona, esan zioten begiz begi. «Guk siñisten dugun egia da samaritar deabruz bete bat zarala zu». «Ez ori», eranzun zien Jesusek, «ez dut nik deabru gaiztoarekin zer eginik; esaten dudan guzian, zuek uste ezagatik, nere Aitaren honra billatzen dut nik eta siñisten ta egiten bazenuzte nik esaten dudana, illen etzinazke zuek». Orretan esan nai zien biziko zirala beti-beti zeruko glori atsegindunean. Etzuten hau zen gisan aditu ta eranzun zioten: «Ezagun zaitzu deabruturik arkitzen zarala. Ill ziran Abraham ta profeta guziak, eta zu ta zure eskolarrak zarazte zori oneko gizon bein ere ill ez beharrak? Nor zara zu onelako gauzak egiteko?».

«Ni naz», esaten die Jesusek, «honraz betetzen naben betiko Aitaren Semea; ta Seme, adirazten didan guzia egiten dudana; zuek diozute zuen



Jangoikoa dela nere Ait hau, baña ez dezute zuek hura ezagutzen ta zuek bezain gezurtia ninzake, nik esaten banu ezagutzen ez dudala. Nere egunak ekusi nai andiarekin bizitu zen Abraham ta bere etseginz andiarekin ekusi ere zituen». «Zer?», eranzun zioten judatar itsuak; «ez dituzu oraindik berrogei ta amar urte, (bost eun ta agitz geiago da ill zela Abraham) ta al-ere ekusi zenuen zuk Abraham?». Orien erausi hau aditu ta Jangoiko betekoren betiko Seme Jangoikoa zela itsutzarrei berriz adirazteko, esaten die Jesusek: Bai, bai, nazanak bezala esaten dizuet, eta siñes nazakezue: Abraham jaio baño lenagokoa naz ni. Baña guziarekin judatar gogorretatik zer atera zuela uste dezue Jesusek? Leen zeuden bezain gogor-galduak uztea ta Jesusen azkeneko hitz onekin amurratu gaiztoen gisan joan ziran arri eske, arrika Jesusi eman ta blasfemariari bezala bizia kenzeke; baña bitarte artan gorde zen Jesus ta atera ta joan zen elizatik eta utzi zituen judatar itsu gogorrak beren blasfemiz ta gezurrez beteak.

Eta zu ere geldi etzaitezen orien eran ta infernuko su-gai egiña, begitan arrerazi uste dizkitzut blasfemi guziak eta gezurrak, agertuz orretako bateen eta besteen itsustasuna.

§ I.

Gauz itsusia da Erregeri egiten zaion edozein txarkeri, bekaitz edo deshonra, baña egin dakikeon andiena ta kastigurik gogorrena irabazten duena da berari bere begietan egiten zaiona. Manatzen dutenen, jaun ta errege guzien Errege da Jangoikoa; edozein bekatu, Jaun Errege honi egiten zaion txarkeri ta deshonra da; baña beste txarkeri-bekatu ta deshonrak isilka ta atze-gibeletik bezala egiten zaizkanak dira; arpegiz-arpegi egiten zaizkanak dira blasfemi ta era bereko beste zenbait.

Blasfemi izugarria da hitzez, begiz edo nolerebait Jangoiko berari egiten zaion injuri, deshonr eta bidegabenza; ta bidegabenz eta deshonr, ez dagokan gauzaren bat iratsi edo dagokana galerazi nai diona ta ori da judatar gogorrak gaurko Ebanjeli santuan Jesusi egiña; bada hitzez, ekusi degun gisan, ots egin zioten Jesusi samaritar gaizto deabruz betea ta joan ziran gero arrien billa Jesus berari arrika emateko, ta eman nai zioten (izanik hura gizon-Jangoikoa) giza txar blasfemari ta gezurti bati bezala; ta Jangoikoarentzat hau ekusten dezu gauz agitz itsusi-deshonraria dela; da alabaña bere eskupeko galdu bat erabill liteken gisan Jangoiko guztiz hondragarria erabilzea ta alako bati dagozkan kastigu-penak onenzat

bereztea. Hau egiten zuten judatar berak ziran deabru gaiztoaren eskupe galduan arkitzen ziranak eta kastigu-pen agitz gogorrerako bihi ta gai guztiz egokiak; eta alko gaiztoak ziran lurreko beren gauzak galzeko beldurrez ta Jangoikoaren honran ez egin naizik egin behar zuten ta Jesusek esaten ziena; eta etzuten egin nai hau, zeren Eva galduaren eran siñisten zuten deabru gaiztoak hordu berean gogora ematen ziena, ematen bazien ere len Eva zoratuarekin egin zuena bere aldian oriekin egin naiez.

Deabru gaiztoak len eman zion Evari gogora ta hitzez ere adirazi zion aren ta aren senar Adanen gaitzerako zela orien bien ta munduko beste guzien onerako Jangoikoak egin zuen gauza. Oriek biak eta gu guziok bere grazian ta adiskidanzan iduki naiez ta eroaren hitzetara bage zerura guziok eramateko debekatu zion Jangoikoak Adani Paradisuko sagar batetik jatea; ta deabru gaiztoak ari ta guri geren ditz andi hau galezarazi naizik sartu zion gogoan Evari gezur andi bat; bada sartu zion enbidiz ta gaizki naiez zela Jangoikoak egin zien debekanza; «bada ortik jan ezkerro, jaten badezue», esan zion Evari, «izanen zarazte Jangoiko beraren gisako doatsu zori onekoak»: *eritis sicut dii*; «ta Jangoikoak beraren gisako besterik ez ekusi naiez debekatu ta eragotzi dizue jate hau».

Bere errate gezurti gaizto onekin burua arrotu ta eragin zion deabru galduak Evari ta Evaz Adani Jangoikoak debekatu zien jate galgarria ta erditsi zuen nai zuena edo ark nai zuen gisan Jangoikoak biak paradisutik botatzea, ta bien ondorengo guziei arako ta zerurako bidea galezaraztea ta oriei berei ta bidenabar guri guziori len edo gero eriotzaren atzaparretan bizia galeraztea. Era berean, bada, itsutu zituen deabru berak egungo judatar mukerrak, ezagu etzezaten beren Jangoikotzat gure Jesus maitagarria ta Jesus berari esan zerozten mihira zitzaizten blasfemi ta injuri guziak; eta egin zuten egin-ala blasfemariari bezala arrika bizia kendu naizik ta hau guzia eragin zien deabru gaiztoak judatarrei, judatar berei zerua galerazi ta sulezero eraman naizik.

Itsumen berean iduki zituen deabru gaiztoak judatar gogor berak Jesus maite bera gurutzatu ta neke-tormentuz ill-erazi arte guzian, ta art onetan egondu ziran Jesus nekatuari begira ta histaka, eskarnika ta blasfemika. Ekus dezazun zer bekatu-giro den blasfemia ta zein andia blasfemiaren itsumena, milla ta zazpi eun urte ta geiago bad-ere gis hartan Jesusi horduko judatar blasfemari gaiztoak bizia kendu ziotela, egungo eguneraño eskarnioka, histaka, iskirioka ta blasfemika dagozka Jesus Jangoiko berari Franzian, Italian, Alemanian ta arkitzen diran bazter guzietan horduko judatar beren hume ta ondorengo galduak. Orra zer itsunza deabru gaiztoak blasfemariari buruan sarzen diona ta orra beka-



tu zein arrigarria blasfemia ta Jangoikoari dagokan honra eman ez, ta ez dagozkan itsuskeri zikin loiak esatea. Hau anitz fededun gaiztok ere egiten duten gauza da.

Badakizu zeintsu diran oriek? Nik erakutsiko dizkitzut. Oriek dira jokale gaizto, zerbait galzen duten aldian gañeko aldera begiak jaso ta hitz erdi bat edo beste esan ta, edo hitzik atera bage, Jangoikoagana amurratzen diranak, Jangoikoa orien galkunzen obe-dun baliz bezala. Oriek dira beren premi ta neke aldietan Jangoiko beragana gogorzen diranak eta, zeren beste zenbaiten gisan egiten ez dituen, aisa ta lasai bizi diranak eta nekerik, eritasunik, auzirik, beharrik eta kezkarik bagekoak *voto-ka*, *porvida-ka*, *Kristo-ka*, *pasio-ka* edo beste hitz gaiztoka aritzen diranak.

Oriek eta era bereko beste guziak egiten dute turko itsuak beren profet gezurti Mahomarekin egiten ez dutena; bada mundu guziagatik turkoak bere pena, neke ta aserraldirik andienean ere ez du, deshonoratzeko beldurrez, bere profet gezurti Mahoma izendatuko, ta izendatu ezkerok, kastigu arrigarrian sartuko luke bere burua. Orobata agituko litzaioke aldi orietan artu ezkerok Jesusen izena, zeren Jesus den turko guzien uste itsuan Jangoiko-gizon ez, baizik profet andi bat. Bada Jesus beren Jangoikotzat arturik dadukaten fededunei Jesus bera gaizki ta blasfemiz izendatzen duten aldian, zer penak eta kastigu gogorrek ez dagozte? Judatar blasfemari gaiztoei zegoztenen erakoak eta gero orien bazterrean sekulako neke-tormentu guziak.

Nai ezpadiutzu, bada, begira, zere aserraldietan, zere estutasunetan, zere naigabenzetan ez biurt-itzuli Jangoikoagana zere begiak, ezpada humilki eskatzeko bere lagunza ta esateko izan ditezela beraren izenean ta zure bekatu guzien alde. Baña hau egin ez, ta hitz egiten badiozu judatar gogorren eran ta adirazi dugun gisan, egiñen dezu egin zenezaken bekatu izugarriena ta irabaziko dezu betiko neke agitz andi izugarria.

§ II.

Jesusi esan ziozkaten blasfemi itsusi-latzak etziran judatar gogorren aldi onetako bekatu guziak; egin zituzten gezurrezko zenbait ere. Gezurra ez da blasfemi diñako bekatua, ez eta berez bekatu andi larria ere, baña askotan bai. Bekatu larri-andia da gezurra, andia bada gezurretik norbaiti etorzen zaion kaltea. Orrelakoa da Jezabel erregeñak billarazi zituen bi testigurena. Jezabel onen senar Israelko errege Acabek eskatu

zion erosiz beraren jauregi bazterrean bizi zen Nabothi bere ardanzmasti bat. Ezetzez eranzun zion Nabothek, etziola zuen zatirik bere etxeari kendu nai. Gelditu zen errege agitz naigabetua ta hura era artan ekusi ta esan zion bere emazte Jezabelek zegola kezkarik bage, ark zuzenduko zuela egiteko hura. Gaztigatu zien erriko juezei billa zitzatela gezurti bi ta orien gezurpean illeraz zezatela Naboth. Egin zen juez gaiztoen eskuz Jezabelek nai zuena. Eta gero? Erio gaiztok garbitu zuen Acab, bai ta Jezabel ere, ta hau bere itxeko berak leiotik aurtiki-bota ta aldi berean sartu zen errege berri Jehuren zaldi oñez utzi zuten lertua ta andik fite ta laster jan zuten zakurrak aren aragi ta odol guzia (3 Reg. 21). Non gelditu ote ziran gezurti bien animak? Egun batez guziok ekusiko dugun toki berean.

Testigu biak erregin gaiztoari atsegin egin naizik, egin-ordez esan zuten beren gezurra. Beste zenbaiten dute besteei gaizki naiez ta orregatik dira beste biak baño gezurti gaizto galduagoak. Adi zazu one-lako batek bere gezurrez egin zuen gaitza ta kaltea. Roberto de Nobili zeritzan zaldun gazte bat, Kardenal Roberto de Nobiliren iloba ta Kardenal Roberto Belarminoren eta irugarren Julio Aita Santuaren aidea zen. Munduak eskinzen ziozkan honr-ondasun ta gauz andiak utzi ta sartu zen Jesusen Konpañian, ta inditar gaisoei lagundu naiez, joan zen S. Francisco Xavier ibilli zen Indi bazterretara. Bere hitz-egite ta modu polit eta Jangoikoak ematen zion graziarekin asi zen egiten anitz onango gaisoen animetan ta agitz ongi nai zioten gure legera ez ziran ango andi ta txiki berak ere.

Hau ekusten zutenetik bat asi zen esaten nai ziotela anbat inditarrak Aita Robertori, zeren gure siñistanza utzi ta egin zen jentil ta idolatar. Berri gaizto hau banatu zen laster Indi berean ta anitz aldetatik etorri zen gure bazterretara, bai ta beraren aide andi Kardenal jaunen ta Aita Santu beraren belarrira ere ta guziak gelditu ziran arritu ta alke-lotsaz beteak. Kardenal Belarminok egia zelakoan aditu zuena, egin zion arririk gogorrena negarrez erdi bi egin zezaken kart bat. Baña gezurra zen guzia ta etzuen Aita Robertok kart beharrik fededun ta predikari ona izateko. Inditako Arzobispo jaunak aditu zuen bazter guzietan zerausten gezur hau ta bildu zituen Konzilio batean bazter aietako gizon jakintsu guziak. Joan zen bertan ara, andik urruti arkitzen bazen ere, Aita Roberto ta agertu zien guziei egia ta ekusi zuten, bai ta testimonioz klaratu ere, Aita Roberto de Nobili gezurti gaiztoak zioten gizona ez, baizik Jesusen Konpañiko misionista andi, S. Francisko Xavierren erakoa zela. Hau bera gaztigatu zion Arzobispo jaunak Aita Santuari ta Aita Santuak bana-



tu zuen emengo bazterretan, goratu zen laño belz gezurti hau ta egin zion Aita Robertori bere mill atseginzez beterikako Bul edo Brebe bat. Baña gezurra banatu zen hordutik, egan agertu zen artean joan ziran urteak eta urteak eta Jangoikoak dakizki urte orietan Aita Robertoren aide andiak eta Jesusen Konpañiak ekusi zituzten alkekizunak eta naigabenzak eta fededunak eta beste anitzek izandu zituzten kalteak.

Gezur hau bezain kaltearrak ez izanagatik, badira kalte andizko beste gezurrak ere. Orietatik dira gaizto bat edo beste gatik orien lagunak gaizto egiten dituztenak. Konbentu batean edo eliz andian badira anitz apaiz eta fraide on ta orien artean arkitzen da ongi ez dabillen bat edo beste; badakizu zuk hau ta diozu gaizki bizi dirala eliz edo konbentu artako gizonak. Zu aditzen zaituenak usteko du ango guziak edo bein-zat anitz, gaizki bizi dirala eta arekiko deshonoratuak gelditzen dira guziak; baña gaizki ta biderik bage gezurra banatu zuenak du oben ta kulpaa. Orra zein kaltearra orren gezurra.

«Edozein konbentutan arkituko dezu», dio S. Agustinek, «behar den bidez ez dabillen fraide edo sorore bat edo beste, ta orregatik eman behar ditugu gaiztotzat ango fraide ta sorore on guziak?»: *nunquid propter virgines malas damnaturi sumus etiam bonas?* (In ps. 99). Zeren izandu zen Apostoluen artean Judas gaizto bat, Apostol onak ere gaiztoak dira? Zeren aita on batek duen seme gaizto bat, gaizki aziak daduzka ongi bizi diran hume humillak ere?

Gezurti gaizto orietatik izandu ziran Parisko Doktore Gillelmo zerizten bi ta Giraldo bat; bada irurak esan zuten S. Domingoko ta S. Franciscoko fraide onen gain mill gaiztakeri ta gezur; baña emen bertan ere izandu zuten beren lan gaiztoari zegokan saria; bada Gillelmo bata ill zen perlesiz elbarritua; bestearen kontra agertu ziran Jangoikoaren tribunalean S. Domingo ta S. Francisco ta Giraldoren libruak izandu ziran kondenatu ta borreroaren eskuz erreak eta bera gelditu zen mundu guziak begitan artua (P. Theoph. Raynaud, Opusc. *Malevoli erga Religiosos maledicti*).

Badira gezurrak besteren kalterik bage esaten diranak. Zenbaitek esaten dituzte beren irabanzak egin naiez; baña irabazten dutena da gero-rako purgatorioko su ta neke-gai izugarria ta emen bestela salduko lituzkeen gauzen batzuek ez salzea. Beste anitzek esaten dituzten beren edo besteren utsak estali naiez ta oriek ere irabazten dute purgategiko sua ta neke bera; bada beren biziagatik ere ezin dagikee hau, adituko dezun berriak adirazten duenaz. Maximino enperadore gaiztoa ibilli zen Asian eskura al zituen fededun guziak illerazten. Igorri zituen Nicomediko

Obispo Antimoren billa zenbait soldadu. Sartu ziran jatez, alakorik gogoan etzutela, Antimo arkitzen zen etxean. Antimok atera zien maira beren jan-edana. Jaten zeudela, galdegin zuten Antimoz. Orain jan, jaunak, eranzun zien Obispo santuak; nik gero erakutsiko dizuet hura; eta bukatu zutenean, bere burua agertu ta esan zien: Ona, ni naz billatzen dezuten Antimo ta goazen igorri zaituzten enperadoreagana. Damaturik gelditu ziran aren gisako gizon bat galerazi beharrez ta esan zioten gorde zedilla ta billatze usi bat egin ta joanen zirala etzela ageri enperadoreari esatera. Ez ori, eranzun zien Obispo santuak; mundu guziagatik ere ezin esan diteke den gezurrik txikiena ere; ta goazen esan ta asi zen ibilzen ta joan zen enperadoreagana. Illerazi zuen onek eta Jangoikoak egin zuen S. Martire. Zillegi da agertu behar ez den gauza hitz erdiz edo beste bide onen batez gordetzea, baña gezur esatea ez. Ezpadakizu nola gorde egia, galdegiozu dakien konfesoari edo besteren bati ta egizu esaten dizuna. Gañerakoan esazu bai edo ez, gauzari dagokan bezala, baña gezurrik ez, mundu guziagatik ere; ez arren, ez.



XXV

Erramu igandeko irakurraldia

Dicite filiae Sion: Ecce Rex tuus venit tibi mansuetus. Matth. 21.

Gaia: Komunio onak dakarz
anitz argi, indar ta atseginz

Askotan Jesus sartu zen Jerusalemgo errian, baña azkenaldian bein bezala len bein ere ez; bada beste aldietan sarzen zen beste gizonen gisan edo Jerusalemgook besteei baño begirun ta agur geiago egiten etziola, ta aldi onetan sartu zen Erroman enperadore zenbait Erromatarren etsaiak garaitu ta bezala edo mill *viva*-ren ta zori onen erdian. An bertan illerazi zuten Jesus ostiral santuz ta bost egunez leenago izandu zen Jesusen Jerusalemgo sarraldi glordun hau. Etzuen Jesusek egin an bere sarraldia Erroman Erromako enperadore oriek bezala; bada oriek sarzen ziran Erroman aize guzia urratzen zuten gerrako klarin ta soñu andiekin ta etxeen barrenetan sartuak ere leiora ateratzen zirala, zer ote zen soñu ark adirazten zuena ekustera. Sarzen ziran enperadoreak an kotxe ta karroz ederretan; sarzen ziran soldadu ederki jaunziz ingurutuak eta berak ere olandaz, sedaz, urrez, zillarrez ta perlaz ederki apaindu-jauziak, eta sarzen ziran beren ejerzitu garalle guzia beren ondotik zeramatela; baña Kristo jauna sartu zen Jerusalemgo era guztiz humillean; bada sartu zen asto txar baten gañean, ta asto sillarik bagekoan ta Apostol bereen zerbait tresna baizik gañean etzituenean ta bere Apostol erdi jaunzi berak inguruan, aitzina ta ondoren zeramaziela, ta sartu zen bera ederrik eta gañeko honragarririk bage ta humill-humillki jaunzia ta mansanzez bete: *mansuetus*.

Ala ere nondik ez dakigula argana zen nork daki zenbat jende ta egin zuen Jesusekin erromatar soldadu guziak beren enperadoreekin egiten etzutena; bada oriek orrekin egiten zutena zen, zenbait enperadorearen abr-aitzinetik, beste zenbait beraren bi bazterretatik eta beste guziak ondotik ibilzea, batek ere hitzik atera bage; ta Jesus maitagarriagana ziranetatik anitzek beren soñekoz egin zioten Jesusi bidea. Hau bera egin zuten beste anitzek arboletatik kendu zituzten adar mee ostodunak

eskuan artu ta; ta beste guziak zeuden gisan ibilli ziran Jesus beraren aitzinetik, inguruan ta ondoren; ta ibilli ziran *viva*-ka ta *vitor*-ka bazterrak urratu nai zituzten eran ta noizean bein esaten zutela: *Bedeika dakiola Daviren semeari*; ta *bedeikatua izan dedilla Jangoikoaren izenean datorkiguna*.

Orra Jerusalemgo darrak eta Jesusekin Jerusalemgo sartu ziranak Jesusi egin zioten ongi-torri ta zori ona. Orra zein zegokiona; bada Jerusalemgo darraren ta munduko guzien Jaun-Jabe ta Errege da Jesus maitagarria: *Ecce Rex tuus*, orra ori zein ziñez Jerusalemgo onak egiña; bada besterik etzuenak gañean zekarren soñekoz leunzen zion Jesusi bidea ta orra aldi berean zein bihotz osoz ta nai andiz ta artara bestek behartu bage egiña; bada Jesus ekuste berak ematen zien atseginz andia ezin gordez egiten zuten guzia ta aldi berean ojuz ta Jesusen laudanzez betetzen zuten aize guzia.

Zer ote da Eliz Ama santak Jerusalemgo onen gaurko lan onekin adirazten diguna? Esazu bein; ta zer ote da Jesusen gaurko Jerusalemgo sarze onek adirazten duena? Sarze onek adirazten du (eranzunen dezu) denbor onetan geienik eta urteko edozein beste egunez Jesusek fededunetan komunioz egiten duen sarrera. Ala da, bai; bada zuk jakin behar dezuna da Jerusalemgo darraren gaurko lan onekin adirazten digula Elizak besterik ere; bada adirazten digu Jesusek ongi komulgatzen diranekin egiten duena ere. Zer da hau? Anitz argi, anitz indar ta anitz atseginz ark oriei ematea, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

§ I.

Bai, Jesusek ongi komulgatzen diran fededunei ematen die komunio santan anitz argi, behar den eran ekusteko ekusi behar den guzia. Komunio santa da animaren jankunza, ta jankunz eta jate, Adanek jate galgarriak kendu zigun argia ematen diguna. Adanek jan ezpalu Jangoikoak debekatu zion sagarra, bear zen gisan ezagutuko genuen Jangoikoari dagokan ta jakin behar genuen beste guzia, bai ta deabruaren tram, asmo galgarri ta dollorkeri guzia ere, ta onen galbide gaiztoak utzirik, artuko genuen zerura daraman zuzena; baña hordu gaiztoan jan zuen Adanek arbol debekatutik, sartu zen bera egin zuen bekatuaren lañope illunean ta galdu ginduen gu bere bekatu berez ta sartu ginduen bere lañope berean; ta lañope hau da, S. Agustinek dionaz, ez-ezagunzaren leze izugarria: *horrenda quaedam profunditas*. Leze onetan galdu beharrak



giñan gu argi-gillerik ez izatera; bada argirik bage an bertan ta geren bekatuan ill ta usteldu ta galduko giñan.

Zori oneko gure argi-gille hau Jesus maitagarria da. «Ni etorri nintzan», dio Jesusek, «gizon egiñik mundura, ekusten etzutenei argi egitera»: *quandiu sum in mundo lux sum mundi* (Ioan. 9,5); *Ego in hunc mundum veni, ut, qui non vident, videant* (Ioan. 9,39). Eta argi egiten digu Jesusek beren argizko pillareak Israeldarrei baño agitz ederkiago ta «argizko pillar Israeldarren argidun hau da argiz ta graziz gure animak betezen dituen Jesusen ainzur-itzala», dio S. Ambrosiok: *columna lucis quid est, nisi Christus Dominus, qui lucem veritatis, et gratiae spiritualis affectibus infundit humanis?*

Illunbetako erreinua da Egipto. An bizitu ziran laur eun urtez Israeldar gaisoak. Orien buruan gaztigatu zien Jangoikoak andik atera ta joan zitezela Canan zeritzan urrutiko bazter batera. Baziran israeldarrak milletan mill ta agitz geiago. Gaisto gogorra zen Egiptotik Cananako bidea ta etzen israeldarren artean bat bide aren berria zuenik. Al-ere Jangoikoak ziona egitera atera ziran Egiptotik israeldar andi ta txiki guziak eta asi ziran ibilzen alde artarako bidez. Egiptoko erregek gaizki eraman zuen oriek hura utzi ta bestetara joatea ta bere soldadu guziak artu ta atera zen orien ondoren oriek geldiraztera.

Israeldarrak ibilli ziran Jangoikoaren kolun edo pillar argizko batek agerzen zien bidez ta Egiptoko errege bere jendeekin orien begira zeneke, eraman zituen argiak biderik eta zubirik etzuen itsas bazter batera. Artu zituen an arrats illunak, eta galduak zirala uste zuten horduan, ekusi zuten beren aitzinean zuten argizko pillarea itzuli zela gibelat edo atzera ta gelditu zela orien beren ta zerraien ejerzituaren erdian, ta ejerzitu guzia bere illunbean utzi ta asi zela, leneko gisan, oriei argi egiten. Igaro behar zuten itsasoan egin zuen jangoikoak milagrozk bide bat eta artan sartu ta arrats berean joan ziran itsasoaren beste aldera ta horduan joan ta jarri zen orien aitzinean argizko pillarea. Oriei zerraiztela sartu ziran milagrozk bide berean Ejiptar guziak eta itsasoaren erdira ziranean, urratu zuen Jangoikoak milagrozk bidea ta ondatu ziran ta ito an bertan Ijito guziak. Eta israeldarrak beren argiak agerzen zien bidez sartu ziran, anitz nekeren buruan bazen ere, beren Canango bazter ederrean.

Oraingo israeldarrak fededunok gara ta munduko eremu latz gogorrez zeruko bazter eder aldera gabilzanak, eta arako bidea, nai badugu, agertuko digun argia da Jesus Sakramentatua: *quae est nubes, quae praecedit viros israelitas, nisi verissimum et sanctissimum Corpus tuum?* (Card. Drog.). Orregatik esaten digu Jangoikoak salmari onaren ezpañez: «urbil zaitetz (Komunio santaz Jesus Sakramentatuagana) ta bete zaitetz zeruko argiz»:

accedite ad eum, et illuminamini (Ps. 33,6). Ongi komulgatu ta eskatzen badiogu Jesusi zuzenki ibilzeko bidea, agertuko digu bere manskunza ta humiltasuna, ta hitzik atera bage ere, geren barrenean adiraziko digu emengo geren neke ta egiten dizkiguten kalte ta txarkeri guziak Jangoikoaren izenean ta geren bekatu gaiztoen alde me-mekitxu arzea dela zeruko bidea. Agertuko digu arako bidea dela aragiaren naikunz galgarri gaiztoak oinperatzea, bide gaiztoetara eraman nai gaituen etsaiari gogorzea ta geren gaiztaginei onez ta otoitzez eranzutea; bai ta barurez, konfesatze humillez ta kontuzko komunioz Jangoikoaren argi ta grazi berriak irabazte ta gure bizierak eskatzen dituen gauz guziak behar den eran ta horduz egitea ere. Eta guk hau egiten badugu, Jesus Sakramentatuak emanen digu zeruko bazter zori onekoan sarzeko beharko dugun argi guzia ta an bein sartu ezker, atseginz andiz beteak utziko gaitu beti-betiko.

§ II.

Berrogei urte egin zituzten israeldarrak Egiptotik atera ta Canango erri bazterretan sartu baño len, ta odeiezko pillare argidunak bidea erakutsiagatik, etziran larogeiez ere arako, osasunik eta indarrrik bage urte orietan egondu balira; baño beren biderako argia igorri zien Jangoikoak, ematen zien bidean ibilzeko behar zuten indar ta osasun guzia, bai ta oñetako ta soñeko behar zutena ere; ta ematen zien ark hau artako behar zen aldian milagro andiak egiten zituela; bada eraman zuten janaria bukatu zenetik, igorri zien egunoro zeruko mana; edatekorik etzuten aldian gezatzen zien ur gazia edo agerzen zien aitz gogorrean iturria; kendu zuen orien osasunaren bazterretik eritasuna ta oñetako ta soñekoetatik sisa ta urranza. Hau guzia da, fededunak nai dutela, Jangoikoak oriekin emendik zerurañoko bidean egin nai duenaren ainzur-itzala.

Ematen die, bada, Jangoikoak nai dutenei zeruko bidean ibilzeko ta bideko etsaiak garaitzeko behar duten jan-edana ta indarza. «Bai», zion Davidek (eta esan dezake fededun bakoitzak), «bai, Jauna, nere begi-aitzinean prestatu didazu nekatzen nauten etsai gaiztoak garaitzeko beharko dudan indarza emanen didan maia ta jateko goxoa»: *parasti in conspectu meo mensam adversus eos, qui tribulant me* (Ps. 22,6).

«Zein dirala uste dezu», dio S. Juan Krisostomok, «zeruko bidean nekatzen gaituzten etsaiak? Oriek dira», dio, «gure etsai gaiztoaren ten-



tanzak, aragiaren naikeri galgarri makurrak eta munduko atseginz eroak»: *qui sunt qui tribulant nos, nisi sugestiones inimici, cupiditates, et delectationes saeculi?*. Eta zein mai ta janari da etsai oriek garaitzeko indarza eman behar digun mai janariduna? Zein, baizik Aldareko Sakramentua ta komunio santa. «Bai», dio S. Geronimok, «graziaren bizitza dakarren ogia da Aldareko Sakramentua ta ez da ogi onek diña indar dakarren janaririk»: *nihil ita vescentis animum roborat, quomodo panis vitae* (In ps. 103). Israeldarrei beren biderako ta bideko etsaiak garaitzeko indarrak ematen ziezten janari *mana* Aldareko Sakramentuko ogiaren ainzur-itxala da, ta ogi-itxalak edo manak ematen baziezten Israeldarrei bide gogor luze bateko neke guziak eta bidera ateratzen zekizken etsaien ejerzitu andi izugarri guziak garaitzeko behar zituzten indarrak, zer indarrak ematen diezte aingeruen ogi Sakramentatuak behar den eran jaten duten edo komulgatzen diran fededunei? Beren etsai guziak garaitzeko ta, ala behar den aldian, beren bizia ta odola neke-tormentu gogorren erdian uzten dutela zerura igoteko behar dituzten guziak.

Orregatik tirano lenbiziko gogorren denboran, zeren fededunak arkitzen ziran bizia neke-tormentuz galzeko perill andietan, etxean zeuden denboran itxean zedukaten, ta bidez zebilzan aldian berekin eramaten zuten Aldareko Sakramentua; ta ilzeko arzen zituzten guzian, beren eskuz arzen zuten komunio santa, komunioz arzeko tranze gogor artan behar zuten indarza ta grazia; ta denbor artan komuniatzen etzena etzen arkitzen martirioko neke arrigarri gogor artan irauteko prest, dio S. Cipirianok; «bada neka-giro oriek garaitzen dute, dio Santuak, komunioz sendoturik arkitzen ez den bihotza»: *idoneus non potest esse ad martyrium, qui ab Ecclesia non armatur ad proelium, et mens deficit, quam non recepta Eucharistia erigit, et accendit*. Orra norañoakoak komunio santak ematen dituen indarrak. Niceko S. Gregoriok dionaz, guzia dezakenak; eta orregatik ematen dio komunio santari guzia dezaken janari onaren izena: *escam omnipotentem*.

§ III.

Israeldarrak indarrez betetzen zituen *manak* ematen zien ongi bizi ziranei nai din atseginz eta gusto, ta orregatik ematen dio Eskritura santak *manari* atseginz guziak dituen janariaren izena: *omne delectamentum in se habentem* (Sap. 16,20). Zori oneko janari hau bezain goxoarekin ta ematen

zuen atseginzarekin ezitzen ta leunzen zituzten israeldarrak beren bide gogorreko neke latzak eta bide bereko etsai andiekin zituzten pele gogor odoltoiak; eta hau bera agi-gertatzen zaie fededun onei komunioko janari atseginiduna artuz beren bidera ta pelera presentatzen diran guzietan, «zeren dituen Sakramentu Aldarekoak beste sakramentuk ez dituen leunzak», dio S. Thomasek: *nullum sacramentum ipso salubrius, quo mens omnium spiritualium charismatum abundantia impingatur* (Opusc. 7).

Badakizu zergatik? Zeren bakoitzak bekatu etorki-orijinala kenduagatik, kenzen ez duen gaitzerako bere griña, ta grin onek dakarren asalanza; zeren konfesioak kenduagatik gerozko bekatua, uzten dituen animan bekatu barkatu berak bere kutsu ta aztur gaiztoa; eta aztur, gaitz aldera agitz tiratzen duena; eta zeren konfirmazioko sakramentuak sendortuagatik fededuna, zuzenzen ez dituen makur dabilzan fededun beraren pasione sutu biziak eta itzalzen ere ez orien irakin andiak. Baña Aldareko Sakramentua da dakarren graziaren ur otzarekin pasione bero asaldatuena ta irakiten duen odolaren suak eta garrak epelzen dituen; pasione ez eziak eskura dakarziena, bekatu berrietarako bihia galeratzen ta barren guzia soseganz andian sarzen duena.

Hau da Jesusek adirazten diguna, esaten digun aldian: «Atozte nigana edo Aldareko nere Sakramentura, nekez, auziz, naigabez, otzez, beroz, kezka, eritasunez, zorrez edo edozein beste bidez beteak arkitzen zarazten guziok eta nik graziz ta atseginzez zabalduko ditut zuen barre-nak»: *venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos* (Matth. 11,18). Eta egiten duela Jesusek komunioz emen diona, ekusten dute beren neke aldietan humilki, garbiro ta behar den eran komulgatzen diranak eta orien animetan Jesus sakramentatuak egiten duela elz-aldi min batean bein Eliseoren iriñak egina.

Eliseo profetak presterazi zuen bein elze bat jaki, profet gazteei bere etxean jaten emateko. Elzea egosi ta maia paratu ta profetak an jarri ziranean, atera ta eraman zieten elzeko jatekoa. Jaten asi ziraneke asi ziran profetak tu-ka ta aika ta esan zioten Eliseori: «Jangoikotar gizona, zer da jatera ematen diguzuna? Janaria ez, erioa da elze onetan sartu dutena»: *mors in olla, vir Dei, mors in olla* (4 Reg.). Hau aditu ta jaiki ta artu zuen profetak irin pisk bat eta bota zuen elzeko belar miñen gañean ta iriñak ukitu zitueneke, utzi zuten belar miñak beren minza ta gelditu ziran janari on egiñak; jan zituzten gogo osoz profetak eta gelditu ziran barazkari onak dakarren pozarekin.

Orra Kristo Jaunak komunioko irin lorearekin ta aingeru beren ogi onekin egiten duena: bihotz nekez ta naigabez minduei dakarren graziz



ta atseginzez eztitzea. Aitorzen du, bai, hau era orretan ongi komulgatzen denak eta «Eskerrak zuri», esaten dio, «nere Jangokoa, zere ogizko ta ardozko edo Aldareko Sakramentuko janariz eman didazun atseginz andiagatik; bada andia da aldi onetan artu dudana»: *dedisti laetitiam in corde meo a fructu frumenti et vini* (Ps. 4,7).

Nai badituzu, bada, Sakramentu andi onek ematen dituen zeruko argi ta indar oriek, zere etsaiak bidean garaitu ta zeruan sarzeko, bizi zaitetz bekatuaren eritasunik bage, kontuz egizkitzu zere egiteko guziak, presta zaitetz ongi komulgatzeko ta komulga zaitetz maiz. Zori onekoa zu hau egiten badezu. Jangoikoak dizula egiteko gogoia ta bere lagunza. Bai arren, bai.

XXVI

Bazko igandeko irakurraldia

Surrexit; non est hic. Marc. 16.

Gaia: Jesusen bizteak erakusten du konfesioz nola biztu bekatuz illa

Jesus ill ondoan Jesusen eskolarrak Jesus biztuko zelako uste guzia galdurik ibilli ziran, bizturik hura ekusi ta ezagutu arte guzian; bada agertu ta ere, etzuten ezagutu lenbiziko aldian ta idaroki zien beren barrenean zuten uste galdu hau ta esanerazi: «Uste genduen aterako ginduela israeldar guziok geren nekepetik eta erromatarren eskutik eta ustel atera da gure ustanz guzia; bada irur egun ditu judatarren eskuz illik ta ez da oraindik ageri; ta hau baño gaiztoago dena, beraren obian izandu diran andre zenbaitek izutu gaituzte ekarri diguten berriarekin; bada esan dute ez dutela arkitu an aren gorputz illa ta bera zeutzan obian ekusi dituztela zenbait aingeru; eta hau aditu duten Apostol bik esan ere dute ametsa dela orien esana»: *visa sunt ante illos sicut deliramentum* (Luc. 24,11). «Baña batak eta besteak laster ta fite ezagutu zuten egia zela andre oriek eraman zuten Jesusen biztu-berria». Ara nasterik bage egungo Ebanjelio santuak dionaz andre orien berria.

Etzen gure obien gisakoa Jesus illaren gorputza iduki zuena: gela gilzatuaren gisako zen Jesusen obi hau. An sartu ta lurrik karerik edo beste gauzik gañetik eman bage utzi zen Jesusen gorputz illa. Bazko goizez beren aromak erosi ta joan ziran ara Maria Madalena, Jacoben Maria ta Salome, ta joan ziran usai onezko aromaz Jesusen gorputzari gañetik eman ustez. Zekiten gauza zen arri andiz estali zutela obiaren sar-bidea ta «Nork kenduko digu», esaten zuten bidean, «arritzar hura?». Baña ara ta ekusi zuten etzuela kenle bearrik, bada kendurik arkitu zuten obiaren estal-arria.

Sartu ziran, bada, egin gogo zuten lana egitera; baña etzuten arkitu Jesusen gorputza; arkitu zutena zen aroma bearrik etzuen aingeru bat estol edo soñeko zuri ederrez jaunzia, ta hura ekusi ta gelditu ziran hitzik bage ta arritu baten gisan. Ala oriek ekusi ta esaten die irurei aingeruak: «Ez da zer izutu; judatar gogorrek gurutzez ill zuten Jesusen gorputza-



ren billa zatozte zuek; ez da emen; biztu da ta ona utsa aren gorputza egondu den tokia. Zoazte aren dizipuloei ta Pedrori esatera, dijoazela Galilera (edo Jerusalemik ez urruti arkitzen den ta galiletarrak an duten ostatutik Galileko mendia esaten denera) ta (biztua) an ekusiko dutela len berak berei esan zien bezala».

Orra oriek Apostoluei esana ta lendarrian Apostol berak amets baten gisan aditu zuten gauza ta anitz luzatu bage egia zela ekusi zutena; bada berri hau aditu ta joan zen S. Pedro S. Joanekin Jesusen obira; arkitu zuten utsa ta andik kendu ondoan, agertu zitzaion S. Pedrori Jesus biztua ta ekusi zuen egia zela Maria Madalenak berari ta S. Joani esan ziena. Gero oriek biak eta beste Apostol zorzi etxe barren batean sarturik eta ate gilzatuarekin zeudela, atea idiki bage sartu zen Jesus ta nor zen Jesusen esan ta berak ekusi zutenean, ezagutu zuten beren atseginz andiarekin hura zela orien maisu Jesus biztua.

Biztu zen, bada, Jesu maitagarria ta biztu zen berriz ez ilzeko ta fededun bekatuz illei adirazteko biztu behar dutela beren bekatu egiñen damuz ta konfesioz; ta biztu, orain Bazkoz ta berriz bekatu berriz ilzen badira, lenbaitlen ta luzatu bage. Eta noiznai biz ditezela, biztu behar dutela iduri utsez ta ainzuraz ez, baizik izatez ta ziñez. Nola egiten den bekatutik grazirako bizte hau ekusi behar dugu oraingo aldian.

§ I.

Biztu zen Jesus, bai, illen artetik, eta biztu, ill ta irugarren eguneko. Biztu zen berriz ez ilzeko ta glorizko bere bizitz berriarekin betiko bere Aitari atsegin andi bat emateko; ta hau guzia zen, S. Pablok adirazten digunaz, guri siñisterazteko guk ere, bekatuz illak bagautza ta zerura igan nai badugu, biztu behar dugula ala dautzanen artetik; biztu grazizko bizitzara; ta biztu, bizimodu berri on batekin Aita eterno berari atsegin egiteko: *quomodo Christus surrexit per gloriam Patris, ita et nos in novitate vitae ambulemus* (Rom. 6,4).

Errege Saulek ongi zebillen aldian egin zituen anitz gauz andi; baña gaiztatu zen egunetik gaizkiz gaizkira ibilli zen beti ta bere bizitzaren azken aldean leneko denbor guzian baña agitz gaizkiago. Bizitzaz etsirik bezala ta erio gaizto baten barrunz illunekin zebillen horduko ta Jangoikoaren profetak utzi ta billatu zuen sorgin enkantari bat eta onen eskanzez agertu ta ekusi zuen Samuel profeta; ta ekusi, biztua zirudiela;

baña etzen biztua. Bazkoko denbor onetan geienik eta urtean gutitan ez, hau bera gertatzen zaie bekatuz illak dautzan anitz; zeren konfesatu ta biztuak badirudite ere, len bezain illak edo len baño illagoak gelditzen diran; bada izatez bizteko ez dute egiten egin behar lukeen gisako konfesorik eta bekatu bereen barkanza ta graziaren bizitza erditsi ez, ta egiten dute animaren bigarren eriotza ta bekatu berria.

Orain Bazko aldiko estu-ertsi onetan konfesatzen dira guziak, bai ta orietatik anitz urtean beste aldiren batez edo bestez ere; baña konfesatzen dira adirazi dugun gisan. Zergatik, uste dezu? Zeren konfesatzen diran exkomulga ez ditzaten edo esankizunen beldurrez, zeren artara oitu diran; zeren geiegi zulatzen dituen beren bizitz gaiztoaren sasiak, eta sasi, elorritz, aranzez ta kezka beteak; eta zeren beren konfesaldian gaizki egiñaz damuturik arkitzen dirala konfesoari aurpegi illunez, bularra golpatuz ta suspiranz zenbaitekin adiraziagatik, izaten diran aize ezea dabillen aldian arri leundua izaten dena.

Badakizu zer agitzen zaion arri leundu marmol zurari aize hau dabillen aldian? Gañetik ezatzea, gañetik bustitzea ta gañetik ura dariola gelditzea; baña barrendik len bezain idor ta agor; bada arriari dariola dirudien ura aize eze arri gañean urtua da; ta aize urtu, bere astuntasunarekin gainbera erorzen dena. Era orretakoa, bada, ta gañean gelditzen den damua da diogun bekatari orien konfesioko damua: gaña bustitzen duen damua; baña damu, barrena len bezain idor uzten duena edo zerbait beratu ta ere, kokodrilo kaiman deritzan sierpe atzapardun izugarriarena orzetako oñazeak beratzen duen gisan, beratzen duena. Kaiman-kokodrilo batek arrapatzen badu gizon bat, ilzen ta jaten du ezurrak, ez beste guzia. Hura jaten hari dela gelditzen zaizka ortz artean zenbait aragi zati, gero miñ eta oñaze arrezatzen dienak. Ez du berak zerekin kendu ortz-arteko aragia ta bihotzeraño sarzen zaion miña; ta bere oñaze-minarekin ezarzen ditu atzapar illtzalle gogorrek gizon janaren ezur gañean ta asten da negar ta negar; zabalzen du aoa ta gelditzen da illa dirudiela, datorkion txoriren bat bazka billa ta ken diezkatzen bere ortz artean min ematen dioten aragi pitsak edo zatiak. Kenzen diozka artako den txori batek, joaten zaio orzetako miña ta bihotzeko oñazea, ta arrapatzen duen lenbiziko gizonarekin egiten du lenekoarekin egin zuena ta horduan agerzen du egin zituen negar guziak zirala egin zuen eriotzaren damuz ez, baizik bere orzetako miñak eragiñak.

Hau bera agi-gertatzen zaie gaizki oiturik dauden bekatarierei ere. Zerua galdu ta suleze infernua irabazi dutelako miñak arzen die bihotza; bai ta, Bazkoz edo beste aldi jakiñen batez konfesatzen ezpadira, beren



itxeko jendeen edo ezagunen artean izanen den esankizunak ere, ta joan ta agerzen diozkate konfesariari beren bekatu gaiztoen aragi gogor gor-diñak; baña agerzen, barreneko beren kezka ta naigabea kenzeagatik, ez onzeko gogo osoarekin, geroko orien ibillerak adirazten duenaz; bada kaiman gaiztoa gizonen eriotz ta jate berrietara bezala, itzuli oi dira leneko beren lan gaiztoetara ta, konfesatu ondoan biztuak badirudite ere, len bezain illak edo len baño ere illagoak gelditzen dira.

§ II.

Bekatzu ill ondoan biztu nai duenak egin behar du bere biztearekin Jesusek erakutsi diguna. Hau da konfesoarearen oñetan lenbaitlen bekatuaren izurri guzia uztea ta galdu zuen graziaren bizia bilzea; bada Jesus ill ta irugarren egunean biztu beharra zen ta geren lan hau laster egiten guri erakusteko, egun ta erdiz bete zituen irur egunak; ill zen alabaña ostiral arratsaldeko seietan bezala ta biztu zen urrengo igandearen argi alden ta bitarte orretan joan ziran ogei ta amabost edo amasei hordu; ta, zeren ziran irur egunenak, irur egun kontatu zituen Jesusek, horduz egun ta erdi baizik etziranak.

Baña bekatuaren eriotik graziaren biziratzeko ez da aski bekatua egin ta laster hau konfesatzea; bada Jangoikoak bekatariari hau barkatze-ko ta kendu zion grazia itzulzeko, ekusi behar du damuz ta urrikiz bete ta berriz ez bekatutzeko asmo ta gogo onarekin; ta damu-urriki ta asmo-gogo oriek ez dira orren aisa erdisten, len gaizki oitua zegon bekataria bada, bekatu ori egin ta laster konfesatzen dena; zeren den denbor luze zauri ustel bat lotu duen oialaren gisakoa.

Zauri gañetik kenzen den oial zapiari bere arizunzetan sarzen ta gogorki itsasten zaio zauriko zerbait odol ta materi; ta zauri gañetik kendu ta laster-fite urera eraman ta ere, eramaten bada arako prestatu bage edo gobadan ta lisiban berotu ta beratu baño len, urean batek zerbait erabilze, igozka ta golpe emanagatik geldituko da lensu bezala, ta Olandan egiten den meenetik izanagatik, latz eta gogor ta bere materi-kutsu ta odol-arrasto zikin zenbaitekin, ta begiratzen dionari barrena nas dezoken eran, ta ez du emakumek lepoan erabiliko, ez eta eskuetan ere, ezpada zikinkeriren bat arekin kenzeko. Behar den eran ta ongi garbitze-ko egon behar du beratzen, sartu behar du gobadako arratzen, ekusi

behar ditu ur egosizko zenbait perzaldi ta al-ere izanen du zer egin gobadariak hura garbitzeko.

Barkatuko badiozka, bada, bere bekatu itsus zikiñak konfesatzen dituenari, ekusi bear du Jangoikoak hau bere bihotz damuz ta urrikiz beratuarekin, biotz ondu naiez berotuarekin ta biotz humill eskalariarekin; bada era orretan ezpadoa, joanen da Jangoiko barkaleagana beste farisetzar arroa elizara bezala ta hau andik bezain bekatudun itzuliko da bere itxera.

Adirazi dugun gis humil damutu berotuarekin bekatariak bere bekatu guziak konfesatu ta ere, egiten ezpaditu konfesatze onak eragiten dituen gauzak, frut onik ez dakarren udare-sagar ederraren erakoa izanen da orren konfesatze guzia. Konfesatze onak eragiten dituen gauzak dira nori berea itzulzea, zorrak ateratzea, guziekin bake onean bizitzea ta egiten dioten txarkeri galdua gogo onez barkatzea, bekatutzeko bide gaiztoak uztea, Jangoikoaren legeak eta bakoitzaren bizierak eskatzen dituen beste gauzak egitea ta egin behar diran eran ta horduan egitea. Nolerebait guri hau adiratzeko da urrengo berria.

§ III.

Muzio zeritzan gizon birtutetsu ta eremutar monjeen abade batek, izandu zuen besteen artean gazte bat. Eremutar gazte hau etzen bizi abade onak nai zuen eran, beraren erreglak eskatzen zuten gisan ta adirazten zioten bezain beroki ta birtutedun. Arenpean zen denboran etzitu-egiten munduko galduak egiten dituzten gaiztaginz bekatu andiak, ez eta eremutar ta relijios onak egiten dituzten gauz guziak ere; ta bizi zen, mundutarren eran ezpazen, relijiotar onen gisan ez, ta bizi zen ez otz ta ez bero bezala.

Bizier onetan izandu zuen eritasun gaizto bat eta hau ark ezagutu ta izutu zen zen guzia. Joaten da abade Mucio eria ekustera ta, hura ala ekusi ta, esaten dio: «Zerk orrenbat izutzen zaitu, nere semea?». «Aita, oraindañoko nere bizitz txarrak eta Jangoikoari kontu eman beharrak», eranzun zion eriak. «Zer bada?; ez dakizu», esaten dio abadeak, «zein urrikalt-beratxa den Jangoikoa?». «Bai, aita, ta zein zuzen-zorrotza den ere, bear zen eran bizitu ez denarekin», eranzuten dio eriak. «Ehe, Jangoikoari eremura deitu zinduenean eranzun zenion gurekin emen bizi naiez», esan zion abade Mucio. «Bai, aita, baña munduko eratsu berean



bizitu naz emen ni», eranzun zion eriak; «bada banituen emen munduko diru ta beste gauzak eta emen egin dut, ango gisan, gogo griñak nai zuena ta ez dut egin egin behar nuena, beinzat behar zen gisan, ta eremutarren erdian izandu naz ni mundutar galdua ta hau da orain ni anitz naigabetzen naben gauza». «Ez orrenbat, nere semea», esan zion abade onak; «bada ekusi dut nik egiten zenituela zere konfes-komulgaldiak zure erreglak eskatzen zuen aldian ta egiten zenituela era ta modu onean». «Aita», eranzun zion eriak, «ez naz bat ere fio oraindānoko nere konfesioz; bada nere konfesio guziak ez naute ondu bat ere. Nuena konfesaritari esan ezkerro, eginzat uzten nuen guzia ta leneko nere uts-bide bertan nenbillen ni, alakorik ezpaliz bezain lasai ta alfer, ta len ninzana ninzan konfes-egunean; konfes-egunean ninzana ninzan urrengoan ta urrengo egunetan, ta lenbiziko konfesaldian nituen konfeskizunak nituen bigarreanean ta beste guzietan; ta munduan ta eremuan izandu da nere bizitza eratsu batekoa. Konfesatzen ninzan aldian graziz biztua nirudien nik; baña beldur naz ez nazala biztu bein ere ta Jangoikoak dagokidan eran artu ta kondena nazan bere tribulanean. Ez nuke nik ere uste ta esperanz ona galdu nai; baña nere barren onetan ez dut ekusten uste onerako biderik». Hau esan ta asi zen eria negar ta negar. Hura ala ekusi ta asi zen negarrez abade bera ere.

Andik atera ta joan zen abadea Jangoikoari eskatzera luza zezala eriaren bizia ta erditsi zuen eskatu ziona. Itzulzen da gero eriagana ta esaten dio: «Orra, ematen dizkitzu Jangoikoak irur urte oraindānoko zere utsak ateratzeko ta penitentzia egiteko». Hau esan ta arzen du eskutik, ateratzen du oatzetik osasun osoan ta gaizkitu ezpaliz bezain sendo ta bortitz, ta esaten dio: «Ea, zoaz eremura zere egiteko hau an ongi egitera ta presta zaitetz hordurik galdu bage eriotz on batera». Bere brebiarioa artu ta ara zen bereala ta berak eta Jangoikoak dakizki aren ango otoitz, baru ta penitenti guziak.

Urte orien buruan billatzen du abadeak bere eremutarra, arkitzen du osasun onean ta al-ere eramaten du itxera; eratzoten du bere oatz gañean; deitzen ditu itxeko beste monje guziak eta esaten die: «Ona, gure anai orain irur urte bere bizia galdu ta kondenatzeko beldurrarekin amurratzear oni, Jangoikoak, nik eskatu ta, eman zion gerozko denbora bere gauzak zuzenzeko ta, hau egin ta, badoa Jangoiko berari kontu dagozkanak ematera». Abadeak hau esan ta itsi-ertsi zituen eremutar gazteak bere begiak eta lotan sarzen den baten eran gelditu zen illa.

Eremutar hau etzen bizi bekatu larrien bide galgarrian ta al-ere ill baliz irur urtez lenago ta geroz egin zuen penitentziz prestatu bage, kon-

fesioz biztu bage, nola ill beharra zen beraren ustez? Eta nola ill bearrak ote dira bide galgarri orietan dabilzanak? Eta nolakoak ote dira orien bitarteko konfesio guziak? Onen anz andirik ez dutenak. Izan dezaten zureak, egizu eremutar onen azkeneko bizitzak adirazten dizuna ta bizi zaitetz gaitzetik urrun ta gauz onetan ongi sartua, ta azkenean biztuko zara sekulan ta beti Jesus berarekin zeruan bizitzeko. Jangoikoak dizula emengo zere bizitz onetarako bear dezun lagunza ta grazia, bai ta gerozko zori on hau ere: bai arren, bai.



XXVII

Bazko bigarren eguneko irakurraldia

*Nonne haec oportuit pati Christum, et ita intrare
in gloriam suam? Luc. 24.*

Gaia: bekatupetik atera dena
berriz ez bekatutzeko bidea da
bere ill-bearra gogoan ekarzea

Egungo Ebanjeli santuan arkitzen dira Jesusen eskolako siñisle txar leneko aldiak izendatu bage agertu genituen biak. Bataren izena zen Cleofas; ez dakigu nola zeritzan besteari. Gero egin zutenak adirazten duenaz, biak zijoazen Jerusalemendik igesi, Jesus ill-erazi zuten judatarrak oriek ere, an gelditzen baziran, aren eskolakoak bezala illerazi zituzten beldurrez; bada galdu zuten Jesus illak biztu ta gaizki nai zieten guzien eskutik aterako zituelako ustea.

Oriez urrikaldurik aitzitu zituen Jesus biztuak bidari baten gisan jarraiki ta; ta ezpaleki bezala esanerazi zien elkarren artean zerausten guzia, ta guzia zen Jesus beraren eriotzari zegokana ta beren hitzez adirazten zuten etzekitela nola zen bizterik bageko Jesusen eriotza. Ainzur gordean agertu zen an Jesus biztua ta igesle beldurti gaisoak ezagutu bage ibilli zen denbor guzian ta etzien Jesussek bere bizterik bien begitik gorde aldiraño adirazi. Bertatik adirazi ziena zen guztiz ongi zegoten gauza izandu zela Jesusen nekezko eriotza, ta izandu zela berei bie ta munduko beste nai dutenei emateko bekatupe gogorretik atera ta zeruan sarzeko bide on zuzena.

Oriei hau adirazteko asi zen sendorki hitz egiten ta esaten: «A erotzar, profetak len adirazi zizkitzuten gauzak siñisteko orren astun ta illun arkitzen zaraztenak; etzenekiten eraman dituen neke guzian buruan ill ta biztu ta igan behar zuela Jesussek bere glorira?». Gero Moisesek zionetik asi ta ager ta klaratu zien onek eta beste profetak egiteko berean dioten guzia, bai ta orien ezpañez ta eskuz Jangoikoak lenagotik esana zedukana baizik etzela Jesusen eriotzan agi-gertatu ere. Hau da egiteko onetan Jesussek aldi artan esan ziena. Adirazi zien bidenabar, uste ezpazuten ere, bizturik arkitzen zela horduko bera. Zer bidez, uste dezu, edo nola? Adi

zazu. Jesussek adirazi nai ziena esan horduko beren gautegira ziran igesle biak. Naitaez bezala sarrerazi zuten berekin an Jesus maitagarria ta maia prestatu ta jarri ziraneko, artu zuen Jesussek an atera zuten ogia ta bedekatu ta zatitu ta eman zien bie zati bana. Hordu berean kendu ziran bien begietako laño guziak eta ezagutu zuten beren Maisu Jesus maitagarria zela berekin zutena ta nai zutenik egiteko aldirik eman bage gorde ta joan zen Jesus berak dakien tokira.

«Orregatik», esan zuten horduan elkarren artean, «orregatik berotu ziran zeruko suz gure barrenak, aren hitzak eta Eskrituren klaranzak aditze berean»; ta zeuden tokitik jaiki ta beldurrak utzi ta itzuli ziran Jerusalem an arkitzen zituzten Apostol guziei (ta arkitu zituzten bat ez, beste guziak) esatera ekusi zutela Jesus biztua ta berarekin oriei agitu ta gertatu guzia.

Baña zer ote da Jesussek bere bi eskolarrei aldi onetan esan zienak adirazten diguna? Adirazten digu beraren eriotzaren erako eriotz onari darraikola zori oneko bizte bat eta bizte oni betiko atseginza ta gloria; baño bizte on ta glori hau erditsi nai duenak eriotz onak eskatzen duen gisan ta ongi bizi bearko duela ta artako anitz lagunzen duela bere ill bearra gogotik ez uzteak. Zergatik ote? Aldi onetan adiraziko dugunagatik.

§ I.

Eriotz on batera prestatu nai duenak egin behar du Davidek bein egiña. Toki batetik begiak kendu bage ta gogo guzia geroko bizitzan sarturik arritu baten eran, asi zen bein esaten David: «Egiaren izugarria! Itzal baten eran joaten ta gordetzen da gure bizitza»: *veruntamen in imagine pertansit homo* (Ps. 38,7), ta bat-batean ezpadere, azkenean joan ta gordetzen da arririk ez den toki berdiñean dabillen ura bezala.

Ur onen bazterrean jarri ta ari begira bazaude, iduriko zaitzu putzu ta istill bateko ura bezain geldi dagoala, ta ez da ala; gañeko aldetik datozen urak bulkatzen du an arkitzen dena; aratzen denak bulkatzen du urrengoa; urrengoak urrengoa ta batak bestea ta andik itsasoraño arkitzen diran beste guziak. Hau bera gertatzen zaio gizon bakoitzari: nola ez dakiela galzen du aurtasuna ta arkitzen da mutill egiña; nola ez dakiela galzen ditu indarrak geienak, urdinzen da, galzen ditu orzak eta agiñak ta azkenean gelditzen da indarrak bage ta illa. Horduan ezagutzen du geldirik dagoa-



la dirudien ibai bateko ura bezala zela bera ta bat-batean galzen den itzaren edo ametsaren gisakoa aren bizia.

Izaten dira eun urtez, mill urtez ta geiagoz ere irauten duten itxeak, baña itxeko bakoitzak laster egiten ditu ango aldiak; bada zenbait ilzen dira jaio ta fite; beste zenbait ill zenbaiten edo urteren buruan, ta geien irauten dutenak ere ilzen dira larogei urte baño len; ta geien-geienak berrogei ta amar ere ekusi bage, ta orien larogei ta mill urte ere darraizten urteen aldean ametsik laburrena baño agitz eta agitz laburragoak dira. Zure eskuan balego bitatik bat, amets labor atsegindun bat edo mill urteko bizi eder atseginduna, zein artuko zenuke? Eroa izan nai ezpadezu, bizi luze atseginduna.

Jakin behar dezu, bada, zeruko biziak iraun bear duela mil urtez ez ezik, milletan milloiez ta milloiez milloika ta beti ta beti bein ere bukatu bage, ta ango bizi hau betiko atseginz eder andiz beterik arkitzen dela ta emengo bizirik onen, luzeen ta atsegin dunena ere amets nasi, bein pozez ta bein atsekabez betetzen duen bat bezain txar laburra; zer erakeria, bada, onegatik hura galzea, bekataria galzen duen bezala?

Etheen ta atseginzen gisakoak dira munduko egiteko ta honrak, naiz izan oriek kargudun, aginle, justizari, titulo, errege, enperador, Obispo jaun, Aita Santu edo beste edozeinenak; bada oriek ere zerbait irauagatik, ez dute luzaro irauten orietan sarzen diranak; luzeenaz ere, len guk adirazi dugun diña ta geiago ez. Zeruko kargu ta honrak dira arzalleak betiko arzen dituenak eta dira honra eta kargu zori onekoak eta beti-betikoak.

An badira birjin, konfesor, predikari, Obispo jaun, Aita Santu, martir, Apostol, profet eta pratiark bakoitzak dituen kargu ta honr andiak; bai ta aingeru, tronu ta serafin ta beste guziak dituztenak ere. Orietatik bakoitzak izanen du beti an sarzetik duen bere kargu ta honra, ta denbor berean izanen da an bertako prinzipte ta errege, beste aldi batez adirazi genuen bezala; ta izanen da an ango bere zori ona bein ere galzeko beldurrik bage; zeren jakiñen duen betikoa dela aren ango bizia, bai ta Jangoikoak an bakoitzari ematen dion atseginza, honra ta beste guzia ere.

Bakoitzak besteren eskuan utzi bear du emen emengo kargu ta honra guzia eta hau zekienak bezala esan zion Españiko errege Felipeetatik batek, elizako gauzak artu ta beste mundurako abian arkitzen zen horduan bere seme, aren ondoren Españi berean errege izan bear zuenari: «Orra, nere semea, zure burura ta eskura dijoaz nere buruko ta eskuko koro ta zetroa; baña begira, zureetatik ere fite ta laster joanen dira besteren batenera».

§ II.

Egi hau hordu artan ezagutzen dute guziak, baña eriotzak eskatzen duen prestanzarako berandu etorri oi den egia da horduraño agerzen ez den egia; bere horduz ta garai onean datorren egia da Davidek izandu zuena ta bakoitzak osasunan ta mugaz artu bearra, ta ill arte guzirako artu bearra.

Bai, bere ill bearra batek mugaz gogoan artu ta gogo berean erabilzea da emengo gauz-honrei ta atseginzei adio on bat esateko ta eriotz oberako prestanzak eskatzen duena; baña emengo atseginz, honr eta beste gauzak izan oi dira eriotz onaren trabak, ebanjelari S. Joanek dion ta guk ere ekusten dugunaz. Hau adirazi ta mututurik utzi zituen relijioso egin zen mutill ondasundun batek galdegin erausle zenbait.

Beste anitzen gisan zuena utzi ta egin zen relijioso gazte aberats hau. Munduko begiz gauzei begiratzen zien zenbait arritu ta joan ziran argana ta galdegin zioten nola egin zuen erakeri hura, fraide izateagatik anbat ondasun uztea. «Egin dut nik erakeria dela zuek esaten dezutena guziok egin behar dugun beste bat ongi egin naiez». «Zer da guziok egin bear dugun gauz ori?», esan zioten bere galdegiñak. «Bereala, laster ta fite edo zenbait urteren buruan illik gelditzea», eranzun zuen fraide berriak.

Bai, bere ill bearraz oroitzen ez dena emengo ondasun-naiez, honra-naiez ta atsegin-naiez burua bete-arrotua dakarrena ta eriotz onaren prestanza alde bat uzten duena da. S. Felipe Neri Erroman bizi zen denboran, ara zen kalonje gazte bat eta sartu zen andustez ta igan-naiez ongi betea, ta batu zuen batez, esan zion S. Felipek bere esku leunak soñean ezarzen ziozkala: «Ongi etorri, adiskide maitea; zori oneko gizona zu, bada orren gazterik kalonje arkitzen zara; azkenerako noraño igan behar ote dezu? Zu bezalako gizonenzat dira urrutiko ta izen utsezko Obispaduak, bai ta bazter oietako ondasundunak ere, ta laster ekusi uste zaitugu mitra bat buruan dezula. Joan bearko dezu gero Aita Santuaren gobernu edo Nunziaturaren batera. Egiñen zara gero Kardenal. Kardenaletatik aldi bat egiten da Aita Santu ta izan zindezke Aita Santu ere». Hau aditu ta poz-atseginzez berotu zen kalonje gaztearen biotza. Artan geldituko zela uste zuen Santua, baña etzen gelditu ta azkenean esan zionarekin oztu zion bere poz guzia. Eman zion besark edo laltan onezko bat eta españak belarrira urbildu ta esan zion isilka: «Eta



zer izan uste dezu gero?». Esan nai zion Santuak: «Izate andi ta honra orien buruan illen zara zu ere ta autsetan ta ketan geldituko dira zure ondasun ta honra guziak; eta nola geldituko da zure anima?». Otzez erdi egiña zirudiela utzi zion Santuak biotza azkeneko hitzarekin ta adio on bat esan ta joan zen bere egitekora ta gelditu zen kalonje gaztea arrituraren eran ta zer egin etzekiela.

Arritzekoa da, bai, ongi begiratzan dionarenzat eriotza, eriotzak emengo gauz, ondasun, honr eta atseginz guzietan egiten duenagatik eta darraikon eternidade izugarriagatik; bada kenzen diozka ilzen denari, bat ere utzi bage, zituen guziak eta uzten du nora bear duen ez dakiela ta Jangoikoaren tribunaleko sentenzi arrigarriaren begira. Sentenzi hau atarako da ill denak emen zebillela egin zuen bizitzak eskatzen duen gisakoa. Ibili bazen ongi ta Jangoikoaren bidez erditsiko du zori oneko eternidade pozgarri ondasunduna; ta bestela, zori gaiztoki eternidade bearez, nekez ta tormentuz betea.

§ III.

Emengo gauz txarrei ta geroko andiei noizean bein ta aldi oro kontuz begiratzan dienak errazki ta aisa kenduko ditu begiak emengo txar guzietatik eta begiratuko die bear den gisan zeruko andi ederrei ta egiñen du oriek erditsi naiez egin bear den ibilkunz eta bizi garbia. Hau egin naizik sartu oi dira relijio onetan edo artan sarzen diran gizaki ta andreki guziak eta an egiten dituzte anbat barur, otoitz, penitenzi ta beste gauz on. Hau egin naizik uzten dituzte misionistak beren erriak, beren aide, adiskide ta ezagun guziak eta joaten dira Indi urrutira, Txina, Mogol ta aragoko beste anitz bazterretara, ta mil nekeren, goseran ta egarriaren artean an dabilza jentil itsuei Ebanjelioz ta dotrinaz argi egiten, bataitu gaisoei hitzez, sermoiez ta sakramentuz lagunzen ta al duten on guzia guziei egiten.

Beste munduko ondasunak gatik egiten dituzte munduko fededunak egiten dituzten limosnak, zorzi oroko, amabostean beingo edo illetik illeko konfesatze-komulgatzeak, hastean beingo ta beste zenbait egunetako barurak; egiten dituzte sermoi-aditze, mez-enzute, kongregaziora joate, errosari esate, itxeko guziei jakin behar dutena erakuste, ibiller makurrak eragozte ta egin bear dituzten beste gauz onak. Beste munduko gauz on berak irabaz naiez Jangoikoaren izenean barkatzen dituzte

egiten diezten bidegabenez, txarkeri ta injuri guziak eta, aldiak eskatzen duen aldian, orien egille berei ere egiten diezte ditzakeen ongi ta onak, eta bizi dira gauz gaizto txikitara ere bage.

Oriek berak, relijiojar onak eta ziñez zerura nai duten beste guziak esaten dute len Ezekias erregek ziona: «Nere biziaren erdian ta osasun onean oroitu ninzan», zion errege onak, «ill bearra nazala ta hordutik artu nuen zeruko gauzak gogoan artu ta lurreko guziei ez-ekusi egiteko asmoa. Gaurgero izan bear dut nik usoaren ta txoriaren gisakoa; negarrez dago beti ta gañeko aldera begira usoa ta pi-ioka bazk eske kabiko txoria, ta ala nik ere», zion, «zerura noizean bein begiratzan dudala, Jangoikoari bere grazi ta lagunza eskatzen diodala ta denbor berean negar ta negar oraindiano nore bekatu guziez egiten dudala, egon uste dut nere bizi guzian»: *recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animae meae* (Isai. 38,15). Eratsu berean hitz egiten dute fededun onak eta zerura nai duten beste guziak eta hitzez esaten duten bera gogoan dutela adiratzan dute orien ibilkunz-bizitzak; bada bekatutik urrun dabilz oriek, bizitz on banatan sartuak arkitzen dira ta zerurako egiten dituzte anitz gauz on.

Era orretan ibilzen dira oriek, zeren gogoan dakarten beren ill bearra; bada «ez da artako», dio S. Agustiñek, «alako beste gauzik»: *nihil ita revocat homines a peccato, quenadmodum imminentis mortis cogitatio*. Lenagotik ere hau bera adirazia daduka Espiritu Santu berak; bada lenagotik eta lenagotik esaten digu: «Gogoan erabilzen badezu zere eriotza ta eriotzari darraikon guzia, ona da geroz zuk egiñen dezuna»: *memorare novissima tua, et in aeternum non peccabis* (Eccl. 7,40). «Ez da», dio Davidek ere, «arrotasuna, gaiztakeria ta bekatua baizik eriotzaren oroitzapen ona alde bat utzi ezker»: *quia non est respectus morti eorum... ideo tenuit eos superbia, et operati sunt iniquitate, et impietate sua* (Ps. 74, 4 et 6).

Zori oneko humeak gu, Jesusek gaurko Ebanjelio santuan, Espiritu Santuak Eskrituran ta doktore jaunak beren libru onetan agertu diguten bide hau guk arzera; bada gogoan guk artu ezkeroren geran laster ta fite illbear hau, emengo gauzei ez diegu anitz begiratuko; pozik egiñen ditugu zeruko ondasunak irabazteko diran gauzak; prestatuko gara eriotz on batera ta erditsiko digu betiko atseginza ta gloria. Jangoikoak digula eriotzaren oroitzapen hau, ta oroitzapen onek agerzen dituen gauz onak egiteko grazia: bai arren, bai.



XXVIII

Bazko irugarren eguneko irakurraldia

Sic oportebat Christium pati, et resurgere a mortuis... et praedicari poenitentiam. Luc. 24.

Gaia: Zein diran bekatuaren eriotzetik graziz biztu denak egin behar dituen gauzak

«Jerusalendar eskudun ta orien eliz gizon andiak, jakin bagez egiten zutena, bizia kendu zioten Jesusi», esaten zien bein S. Pablok beraren sermoi bat aditzen zutenei; baña beren obenez jakin bagez jakin behar zutena; bada elizan berak askotan irakurri ta aditu zuten arretako profetak ziotena; ta profetak zioten, ill zen bidez ill bearra zela Jangoiko-gizon Jesus maitagarria; baña etzuten israeldar oriek zenzat edo Jangoiko-gizonzat ezagutu nai Jesus Jangoiko-gizona. Eta etzen bakarrik bizia kenezeta Jesusi oriek egin zioten gaiztaginz eta kalte-ezhonra; bada aditu zioten Jesusi bere berria ematen zien zenbait aldiz biztuko zela ill ta irugarren eguneko, ta hura gezurti egin ustez kendu zuten gurutzetik aren gorputz illa ta sartu arrizko obi gilzatuan ta onen inguruan, norbaitek ebatsi ta esan etzezan biztu zela, ezarri zituzten soldadu erromatarrek bati ere ara urbilzen ez uzteko; baña irugarren eguneko bizturik, berak len esan bezala, atera zen andik Jesus berez ta besteren lagunzik bage. Hau da gaurko Epistolaren Elizak esaten diguna (Act. 1,3).

Jesus berez ta bere birtutez biztu hau agertu zen andik laster, nola ta nondik ageri etzela elkarrekin erkitzen ziran Apostol bereen artean, dio egungo Ebanjeli santuak, eta an sarzean, «Geldirik guziok», esan zuen Jesusek, «ez da zer asaldata; ni naz». Baña hau argandik aditu ta ere, duenderen bat zen beldurrez asaldata ta arritu ziran guziak. «Geldirik guziok eta asaldanzik bage», esaten die bertan Jesusek; «zeri dagokala zuen gogoranz illun oriek? Begir egiezu(e) nere esku-oñei ta ekusiko dezue ni nazala (zuen Maisu Jesus). Atozte zeren eskuz nere gorputz hau ukitzera; bada duendeak ez du nik dudana gisako ezur-aragirik».

Al-ere Apostol onak pozez zoratu ta siñistu etzuten ekusten zutena ta beren zoranz artatik oriek atera ta soseg-eraz naizik, «Bada emen», esaten die «jateko zerbait?». Atera zioten arrai zati bat eta zerbait ezti. Jan

zuen artatik Jesusek eta janeraz gelditu zena. Esaten die gero: «Oroituko zarazte zuekin len bizi nintzan denboran esan nizuela niri agi-gertatuko zitzaidala Jangoikoak nere gain Moisesen lege, profeten ezpañez ta salmariaren hitze adirazirik zedukan guzia»; ta agertu zien gero Eskritur Santako azalpe gordean arkitzen zen mamia ta egiteko oni zegokan guzia, ta «Orra», esaten die gero, «orra lendanik eta aspaldi Jangoikoak esanik zedukana: ta orra nola bear zen (munduko guzien onerako) nere neke andien buruan ni gurutzetik illik gelditzea, ta ill ta irugarren eguneko illen erditik bizirik ateratzea mundu (bereko) guziei adiratzeko etorri dela penitenzi egiteko ta bekatu guzien barkanza erdisteko denbora, (bada lenagoko nere neke-tormentu andiekin ta eriotz gogorrek irabazirik utzi dut orretako bear dezuten guzia)».

Orra egungo Ebanjeli santuak dakarrena. Baña zer ote da Elizak hau agertuz adiratzeko diguna? Beste gauz on anitz ere bai ta bekatuaren eriotzetik graziaren bizira ater ezker, egin behar dugula berriz ez bekatutzeko penitenzia; ta penitenzi, berez gogorra; baña Jangoikoaren lagunak eta graziak arinzen ta leunzen duena, gaurko aldian guk ekusi bear dugun bezala.

§ I.

Jangoikoaren graziaren iraun ta zeruan sarzea guziendako da nekezko lana; ta lan hau gogo osoz ta bortizki egiten dutenak dira zeruratzen diranak, dio Jesus maitagarriak: *Regnum Coelorum vim patitur, et violenti rapiunt illud* (Matth. 11,12).

Baña beste guzienat baño neke agitz andizkoagoko lana da lan hau len gaizki bizitu ta gero Jangoikoaren graziara datorrenarendako, zeren orrek beste guziak baño etsai ta traba geiago duen lan orretaratzen den aldian; agitzen zaio alabaña ortzitu baño len aromaz manea zezaken gorputza, bere obian ta arripe lur kalkatuz betean sartu ezker, maneatu nai duenari agitu oi zaiona. Obira baño len manea dezake illaren gorputza ill-oialik eta ill-arririk erabili bage; baña bein obian ezarri ta arriz estali ezker maneatuko badu, kendu bearko diozka bein bere edo besteren neke andiarekin gañeko arria, gañeko lurra ta lurrez zikindu zaizkan gañeko oialak.

Bataitu zutenetik bekatutzeko ez den fededuna ez da sarzen bekatuaren aitzur ta oikur gaiztoen oial trabarrietan, ez eta ibiller txarren arri-



pe galgarrian ere; ez dio ematen etsaiari beraganako bide andirik; aisa iges egiten du aren tiro ta bekatu bide galgarrietatik eta neke andirik bage egiten du bizkuz on batek eskatzen duena; ta hau egin aldian duen neke piska arinzen dio Jangoikoak bere graziaren leunz eztituarekin ta ematen dio eginkizunerako bear duen eskua ta indarza, ta esku-indarz orrekin errazkiago egiten ditu urren-go lanak, eta hau bera gertatzen zaio urren-go ta urren-goekin ere.

Baña ez da hau len gaizki zebillenari Jangoikoaren graziz biztu ondoan agitzen zaiona; bere aztur gaiztoen trabak eragozten diote zeruko bidean arinki ibilzea; bide berera ateratzen zaio etsai gaiztoa, bai ta beraren lagun ez-onetatik bat edo beste ere, ta histaz, irriz, tentatuz ta esanez kenzen dio, edo beinzat agitz epelzen, onerako zeraman gogo; tiratzen du beste aldetik gaitzerako bere grin gaizto, berak bekatuz sutu-biztuak, eta gauz onak dakarren nekea bere gain ez artu naiez aisa uzten du hau ta gelditzen da lan onaren bide erdian; edo artara ta egiten badu, egiten du bere neke ta enoiu andiarekin. Eratsu berean arkitzen da urren-go ta urren-go ta urren-go egin aldian ere, ta bere burua askotan bortxatuz baizik, ezin iraun dezake graziaren biritan ta zeruko bidean.

Bere buruaren bortxanz andiagoak egin bearko ditu danzara edo perillezko beste jostaketara oiturik arkitzen zen bekatari biztuak, bai ta ebasketara, edanketara, lizunkerira, jokora, alferkerira edo era bereko beste gauzen batera oiturik bizi denak ere; bada Jangoikoak daki zenbat indar duen oikura gaiztoak gaizki oitua bere gaizki aldera makurzeko ta nekezo bere gauz ona orri eragozteko.

Hau zuri siñisterazteko esan ditzaket nere denborako bi gauza. Elizako gauzak arturik arkitzen zen nik misioa egin dudan erri batean geiegi edateko aztura zuen gizon bat. Hordu azkenaldikoan ari lagundu zion nere adiskide apaiz on batek. Zenbait gauz on esan ta eman zion bein Santo Kristoa, esaten ziola: «Orra Santo Kristoa, apa ta muñ egiozu»; baña ark hau egin ez ta egin zuena zen, artu ta eraman bere ezpañetara ta aoa zabaldu ta goititu ardoz beterikako taz bat bailiz bezala.

Geroz ill da nik bein baño geiagotan lo egin dudan itxe batean bizitu zen edanerako oikura gaizto bera zuen beste bat. Onak isilka ta gilzape berean idukitzen zuen gogoak ematen zion aldian edateko bere zato ardoa, ta Elizako gauzak arturik eta guztiz gaizki arkitzen zen batez, artu zuen gañeko estalkia ta zagi-zatoa baliz bezala goititu ta egin zuen zatoarekin oi zuena; ta ekusi ta etziola ardorik ematen, egin zuen onezko damu ta aktu kontriziozkoa izandu zen: «Pikez pike ta tantarik bage dago deabruzko zatoa». Atera zen gero eritasun artatik, baña beti bizitu zen

bere oikur gistopean ta azkenean ill zen hospital batean, Jangoikoak daki nola.

Gaizki bizitu ta oikur gaiztoa duenak ere, bekatuaren eriotik graziaren bizira ezkeru, iraun dezake, Jaungoikoaren lagunaz ta eskuz baliatzen dela, bere bizkuz on berrian, ta esan dezake Davidek bein ziona: «Bidean ezarzen badidate trabetako muru andi izugarri bat ere, muru gañetik igaroko naz ni Jangoikoak bere eskua ematen didala ta aitzina joanen naz nere bidez»: *in Deo transgrediar murum* (Ps. 27,30); edo nere grin gaiztoaren, nere aztur galgarriaren ta nere etsai amurratuen alegin guziak garaiturik egifien dut, nere Jangoiko maitagarriak lagunzen didala, Jangoiko berak nigandik uste duena ta niri dagokidana. Hau guri adirazteko da Jesus biztu ondoan Magdalenari ta beraren bi lagunei agigertatua.

Jesus biztu etzelako ustean joan ziran Bazko goizez Jesusen gorputza aromaz maneatzera. Bazekiten arri andiz estalia arkitzen zela bere obian Jesusen gorputza. Bazekiten etzutela berak hura kenzeko diña indar ta beso, ta esaten zioten elkarri: «Nork kenduko ote digu ango arritzar hura?»: *quis revolvat nobis lapidem de ostio monumenti?* Al-ere Jangoiko berak egiteko artan bideren batez lagunduko zielako uste osoan, Jesusen obira ziran ta etzen ustel atera orien uste beroa; bada ara ziraneko arkitu zuten bere tokitik kendua ta obiko sar-bidea idiki-zabala.

Zoaz, bada, zu ere Jangoikoagana ta zeruko bidean ta zere gauzen eginaldian trabaren bat arkitzen badezu, traba kendu ta zere gauz oriek egiteko bear dezun lagunza Jangoiko berari eska ta gald-egiozu ta emanen dizu; bada bere hitza emana du ez duela aldi orietan lagunz hau ukatuko; ta eman zuen bere hitz hau esaten zuela: Eskatu zuek ta artuko dezue: *Petite et accipietis* (Joan. 16,24).

Jangoikoaren lagunz onekin ere gaizki bizitu denak izanen du zer egin, len egin oi zituen ta beraren grin gaiztoak eskatzen dituen gauz gaiztoak ez egiteko, bai ta len egiten etzituen egillea nekatzen duten ta egin bear diranak egiteko ere; ta gogo osoz ta ziñez arzen ta egiten ezpa-du bere egiteko hau, berriz ere galduko du graziaren bizia ta illen da bekatuaren erioz. Ez ilzeke, bada, ta bizirik irauteko, ekin behar dio beti bere egiteko oni.



§ II.

Graziaren bizitz onetan iraun nai badu, egin bear du bekatuaren eriotzetik irten ta atera denak besterik ere; bada egin bear du bere bizi berri hau sendorzeko den edozein beste gauz, indarrak arzeko diran gauzak arzen dituen bezala aritasun gogorretik atera ta bizkorzen asten den eriak; eta orretako prest egon bear du aldiak dakarren aldi al ditzaken gauz onak egiteko ta besteei ere lagunzeko. Hau da Jesusek bere biztu ondoan egin zuenarekin adirazten diguna.

Jesus biztu horduko asi zen gauz onak egiten ta egin zituen, zerura igan arte guzian, horduan bizi ziranen ta gure onerako ziran guziak; eta egin zituen bakar bat ere utzi bage. Biztu horduko, uste dugunaz, joan zen beraren neke-penen penaz ta zion emorez urzen zegoen Ama maitagarriagana, ta ari zegozkan atseginzak eman ta agertu zitzaaien beraren billan zebizkan Madalenari ta Madalenaren lagunei. Joan zen gero ukatu zuelako damuz beterik arkitzen zen S. Pedroren biotza arinzer. Badijoa gero ardi errebelatuak bezala Jerusalemendik igesi zijoazen Cleofas ta Cleofasen laguna bilzera. Urrengo aldi ta berriz ta berriz ere agerzen zaie bere Apostol beldurtiei ta agerzen zaie gabez, egunez, itxean, itsas bazterrean ta bear zen baste toki guzietan.

Bere agerraldietan agerzen dio bakoitzari bakoitzak jakin bear zuena ta Apostol jaunei Elizaren gobernurako ta munduko guzien onerako jakin bear zutena, ta beste gauz guziak eta Elizako sakramentu andiak zuzendu artean etzen igan Jesus bere glorira ta Ait eternoaren eskoi aldera.

Biztu zen Jesus maitagarria berriz ez ilzeko ta, hau guri adirazteko, atera zen obitik obia idiki bage ta arriz estalia ta gilzatua uzten zuela. Biztu behar dute bekatuaren obitik an dautzanak berriz ez aratzeko. Baña ara nai ez duenak ibilli bear du biziro ta Jesusen eran bere gauzak egiten ta besteei lagunzen, ta ez du hau egiten bere konfesioa egin ondoan bere bizian egin bear duena egin balu bezain lasai bizi denak eta begitan arzen ez duenak bakatu berrirako bidea ta lagun gaiztoekiko ibillikunz galgarria, ez eta gauz onak onen gain egiñez graziaren bizte berrian sendorzen ez denak ere.

Jesusek esanik utzi zigun zerura igan baño len: *negotiamini, dum venio* (Luc. 19,13); ni zuei kontuak arzera etorri arte guzian egizue zuek merkatari onak egiten dutena. Oriek egiten dutena da irabanzak irabanzen gain egiten haritzea, emendik ara ta andik onara dabilzala irabaz-aldirik

ez galzea. Zure irabaz-bidea da gauz onak eta onak egiteko aldiak billatzea, arkitzen dituzunetik bat ere ez galzea ta aldiak dakarren gauz onak aldi egitea.

Hau baño geiago ere egiten du kontuzko merkatariak; bere irabazi guziak egiten ditu naginzak utzi ta poz eta atseginz andiarekin, ta hau bera da zere irabazketan zuk ere egin bearra: arinki, gogo osoz ta poz andiarekin zere gauz bakoitza egitea, dela errosarioa esatea, dela meza enzutea, dela konfesioa, dela komunioa edo edozein beste gauz. «Bai», esaten dizu S. Pablok, «len zere gaitzerako gaiztakeri zikiñak gogo ta gorputz guziarekin bezala, gorputz-anim eta gogo guziarekin egizkitzu orain Jangoikoari atsegin egiten dioten ta zure onerako diran gauz onak»: *Sicut exhibuistis membra vestra servire immunditiae, et iniquitati, ad iniquitatem, ita nunc exhibete membra vestra servire iustitiae ad justificationem* (Rom. 6,19).

Badakizu nola dabilzan bekatuaren obia utzi ta graziaren bizitzan ongi sendortu diranak? «Birtutez birtute», dio salmari onak: *ibunt de virtute in virtutem* (Ps. 83,8). Besteren bearrak hau eskatzen duen aldi ematen die dutenetik al dutena, lagunzen die beren egiteko on guzietan, ekusten dituzte beren eritasunetan, arinzen diezte beren biotz illun naigabez beteak eta egiten die al duten on guzia. Dollorren batzuek egiten badiezte zenbait txarkeri, ez die bekaitzik erakusten, eta onez ta oriei berei on zenbait egiñez garaitzen dituzte orien txarkeri-gaiztaginak eta egiten dute al dutena makur dabilzanak zuzenerazteko, aserre daudenak bat egiñak uzteko, oni ta ari ta al duten beste guziei gal-bide guziak eragotzi ta onak arrezazteko ta berak ongi ibilliz ta hitz onak esanez agerzen die ekusten ta aditzen dituzten guziei zeruko iganbidea.

Graziaren bizian sendortu diranak besteren onari bezain ongi edo obeki begiraten diote berenari. Egun oro egiten dituzte eguneko beren gauz onak, horduan hordukoak eta aldiak dakarren aldi beste beren aldikoak. Kongregazioko egunetan oriek dira lenbizikoak elizan, kapillan; oriek ez dute galzen komunioko aldirik. Sermoiak, dotriñak eta gauz onak aditzera joaten dira diran aldietan ta an daude erne-bilduak bukatu arte guzian. Al badute, badoaz eriren bat gana daramaten Jangoikoarekin, ta ezin dutenean, gogoz ta biotzez an dira beren Jesus maitagarriarekin ta eriri lagunzen diote orien alde Jangoikoari eskatuz ta oititz egiñez.

Ikasten dute askotan ta maiz elizaratzea, egiten dira Jesusen bihotz maitagarrikoak eta egiten dituzte Biotz maitagarri onen debozi leunak eskatzen dituen konfesa-komulgatzeak eta beste gauzak; eta egiten dituzte beren gauz oriek Isaiasek agerzen dituen birtutetsu zenbaiten gisan.



Norsu diran oriek guri adirazteko esaten du Isaiasek: «Artuko dituzte agil egariaren erako ego-egalak eta ibilliko dira (zeruan sartu arte guzian) gelditzen ez dirala»: *Assument pennas sicut aquilae, current, et non laborabunt, ambulabunt, et non deficient* (Isai. 40,31).

Oriek dira, bai, Jesusen eran biztu diranak ta zeruan Jesusekin egon behar dutenak. Zori onekoak zu ta ni orien lagun emen egiten bagara, orien beren lagun gero zeruan izateko. Gure eskuan dago zori on hau, Jangoiko maiteak lagunzen digula, ta lagunduko digu ziñez guk hau eta bear den eran eskatu ezkerro. Eska dezagun, bada: bai arren, bai.

XXIX

Bazkoen urrengo igandeko irakurraldia

Venit Jesus, januis clausis, et stetit in medio eorum, et dixit: pax vobis. Ioan. 20.

Gaia: Andia da bizitz onaren
baketik datorren ondasuna

Len ekusi dugu judatarren beldurrez gorde-gilzatuak arkitzen zirala Apostol Galilean bilduak, Jesus biztua orietara zen lenbiziko aldian. Etzen aldi artan Didimo deritzan S. Thomas. Aratze berean, Bake ona zuekin esan ta, ekus zezaten nor zen, agertu ziezten guzien amorez zula-turik egondu ziran bere esku-bularrak. Jesus ekusi ta ezagutu zutenetik poz andi bat artu zuten an arkitzen ziran guziak.

«Orra», esaten die gero Jesusek, «betiko nere Aitak igorri ta bidaldu ninduen emen lurrera, munduko guzien onerako gizon egin ta egin dudan egiteko nekezkoa; ta munduko guziei adirazteko emendik ater dezakeen on andia, igorzen zaituztet orien artera, (bai ta orien beren ta beren bekatzuz aserretua dadukaten Jangoikoaren artean bake onak eragitera ere); ta artako ta onetako bear den esku guziarekin joan zaitetzen», aize egin zien bere aoz, esaten ziela. «Ar zazue Espiritu Santua ta bekatu egiñak barkatzeko eskua. Jangoikoak barkatuko ditu esku orrekin zuek barkatzen dituzuen guziak eta barkatu bage geldituko dira zuek ala utziak».

Orien artetik Jesus joan ezkerro agertu zen S. Thome. Esan zioten Apostol lagunak biztu zela Jesus ta ekusi zutela. «Ez dut siñistuko», eranzun zuen ark, «beraren eskuetako ilze-zuloak ekusi, ilze-zuloetan nere behatz-heriak sartu ta nere eskuz beraren bular lanzaz urratua ezagu dezadaño»; ta berak esan zuen gisan agi-gertatu zen guzia; bada lenbiziko bere agerzetik zortzigarren egunean agertu zen berriz Galileko itxe berean Apostol leneko guziak eta S. Thome an arkitzen zirala. Aldi onetan ere itsia edo gilzatu arkitzen zen guzien gela ta al-ere sartu zen Jesus zerrallurik ukitu bage ta guzien erdian agertu ta esan zuen leneko gisan: «Bake ona zuekin»: *pax vobis*.



Itzulzen da gero S. Thomegana ta esaten dio: «Orra, sar zazu emen nere esku ilzez zulatu onetan zere heri-beatza; ekarzu esku ori ta uki ta ekus zazu nere bular lanzaz zulatu ta urratu hau ere, ta siñes zazu esan dizutena ta izan zaitez siñisle ona». Hitz gutirekin eranzun zion S. Thomasek bere Maisu Jesus maitagarriari; bada esan zion guzia zen: «Nere Jauna ta Jangoikoa». Al-ere orretan esan zion siñisten zuela guzia ta damaturik arkitzen zela lenbizitik hau ez egiñaz. «Bai, baña», esan zion Jesusek, «siñesti dezu ekusi ezker; zori oneko gizonak ekusterik bage siñesti dutenak» (hau da alabaña Kristau siñistea, Jangoikoak adirazi ta Elizak esaten diguna, ekusi ezagatik, siñesti ta onzat arzea).

«Beste anitz agerze ta milagro ere egin zituen Jesusek bere eskolar berak begira zegozkala», dio egungo Ebanjeli santuak edo Ebanjelari S. Joaneke; «baña emen ezarri ez ditugu», dio, «zeren ezarri-agertu ditugunak aski diran siñisterazteko Jesus maitagarria dela gugatik ill ta biztu zen Jangoiko-gizona ta siñistanz onek eskatzen duen eran bizi garala, zerua guk beraren bidez irabazteko». Orra gaurko Ebanjeli guziak dakarrena.

Alde batetik emen ekusten ditugu S. Thomasek beste Apostoluakin izandu zituen ezбайдak, eta bestetik ekusten dugu Jesus *bakea, bakea* esaten duela orien erdian sartua, bai ta baketan oriek uzteko egin zuena ere. Eta aldi onetan esan ta egin zuenarekin erakusten digu guztiz ongi dago-kigula baketan bizitzea, baketan bizitze onek lagunzen duenagatik Jangoikoaren ta beste gauz ondasundunak ongi egiten, ta hau da aldi onetan guk ekusi behar dugun gauza.

§ I.

Bada bakea ta bakea. Bake bata Jangoikoarena da ta bestea etsai galgarriarena. Etsaiaren bake hau bake gezurti galgarria da; ta bake, gurea izaten bada, gu galerazi bearra. Bake on guk billatu bearra da Jangoikoarena edo Jangoikoaren grazitik datorrena. Goazen bata ta bestea kontuz ta erneki ekustera ta ekus dezagun bein etsai galduaren ta bekatari gaisoen bake gaizto galgarria: *pax peccatorum pessima*.

Bekatuak ere ekarri oi du bere atseginza ta bakea; baña bake ta atseginz, aserretzetik datorrena ta orregatik bake gezurti galgarria. Bai, aserretzetik datorren bake da bekat-gin gaiztoen bakea; bada bekatuaren atseginz loi-makurra bere buruari emateagatik aserretzetan du bekatigina Jangoikoa, ta bake gezurti galgarria da Jangoikoaren adiskidanza

galerazten duen bakea; ta bake hau zenbat ere andiagoo, anbat gaizto galgarriagoo da. Bekatuz bekatu ta gaizkitik gaizkira dabilzan zenbait bizi dira soseganz eta bake baizik agurzen ez dutela; baña zori gaiztoko bekatia dira batedun oriek, S. Bernardok dionaz; bada Jangoikoaren zeanz izugarrietatik bat da, dio Santu onek, «Jangoikoak bekataria bere bekat-arteke bake onetan uztea»: *ut, quo quis peior sit, sit tanto securior*.

Aldi zenbaitez bekatariaren bake galgarri onek badu beste biderik ere. Bide orietatik bat da bekatariaren zenzanz-eza ta bestea beraren biotz agitz galdua. Zenzanz andirik ez duen bekatariak ez du anitz begiratzen bekatuz galdu duen zerura ta damu andirik arzen ez du hura galdu ta; zerura baño geiago begiratzen ez du bere bekatu beraz irabazi duen suleze infernura ta ez dute anitz izutzen ango neke-tormentu gogorrek eta orrekin bizi da zori gaiztoko bake ta soseganz andi galgarrian.

Eratsu berekoa edo gaiztoagoo da biotz galduzko bekataria. Edanez, juramentuz, maldizioz, aragiaren lizunkeriz edo beste gaiztagin-zez betetzen diran bekatari galduen biotzak izaten dira zauriz usteldu den aragiaren gisakoak. Aragi hau gaitzez galdua arkitzen da ta al-ere bere gaitzak ez dio ezipaliz baño min geiago ematen. Hau zer da? Gaitzak senda-biderik ez izatea. Orra biotz galduzko bekatari batedunaren ain-zur-itza-imajiña. Eta orra zein gaiztoa orren beraren ta len esan dugun zenzu gutikoaren bakea. Oriek arkitu oi dira beren azken gaitz lo zorro, *letargo*, deritzan ta akordu guzia ta ibilera kenen dituen eritasun galgarrian. Lo datzala dirudi eri onek eta ilzen dago. Orobat da diogun bekatariaren bakea; sulezeko obira ta osin izugarri darama bekataria, baña isil isilika ta alakorik ezipaliz bezala: *tranquillitas ista tempestas est*.

Adimentu onezko beste bekatariak lenbizian zenbait denboraz bake-iduri bat izanagatik, laster aski edo beinzat azkenean izaten ditu asaldanz eta beldur-ikar andiak. Orrenzat bekatua da osasun ona duten zenbaitendako jatean goxoa dirudien, baña pozoiez, izurritz ta benenoz beterik arkitzen den janaria. Hau jaten hari den aldian arzen du zerbait poz eta atseginz, bai ta gerosegoo ere; baña jan duen izurri-pozoiak barren-odola artu ezker, asten da aren miñ-oñaze gogorrek eta eriotz izugarri baten ezin-egon, asaldanz eta amurrantz gaiztoa ta onetan bukatzen da eriaren lenbiziko poz-atseginz eta bake guzia.

Hau da Jangoikoak Antioko gaiztoari agituarekin agerzen digun gauza. Zazpi urtez ibilli zen errege gaizto hau batetik bestera bere gisa ta nai zuen guzia egiten zuela ta poz eta atseginz egiña zirudiela; baña urte orien buruan nastu ziran aren erreinuko gauzak gaizki atera ziran egin ta eragin zituen gerrak, eta oriek zuzendu naiez mendiz mendi ta prisaka



zebillera, gurdi kotxetik erori ta ezur ausiekin arkitu zuen lurrean bere burua ta andik laster ekusi zuen bere gorputz bera arrez, materiz ta oñazez batea, ta azkenean ill zen amurratu baten era ta gis izugarrian ta ostatu txar bat ere etzuen eremu urrutikoan: *pessime percussus, peregre in montibus miserabili obitu fundus est* (2 Machab. 9,28).

Zori gaiztoko bakedun guziak ez dute izaten munduaren begietan Antioko onek bezain bukanz izugarria; baña baketan dabilzan denbor berean ere izaten dituzte beren ai-kak, beren kezkak eta beren naigabenz andiak, eta azkenean betiko galzen diralako barruntanzak eta beldur-izunzak, eta ilzen dira barruntanz, ikar ta naigabenz beren atzapar izugarrian, ta orregatik da ezin gaiztoagoa bekatari galduen bake ta etseginza: *pax peccatorum pessima*.

Ezin ekusi zuen David erregek bekatari galduen zori gaiztoko bake hau ta galerazi naiez bakerik ematen etzuen gaiztoei: *zelavi super iniquos, pacem peccatorum videns* (Ps. 72,3). Eta Kristo Jaunak esaten zien bein bere eskolakoei: «Ez naz ni (bekatari gaiztoen) bakea ekarzera mundura etorri; bake galgarri hau ilzeko den ezpata ekarzera etorria naz ni»: *non veni pacem mittere, sed gladium* (Matth. 10,34). Zori onekoa Jesusen ezpat zorrotz hau artu ta bere bake galgarria ilzen edo galerazten duena!; bada gerroz izanen da Jesus beraren zori oneko bakeduna. Goazen orain Jesusen bake hau zer bake den ekustera.

§ II.

«Nere bakea ematen dizutet nik», dio Jesus maitagarriak, «baña ez munduak ematen duen gisan ta eran, zeren ez den munduak ematen duenaren gisakoa nere bakea»: *pacem meam do vobis: non quomodo mundus dat, ego do vobis* (Joan. 14,27); bada munduko bakea denbor laburreko bakea da ta bake kezkaduna, ekusi dugun bezala, ta Jesusen bakea bake oso-garbia ta berez ta Jangoikoaren aldetik betiko bakea.

Badakizu zergatik? Zeren Jangoikoaren grazitik eta adiskidanz onetik datorren bakea den Jesusen bakea, ta nola berez ta Jangoikoaren aldetik betikoa den Jangoikoaren grazia ta adiskidanza, betikoa da berez oni darraikion Jesusen bakea. Fededunaren aldetik Jangoikoaren grazi ta adiskidanz hau betitzeko bidea da Jangoiko beraren legeak diona garbiero, beti ta osoki egitea, ta era onetan hau egiten duenak izaten du bake luze, oso, garbi, andi: *pax multa diligentibus legem tuam* (Ps. 118,165).

Bake zori oneko hau fededun batek izatea ez da fededuna ez tatan sartu baten gisan ta naigabenzik eta kezkarik bage beti bizitzea. Bizitz hau zeruko doatsu onen bizitza da. Emen ez da, Adanek bekatu egin ta galdu ginduen ezkerro, nekerik bageko bizitzik. Jangoikoaren legeak diona egiten dutenendako da, ekusi dugun bezala, emengo bake on hau ta Jangoikoaren legeak diona egite bera nekea ta neke ona da; ta neke, gure grin ta pasione asaldatu guziak eskuratzen dituena; bada oriek eskuratzen dirala baizik ezin egin ditezke Jangoikoaren honrak gugandik eskatzen dituen gauzak, ez eta gure onari ta besteei dagokan guzia ere. Jangoikoaren honrak alabaña eskatzen ditu gure agur humillak, gure mez-enzute garbiak, gure konfesi ta komunio onak, gure otoitzak, gure maitanzak, naigaberako biderik Jangoikoari bein ere ematen ez diogula; ta nekea, ta neke ez txikia, dakarren lana da hau guzia.

Jangoikoaren lege berak dakar gure onerako ta Jangoikoaren grazian guk irauteko egin behar duguna, ta hau guk egiteko egon behar dugu gau ta egun kontuan ta erne bear ez den gauzarik ez egiteko ta egin bear diran guziak ongi ta bere horduz egiteko. Zenbat neke dakarten lan batak eta beste guziak badaki dakienak zein andia den gaitzerako gure griña ta zein nagi-astuna gauz onerako gure gogoa. Gaitz kirako gure grin galgarri hau garaituz, bada, ta geren gogo nagiari akuluka bezala emanez utzi bear ditugu egin nai genitukeen gauzak eta egin bear egin nai ez genitukeenak, eta nekatu bage, ta ongi nekatu bage, ezin dagikegu bata ta bestea.

Jangoikoaren izenean ta gure onerako arzen diranak baño gogorra-goak dira besteen onagatik arzen diran nekanzak, eta oriek ere bere gain artu bear ditu Jangoikoaren legeak diona osoki ta bear den eran egiteko naikunza arzen duenak. Besteren onagatik arzen diran nekanzak dira orien txarkeriei ta bidebageei txarkeriz ta bidebagez ez, baizik begitart onez ta ongiz eranzutea, orien premi ta bear andietan al dena oriei berei ematea ta orien mukerkeri ta aldart gaiztoak me-meki arzea ta era bereko beste gauzak orien onagatik eta zeren Jangoikoak ala nai duen egitea; ta gauz o(r)iek neke andizko gauzak dirala ageri den gauza da.

Nola, bada, esanen dezu, izan dezake bake on soseguzkoa orrenbat lan ta neke bere gain dituen fededunak? Nik esain dizut: Jangoikoaren maitanzak eta ortik datorkion irabaziak bere lan ta neke guziak arinzen diozkala. Rakel beretzat izan naiez ta zeren hura maite zuen, Jangoikoak daki zenbat neke ta tunda eman ziozkan zazpi urtez ta geiagoz Jacob Patriarkak bere buruari, ta artako guti zen arenzat hau guzia; anbat arinzen ta leunzen ditu nekerik gogorrenak ere amore onak, maitanz garbiak eta gerorako on usteak. Eta non arkituko dezu maitanz eta amore



Jangoikoa bezain garbi-ustedunik? Bada bere neke-lanen alde uste du Jangoiko berak diña balio duen gauza ta sekulako atseginza dakarren zeruko gloria; ta glori ta atseginz, zenbat ere emen lan-neke andiangoak dituen anbat gero zeruan andiangoa. Ara baño len ta emen bertan ere baditu Jangoikoa grazian ta adiskidanzan bizi denak bere lan ta neke onen alde Jangoiko berak ematen dion graziaren ta lagunzen inz goxo, leun ta atsegin andia, bai ta bere Jangoiko maiteak nai duena egin duela-ko poza ta bakea ere; ta bake ta poz, zeruko garbia ta parerik bagekoa. Orregatik da egia Jangoikoa legea maite ta legeak diona egiten dutenak dutela anitz bake ta poz.

Baña Jangoikoa poz eta bake hau osoki izan nai duenak ez du gogoa sartu bear emengo gauz txar zirzilletan, zeren orietan gogoa sartu ezker, sarzen den anima Jangoikoa grazia ta grazi onekin dabillen poz ona ta bakea galzeko bideetan. «Bai», dio Apostol S. Pablok, «gaiz-takeri guzien bidea ta gaizki guzien askunza ta sustraia da lurreko gauzen naikunz makurra»: *radix omnium malorum est cupiditas* (1 Tim. 6,10); bada naikunz onetatik datoz barreneko ezin egonak, kezkaz beterikako gabak, egun nekagarri luzeak, bestek geiago irabazten duelako ta obeki arkitzen delako naigabenzak, irabazbide anitz kenzen diolako aserkunz bekaizak eta era bereko beste nekagai andiak.

Zori oneko bake bat guziok nai dugu, dio S. Agustinek, eta guziak jakin nai dute non arkitzen den hau. Arkitzen ote da, dio Santuak, ondasun andien artean? Ez, ez, eranzuten du berak; bada ondasun andiak dituenak andiangoak nai ditu ta oriek bildu ondoan berrien ta berrien naikunz andiangoa du ta ez da ondasunez asetzen aren naikunz galgarri hau; ondasunak alabaña ondasun zaleentzat ur gazia egardunarenzat dena dira ta egarduna ur gazitik edanago ta egartiago arkitzen da. «Gure gogoa asetzen duen ondasuna Jangoiko bera da, zeren Jangoikoa duenak duen bear duen guzia»: *nihil habens, omnia habet, qui Christum habet*; Jangoikoak alabaña bere eskuan ditu diran ta izan ditezken ondasun guziak eta bakoitzari bear dituenak emateko onen eskatzaren begira dago.

«Billa zazu, bada, Jangoikoa», dio Kristo Jaun berak, «egizu Jangoikoak bere legean adirazten dizuna ta emanen dizu emen bertan emengo bizitz laburrerako bear dezuna (bai ta animako poz eta bake zori onekoa ere)»: *quaerite primum Regnum Dei, et justitiam ejus, et haec omnia adjicientur vobis* (Matth. 6,33), eta gero eternidade guziko atseginza ta gloria. Orra zer ondasuna bizitz onaren baketik datorrena. Jangoiko maiteak digula bata ta bestea, bai ta hau irabazteko egin bear den guzirako bere lagunza ta grazia ere: bai arren, bai.

XXX

Bazkotik bigarren igandeko irakurraldia

Ego sum Pastor bonus, et cognosco oves meas, et cognoscunt me meae Ioan. 10.

Gaia: Zergatik den Jesus arzai ona ta nola izan gaitetzken aren ardi onak

Jangoiko-gizon Jesus maitagarriak gizon utsa baliz bezala artu zituen gizonen ta gizonak izaten dituzten egitekoen izenak eta egin zituen ezin obeki izen oriek agerzen dituzten egiteko-lanak eta guziak dira Jesus maitagarriarenzat guztiz egokiak, orain guk ekusiko dugun bezala.

Pilatosen artez artu zuen Jangoikoa eskutik *judatarren Erregeren* izena ta Eskritura Santaz *erregeen Erregerena* ta aginzen ta manatzen dutenen manatzallearena, ta len ta gero ta beti egiten du Jesusek guztiz ongi Errege manatzalle onaren egiteko hau, egunen batez guztiok ekusiko dugun bezala.

Eskritur beraz eman dio Jangoikoak Jesusi *Apaizaren* ta *Apez betikoa* izena: *tu es sacerdos in aeternum* (Ps. 109,4), eta izatez ere betiko Apaiz da Jesus maitagarria ta Apaiz ezin ohea; bada gurutzeko bere mezarekin edo nekez ta odolez beterikako eriotzarekin atera zuen bere bekatupetik mundu guzia ta palakatu zuen mundutarrak beren bekatu gaiztoekin aserre zedukaten Ait eternoa edo irabazi zuen guk geren bekatu guzien zorrak ateratzeko ta ongi bizitzeko bear dugun guzia ta ar detzakegu zerura igan baño len utzi zizkigun sakramentu andietatik eta otoitz onaren eskutik.

Badu Jesusek *Medikuaren* izena ta izatea ere; bada baditu, ta nai duten guziei ematen ere diezte, bear dituzten animako sendagai guziak, sendagai bear bezalakoak, eta nai onez ta ongi arzen dituen beti sendatzen dutenak, eta ematen ditu Jesusek doarik eta saririk bage bere sendagai oriek.

Badu Jesusek *Maisuaren* izena ta egin du ezin obeki izen oni dago-kan guzia; bada agertu ta erakutsi digu dotrin berri bear bezalakoak. Zeruko dotrina da Jesusen dotrin hau ta hau ikasten dutenak badute



munduko filosofo jankinsu, geiena ikasi zutenak baño milletan ta milletan geiago balio duen jankinza; bada badakite Irutanz Trinitate santari ta Jangoikoari dagokana ta sekulako gloriko bidea; ta lurreko ta zerupeko gauzak ziran fede zerukorik etzuen filosofo guziak zekizten gauzak; eta gauz orien jakinza ta berria besteen berri-jakinza aldean munduko urre, zillar, perl eta ondasun guzien aldean pits batek diña ere balio ez duen jakinz-berria da.

Baditu Jesusek lurreko beste gauzen izenak ere. Badu *eguzkiaren* izena. Zeruko eguzkiaren egitekoa da illunbee argi egitea, bazterrak berotzea ta lurreko gauzei humotzen, zoritzen ta sasoi-erazten lagunzea, ta hau guzia egiten du Jesusek animan agitz ta agitz obeki; bada bere gogargi ta inspiranz santekin aienatzen ditu animatik bekatuaren lañoak eta illunbe belzak, biotzeraño sarzen diozkan naikunz eta hitz beroekin kenzen diozka onerako bere otztasunak, eta ematen diozkan grazi-lagunz egokiekin erakarzen diozka frut eta irabanz andiak.

Baña arzen dituen izen guzien artean guretzat guztiz ona da egungo Ebanjeli santukoa ta hau da *arzai onarena: Ego sum Pastor bonus*; bada gu ongi zaitzen gaituenaren izena da Jesusen izen hau. Izen hau beretzat arzean ematen digu Jesusek ongi dagokan beste bat eta guri ematen digun izena da ardiarena. Bere izen hau arzean agerzen digu arzai ona izateko egin zuena ta ardien izena guri emate onetan erakusten digu Jesusen ardi onak izateko egin bear duguna, ta aldi onetan guk egin bearra da ongi ta kontuz ekustea aldi onetako aren ta gure egiteko on hau.

§ I.

Gizaki anitz sarzen dira aranzan besteren ardiak zaitzeko ta zaitzen dituzte ardiei ongi naiez ez, baizik beren sariagatik. Arzai oriek zaitzen dituzte urte batez itxe bateko ardiak eta bestez bestekoak eta ez dira itxe bateko aranzan gelditzen, an bestetan baño jan-edan ta sari ohea izaten ezpadute.

Era onetako arzaiak, dio Jesusek egungo Ebanjeli santuan, egiten du bere aranzan jan-edana ta saria ez galzeko diña, baño anitz geiago ez. Zakurrik ezpadu ardiak zaitzeko edo zakurra baño geiagoko otso bat ardiatara datorren aldian, otsoak gaitzik egin dezon beldurrez ematen dio artzai txar onek lasterrari eta uzten du nagusiaren artanza otsoaren ortz-atzapar gogorretan ta otsoak jaten ditu zenbait, izutzen ditu besteak eta

izutu dituenetik ere galerazten ditu beste zenbait, eta arzai saridunak ez du naigabe andirik arzen orregatik, zeren besterenak diran, ta berarenak ez, galzen dituen ardiak.

Baña ez naz ni, dio Jesusek, arzai saridun galgarri txarra: nere ardiak zaitzen ditudan arzaia naz ni ta arzai ona. «Arzai onak», dio Jesusek, «ezagutzen ditu bere ardiak eta nik ere bai nereak»: *et animam meam pono pro ovibus meis*. Arzai onak bere ardiatzat billatzen ditu mendi, larre ta belardi onak eta al badu billatzen ditu udan udakoak eta neguan beste beroepelak eta eramaten ditu aldian aldiko belarretara ta neguan negukora. Udan ta ardiak urrun darabilzan aldian egiten ditu arzai onak biltegi egokiak, sarzen ditu an gabaz ardiak eta zaitzen ditu berez ta bere zakur erneekin gau ta egun. Negu otzean eramaten ditu tellapera ta ormaz edo olez eginikako biltegitara ta ez ditu andik belarrera eramaten inza kendu edo eguna epelduxe artean ta tellaperatzen ditu urrengo inza asi baño len. Negu elurtirako ta belarrik agerzen ez den egunetarako bilzen du udan itxeko orien bazka ta ostoa ta ematen die egun orietan hau, ta edatera baizik ateratzen ez ditu beren tellape berotik.

Lan orietatik zenbait egiten ditu arzai onak berez ta beste zenbait bere semez, itxekoz edo beste arzaiez; baño guzien gain dabil bera ta ardiak bearrik ekus ez dezaten, prest-erazten du mugaz, garai onez ta bere horduz bear den guzia. Billatzen ta bazkatzen ditu zakur onak uda ta negu, ta gau ta egun orien betiko saunka-sangakarekin bere ardietatik urrunerazten ditu otso gaiztoak, otsoaren itzalirik ere bere ardiatara urbilzen utzi bage; bada zakurren saunkekin ta bere oju-arri ta makilekin igorzen ditu agerzen diranak igesi.

Arzai onak emengo ardiekin egiten duen hau egiten du Jesusek gure animekin. Prestatu dizkigu bere sakramentuetako, Eskritura santako, libru onetako ta prediku egokietako belar onak eta edari garbiak eta ematen dizkigu aldian aldikoak, guziak indar onezkoak. Gure naigabeen ta tentanzen negurako ta elurraldi gogorretarako egin dizkigu elizen ta beste otoitztegi politen estalpe onak. Jan-edanketa gañezkoetatik, danz arin galgarri guzien ta jostaket ez onen aize ta eraunsi gaiztoetatik gordetzeko eman dizkigu geren itxeak, libru ta lagun onak; ta andik atera gaitezen, aldirako ibilkunz zuzenak eta gorputz arinz ta jostaket garbiak; eta eman digu neguan, udan ta noiznai ongi bazka gaitzaken otoitz-bidea ere, eta otoitz-bide beretik izan ditzakegu sulezeko, mundu eroko ta geren pasioneen otsotzar guziak aien-garitzeko bear dugun lagunz guzia.



Elbarzen den ardia lotzen du arzai onak eta zaitzen, sendatu arte guzian. Besteetatik berezten denari tiratzen dio arria edo eskuan duena, itzul dedin bere lagunetara. Errebelatzen edo galzen bazaio, billatzen du arzai onak, eta sasi gaiztoan egonagatik, ateratzen du andik eta lepoan artu ta badarama besteetara ta al-ere begiratzen dio besteei bezain begi leunez ta nai onarekin.

Hau guzia deus-ez bat bezala da Jesusek bekatari bakoitzarekin egiten duenaren aldean. Sulezean ondatzeko beldurrarekin askotan, ta beste zenbait aldiz zeruko ondasun guziak irabazteko uste onarekin, geldirazi nai gaitu Jesusek bekatuak bidean ekusten gaituen aldian. Bekat-aldera errebelatuak eta bekatu anitzen sasirako zearkan ta jostaket, ibiller ta lagun gaiztoen arterako prestaturik ekusten gaituen guzian, an sartu ta gal ez gaitezen, egiten dizkigu geren biotzera bere txistu meak eta belarri ernera predikari, konfesari ta lagun onen ta besteen ojuak; eta al-ere aratzen bagara, ematen digu eskua andik atera ta konfesi on baten bidez fededun onen artera itzul gaitezen, ta aren eskua ta lagunza artu nai gabez baizik ez gara galduko azkenean gu. Egiten du, bada, Jesusek bere aranzan emengo arzairekin onenak berean egiten duena.

Bai ta anitz eta anitz geiago ere; bada emengo arzaia bere onagatik egiten ditu bere aranzako gauzak; egiten ditu alabaña ardiaren esneagatik, ardiaren larru-illeagatik eta beraren odol-aragiagatik, eta orregatik ezpaliz, ez luke ardirik itxean artuko; ta Jesusek arzen ditu bere kontura ardirik edo animarik txar-errebesenak ere oriei zerbait kenzeko ez, baizik oriei ta beste guziei emen bere graziz lagunzeko, oriek bere odolez ta aragiz bazkatzeko eta oriek gero sekulako bere atseginzetan zeruan idukitzeko; ta berak dion bezala, idukitzeko bere milla nekerekin ta eriotz ezin gogorrago batekin irabazi ziezten atseginz leun, eder, andietan: *et animam meam pono pro ovibus meis*. «Hau egiten duena da», dio Jesus berak, «arzai ona»: *bonus Pastor animam suam dat pro ovibus suis*. Jesus da bakarrik orrenbat egin duen arzaia ta orregatik da bakar bakarrik arzai ona.

Onetarako badu geiago ere Jesus maitagarriak; bada, S. Agustiñek dion bezala, «zaitzen gaitu Jesusek gau ta egun ta hordu ta puntu oro, zeruan edo lurrean beste egiteko andi-txikirik ezpalu bezain kontuz ta ongi»: *Sic Domine, super custodiam meam vigilas, ac si omnium aliarum rerum oblitus, mihi solum intenderes*. Orra zein ederki edo ezin obeki egiten duen Jesusek bere aranza. Ekus dezagun nola egin bear dugun guk geren arkunza, Jesus arzai onaren ardi onak izateko.

§ II.

Arzai onak egiñagatik nai duena, onak ateratzen ez dira ardi guziak. Zenbaitek ez-aditu egiten diote arzairekin txistuari ta sarzen dira sasi gaiztoan ta galzen dira edo gelditzen dira otsoren baten ortz urralleetan. Beste zenbaitek jaten dituzte belar gaiztoak eta betetzen dira ez tuzle ta ezkabiz ta gelditzen dira zakurren bazketako. Amilzen dira zenbait eta ustelzen azpiko lezean edo errekan eta izaten dira beste zenbait edate gaiztoz edo inzez galzen diranak. Hau bera agitu oi da Jesusen ardietan ere; bada jentil ta turko ta judatar guzietatik hau edo hura kendu ta beste guziak ez-aditu egiten diote Jesusen ta predikari onen deiar ta gelditzen dira beren lege ta bide galgarriaren illunbe gaiztoan. Jesusen lege garbizuzena artu ta anitz sarzen dira beren bekatu gaiztoen sasi galgarrian, ta sarzen dira bein, berriz ta askotan ere ta Jesus artzai onak berez anitz aldiz ta beste askotan bestez ots egiñagatik, ez dute nai andik atera ta bertan nekatzen ta ilzen dira. Izaten dira beste anitz beren arinkerik galduan dabilzan aldian biziaren oñak joan ta sulezeko errekan gelditzen diranak.

Baña ardi txar orien erdian izaten dira anitz on, eta izan zaitezen zu ere, egizu egungo Ebanjeli berean Jesusek adirazten diguna. Adirazten digu Jesusek aren ardiak ezagutzen dutela beraren hitza ta txistua: *et agnoscunt me meae*, ta besteren hitzari ta txistuari ez-aditu egin ta Jesusenari bakarrik jarraitzen zaizkala: *alienum autem non sequuntur*.

Badakizu nor den beste txistulari errebes hau? hau da deabru gaiztoa, gu galduak uzteko bideak egiten hari dena ta nondik an sarreraziko gaituen gau ta egun dabilena. Hau da gure aragiari ta pasione asaldatuei su ta gar ematen diena, orien atseginz zikiñen lokatz izugarrian gu ondarraz nai ginduzkena. Hau bera da mundu eroa arrotzen duena, munduko guziak eulien ondoren dabilzan aurren gisan lurreko honra txar, apainketarro ta gauz, bigarko auts edo aize egiten diranen billan darabilzana. Onen erausi ero galgarriari, bada, ez-aditu egiten die Jesusen ardi onak, eta ongi oarturik ta erne dabilz Jesusek agerzen diezten bide zuzenak arzeko, berezten diezten bazter on garbian jan ta egin diezten biltegi idor beroan gordetzeko, ta ala dabilz mundu eroaren esankizunei ta gaiztoen hitzei begiratu bage. Erne dabilz, bada, etsaiaren sare estaliren batean ez sarzeko ta lurreko gauz bear ez diranak ez arzeko, zeruko al dituzten guziak irabazteko, besteri gaitzik egin bage beti bizitzeko ta Apostol S. Pablok dion gisan, fededunak diran ezker, fededun onei dagoten eran haritzeko: *si Spiritu vivimus, Spiritu Dei ambulemus* (Galat. 5,25).



Arzai on Jesusek bere txistuz esaten dio bere ardi edo anim on bakoitzari bein, askotan ta anitz aldiz: «Erne ta kontu zere biotzaz (sar ez dakizun zu galzera datorren bekatutzar izugarria)»: *omni custodia serva cor tuum*. Ardi txar eroa noiznai errebelatu ta otso arte gaiztoan sarzen da bere artanzan bezain lasai ta non dabillen oartu bage; baña ona beldurtia da ta gal-bide makurretara ez urbildu naiez beti onen artean da: *sapiens timet, et declinat a malo; stultus transilit, et confidit* (Prov. 14,16).

Jesusen ardi onak egiten duena baño agitz geiago egiten dute zerbait diru dutenak beren dirua gorde naiez; bada berak itxean dauden guzian ere gilzitzen dute diru kutxa; itxetik ateratzen badira, gilzitzen dute ditu gelako atea, bai ta eskal-burukoa ere, gilzduna bada eskalburua; ta gabaz gilzatu ta trankatua uzten dute itxeko sar-bide guzia. Zertako dirala uste dezu orrenbat itxe gilzitze ta trankatze? Barreneko diru piska lapurren batek eraman dezan beldurrez. Bada Jangoikoaren grazia ta zeruko ondasunak eraman ez ditzan ardi gaiso anima bera larrutzen duela lapurtzar bekatu otso gogorak, zer egin ez bear du Jesusen ardi anima fededunak? Utzi bear ez luke egin dezaken gauzarik eta gilzanzik ta onetan geien egiten duena da Jesusen ardirik onena edo beinzat onena.

Jesusen ardi onak badu besterik ere ta egiten du munduko ardi onak egiten duena ta agitz geiago. Lurreko ardi onak uzten dio zaitzen duen arzaiari bere esnea, gero illea ta azkenean odola, larrua ta aragia; baña ez, arzai berak guzia kendu arte guzian. Eta Jesusen ardi edo fededun onak egiten du hau bera ta agitz geiago; bada Jangoikoak eriotzan eskatu baño len ta agitz lenago ta lenago ere uzten diozka gogoz ta biotzez dituen gauz guziak, bai ta bere bizia ta anima ere; ta Jesusek eskatzen diozkan arte guzian egiten ditu oriekin Jesus berari atseginz egiten dioten anitz gauz on ta serbitzu; bada egiten ditu Jangoikoaren lege zuzenak berezten diozkan gauzak eta Jangoikoari dion maitanzak eskatzen dituenak eta besteen artean urrikarizko limosnak eta emate onak. Guziak dira, ta gutienik ez azkenik esan duguna, Jesusen ardi onaren señale agitz on-egokia; bada Espiritu Santu berak dio: «Zori onekoa da gabe ta bearsu arkitzen denari lagunzen diona, ta zori oneko, bere erioko egun estuan Jangoiko maitagarriak ongi aterako duena»: *Beatus qui intelligit super egenum, et pauperem, et in die mala liberabit eum Dominus* (Ps. 40,12); eta S. Geronimok dio ez duela aditu sekulan galdu dela gogo onezko ongillerik.

Era onetako ongille guziei bere ardi onei bezala esanen die egun batez Jesusek: «Atozte (zerura) nere Aitak bedeikatu zaituzten ardi ta fededun onak»: *Venite benedicti Patris mei*. Esazu orain zuk, hitz oriek mez

batean aditu ta Santa Matildek Jangoikoari esana; ark oni aldi artan esana da: «A, Jauna, ni ere baninz zori oneko bedeikatu orietatik bat!», eranzun diezazun Jesusek bertan Santa oni eranzuna edo «Izanen zara, bai, ta siñes dezazun, orra señale nere Biotza»; ta hau esate berean eman zion bere Biotza. (Blos. in append, de quat. SS. Faemin.) Eta eranzun ark zuri hau edo ez, izanen zara egiten badezu aldi onetan adirazi duguna; ta egin dezazun, sar zazu zere biotzean Jesusen Biotza edo Biotz maitagarri onen debozioa. Jesus berak dizula orretako bear den lagunza ta grazia: bai arren, bai.



XXXI

Bazkotik irugarren igandeko irakurraldia

Sed tristitia vestra vertetur in gaudium... et gaudium vestrum nemo tollet a vobis. Joan. 16.

Gaia: Gure on andirako da
Jesusek bere legez arrerazten digun nekea

Ill artetik biztu ta berrogei egunez ibilli zen Jesus bein gorde, bein agertu Apostol berekin, ta era orretan ta orren luzaro ibilli zen Apostol berak oit-erazten emengo beren hura bageko bizira. Hau da lenago berak adirazi zien gauza, esaten ziela: «Anitz luzatu bage bukatuko dira nere zuekiko egonzak eta gordeko naz zuen begietatik; baña aldi luzeko ez, eta aldi onen buruan agertuko naz berriz ere, ta orain (edo hau egin ta) nere Aitagana noa».

Hau aditu ta, begiratu zion Apostol batak besteari ta galdetu zion: «Hau zer da? Emendik laster ez nazue ekusiko zuek, andik laster ekusiko nazue ta nere Aitagana noa. Nik beinzat ez dut aditzen». Ekusi zuen Jesusek elkarrekin zerausten guzia ta beragandik ikasi nai zukeela zer ote zen esan nai ziena ta esaten die: «Aditzen ez dezue esan nai dudana? Ori bada: tristatuko zarazte zuek eta egiñen dezue negar ta bitarte orretan mundua irriz ta farraz ibilliko da ta bere atseginz eroetan sartua; baña bukatuko da zuen tristanza ta orren ordeztartuko da zuen biotzeraño zeruko atseginz garbia ta agituko zaitzue semez erditzen den andreari gertatzen zaiona. Oñaze arrigarri andiak dira erdi arte guzian andre onek dituenak; baña jaio den semeak ematen diozkan poz-atseginzak azt-erazten diote leneko bere miñ-oñaze guzia. Tristatu zarazte zuek aditu dezu-tenarekin; baña kenduko dira zuen tristanzak berriz ni ekusten nazuten horduan ta galduko ez den atseginza izanen da hordu artako ta betiko zuen poz-atseginza». Orra Jesus ekaldi onetan esana. Ta esan nai zuena? Interprete zenbaitek uste dutenaz, judatar gogorren eskuz gurutze batean utzi behar zuela bere bizia. Obian etzan bear zuela aren gorputz illak eta denbor orretan ez zutela ekusiko aiek hura; baña biztuko zela andik laster ta berei agertu ta ekusiko zutela berriz ere.

Baña beste zenbaitek uste dutenaz (ta orietatik dira S. Augustin, Beda ta Maldonado) etzen orren laburra Jesusek aldi onetan bere Apostol onei agertu zien gordanza ta agertu bage egon beharra, ta esan zienarekin esan nai ziena zen: «Ill ta biztu ta igan bear dut nere Aitagana. An egon bear dut urrengo nere etor-aldiraño. Etorriko naz azken juzganza-ko egunean; bitarte hau denbora laburra da»: *modicum est hoc totum spatium, quod praesens praetervolat saeculum*, «aldi artan ekusiko nazue berriz zeren atseginz andiarekin ta bukatuko ez dena izanen da gerozko zuen atseginza ta poza»: *et gaudium vestrum nemo tollet a vobis*. Jesusen azkeneko hitz oriek adirazten dutenaz, hau da aldi artan Jesusek adirazia; bada etzen betiko atseginza Jesus bizturik ekusi ta zenbait egunez izandu zutena.

Jesusek adirazi ziena, bada, interprete oiek adirazten dutenaz, da denbor laburra dela emengo gure bizitzakoa ta artu bear ditugula Jangoikoaren izenean ta me-meki geren emengo lanak eta egiteko guziak, gero Jesus ekusten dugula atseginz andian beti bizitzeko. Gure lan ta egi-teko hau da S. Pedrok egungo Epistolaren diona, aragiaren naikunz guziak itotzea; geren bizitz onarekin gaizki nai diguten mihiak isileraztea; Jangoikoaren beldurti humillak izatea; beren eskupean gaituztenen esanak egitea, naiz onak izan ta naiz ez gure manatzalle guziak; bearrean ta gabe arkitzen diranei geretik al duguna ematea; begitart ona guziei egitea; geren onez ta naiez gaiztoak alegin guzian onzea ta Jangoikoari al dugun honra egitea (1 Petr. 2). Hau guzia guri eragiteko diran zenbait gauz ager-zea da aldi onetako gure lan guzia.

§ I.

S. Pedrok agerzen duen ta orain guk ekusiko dugun egitekoa, sari-rik uste ezpagenu ere egin bear genuen gauza da; bada egiteko hau jangoikoak guri eman digun egitekoa da ta Jangoiko berak egiñak bezala bearturik arkitzen gara gu ark nai duen guzia egitera ta berez ta onez zer-bait ematen ezpadigu, doarik eta saririk bage egitera. Baña Jangoikoak ez du gure gauzen bearririk eta egiten dugun on guzia eragiten digu geren onerako ta egiten dugunaren sari on bat guri eman naiez.

Eman nai digun sariaren zatia da leneko gure bekatu guziak eta bekatu beren zorrak barkaturik uztea. Bekatu gureak barkatze berean egiten du Jangoikoak guk adiraz al baño on ta ontart agitz andiagoo; bada ori egitea Jangoikoak morrolluz istea da (ara ez gaitezen) suleze infernu-



ko ate ta ataria. Badakizu zenbat on egiten digun Jangoikoak bere atea iste-erste onetan? Nik adiraziko dizudan guzia. Geren bekatu gaiztoak gatik egon bear genuen guk sulezean oin ta esku lotuak eta ezin igi gindezken eran. An egon bear genuen suz beteak eta erretzen ta irakiten arkitzen diran sutegi ta putzu izugarri ondatuan. An egon bear genuen burutik oñeraño ta gain ta barren su ta gar egiñak eta olako ago ta mehe urtua bezain urtuak eta sua ta garra baizik jaten ta edaten ta ekusten ez genuela.

An egon bear genuen suzko lanzez ta burrunziz agitz josi-igortuak, deabru sutu erre amurratu gaiztoen orzez ta atzapar zorrotzez gainbera urratu-galduak, oñazez ta amurranzez erdi bi edo mill zati egiñak, eta an egon bear genuen gau ta egun, haste ta ill, urte ta urte ta Jangoikoa Jangoiko den arte guzian, eternidade guziko sekulan ta beti ta beti ta bukanzik bage. Zer ontartea, bada, ta zenbat onezko ontarte ta ongia, arako bidea Jangoikoak guri galeraztea; ta galeraztea, ekusi ditugun gisako zenbait gauz erraz, bestela ere egin bear genituenak egin ta beste-rik bage.

Eritzen denak ez du orrenbat uste, uste duen aldian sendagaiak artuz leneko bere osasuna; ta uste duen bere osasunagatik arzen ditu guk ez sulezeratzeko egin bear ditugunak baño sendagai ta nekagirot agitz andiangoak; bada aldiak ala dakarren aldian arzen ditu edari belz, latz, miñak; eta edari, barren guzia nasten diotenak eta gibela ta barea este guziekin boterazi bear diotela diruditenak; aldiak ala eskatzen duen aldian uzten du eriak zañetako odolaren erdia ta geiago, ta uzten dio barbearari urdai azpia baliz bezala bere gorputzaren zati biziak kenzen, bai ta besoko, zangoko edo edozein beste aldetako ezurrak austen ta erdi bi egiten ere; hau guzia ta bear den aldian geiago ta geiago ere egiten du eriak eritasunaren nekepetik bere burua atera naiez.

Eta noiz artekoa da eritasunpetik bere burua eriak ateratze hau? Beste eritasun bizia kenduko dion bat etorri artekoa; ta etorri artekoa, anitz luzatuko ez duen beste aritasuna. Eta noiz arteko kenzen dio Jangoikoak bekatariari beraren begira zegon sulezeko ta infernuko neke guzia? Bekataria berriz bekaturatzen ezpada (ta nai ezpadu, ez da berriz bekaturako) beti-betiko ta sekulako. Bada eritasuna bezain neke txar bat gañetik kendu naiez eta ekusi dugun bezain denbor laburrerako kenzeagatik egiten badu eriak ekusi dugun guzia, zer neke da eternidade guziko suleze ta infernu bat beregandik betiko kendu naizik adirazi dugun bezain guti guk egitea?

Baña adirazi ditugun gauzak edo konfesio on bat egin ta Jangoikoak gañetik kenzen badigu ere betiko sulezea, ez dizkigu kenzen bekatuari dagozkan zor ta neke guziak eta guero ere zordun gelditzen gara; ta urrenge ta urrenge geren konfesi ta beste gauz on nekariz emen ateratzen ezpaditugu, purgategiko suan zor orien alde agitz gogorki nekatu bearko dugu. Zor oriek, bada, ta purgategiko su ta neke guziak ere kenduko dizkigu Jangoikoak, asi genituen gauz onak bukatu ezkeru.

Orra neke zein arin-txikia Jangoikoak emen guri geren bekatu ta neke-tormentu guziak barkatzeko eskatzen duena, Jangoiko berak gañetik kenzen dizkigun sulezeko ta purgategiko neke ta erretze arrigarrien aldean. Nork ez du, bada, pozik artuko beste izugarri orien pean bere burua ez ekusi naiez? Baña besterik ere bada gauz on orien neke piskan; bada neke pisk onen zati bakoitzarekin bidenabar irabazten da zeruko gloriaren zati berri agitz andia.

§ II.

Eta nork ez du artuko ekusi duguna bezain neke txikia zeruko glori betikoa seguratu ta ango atsegin-gai berri andiak irabazteko ta Jangoikoari alderagotik begiratu ta poz-atseginz agitz andiangoak zerutar guzien erdian arzeko? *Videbitis me... et gaudium vestrum nemo tollet a vobis*; bada emen ongi bizi den aldian dagiken guzia egin ta ere, egin dezakena deus guti balio duen ta neke txar laburreko gauza da Jangoikoa beti zeruan, ekusi dugun eran, ekustearen aldean; bai ta lege zarreko Patriarkak, profetak, errege santu ta horduko beste on guziak eta geroztik lege berriko Apostol jaunak, Obispo birtutetsu, Doktore jakinsu, konfesor, predikari, Kristo Jaunaren martir ta beste santu ta santa guziak egin dituzten gauz onen ta orienak baño mill milletan andiangoak diran ta egin litezkenen aldean ere; zeren, S. Pablok dionaz, «zeruko gloriak gañez egiten dion emengo gure neke, alegin ta irabanz guziari»: *non sunt condignae passionis hujus temporis ad futuram gloriam, quae revelabitur in (nobis) coelis* (Rom. 8.18); ta zeren gure neke-lan guziak orretarako dutena Jangoiko berak ematen digun grazitik datorren ona den.

Jangoikoak eman nai digun zeruko gloriaren aldean, bada, gauz guztiz txikia da emen guk beraren serbitzu zuzenean ta honran dagikeguna; ta al-ere, egin nai ezpadugu, esan dagikegu Naman gerrari andiari bere itxeko batek bein esana. Naman hau Siriko erregeren soldadu nagu-



sia zen. Arkitzen zen zen guzia eskabiz ta lepraz betea. Aditu zuen bai zela israeldarren artean Eliseo zeritzan profet andi milagrari sendatzalle bat eta bere erregeren kartak arenzat artu ta joan zen aren billan. Profetaren itxe aldera zenean, agertu zuen hura ekusi ta zertara zijoan adirazi naia. Etzen agertu profeta, baña gaztigatu zion, sendatu nai bazuen, garbi zedilla zazpi aldiz Jordan zeritzan bazter artako ibaian.

Sutu zen Naman profetaren ez-agertu naia ta mandatu ekusi ta, zeren uste zuen aren gisako gizonaren izena aditu horduko jaitsi bear zuela profetak ongi-etorri egitera ta eskuak bere gañera eman ta Jangoikoari otoitz egin ta bertan sendaturik uztera. «Eta zer?», esan zuen; «ez da Sirian zazpitan ta nai badut milletan ere garbitzeko Jordango ura bezain ur egoki bat?». Eta hau esan ta arzera zijoan bere etxerako bidea, an zituen itxekoetatik batek esan ezpalio: «Jauna, zere osasunagatik egin bear zenuen gauz andi bat ere, ori profetak esan balizu; zergatik, bada, egiten ez dezu esan dizuna, izanik urez garbitzea bezain erreza?». Onekin gelditu zen Naman. Egin zuen profetaren esana ta hau ark egin horduko, gelditu zen sendatua. Jentil bizi zen len ta Jangoikoaren ezagunzik bage. Berak argi egiten ziola ezagutu zuen Jangoikoa ta artu zuen Jangoikoaren lege garbi zuzena.

Orra, bada, Jangoikoak zeruko bere gloriaren alde eskatzen balizu ere zere ezur-buruak urratu arte guzian aren serbitzuko lanak egitea, egin bear zenituke poz eta nai andiarekin; bada gauz erraz-txikia lizake ori guzia zeruko atseginzak bezain gauz andi bat irabazteko; eta zer aitzaki ager dezakezu eskatzen dizkitzun bezain gauz errazak ez egiteko?

Zuri Jangoikoak eskatzen dizuna baño geiago eskatzen ezpalio gerrari bati, egin lezakenak, Españiko errege edo Alemaniko enperadore izateko, bertatik eta poz andiarekin asiko lizake guzia egiten, ta egiñen luke zati bakar txikien bat ere utzi bage. Hau bera egiñen luke merkatarri diru zaleak, orrekin besterik bage diruz betea galdituko dela esaten balio-te. Berebat egiñen luke honrazaleak, baldin baleki besterik bage erditsiko luela billatzen duen honra-bidea ta gaia. Non du, bada, burua orren guti ez egin naiez, zeruko erreinu guzia ta ango atseginz, honra ta ondasun andi-betikoa galdu nai dituenak?

§ III.

Hau guzia ez galzeko Jangoikoak eskatzen dizkigun gauzak errazak ez ezik, guztiz laburrak ere dira; bada luzeenaz ere irauen dute gure biziak diña ta gure bizi dakizun bezain laburra da. Zein labor ote? Aldian puntu edo instant batekoa; bada aldian instant batez baizik ez gara bizi ta urrengoan bizitzeko galdu bear dugu oraingo instant-aldia ta aldiko bizi, ta geroz guretzat bizi hau deus-ez bat da. «Orren ondoren datorren instant-aldia itzala da», dio Buenaventurak, «eta urrengoa aize-tan gelditzen den kea, ta orregatik da gure bizi guzia bizi engañari txar laburra»: *O vita praesens! quam multos decipis: quae, dum fugis, nihil est; dum vide-ris, umbra es; dum exaltaris, fumus es!*

«Lena, dena ta beste gure bizi goizean agerzen den ta eguzk-argiz urratzen den lañoa bezala da», dio Santiagok: *vapor est ad modicum parens*, edo jakinsuak dion bezala, «urak arri bat jota egiten duen pits-afarra; ta afar, ilzen asi horduko, ur biurtzen dena bezalako»: *tanquam spuma gracilis*, ain laburra da eternidadeko biziaren aldean gure bizi; bada gure bizi geienaz ere irurogei ta amar edo larogei urtekoa da, ta «milka ta milloika urteak gure urte oriei iratsi ta ere, eternidadearen aldean asi horduko gel-ditzen den goizeko aizea bezala da», dio S. Augustinek: *adde quantos libet annos; duc longissimam senectutem; quid est? Nonne aura est matutina?*

«Emen bizi garan arte onetan badirudi zerbait gure bizi txar onek», dio Doktore santu berak, «zeren bitart onetan gure bizi hau zutik arkitzen den; baña aitzen edo bukatzen den ez baian ta geroko bizian sartu ta ekusiko dugu zein labor ezer-eza zen»: *hoc modicum longum nobis videtur; quoniam adhuc agitur; cum finitum fuerit, sentiemus, quam modicum fuerit*. Emen bertan ere zein laburrak iduritzen zaizkigu geren aurtasuneko ta geroz joan diran urteak! Bada gu ill ondoan amar mill ta eun mill-milloi urte joan ezker, zer iduriko zaizkigu joan diran gure urte piskak eta laster joanen diran beste zenbait? Begiak iste-idikitze bat baño agitz laburragoak. Eta zein arritu-galduak arkitzen dira orrenbat urteren buruan ez ezik, ill-hordu berean ere, agitz luze nekagarria izanen zelakoan emengo orien bizitz birtuteduna, hau utzi ta aragiaren gogarako bat artu ta gaizki bizi-tu ta galzen diranak? Eta zer neke ta naigabenza, geroz beti oriek izan bear dutena! Bukanzik izanen ez duena, eternidade guzikoa ta guztiz gogor-amurragarria.

Fraide sarzeko zegon mutik gazte bat eta fraidanzan diran barurak, otoitzak eta zerbait neke dakarten beste gauzak izutzen zutela, ta denbor



luzekoak izan bearke zutelako beldurrez utzi zuen bere bide on hau ta artu zuen ezkontzakoa. Baña zenbat denborako? Urte erdi baterako; bada ezkondu ta urte erdirako illa zetzan ta obian orzia. Orra, urte erdi batera bildu zen luze izugarria izanen zela ark uste zuen beraren bizi guzia. Eta egin nai izandu zuen gauz ona egin bagez gaur non arkitzen ote da? Laburragoa izandu zen artu nai zuen konbentu bateko seroranza utzi ta ezkondu zen neskatx edo dama gazte batena; bada bere itxean ezkondu ta senarraren itxean sarzeko kotxetik jaistean, zapata trabatu ta erori ta ill zen anitz luzatu bage.

Orra, bada, bukatzen ez den eternidade biziaren aldean ez ezik, berez ere zein laburra emengo gure bizia! Ta orra agitz laburragoa luzaro bizi bear zuela uste zuenarena! Eta zer? Bizitz orren laburreko zenbait neke-pisk zere gain ez artu naiez, galdu naiko dezu eternidade guziko atseginza ta Jesusen arpegi ederra? Eta galdu naiko, sulezeko neke-tormentu gogorrean beti bizitzeko?

Ez arren, Jesus beraren Biotzeko amoreagatik. Eta, ori, zere lan orretan etzara zu bakarrik hariko; hariko da zurekin batean, S. Pablok dion gisan, Jangoikoaren grazi indarsua: *gratia Dei mecum* (1 Cor. 15,10); ta hariko dira orrekin batean beren konseju ta ibiller onarekin predikaria, konfesaria eta ongi bizi diran beste guziak. Orra zenbat eskurekin lagunen dizun Jangoikoak zere gauz oriek egiten ta zerura igaten, esaten dizu S. Augustiñek: *Vide, quot manus extenderit Deus, ut te conducat ad vitam*. Zori onekoa zu, guziez baliatzen zarala aratzen bazara. hau gerta dedilla; bai arren, bai.

XXXII

Bazkotik laugarren igandeko irakurraldia

Adhuc habeo multa vobis dicere, sed non potestis portare modo. Joan. 16.

Gaia: Kofrade ta kongregante onak
beren alde dute Jesusen Ama

Ongi arkitzen ziran Apostol onak Kristo Jaunarekin ta beren naiez etziran Jesusen aldetik kenduko bein ere; baña oriek nai zutena etzen oriei zegoten gauza. Bein ez ezik, zenbait aldiz ere adirazi zien Jesusek bere ill ta orien artetik joan bearra, ta denbor berean adiraziagatik, orren joate hau orien beren onerako zela, edo etzuten siñesti nai esaten ziena edo tristatzen ziran aditzen zuten aldi oro ta bein egungo Ebanjelio santuak dakarren aldian.

Aldi onetan esaten die Jesusek bere Apostoluei; «Igorri ta bidaldu minduen betiko nere Ait Jangoikoak eta beragana noa ta hau aditu badi-dazue ere, zuen artean ez da bat galdetu didanik: Nora zoaz? ta berri hau nigandik aditu ta egin dezutena da buruak makurtu ta illun ta triste geditu, (berri gaiztoren bat aditu ta bezala); baña siñis zazue (egia diot eta) ongi dagokizuen gauza dela oraingo nere joate hau; bada ni joan arte guzian etzaitzue etorriko Espiritu Santua jakin bear dezuten guzia zuei erakustera, ta joaten banaz, bidaldu ta igorriko dizuet (bere lan andi hau zuekin egitera). Beste gauzen artean agertuko ditu Espiritu Santuak ni nazanzat ezagutu ta artu ez nautenen itsumen ta erakeri galdua. Ni nere (azken juzganzako egunerano) zeruan gordearen gisan egon bearra naz; baña (nik egin dudanarekin) urratu-ausiak gelditzen dira deabru gaiztoaren indarrak. «Baditut nik», esaten die gero Apostol berei, «beste gauz anitz zuei zer adirazi; baña orain etzaudezte oriek aditzeko prest; gero Espiritu Santuz igorzen dudan hordutik adiraziko dizkitzutet (berak oriek aditzeko prestatzen zaituztela edo berak niri aditua ni honratuz zuei adirazi ta)». Orra egungo Ebanjelioan Jesusek esana ta adirazia, ta orra kongregazi ta kofradi santak ezartzeko bidea.



§ I.

Sermoi batean ta zenbait sermoiez ere ez da erraz predikarik guri adiraztea ongi bizitzeko, obeki ilzeko ta zerua irabazteko jakin bear den guzia; ta aldi berez ta bestez dezakena errian egin ta, andik atera baño len, jakin bear den beste guzia adirazteko, an bertan, len ezpada, kofradi edo kongregazioren bat ezarri oi du; ta kongregazio ta kofradi, kofra-deen ta kongreganteen noizean beingo billerak, bakunzak eta juntak dituen; beren juntanz, billkunz eta elkarganatz e orietan adi ta ikasi dezaten leneko sermoiez ikasi etzutena edo beren gogora dakien len aditua ta hordurako aztua; ta aldi orietan adituz len aditu etzutena edo bein ta berriz ta hastiro adituz len bein baizik aditu etzutena; ta adituz berez ta bakarrik len beste anitz gauzaren artean ta nasteka bezala aditu zutena; ta adituz ta egiñez ikas dezaten len ikastekotan adituz ta egin bage ikasi bear zutena, izan bagez sermoien adi aldian aditzen zutena egiteko has-tia ta denbora.

Orregatik, bada, predikariak beren kongregazioa ezartzea kongre-ganteei esatea bezala da: «Adio, banuen geiago zuei zer esan, baño ez dut artako bear den hasti ta denbora ta zuek ere orain beste egiteko ta lan-arazoeekin arkitzen zarazte. Nik esan nai nuena kongregazioko kargudu-naren hitzez ta adituko dituzun libruz adiraziko dizue Espiritu Santuak eta ikasiko dezue». Orra, kongregazi-kofradiak dira ongi bizitzen ta ilzen ikasteko bide zuzenak, bai ta Jesus honratzeko ta Jesusen Ama gure bidari, igurai ta lagunle egiteko ere, aldi onetan ekusi bear dugun bezala.

Kristo Jaunak utzi zituen bere lege berrian bearzen ta obligatzen gaituzten gauzak, bai ta geren nai onez egin ditzakegunak ere. Bearzen gaituzten gauzak Jangoikoaren legeko ta Elizako mandamentuetakoak dira ta beste guziak Jesusen konseju onak. Lenbiziko gauzak bage ez gara zerurako, baño oriek egin ezker, Kristo Jaunaren konseju onetako utsak ez digute zerua galeraziko. Al-ere konseju oriek diotena egiten badugu, agitz errazkeago irabaziko dugu zeruko gloria ta atseginz geiago egiñen diogu Jesus maitagarriari. Jesusek agertu zituenetik izandu dira batak eta besteak esaten dutena egin dutenak eta relijione santak Elizan agertu ziran ezker, agitz geiago; bada naiz gizonak izan, naiz andreak relijio sant edozeinetan bizi diranak, orien egiteko ta lan berezia da Jangoikoaren legeko mandamentu guziak eskatzen dutena ez ezik, Kristo Jaunaren konseju onak adirazten dutena ere kontuz egitea; baño relijio bakoitzean bere bidez ta guzietan ongi ta Jangoikoaren gogara egitea,

orretako alegiñez utziz lurreko egiteko, zerukoak eragoz lezakenak. Hau bear den eran egiten dutenak (eta egiten dutenak anitz eta asko dira reli-jione guzietan) birtutetsu onak dira ta orietatik ez guti guk aldarean ekus-ten ditugunak.

Relijio santetan sarzen diranak ez dira eunetatik bat; beste guziak munduko arazo ta zer egin askotan gelditzen dira ta or gelditzen diran anitzek beinzat Kristo Jaunak konsejuz diona egiteko ez ezik, beraren lege santak aginzen ta manatzen duena egiteko ere izaten dute neke ta lan; baño neke ta lan, Jangoikoaren graziarekin artu bear dutena. Neke ta lan hau garaitzeko ta Jangoikoaren legeko ta Elizako mandamentu bakoit-zak diona errazkiago egiteko mundutar zenbaitek arzen dute relijiota-rrren bidearen erako bide bat; eta bidea da kofradi edo kongregazioren batean sarzea. Kofradi ta kongregazione oriek baño agitz leenagokoak dira relijioneetatik zenbait; bada kofradi lenbizikoa, nik dakidanaz, asi zen Colonian, orain zazpi eun urte bezala, ta beste zazpi eun urtez lena-go ere munduan baziran relijione santak. Coloniko kofradian Jesusen Amaren izeneko kofradia zen ta ezarri zuen an bertako Arzobispo S. Annonek. Gerozko kofradi ta kongregazi geienak edo beinzat anitz S. Domingoko, S. Franciscoko ta Jesusen Konpañiko relijiotarrak mundura etorri ezker egiñak dira ta orko relijiotarrak ezarri-egiñak.

S. Domingoko fraide onak ezarri oi dituzten kofradiak Ama Birjinaren errosariokoak dira; S. Franciscokoak ezarzen dituztenak iru-garren ordenakoak eta Jesusen konpañikoak ezarzen dituztenak izan oi dira Jesusen izenekoak, Jesusen Biotzarenak ta Jesusen Amaren edo Santuren baten izena dutenak. Kolejioetan ezarzen dituztenak (eta ezarri oi dituzte itxe-kolegi bakoitzean bat baño geiago ere) beste izena dute-nean, izan oi dute Jesusen Amaren izen bat edo beste ere. Beste zenbait relijiotakoak ere ezarri oi dituzte beren kofradiak eta Karmendarrak Jesusen Amaren eskapulariokoak. Apaizen batzuek eta beren erritarrak ere erri andietan izaten dituzte beren kongregazio ta kofradi moduak. Orietatik dira Kristo Jaunaren eskolak eta Aldareko Sakramentu santua-ren kofradiak.

Mundutarretatik zenbait sarzen dira kongregazio, kofradi edo orden-modu orietatik batean edo bestean, ta zenbait sarzen dira batean baño gaeiagotan ere ta guziak sarzen dira adirazi dugunerako edo Jangoikoak bere mandamentuz ta konsejuz adirazten diguna zuzenkiago egin naiez. Munduko perill, arazo ta egiteko guzien artean ongiena bizi-tzeko, Jesus maitagarriari zor zaion honra emateko, Jesusen Amaren ize-nean anitz gauz on egiteko ta eriotz on baterako, kofradi-kongregazio



bakoitzean artu oi da Jesusen Ama lagun ta arteko. Zein ongi ta kofrade-kongreganteen zenbat onerako, orain guk ekusi bear dugu.

§ I.

Santuren baten edo Jesusen Amaren izeneko den aldian kofradia edo kongregazioa, egiten dituzte kongregante-kofradeak zenbait gauz on Santu beraren ta Jesusen Amaren izenean. Orien izenean egiten dituzten gauzak izaten dira kofradi-kongregazi bereko argiarenzat zenbait diru edo diru-gai uztea; ta erri andikoa bada kofradi-kongregazioa, ematen die ill oro edo urtean bein presondegiko bearsu gaisoei jate on bat eta egiten diote Santuari edo Jesusen Amari urteko bere festa.

Errosarioko kofradietan ta Jesusen Amaren kongregazioetan bada ill oroko ta Ama Birjiñaren egunetako konfesa-komulgatzea. Santuen kongregazioak ere izan oi dute hau bera edo zerbait orrelako. Oriek eta er-gis bereko beste gauzak egiten dituzte kofrade ta kongregante onak beren Santuaren edo Jesusen Amaren izenean; baña guziak dira Jangoikoaren honran egiñak; bada egiten dira Jesusen Ama ta Santua arteko arturik Jangoikoagandik erditsi naiez Jangoiko beraren serbitzura-ko ta eriotz on bat izateko bear dituzten lagunzak eta graziak, eta Jangoikoaren serbitzua ta Jangoikoa maitatzen dela eriotz on bat egitea Jangoiko bera honratzea da.

Errege bat gandik edo beste gizon andiagandik zerbait nai duenak ar dezake bi bidetatik bat; bada badoake bakarrik eta badijoake lagunarekin erdits nai duen gauza eskatzera. Bakarrik badoa, errege edo gizon andi berarekin du bere egiteko guzia ta egiten dituen agur, eskumun ta eskanza guziak errege edo gizon andi berarekin baizik ekustekorik ez duten honrak dira, ta gis orrelakoak dira Jangoikoari bere izeneko kofradi edo kongregazioan egiten zaizkan otoitzak eta gauzak. Baña lagunarekin badijoa erregeri edo gizon andiari hitz egitera, bere lagun berari ere egin bear diozka bere agurrak, eskumunak eta eskanzak, eta egiten diozka billatzen dituen gauzen emalleari bezala ez, baizik oriek erdisten lagun-duko diola uste duen artekoari bezala, ta oni egiten dion honra erregeri ta gizon andiari egin uste dion honrarako bidea da ta ez artekoari edo lagunari berez egiten dion honra. Hau bera da Jesusen Amaren edo Santuren baten izeneko kongregazioetan kongregante onak egiten dutena: Jangoikoa obeki honratzeko ta Jangoikoagandik ain dutena errazkia-

go erdits-naiez Jesusen Ama ta Santua bidenabar lagunzalle ona bezala zerbait honratzea; baña berez ez, baizik Jangoiko beragatik honratzea.

Al-ere onzat arzen dituzte Santuak eta Jesusen Amak beren kofradi ta kongregazioetan egiten zaizten honrak eta otoitzak; eta honra ta otoitz oriek egiten diezten kofradeei ta kongreganteei agitz lagunzen die Jangoikoagandik nai dituzten grazi ta gauzak erdisten ta grazi oriekin egin ditzaten bestela egiñen etzituzten gauzak. Eta orra, bere kofradi-kongregazioan sartu ezpalira Jangoikoaren mandamentuak diotena ere egiñen etzuenak, or sartu ezker, Jangoikoagandik erdisten dituzten lagunzekin ta Jangoiko berak ematen diezten grazi-aldiekin egiten dituzte Jesussek konsejuz adirazten diena ere, ta munduko beren perill, egiteko andi ta arazo guzien artean serbitzen, maitatzen ta honratzen dute Jangoikoa, relijiotar onak beren eremuan, beren bakartasunean edo beren etxe-konbentuan egiten duten eran ta ederki, ta badoaz prestatuz hordua datorren aldirako eriotz on banatara.

§ III.

Baña kongregante-kofradeak lagunz eta grazi hau Jangoikoagandik erdisteko izan bear dute kofrade ta kongregante onak edo kongregante ta kofrade, kofradiko ta kongregazioko egunetan beste egitekoak utzirik kongregaziokoak egiten dituztenak, naiz izan konfesa-komulgatzeak, naiz prozesioan ibilzea, naiz ejerzizioetan debotki egotea, naiz goiz-arratsetako otoitzak eta beste beren gauzak egitea, batean ere al dutela uts egin bage. Hau egiten dutenei lagunzen die Jesusen Amak beren birtuteko bidean, bai ta emengo beste gauzetan ere, ta egiten ez duena zenezazteko egin ditu usteko etzenuen ta ekusiko dituzun beste gauzak ere. Egiteko onetan Jesusen Amaren erakoak dira zeruko beste guziak edo kongregazio ta kofradietako Santuak. Jesusen Biotzaren kongregazioak, euskaldunen arteko geien-geienak beinzat, Jesusen Amaren kontura utziak daude ta beraren izenekoak balira bezala dira; ta orietako kongreganteei, besteei bezala, obeki ezpada, Jesusi dion amoreagatik lagunzen die Jesusen Ama maitagarriak; eta lagunzen, gogo osoz ta nai andiarekin beren animako lan guzietan, bai ta, bear den guzian, emengo besteetan ere, orain ekusiko dezun berri batean edo bestean ageri den bezala.

Deabruak tentaturik tentatu zuen bein Mecinako emazteki gaizto batek an bertako kongregante gazte bat(ek). Izaturik kongreganteak



eskatu zion Jesusen Amari beraren izeneko kongregazioan egiten zituen gauz onak gatik tranze artatik ongi ateratzeko bere lagunza, ta ark hau eskatu bezain laster, atera zen emazteki gaiztoaren arpegira bere bekatuaren itsustasuna ta gelditu zen deabru bera zirudiela, belz izugarria, ta buruko illeak suge egiñak zeduzkala ta tentatzeko baño tentanzak kenzeko agitz ohea; ta Jesusen Amak lagunzen ziola, zegozkan gauzak esan ta aienatu zuen bere aldetik kongregante onak. Lagundu zion Jesusen Amak kongregante oni animako gauzan; urrengo irurei emen bertako bestetan ere.

Napolesko arranzale kongregant bat egun guzia arranzan egin ta arrai bat ere bage arkitzen zen azkenean. Azken sare-aldia botatzean, burua goratu ta esan zion Jesusen Amari: «Lagun zakizkit zere kogregaziokoari bezala, ta onenbateko arranz-aldia egiten badut, eramanean dut kongregazioko argirako bi librako argizagi bat»; eta egin zuen eskatu zuena baño arranz-aldi lau aldiz andiagoa. Erri bereko beste bat kongregazioko ejerzizio batean odol geiegi diziplinan isuri ta gaizki egondu zen zenbait egunez ta lanik ezin egiñez, ta itxeko guzien jan-edanean ta beste gauz zenbaitetan egin zuen zenbait zor. Zerbait bizkortu ta asi zen bere lan arranzan, aldian esaten zuela: «Orra, Jesusen Ama, zure kongregante ona izan naiez egin dut dakizun zorra ta lagun zakizkit ori ateratzen ta nere itxerako bear dudana gaur irabazten»; ta irabazi zuen ura guzia ta anitz geiago (P. Thom. Auriemma, *Affect. tra la V. SS., è suoi devoti*, par. 2, c. 5).

Zorrez beterik arkitzen zen bat eta juezez igorri zioten presondegi-rako manua. Hura aditu ta eskatu zion Jesusen Amari beraren kongregazioan egiten zuenagatik atera zezala tranze gogor artatik eta andik laster billatu zuten arzeko zuten guziak eta barkatu zioten beren arzeko guzia (An. Congreg. 1598). Orra emengo bearretan ere zein laguntzalle ona bere kongreganteentzat Jesusen Ama maitagarria.

Kongregante ez-onak onerazteko bein edo berriz mindu ditu Jesusen Amak orien biotzak. Alemaniko abogadu bat asi zen andiz uzten bere kongregazioko lanak. Gau batez lotan iduritu zitzaion besteekin, len oi zuen bezala, kongregazio bereko lanean zela. Ekusi zuen Jesusen Amak beste guziei egiten ziela mil kariño ta ongitorri, ta ari, argana zen aldian, arpegia illundu ta ez-ekusi egin ziola. Arriturik iratzarzen da bereala. Eguna argitu bezain laster billatzen du kongregazioko karguduna, eskatzen dio len bezala kongregaziora joateko baimena ta joaten da bein ere uts egin bage (Ibid., cap. 4).

Pultoviko kongregante bat Ama Birjin Abuztuko Meza, komunioa ta kongregazioko egitekoa utzirik atera zen erritik zaldiz lurreko egitekoz noraerebait. Uste etzuen gaitz batek eman ta erori zen zalditik eta gelditu zen akordurik bage. Ala egondu zen sei horduz. Akordura zenean arkitu zuen bere burua golpez galdua ta ur egiña ta etzuen arkitu bere zaldia. Belaunikaturik eskatu zion Jesusi ta Jesusen Amari gaizki egiñaren barkanza. Agertu zen horduan zaldia, baño silla, diru ta zeraman guzia galdurik eta hura artu ta itxera zen ongi zenzatua ta kongregaziora berriz ez uts egiteko asmo bero ziñezko bat arturik (Ibid., cap. 5).

Kongregaziora joaten zen, baño gaizki bizi zen ta lagun gaiztoekin gazte bat. Agertu zitzaion bere aingerua, errespetuzko gizona zirudiela, ta «Orrela bizi bear du kongregante batek?» esan ta okabilk bat bularrean eman ta bota zuen orzaz gora ta erdi illa. Lagunak lurrean ekusi zutenean, «Zer duk?» esan zioten, eta ark hitzez eranzun bage bein ta askotan eskatu zion eraman zezatela kongregazioko kolejiora, ta ara joan ta kongregazioko Aita kargudunarekin konfesio jeneral bat egin ta artu zuen bear zen bizitza (An. Mincan. 1611). Zenza zaitez, bada, orien buruan ta izan zaitez bear bezalako kongregantea, lagun diezazun bizitzan ta eriotzan Jesusen Ama maitagarriak. Bai arren, bai.



XXXIII

Bazkotik bostgarren igandeko irakurraldia

Petite, et accipietis, ut gaudium vestrum sit plenum. Joan. 16.

Gaia: Zer ta nola eskatzen zaion
Jangoikoari ongi eskatzen zaiona

Zori oneko hume gu egiñik uzteko izandu ziran Jesusen emengo erakuste, lan ta neke guziak eta beren erakuste zuzenarekin geren zori on hau erdisten guri lagunzera igorri zituen bere Apostol onak eta igorzen ta bidalzen ditu gerozko predikari, konfessore ta beste bere erakusle guziak ere. Baña begira, dio Apostol Santiagok egungo bere epistolari, begira zori oneko hume gu izateko ez da aski Kristo Jaunak berez ta besteek erakusten diguna aditza; orretako egin bear dugu aditzen duguna; bada egiten ezpadugu, ispillura joan, an bere burua ekusi ta andik kendu horduko ekusi duena gogotik joaten zaion bat bezala gara ta geren aditza gaur onik ateratzen ez dugunak.

Zori oneko hume dira, dio Apostol berak, aditzen duten ona ta lege santak adirazten diena zuzenki ta luzatu bage egiten dutenak. Lege santak adirazten duena ez da, dio, murmuraztan mihia erabilza; adirazten diguna da naigabez beteak dauden emazurzei ta neketan arkitzen diran alargunei eskua emanez lagunza ta bekaturako lokatzez ta animako zikin-bidez inguruturik arkitzen den mundu onetan garbiro bizitza. Orra Apostol onek aldi onetan diona.

Onek dion hau egiñen badugu, izanen da Jangoikoaren grazi onak lagunzen digula; bada Jangoikoaren grazirik eta lagunzik bage ezin dagikegu zerurako den gauzarik eta zeruan sarzen ez diran gauzak ezin egin gaitzakee zori oneko hume; baña nai dugun guzian izan dezakegu Jangoikoaren lagunz eta grazi hau, Kristo Jaunak gaurko Ebanjeli santuan dionaz; bada dio: «Aitari zerbait nere izenean eskatu ezkeron emanen dizue». Bai, bai, ala da, ta dakizun bezala, zerbait da, ta anitz balio duen zerbait, Jangoikoaren lagunza ta grazia.

«Nere izenean», zion gero, «ez dezute oraindik deus eskatu. Eskatu, bada, ta artuko dezue ta arzen dezutenarekin egin ezkeron egin bear dena,

erditsiko dezue zeren zori ona ta gloria, ta izanen betiko atseginz oso bete. Oriek! orain arte guzian lañopeko gisan ta erdi gordeak aditu dituzue nigandik gauzak; baña emendik aitzin-aurrera proberbio ta laño guziak alde bat utzi ta agerian esanen dizuet nere Aitak nai duena ta hordu artatik eskatu dezue nere izenean bear den guzia. Ez dizuet esan nai hitz egiñen diodala zuen alde nere Aitari; bada hitz egiten ezpanio ere, maite zaituzte berak, zeren maite nazuten zuek ni ta zeren siñisten dezuten Aitagandik natorrela (ta emanen dizue eskatzen dezuten guzia). Aitagandik nator ta etorri ninzan mundura (gizon egin ta mundua bere bekatupe izugarritik ateratzera ta mudutar guziei zeruko bide bat agerzera) ta orain (nere egiteko hau egin ondoan) uzten dut mundu hau ta Aitagana noa».

«Orain, bai, ekusten dugu, eranzun zioten bere Apostol onak, proberbiorik eta lañorik bage hitz egiten diguzula. Orain ekusten dugu guzia dakizula ta bakoitzari adirazteko jakin nai duena bai dakizula ark hitzik atera bage ere gogoan darabillena ta siñisten dugu Aitaren Seme Jangoiko-gizona zarala (bai ta otoitzari dagokan ta zuk adirazi diguzun beste guzia ere)».

Orra, gaur Elizak Apostol baten ta Kristo Jaunaren hitzez adirazten digu zori oneko hume izateko egin bear duguna, bai ta egin bear dugunerako beariko dugun lagunzaren erdits-estrat eta bidea ere. Orain ekusi bear duguna da zer den erdits-estrat-bide onetan erori bage ibilzeko egin bear duguna.

§ I.

Hitz bat aditzen dezun aldian, hitz egiten dizunak esan nai dizuna ikasteko ez diozu hitzari bakarrik begiratu bear; bada hitz egilleak luzatzen edo laburzen du aldian, berak nai duen gisan, hitzez adiraz dezake; jakiteko, bada, bere hitzarekin adirazi nai dizuna hitzari ez ezik, begiratu bear diozu hitz egillearen esan-gogoari ere ta hau da gaur egin bear dezuna, Jesusek esaten digun aldian: «Aitak emanen dizue nere izenean eskatzen zaiona ta argandik arzeko eska zazue»; bada ez du Jesusek esan nai beraren hitzak dioten guzia; hitzak alabaña diote edo esan dezakee Aita Eternoak emanen digula eskatzen dioguna, naiz ona izan ta naiz gaitzoa edo guri ez dagokiguna; ta ez da hau Jesusek esan nai diguna; bada esan nai diguna da, ona bada ta guri dagokiguna aldi bakoitzean



Jangoikoari eskatzen dioguna, emanen digula. Hau da, bada, aldi onetan Jesusek adirazi nai diguna ta besterik ez.

Askotan ez dakigu dagokiguna den edo ez Jangoikoari eskatzen diogun gauza ta ez diogu eskatu bear nai ta ez hura eman bear digunari bezala. Eriak (Jangoikoa ekusi nai andiarekin arkitzen den birtutetsua ezpada) nai du sendatu edo biziz ondu, obetu ta eriotz on bat egiteko, (leneko igande batean ekusi genuen eremutar monje gazteak bezala) edo sendatu nai du emen luzaroago bizi naizik; eta sendatze hau da bere eri denboran Jangoikoari eskatu oi diona. Osasuna zela ekusi genuen eremutar gazteari aldi artan zegokana ta beraren abadeak eskatu ta eman zion Jangoikoak eriotz on batera prestatu arteko guzia. Eri zetzan Gandiko Dukesa. Beraren senar S. Francisko de Borjak eskatu zion Jangoikoari aren osasuna, baña etzion Jangoikoak osasunik eman, zeren etzen osasuna, Jangoiko berak senar santuari esan zionaz, Dukes eritari zegokan gauza.

Nai luke batek etxe onetako edo artako ezkonza ta eskatzen dio isilka Jangoikoari ta ukatzen dio Jangoikoak berak dakienagatik; eta ukatzen, zeren ez den dagokan gauza; bada aratzen baliz, illen lizake erditze gaiztoz, beteko lizake humez ta nekez ta lazeriz, galduko lizake sekula guziraiko edo galduko luke ezkonz obea edo Jangoikoak dakien beste gauzaren bat. Hau bera agitzen zaie beren gauz zenbaitetan beste anitzi ere: Jangoikoari eskatzea ez dagoten gauza ta Jangoikoak ukatzea eskatzen diotena.

Aldi orietako Jangoikoaren ukantz hau ez da ez-eman naia, ez da gaitzezko ukanza, amoriozko ta onginaiezko ematea da, dio Damascoko S. Gregoriok; bada, dio, «zere onagatik ez arzea eskatzen zenuena zure ondasuna da (galzeko zaudela jokatzan hari zaranean ez galzea irabaztea den bezala)»: *etiamsi non acceperis, non accipiendo accepisti... utiliter non consequi, quod petis, consequi est* (In 2. Paral. c. 15).

Jangoikoak egiten du makur dabilzan eskale oriekin eri beldurti batekin barber-mediku onak egiten duena. Eri txar oriek eskatzen diote barbera-medikuari gaitz egiñen lieken janari ta edaria; baña sendatu nai dituen barber-medikuak ukatzen die bata ta bestea. Eskatzen diote bear duten edari latz miña ez, baizik obira eramanen litukeen beste goxo bat, eta far edo irri egin ta uzten ditu eskatzen diotenen egiten ez dielako damu miñarekin; baña anbat obe orientzat; bada oriek eskatzen dutena egiten balu barber-medikuak, oriek sendatu lekuan ill ta obira botako lituke. Eta ematen balie Jangoikoak eskale oriei ez dagoten ta eskatzen dioten gauza, zerura oriek zuzendu lekuan beren gal-bide gaiztoan utzi-

ko lituke. Hau da ondu nai ez duten anitzekin Jangoikoak egiten duena: eskatzen ta billatzen dituzten atseginz, ondasun ta honr arro galgarri nai dutenaren erdian oriek uztea; baña uztea, orien buruan ta beren naiez egiñen dituzten bekatu gaiztoen alde ondatzeko gero betiko sulezean. Baña besteekin Jangoikoak egiten duena da barber ta mediku onak beren eri gaisoekin egiten dutena: eskatzen dituzten gauz galgarrien orde zegozten sendagai onak ematea ta leneko beren osasun-graziratzen lagunzea; bada ukatzen die Jangoikoak makur dabilzan eskalei eskatzen dioten gauza ta ematen die beraren adiskanzan bizitzeko ta zeruko atseginzak eta atseginz andiak irabazteko bear dutena.

Zenbait aldiz ukatzen du Jangoikoak eskatzen dioten gauz ona ere, baña obe bat orde z eman naiez. Orra, berez gauz ona da etsaiaren ta aragiaren tentanzak kendu ta soseganz onarekin Jangoikoa serbitu ta maitatzea, ta hau obeki egiteagatik eskatu zion Jangoikoari S. Pablok, ken zegizkiola bere aragi sututik izaten zituen tentanz biziak eta ezetz eranzun zion Jangoikoak; baña esaten ziola: «Tentanz erdian anditzen da birtute txikia ta sendorzen ta ederzen andia, ta orra, orretako zuk nere lagunza ta grazia»: *sufficit tibi gratia mea, nam virtus in infirmitate perficitur* (2 Cor. 12,9).

Jangoikoari eskatzen diogun aldian, bada, dagokiguna den edo ez ez dakigun gauza, geren eskanza egin ondoan nai onez ta humilki esan bear diogu, dagiela berak guri dagokiguna; hau da alabaña gu, era bereko egitekoan David bein gelditu zen gisan ongi gelditzeko bidea.

Daviden seme gaizto Absalonek bildu zuen bein jendagirotu eta ejerzitu andi bat eta artu zituen erresuma bere aita Davidi kenzeko neurri ez makurrak. Argana zijoalako berria Davidek aditu ta Jerusalemik atera ta zenbait soldadurekin joan zen urrutiraño aren igeska. Artu zituen bidean ta an bere neurri onak, ark ere bere ejerzitu bat bilzeko, esaten zuela: «Jangoikoak nere bekatu guziak barkatu ta begi onez begiratzen badit, berriz ere nere eskurako da nere erresuma»: *si invenero gratiam in oculis Domini, reducet me* (2 Reg. 15,25). «Baña niri dagokidana ta betiko nere onerako bada betiko nik nere erresum hau galzea, dagiela Jangoikoak nitaz ta nere erresumaz berak nai duena»: *praesto sum, faciat quod bonum est coram se* (v. 26). Hau bera egiten badugu geren otoitz-aldi guzietan, noizbait ez erdiatsiatatik eskatzen duguna, erditsiko dugu hura baño obeki dagokiguna ta eskatu dugunaren orde z eskatu bear genuena.



§ II.

Guri dagokiguna ta gure animaren onerako den aldian Jangoikoari eskatzen diogun gauza, eska dezakegu ukatuko ez digulako uste osoan ta hau da eskatu ezkerko artuko dugula Kristo Jaunak esaten diguna: *petite et accipietis*. Eta dagokiguna ta gure onerako den gauza da, beste anitzen erdian, ongi bizitzeko ta zerua irabazteko bear dugun lagunza ta Jangoikoaren grazia ta hau da lenbizikorik eta erdits uste osoan eskatu bear duguna.

Erdits uste osoan guk hau ta bear dugun beste guzia eskatzeko badagikegu Josef Egiptoko biso-reiarekin beraren anaiak egin zutena. Josef onekin egin zuten bein anai oriek lan gaizto bat; bada bota zuten putzu idor leze izugarri batera, an ilzen ta ustelzen uzteko asmoan, ta gero andik atera ta saldu zieten an barruna zijoazen ismaeldar zenbaiti, urrutiren batean utzi ta bizi zedin berriz orien begira bage. Garien utsaldi batez jaitsi ziran Egiptora ale eske ta beraren anai Josef salduaren itxean sartu ziran alakorik uste etzutela; zeren hordurako ango biso-rei egiñik arkitzen zen Egipton Josef orien anaia. Hau etzuten oriek ezagutu, baña onek ezagutu zituen oriek. Oriek eta Josef anai erdi edo aita baten ta bi amaren humeak ziran. Bere burua agertu bage erakarri zien urrengo jorndan bere anai oso, itxean aitarekin gelditu zen ta Benjamin zeritzan bat. Azkenean agertu zuen zein zen bera, esaten ziela bera zela orien anai Josef. Arriturik gelditu ziran argandik hau aditu ta, bertan Josefek illerazi bear bazituen bezala. Nork daki zenbat egin zuen Josefek bere anaiak soseg-erazteko ta zuten beldurra burutik kenzeko, ta al-ere urteak eta urteak berarekin Egipton egin ta ere, beren beldur berarekin arkitzen ziran beti, ta beren buruak kezka onetatik bein ateratzeko elkar artu ta, guzien aita Jacob an ill ezkerko, joan ziran beren anaiagana ta esan zioten: «Ona, zure aitak ilzeko zegon horduan eman zigun mandatu: ez oroitu, nere semea, zure anaiak egin zizkitzuten bidegabenez eta gauz gaiztoez». Eta gero esan zioten: «Guk ere geren aldetik eskatzen dizugu zure aitaren serbitzari emen arkitzen garanok gure gaiztakeri itsusi eskerbagekoaren barkanza»: *nos quoque oramus, ut servis patris tui dimittas iniquitatem hanc* (Gen. 50,17). Eta Eskritura santak dio Josefek aitaren izena ta orien eskantz humilla aditu ta, oriei barkatu ez ezik, ongi naiez negar ere egin zuela: *his auditis, flevit Ioseph* (Ibid.).

Orra oriek egin zutena ta orra guk Jesusen betiko Aitari zerbait eskatzen diogun aldian dagikeguna. Bagoazke, bada, Jangoiko maitaga-

rriagana, esaten diogula: «Oroi zaitez, Aita, zure Seme maite ta gure anai Jesusen esan zizunaz gure onerako gurutzean ilzen zegon horduan; horduan ark zuri esana da: Aita, bark egiezu»: *Pater, dimitte illis* (Luc. 23,24); ta guri esan zigun bear dugunaren eske zugana bidaldu ginduen aldian: «emanen dizute Ait eternoak nere izenean eskatzen diozuten guzia»: *si quid petieritis Patrem in nomine meo, dabit vobis* (Joan. 10,23). Barkaizkitzu, bada, oraindañoko gure bekatu izugarri andiak eta zere Seme maitagarri Jangoiko-gizon Jesusen izenean iguzu orain eskatzen diguzun hau ta zure serbitzurako ta geren glorirako bear dugun beste guzia.

Jangoikoa gizon egin baño len ta lege zarreko denboran, eskatzen zioten Jangoikoari horduko profetak eta gizon andiak erditsi nai zutena Abrahamen, Isacen ta Jacoben izenean, ta izen oriei agitz begiratzen zion Jangoikoak ez ukatzeko eskatzen zioten gauza; bada izen orrek baño mill milletan ta ezin konta al diña milloietan ere geiago balio badu (balio duen bezala) Jangoiko-gizon Jesusen izenak, nola ukatuko digu guri dagokigun ta izen onetan eskatzen diogun gauza?

Zenbat balio duen dakienak bezala bere otoitz guzietan sarzen du Eliz Ama santak Jesusen izen hau; bada fededunenzat eta beste guzien onerako Jangoikoari egiten diozkan otoitzak egiten ditu Jesusen izenean: *per Dominum nostrum Jesum Christum*. Egizu, bada, zuk ere hau bera ta erditsiko dezu, esan dugun eran, eskatzen dezuna. Eta zere era orretako otoitzez eskatzen ta erdisten dezunarekin errazki egiñen dezu Jangoiko berak zugandik nai duena ta sekulako zure zori onak eskatzen duena.

Orretako bear den lagunza ta Jangoikoaren grazia erdisteko anitz lagunduko dizu errumes gaiso bearsu baten eran ori guzia zuk egitea; bada leoirik erretenak eta aserreenak ere barkatzen dio bere atzaparren ta orzen artean urratzera zijoan gizonari artara baño len beratzen ta humilzen zaion aldian; zer ez du egiñen, bada, Jangoiko gure ongia ta zori ona baizik nai ez duena, bere oñetan gu geren gaizki ta bekatu guzien damuz ta humiltasunez beteak eta beraren Seme maite Jesusen izena ezpaimihian dugula eske ekusi ezkerko?

Zoazkio, bada, maiz eta usu Jangoikoari; zoazkio beti uste ta esperanz osoan ta Jesusen izena zere alde arturik, eta esaiozu joan-aldi bakoitzean Davidek esaten ziona: «Eskalea naz ni ta errumes gaiso bearsu bat; urrikal zaitez nitaz, nere Jangoikoa, bada zugandik uste dut nere on guzia»: *ego autem sum mendicus, et pauper: miserere mei, Deus, quoniam in te confidit anima mea* (Ps. 56,2).

Indazu, bada, Jangoiko maitagarria, nere bearretik ongi ateratzeko, zu ongi serbitzeko ta bear den eran ta beti zu maitatzeko bearko dudana



lagunza ta grazia; bai ta bearko dudan beste guzia ere; eskatzen dizut Jesusen izenean ta Jesusen Biotzeko amore andiagatik. Era orretan ta ziñez zuk eskatu ezkeru, erditsiko dezu eskatzen dezuna ta sekulako zori ona. Egizu, bada: bai arren, bai.

XXXIV Aszenzio eguneko irakurraldia

Assumptus est ad coelum, et sedet a dextris Dei.

Marc. 16

Gaia: Errege da Jesus, ta betiko Errege

Egungo mezako Epistolari ta Ebanjelio santuan agerzen dizkigu Elizak Jesusek biztu ezkeru berrogei egunez ta zerura igan zen arte guzian esan ta egin zituen zenbait gauz. Berrogei egun orietan agertu zen, dio, anitz aldiz bere Apotol onetara. Lenbiziko bere agerraldian aserretu baten gisan hitz egin zien, zeren gogortu ziren bera bizturik ekusi zutenen esana ez siñisteko. Gerozko bere agerraldietan adirazten zien jakin bear zutena beren egiteko andia ongi egiteko ta munduko guzian animak zerura zuzen-erazteko, ta esan ere zien: «Zuen egiteko andia da mundu gizari Ebanjelioa predikatu ta nere Jainkonza ta gizon egin nintzan denboratik ill ta zerura igan arte guzian egin ta erakutsi nuena adiraztea, bai ta zeru berera igan nai dutenak egin bear dutena ere».

Aldi berean beren egiteko ta lan andi hau bear zen eran egiteko ta predikatu bear zuten lege berriaren alde milagro bear ziranak eta beste gauzak egiteko zegoten indar ta esku guzia emanik utzi zituen, esaten ziela agerzen zen lege berria arzen zutenetatik anitzek ere egiñen zituztela era bereko gauzak eta milagro andiak eta milagro orietatik zenbait izanen zirala deabru gaiztoak artu zituzten gorputz gaisoetatik aienatzea, sekulan ikasi etzuten hitzkunzez hitz egitea, sierpe izurduak sartu zuten gaitz eta ill-gai pozoitua bat-batean kenzea, ustekaberen batez edaten zuten izurriari ta pozoi galgarriari gaitz egiteko indarra kenzea ta erien buruak eskuz ukituz sendaturik uztea.

Jarri zen gero Jesus maian ta jan zuen Apostol berekin an zutena. Esan zien galdegin zioten ta zegoten guzia ta gero etzitezela Jerusalemendik atera artu artean Espiritu Santua, Aitak egun gutiren buruan igorriko ziena, zeren hau zen beren lan andirako urez ez, S. Joan Baptistaren eran, baizik bere graziaz bataituko zituena, ta zuten beldurra kenduko ziena, bai ta bearko zuten jankinz-birtute, argi indarz, bide ta beste guzia emanen ziena ere.



Jantoki berean, bada, Olivadiko bidean ta Olivadi bereko mendian hau guzia ta beste zenbait gauz esan ta Apostol berak eta beste anitz an utzi ta igan zen Jesus zerura, ta igan zen berez zezaken Jangoiko-gizona bezala. Zerbait bide agerian egin ta gorde zen odei batean ta sartu zen zeruan ta jarri zen an zegokan toki eder betiko bere Aitaren eskoi-aldean ta gelditu zen ezin geiagoraño atseginzez ta gloriuz betea.

Bere odeian Jesus gorde ta ere, odeiari begira gelditu ziran mendian arkitzen ziran Apostol jaun ta beste guziak, zuriz jaunzirik bi aingeru an agertu ta oriei esan arte guzian: «Zertan zaudezte emen zerura begira, gizon galiletarrak? Orain zerura igan den Jesus Salbatzalle hau era berean ta honra andiarekin etorriko da (bere aldian) zuen ta munduko beste guzien kontu zorrotza arzera». Hau aditu ta itzuli ziren Jesusek esan gisan Jerusalem ta Espiritu Santuaren indar, birtute ta doaiak an artu ta banatu ziran mundu guzian ta predikatu zuten Jesusen lege berria, legearen alde predikari beren eskuz Jangoikoak ezin kont-al-diña milagro egiten zituela, ta bazter guzietan isill-erazi zituzten sulezeko etsai ta deabru hitz-onzi guziak, bai ta arkitzen zituzten judatar gogorrek ere, ta agertu zuten Apostol berak noranokoa den Jesusek emengo bere bizitzarekin ta eriotz nekatuarekin irabazi zuen erregenza. Elizak gaur agerzen digun Jesusen erregenz hau ekustea da aldi onetako gure egiteko guzia.

§ I.

«Kristo Jaunak armarik bage ta gurutzeko bere eriotzarekin garaitu zuen mundua», dio S. Agustinek: *domuit mundum non ferro, sed ligno*, ta «bere gurutze beretik asi zen guzien Errege izaten», esaten du Eliz Ama santak: *regnavit a ligno Deus*, ta gaur igan da bere betiko Ait Jangoikoaren eskoi-aldera ta egin du an aspaldi Aita berak esan ziona, esan zion aldian: «Jar zaitetz nere eskoi-aldean ta nik ekarriko ditut zure etsai guziak zure eskura ta oinpera edo zere erresum andira»: *sede a dextris meis, donec ponam inimicos tuos scabellum pedum tuorum* (Ps. 109), eta an jarriko zeneko ekarri ziozkan berarekin mundutik igan ziran Patriark, Profet eta beste justu guziak, bai ta zeruko serafin, kerubin ta beste aingeru jakinsu ederrak ere, zeren guziak diran Jesusen erreinuko soldadu egoki bortitzak edo Jesusek gurutzeko bere eriotzarekin irabazi zuen graziz jaunziak; leneko on guziak alabaña andik artu dute duten grazi hau ta artuko dute arzen

dutena azken juizioko eguneraño izanen ta etorriko diran beste guziak, dio S. Thomasek S. Joanen zenbait hitz klaratzen dituela.

S. Joanen hitz S. Thomasek klaratzen dituenak dira: «Guziok artu dugu Jesusen ondasundi bete osotik»: *de plenitudine ejus omnes accepimos: (scilicet omnes Apostoli, Patriarchae, et Prophetae, et Justi, qui fuerunt, sunt, et erunt: et etiam omnes Angeli)*; zeren Santu Doktoreak dion bezala, Kristo Jaunaren bukanzik bageko graziditik datorren grazia den adimentudun guziak duten grazi guzia: *quia plenitudo gratiae, quae est in Christo, est causa omnium gratiarum, quae sunt in intellectualibus creaturis*, ta gizonak bezain adimentudunak diran ta adimentu agitz garbiagokoak aingeru guziak. Kristo Jaunak gizon egin ta irabaziko zuenagatik Jangoikoak emana da, bada, aingeru ta Kristo Jaun bera jaino baño lenagoko on guzien grazia ta soldadanzako soñekoa, ta bide berez ematen die mundura datozen ta etorriko diran beste guziei ere, ta leneko, oraingo ta geroko on guziak izanen dira Jesusen erreinuko soldadu ta gerrari, ta gerrari-soldadu zerura igan arte guzian Jesusen etsai, mundu, deabru ta aragi gaiztoa garaitzen ibilli bearko dutenak, eta zeruan beti Jesus Errege beraren zori oneko soldadu, arazo, neke ta perill bage izan bearrak, zeren betikoa den, bukanzik ez duena ta zori ezin obekoa Jesusen ango erresuma. «Bai», dio Espiritu Santuak, «Jacoben itxean gianza artuko duen Jangoiko Jesus izanen da betiko manatzalle ta zori oneko Errege»: *regnabit in domo Jacob in aeternum, et Regni ejus non erit finis* (Luc. 1,32) ta noiznai munduak dirauño, artuko ditu zeruko bere erreinuan beraren emengo erreinuko soldadu ta fededun on bere Aitak prestatzen diozkan guziak.

Ez, bada, ez da Kristo Jaunaren erresuma lurreko erresum laburren gisakoa; betiko Errege ta betiko erresumaren Jaun ta Jabe da Jesus maigarria. Urte gutiko errege da emengo errege bakoitza ta zenbait erregeren eskutik besteen eskura igarogatik, orien erresuma anitz luzatu bage aitzen ta bukatzen dena da. Adi zazu ta ekusiko dezu.

Munduko erreinu ta inperi andien ta bortitzenetatik bat izandu zen Siritar ta Babilondarrena, ta mill ta sei eun urtez ta elkarren ondotik aren jabe ta errege berrogei gizon izan arte guzian iraun bazuen ere, bukatu zen azkenean ta joan zen Meditar erregeen eskura. Leneko bere erregeen eskuan baño denbor agitz laburragoan egondu zen Meditar erregeen eskuan; orien eskutik joan zen igesi errege Persitarren eskura. Persitarren eskutik igesi egin zuen laster Macedoniko errege Alexandro andiaren eskura, ta hau ill ta onen eskutik erori ta ausi zen anitz zatitan ta gelditu zen zati bakoitza Alexandro beraren soldaduren baten eskuan sartua.



Zati orietatik zenbaitek eta beste anitzek egin zuten gero Erromatarren erreinu ta inperi andia. Hau ere anitz urte baño len egin zen bi zati ta zati bata gelditu zen Italian ta beste zatia Constantinoplan Constantinoplako inperi zatiak izandu zituen bat bestearen ondotik ogei ta amabost nagusi edo enperadore, zenbait beren tronutik bizirik kenduak eta beste zenbait izurriz, ezpatez edo gaizkiago illak, eta orain arkitzen da Turcoaren atzapar gogorrean. Italikoa joan zen bein Africako errege Godoetara, gero Franciko errege baten eskura ta geroz ibilli da Alemandarren eskuan ta gaur arkitzen da Austriko itxean, ta itxe onetako indarrak gatik ezpaliz, izanen lizake inperi azal bat baño anitz geiago ez.

Munduko erreinu andi oni agitu zaiona agi ta gertatzen zaie beste guziei ere: esku batetik bestera ibilzea ta luzaro zutik ez egotea. Besteen artean egitu zaio hau gure Españari; bada denbora batez izandu da España Africako Kartajindarren erreinua, beste denboraz Suevodarrena, gero Erromatarrena, gero Godotarrena, gero Mairuena, gero berriz Godotar berena, gero Austriko odolekoena ta orain azkenik Franzesena da, ta Jangoikoak daki noren eskuan bukatu bearra den edo non gelditu bearra munduko erreinu bakoitza. Bitarte orretan denbora laburrez iduki du enperadore ta errege bakoitzak bere erreinu edo inperioa; bada iduki du bera ill arte edo norbaitek kendu bitartean, eta orien artean izandu dira (ta orren kontatuak ez) ill baño len ere berak utziz erreinu bera galdu dutenak. Kristo Jauna da irabazi ta artu duen Erreinu bere eskuan dadukana ta eternidade guzian ta beti beti iduki bear duena: *et Regni ejus non erit finis*.

§ II.

Nondik duela uste dezu Kristo Jaunaren Erreinu onek bein ere ez bukatu bear hau? Etsairik ez izatetik? Ez, bada; bada Kristo Jaunarenak ere baditu bere etsaiak; eta etsai, munduko andienak izandu dituzten guziak baño agitz andiagoak; dira alabaña Kristo Jaun bera ill-erazi zuten judatar gogorrek ta orien ondorengo guzia; eta ondorengo, mundu guzian banaturik arkitzen diranak; dira Turko-tzar eun milloiezka kontatzen diranak, eta dira jentik guziak; eta jentilen apez, errege ta kargudunak. Jentilak berak egungo egunean ere badira berreun milloi beinbat eta denbor luzean izandu dira sei eun milloi ta geiago. Mill urte ta geiago da

Turco arroak asi zirala Jesusen Erreinu etsai izaten, ta asi ta laster sartu ziran nork daki zenbat orien lege-tzar zikiñean; Jangoikoaren milagroz bezala dator orietatik bat gure legera ta beste guziak Kristo Jaunaren erresumako etsaiak dira.

Orrenbat etsai baditu ere kristo Jaunaren erreinu onek emen agerian ta mundu berean, oriek guziak baño agitz geiago ta gaiztoagoak dira ezkutuan dabilzan sulezeko amurratu deabru gaiztoak. Batak eta besteak, bada, elkar arturik egin diote gerra (ta ger bizia) ill ezker edo mil ta zazpi eun urtez Kristo Jaunari, ta urte orietan ibilli dira beti Kristo Jaunari bere Erreinu hau kendu naiez, ta egiteko berean ibilliko dira azken juzganzako eguneraño ta mundu hau bukatu arte guzian. Baña alferrik nekatu dira oraindañoko guzian ta hau bera agituko da datozen urte ta denboretan ere ta orien buruan ondatuko dira guziak beren sulezan; aldarerik bagekoa da alabaña ta beti-betikoa Kristo Jaunak zeruan bere aingeru, bere santu ta beste bere doatsu guziekin egiten duen Erreinu, bai ta Kristo Jaun beraren emengo Elizakoa ere; bada hau ere beti zutik geldituko dena da, Kristo Jaun Jangoiko-gizon egitsuak esana daukan bezala: *et portae inferi non praevalerunt adversus eam* (Matth. 16,18).

Kristo Jaunak nai balu, bertatik ere galdu ta onda litzake suleze infernua bere Erreinu etsai oriek; bada guzia dezaken Jangoiko-gizon Errege da Kristo Jauna; ta Jangoiko-gizon Errege, hitz batekin hau ta geiago dagikena ta bere aingeru bortitzei eragiteko keñu bat egitea aski lukena. Baña ez da hau Kristo Jaunak billatzen duena; billatzen duena da nai duten guziak bein emengo bere Elizako erresum ta gero zerukoan arzea; guziak gatik alabaña isuri zuen bere odola ta utzi zuen gurutze batean bizia ta nai luke balia litezen guziak beraren biziaz, odolaz, ta irabaziz, ta noizbait galzen dituenak galzen ditu beren gaiztakeri guzien neurri ta urteak bete ezker, ta horduan Jesus Erregek botatzen ditu sulezera, sagar ustelak ganadu belzen orzera bota oi diran bezala.

Bitarte onetan ez dago geldirik Jesus Errege. Lendabizitik banatu zituen munduan bere amabi Apostol ta orien irurogei ta amabi lagun beinbat eta guzien ezpañez banatu zuen zori oneko bere Erreinu onen berria ta bein ta askotan deitu zituen munduko guziak bere Erreinu berera.

Siñes zezaten mundutaritsuak Jesusen berrilari onak esaten ziena, egiten zituzten berrilari berak edo Kristo Jaunaren Apostol eta orien lagunak aldiak eskatzen zituen milagro guziak. Ikasi bage hitz egiten zuten edozein baztertako hitzkunzan ta hitz egiten zuten an bertan jai-



aziak eta beti bizitu balira bezain zuzen ta aisa, ta beren hitzket bera bezain ongi aditzen zuten sekulan ikasi edo aditu etzuten.

Eskol andirik bageko ta guti zekiten gizonak ziran Kristo Jaunak bere egiteko andira igorri zituen Apostol onak eta orien lagunak, eta alere sarzen ziran bat ere beldurrik bage munduko jakinsu andien erdian, erri andi, tribunal izugarri ta edozein errege ta enperador andiren jauregian, bai ta fariseoz ta legeko doktozez beteak zeuden Sinagogetan ere, ta bazuten bazter guzietan ta beti zer esan, aditzen zituztenak jakin bear zutena erakusteko, galdegiten zien guziari erantzuteko ta Kristo Jaunaren legea ta erregeza siñetsi nai etzutenak mututurik uzteko.

Apostol onen hitzak aditzen zituzten guzien artean gogorren ta siñislerik gaiztoenak judatarrak ziran. Bazekiten oriek Eskritura santaz etorriko zela orien onerako Mesias bat; baña uste zuten Mesias hau izanen zela gizon aberats soldaduduna, erromatar ta beren beste etsai guziak andik aienatu ta orien bazter berean erreinu ondasundun bakezko bat ezarri bear zuena; ta Kristo Jauna bazen ere Jangoikoak agindu zien Mesias hau, etzuten beren Jainkotzat eta Erregetako ezagutu, ta zeren Jesusek esaten zien bera zela judatarrak uste zuten Mesias ta zeren bidenabar begitan ematen zien beren gaiztakeriekin, artu zuten begitan ta etziran gelditu gurutze batean ilzez josirik illa ekusi arte guzian.

Espiritu Santua artu zutenetik asi ziran Apostol jaunak Jerusalem berean ango eskriba, fariseo ta jakinsu guziei begitan ematen beren itsumen galduarekin, ta ezin uka zezaken gisan agerzen zien eskutartean zituzten eskritura santez berak ill-erazi zuten Nazarethko Jesus zela Jangoikoak judatarrenzat eta mundu guziaren onerako agindu ta berezi zuen Mesias. Zein ere gogor-amurratu-galduak zeuden Jesus onagana, siñistu zuten ta fededun egin ziran S. Pedroren lenbiziko sermoia aditu ta irur mill bezala; beste guziak mututurik gelditu ziran ta hitz bat S. Pedrok zionari zer eranzun etzutela; baña azkenean S. Pedro berak, beste Apostol guziak eta S. Estebanek ziona aditu ta ere, orietatik gutik artu nai izandu zuten beren Erregetako ill-erazi zuten Jesus ta etzuten artu nai izandu beren ondasun piskak eta bazterrak galzeko beldurrez; ta zeren artu etzuten, galdu zituzten beren bazter ta ondasun guziak, orregatik galdu bear zituztela lenagotik Eskritura santak Danielen ezpañez adirazi zien gisan, esan zien aldian: «Ill bedi (orien eskuz orien galgarri bat baliz bezala) Kristo ta (beraren ilzalle oriek) ez dira izanen Jesus ill biztuaren erreinukoak (eta beren bazterretatik ere aien-erbestatuak izanen dira): *occidatur Christus, et non erit ejus populus* (Daniel, 9,26); bada andik ez urrun, ta Tito ta Vespasiano Erromako enperadoreen egunetan erio gaiztoz ill

ziran Jerusalem berean arkitzen ziranetatik milletan mill beinzat eta beste guziak banatu ziran bein Erromatarren erri ta erresuman ta gero munduko beste anitz bazterretan.

«Eta banatu ziran», dio S. Augustinek, «nai etzutela Kristo Jaunaren erresuma agitz anditzera; bada berekin Eskritura santak eraman ta dakarten berriarekin lenbizian Apostol jaunak eta gero orien ondorengo maisu-misionista ta predikari onak siñisterazi die eun millka ta millmilloika munduko jentillei ta beste jendeei Jesus dela dena, Jangoikoaren Seme Jangoiko-gizon egiña ta zeruko ta lurreko betiko Errege»: *sparsi sunt iudaei ubique terrarum, portantes codices, quibus Christus praedicatur*. Eta dagitela nai dutena judatar itsu gogorrek, munduko hereje gaiztoak eta sulezeko deabru amurratu guziak, andituz joanen da ta fededun berriak artuz ta artuz Kristo Jaunaren Erreinua, berak bere nekez, izerdiz ta gurutzeko eriotzez irabazia, ta bake osoan iraunen du gero eternidade guzian ta betiko glorian: *Regni ejus non erit finis*.

Zori ta hordu onean, Jesus maitagarria, egin ziñan gizon gure guzien betiko Errege izateko. Eta zaran ezker, lagun zakizkigu emen zure soldadu onak izaten ta gugandik nai dezun guzia guri eragiten, igan gaitezen gero gaurko zere iganzarekin egin diguzun bidez zeruko zure Erreinura, or beti zuri begira ta atseginzez ta gloriz beteak bizitzera. Bai arren, Jesus maitagarria, bai.



Aszensioaren urrengo igandeko irakurraldia

Et vos testimonium perhibebitis de me, quia ab initio mecum estis. Joan. 15.

Gaia: Ongien emen bere gauzak egiten dituen da Jangoikoagana zeruan geienik urbilzen dena

Lurreko gerrariak erakusten dio bere soldaduari gerrako lana, gerraldia datorren aldi egin dezan bear den gisan ta garai dezan ilzera datorkion etsaia ta dagien beretzat eta bere nagusiarendako irabazte ta ondasun andia. «Jangoikoaren gerrariak gara mundura gatozen guziok», dio Job Santuak: *milita est vita hominis super terram* (Job 7,1) eta fededunok Jangoikoaren gerrako geren Erregeren soñeko ta armak bataioz artu ditugunak; bada artu ditugu bataioz gurutze santuaren soñekoa ta seña-lea, bai ta *arma iustitiae* edo graziaren ta birtuteen armak ere.

Erakusten digu geren gerrako nagusi Jesusek beraren soldadu onak izateko jakin ta egin bear duguna, ta erakusten, Elizan gizonez zenbaiti, eskolan bakoitzei ta beste anitzi beren itxean libruz ta hitzez, aldi berean barreneko gogargiz Jangoiko berak lagunzen duela. Lurreko soldadu guziak ez dira bide batekoak. Zenbait, (eta geienak) beren eskuz pelean haritzen dira ta beste bakoitzak oriei bear den eran leiak, peleak eta beste gauzak eragiteko dira. Eratsu berekoak gara Jangoiko Erregeren sodadu fededunok ere; bada zenbait erakusle ta eragille dira, ta oriek berak eta beste guziak Jangoiko Errege bere legean aginzen ta manatzen dituen gauzen egilleak. Lurreko gerrari bakoitzari erakusten zaio bere egiteko-rako jakin bear duena ta fededun bakoitzak, nai badu, ikas dezake beraren egiteko andiak eskatzen duen guzia.

Fededun guzietatik Apostol jaunak dira Jesus Erregeren gerrari len-bizikoak eta orregatik dira gure legeko gauzak bestek baño obeki zekiz-tenak. Gauz oriek oriei erakusten haritu zen Jesus predikuko bere den-bor guzian ta azkeneko bere irur urteetan, bai ta biztu ta zerura igan arte guzian ere. Bera zerura igan ondoan beren gain artu bear zuten egitekoa aipatu zien batez, adirazi zien Jesusek egungo Ebanjeli santuan ekusten duguna edo, anitz bazen ere, argandik aditu zutena geiago jakin bear

zutela beren lan andirako ta hau erakutsiko ziela berak berez Aita beti-koagandik igorriko zien Espiritu Santuz. Apostol jaunak Jesusen gerrari fededun erakusle ziran ta bear zen gisan hau guziei erakusteko ikasi bear zuten Jangoiko-gizon Jesusi zegokan guzia, ta esan ere zien hau azkenik eta ongi agertuko ziela etorzeko zegon Espiritu Santuak: «Ark ongi klaratuko dizue nor nazan ni ta hordutik ezagutuko nazue oraindaño guzian ez bezala ta hordu beretik jakinen dezue zertako diran nik egin ditudan gauzak, nik eraman bear ditudan neke gogorrek eta tormentu latzak, nere eriotz odoltua, nere biztea ta ekusi dezuten ta ekusiko dezuen beste guzia, bai ta nere Elizan geldituko diran sakramentu ta zeremoni santei dagoten guzia ere».

Hitz gutiz hau Apostol berei adirazi ta «Orra», esan izandu zien, «gertakizun lendanik nik zuei agertua, ta gertatzen den aldi egin den kontu ta ez beldurtu. Kenduko dizkitzute gaizki naiko dizutenak Elizan sarzeak eta zeren ango erakuste onak, eta ilzen zaituztenak usteko dute orretan egiten dutela Jangoikoari atsegin andi bat egiñen dion gauza; baña egiñen dute hau nere Aita ta ni garanzat ezagutzen ez gaituzten itsuak. Lendanik esan dizuet aditu dezuten guzia, gertatzen den aldi egin den gauza egia zela nik niona».

Apostol Jaunak ikasi zuten azkeneko jakin bear zutena ta egin zuten gutzi ederki beren egiteko andia ta igan ziran gero Jesusen aldera, irabazi zuten atsegin eta glori ederrera. Ori egin den berea egiten duena iganen da Jesus beraren aldera, ta zenbat ere obeki egiten duen, anbat alde-ragora, oraingo aldi egin den ikusiko dugun bezala.

§ I.

Lurreko gerrari kargudunak izaten dira berez otsik andiena munduan egiten duten gizonak; baña oriek baño obeki egiten badituzte gerrako gauzak azken gerrariak edo soldadu utsak, kargudunak baño ozen geiagorekin gelditzen dira mundu berean. Gerrari karguduna ta errege andia zen Saul. Filistarrekin pelean sarzoko bidetan arkitzen zen bein ta sarzoko bere beldurrarekin. David zeritzan mutil gazte bat an agertu zen aldi berean. David ara baño len egun oro urbilzen zen an bertan arkitzen ziran filistarren ejerzituko jiggante, gizon agitz andi izugarri bat eta aldi oro egiten zien oju: «Gizonik bada zuen artean, betor onara nerekin pelean sarzera; ark garaitzen banau ni, garaituak nerekin batean filistar



guziak, guziok egiteko Saulek nai duena; baña nik hura garaitu ezker, garaituak hura ta Saul ta beste israeldar guziak, guziak egiteko guk nai duguna». Etzen trebe Saul, ez eta ejerzitu guziko beste gerrari andi txirik ere jigan arekin pelean sarzeko. Aldi artan ara zen David arzai mutil gaztea ta filistar izugarriak ziona aditu ta israeldar guzien beldurra ekusi ta esan zuen garbi garbiro Jangoikoaren izenean bat ere beldurrik bage joanen zela gizatzar hura garaitzera.

Aditu zuen Saulek mutil ark ziona ta deitu ta burutik oñearño begiratu ta esan zion Davidi: «Zu mutil gazte bizar bagea ta filistar hura gizon egiña; zu txikia ta hura agitz andia; zu arzaia ta hura gerran oitua; hura burdinez estalia ta lanz arrigarri bat eskuan duela ta zu arzai makil bat eskuan ta arzai oialezko soñekoa baizik gañean ez dezula, arekin nola pelean hariko zara?». «Bear den gisan, jauna», eranzun zion Davidek, «eta hura garaitzeko uste andiarekin; bada nere aranzan etorri zaizkit arza ta leoia ardiak eramatera, ta orzetan bat arzen zuteneko, joan ta kenzen nien nere ardia, ta itzulzen baziran nigana, aoa oriek zabaldu horduko, itsasten ninzaien esku batez gañeko aldetik eta bestearekin azpikotik, urratzen nituen leporaño ta erorzen ziran an bertan illak, eta hau bera agituko zaio filistar izugarri orri ere».

Utzi zion azkenean Saulek Davidi nai zuena egiten. Joan zen David ur guti zekarren urrengo erre kara, artu zituen an bost arri arkitu zituen garbienak, eta sartu zituen saietseko arzai zorroan. Orietatik bat artu ta ezarri zuen bere eskuko aballan ta beste eskuan arzai makilla artu ta asi zen ibilzen filistar izugarriagana. Filistarrak hura arganatzen ekusi ta esan zion Davidi: «Zeer? Zakurra nauk ni, era orretan hi nigana etorzeko? Ator, ator ta txorien bazk egiñik, botako aut arako aizegain artara»; ta hau esan ta asi zen ibilzen hura ere. Bazijoazen biak bata besteagana ta filistarra Daviden tirora horduko, eskuko arria bere sok-aballarekin buru inguruan erabilli ta tiratu zion Davidek; eman zion kopet-bekokiaren erdian ta utzi zuen an bertan asnerik bage ta ill eroria. Argana joan ta kendu zion saietseko ezpata ta ezpatarekin burua, ta ezpat puntan burua sartu ta itzuli zen bere ejerzitura ta Saul erregegana. Israeldar neskatzak hau aditu ta asi ziran kantaz esaten: «Saulek ill ditu mill, baña Davidek amar mill», ta gelditu zen David soldadu utsa Saul gerrari nagusi ta errege andia baño honr andiagorekin, zeren Saulek aldi artaraño egin zituenak baño Davidek egin zuen gerrako lan hau agitz andiagoa zen.

Hau bera agi-gertatzen da animako gure gerran ere: gauzak ongien egiten dituzten fededunak izatea izen andiena ta gloririk geiena zeruan erdisten dutenak eta an Jesusen alderago bizi diranak. Emengo gerreta-

ko nagusi erregeak nai lukee orien soldadu guziak izan litezen ezin obe ta guztiz egokiak, eta hau bera da Jesus gure Errege maitagarriak nai duena, ta nai du Jesus Erregek hau errege lurrekoak ez bezala; bada errege oriek nai dute hau beren onerako ta Jesusek gu zori oneko baño obeko eginik uzteko eta atseginz ta glori geiago gero guri eman naiez.

Igan da, bada, Jesus zeruko guzien gañak barrena betiko bere Ait-eskoi-aldera ta andik deitzen digu goazela beraren ondoren: *sequatur me* (Matth. 16,24), ta goazkiola alik alderena, edo emen artako bizi gaitzezela beraren gisan ta al bezain ongi ta santuki, ta esaten digu ark hau fededun guziori: *dicebat autem ad omnes*.

«Eta zeer? Badagizke», diozu, «eskolarik ez duten langille gaisoak eta nekazari ezer-ezak gizon jakinsu andiak, relijioso ta apaiz santu berak bezain ongi beren gauzak? Eta munduan bizi den andre gaiso batek konbentuko serore batek bezain ongi serbi dezake Jangoiko maitagarria, hura diña gero zeruan Jangoiko beragana urbilzeko?». Nai badu, bai, ta ais al-ere.

Baña zer da artako onek egin bear duena? S. Pablok egungo Epistolari esaten diguna (1 Cor. 4): ongi oharturik eta Jangoikoak nai duen gisan gauzak egitea; zenzament eta kontu guziarekin otoitz berean egotea; batak bestea beti onest-maitatzea, zeren oneste on hau ta Jangoikoaren maitanza den bekatu gaiztoaren estalkia edo bekatu guziak gugandik kenzen dituen gauza; batak besteari bere itxean duenarekin murmuranzik eta kezkarik bage lagunzea ta Jangoikoagandik dituen ondasunen argi-bidea besteei agerzea; hitz egiten duen aldian gauz onak eta ongi esatea; besteei lagunzean Jangoikoak lagun zen digun bidez hari-tzea ta beste gauz guziak Jangoikoaren honran ta Jesusen izenean ta biotzeko maitanzen amorez egitea.

Hau guzia ta Jangoikoaren legeko edozein beste gauz badagike mundutar edozeñek gizon jakinsu ta relijiotar onak bezain ongi, naiz gizakia izan, naiz emakumea mundutar bera edo munduan bizi den ta hau egiten duena; ta badagike lurreko soldadu batek bere gauzak ez bezala; bada soldaduak egiñen baditu bere gauzak, egin bear ditu bere indarrez ta eskuz, zeren bestek ematen ez dion artako indar-eskurik; eta fededunari, non nai hau bizi dedilla, eskatu ezker ematen dio Jangoikoak bere gauz guziak egiteko bear duen lagunza ta grazia, ta Jangoikoaren lagunz eta grazi onekin mundu berean ere zenbaitek egin dituzte beren gauzak, beste askok beren eremuan edo relijioren batean bezain ongi, orain guk ekusiko dugun gisan; ta berak nai dutela, zenbaitek egin dutena egin dezake mundutar beste guziak ere.



§ II.

Izandu dira, bai, munduan gizonak beren birtutearekin erlijiotar onak berenarekin diña atsegin Jangoikoari egin diotenak. Hau ala dela siñesteko aski da jakitea S. Antonio abadeari bein agitua. S. Antonio guzien ustez zen beraren aldi Eliz guzian arkitzen zen erlijioso ta eremutar santuena. Konstantino enperadore andiak igorri ta bidaldu ziozkan mandatar agitz egokiak bere otoitzen eske, ta guziak billatzen zuten beren ezjakinetan Jangoikoak nai zuenaren berritegia bezala, argandik ikasteko aldi egin bear zutena, ta beste anitzen artean izandu zen aren dizipulo Elizako Doktore ta santu andi S. Athanasio. Santu andi onek, bada, urtez ta birtutez beterik arkitzen zen denboran izandu zuen tentaldi bat eta etsaiak ekarri zion gogora ote zen mundu guzian ark diña Jangoikoagandik artu zuenik eta ark berak zuen diñako birtutekorik. Etsai gaiztoaren tentanz hau ezagutu zueneko, joan zen Jangoiko beragana hura garaitzeko bear zen lagunzaren ta graziaren eske ta Jangoikoak esan zionarekin garaitu zuen aisa aski ta laster, ta Jangoikoak esan ziona zen: «Ez dezu oraindik larruak apainzen dituen urliak diña grazi ta birtute»: *nondum ad perfectionem coriarii pervenisti*. Ekusten dezu?

Bada munduko giz artean ez ezik, mundu bereko emakume beretan ere arkitzen dira erlijioako ta eremuko gizon birtutedunak diña birtute dutenak. Pafnucio abadea zen S. Antonioren erako eremutar ta erlijioso birtutetsu bat eta bere birtute andiatatik mundutar guziak profeta bezala billatzen zutena. Oni ere S. Antonioren gisan gogora zitzaion bein ote zen munduan ark diña birtute zuenik, eta baietz eranzun zion Jangoikoak eta bai zirala aizpa bi, bi anai langillerekin ezkonduarik arkitzen ziranak, ark diña birtute zutenak.

Orien berririk etzuten ta ekusten zituztenak batez Pafnucioaren eremuko ta erlijioako otoitz luzeak, errezu andiak, barur ta penitenzi arrigarririk guziak eta era bereko beraren beste gauzak, eta bestez bi andre, berak eta beren senarrak irabazten zutenarekin doi-doi bizi ziranak eta joste piskak, elze maneatzek eta itxea garbitu ta moldatzea zela orien egiteko guzia, usteko zu(t)en abade Pafnucio zela zeruan eguzkia dena ta aizp oriek geienaz izanen zirala zeru bereko izar txiki biren gisakoak; edo usteko zuten Pafnucio birtutean oriek garaitzen zituela argian eguzki berak izarrak diña; ta orra, Jangoikoak ekusten zuen bai zutela andre

gaiso oriek Pafnucio diña birtute, ta aldi artan ill balira irurak, Jesusen Pafnucio bezain aldera iganen zirala bi emazteki oriek. Eta orra, erlijiotar batek diña birtute erdits dezaken edozein mundutarrek, berak nai duela.

Badakizu zer bidez? Jangoikoak nai duena ta Jangoiko berak nai duen horduz, bidez ta eran gauz bakoitza egiñez. Bai, jangoikoaren nainkuna da erlijiotarren ta munduko guzien birtutearen nibela ta pisua, ta Jangoikoak nai duena zuzenkiago egiten duena da birtuterik zuzenen, andien ta geien balio duenarekin arkitzen dena, naiz erlijiotarra izan hau, naiz mundukoa.

Relijiotarrak egiten dituzten gauzak, diozu, mundutarrenak baño berez ederragoak eta obeak dira; bada joskuzak, elze egoste, arta jor eta era bereko beste gauzak baño berez ederrago ta obeak dira otoitzak, mezak eta erlijioetako beste gauzak. Egia diozu ta oriek egiten dituzten erlijiotarrak munduko gauzak egiten dituzten mundutarrenak baño errazkiago ta geiagotan erdisten dute birtutea; baño neke geiagorekin bad-ere, egiten badituzte mundutarrenak beste beren oriek eta egiten badituzte erlijiotarrak berenak bezain nai onarekin ta Jangoikoari atsegin egiteagatik, berez irabazten dute Jangoikoaren begietan erlijioso berak beren gauz andi ederrekin diña edo geiago, zeren erlijiotarrak baño traba ta neke geiago duten beren gauz oriek ongi egiteko.

Munduaren begietan Moisesen gauzak ere Jesusen Amaren josketak eta etxeko beste lanak baño agitz eder arrigarriagoak ziran; bada Moisesek aizea jotze batekin bete zituen bein elementaz bazter guziak eta beste batez utzi zituen erreak eta galduak Egiptoko gari, sagar, udare, belar ta ganadu berak eta gizonak jan zitzakeen beste gauzak. Itsaso bat erdi bi egiña ta bazter batetik besteraño bidearekin uzteko, aski izandu zen Moisesek bere zigor berarekin aren urak ukitzea. Zigor berarekin aitz bat golpatzen bazuen, erakarzen zion milletan mill egartik bear zuten ura ta geiago. Oriek, bada, ta Moisesek egiten zituen era ta gis bereko beste gauzak Jesusen Amarenak baño soñu andiagokoak eta iduri obeakoak ziran, ta al-ere Jesusen Amaren txiki orien aldean etzuten pits bat balio Moisesen gauz andi guziak. Zergatik, uste dezu? Zeren Jangoikoak aldi orietan Jesusen Amagandik nai zituen gauzak ziran txiki oriek eta zeren egiten zituen Jesusen Amak zenaren gisan ta Moisesek bereak baño milletan ta milletan ederkiago ta obeki, ta zeren, esan dugun gisan, Jangoikoak nai duena ta nai duen eran gauzak egitea den bakoitzaren birtutea, ta geiagotan ta obeki ori ark egitea, birtute andiagoko gauza.



Orra, bada, egizkitzu zuk munduan zere goiz-arratsetako ta hordu oroko otoitzak; egizkitzu egun oro, haste guziko, ill beteko ta urteko zere gauzak, kongregant edo kofrade onak egiten dituzten gisan; ez utzi Apostol jaunak lendabizitik adirazi dizkigunak, ez eta zure egitekoari dagoztenak ere; oriek dira Jangoikoak zugandik nai dituenak, eta egiten badituzu relijiotarrak berenak bezain ongi, egiñen dituzu relijiotarren gauzak diña atsegin Jangoikoari egiñen dioten zure gauzak eta iganen zara oriek diña betiko Aitaren eskoi-aldean jarri den Jesus maitagarriagana. Jesus berak dizula orretako bear den lagunza ta gogoa; bai arren, bai.

XXXVI Espiritu Santuaren Bazk-eguneko irakurraldia

Paraditus Spiritus Sanctus... vos docebit omnia.

Joan. 14.

**Gaia: Guztiz andia da Espiritu Santuak
dakarren grazizko indarra**

Bazekien Jesusek zenbat naigabenz arzen zuten Apostol bereak aditzen zioten aldian orien artetik atera ta igan bear zuela bere Aitagana, ta orien naigabenz hau arinzeko esaten zien aldi oro, hura zerura igan ondoan, etorriko zela Jesus beraren izenean ta Ait eternoak igorri ta, Espiritu Santu konsolari ezin ohea. Eta gaurko Ebanjelioko bere joan bear onen agerraldian esan zuen besterik ere; bada esan zuen: «Maite nabena egiñen du aditzen didana ta maitatuko du bera nere Ait eterno betikoak; baña ez du egiñen nik diodanik ni maite ez nabena (eta ore-gatik galduko du Aita beraren maitanza ta amoreta); bada Aitak ez du maitatuko beraren esanik egin nai ez duena ta beraren esana da niri zuek askotan aditua. Esan nai izandu dizuet hau zuekin emen bizi nazala. Nere izenean Ait eterno berak bidalduko duen Espiritu Santu berak agertuko dizue guzia ta klaratuko niri adituko didazutena. Orra, esaten die gero, uzten dizuet nere bakea, bake onean bizi zaitezten ta orregatik uzten dizuet mundu nasgarriak ez bezala. Ez dedilla, bada, beldurtu ta asaldatu zuen barren biotza. Aditu dezue banoala, baña berriz etorzeko noa, ta ongi nai badidazue, atsegin artuko dezue oraingo nere joan-bearraz, zeren neurau baño gaiagoko Aitagana noan. Agertu dizuet etorkizuna, etorzen den aldian errazkiago zuek siñisteko».

Hau guzia esan bazien ere, etzien Jesusek agertu Espiritu Santuaren etorrera ta modua. Izandu zen egungo egunarekin Espiritu Santuaren etorraldi hau ta etorri zen, egungo Epistolaren Elizak agerzen digun gisan ta eran. Jerusalemen elkargana bilduak eta Espiritu Santu beraren begira zeuden Apostol ta orien lagun guziak eta bat-batean aditu zuten itxe guzia artu zuen ta bazterrak urratu bear zituela zirudien aize andi bat eta denbor berean agertu ziran suz egiñak ziruditen anitz mihi ta gelditu zen



bakoitza an arkitzen ziran bakoitzaren buruan ta hordu berean gelditu ziran guziak Espiritu Santuz beteak eta gañez eragiten ziela, ta bertan itxetik atera ta asi ziran Espiritu Santu berak mihian ezarzen ziena esaten, ta esaten zuten sekulan ikasi etzuten hitzkunzan; bada egun artan arkitzen ziran Jerusalemen Bazkoz etorriak judatarren legean bizi ziranak eta orietatik anitz bizi ziran Juda berean, besteak Parthoen errietan, besteak Mediterrarrak ziran, besteak Elamitak, Mesopotamikoak besteak, Capadocikoak, Frigikoak eta Panfilikoak, besteak Pontokoak, Libikoak eta Egiptokoak, besteak Erromako etorkiak, besteak Israeldarrak, eta israeldarren artean bizi ziranak; besteak Cretakoak eta Arabitarak; guziak ziran beren hitzkunz berezia zutenak ta Apostoluen Galileko hitzkunza etzekitenak; al-ere aditzen zuten guziak Apostol guziak esaten zutena, nori bere hitzkunzan esaten baliote bezain aisa ta garbiro, ta hau ekusi ta «Nola da hau?», esaten zuten erdi arrituak; «Galiletar gizon predikari oriek guk nori bere jait-hitzkunzan minzaten ta hitz egiten baliote bezain ongi aditzea?».

Nola izan ziteken hau? diozu zuk ere. Artu zuten Espiritu Santuaren eskuz ta milagro. Eta hau Apostol ta, bear zen aldian, orien ondorengo predikari guziei ere eragitera zetorrela adirazteko artu zuen Espiritu Santu berak Apostoletara sarzeco suzko mihien ainzura ta itxura, ta Apostoluen ondorengo erakusle onak Apostol beren aldi onetako eran edo beren hitzkunzan adirazten die munduko berei Espiritu Santuak gaur adirazia ta beraren doaiak arzeko jakin bear dutena. Anitz eta andiak dira Espiritu Santuak prestatzen diranenzat dakarzenak. Orietatik andiena da bekatudunak bekatu rik bage ta grazidun egiñak uztea ta hau da aldi onetan guk ekusi bearra.

§ I.

Badakizu, Jangoiko bat baizik ezpad-ere, Jainkondz bakar onetan bai dirala iru Person, Jangoikondz berarekin bat, baña Person berezi, bata ez beste diranak, eta Person oriek dirala Aita, Semea ta Espiritu Santua. Aitak ez du bestegandik bere Jainkondza; Aitagandik du Semeak Ait beraren Jainkondza, ta Aita beragandik ta onen Seme Jangoikoagandik du Espiritu Santuak bien Jainkotasun bera, Eliz Ama santak mezako Kredoan esaten digun bezala: *qui ex Patre, Filioque procedit*, ta orregatik da Jangoiko Espiritu Santua, Aita ta Semea Jangoiko diran bezala, ta irurak,

edo Aita, Semea ta Espiritu Santua, Jangoiko bat dira, zeren bat den iruren Jainkondza ta Jainkondz bakarrak Jainko bat baizik ezin dagiken; orregatik bat bera ta berdiña da irurei ematen zaien honr, adoranz eta gloria: *qui cum Patrem et Filio simul adoratur, et conglorificatur*.

Aitak egiten dituen lan guzietan hari dira Semea ta Espiritu Santua ta hari dira Ait bera diñako eskuarekin. Era berean hari da Aita, Semeak ta Espiritu Santuak egiten dituzten lanetan, zeren Jangoiko batenak eta iru Personenak diran egiten dituzten lan ta gauz guziak. Al-ere indarrezko egiteko ta gairik bage egiten diran gauzak, lenbizian zeru-lur-itsaso ta beste guziak bezala, Aitak egiñak dirala esaten da; jakinezkoak Semeak egiñak eta Espiritu Santu maitariak egiñak onginaiezko ta amoriozko beste guziak; eta orietatik da (ta Espiritu Santuak egiten dituen gauzarik andienetatik bat) bekatuz illak arkitzen diranak graziz biztea ta bekatu rik bage ta grazidun egiñak uztea.

Jesusen Apostol ta Apostol beren ondorengoei ere bere lan andi hau eragitera zerutik etorri da gaur Espiritu Santua ta eman die Apostol ta orien aldi artako lagunei beren lana ongi egiteko bear dutena, ta emanen die beren aldian orien ondorengo onei ere, ondorengo oriek artara prestatu ezker. Eta Apostol jaunen ondorengo oriek gaur ez artuagatik aldi artan Apostol berak diña argi, grazi ta indar, aiek baño agitz errazkiago egin dezakee beren lana ta egitekoa; bada Apostol jaunak egin zuten beren lana lenbiziko erelleak beren ereinza bezala, ta orien ondorengo geienak beinzat egiten duten bigarren ta urrango ereinleen gisan; ta badakizu lenbiziko ereinleak, zerbait ereiñiko badu, neke andiarekin urratu bear duela sasi eginik arkitzen den lurra, kendu bear dituela an arkitzen dituen sustrai, zain ta arri andiskote guziak, erre bear dituela an bertan bilzen dituen larrak eta beste zakarrak, eta irauli ta berdindu bear duela lur guzia; ta lenbiziko aren lan hau lan gogorra da; baña urrango urteetako erelleak ez du bere ereinzarako lan orien bearrik; aski du lurra irauli, txikitu ta berdinzea.

Apostol onak dira Kristo Jaunaren legek lenbiziko ereinzak egin zituzten gizonak eta Jangoikoaren fede santa ta siñianza munduko adilleen biotzean sartu zutenak; eta or ori sarzeco izandu zuten anitz neke ta izerdi, zeren mundutarrak horduan arkitzen ziran bekatuzko sasi-zakar egiñak eta sustrai gaiztoz beteak. Apostol erell onak beren lan hau astean arkitu zuten mundua idolatriaren illunbean agitz sartua ta Jangoikoaren berri zuzenik bagea; bada Egiptoko erreinua da horduraño geiena jakindu zuten munduko bazterretatik bat, eta al-ere uste zuten egiptarrak bai ziral berrogei mill jangoiko ta beren jainko-usi orien artean sarzen zituz-



ten zenbait txori ta sierpe. Erromatar munduaren zati andiak beretu zituztenak jende oartuak eta beste gauzak ongi zekiztenak ziran; baña egiptarrak bezainitsu arkitzen ziran Jangoikoaren gauzak ezagutzeko, ta egiptarren eran jainkotzat artuak zeduzkaten ezin konta-al-diña gizon ta andre ill gaizto ta etzuten Jangoikoaren berri zuzenik. Oriena baño agitz andiagoa zen beste bazterretakoen itsumen galdua; bada zenbaitetan jainkotzat zeduzkaten baratzeak tipulak eta baratzuriak, besteetan beiak eta beste ganaduak eta besteetan era bereko beste gauzak.

Beren jainkotzat zeduzkaten gauz orien itxur txarrei egiten ziezten mundutar itsuak beren sakrifizi moduak eta eramaten ziezten ofrend andiak eta noizbait beren hume berak, orien oñetan ill ta aldarean present egiteko; ta era orretan eramane ziozkaten irureun gizon, ta egin batez bat ere utzi bage ill zituen Aristomenes Misenio zeritzan idoloen apaizak; lan oriek eta gis bereko beste anitz eragiten zituen deabru gaiztoaren apaiz txar batek eta orren gisakoak ziran beste egun batez berreun zaldunen seme gaisoak gis berean beren eskuz ill zituztenak: *ducentos nobilium filios mactarunt ad aras*.

Beste bazterretan ere bai, baña geienik orain mairuak dituen Africako errietan denbor luzean iraundu zuen zaldunen ta geiena zezakeen gizonen hume gaisoak ill ta jangoiko-itxur oriei edo sulezeko deabruari present egiteko legea do usanza: *fuitque apud Phenices, et Carthagnenses nimis diu servatum, ut infantes principali honore insignes Saturno libarent* (Alex. ab Alex.).

Denbor orietan baziran munduan gauz gogor itsusi hau ez ezik, jentilak idoloekin edo beren ametsezko jainko txar zikinekin egiten zutena erakeritzat eta gauz gaiztotzat ezagutzen zuten gizonak; baña oriek egia esanagatik, ez-aditu egiten zien beste itsuak eta aitzin-aurrera zeramaten beren usanz galgarria, zeren idolo txar oriek edo orietan sarzen ziran deabru gaiztoak uzten zien egiten edozein gaiztaginz eta zikinkeria, ta ori zen oriek nai zutena ta orregatik bizi ziran jentilak itsu-itsuan; bizi ziran Jangoikoaren berri onik bage ta bizi ziran animako zikinkeriz beteak eta bekatuz illak, Espiritu Santua etorri, Apostol onak orietara igorri-bidaltu ta bere argiz oriei gauzak agertu ta graziz biztu arte guzian, len profet baten hitzaz ill anitzen ezurak Jangoikoak biztu zituen gisan; bada bekatari guziak, Ait Alapidek dionaz, ezur igartu illak dautzan gisan, graziaren bizirik bage illak dautza, zeren grazia den animaren bizi, anima gorpuzaren bizi den bezala, ta Espiritu Santua da ill oriek biz ditzakena; ta hau adirazten digu, dio, Ezekielek ekusi zituen ezur illen bizteak (in cap.

37 Ezech). Ekus dezagun, bada, Ezekielek ekusi zituen ezurren biztea ta Apostol jaunak illak arkitu zituzten munduko bekatariena.

§ II.

Jangoiko bera bein edo beraren aingeru bat agertu ta eramane zuen profet Ezekiel toki zabal ezurrez bete batera. «Erabili ninduen», dio profetak, «ezur guzian inguruan ta ekusi nuen agitz anitz zirala ta guztiz igarturik arkitzen zirala guziak, eta nola zeuden erakutsi ta galdetu zidan: Zer uste dezu, gizona? Biztu ditezke ill-igarturik ekusten dituzun ezur oriek?». «Jauna, ori zuk dakizu», eranzun zion profetak. «Hitz egizu, bada», esan zion Jangoikoak aingeruaren ezpañez Ezekieli, «ta esaiezu: Ezur igartuak, adi zazue Jangoikoak diona, ta Jangoikoak diona da: Nik zeren barrenean sartuko dizuet anima ta biztuko zarazte ill ez'en gisan. Orretako (ta biztuen lanak gero zuek egiteko) utziko zaituet zañ-sustraez, aragiz, larruz ta prinzez estali beteak; itzuliko dizuet zeren anima ta biztu ta ezagutuko dezue nor nazan ni ta norgandik dezuten artu dezuten ondasuna».

«Egin nuen nik», dio profetak, «Jangoikoaren esana ta ezurrei nik hau esan bezain laster asi ziran bilzen, elkar golpatzen ta soñu andi bat egiten lagunen billan zebilzen ezurak. Denbora laburrean elkargana ziran guziak, jarri zen bakoitza bere toki-junturan, ta elkargana ziraneko, asi ziran gañetik agerzen zañak, bete ziran bear zen eran aragiz eta estali ziran larruz ta prinzez ta gelditu ziran bizirik bageko gorputz egiñak».

«Hordu artan esan zidan Jangoikoak», dio profetak: «Ots egiozu, gizona, aizeari edo aizearen itzalpe ta izenean dabillen espirituari, ta esaiozu: Atoz munduko lau bazterretatik, Espiritua, Jangoikoak aginzen ta manatzen dizu, ta aiz-egiezu ill oriei biz ditezten. Egin nuen nik», dio profetak, «Jangoikoaren esana, sartu zen Espiritu-anima gorputz ill bakoitzean, biztu zen bereala, txutitu ziran guziak eta gelditu ziran ejerzitu guztiz andi bat zirudiela»: *vixerunt, steteruntque super pedes suos exercitus grandis nimis valde?* (Ezech. 37, v. 1).

«Orra», dio Ait Alapidek, «aldi onetan Jangoikoak gorputz illak bizteko Ezekiel profetaz egiña, ta orra lenbizian Apostoluz ta gero orien ondorengoz anima bekatuz illak bizteko egiten duena, orien hitzez ta bere graziz biztuak eta zutik uztea»: *per afflatum spiritus et gratiae*



Apostol jaunak, bada, egungo egunez Espiritu Santua artu ta asi ziran munduan predikatzen Espiritu Santu berak adirazi ziena ta S. Pedrok itxetik atera ta hitz egin aldi lenbizikoan ta sermoi bat egin hor-duko, Espiritu Santuak utzi zituen graziz biztuak an arkitzen ziran iru mill gizon ta andre bezala: *appositae sunt in die illa animae circiter tria millia* (Actor. 2,41).

Jerusalenen izandu zen aldi artako S. Pedroren hitz egite ta sermoi hau. Denbor berean egin zuten lan bera beste Apostol guziak ere. Ez du Eskritura Santak esaten zenbat ziran egun artan ta urrengo egun guzie-tan oriek prestatu zituztenak Espiritu Santuaren graziz biztuak uzteko. Esaten duena da egun oro zirala geiago Jesusen legeratzen ziranak eta badakigu banatu zirala laster Apostol berak Erromatarren bazter zabale-tan ta probinzi andietan ta luzatu zirala Africako ta Asiko erreinuetaraño, bai ta urrutiko Indietaraño ere. Indietaraño luzatu zena S. Thomas zen, Jesus ill ondoan, biztu zela bere begiz ekusi ta baizik, sinistu nai etzuen.

Amabi ziran Jesusen eskolan ibilli ziran Apostolu guziak eta oriek berak eta S. Pablo mundu guzian banatu ta aski izandu ziran mundutar gaisoei beren itsunza ta idolo txarren deus-eza ta erakeria siñisterazteko, bai ta Jesus mill neke ta tormenturekin gurutze baten illaren Jainkonga siñisterazteko ere.

Orretako etzuten Apostol onak gerrako jend-ejerziturik, etzuten armarik, ez eta Jesusen erakustea ta Espiritu Santuaren argia baizik ere, ta erakuste ta argi guti hau aski izandu zuten munduko jakinsu andienak mututurik uzteko, orietatik anitzi ta besteetatik agitz geiagori jentil kontu zikiñak utz-erazi ta gure legeko garbiak arrerazteko jentil kontuak bazi-ran ere gorputzak agitz nai dituen gauzak eta Jesusen legekoak gorputz bera askotan naigabetzen dutenak.

Jesus beraren erakuste ta Espiritu Santuaren grazi ta lagunz hau aski izandu ziran jentil bataitu berri berei Apostol onak beren idoloen elizak lurrerazi ta ango idol len jangoikotzat zeduz(ka)ten guziak ostikoka era-billi ta sutan erre-erazteko; aski izandu ziran bataiatzen ziran jentilei utz-erazteko lengo ebasket, aserkunz eta beren eskuzko eriotzak, bai ta ara-giaren zikinkerio loiak ere, ta orien orde zorie berei eragiteko fededun onak egin bear dituzten otoi, konfesi, komunio, barkatze ta zeru anitz irabazten duten beste era bereko gauz garbi ederrak; eta len gauz orieta-rako Ezekielek ekusi zituen ezurrak bezain illak arkitzen ziran jentilak Apostol jaunen aizearekin edo erakuste zuzen garibiarekin ta Espiritu Santuaren zeruko graziarekin gelditu ziran Ezekielek ekusi zituen ezur biztu berak bezain biziak, eta asi ziran animako beren etsaiak garaitzen

ta gauz ta irabanz andiak egiten, ta hau egin zutenetik anitz izandu ziran gero gure legeko apaiz, obispo, martir ta santu andi.

Apostol berak ere azkenenan galdu zuten bizia, ondu ta grazira biztu ez ziran jentil zenbaiten eskuz ta gelditu ziran Kristo Jaunaren mar-tir egiñak; baña etzen orregatik ill mundura ekarri zuten bizia ta Espiritu Sanruaren grazia; ereñi zuten hau oriek, eta oriek ereñiak ekarri du nork daki zenbat on ta ondasun; bada Santiagok ereñi zituen Españian sei edo zorzi ale, edo Jesusen legea arrerazi zien beste anbat gizoni ta gizon bataitu bakan grazidun orietatik etorri da espaindar guziak fededun egi-tea ta oriek berak gero Indietara ta munduko beste bazterretara fede-santa ta Jesusen legea eramatea.

Orra, bada, zer bizia ta zer indarra Espiritu Santuak Apostoluei ta Apostoluen ondorengo gizona ta fededun guziei ematen diena. Baldin ezpadezu, billa zazu bekatu zereen damuz ta konfesion ta bizi zaitez Espiritu Santu beraren graziz, ta bizi zaitez berriz ez uzteko. Bai arren, bai.



XXXVII

Espiritu Santuaren

Bazko bigarren eguneko irakurraldia

Sic Deus dilexit mundum, ut Filium suum unigenitum daret. Joan. 3

Gaia: Espiritu Santuaren etorbide
ta indar andia ta eskatzen duten prestanza

Atzokoaren gisan egungoa ere Espiritu Santuaren festa da ta al-ere ez da ageri gaurko Ebanjelio santuan Espiritu Santua, Espiritu Santuaren etor-er berera zuzenzen dena bad-ere Ebanjeli guzia; baña egun bertako Epistolaren agerzen zaiku siñisle on zenbaitetara etorria. Espiritu Santua artu ta zenbait denboren buruan predikatzen hari zen bein Jerusalemdik urruti S. Pedro. S. Pedoren sermoi ta prediku onetan arkitzen ziran judatar zenbait Jesusen lege berrian sartuak eta beste guziak jentillak ziran. Aldi artako bere enzule guziei esaten zien S. Pedrok: «Guri bere Apostol eskolarrei agindu ta manatu zigun Jesusek mundu guzian ager genezala gerok dakiguna ta hura bera dela Jangoikoak illen ta bizien juez egiña. Hau bera da lege zarreko profetak agertu ta klaratu zutena ta ez da orien artean bat (bide batez edo beste) hau egin etzutenik. Profetak adirazi zutena, bada, ta guk gerok dakigun ta adirazten duguna da dena den gisan ta Jangoiko-gizona dela Jesus siñisten dutenei ta siñistantz onek eskatzen duena egiten dutenei beraren betiko Aitak barkatuko diela egin duten bekatu ta gaiztaginz guzia».

S. Pedrok hau adirazi zuen aldian aren predikuan arkitzen ziran guzietara jaitsi zen Espiritu Santua, ta horduraño jentil ta idolotar mutuen eran izandu ziranak, asi ziran hitz egiten Espiritu Santuz bete ziranen gisan ta len etzekizten zeruko hitzkunzan gauzak esaten ta len Jangoikoaren berria ta siñistanta zuten berak bezain zuzen-ederki Jangoikoa beren laudanz-bedeinkanbez betetzen. Hau ekusi ta arritu ziran S. Pedro berarekin ara ziranak eta an arkitzen ziran judatar fededunak, eta aldi artan Kristo Jauna beren Jangoikotzat artu zuten jentil guziak batai-erazi zituen Apostol berak.

Eta orra, siñistantz ona ta gure legeko fedea da animak Espiritu Santua arzeko prestatzen dituen gauza; ta gauz, siñistantz hau Nicodemusi arrerazteko egungo Ebanjelio santuan Jesusek agertua. Jerusalemgo gizon andien konzilio ta bilkuntz batek illerazi zuen Jesus maitagarria. Gizon orietatik bat zen Nicodemus, baña konzilio artan oriekin sartu bazen ere, etzuen onzat eman Jesusen eriotza, zeren lenagotik Jangoiko-gizonzat artua zedukan Jesus maitagarria, ta artua zedukan Jesus berarekin egondu zen aldi bat ezkerro. Aldi ori da egungo Ebanjelioan arkitzen dugun egonaldia.

Aldi onetan, bada, beste gauzak ere bai, ta esan zion Jesusek Nicodemusi: «Orra zein maite duen Jangoikoak mundua; gal ez dedin igorri ta bidaldu dio gizon egiñik bere Semea, ta munduak ez galzeko ez du onek esaten diona siñistu ta aditzen diona egitea bai ta besterik bear. Hau egiten duena ongi aterako da beste munduko tribunalean; ez du alabaña ara eramanen beldurrik bage ager ez diteken gauzarik. An ezin ager ditezken gauzak gaiztoen gauzak dira, isilka ta gordeka egiten diran gauzak eta Jangoikoaren legeak debekatzen dituenak eta mundu itsuari argi egitera datorren Jangoiko berearen Seme Jangoiko Jesusek ere debekatzen dituenak». Orra gaurko Ebanjelio guziak Jesusek Nicodemusi esaten diona.

Jesusek Nicodemusi esatea Jangoikoaren tribunalean ez dela ongi aterako Espiritu Santua ta onen grazia artu ez duena, esatea diña da an ongi aterako dela siñistantz ona ta fedea duena. Espiritu Santua artu ta an ongi aterako denak, bada, prestatu bear du bere anima siñistantz orrekin ta beste gauz batekin. Zer gauz den beste gauz hau ekusiko dugu, ekusi ta zenbat bidez datorren animara Espiritu Santua.

§ I.

«Espiritu Santua ez da beti gisa batean etorzen anim guzietara», dio S. Thomasek (I. p. q. 43); «etorzen da», dio, «zenbait aldiz agerian bezala ta besteetan gorde-estalia». Hau bera da lurreko edozein erregek ere egin oi duena; bada eizira edo isilkako debozioren batera ateratzen den aldian lagun gutirekin ta gordearen gisan dabil; baña lenbiziko aldian bere kortean sarzen edo egun andiren batez karriz-karrika dabilzen guzieren erdian agerzen da karroz ederrenean, zaldizko soldaduz ta soldadu armatuz ingurutua, bere jauregiko zaldunak beren kotxe-karrozetan



dakarziela, ta erriko ta beste an arkitzen diran guziak leiotik, balkoitik eta toki ageri guzitik biba-ka, mokader zurizka ta beso-ka dagozkala.

Espiritu Santuaren lau etor-modu agerzen ditu S. Thomasek. Lenbizikoa da, dio, Jordan deritzan ibaian egin zuena. Sartu zen bein Jesus ibai andi onen urean S. Joan Baptistak ematen zuen bataioa arzera ta beraren betiko Aitak munduari adirazi naizik etzela Jesus an bataitzen ziran besteak bezala bekataria, idiki zuen zerua ta igorri usoa zirudiela Espiritu Santua, ta bi edo iru jira Jesusen inguruan eman ta jarri zen poli-ki beraren buru gañean ta denbor berean aditu zen Aitaren hitza: «Hau da atseginez andi bat egiten didan nere Seme maitea» (Luc. 3,22). Espiritu Santuaren aldi onetako agerkunz onek eta ur gañeko agerzak adirazten dute andia dela bataitzen denaren animan Espiritu Santuak egiten duen zori oneko grazi-isurza.

S. Thomasek dakarren Espiritu Santuaren bigarren agerza da Jesus beragana Taborko mendian egin zuena. Igan zen bein ara Jesus bere irur Apostol artu ta, eta bat-batean ingurutu zuen an argizko odei batek eta gelditu zen Jesus aurpegian eguzki ederra zirudiela ta argi guztiz txarmagarriz betea; bada elurra bezain zuriak gelditu ziran Jesusen soñeko guziak eta arkitu zen beraren gorputza zuen Jainkondari zegokan edertasunez jaunzia. Arritu zen anbat edertasun ekusi ta S. Pedro, ta an zuela uste zuen zeru guzia ta agertu zion Jesusi betiko an gelditu nai andia. Nondik zela uste dezu Jesusen aldi artako edertasun hau? «Ingurutu zuen odei artan zetorren Espiritu Santutik», dio S. Thomasek; ta hau bera da Eliz Ama santak transfigurazioko festan adirazten diguna; bada fest onetan dio Elizak, «argizko odeian ta odei agitz edertuan agertu zela Espiritu Santua»: *in splendenti nube Spiritus Sanctus visus est*.

Espiritu Santuaren irugarren ager edo etor-modua Doktore santu berak dionaz da Kristo Jaunak biztu ta zerura baño len bere Apostoluei aiz-egin ta egin zuenaren gisakoa. Aldi onetan eman zien Jesusek Apostol bereei mundutar gaiztoak beraren legera ekartzeko ta Jangoikoarekin bat egiñak uzteko bear zuten esku guzia; bada eman zien gaizto beren bekatu itsusi andienak ere barkatzeko bear zutena, ta eman zien esku andi hau bere ezpañez aize egin ta esaten zuela: «Ar orretako Espiritu Santua»: *insufflavit in eis, et dixit: accipite Spiritum Sanctum: quorum remisistis peccata, remittuntur eis* (Ioan. 20,22). Aldi onetako Espiritu Santuaren etorrerak adirazten du apaiz egiten diranak egite berean Obispo jaunaren hitzez arzen dutela Apostol Jaunak izandu zuten egitekoa ta eskua, ta bidenabar arzen dutela Espiritu Santuaren indar ta grazi beren egiteko hau ongi egiteko bearko dutena.

Espiritu Santuaren laugarren ager-modua da guzien artean otsik andienekoa ta geiena munduan banatu zena, ta hau da atzo ekusi genuena ta Jesusen Ama, Apostol guziak eta orien lagunak Jesusen afaltegian graziz ta doaez bete zituena. Mihi-mingañen itxura zuten gar zatietan ta gar zati an arkitzen ziran guzien buru gañean gelditu ziranetan agertu zen aldi onetan Espiritu Santua, ta agertu zen soñu ta eskanbil andiarekin; bada Espiritu Santua artu zutenak eta orien itxe-aldeetakoak beinzat aditu zuten buru gañean trumoez urratzen den odei baten soñuaren erako soñu edo aize andi bizi bat; eta soñu ta aize, Espiritu Santua artu zutenak beldurtu ta oarrerazi zituena; beldurrera ta ikarkunz andi onen ondoan jabetu zen Espiritu Santua an arkitzen ziran guziez, dio Eskritura Santak: *sedique supra singulos eorum* (Act. 2,3).

Laur oriek dira Espiritu Santuak agerian egin dituen ta Doktore santuak dakarren etor-modu-erak; baña ezin konta-al-diña ezkutuan ta isilka egiten dituenak, ta egiten du orretan Espiritu Santuak emengo errege jaunak egin oi dutena: bein edo berriz agerian ta soñu ta eskanbil andian ibilzea ta egun oro isilka ta ezkutuan bezala.

Isilkako Espiritu Santuaren etorrera izandu zen S. Pedoren egungo Epistolako predikaldian egin zuena; baña aren etor-modu hau laster ezagutu zuten S. Pedrok eta S. Pedorekin an arkitzen ziran judatarrak, zeren artu ta bereala asi ziran hitz egiten Espiritu Santua artu zutenak baizik hitz egiten etzuten eran. Milagrozk hitzket oriek bear ziran Jesusen lege berria ager berrian. Geroz ere izandu dira zenbait santu Espiritu Santua artu ta era bereko hitzketa egin dutenak; baña egin dute Jesusen lege bera berriro eraman duten bazterretan ta orietatik dira S. Francisko Xavier ta S. Luis Beltran.

Orrelako milagroen bearrik ez den gure baztarretan ere askotan ezagun da norgana etorri den Espiritu Santua ta hau ezagutu nai duenak egin bear duena da nola bizi den bakoitza ekustea; bada Espiritu Santua arzen duena gaiztoa bazen, onzen da ta ona bazen, obetzen: *praecipue missio invisibilis attenditur, quando aliquis proficit in aliquem novum statum gratiae* (ubi sup. ar. 6 ad 2.). Hau da Samuelek Sauli bein esan ziona: «Zuganako da, esan zion ark oni, onelako aldi Espiritu Santua ta egiñen dezu len ezin egin zenuena»: *Insiliet in te Spiritus Domini... et mutaberis in virum alterum* (I. Reg. 10,6).



§ II.

Espiritu Santuak isilka egiten dituen etorrerak dira geretzat guk eskatu bear ditugunak, eta eskatu bear ditugu lendanik arzeko prestatu ta. Hau da edozein gizonek errege andi bat bere itxean arzeko egiten duena, bere itxe guzia ongi garbitu, txuritu ta apainzea; ta deus-ez bat da munduko andi ta errege guziei dagoten prestanza Espiritu Santuari dagokanaren aldean, bai ta errege aberats-emalle andienak bere etorraldian utz dezakena ere Espiritu Santu berak berean uzten duenaren ta utziarekin eragiten duenaren aldean ere, bein Elias profetari ta beste batez Judith alargunari eragin zionak adirazten duenaz. Bata ta bestea arkitzen ziran beren aldian era ta gis agitz ertsi-estuan ta Espiritu Santuaren bear andian; israeldarren artean bata, ta bestea eun ta berrogei mill soldaduk ingurutu zuten erri txikian. Hau zen Judith, Elias bestea.

Eliasek neke andi estu hau izandu zen israeldarren errege gaizto Acaben ta onen emazte Jezabel ez oboaren denboran. Acab zen, Eskritura santak dionaz, israeldarrak izandu zuten erregerik gaiztoena: *fecit malum in conspectu Domini super omnes, qui fuerunt ante eum* (3 Reg. 16,30). Onez etzuen ondu nai Acab erregek eta zeatuz bazen ere zentzarazi naiez, igorri zuen Jangoikoak Espiritu Santuak emanikako grazi ta esku andiarekin Elias profeta ari esatera: «Jangoikoari nik eskatu arte guzian agortuko dira zeruko odeiak eta ez dute ur tanta bat ere botako»; ta urte zenbaitez ark ez eskatu ta etzuten bota, ta gero, bota zuten aldian, bota zuten Elias berak Jangoikoari eskatzen ziola; bitarte guzian Jangoiko berak daki zenbat neke ta egarri ekusi zuten israeldar ta orien ganadu guziak. Egun batez kendu ziozkan Jezabeli bere profeta txar gezurti guziak eta Jezabel (zen guzia) su ta gar egiña ibilli zen, nondik hura arrapatuko zuen zazpi mil zati egiñik uzteko; ta aren igesi, zearka ta bide eza-guntara bage, joan zen berrogei egunez Elias Oreb zeritzan urrutiko mendi batera ta Jezabel sutuaren beldurrez sartu zen ango zulo batean.

Agerzen zaio an aingeru bat eta esaten dio: «Or zertan zaude, Elias?». «Nere burua zaitzen», eranzuten dio Eliasek; «bada profet guzietatik ni gelditu naz bizirik eta ill nai naute ni ere; ta beste guziak baño amurrantz andiagoarekin ni, zeren Jangoikoaren izenean beste profetak baño geiago zeatu ditudan nere Jangoikoaren etsaiak». «Ez dezu perillik», esaten dio aingeruak, «Jangoikoak gordeko zaitu edozein tokitan. Zoaz mendi gañera, etorriko zaitzun Espiritu Santuaren lagunza ta indarrak

arzera ta presta zaitze arzeko otoitzez ta Jangoikoari eskatuz»: *sta in monte coram Domino: ecce Dominus transit* (ibid. v. 11).

Egiten du Eliasek aingeruaren esana ta aditzen du mendiko arbol ta arri guziak ondotik ateratzen dituen aize bat eta uste zuen an zetorkiola Jangoikoa. Baña «Ez», esaten diote, «ez dator zuretzat or Jangoikoa». Badator bereala lurraren ikarantz eta asaldazio andi bat eta bereala zeruko otsa: «Ez eta emen ere»: *non in commtione Dominus*. Badator gero su andi bat ta onekin batean zeruko hitza: «Ez eta suan ere». Badator azkenean aize mee leun bat eta artan zetorrela Espiritu Santua ezagaturik, estali zuen aurpegia ta atera zen aren bidera ta artu zuen bere egitekorako bear bezala; bada aren aldi artako egitekoa etzen lengo gisan gizonak zeruko suz erreke uztea, profeta gezurti anitz ill-eraztea, errege ta erreinu guzia aize idorrez ta zeruko agorrez zeatzea, baizik Hazael Siriko errege ta Jehu Israelko egitea ta Eliseo bere ordezeko profetatzat arzea; ta egiteko onek eskatzen zuen suz ta garrez beterik arkitzen zen profet bat ez, baizik profet leun eztiduna ta era onetakoa egin zuen aldi artako etorraldian Espiritu Santuak Elias profeta.

Beste egiteko zen Espiritu Santuak Bethuliko alargun Judithi bere aldian emana; bada eman zion munduko soldadu nagusi arroenari bere eskuz burua ta bizia kenzea ta bidenabar eman ziozkan artako bear zen biotza ta indarra. Asiriko erregeren soldadua zen soldadu arro hau. Holofernes zen soldadu onen izena. Holofernes onek eun ta berrogei mil soldadu oñezkorekin, ogei ta bi mill zaldizkorekin ta nork daki beste zenbat mil jenderekin ingurutu zuen Bethuliko erri txikia, gosez ta egarritz edo beste bideren batez laster arzeko. Beste aldeetara bota zuen ara zijoan ur guzia ta egarritz ta gosez agitz estutu zituen erritar gaisoak eta bost egunen buruan beren buruak eta erria Holofernesi emateko asmoan zeuden erriko berak ere, bitarte artan andik edo emendik arzen ezpatzen zerbait lagunz eta arinz.

Hau aditu ta aserretu zen Judith, eta deitu ta esan zien errian esku geiena zutenei, nola artu zioten Jangoikoari berea ta eman ziozkatzen bost egun, oriek joan ezkerro Holofernesen eskuetatik ezin atera zitzakena baliz bezala. Adirazi zien oriek berak eta beste erritar guziak egin bear zutena; sartu zen bera bere otoitztegi zilizioz ta autsez betea, ta auspez jarririk eskatu zion Jangoikoari humiltantz eta uste andian, ziola bere egitekorako biotz eta indar andia: *da mihi in animo constantiam*. Jaiki zen andik biotz osoarekin ta Espiritu Santua arturik, eta artu zuen adirazi ziona osoki egiteko asmo ta gogoa, ta bere neskame bat artu ta atera zen erri-tik; sartu zen soldadu guzien erdian; billatu zuen orien nagusi Holofernes



ta, orditu zen arrats batez, bere ezpatarekin kendu zion burua ta, hura gorderik zeramala, itzuli zen soldadu beren erditik errira ta, illik hura ekusi ta, beraren soldadu guziak eskuko armak aurtiki-bota ta zutena utzi, ta joan ziran igeska bizirik gelditu ziranak beren erregegana. Orra non Espiritu Santuak ematen duen aldian aldiak eskatzen duen indar ta lagunz guzia.

Eta orra bidenabar nola erdisten den Espiritu Santua, otoitzez ta eskatuz. Ala erdits zuten Eliasek eta Judithek, ekusi dugun bezala; bai ta Apostol jaunak eta orien lagunak ere; bada Espiritu Santuaren begira egondu ziran anitz egunez ta egun orietan egondu ziran otoitz ta otoiz ta eske ta eske. Nai badezu, bada, etor dakizun Espiritu Santua, damuz ta konfesioz garbitu biotza ta egin aren eske ta eske, bere etorraldian ematen dizun grazi ta indar andiarekin bizitz berri on bat egiteko ta artuko dezu, bai. Jangoikoak dizula, bada; bai ta hau bein ta berriz ta askotan ta beti ongi eskatzeko grazia ere. Bai arren, bai.

XXXVIII

Espiritu Santuaren Bazko irugarren eguneko irakurraldia

*Ego veni, ut vitam habeant, et abundantius
habeant.* Joan. 10

Gaia: Zein den Espiritu Santua ez galzeko bidea

Egungo Ebanjelioan ere agitzen zaiku atzokoan agi-gertatua: Espiritu Santuaren aldi onetako etorzik ez arkitzea ta denbora berean arkitzea, hura erdisteko ta erditsi ezkeru ez galzeko bidea. Egungo Epistolari ere arkitzen dugu Espiritu Santu beraren atzokoaren gisako etorraldi isilkako bat. Ara zer bidezkoa aldi onetakoa.

Beren egiteko Jerusalemen gelditu ziran zenbait Apostol; aditu zuten an artu zutela Samaritarrek ere Jesusen lege berria ta igorri ta bidaldu zituzten S. Pedro ta S. Joan, bestek an asi zuen lana bukatzera. Ara joan ta ekusi zuten egia zela aditu zutena ta samaritarrek Espiritu Santua artu ezpazuten ere, bataiturik arkitzen zirala. Oriei hau emateko prestatu zituzten otoitzez. Berak ere otoitz egin ta ezarri ziezten eskuak buruan ta Apostol onak hau egin horduko, batait berriekin zen Espiritu Santua.

Orra Espiritu Santuaren etor-modu gaurko Epistolari Elizak agerzen diguna. Ebanjeli guzian arkitzen duguna da Espiritu Santu beraren ar-bide, Jesusek parabolaz ta itzalez agerzen digun bat. «Ez da arzaia», dio Jesusek gaurko Ebanjelio santuan; «lapurra da, ardi okullura ataritik ez, baizik bestetatik sarzen den gizona; bada arzaia ez dabil isilka, ingurka ta gordeka; zuzen-zuzen dijoa bere ardietara; kroskatzen du arditegi-ko atea edo ots egiten dio ardiak barrendik zaitzen dituenari, idiki dezon orietarako sarbidea. Ardietara sartu ta hitz egiten asi horduko, ezagutzen dute hau beren arzaitzat ango ardiak. Deitzen dio ardi bakoitzari bere izenez ta ateratzen ditu beren belarrera edo jantegira. Ara daramatzi bera beren aitzinetik dutela, ta guziak dijoaz, bat ere gelditu bage, aren ondo-oren; baña beren arzaiaren ordeztu jarzen bada arzai arrotz bat, ez-ekusi egin ta itzurka bezala doaz beste aldera».



Farisetzarrak egondu ziran Jesusi begira arzai onaren ta gaiztoaren ta ardien parabol berri asmatu hau aditzen; baña etzuten adi-endeigatu bere parabolez Jesusek esan nai ziena; ezagutu zuen hau Jesusek eta agertu ziena klaratzeko, esan zien berriz: «Siñis nazazue; ni naz ardien sartegia ta atea. Oraindañoko guzian (Mesiasen izena artu) ta agertu diranak lapur gezurti gaiztoak ziran eta etzegoten honraren billan zebilzan gizonak; eta ez ditu batek ere bere artzaitzat artu ta berea zelakoan orietatik baten edo bestearen ondolik asiagatik, laster aski ezagutu ta kendu ziran aren bide ta alde galgarritik. Ni, ni naz bide zuzen edo belartegi onerako sar-bidea. Nere ondolik dabillena ibilliko da gal-bideetatik urrun ta sartuko da belardi onak diran tokian (edo sartuko da sakramentuetako graziaren jan-edana ta erakusle onak dituen Elizan; ikasiko du jakin bear duen ibillera ta bidea ta azkenean salbatuko da ta iganen nere ondoren zerura)».

«Lapurrak ez dute ardien ona billatzen (edo sulezeko gaiztoak eta orien eskolako erakusle galgarriak animak galerazi naiez dabilz, al dituzten guziak sulezean ondarazi naiez). Ni naz etorri nazana ardi edo anima berei emen ongi bizitzen erakustera, egun oro bizitz ohea eragitera, beren aldian zori oneko bizi on bana zeru berean berei emateko». Orra Jesusek gaur Ebanjelioz esaten ta adirazten diguna.

Eta orra, orretan berean ageri da etorri zela Jesus guri erakustera Espiritu Santua erdisteko bidea, bai ta bein arzen den Espiritu Santua sekulan ez galzeko bidea ere. Atzo ekusi genuen zer bide den lenbiziko bide hau; gaur ekusi bear duguna bigarrena da edo zein den Espiritu Santua ez galzeko bidea.

§ I.

Espiritu Santua konfesioz, komunioz edo beste bideren batez arzetik ez genuke on andirik aterako, geren obenez gero bearren dugun aldian galzen bagenu, Inditar batek Indian bildu dituen ondasunetatik aterako ez lukeen bezala, bere itx-alderatze berean edo lenago guziak itsas-putzu izugarrian ondatzen balitu. Ongi gelditzen den inditar ondasunduna da bere ondasun guziekin itxean sartu, itxeko zorrak atera, itxearen alde tributu-zensoak ezarri, eroste onak egin ta ongi bizi dena; eta zori oneko Espiritu Santuduna da Espiritu Santua bein ere ez galzeko arzen duena.

«Espiritu Santua animen argia da», dio Eliz santak: *lumen cordium*, edo argi, animei beren gal-bideak uzteko ta zeruko bide ona arzeko agerzen diona; ta zori oneko argi-kumeen ta Jangoikoaren humeen izena ematen die S. Pablok Espiritu Santua berekin duten animeei: *omnes vos filii lucis estis, et filii Dei* (1 Thesal. 5,5.); «ta begira», esaten die, «ez itzali zori oneko zeren argi hau» (edo mundu guziagatik ere ez galdu, artu dezuten Espiritu Santua): *Spiritum nolite extinguere* (v. 5); bada Espiritu Santua ta zeruko argi hau galdu ezkeru, galduak zarazte ta munduko amiltegi ta malkor illunetan sartuak.

Adanen bekatuz ta geroztik guk egin ditugunekin agitz galdua arkitzen da munduko bide illuna, ta bekatu berrien lokatz edo amiltegi malkor gaiztoan galdu nai ez duenak kontuz eraman bear du Espiritu Santuaren argia ta Jangoikoaren grazia; bada argi grazidun hau itzali ezkeru, laster arkituko du bere burua bekatoren baten lezean ondatur edo bekaturoko amiltegi gaiztoan agitz sartua.

Nola galzen dela uste dezu artu den Espiritu Santua? «Argiaren gisan», dio S. Joan Krisostomok. «Oliorik (edo beste gairik bagez) aitzen da argia, bai ta aizez ere; ta bide beraz galzen da», dio, «Espiritu Santua»: *Spiritus aequae ac lucerna extinguitur, si aut olei parum habieris, aut ostium non ocluresis* (apud Alap. hic in cap. 5).

Emendik ara argia eramateko badira krisellu-lanpar txiki ta kandiletak. Gau illunaz orietatik bat bear duen diña olio bage artu ta itxetik ateratzen bazara, bidean arkituko zara argirik bage, ta argirik itxetik atera ezpazenu baño agitz gaizkiago, zeren horduan argirik izan ezpazenuen baño gutiago ekusten dezun; ta Jangoikoak daki arkituko dezun billatzen dezun tokia ta galdua geldituko ote zaran, zentzu gutiko bost Birjiñak gelditu ziran eran.

Bost oriek eta buru onezko beste bostek argi egin bear zioten ezkondu zen arratsean itxeko ataritik eztei-mairaino nagusi ezkondu berri ta onen emazteari. Bazituzten guziak beren lanparillak edo kandiletak eta bost birjin burudun oartuak metxaz ta olioaz ongi prestatuak; baña beste bostak ez. Nagusia zetorrela aditu zutenean, artu zuen bakoitzak bere kandileta; baña buru txarrezko bostenak artu, irazaki ta oliorik bagez bertan asi ziran itzalzen ta emendatzen. Hau ekusi ta buru onezkoei eskatu zien zerbait olio. Berak bage gelditzeko beldurrez etzien eman tantarik ere; joan ziran lasterka olitegira ta olioan artu ta pris andian itzuli bazi-eran ere, arkitu zuten itsia eztei-etxea ta etzuten sar-biderik izandu.

Espiritu Santuaren argia ere zure animan itzal diteke oliorik bagez, edo zere obenez gal dezakezu Espiritu Santuak eman dizun grazi olio ta



zeruko bidea. Erdisten den bidez gordetzen da grazi-olio hau, ta erdisten da, atzo ekusi genuen gisan, bizitz garbiz, humilki eskatuz ta otoitzez; ta gis berean gordetzen da erditsi duen animan: bizitz onez ta otoitz ta otoitz humillez. Olio eder hau animan den arte guzian ez da itzaliko olio ta grazi bagez Espiritu Santuaren argia ta ez du galduko animak Espiritu Santua.

Otoitz on humillez erditsi zuen Judithek atzo ekusi genuen grazizko indarz andia ta egin zuen agitz ongi bere egiteko guzia; baña etzuen egin indar hau artu ta bertan bere egiteko andi hau. Egin aldiaren begira egondu zen irur egunez ta egondu zen asirikotar soldadu guzien erdian; baña etzen geldirik egondu arteko egun orietan; goiz-goizik jaiki ta asten zen bere otoitz humillak egiten, ta etzituen bukatzen arratseko atsedean aldia etorri arte guzian; ta nioz ere baño obeki ta indar andiagorekin egin zituen Holofernesen ezpata eskuan artu ta berari burua kenzerakotan; ta bere otoitz on humillen alde utzi zion Espiritu Santuak bein eman zion indarza, ta bidenabar eman zion aingeru bat, anbat gizatzarren arte-rik garbiro atera zuena, bera bazen ere aldi artan lur gañean arkitzen zen andrerik ederrena ta alargun gaztea.

Diocle zeritzan abade batek esaten zien beti bere relijiotar monjeei: «Nere seme onak, otoitz eta otoitz Jangoikoari; eskatu beti Jangoikoari bere eskua ta lagunza. Asperturik zeuden aren seme relijiotarrak anbat aldiz hura beren abadeari aditu ta; ta galdetu zioten bein zergatik zen anbat aldiz hura ark oriei esatea. «Zeren otoitza uzten duen anima deabru egiten den edo animal», eranzun zien abade santuak: *mens, quae recessit a Dei contemplatione, fit vel daemon, vel bestia* (Pallad, in hist. Lausiaca cap. 98).

Hau bera da guk gerok ere ekusten duguna; bada ekusten dugu otoitzak eta debozi onak uzten dituen merkataria edo fundamentu gutirekin oriek egiten dituen lurreko irabanz eta irabanz dela, ta irabanz berriak eta berriak egiteko bideen billan dabillen gizona. Ekusten dugu otoitz eta debozi fundamentuzkorik beinzat egiten ez dituen andre neska, ispillu ta apainket ta erakeri dela. Badakizu zertako? Gizonen begiak beragana eramateko ta orien animak eta bere zikinzeke. Eta ekusten dugu otoitzak eta debozi onak uzten dituzten gizonak eta mutillak, lurreko animal biurtu-egin balira bezala, tripanza ta aragi zikiñaren atseginza dirala, ta egiten ta eragiten dituzten bekatu larriak gatik deabru bera baño ere agitz gaiztoagoak. Otoitz, bada, ta otoitz, abade onak zion bezala, orretan ez gelditzeko ta Espiritu Santuaren argiari eskatzen duen olio guzia emateko.

§ II.

Baña ez da aski argiarenzat eskatzen duen olio guzia bere aldiaren ematea, dio S. Joan Kisostomok; iraun dezan kendu bear zaizka aize bide guziak; bada nai diña olio izanagatik, argi egiten duen krisellu-kandiletlanparak, gordetzen ezpada dabillen aize bizitik, aisa itzal-emendatuko da, zeren aizeak metxari kendu ta urratuko duen ari zitxakon ta argi egiten duen garra; ta anim alferrari tentanzak zuen zeruko grazi ta indarz, Espiritu Santuak emana, ta hau gabe luzaro beinzat iraunen ez, zeru bereko aren bide bizkunz onak; *Spiritus... extinguitur, si... ostium non ocuseris*.

Baña zer aize da animaren tentanz-aize, Espiritu Santuaren argia itzalzen edo kenzen duena? Belarri, begi, ao edo gorputzaren beste edozein zenzantzik sarzen dena(k). Hau zuk ekusteko, adi zazu sorginketako gauzak zekizkien batek bein egiña ta egin zuenari begira zegokan bati agitua.

Joan ziran erritik bein sorginket-lari nigromantiko hau ta zenbait onen lagun, egun atsegin bat bestetan egitera, ta joan ziran udako egun bero batean. Eguraldiak baño agitz geiago berotu zituen ibilzak, jostaketak eta barazkariko jate eta edate galantak. Eguzkia zerbait erori artean etzekiten zer egin beroz zeudenak eta orietatik batek esan zion nigromantiko sorginket-lariari, josta zedilla deabru gaiztoarekin ta ager zezala ekuskari bat edo beste. «Barkatu, adiskidea», eranzun zion ark, «bada ekusia dadukat deabrua enkantuko dei-otsera datorren aldiaren bere sule-zera irabazi onarekin itzulzen dela. Bego, bada, dagon tokian ta ez deza-la gaitzik egin emen gure artean».

«Zer egin bear du», esaten dio eskale eroak; «eskatzen zaitzunik ez egiteko aitzakiak dira oriek». Besteak ere eskatzen diote batak eskatu ziona ta naigabez ta beldurrez betea dagola bad-ere, artaratzen da nigromanti sorginket-lari tristea. Ken-erazten ditu gelatik bear etzituzten gauz guziak, egiten du bere sorginkerietako zuen zigor batekin inguruko arrasto alik zabalen bat eta esaten die begira zeudenei: «Begira, ez batek ere emen ezkazalik ere sartu, sekulako galdu nai ezpadu».

Hau esan ta asten da bere zigor berarekin arrasto zenbait eta beste gauz egiten ta ots egiten dio bere deabru adiskideari, ager zezan an ekuskari onen bat. Ark hau egin horduko, agertu zen zigorrarekin egin zuen inguruan arbol ostodun ederrez egiñikako paseo itzaldun leun bat, eta paseo, iduriz agitz luzea. Eta an bazen osto itzalgille otzak baño zerbait



otz geiagorako gaia; bada paseo beraren bi bazterretan agertu ziran aitz andi zulodunak eta jartegi ta katader agitz egoki, ara nai zutenen begira zeudenak; baña deabruaren beldurrez etzen an sartu bat ere.

Bat-batean kendu ziran andik arbol eder, paseo luze, belar leun ta aitz guziak. Andik laster bere zigor ta sorginkeriekin erakarri zituen nigromantiko berak nork daki zenbat soldadu zaldizko, ejerzitu izugarri bi egiten zituztenak. Guziak zetozen beren arma zorrotz izugarri zuriekin ta beren zaldie esproñak sartu ta bazijoazen alde batekoak besteetara ezin biziroago; baña bata bestea an ill bear zuela zirudienean, kee biurzen ziran bata ta bestea ta fite ta laster galdu zen ekuskari hau ere.

Era bereko beste zenbait ekusgai eder ere agertu ziezten deabruak begira zeudenetatik bati edo besteri eragiteko, sekulako bere kalterako eginen zuena. Agertu zen an azkenenan gela, sal guztiz eder bat, eta sal ispillu urreztatuz ta beste mill edergarriz apaindua. Sal onetan agertu ziran neskatx guztiz ederrak ziruditen zenbait, bakoitza erregin ongiena jaunzia baño jaunzi-apainduagoa. Ezurrik etzutenak bezala danzaten ziran guziak; sulezeko deabru gaiztoak ziran neskatx itxur-ainzuran an zebilzanak eta nai zutena beren buruei ta soñeko guziei eragiten zienak. Noizean bein inguruko arrastoratzen ziran eta luzatzen zioten bein batarri ta bein besteari eskua, berekin danzan erabilli naiez, ta denbor berean begiratze ariñez, buruaren keñu lausengarriz ta eztizkoz egiten zuten alegiña begira zeudenetatik bat bazen ere, an sarrerazteko ta azkenean erditsi zuten nai zutena; bada batek luzatu zion danzari bati bere eskua; eskutik artu ta tiratu zuen danzari gaiztoak beregana ta hura an sartu zeneko, joan ziran hura ta danzari deabru guziak beren salarekin ta mutil gaztearekin suleze infernura, beren danz gaiztoa an bukatzera. «Berak du kulpa, bada mugaz esan zion nigromant lagunak etzedilla sar sartu zen inguruan, ta sartu zen berak nai zuela».

Orra Espiritu Santuaren argia ta grazia galzeko bidea: aize gaiztoari animako leioak idikitzea. Esan dizute bein ta berriz ere etzaitezela urbill lagun ta toki ta jostatze galgarri artara ta ez-aditu egiten dezu zuk. Ekusten dituzu lagun gaiztoak eta ara zoaz oriek bezain gaizki hitz egitera ta orien joko ta ibilkunz galgarri galduetara. Ekusten dituzu jokoan edo borondegian zere gisako gaiztoak eta ara zoaz jokoan edo edanean dezuna galzera ta askotan osasuna ere bai; ta andik datoz itxeko kezkek, naigabenzak eta bizi gaiztoa.

Ekusten dituzu fest batean danzari ederki apaindu jaunziak eta, zere burua agertu naiez, ones zaitzaten an dabilzanak edo begira daudenak, ara zoaz ta an zabilza besteen eran ta ongi ez; ta ango ibilkunz-soñua ta

begiratze arinekin ta an egin oi diran edo ondorengo beste gauzekin erretzen da askotan beinzat gizonaren mulloa, galzen da emaztekiaren zeruko su garbia ta itzalzen da Espiritu Santuaren argia ta grazia.

«Begira, bada», dio S. Joan Krisostomok, «begira; ez da zer etsaiari idiki animako atea edo leioa, sar ez dakizun gaiztakeriaren bihia ta bekatuaren aize gaiztoa»: *ne hosti aperiamus portas, neque semina malitiae recipiamus*. Bestela laster galduko dugu artu dugun Espiritu Santua ta Espiritu Santuaren argia ta grazia. Ate ta leio oriek ersi-istea, bada, ta otoitez ta beste gauz onen olioan anima maneatu idukitzea da Espiritu Santua zerekin idukitzeko bidea. Ar zazu, bada, ain ongi dagokizun ezkerro ta ez dezazula galdu sekulan: ez arren, ez.



XXXIX

Irurz-Trinitate Santuaren eguneko irakurraldia

*Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad
consumationem saeculi. Matth. 28.*

Gaia: Jangoikoa errazki maitatzen du
bera maiz gogoan darabilenak

Bi Epistol ta bi Ebanjelio ditu egungo mezak, Trinitate Santuarena bata ta bestea egungo igandekoa ta biak datoz batera; bada datoz Jangoikoaren maitanza ta besteekiko onginaia guri arreraztera. S. Pablaren ezpañez esaten digu Eliz santak: «Jesus! ta zein andiak Jangoikoaren jakinzak eta zein ondorik bagekoak aren asmo ta bide ederrak! Nori gogora zaio sekulan Jangoikoak gogoan zuena? Nork adirazi dio Jangoikoari egin bear zena? edo nork eman dio lenbizikorik ari zerbait, beraren eskutik gero ordeña arzeko? Niork ere; bada bera da gauz guzien egillea, bera da guziak bere eskutik daduzkana ta bera munduko guziei ongi ta ontart anitz egiten hari dena ta guziagatik zor zaio sekula guziko maitanza, honra ta gloria».

«Eta zor zaio hau guzia», dio S. Joaneke egungo igandeko Epistolan, «zeren, deus ere zor etzigula, maitatu ginduen berak gu ta gero ta beti ere gu maitatu naiez ta zori oneko doatsu egiñak uzteko, gizon egiñik igorri zigun mundura bere Semea, ta beraren onenbat maitanzen alde zor diogu ordañezko maitanza ez ezik, beraren amarez beste guziak ere guk ziñez maitatzea. Elkar guk gis onetan maitatzen badugu, gerekin dugu gure Jangoikoak, ta Jangoikoaren maitanza ezagun zaiku eman dizkigun Espirituan ta Espiritu Santuaren grazian ta doai andietan, ta aren grazi ta doai oriekin egiten dugun gauz on zuzen guzian. Siñisten ta aitorzen duenak Jesus dela Jangoikoaren Seme Jangoikoa ta Jangoikoaren tribunalean ongi aterako delako uste osoan bizi diteke. Maita dezagun, bada, lenik maitatu ginduen Jangoikoa ta Jangoikoaren amarez geren lagun urkoa edo edozein beste; bada edozein beste Jangoikoari dagokan gauza da ta Jangoikoari dagokan maite ez duenak ez du maite Jangoiko bera»; ta azkenik esaten digu an bertan: «Jangoikoaren mandamentua da

Jangoikoa maite duenak beste guziak ere maitatzea»: *et hoc mandatum habemus a Deo, ut, qui diligit Deum, diligit et fratrem suum* (Ep. 2, c. 4). Eta orra, bigarren Epistola ere Jangoikoa guri maitarazteko da ta bidenabar Trinitate Santuaren zerbait berri emateko.

Berri hau ongi klaratzen digu Jesusek Trinitat beraren egungo festako Ebanjelio santuan, Apostol berei esanez: «Jangoikoaren Seme Jangoikoak bezala badut nai dudana zeruan ta lurtean egiteko eskua; zoazte, bada, mundu guzira nai dutenak Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean bataitzaera»; ta hau esatea ta Aita ta Semea ta Espiritu Santua edo Irurz-Trinitat guzia Jangoikoa dela esatea berebat da. Esaten die oni ditxekola: «Zoazte, bada, (misterio hau) ta jakin bear dituzten beste guziak erakustera ta zerua irabazteko egin bear dituzten gauzak eragitera, ta orra (zuei ta oriei zeren egiteko onetan lagunzeko Aldareko Sakramentuan) zuekin geldituko naz munduaren bukanzaraño», esan zien azkenik Jesus maitagarriak.

Zerurako diranak egin bear dituzten gauzak agerzen ditu Jesusek egungo igandeko Ebanjelioan ta oriek dirala dio elkarrekin gu, gurekin Jangoikoa den gisan, urrikalt onak izatea; alde gaiztora besteren gauzak ez botatzea; Jangoikoak guri barka diezagun, besteei guk barkatzea; Jangoikoak guri bear duguna digun, oriei guk ematea; Jangoikoak geiago digun, besteei guk ongi ematea; ta besteren utsak utzi ta gerenei, lenbaitlen kenzeko, kontuz begiratzea. Gauz oriek, bada, ta Jangoikoaren maitanzak dakarzenak egiten dituenak egiten du zerurako denak egin bear duena. Errazki egiten du hau jangoikoa maite duenak. Eta aldi onetan guk egiñen duguna da Jangoikoa errazki maitatzeko den gauz bat agerzea, ta hau da askotan ta maiz Jangoiko berari begiratzea; bada Jangoikoaren Trinitat Irurzako misterioa Kristau Dotrin luzean klaraturik arkitzen den gauza da ta nai badezu an ekus dezakezuna.

§ I.

Agitz andi txarmagarria da siñisten dugun fedeko edozein misterio; baña andien ta txarmagarriena Jangoikoaren Irurz-Trinitate Santa; hau da alabaña iru Person berezi, Aita, Seme ta Espiritu Santuak Jainkonez bat baizik ez egitea; sekulan iñork Jangoiko berak agertu ezpalu usteko ere etzuen gauza, ta gauz, Eskritura santak dionaz, gure jakinz eta asmo guziak garaitzen dituen: *Deus magnus vincens scientiam nostram* (Job, 36,26).



Jaun onek egiñak, Jaun onek bekatupetik atereak, Jaun hau emen serbi-maitatzeko ta berak nai duen aldian emendik atera ta zerura igateko etorriak gara gu, ta Elizako gauzak artu ta fededun onen gisan ateratzen bagara, geren ater-aldian Elizaren aldetik esanen zaiku: «Zoaz beste mundura egin zinduen Aitaren, bekatupetik atera zinduen Semearen ta bataioz zugana zen Espiritu Santuaren izenean». Emendik ater-irten ta luzanzik bage artuko digu Jangoikoak bizi guziko geren kontua ta emanen digu, ona izandu bada hau, dagokan betiko zori ona ta bestela sekul guziko neke-pen torment izugarria.

Gu ta gure gauzak ekusteko baditu Jangoikoak eguzki berak baño begi agitz argiangoak: *oculi Domini multo plus lucidiores super solem, circumspicientes omnes vias* (Eccl. 23,28), ta ekusten gaitu testigu zuzen ta juez zorrotzak bezala: *ego sum iudex, et testis* (Jerem. 29,23), ta egiten du Jangoikoak hau guzia gu galzeko ez, baizik gure onagatik eta betiko zori onean gu ekusi naiez. Emen onak izaten bagara, agertuko digu noizbait eta gero sekula guzian bere arpegi ederra ta ekusiko degu zeruan beti guk hau, atseginz eta kontent ezin andiagoan arkitzen garala: *videbimus eum, sicuti est* (1 Joan. 2,3); *satiabor, cum apparuerit gloria tua* (Ps. 16,15).

Jangoikoaren zori oneko ekusle doatsu atsegindunak zeruan gero izateko emen guk egin bear duguna da berari dagokan honra beti ematea ta bera guk ziñez maitatzea. Orretako bidea da geren gogotik guk hura ez uztea, edo geroko kontu zorrotzak guri arzeko begir-begira dagokigula noizean bein bad-ere gogoan arzea; bada hau guk egiten badugu, Jangoikoaren errespetu ta beldur andiarekin biziko gara ta etsaiaren txistu gaizto ta tentanzei ta gaizta-bideei ez-aditu ta ez-ekusi egiten diegula; me-meki ta Jangoiko beraren izenean artuko ditugu izaten ditugun neke ta naigabenz guziak eta ibilliko gara zeruko bidean Jainko berak nai bezala ta egiten ditugula adirazten dizkigun gauzak.

§ II.

Bai, noizean bein bad-ere ta geren tentaldi guzietan gogoan arzen badugu nor garan ta nor den Trinitate Santa, Jangoiko bakar, betiko Jaun ezin andiago, ezin jakinsuago, ezin alsuago, gauz guzieren egille ta emalle, anbat guk zor dioguna ta gure juez ezin zuzenago zorrotza, ibilliko gara begi humil errespetuz beteekin; bada gu Jangoikoaren aldean ez gara aldiritarrik txarrena erregerik andien baten aldean diña, ta Jangoikoari

guk, aldiritarrek bere errege andi orri baño mill milletan geiago zor diogu, ta bere erregek orri baño beste mil milletan gaitz edo on geiago egin bear digu, nola izaten den ill arteko gure bizitza; ta al-ere aldiritar orrek begiratzten dion aldian bere erregeri, begi humil errespetariz baizik ezin begiratu dio. Nola begiratu dio, bada, guk geren Jangoiko ekusi dugun bezain alsu, andi, errespetariari, nor den ta nola beti begira dagokigun oroiturik begiratzten badiogu?

Zein beldurgarria den Jangoikoa guri adirazteko dio Eskritura santak, berak dezaken eran mendiei begiratu ezker, urtuko litukela argizagi piska su andiak ur dezaken bezala: *montes a fundamentis movebuntur cum aquis; petrae tanquam cera liquescent ante faciem tuam* (Judith, 16,18); bada zenbat ikara ta beldur sartuko dio Jangoiko berak bere begi berekin begiratzten diola oroitzen den edozein mundukori, oroitzen bada beinbat noizean bein ta txarkeriren bat bere Jangoiko juez begira dagokan berari egiteko bidetan arkitzen den aldian? Eta nola ez du izutua ta illa bezala gelditu bear alako gauzarik ez egiteko? Ala geldituko lizake aldiritarra, gaiztakeri bat erregeri egiteko asmo galdua etorzen zaion aldian, bere ondoan ekusten balu bi mill soldaduz ingurutua bere errege bera; ta bekataritari begira dagokan Jangoiko alsuak baditu bi mill-milloi aingeru ta agitz geiago, ta keñu bat egin ezker, an izanen ditu sulezeko berrero ta deabru guziak ere eta orietatik bakoitzak badu munduko soldadu guziak diña indar, gaiztagin bekataritari guziak eskuratzeko. Eta orra nai ta ez edozein, Jangoikoaren errespetuz ta beldurrez beterik uzteko bidea, Aitaz ta Semeaz ta Espiritu Santu Jangoiko beraz noizean bein oroitzea. «Bai», dio S. Joan Krisostomok, «zori oneko oroipen onek bertan itoko ditu aragiaren, munduaren ta deabruaren tentaldi guziak»: *statim effugiet omnis illicita concupiscentia* (Hom. 62 in Gen.). «Eta ez du batek ere bekaturik ez egiteko», dio Alexandriko S. Clementek, «Jangoikoa beti begira dagokiola gogoratzen baizik bear»: *hac solum ratione fit, ut quis nunquam labatur, si Deum sibi ipsi semper adesse existimet*. Egi hau agertu digu Jangoikoak askotan, ta bein Susana zeritzan israeldar andre batek Babilonian egin zuenarekin.

Jangoikoaren beldurtasunean azia ta ezkondua zen Babiloniko israeldar Susana. Bero andi bat egiten zuen egun batez bere bi neskame artu ta sartu zen sagardiko urean oñak garbitzera. Horduko an elkar arturik gordeak arkitzen ziran arako zela zekiten juez gaizto bi. Egiteko batez itxera joan ziran aren donzell-neskame biak. Arakoan esanik igorri zituen, nior an sar etzedin, sagardiko atea berengana tiratu ta gilza zezatela. Oriek hau egin zuteneko, joan ziran Susanagana juez gorde gistoak eta esan zioten: «Orra, ertsia dago sagardia; emen ez da zu ta gu biok bai-



zik, eta egin bear dezu guk nai duguna; bestela salatuko zaitugu ta esanen dugu mutil batekin emen arkitu zaitugula ta arekin egoteagatik igorri zenituela zere neskame biak eta gu onaritze berean mutillak iges egin zuela». Hau aditu ta negarrez asi zen Susana, esaten zuela: «Neketan arkitzen naz bazter guzietatik; egiten badut zuek nai dezuten gaiztaginza, galdua naz sekulako, ta egiten ezpadut, ekusi bearko dut esan dezuten alkizuna; azkenean begira dagokidan Jangoikoa bekatur aserretu baño naiago dut zuen atzapar gaiztoan bizia galdu»: *sed melius est mihi, absque opere incidere in manus vestras, quam peccare in conspectu Domini* (Dan. 13,23). Eta ark eta beste biak ojuari eman ta jendeak etorri ta atera zuen bere burua tranze artatik eta gero Jangoikoaren milagroez juez gaiztoen atzapar gaiztotik, juez berak borreroaren eskuz illak uzten zituela.

Orra, bada, Jangoikoaren oroipena galzeak galdu zituen juez galdu oriek eta galzen du, dio salmariak, munduko beste edozein; «bada bere gogotik Jangoikoa utzi ezker, galduz-galdu dabill, dio, bere bizi guzian»: *non est Deus in conspectu ejus: iniquitatae sunt viae illius in omni tempore* (Ps. 10,5) ta Jangoiko bera gogoan idukitzeak atera zuen bekaturik bage ekusi dugun bezain tranze estutik Susana ta aterako du beste edozein ere; bada, S. Basiliok dion bezala, «Erregeen Errege Jangoikoaren begietan ez ezik, lurreko prinziipe batenetan ere ezin egin du niork atsekabe emanen dion gauzarik»: *quis in oculis principis sui audeat, quod disciplet principi ipsi?* Eta orra non Jangoikoa noizean bein gogoan arzea ta tentaldi bakoitzean gogora ekarzea den Jangoiko berari beldur ta errespet andiarekin begiratzeko ta bekaturik ez egiteko bidea.

§ III.

Bai ta Jangoiko beraren izenean emengo neke guziak me-meki eraman ta egin bear diran gauzak ongi ta biziro egiteko bidea ere. Jangoikoak egin ginduen hordutik bearturik arkitzen gara Jainko berak ematen digun bidez zerua irabaztera ta ez da zerua irabazteko biderik, nekez ta egitekoz beterik arkitzen ez denik. Datozkigula, bada, nai duten bidez geren bideko nekagi txiki andiak, guziak datoz gure onerako, bada datoz gure bekatu gaiztoen alde ta orien zorrak emen purgatorioko su arrigarrian baño agitz errazkiago guk ateratzeko, edo datozkigu zerurako irabazi andiak guri eragiteko ta bidenabar Jangoikoari atsegin egiñen dion eran gure bizitza zuzenzeko.

Baña orrenbat gure onerako izanagatik hau guzia, gauz agitz nekarria da hau ongi egitea ta orregatik da aringarri on bat eskatzen duen egiteko ta lana. Eta orretako diran guzien artean ez da bat, jangoikoa begira dagokigula gogoan arzea bezalakorik, eta hau da Jangoiko berak agitz ongi nai zion patriark Abrahani bein emana: *ambula coram Deo, et esto (id est, eris) perfectus* (Gen. 17,1).

Emen ere errege batek bere soldaduari, aitak semeari ta nagusiak mutillari bere gauzak eragiteko ez da oriei begitart ona egitea ta lanean hari diran aldian begira egotea bezalako biderik; bada begira dagokan ta ongi nai dion erregeagatik soldadu batek egiten ez duena egiñen ez du mundu guziagatik ez gaur ta ez bigar ta ez bein ere, eta hau bera agitzen zaie humeari gurasoarekin ta mutillari bere nagusiarekin. Jangoikoa begira dagokigula, bada, gogoan arzea da gauzak ongi egiteko biderik onena ta erraz laburrena. «Bai, hau egiten duenak», dio Caietanok (hic), «niola ere zuzenzeko, zuzenduko ditu bere gauzak, bere ibilzak, bere hitzak eta bere begiratzeta ta keñu guziak»: *nulla maior ratio componendi gestus, motus, verba, actionesque hominum, quam ambulare ante faciem principis*. Eta hau egiten badu, ongi ez ezik atsegin andiarekin egiñen ditu bere gauzak. Makabeo bortitzak bein egin zutenak adirazten duen gauza da hau.

Siriko errege igorri zuen israeldarretara bere gerrari andi Nicanor ta igorri zuen ejerzitu izugarri bat berekin zuela. Ikasi zuen onek israeldar soldadu guziak arkitzen zirala Samaria zeritzan beren bazter batean ta, golpe batez guziak galdu-bukatu naiez, joan zen ara larunbatean edo israeldarren festan pelean haritzera. Hau ekusi zutenean, gaztigatu zioten israeldarrak begira zezola zen egunari ta hura beretzat berezi zuen Jangoikoari. Baña Jangoikoz ta aren egunaz irri egin ta asi zen Nicanor bere peleako gauzak prestatzen.

Hau ekusi ta esan zien bere israeldar soldadu guzietan orien nagusi Judas Makabeok: «Gizon onek aditzen ezpagaitu ere, adituko gaitu gure Jangoiko begira dagokigunak, eta onek ematen digun lagun indartsuarekin badut uste eskurako dugula gizatzen onen arrotanz ta antuste galgarria; ta hau adirazi dit (esan zuen gero) Jangoiko berak lotan arkitzen nazala; bada beste mundutik igorri dit gizon santu Onias profeta Jeremiasekin ta hitz on anitz esan ondoan, eman dit onek urrezko ezpat bat, esaten didala: orra zere etsaiak garaitzeko Jangoikoak igorzen dizun errevalo andi ezpat santua».

Hau ark oriei esan ta asi ziran Siritarrak soñuz bazterrek urratzen; bazetozen oñez geienak, zaldiz anitz eta beste guziak arm zorrotzez inguruturik zeuden gurti andietan ta bazetozen pelean asi horduko



israeldarrak garaitu uste andian. Denbor berean arkitzen ziran Judas Makabeo ta onen lagunak bat ere beldurrik bage ta etsaiak etorrik artean, esan zion bere ta beste guzien izenean Judas Makabeok Jangoikoari: «Ezekias erregeren aldiaren aingeru bat israeldarren alde igorri-bidaldu zenuen zuk, gure Jangoiko maitagarria, ta aingeru onen eskuz eun ta larogei ta bost milla senakeriben soldadu gau batez utzi zenituen illak. Horduko gaiztoak bezain blasfemari galduak dira orra or datozen gure ta zure etsaiak; betor, bada, beste aingeru bat guri lagunzera ta Jerusalengo zure eliza ta gure bazterrak eta gauzak gordetzera».

Hau esate berean asi zen zituen bere lagunekin etsaien bidera ateraten ta batu zitueneko arrigarrizko pelean; bada hari ziran biotzez Jangoikoari otoitz eta otoitz, eta armaz ta eskuz ezin bortitzkiago ta Jangoikoa begira zegotelako pozarekin (*praesentia Dei magnifice delectati* (2 Mach. 15,27)) ta andik laster garaitu ere zituzten beren etsai guziak eta orietatik an bertan illak gelditu ziran ogei ta amabost milla ta orien artean Nicanor bera. Orra zein ederki egin zuten beren pelea Jangoikoa gogotan zutela ta Jangoiko bera begira zegotelako oroipen onarekin pelean haritu ziran Makabetar oriek.

Hau bera agitu zaie gerozko martire ta konfesor santu guzietan: beren neke ta tormentu guziak me-meki eramatea ta beren egiteko guziak ezin obeki egitea, «ekusten etzuten Jangoikoa begira zegotela sinistuz ta gogotan erabilliz», dio S. Joan Krisostomok: *ad grandia pro Deo agenda, et sustinenda excitantes Deum coram oculis suis, quasi visibilem exponebant* (Hom. 26 in Epist. ad Hebr.).

«Hau egiten badugu», dio S. Juan Damastarrak, «eta gogoan erabilli ezkerro Jangoikoa gau-egun ta beti begi-begira dagotela gure lan, egiteko, ibiller, keñu ta asmo guzietan, santu izaneren gara geren gauz guzietan»: *si Deum non solum secretorum actuum nostrorum, verum etiam cogitationum internarum diurnum, nocturnumque conspectorem esse cogitamus, sancti erimus* (Lib. 6 de sp. forn. 24).

Noizean bein, bada, zere gauz bakoitza egiten astean ta zere tentaldi guzietan begir egiozu Jangoik(o) andi Trinitate Irurz santari; eska zagozu aldi oro bere lagunza ta grazia ta ekusiko dezu zein bide ona den hau Jangoikoaren errespetari humil beldurti ona izateko, etsaiaren tentantz guziak garaitzeko, zere neke ta naigabenz guziak me-meki eramateko ta zere gauz guziak ongi ta bear den gisan egiteko. Trinitat Irurz sant berak dizula bide on hau arzeko bear den grazi guzia: bai arren, bai.

XL

Korpus Kristi eguneko irakurraldia

Qui manducat hunc panem, vivet in aeternum.

Joan. 6.

Gaia: Jesus sakramentatuari dagozkanak
dira egun ta urte guzian egiten zaizkan honrak

Gizonak eskutartean dakarten gauz andiren bat bukatu ezkerro uzten duten munduan beren zerbait señaile ta oroipen. Inditik ondasunez beteak etorzen diranak uzten dituzte etxe berri ta jauregi egoki ederrak. Gerra-aldi beretik ongi ateratzen den erregek egiten diezte soldadu andiei ontart eta mesede luzeak eta beren izenari honragai dagozkanak. Alexandro andiak Mazedonitik Indirañoko erreinu guziak armaz ta gerraz beretu ta, beretako eragin zuen urrezko anitz pillare zituen tronu bat, ta artan jarri ta aditzen zuen billatzen zutenak esan nai zioten guzia.

Guganako amore bero andiatatik egin zen gizon Jangoiko Semea, ta zekarren bere egiteko andiaren bukanzan ta ill-bezperan utzi zigun testament gisan guganako maitantz-amor beraren señaile andi Aldareko Sakramentu santua: *in quo divitias sui erga homines amoris velut effudit* (Trid. ves.). Gizonak ez daki nola bukatuko diran beraren lanak, eta ezpada ongi bukatu ta, ez da sarzen señaile txikitari ere; Jangoikoa da bukatu baliz bezain ederki, bukatzeko dagon gauzaren berria duena ta bukatutzat eman ta dagokan bidez ta señailez lendarik honra dezakena; ta hau da aldi onetan Jesusek egiña; bada loturik eraman zuten arrats berean ta Ostegun Sant arratsez utzi zigun bere amor-maitantz ezin andiagorenen, onek arrerazi zion Pasi gogorraren ta eman nai dizkigun grazi ta birtute andien iturri-señailetan Aldareko Sakramentu andia. Lenago ere adirazi zien Jesusek bere Apostol ta beste anitz etorkizun andi txarmagarri hau; baña egin zuen gisan eginen zuela, etzuten oriek uste; bada aditu zioten Jesusi egungo Ebanjelio santuan esaten diguna ta esaten digu: «Nere aragia janari da ta edari nere odola; nere aragia jaten duena ta edaten duena nere odola, nere baitan ta nigan gelditzen da ta argan ni. Betiko nere Aitak igorri ninduen zerutik mundura ta emen nik emanen diodan ogiarekin biziko da ni jaten nabena. Zerutik etorri den ogia da ogi hau; baña



ez da zuen aitzineko israeldarrak an beretik etorzen zen ta jan zuten mana bezalako ogia; bada ill ziran hura jaten zutenak eta sekulan bizi bearra da hau jaten duena».

Jesusi hau aditu zioten guziak edo anitzek beinzat uste zuten jan bearko zutela beraren gorputza, geli edo ariki zati bat jaten den bezala, ta hau gogoratzet arritu ta bere sermoiean Jesus utzi ta joan ziran igeska aditzen zeuden anitz; eta al-ere etzuen Jesusek horduan klaratu gauza hau; klaratu zuen Ostegun Santu arratsez esan ta egin zuenarekin ta horduan ark esan ta egiña da gaurko bere Epistolari S. Pablok diona: «Artu zuen», dio S. Pablok, «afalzen zeuden mait beretik ogi bat, eta betiko bere Aitari egitera zijoan gauzarako ta beste guzirako eman zion eskuegatik eskerrak eman, ta puska-txikitu ta bakoitzari eman zion bere zatia, esaten ziola: Ori, jan zazu; nere gorputza da hau; ta gorputz, zuen alde preso artu ta gurutze batean ill bearra; ta afaldu ta gis berean eman zion bakoitzari taz edo kaliz bete batetik edatera, guziei esan ta: Orra, edazue; nere odola da ta nere testament eta lege berriko edaria. Bata ta bestea egiten dituzuen aldian, egizkitzue nik mundu guziaren alde egin dudana-ren izenean».

Orra, ogiaren ta ardoaren ainzuran jaten dira komunioz Kristo Jaunaren gorputza ta odola; baña judatarrak uste zuten gisan ez, baizik ogi-ardo ainzur-itxuran, ta gis-ainzur berean arkitzen dira geroz Aldareko Sakramentuan. Sakramentu andi Kristo Jaunaren azken señaletan onetan arkitzen diran gorputz-odol ta Kristo Jaun guzia honratzen ditu Elizak gaur ta urrengo zazpi egunez anitz aldetara; bada honratzen ditu beraren Sakramentu hau agertuz ta kalez-kaleko prozesioan erabilliz, bai ta komunioz ta beste zenbait bidez ere. Zein bear bezala! Orain guk eku-dugu.

§ I.

Gauz anitz andirako egiña da Jesusen azken señaletan Aldareko Sakramentu txarmagarria. Egin baño len ta lenago ere Eskritur santaz agertua arkitzen zen Jesusen eginkizun hau, bai ta bere eginkizun onekin egiten dituen zenbait gauz ere; ta agertua, eginkizun beraren ainzur batez edo bestez Jangoikoak lenik egin izandu zuenarekin. Diogun arratseraño eginkizun arkitzen zen Sakramentu onen ainzur-figura zen leneko testa-

mentuko kutx edo arka txikia. Arkonekin egin zituen Jangoikoak anitz gauz txarmagarri ta bat Jeriko zeritzan erri sendor-murrutu batean.

Jangoikoaren manuz Moisesek egiña zen Testamentuko kutx txiki arkatxo hau; ta egiña, Egiptotik atera ta bere israeldar guziekin eremuz-eremu ta basoz-baso Jangoikoak berezi zien bazter on baterako bidean zebilela. Canango probintzia zen zori oneko bazter hau. Probinzi hau erri murrutuz, armaz ta soldaduz beterik arkitzen zen bazterra zen, bai ta arako bide guzia ere. Billatzen zuten probinzi bazterrean sarzeko ibilli bear zuten Jangoikoa beren alde zutela ta beren armak eskuan arturik. Ango sarze berean arkitzen zen Jeriko zeritzan erri orietatik bat, murall edo murru sendorrez ingurutua ta israeldarrak probinziar jabetzera zetoztelako berriarekin armaz ta jendez ongi betea.

Israeldarrei ongi nai zien Jangoikoak eta egin zuen erri onetan beste guzietakoak izutzeko ona zen gauz arrigarri bat. Orra, esaten dio Jangoikoak Josueri, (Josue zen Moises ill ondoan an zetozen israeldar guzien buru ta nagusi): «orra, zuena da erri ori ta ar zazue. Artu, Jauna, guk erri hau? baña nola?» eranzun zion Josuek Jangoikoari; «Orra zein sendorrek diran erri orren murrallak; guk ez dugu zerekin oriek urratu, ta urratu ta ere, jendez betea ta guztiz armatua arkitzen da erria». «Ala ere zuena da erria ta ar zazue», esaten dio Jangoikoak. Eta azkenean arzen dute; ta arzen, Jangoiko berak edo Jangoikoaren orde zingeru batek agertu zien bidez.

«Egun oro», esan zion, «zazpi egunez zuen arteko gerrari guziak beren armak artu ta eman bear diote inguru bat erriari; gerrari guziei darraiztela ibilliko dira zazpi apaiz edo sazerdote jubileoko tronpet bereekin; orien ondotik eramanen dute beste zenbaitek testamentuko arka, ta ark edo kutx onen ondotik ibilliko da beste jende guzia; baña inguru guzian ez du batek ere hitzik aterako ta ez da tronpeten soñua baizik adituko. Zazpigarren egunean Israelko gerrariz erri guzia ingurutu horduko, testamentuko kutx-arkarekin dabilzan apaiz soñariak beren tronpetekin egiñen dute beste aldietan baño soñu bizi bortitzago bat eta hordu berean gerrari ta beste israeldar guziak ojuka ezin andiagoa. Hau aditu ta begiak idiki, testamentuko kutxa ekusi ta arritzen balira bezala urratu ta eroriko dira erriko murallak eta soldadu gizonak dauden toki beretik errian sartu ta illen dituzte arkitzen dituzten guziak, eta arkitzen duten urre, zillar, bronze ta burdin guzia Jangoikoarentzat artu ta beste guzia su ta gar ta auts egiña utzi bear da».

Jangoikoak esan zuen gisan egin zuen Jesusek guzia. Urrengo goietatik asi ziran israeldarrak erriaren beren ingurukan. Ongi armaturik ibi-



lli ziran soldadu ta beste guziak testamentuko kutxarekin ta zazpi apai-zak beren buzin-tronpetekin gerrako beren soñua egiten zutela. Erriko guziak ere beren armak artu ta igan ziran murru gañera edo murallara; ta ekusi zutenean israeldarrak beren inguru eman ta itzuli ziralara beren tokira, zentinel igurai-zaiak an utzi ta itzuli ziran beren itxera. Urrengo egunean ta beste lauretan egiten dute israeldarrak lenbizikoan egin zutena, bai ta erritarrak ere.

Erritarretatik zenbait irriz bezala zeuden, zeren ekusten zuten lotan gelditzen ziralara beti israeldarrak beren ingurukak egin ta; baña beste anitz etorkizunaren beldurrez agitz kezkatu arkitzen ziran. Onetan etorri zen Jerico irritar ta beldurti guziendako zazpigarren ta beren bizitzaren azken eguna. Egun artan goizik jaiki ta asi ziran israeldarrak beren egitekoan ta orien soldadu guziak erria ingurutu ta testamentuko kutx aitzinean egin zuten apezak beren soñu andi bizia ta horduraño mututurik zebilzan soldadu berei ta gañerako israeldar guziei esan zien Josuek, zegitela zuten indar guziarekin oju ta oju. Bat-batean asi ziran guziak ojuka, bazterrak ojuz urratu bear zituztela ziruditenen gisan, ta egin zen Jangoikoak esana; bada denbor berean urratu ta erori ziran erri guziko murrumurallak eta azpian artu ta lertu zituzten nork daki zenbat barren-go soldadu ta erritar. Murallak erori horduko sartu ziran inguruan arkitzen ziran israeldar soldadu guziak eta ill zituzten bizirik gelditu ziran erritar guziak eta erre zuten erri guzia (Jos. 6).

Kristo Jauna bere señaile andi Aldareko Sakramentu hau egin ta urrengo mill urteetan etzuen batek ere ukatu emen arkitzen dela Kristo Jaun Jangoiko-gizonaren gorputz eta odola. Geroz izandu dira ta oraindik ere badira fedeko egi hau ukatzen duten ta Elizak kondenaturik daduzkan hereje gaiztoak. Oriek gezurtatzeko, bada, ta fededunak beren sinistantz onean sendor-erazteko ta Kristo Jaunaren gorputz ta odol len deshonoratuari dagozkan honrak emateko dira kalez-kaleko egungo prozesioa ta datozen egunetako aldarean Sakramentu andi hau agerian argiz ingurutua, kantaz ta ninzensoz errespetatua zenbait horduz idukitzea, bitarte orretan fededun onak bere oñetan belaunikatuak daduzkala, eskerak eta eskerrak ematera etorriak, emen gurekin gelditze onekin egin dizkigun ondasun andien alde.

Aldi orietan ez ezik, erietara Sakramentu hau eramaten den aldian ere agerzen diote Jesus sakramentuari dioten errespetu ta amoreta fededun onak, bai ta orien artean eskurik geiena duten zaldun, prinzipere, errege ta enperadore zenbaitek ere; bada badakigu orietatik zenbait aldi orietan Jesus sakramentua ekusi horduko jaitzi dirala zalditik, zaldiz bazijoz-

azen, edo atera kotxetik, eta bertan belaunikaturik, ur ta loi egiña lurra egonagatik, egin diotela agur andi humil bat beren Jangoikoari bezala, ta lagun egin diotela ilzen zegon eriaten gelaraño.

Eta orra hereji gaiztoak azpiratzeko ta dagozkan honrak Jesusek arzeko da Jesus sakramentua egungo egunarekin eliztik atera ta errian prozesioz ibilzea; bai ta zorz-urren onetan ta urteko beste zenbait egunez aldarean agerturik egotea ere. Aldi orietan ta Jesus sakramentua beraren erietarako ateraldietan guk egin bear duguna da testamentuko kutxarekin israeldarrak Jericon egin zutena: Jesus beragana bere agerraldi guzietan joatea, beragan gogoa ta begiak ezarri ta humil-humilki ta errespetu andiarekin egotea, ta len jerikotar gaiztoak testamentuko arkaz ta israeldarren eskuz bezala, orain gure lanez ta bere komunioz animako gure etsai guziak eskura ditzala ziñez ta askotan eskatzea.

§ II.

Hau guri eragiteko, badu besterik ere Jesus sakramentatuaren egungo festak eta agerraldiak. Beste hau adiraziko dugu Jesus beraren beste itzal ta figur bat agertu ta. Jesus sakramentatuaren beste itzal edo figura da Josef Egiptoko biso-rei andia. Jesusen aitzineko patriark andi Jacoben semea zen Josef hau, ta al-ere egondu zen Egipton esklabo, ta an bertan arkitzen zen preso, ango errege Faraonek amets nekagarri bat izandu zuen aldian.

Arrats batez lo zetzala ekusi zituen Faraon erregek Jangoikoak erakutsi ta, zazpi bei eder. Nilo deritzan ango ibai batetik atera ziran guziak eta andik atera ta, asi ziran ur bazterreko belar ederrean ongi bazkatzen. Ekusi zuen orien ondolik atera ziralara beste zazpi igar-itsusiak eta larru ta ezur baizik etziranak; eta ekusi zuen belar jaten ta jaten hari ta ere, beti arkitzen ziralara igar ta mear; ta azkenean ekusi zuen bei igar-mear berak beste gizen ederretara joan ta jan zituztela, belar zati izan balira bezala, aisa; ta al-ere beren jate guzien ondoan gelditu ziralara uretik atera ziran aldian bezain mear, igar ta itsusi-galduak.

Amets onek agitz nekatu zuen errege Faraon ta al-ere etzuen hitzik atera, beste batek berrero nekatu zuen artean. Amets ondoan artu zuen berriz loak Faraon ta, lo zetzala, ekusi zituen elkarren aldean zazpi gari-ondo, buru andi aledun ederrak zituztenak, eta orietatik ez urruti beste zazpi txar erdi igartu, grano ale on bana etzutenak; eta ekusi zuen gari-



ondo txar oriek galdu zituztela beste zazpiak beren buru, ale ta grano eder guziekin. Lenbiziko ametsak baño agitz nekatuagoa utzi zuen errege Faraon bigarren onek eta irazarri ta erakarri zituen bete erreinuko gizon jakinsu ta ariol edo etorkizunen nol-erebaitako agerle guziak. Agertu ziezten oriei bere bi ametsak jakin naiez esan nai zutena. Egondur ziran guziak asmatzen ta asmatzen eranzun bear zutena; baña etzuten deus asmatu ta eranzun zioten erregeri etzekitela ametsak esan nai zuena.

Oriek hau esan zuten aldian an arkitzen zen erregeren maizallea ta oroitu zen presondegian arkitzen zen israeldar gazte batekin berari bein ari agituaz, ta esan zion erregeri: «Jauna, geren uts gaizto banagatik igorri ginduzun nere lagun bat eta ni, israeldar gazte bat bere nagusiak sarturik arkitzen zen presondegira. Arrats batez izandu genituen bi lagunok geren ametsak; agertu geniozkan gazte oni ta onek esan ziguna adirazten zuten gure ametsak; bada esan zion nere lagunari an bertan kenduko ziotela burua, ta niri, itzuliko nindutela nere egitekora, ta ala gertatu da bata ta bestea. Niork jakitekotan, gazte onek jakiñen du, errege, zure ametsak esan ani dutena». «Betor, bada, gazte ori, esaten du erregek, eta ekusiko dugu».

Ateratzen dute presondegitik obenik bage an arkitzen zen Josef gaztea. Ongitzen diote buruko illea; jaunzten dute soñeko berriz burutik oñera; molda-apainzen dute len, ta sarrerazten dute erreg-aitzinera. Agerzen diozka erregek bere ametsak eta oriek aditu ta bertan esaten dio Josefek: «Jauna, batera datoz zure bi ametsak; eta ekusi dituzun zazpi bei gizen ta zazpi gari-ondo ederrak esan nai dutena da, izanen dituzula orain errenko zazpi urte ganadutan ta garitan ezin obeak; baña orien ondolik etorriko dirala beste zazpi ezin txarragoak, eta bigarren hau esan nai dute zazpi bei txarrak eta gari-ondo erdi igartu-galduak. Egin bear dezuna da bear den gisako gizon bat billatu ta lenbiziko zazpi urte on datozenetan, oni lagunak artu ta bil ta gorderaztea beste zazpi txar galduetan bearko den gari, agotz, lasto ta beste guzia».

«Non arkituko dut orretako zu bezain egokirik?», esaten dio erregek Josefi; «ta orra, nere urrengo zu Egiptoko erreinu guzian, ta gaurdanik zu munduko bearren ariñle ta salbale». Eman ziozkan bereala ematen zion egiteko berriak eskatzen zituen soñeko ta apaingar guziak; sarraz zuen bere bigarren karrozan ta erabilli zuen kalez-kalez, guziak lurrean belauak ezarri ta ezagun zezaten beren biso-rei manaletzat. Bertan asi zen Josef bere neurri onak erreinu guzian arzen ta lenbiziko zazpi urte ugari onetan bildu zuen beste zazpi bageko utsetan erreinutar guziak, eta ez erreinukoak ere, bear izanen zuten garidia (Gen. 41).

Josef izandu zen bere anaiak begitan artu, saldu ta mil neketan sartu zuten gizona; baña beraren obenik bage ta Jangoikoak guziak orain azteraz nai izandu ziozkan errege Faraonen onenbat honr-ontartez. Eta munduko salbatzalle gure Jesus maitagarria honratzen du Jangoikoak gaur bere zorz-urrun guzian ta urteko fest Aldareko bere Sakramentu andian egiten zaizkan guziekin, ta ematen diozka Jangoikoak Jesusi fest eta honr oriek, len bere gorputzean ta gero Sakramentu onetan artu dituen bidegabenez, neke-tormentu ta deshoren alde.

Faraonek eman zion Egiptoko salbale Josefi bear zuen eskua bere aideei, Egiptoko guziei ta beste nai zutenei zazpi urtez emateko bearko zuten gari guzia, ta bere betiko Aitak eman dio bere Seme mundu guzian Salbale Jesusi Aldareko Sakramentuan mundu bereko guziak zazpi urtez ez ezik, mill ta zazpi eun urtez ta munduak iraunen duen urte guzietan bearko duten animako ogi ta janari guzia; ta ogi ta janari, jaten ta ongi komulgatzen ikasten dutenei berak ar-al poz-ondasun, grazi ta atseginz ematen diena.

Hau guzia, bada, guri adirazteko da ta bidenabar adirazteko mundura ekarri zuen bere egiteko andia bukatu baño len utzi zigun señale andi Aldareko Sakramentuagatik zor diogula Jesus maitagarriari Sakramentu beraren egungo agerza ta kalez kale ibilzea. Zori oneko humeak gu, ematen badiozkagu dagozkan eskerrak eta baliatzen bagara animako ogi ta janari onez, Egiptarrak Josef en lurreko bezala. Jangoikoak digula artako bear den lagunza ta grazia. Bai arren, bai.



XLI

Espiritu Santuaren Bazko-ondoko bigarren igandeko irakurraldia

Homo quidam fecit coenam magnam, et vocavit multos. Luc. 14

Gaia: Nola ta zertara joan bear dugun
bere Sakramentuan Jesus ekustera

Salomon errege izandu da munduan izandu den erregerik aberatse-na, bai ta jakinsuena ere, ta hau bera izandu da bere jakinzaz ta ondasunez ongienik baliatu dena; bada guziaz baliatu zen izandu diran ekuskaririk ederrenak egiteko; egin zuen alabaña parerik bageko eliz bat, eta eliz, zedroz, urrez ta arkitzen ziran gairik ederrenez moldatu ta apaindua ta munduko maisurik jakinsuenak zezaken ederkien moldatu-apaindua. Egin zituen ekusi diran jauregi ta itxerik egokienak eta egin zituen zalditegiak ere, ta zalditegi anitz erregek egin dituzten gauzarik ekustekoenak baño ekustekoagoak, guziaren berria zuten interprete andiak adirazi dutenaz.

Egin zuen beste gauz andien artean itxe txiki eder beraren eramari liter-modu bat. Egin zuen hau ere urrez, zillarez, zedroz ta granaz; ta egin zuen ezin politagoa ta bazter guzietatik idikia. Zertako ote? Artan sarturik kalez-kale zebillen aldian ekus zezaten nai bezain ongi Jerusalemgo alabak: *propter filias Jerusalem* (Cant. 10, cap. 3, v. 10). Jategiren ta plater izena ere bazuen Salomonen eramantegi onek: *ferculum fecit sibi Rex Salomon* (v. 9). Liter-eramantegi-plater onetako janaria zen Salomon bera, baño begien ta biotzen janaria, ta artan agertu zen aldian, ots egin zieten Jerusalemgo guziei ager zitezela begi-biotzez jatera ta Salomonek buruan zeraman koro ederrari begiratzera: *egredimini, et videte... Regem Salomonem in diademate, quo coronavit illum mater sua* (v. 11).

Salomon baño geiagoko Errege da Jesus: *ecce plusquam Salomon hic* (Matth. 12, v. 42). Jesus ere janari egiñik agerzen zaiku oraingo egunetan, bai ta egungo Ebanjelio santuan ere, ta agerzen geienenzat beinzat ez orzen, begi-biotzen janari eginik. «Gizon andi errege batek prestatu zuen afari andi bat, ara nai zuten guziei jatera emateko», dio gaurko Ebanjeli

santuak. «Gauzak prestatu ta bidaldu zuen bere mutilla etorri nai zutenen billa. Egin zuen mutillak bere egiteko ta mandatua; baño deitu zituen guzien artean etzuen arkitu bat joan nai izandu zuenik; guziak ez joateko aitzakiz beteak arkitu zituen. Lenbiziko deituak eranzun zion: Urrutiko bazter bat erosi dut, joan bear dut hura ekustera; ezin noake zure nagusiaren jate andira ta esan bear diozu barka diezadala. Urrengoak gaztigatu zion: Bost idi-uztarri erosi ditut; nola datozen ekustera noa; zuen maira ezin noake ta nagusiari, barka diezadala. Irugarrenak eranzun zion otz-otzean: «Ezin noake, zeren ezkon-berria arkitzen nazan».

Orien laburkeriak begitan eman zion nagusiari ta aserreturik esan zion bere mutillari: «Zoaz erriko karrik eta zoko guzietara ta ekazkitzu arkitzen dituzun erdi-eri ta elbarri guziak». Egin zuen mutillak nagusiaren esana ta esan zion nagusiari: «Jauna, maian oraindik bada toki ta toki». «Zoaz, bada», esaten dio nagusiak, «errira datozen bidezko ta langille guziei deitzera ta ekarri ta sarreraz zatzu jartegi guziak artu alak». Sarzen da gero ara ziranak ekustera ta esaten die: «Siñis nazazue, nik deitu ta etorri bage gelditu denik ez da sartuko nere afarira».

Jaun hau Jesus Sakramentua da, ta Jaun, oraingo aldian Sakramentuko bere literan egun oro agerzen zaikuna. Deitzen digu gatozkiola ekustera ta gogozko jan onak eta naiezko komunio santak egitera, bai ta zor diogun amorearen alde eskerrak eta eskerrak ematera ere. Eta ez-etorri egiten badiogu, joaten ezpagara noizean bein bad-ere hura an begiz ta biotzez jate edo ekustera, sekulan hura ez ekusteko perill andian gelditzen gara. Geldi ez gaitezen, egin bear diozkagu geren ekustoriek. Nola? Orain ekusiko dugun gisan ta eran.

§ I.

Jerusalengo bakoitzak uste izan balu Salomon bere literan ekusaldian argandik erditsiko zuela guk Jesus Sakramentatuagandik bere Sakramentuan ekusaldi oro erdits dezakeguna, ekusten zuten aldietan baño agitz geiagotan aterako zen hura ekustera, eta gu ere oraingo egun andietan ta urte guzian joaten garan baño agitz eta agitz geiagotan joanen giñake bere Sakramentu andian Jesus ekustera, gogo rateen bagenu joanaldi bakoitzean erdits ta irabaz dezakeguna.

Gal ez ditzatzun, bada, leneko gisan irabaz-aldi datozkigunak, agertu nai ditut orietako ondasun andiak. Errege jaunak agerzen dira zenbait



aldiz eskatzen diezten ta ditzakeen zenbait gauz ematera ta beste zenbait bez beren buruak ager-erakustera. Beren buruak erakustera ateratzen diran aldian ez dute deus uste orien ekusle oriek. Zergatik, uste dezu? Zeren errege jaunak diran berak baño geiagoko gizonak ta zeren orregatik zor zaien honra-modu, begirun ta errespetu hau.

Lurreko errege andienari baño mil-miltan begirun-errespetu ta honra geiago zor zaio Erregeen Errege Jangoiko-gizon Jesus Sakramentatuari eta aski bear luke izan Aldareko bere Sakramentuan agertu dela ikaste bera, joan ditezkeen fededun guziak hura adoratzera, ari agur humillak egitera, esker biotz osoko zenbait ematera ta al ditezkeen honrraldi guziak egitera ara joateko; bada ez da Jangoikoa Española erege Felipe bigarrena ta munduko beste andienen gisakoa. Felipe erregeri esan zion bein batek zergatik etzion eskale bakoitzari ematen eskatzen zion guzia. «Zer eman ez dudala gelditu ez naiez», eranzun zion errege aberats andi Felipek. Eta hau bera esan dezakee munduko beste errege geien dutenak ere; bada orietatik geiena duenari ere emanez laster ta fite bukatuko litzaioke duen guzia. Jangoikoa da bakar-bakarrik nai duten eskalle guziei nai dutena emanagatik, bat ere eman ezpalu bezain aberats-ondasundun ta gauzen ta gauzen emalle gelditzen dena; orregatik da eskalle guzien zat guztiz aberatsa: *dives in omnes, qui invocant illum* (Rom. 10,12).

Eta aberats bezain emalle ere da Jesus sakramentatua, ta emalle, eman naiez ojuka dagona: «Neketan arkitzen zarazten guziok, atozte nigana ta nik arinduko ditut zuen neke bearzak. Ez dezute oraindik nere izenean deus eskatu; eska zazue ta emann zaitzue eskatzen dezuten»: *petite, et accipietis*. Joan bear dugu, bada, noizean hein bad-ere Jesus sakramentatua ekustera, ta joan bear, aldi oro agur humillak eta adoranz andiak egitera, zor diogun guziaren alde esker onak ematera ta amoriozko ekuste ederrak egitera ta denbor berean joan bear dugu bera serbitu ta zerua irabaziko badugu bearko ditugun indarz, lagunz, grazi ta ondasun guzien eske. Hau guk ongi egiteko ikas dezagun nola aldian argana joan, ta ikas dezakegu beren joan-aldiak nola egiten dituzten emen errege andiekin diardukatenak ekusi ta.

§ II.

Lurreko ekusleen lenbiziko joan-aldia izaten da ekusi naizik zer traz, tresn, soñeko ta jaunzte duten errege jaunak, nolakoa den orien jauregia ta jauregiko apainza; nolakoa orien soldadesk oñez ta zaldiz dabilena; nolakoa orien sartu-aterrea, ibilkunz eta beste guzia; jakinsua den errege bera edo bestez gobernatzen dena ta gis bereko beste gauzak. Aldi artan ekusten ta aditzen dutenaz arkitzen dure uste zutena baño agitz geiagoko gizona dela, edo ez, orien errege berna ta ikasten duten berriarekin itzulzen dira beren itxera, errege Salomon ekusi ta erregein Saba bere korte ta jauregi andi egokira bezala.

Zoaz, bada, zu ere Salomon errege baño agitz eta agitz geiagoko Errege Jesus bere Sakramentu andiko literan ekustera. Begir egiezu Jesus berari ta Jesusek berekin dituen guardi indartsu ederrei; begir egiezu bere soñean ta eskuan dakarzen gauzei ta ekusiko dezu zein txarmagarri egoki enak diran guziak; bada zuk aldi orretan Jesusi fedeko begiz ongi begiratu ezker, ekusiko dezu Jesus dela Jangoiko beraren Seme Jangoikoa; Jesus dela Jangoikoaren jakinza, ta jakinz, izandu diran, arkitzen diran, etorzeko dauden ta letozkeen gauz guzien berri osoa duena; ekusiko dezu Jesus dela gureen gisako gorputz-animak jaunzi dituen Jangoikoa ta bere jauntzte onetan Jangoiko-gizon egiñik gelditu dena; baño gizon, zeruko santu ta aingeru guziak baño santanz, grazi birtute ta edertasun geiago ta geiago duena.

Ekusiko dezu Aldareko Sakramentuan Jesusek dituen guardi-zai-leak dirala aingeru eder bortitzak; millka ta millka dituela aingeru oriek eta orietatik edozein aski lizakela mundu guzia auts egiteko ta deabru guziak lotuak uzteko; bai ta zeruko izar ta planet guziak gainbera erabiltzeko ta era bereko beste gauzetarako ere. Ekusiko dezu berekin dakarzelata bere biziz ta eriotz nekez betearekin egin zituen irabanz guziak eta eman nai litukeen ondasunez bete-beteak daduzkala bere eskuak; eta ekusiko dezu begi ezin obeein arzen dituela hura ekustera aratzen den bearsu errumesena ere. Oar zaitetz, bada, ta fedezko begiz ekusiko dezu an hau guzia; bada hau guzia ta agitz geiago du Jesusek Aldareko bere Sakramentuan ta hau guzia zuk an ekusi ezker, geldituko zara urrengo ekusi-aldiak ere Jesusi an egiteko ongi zaletua.



§ III.

Emengo ekusleak erregeri egiten dien bigarren ekus-aldia izaten da beren bizitarako bear duten zerbait erdits naiez; eta bagoazke gu ere nai dugun guzian Jesus Sakramentua ekustera ta Jesusi eskatzera animaren bizirako bear dugun jan-edana. Animaren bizia Jangoikoaren amorea da; bada, S. Joan Ebanjelariak dionaz, «illa datza Jangoikoa maite ez duen anima»: *qui non diligit, manet in morte* (Ep. 1, c. 3).

Jangoikoaren amor-maitantzak eskatzen duen bazka ta jan-edana da zeruko argia ta Jangoikoaren grazia, ta hau ematen dio Jesusek Jesus Sakramentatu bera ekusi ta eskatzen dion edozeni. Jesusek an ematen duen animako jan-edan hau ez da begiz ekusten, baña bere ekusle on eskalari ematen diola adirazi du Jesusek zenbait aldiz bein alde batera ta bein bestera. Aldi batez ara nola.

Jesusen Konpañiko Aita Luis de la Puente deritzan bat birtute andiko gizona izandu zen, Aita Santu Erromakoak azkenik klaratu duenaz. Jesus Sakramentatuagana izandu zuen onek ongina guztiz andi bat. Izandu zituen egunak eun aldiz bere Sakramentuan Jesus ekustera joan izandu zenak eta zenbait aldiz Jesus Sakramentatuaren oñetatik jaiki ta bere gelarako bidea artu horduko, itzulzen zen berriz an Jesus ekustera, ezin egonez bezala ezpazen Jesusen aldean. Ara ta bere belaunak lurrera bezain laster gelditzen zen arritu baten eran; alakoa zen Jesusek ematen zion Sakramentu onen ezagunza ta bere amorea; ta amore ta ezagunz hau guri adirazteko agertu zituen Jesusek zenbait aldiz Sakramentutik argana zijoazen argi-list eder, odei artetik noizbait eguzki zerukoak igorzen dituenen gisakoak.

Euskaldun gureen artean ere badira Jesus Sakramentatuarekin arkiten diran aldian baizik onik ez dutela diruditenak eta Jesusen amorez zoratu ta hordu osoak an daramaztenak eta egun guzia pozik eramain lukeenak. Eta izaten da hau Jesusek an aldi orretan ematen dien bere ezagunz garbi ta zeruko eztinz goisoagatik, edo zeren Jesus Sakramentatuak bere Biotzeko amor ederraren su goisoarekin urzen diezten beren biotzak. Aldi orietan esaten diote oriek eta orrelako beste guziak Jesus Sakramentatu emalle maiteari, len S. Agustinek esan oi ziona, edo «Maite zaitut, bai, nere Jangoikoa; maite, maite zaitut eta berriz ta berriz ere maitatu nai zaitut nik emen zu. Maitatuko zaitut, bai, orain ta beti, nere Jangoiko ezin eder maitagarriagoa ta maitatuko zaitut biotz osoz, anima guziz ta nere alegin guzian. Begir egiozu, nere anima, beti begira dagoki-

zun zere Jangoikoari; billa zazu egiten dituzun gauz guzietan, non nai ta beti billatzen zaituen Jangoikoa, ta malta zazu beti-beti maitatzen zaituen Jesus maitagarria, etc.».

Aldareko Sakramentuko bere ekus-aldietan era orretan Jesusi hitz egiten dionak artuko du, bai, Jesusen eskutik bere animaren jan-edana eta bere gauzak ongi egiteko bearko duen lagunza ta indarra te maitatuko du guztiz zinki Jangoiko Sakramentua, ta Jangoikoa maite duenak egiten du Jangoikoaren legeak dion guzia: *qui diligit, legem implevit*.

Bagoazke, bada, Jesus Sakramentuari hitzket oriek eta geren eskanzak egitera, emengo erregeetara dijoazenei zenbait aldiz agitu oi zaiena agi ta gerta dakigun beldurrik bage. Emengo erregeetara eskean joaten diranak egon oi dira hordu ta hordu ta askotan haste osoz ere, errege ezin ekusiz hitz bi esateko edo eskatzen dutena dion paper bat eskuan emateko, ta gizon andiskoteak ezpadira ta ongi jaunzirik dabilzanak, ez diete erregegana urbilzen ere utziko. Baña ez da oriek bezalakoa gure Errege andi Jesus maitagarri Sakramentua. Hau zuk ekusteko, izanagatik zu munduan den errumes ezer-ezena, ez dezu arteko bearrik; bazoazke edozein horduz, zerori bakarrik hura ekustera ta ari hitz egitera, ta egun guzian egonagatik Jesusi an hitz egiten ta hitz egiten, etzaitzu aserretuko ta luzaro an zu egonaz ta askotan maiz-ardura argana joatez ategin geiago egiñen diozu.

Emengo erreg-andiak banaka arzen dituzte orietaratzen diranak, zeren batetan ezin aditu duten batek esaten diena baizik; baña millka ta millka Jesus Sakramentatuagana joanagatik hitz egin nai dioten guziak eta guziak batetan eskatuagatik batak bata ta besteak bestea ta batek ere ez, bestek eskatzen diona, aditzen du bakoitzak esaten dion guzia ark berak baizik hitz egiten ezpalio bezala, ta oni ta beste guziei ematen die ongi eskatzen dioten ta dagoten gauza ta oriei hau ematez arzen du Jesus emalleak, arzalle berak hura arzez diña poz eta atseginz, bai ta agitz eta agitz andiagoa ere.

Emengo erreg-aberatsenak ere gauz anitz eskatzen diozkanari eman oi dio bat edo beste edo bat ere ez; baña Jesus Sakramentatuak ematen diozka bere ekusle-eskalari bear dituen guziak, bat ere ark ez eskatu ta ere. Bazoazke, bada, agerzen den oraingo egunetan edo gorde-rik dagoen beste edozeinetan; bada naiz aldare ganetik, naiz bere sagra-rio gilzatutik adituko du esaten diozun guzia ta emanen dizu kupide bage eskatzen diozun ta bear izaten dezuna, ta bein ta berriz ta nai dezun guzian eskatzera joanagatik, beti-beti ongi artuko zaitu Jesus maite Sakramentatuak.



Zoazkio, bada, ta eska zagozu bein ken dezala zure bekatu guzien ezkabi ta lepra zikiña; urrengo aldian barka ditzala zure bekatu beren zerrak; urrengoan aiena dezala zugandik sulezeko etsaia, munduko arrokeria ta aragi situaren tentanza; ta urrengoan argi egin diezazula munduko ta zeruko gauzak diran gisan ezagutzeko ta bear diranak artu ta beste guziak uzteko bear den grazia.

Lurreko erregeetara zenbait aldiz joaten dira emengo gizonak orien eskutik zerbait artu dutenean artu dutenaren eskerrak ematera; ta orretara ere joan bear du fededun Jesus Sakramentatuaren maitale enak, eta joan bear du lurrekoa bere erregegana baño naikunz eta gogo geiagorekin; bada erregegandik emengo gelenak arzen dutenak baño mil-milletan geiago balio du fededunak Jangoikoaren eskutik aldi bakoitzez arzen duenak eta artu den ondasunari dagozkanak izan bear dute ondasungileari ematen zaizkan eskerrak. Eta orra zenbait egongai on Jesus Sakramentatuagana joaten zaran aldietakoa.

Kondesa de Feria zeritzan Españiko dama andi bat gelditu zen alargun ogei ta laur urteko. Ostiko hau eman don munduari beste bat berak eman ta sartu zen serore edo monja Santa Klararen konbentu batean ta egin zuen an santa baten bizitza. Egiten zituen beste gauz onen artean bat zen egunean anitz horduz Jesus sakramentatuarekin egotea. Beraren adiskide andi dama batek galdetu zion egun batez zet egiten zuen. anbat horduz an. «Zet egiten dudan an anbat horduz?», eranzun don ark; «ez dakizu an arkitzen dela, Sakramentu andi artan, Jangoikoaren edertasun bazter bagekoa, ta edertasun, ekusten duena zori oneko eginik uzten duena? Pozik egonen ninzake an nere bizi guzian nere Jesus Sakramentatuarekin hura laudatzen, hura maitatzen, bera serbitzeko ta ni ena izateko bear dudan guzia eskatzen; nigatik egin ta eraman duenaren ta niri egin dizkidan ontart eta ongi guzian eskerrak ematen ta adirazi nai dizkidan gauzak aditzen». (*P. Mart. Roa in ejus vita*). Eta orra Jesus ekus-tera zoazen aldietan, ta nai badezu aldi oro ere, dagikezuna. Jangoiko berak dizula egiteko gogo ta lagunza: bai arren, bai.

XLII

Espiritu Santuaren Bazko-ondoko irugarren igandeko irakurraldia

*Congratulamini mihi, quia inveni drachmam,
quam perdideram. Luc. 15.*

Gaia: Birtutea da neke guziak arinzen ta irabanz andiak eragiten dituen gauza

Batek bein beste bat begitan artu ezker, begitan ematen diote bestearen gauzak, beste onen gauzak izanagatik onak eta zuzenak. Hau da bere sui on Dabidekin Sauli agi-gertatua. Agitz onak ziran Saul erregerendako Dabidek egin zituen gauzak; bada bein bere eskuz ill don, Saul bera ta beraren jende ta exerzitu guzia deshonoratzen zuen gizon arrigarri jigante bat; berriz ta beste askotan eunka ta millka kendu ziozkan bere etsai filistar gaistoak. Saul errege naigabeturik ekusten zuen aldian arzen zuen Dabidek bere arpa ta egiten don soñu ederrarekin arinzen ziozkan bere tristanzak, eta aldiak zekarren guzian egiten zuen Dabidek Saulen onerako izanen zela zeritzan guzia; ta al-ere Saulek Dabid begitan beti artua ta Saul beti Dabid galzeko bidetan sartua.

Hau bera da Jesus maitagarriarekin farisetzar ta eskrib gogorreki agi-gertatua, Jesus niol-ere ezin ekusia ta galdu naia. Noizbait eraman zuten Jesus zirudienaz onez jaten ematera ta izaten zen bere lanez edo hitzez nastu ta deshonoratu ta galdu naizik. Barkatzen baziozkan Jesusek bekatari damutu bati bere bekatu kulpak, aren urrikalza laudatu ordean, blasfemari gaisto, Jangoikoaren deshonorari bat zela esaten zuten eskribak eta orien lagun farisetzarrak; eta egin zezala Jesusek nai zuena, guzia zen gauza gaistoa gizatzar orien begietan. Hau da ebanjeli mezakoak gaur adirazten diguna.

Tratalari edozein ta edozein bekatari urbilzen zen Jesusen hitz onak aditzera, dio Ebanjeli gaurkoak, eta hau ere gaitzat arzen zuten gizatzar oriek, eta «orra», zioten, «bekatari galdu tartean dabil ta bere jan-edanak ere oriekin egiten dituela». Aditu zuen Jesusek edo ezagutu orien erausi hau ta arzai onak eta andre kontuzkoak egiten duten lan bana agertu ta, adirazi zien aiek makurzat arzen zuten Jesusen gauz hau egiteko zuzenak



eskatzen zuena zela; ta adirazi zien, esaten ziela: «Arzai batek ardi bat besteetatik atera ta nonbait gelditu zaiola ekusten duen aldian egiten duena da beste guziak utzi ta aren billara joatea ta dituen guzietatik txarrena izanagatik, bere soñean artu ta itxera ekarzea ta bere atseginz ta poz andia auzoko guziei agerzea». Hau esan ta esaten die farise, eskrib ta an arkitzen ziran beste guziei: «Berrogei ta emeretzi on ekusteak baño poz eta atseginz geiago ematen du zeruan gaizki zebillen bat ondurik eta bere bidean ekusteak», eta bidenabar adirazi zien orregatik zela, zebillen gisan, bera bekatarri gaisoen billan ibilzea ta oriekin, egon oi zen gisan, pozik egotea.

Gaurko Ebanjeli berean ta oni ditxakola esaten die Jesus berak: «Zerbait diru galdu duen andreak hura arkitu naiez argi bat artu ta bere dirua arkitu arte guzian an ta emen ta itxeko bazter guzietan dabbil billan, ta arkitzen duen horduan arkitu duelako berri ona bere auzoko ta adiskide guziei poz andiarekin ematen die». Bi gauz oriek esan ta bukatzen du Jesusek gaurko Ebanjeli santua, berriz esaten diela: «Atseginz andiak izanen dira aingeru guzien artean gaisto bat ondurik ekusten duten aldian».

Arzaiaren ardi ta andrearen diru galdu-arkitu hau animako bake galdu-arkitua da. Nork arkitzen du hau lenenik, mundutarrak edo birtutetsuak? Aldi onetan ekusiko dugu.

§ I.

Adanek paradisua galdu ezpalu, bake ta soseganz andian biziko giñan guziok paradisu berean. Galdu zuen Adanek bekatuz bere ta gure paradisua; galdu zuen ark an zuen guzia, asalatu zituen bere ta gure barrenak, sartu ginduen munduko aranz-elorri ta naigabenz eta ezdabai-deen erdian ta utzi ginduen zerbait bake on bilzen bagenuen askotan galzeko bidetan. Geren bake hau guri galerazteko bideak dira senarraren edo humearen gaitza, alderen baten kaltea, adiskideari egiten dioten txarkerria, ezarzen diguten auzi-pleitua, asmatzen diguten gezurra, esaten diguten hitz gordina, dugun ondasuna kenzea edo era bereko beste zerbait.

Bake bera guri galerazteko bideak dira bestek gu hitzez, ondasunez edo izatez azpiratzea, edo guk ekustea bestek eraman duela gerenzat guk nai genuen honra, irabanz, egitekoa, edo hitzketan edo jardukitzen gu

norbaitekin asten garan aldian, gererik ezin atera dugula ta gurea baño beti arena geiago dela ekustea.

Bake bera guri galerazteko bidea da erriko edo itxeko gauzak gaizki ta makur ekustea ta oriek guk ezin zuzendua; bai ta gaistbak nai dutena guri edo besteri egiñagatik, ongi gelditzen dirala ta denbor berean onak nekeetan ekustea ere. Geren barrango neke bera galzeko bidea da neketan, lanetan ta izerditan bid bearra ta bein zorpe gogorrean, berriz arzekorik ezin bilduz ta geiagotan emendik ara gauzen billan ibilli bearra, ta era bereko beste gauzak ekustea, ta bein ta berriz ta askotan hau guk ekustea, bakearen gal-bide agitz andiagoa da.

Arkitzen dira emen lur gañean zenzu bageko zenbait eta birtute andiko beste, neke ta kezka-bide orrenbaten erdian egonagatik, barrango beren bakea galzen ez dutenak eta Frisiko aur ta katu baten gisan arkitzen diranak. Milla ta bost eun ta larogeigarren urtean aserretu ta agitz igan ziran Olandan ta Zelandan itsasoko urak. Itsasoaren aldi artako ur biziak edo urbelde andiak beren bag-olast aserretu andiekin urratu zituzten beste aldietan gelditzen zituzten paretak, edo gañez egin zien antepar ta pres guziei; bai ta errietako itxe ta bazterretako arbol luzeenei ere, ta itoak gelditu ziran Jangoikoak daki zenbat aur, andre ta gizon, ta geldi etzitezen orien lagun egiñak eta galduak beste guziak, Frisiko kargudunak billerazi zituzten al zituzten gabar ta batel ta txalup guziak eta bakoi-tzari zegozkan mariñelak emanik, igorri ta bidaldu batera ta bestera, bizi-rik arkiteen ziranak bilzera.

Arkitu zituzten zenbait urak oraindik estali etzitzen tellat gallurretan, pago puntetan edo aritzen bateko sustraiei itsatsiak eta beste zenbait urak ondotik atera zuen ta batetik bestera zerabillen aritz adarretan, ol puskan edo igerian, ta azkenean arkitu zuten sasi batek gelditua aur-seask itxeren batetik urak atere ta ur berak ondatu bage ara eramana.

Urbildu zen txalup bat seaskara zer ote zedukan ekustera ta arkitu zituen seaskan aur bat eta katu bat eta biak loak artuak, urak itxetik atera zituenean bezala. Horduan zebillen aize otza garaitu zuten aurrak eta katuak, batak bestea berotzen zuela, ta gauz astunak ondatzen zituen urak eraman zuen batetik bestera orien seaska ta kulunkatu zituen aurra ta aurraren oñetan beldurrik bage zetzan katua, gal etzezaten beren loa.

Era onetan, bada, zenzurik ez dutenak askotan beinzat ez dute eza-gutzen zenzudunak eta buru eneko beste guziak ezagutzen duten gaia tza ta kaltea, ta orregatik dira lo dautzan aur-katuen gisako gizonak, eta lotatik iratzarri edo zenzura etorri arte guzian, nekeak eta kalteak dakarren naigaberik izaten ez duten loti, kaltear, zenzu-gabeak, zeren ezagutzen ez



den kalteak kezkarik ematen ez dion nekerik bage azpian dadukanaren biotzari.

Baña zenz-gabe oriek baño obeki arkitzen dira neq-artean birtute-dunak; bada zenzu bageak baño geiago ez dute galzen beren bakea ta bidenabar egiten dituzte zenzurik ez dutenak egiten ez dituzten irabanz andiak; bada Jangoikoaren izenean ta ongi eramaten dituzte egiten zaizten kalteak, ematen diezten neke-naigabenzak eta bidenabar me-meki ta baq onean egiten dituzte beren gauzak eta egiteko guziak, eta eramaten ta egiten lotan baleude bezain soseganz onean, ta elurrak, aize gogorak, beroak, euriak edo beste edozein eguraldi ta element gaistok golpatzen dituen aldian esaten dute S. Franzisko de Borjak esan oi zuena: «Anitz zor diot nere Jangoikoari; bada zeruko graje-tiraka ta animako goisoak botatzen hari zait aldi onetan, ta zenbat ere geiago tiratzen dizkidan, anbat obe neretzat; bada honratuagoa, aberatsagoa ta ondasundunagoa uzten nau ta zeruko glorigai geiagoz bete».

§ II.

Baña birtute andizko bakanak dira orrenbat atseginz eta bakerekin arzen dituztenak ekusi ditugun neke-penak eta era bereko beste gauzak. Orrenbat birtute ez dutenak eta beste mundutar gaisoak Frisiko beste jende telle artan ta onetan arkitzen ziran ta ur gañeko zur ta ol puskan edo igerian zebilzanen gisakoak dira. Oriek guziak ur egiñak arkitzen ziran ta otzez igaro-galduak eta ikaraz, kezkaz ta beldurrez beteak. Era berean, bada, barren asaldatuarekin ta soseguzko bakerik bage arkitzen dira naigabe zerbait edo neke berekin duten mundutar gaisoak eta birtute andirik ez dutenak; bada minberea da berez gizonaren biotza ta gaitz bat egiten zaion aldian kezka ta min arzen duena.

Bitatik zein dela uste dezu, mundutar ez-birtutetsua edo jainkotar birtuteduna, bere kezka ta miña lasterrago garaitu ta len bezain bakedun gelditzen dena? Zein, kezkak eta miñak irauten duten denboran obeki oriek eramaten dituen? Aldi orrelakotan ekusi dezu birtutedunik bere burua sokaz urkatu, urari eman edo putzuan ondatu denik? Ekusi dezu mihira zetorren guzia gaitz hura egin zionari aurtiki, tira ta bota dionik? Ez segurki. Eta ekusi dezu aldi orietan konfesor onak esaten diena egin, komunio on bat artu edo Santo Kristoren oñetan zerbait oititz egin ezkeru, bere barrena eskuratzen ez duen birtutedunik?

Beste alde mundutar gaisoetatik zenbat arkituko dituzu gis bereko aldian sierpe izurduaren eran sutzen ez diranak, uzket gogotrak egiten ez dituztenak, anitz gaistakeri beren gaista-giñak gatik esaten ez dutenak eta aserre ta aserre geroko egunetan ta denbor luzean ere egoten ez diranak? Eta orietatik bat edo beste ez da gelditu bere eskuz urkatua, putzu osiñean ondatua edo leiotik bere burua bota ta illa ta lertua?

Gure Konpañniko Aita bat joan zen bein ama-alab gis onetan agitz naigabeturik arkitzen ziranak ekustera. Konbentu batean azia ta ezkonberria zen alaba; ama mundutarra ta bere meza enzun ta noizean bein komulgatu ezkeru, kristau egiteko guzia egin zuela uste zuena; nai etzuen hitz bat esaten bazioten, bi edo sei eranzuten zituena ta gauz guzietan edo beinzat al zuen guzian gogoak ematen ziona egiten zuena. Arkitu zituen biak negarrez urtuak eta bien naigabenzak arindu naiez, esan ziezen zegozten gauz egokiak eta besteen artean, oroi zitezela Jesus maitagarriak eta Jesusen Amak obenik bage izandu ta me-meki eraman zituzten naigabe ta oñaze izugarriez.

Hau aditu ta «Jesus, aita», esan don amak bere onerako gis onetan hitz egiten zionari; «Santo Kristo bat eta Ama Birjin ezpataz josia atsegin-gai onak dira fraideenzat eta konbentuetako seroreendako; baño ez gureen gisako biotz mundutarrak arinzeko». Beste azkunza izandu zuen alabak artu zuen bear zen bidez aditu zuena ta zatirik andiena bazuen ere aldi artako naigabenzan, itzuli zen beragatik gurutzean ill zen Jesus deshonratu penatuagana ta Jesusen gurutz aldean damuz ta biotz-miñez lerzen egondu zen beraren Amagana, ta ekusirik deus-ez bat zela Ama-Semeen nekeen ta naigabeen aldean ama-alabak aldi artan zutena ta hura ere beren obenez ongi irabazia, laster asi zen leneko bere oititzak, konfesa-komulgatzeak ta egin oi zituen beste gauzak egiten; bai ta bere naigabenzak, asaldanz eta biotz-min guziak uzten ere; ta zenbait egunen buruan itzuli zen leneko bere bakera. Hau bera egiten du neketan arkitzen den beste birtutedun edozeñek ere, ta egiten du hau, zeren begiratzten dion bere nekeari mundutarrak bezala ez, baizik Jangoikoaren esku-tik datorrenari bezala. Hau egiten ez duen mundutarrak buka lezake bere bizia alab on onen am aserratuak bukatu zuen gisan, burutik irauzirik eta bein ere akordura bage.



§ III.

Mundutarrak bere nekeetan egin oi duena da arri bat tiratzen dioten zakurrak egiten duena. Zakurrak aldi orrelakoan egiten duena da arriari jarraiki, ozka egin ta bere orzak galzea; ta mundutar nekatuak egin oi duena, duen nekea ta naigabenza bere onerako uzten dion Jangoikoari ez-ekusi egin ta naigabetu duen lurrekoagana aserre ta mutur gelditzea ta nondik oni ordein gaistoren bat egiñen dion ta naiko ez duen zerbait esanen dion asmatzen egotea ta denbor orretan barren guzia erretzen idukitzea. Birtutedunak dira gaistoen nekez ta hitz-lanez beren onerako naigabetu dituen Jangoikoagana lendabizitik begiak itzulzen dituztenak, esaten dutela: «Jangoikoa maite duenari gauz guziak on egiten diote; bai ta munduan diran kezkarik, naigaberik eta nekerik andienak ere»: *diligentibus Deum omnia cooperantur in bonum* (Rom. 8,28).

Beren begiraldi orietatik batean esaten dute birtutedun nekatu enak Dabidek era bereko bere neq-aldi batean esaten zuena; bada esaten dute: «Ekusten dut, Jauna, eskupera nazula, nigana den nekepen, kezka eta naigabenz orain dudanarekin. Onzat arzen dut eta nere oben gaistoen alde, den guzia, ta gis berean artuko nuke agitz geiagokoa ta andi gogorragoa baliz ere. Nik eskatzen dizudana da, ekusirik zuk orain bereko nere damu humilla, urrikal zakizkidala ta barka ditzazula nere oben berak eta bekatu guziak»: *vide humilitatem, et dolorem meum, et dimitte universa delicta mea* (Ps. 24,18).

Beste begiraldian birtutedun nekatuak egiten duena da gizon santu Jobek bere neke izugarri batean egin zuena. Job zen eguzkiaren agerraldi batez gizon agitz aberats arkitzen zena ta egun bera joan baño len zuen guzia galdurik gelditu zena; bada etsai gaistoak, Jangoikoak artako eman zion eskuarekin, igorri zituen Sabatar anitz aren idi ta asto guziak ebastera ta ebatsi ziozkaten bat ere utzi bage. Etsai berak erre zituen zeruko odeiak, boterazi ziezten tximist eta ozpin-arri sutu gaistoak eta ill ziozkan bere artald andiak. Etsai berak tentaturik, artu zituzten beren armak Kaldetarrak eta irur aldetik joan ta arrapatu ta eraman Job beraren kamelu-sall andiak, eta bake onean Job beraren seme-alabak elkarrekin jaten zeuden etxe batera aize izugarri bat etsai berak bidaldu ta irauli zuen gainbera itxea ta utzi ziozkan bere hume guziak illak eta egun batean gelditu zen Job birtuteduna humerik bage ta zituen gauz guziak lapurrak eramanik.

Aditu ditugun kalteen berriak artu zituen Job birtutetsuak elkarri zitzez kola ta bata bukatu baño len bestea aditzen zuela. Al-ere zer egin zuela uste dezu Job kaltear naigabetu birtutedunak? Bere etsai deabru amurratuarekin, Sabatar ta Kaldeko lapurrekin edo zeruko odeiekin aserretu? Ez bada, baizik oriek guziak alde bat utzi ta bere onerako gaistoen eskuz igorri ziozkan Jangoikoa billatu ta oni eskuan apa ta muñ egin ta humil-humilki esan: «Jangoikoak emanak ziran nik nituen gauzak; jabeak bezala berak kendu dizkit guziak; bedeika dakiola guziagatik»: *Dominus dedit, Dominus abstulit; sicut Domino placuit, ita factum est; sit nomen Domini benedictum* (Job 1,21).

Era bereko beste aldietan begiratzen dio birtutedunak bere Jangoikoari dituen nekeetan, irabaz-bide andiak eman diozkan Jaunari bezala, ta esaten dio bere buruari, zazpi Makabeo martireen amak orietatik gazteenari esan ziona: «Nere semea edo anima, oroi zaitetz laster-fite bukatuko dirala emengo zure neke-penak eta ez dela bukatuko oraingo zure nekeekin irabazten dezun zeruko gloria» (Mak. 7).

Eta zeren birtuteak arrezazten ta arinzen duen bide on oriek dakarten tristanza, esaten digu Espiritu Santuak: «Arin bizi nai badezu zere neq-artean, bil zazu birtute andia»: *congrega cor tuum in sanctitate, et tristitiam longe repelle a te* (Rccl. 30,24). Bada hau da barreneko kezka, tristurak eta naigabenzak lenbaitlen kenzeko bidea ta zori oneko bide, mundutar gaisoak berandu edo nekez arkitzen dutena. Bizi zaitetz, bada, humil-humilki, egungo Epistolari S. Pedrok esaten digun bezala, ta utzazu zere gobernua Jangoikoaren kontura, bere kontura arrua zadukan ezker. Ibili kontuz ta eme etsaiak nas etzaitzan zere neq-aldi orietan ta izaten dituzun kezka-naigabenz gogorretan zoaz zere Jangoikoagana (len agertu dugun bidez) ta berak sendortuko zaitu ta birtutez ta irabaziz beterik bere aldiaren eramanen bere zerura. Ala gerta dedilla: bai arren, bai.



XLIII

Espiritu Santuaren Bazko ondoko laugarren igandeko irakurraldia

Per totam noctem laborantes nihil cepimus. Luc.

5.

Gaia: Element izugarrian ilzen da
bekatuaren arranzan dabillen gaistoa

Leneko igandean ekusi genuen farisetzar, eskrib eta israeldarren artean jakinsutzat zeuden gizenak ezin ekusi zutela Jesus, zeren Jesusek begitan ematen zien beren arazo ta lan makurrekin; ta arazo ta lan, zekarten lurreko ondasun pisk eta atseginzagatik makurtzat berak ezagutu nai etzituztenekin. Gizatar ez on oriek noizbait aditzen bazuten Jesusek guziei esaten ta predikatzen ziena, izaten zen ekusten zituztenen esankizunak kenzeko edo Jesusen hitzen bati itsasi naiez, arekin gero berari ger egiteko ta azkenean bera bere hitzez galerazteko.

Gizatar oriek bezalako naspillarik eta tolesturik etzutenak ziran ango nekazari, langille ta gis bereko beste guziak eta orregatik ziran gogoenez ta garbiro Jesusi begira zegozkanak, ondo naiez ta asmo zuzenarekin Jesusen hitzak aditzen zituztenak eta Jesusen hitzak aditzeagatik aren ondoren zebilzanak, egungo Ebanjeli santuan ekusten dugun bezala; bada Ebanjeliok dio jenda-giro oriek Jenetsareko itsas bazterrean Jesus ekusi zutela bein ta prisaka ara joan zirala aren hitz enak aditzera ta prediku bage joan zekien beldurrez beteak.

Bazekien Jesusek zertara zetozen oriek, eta oriei berei nai zuten atseginza ta ona egin naiez begiratu zuen itsas bazterrean zeuden bi arranz-txalupara. Utsak zeuden txalupak, zeren orietako mariñel arranzan ibilli ziranak joan ziran sareak garbitu ta txukatz-idorzera, Sartu zen Jesus bietatik batean ta S. Pedrorena zen hau. An arkitzen zen horduan S. Pedro edo ara zen, Jesus an sartu zela ekusi edo aditu. ta. Esan zion Jesusek S. Pedrori bazterretik aparta zezala zerbait txalupa. Eta hau ark egin ta jarri zen Jesus txalupan ta aren hitz onak aditzera etorri ziranetara jiratu ta asi zen jakin bear zutena erakusten, ta erakutsi zien aldi artan aditu bear zuten guzia.

Bere sermoia bukatu zuenean batel-saria eman nai bazion bezala esan zion Jesusek S. Pedrori: «Eramazu orain txalupa itsas barreneta ta bota zazu sare zere arranz-aldia egiteko». «Jauna», eranzun zion S. Pedrok Jesusi, «arrats guzian ibilli gara arranzan ta ez dugu arrai bat arrapatu edo atzitu; baña aski da zuk esatea, edozein gauza nik bertan egiteko ta banao zure izenean sare-aldi bat egitera».

Arraunak artu ta badaramate txalupa arranztegira; botatzen di tuzte an bere sareak, bai ta arrai-bazkak ere. Betetzen dira arraiez sareak eta bildu ta txalupan sarzen asi horduko, asten da urratzen sare. Ots egiten die S. Pedrok beste txalupan zebilzan lagunei. Badoaz ara lagunak beren txaluparekin ta guzien artean doi-doia atera zituzten uretik sareak eta sareetako arraiak, eta sare-aldi artan atera zituzten arraiekin bete ziran gañeraño bi txalupak eta Jangoikoak daki nola eraman zituzten ur bazterre; ain beteak eta urean sartuak zebilzan bata ta bestea.

Orra zein andia egunaz ta Jangoikoaren izenean Apostol onak egin zuten arranza ta zein txarra ta ezer-eza gabaz berak berez ta beren ize-
nean egiña. Zer esan nai ote digu Jesusek egungo Ebanjelioko bi arranz-
aldi oriekin? Onak eta gaistoa mundu onetan egiten dutena. Onen emengo arranza ta bizia egunaz ta Jangoikoaren argiarekin egiten den lana dela; ta lan ta bizi, egille berak beren aldian irabanz andiarekin zerura eramaten dituena; baña gaistoena dela illunbeko bizia, ta bizi nekari zori gaistoko erio batek bukatzen duena, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

§ I.

Bai, zori gaistoko bizi nekari illuna da gaistoa emen dakarten bizia ta biziaren erakoa da orien beren emengo bukanz-akaballa.. Jangoikoari argirik eskatu bage hari dira emen gaistoa beren arranzan, ta beren biziko gau guzian hariagatik, ez dute zeruko majan ager diteken arrai bat ere atzitzen edo ez dute zeruko glori tanta bat balio duen irabazirik egiten. Jangoikoak daki goizetik arratseraño zenbat sare-aldi botatzen dituzten emen gaistoa; baña guziak ustelak zerurako, zeren guziak egiten dituzten zeruko arrai-irabanzik ez den bazter ta gauzetan.

Emen bertarako ere utsak dira gaistoen gabazko sare-aldi ta lan geienak; bada gaistoa beren sare-aldi lanetan atera nai dutena da lurreko honra, lurreko arranza, lurreko diru, ondasun ta aragiaren atseginza.,



ta beren biziko gau guzia arranz onetan egiñagatik edo egunak, hasteak, illak eta urteak honren ondoren, egiteko andien billan ta diru, ondasun ta atseginak bilzen galduagatik, azkenean arkitzen dira anitz beinzat uts eta bage edo orien billan asi ziran aldian baño anitz geiago ez dutela edo zutena baño agitz gutiagorekin; ta esan dezakee gabazko arranzal utsak bezala: «Gau guzia arranzan galdu dugu ta sare uts zikinduarekin edo osasun galdu bekatudunarekin gelditu gara»: *per totam noctem laborantes nihil cepimus*.

Berriz ta berriz ere beren arranz berera itzuli ta eriotzeko hordu-raño arranz honetan ibilzen badira, berebat agi-gertatuko zaie; bada azkenean arkituko dute beren burua nekez urratu-galdua ta besterik ez: *lassati sumus in via iniquitatis et perditionis*; ta arkitzen gara, esanen dute horduan, era damugarri onetan, zeren buru gaistoz sartu giñan ekarri duguna bezain bide gogor galduan: *et ambulavimus vias difficiles* (Sap. 5,7). Eta beren biziko sarean zerbait arrai edo honra, ondasun ta diru arkituagatik, guzia izanen da arrai ustela ta arranzale gaistoaren anima gorputzetik ateratzen den aldian munduko bazterren batera bota bearra; zeruko maira ezin atera ditekera arraia ta gauza da alabaña, ta orregatik da gauz eta bizi galdua, ori atzitzen gaistoak egin duena.

Baña agitz ustela izanagatik bekatariak bere gau illunean ta bizi gais-toan bilzen duen honra edo ondasuna, agitz malte duen gauza da ta ill hordu berean hura bazter batean utzi bearrak urratzen dio bere biotza, Inditik datorren aberatsari bere ondasunak urari eman bearrak bezala.

Zenbait urtez Indian ondasun andiak bildu ta badator poz osoarekin bere errira espaindar aberats bat. Dakarren onziak izandu du andik Espain bazterrearaño nai bezalako aizea ta eguraldia; baño egun gutiren buruan bere itxeko ta dituen adiskide guziak ekusiko dituelako pozarekin arkitzen den goiz batez, asten da irakiten bezala azpiko itsasoa, agerzen da itsas gañean itsasoak ekusi duen aizerik bizi-errebena. Aizeak ez die marinelei ematen onzi-oial zuriak edo belak bilzeko hastirik. Aize berak eta itsas amurratuak badarabilte onzia ego-ifar izugarri batek emen luma bezala. Orain badirudi odei beretaraño bota bear dutela bere zut ta marinel ta karga guziarekin, ta bat-batean jaisten da itsasoaren ondora, andik berriz aterako ez dena dirudiela.

Bitarte onetan urratzen dira onzia aizez batetik bestera eramateko diran oial-zuri belak, austen dira oriek zabaldu idukitzen dituzten onzi-zur luze lodiak. Oriek autsi ta urratu arte guzian aizeak eta itsasoaren olast-bagak erabilli dute onzia bein bota batera, bein bestera, bein zearka, bein inguruan, dena gañetik azpira urratu bear balute bezala; ta

orrenbat tund eta erabilz gogorrekin bere toki bakoitzetik igitu diozkate olik geienak edo beinzat anitz eta asi da onzia urez betetzen. Eta mariñelak alegiña egiñagatik onzian sarzen den ura bonbaz kenzeko, kenzen dutena bezalako sei sarzen da aldian, ta beste bideren bat arzen ezpada, laster ondatuko dira onzi bera ta onziko guziak.

Arzen duten bidea da zerbait gallet edo itsas-ogi ta edateko ut utzi ta onzian den beste guzia urera botatzea, onzia arindu ta urean zerbait goratzeko; ta gauzen jabeak nai ta ez, artu ta botatzen dituzte mariñelak arkitzen dituzten gauzak; bai ta espaindar aberatsaren arte ta ziliar ta ondasun guzia ere.

Anbat urteko neke-izerdi, logabenz, arazo, kezka eta beldurrekin bildu ta zekarren ondasuna bat-batean mariñelen atzaparretan ta andik laster itsasoan ekusten du, zenbat bere miñ ta biotz-oñazerekin? Nork adirazi? Bazterzen da lagun erditik eta zokoren batean bere burua bota ta asten da ai-ka ta ai-ka ta esaten du: «Zori gaistoan artu nuen Indirako asmoa ta sartu nuen onzian oña! Itsasoarenzate haritu naz anbat urtez Indiko nere lan nekari arazozkoan ta arkitzen naz gaur nere itxetik atera nintzan egunean baño agitz bearsuago ta bage. Non agertuko naz ni gaur, itsaso aserretua palakatu ta onziak ur gañera igan ta itsas bazterreara eramaten banau ere? Eskean edo nola joan bearko dut nere itxera? Eta inditar aberats egiñik itxean uste nindutenak, nola artuko naute deus bage ta esku utsean ekusten nauten aldian? A, nere urre, zillar, diru ta ondasun maitea, nora zoaz zere jabea bage ta bearsu uzten dezula? Ai, hau nekea! Ai, hau damua! Ai ta ai!».

Hau da inditar aberatsak aldi artan diona. Eta zer ote da bekatari ondasundun batek eriotzeko elementak bere gauzak kenzean esaten duena? Kenzen diozka dituen bazterrak eta ondasunak; kenzen diozka bere jan-edan goisoak eta lo egite luzeak; kenzen diozka, dio Espiritu Santuak, «edari gogor, izugarri, bomitariak barreneko kolerak bezain era ta gis illgarrian»: *divitias, quas devoraverit, evomet, et de ventre illius extrahet eas Deus* (Job, 20,15); kenzen diozka bere soñeko ederrak eta apainket ego-kiak, bai ta egin eituen irabazi ta diru guziak ere. Zer naigabenzak, bada, ta zer biotzeko miñak era orretan bere gauzak galdu ta ilzen den gaistoak aldi artan izanen dituenak.



§ II.

Bai? Bada ez dira oriek hordu artan gaistoak dituen naigaberik eta biotzeko miñik andienak; andiangoak eta agitz andiangoak dira bere bekatuaren aldetik dituenak. Hau guri adirazteko, itsasora itzul-erazten gaitu Job santuak; bada esaten digu: «Gaistoen bizia itsasoko elementan bukatzen da»: *moriatur in tempestate anima eorum* (Job 36,14).

Eriotz gogor izugarria da itsas-elementako eriotza. Len ekusi duguna bezalako element batean badabil zenbait egunetz onzikoak, bag-aldi edo olast oro onzia ondatzen delako beldurrarekin. Azkenean ondatzen da onzia ta hura ondatz berean; horduko prestatua dadukan ol pusk batekin tiratzen du itsas bag-olast aserretuen artera bere burua, beste onziren bat an agertu artean ur gañean iraun naiez. Baña igerian ezpadaki, lenbiziko edo bigarren itsas bag-olastak kenzen dio daraman ola ta badao bera arri baten gisan itsas ondora, ta ara horduko, ur gaziz bete ta gelditzen da itoa.

Igerian zerbait jakiñagatik itsasoratzen den onzikoak ur gañean ezin iraun dezake anitz denboraz; bada lan gogorra da luzaro artan irauteko igerian besoak eta gorputz guzia nekatzen ta nekatzen haritzea, ta lan gogorragoa itsas aserretu baten olasten ta bag-ar-tean hau egitea. Badarabilte, bada, bagak bein azpira, bein gañera, bein batera, bein bestera ta bitarte guzian tunda gaistoak ematen diozkatala ta ur zati min gazi zenbait ere edanerazten diotela.

Arte artan gertatzen zaio itsaso berari barren guzia nasturik dadukanari agi-gertatu oi zaiona: jan ta edan duena beregandik aien-botatzea; bada bere aserraldi artan nasten da ondoraño itsasoa, ta gainbera ta bate-tik bestera dabilzan olastak edo ubelde biziak badaramazte azpitik gañera, ta ur gañean itsas bazterrera, itsasoak len jan ta ondoan usteldurik zeduzkan ol pusk, soka zati lodi, belar ta zakarrak, eta orien usai gaistoak laburzen diote bizia ilzen dabilen itsasokoari ta azkenean urez ta nai-gabez beterik itotzen da, arraien bazka geroz izateko.

Era orretan, bada, dio Job santuak, ilzen da bekataria edo ateratzen da mundutik bekatariaren anima; ta ateratzen, sulezeko etsai amurratuaren atzapar urralle gogorrean gelditzeko. Animaren onzi gorputz txarra era gaistoan darabilte azken eritasunaren elementak edo bein oztak, bein beroak, bein sukarrak, bein erdi bi burua egiten dion oñazeak, bein ezin janak, bein egarriak, edo edari latz miñak, bai ta barberen esku gogorak, bere ezur agitz nekatuak eta beste anitz gauzek ere.

Era orretan arkitzen den animak etsi du osasunaz, bai ta beste bere gauz guziez ere; guztiak uzten ditu biotzeko min andiarekin ta arkitzen da bera infernuko putzuan ondatzeko beldurrez, ikara. Loak iges egin ta utzi du, ta nai ez lituken gauzak ekusteko begi ta buru erne irazarriekin arkitzen da.

Igeri gaisto artan dabilen animari agerzen diozka eriotzeko element izugarriak bere barreneko zikinkeri ustel, usai gaistodun guziak. Agerzen diozka aurtasuneko zoko-lanak, gaztetasuneko eskukak, ezpainak, nas-tekak eta ibiller loiak; agerzen diozka gogo loituaren asmo galduak, aragi sutuaren loikeri zikiñak; agerzen diozka ez-tarri gaistoaren edate luze beroak eta gañezko janzak; agerzen diozka bere jokatze galduak, borondegietan edo edantegi zenbaitetan egiten zituen beranduraño-ko egonzak eta an batagatik edo besteagatik bere buruari ematen ziozkan tunda gaistoak, beraren itxeko gaisoak izaten zituzten kezak eta naigabenzak eta humeei ta erriko guziei erakusten ziezten bide galgarriak; agerzen diozka bere ebaste, tratu gaisto ta beste gaistakeri guziak, bai ta egin ta eragin dituen beste bekatu guziak ere.

Lotatik irazarri ta lapur armatuz bere burua inguruturik eta ezin iges egin dezaken toki batean sarturik arkitzen dena baño milletan ikaratuagoa arkitzen da horduan orrenbat bere bekatu izugarri dituen anima ta arkitzen da norgana itzuli edo zer egin ez dakiela; ta bere buruarekin diardukala dio, len gisa ta tranze berean arkitzen zela Antioko gaistoak ziona: «Orain ilzeko puntuan oroitzen naz nere bizian egin ditudan bekatu guziez ta orien arrean andi gaistoenez»: *nunc reminiscor malorum, quae feci in Jerusalem* (1 Mach. 6,12).

Eta onenbat bere zakar ta bekatu ekusi ta esaten du Antioko berak bezala: «A, ta zein andia den itotzen nadukan nere bekatu gaistoen elementa ta zein izugarria nere barreneko tristuren olast-bagak ematen didaten tunda»: *in quantam tribulationem deveni, et in quos fluctus tristitiae* (1 Mach. 6,11). «Zori gaistoko nere bizitz itsusiagatik dira azpian nadukan nere eritasuna ta eritasun galgarriaren lagun gaisto ta neke guzia; eta orra, ilzera noa tristuraz betea ta amurrantz gaisto baten atzapar sutuan erdi urratua, ta ilzera noa Jangoikoak bere aldetik eta zeruko bazter guzietatik aienatuko nabelako siñistanz osoan»: *et ecce pereō tristitia magna in terra aliena* (v. 13).

Españiko inditarrak itsasoko elementan bere ondasunak eta bizia galduagatik, irabaz dezake sekulako gloria, ta zori enekoa hura, hau erditsi ezker. «Ni naz, ni», dio ilzen den bekatari gaistoak, «nere biziko gau illunean alferrik nekatu nazana ta zori gaistoan jaioa; bada eritasuneko



elementan ito ta ill ondoan ondatu bear dut eternidade guziko gau illunagoan ta sulezeko neke-tormentu guzien erdian». Orra zer erioa bekatariaren bizi gaistoa bukatzen duena! Nai ezpadezu zeretzat, egin zere gauzak egunaz, Jangoikoaren izenean ta ongi, Apostol onak beren arranza bezala, ta Apostol beren lagun izanen zara zori eneko glorian. Izan zaitezela, bada: bai arren, bai.

XLIV

Espiritu Santuaren Bazko-ondoko bostgarren igandeko irakurraldia

Omnia, qui irascitur fratri suo, reus erit iudicio. Matth. 5.

Gaia: Mandamentu agitz ondasunduna
maitanzako mandamentua da

Ur tanta bat besteen igesi balebill ta beste tant guziak hau bera egiten balute, ez lizake itsasorik munduan, ez eta putzurik, ibairik edo iturrik ere; bada iturriak iturri izateko bear ditu anitz ur tant, eta ur tant, elkar arturik datozenak; eta hau bera agitzen zaie ibaiari, putzuari ta itsasoari ere. Arri bat eta bestea eta bestea elkarganatzen ezpadira, ez dute egiñen itxerik, ez eta paret bakarrik ere; bada arri bakoitza ez paret eta ez itxe da, ur tanta ez itsaso, ez putzu, ez ibai ta ez iturri den bezala.

Gisa berean amar mili gizon ta beste anbeste andre munduan izanagatik, bata zoko batean ta bestea bestean, hau mendi edo buter onetan ta hura artan bizi badira, ez dute erri txiki bat ere egiñen, zeren erria den elkarren aldeko zenbait itxetan gizon-andreak dituen tokia. Eta toki onetan ta er orretako itxeetan oriek biziagatik eta erri andi bat egin ta ere, elkar ezin ekusi duten katu-zakurren gisan bizi balira, erri gaisto bat egiñen lukee guzien artean.

Bataitu guziok Kristo Jaunarekin ta Erromako beraren Bikario Aita Santuarekin egiten dugu Jangoikoaren Eliz edo kongreganz bat; baña kongreganz eta Eliz gaistoa egiñen genuke, elkar ezin ekusi dugula bizi bagaña; eta ona izan dadin, esaten digu S. Pedrok egungo bere kart-epistolari: «Fededun onak (gogoz ta biotzez) bizi bat egiñak, elkarri lagunduz egin zeren otoitzak eta batak besteentzat izan urrikaldunak, hitz egille leunak eta izatez humillak. Batek ere besteren gaizki egiñari edo hitz gais-toari ez dio hitz gaistoz edo bear ez den lanez eranzun bear. Egin bear dena da gaistagiñei ere ongiz ta hitz onez eranzutea; bada artako bataitu gara ta hau da Jangoikoaren bedeikanzak erdisteko bidea».

Zerura igan nai duenak eta emen berean ere ongi bizitzeko ez du besteri ez dagokan hitzik zer atera, ez eta bataioko legeak debekatzen duen gauzarik zer egin ere. Utz beza bazter guzietan bakea ta bake oso



betikoa; bada barkedun onei begira dagote Jangoikoa ta orien otoitzak aditzeko zabaldurik daduzka bere belarri biak eta kudutar gerrati erreak ezin ekusi ditu». Otra aldi onetako Epistolari S. Pedrok esaten ta adirazten diguna.

Oni ditzekona da Kristo Jaunak egungo Ebanjelio santuan esaten diguna; bada esaten die bere Apostol jaunei ta orien buruan guri: «Orie, eskrib ta fariseu zuenak esaten dutena baizik egiten ezpadezue, etzarazte sekulan zerurako; oriek diote ez dela zillegi batak bestea ilzea. Hau egia da ta galdua da besteren ilzalea; baña geiago diot nik, eta diot bata bestearekin aserretzea ere zillegi ez den gauza dela, bai ta biotza minzen dion hitz gaisto bat ari esatea ere, ta orren esalea esaten duen hordutik gelditzen da infernurako sugai gaisto egiña. Eta Jangoikoari present bat egitera edo komunioren bat egitera zoazen aldian, oroitzen bazara norbait aserratua dadukazula, zoaz lenik ari barkanza eskatzera ta hau egin bage ez da zer komulgatu».

Orra Espiritu Santuak S. Pedrok esan digunari zein ederki ditzekona, Jesusek egungo Ebanjelio santuan esaten diguna. Baña zer ote da gauro Epistolako ta Ebanjelioko esan orrek adirazten diguna? Zerura nai duenak beste edozeinekin bat egiñik bizi bear duela ta orri berari naiez ta lanez ongi egin bear diola. Gauz zein zuzena den hau ta zein ondasunduna ekusi bear dugu egungo aldian.

§ I.

Ostegun santu arratsez utzi zituen Jesusek fededun guzientzat gauz guztiz andiak; bada besteen artean utzi zituen Aldareko Sakramentua (gizon egin zenetik ill arte guzian egin zuen milagrorik eta gauzarik andiena) ta orain ekusi bear dugun batak bestea maitatzeko legea ta mandamentua.

Sakramentu andi hau ta arrats artako beste gauzak egin ta asi zen Jesus azkeneko bere sermoi andia egiten ta Apostol bereei esaten: «Nere seme maite onak, denbor laburra da orain nie zuekin egin bear, dudana. Banoa orain ni bestetara ta nerekin ara zuek joan naiagatik, ez da etorri zuen arako joan hordua; hura datorren aldian ara zuek igateko, egin bear dezute len niri aditua ta orain esan nai dudana. Orie, bada, adi zazue kontuz ta ongi lenbizikorik orain esaten dudana; uzten dizuet orain zuei (ta munduko beste fededun guziei) lege edo mandamentu berri bat eta man-

damentua da zuek elkar maitatzea, nik zuek maitatu zaituztedan bezala: *mandatum novum do vobis, ut diligatis invicem, sicut ego dilexi vos* (Joan. 13,34).

Apostoluen gogoan ongi sartua gelditu zen Jesusen mandamentu berri hau, ta hau zen Jesusen mandamentu ta gauz guzieren artean fededunei geienik enkargatzen ziena; bada «Begira», esaten die S. Pedrok, «gauz guzieren artean lenenik eta kontuzena egin bear dezutena da beti-beti elkar onestea ta batak besteei ongi nai izatea»: *ante omnia mutuum in vobismet ipsis charitatem continuam habentes* (Ep. 1 Petr. 4,8).

Eratsu berean hitz egiten die S. Pablok fededunei; bada adirazten die bein ar ditzatela me-meki ta Jangoikoaren izenean ematen diezten naigabenez, egiten diezten txarkeri ta ekusten dituzten bidebage guziak. Adirazten die ez ditezela asalatu asmatzen diezten gezur, ezarzen diezten auzi edo egiten diezten kalte makurrak gatik; ez dagitela irabaziagatik edo munduan den beste gauzagatik Jangoikoak debekatzeko duen gauzarik, eta azkenean adirazten die dagitela alik zuzenkiena beren beste gauz guziak; eta hau guzia adirazi ta, esaten die fededun guziei: «Baña begira, ori guzia baño geiago nai dudana da zuek guziok elkar maitatzea»: *super omnia charitatem habete*.

S. Joan Ebanjelaria izandu zen Apostol guzieren arrear Jesusek geienik maitatu zuena. Hau izandu zen Jesusek bere mandamentu hau utzi zigan arrats berean bere burua Jesus beraren biotz gañean ezarri zuena ta zeruko berei andiak andik atera zituena. Apostol ta Ebanjelari onek, bada, egin zuen, guk dakigunaz, beste Apostoluk baño geiago Jesusen mandamentu hau fededun berei arerazteko; bada agertu zien bere Ebanjelio santuan Jesusen mandamentu hau bein len aditu ditugun hitze-kin ta gero Jesus beraren beste oiekin: «Bai, nere aginza ta mandamentua da nik zuek bezala zuek elkar maitatzea»: *hoc est praeceptum meum, ut diligatis invicem, sicut dilexi vos* (15,12).

Eta Ebanjelioz ez ezik, bere predikuz ere adirazi zien Ebanjelari santuak fededun berei anitz eta anitz aldiz Jesusen mandamentu berezi hau; bada zar-zartu ta ere ta Elizara bere oñez ezin joan zen denboran, aren hitz onak ez galdu naiez besoetan artu ta eraman oi zuten ara ta aldi orietan beti esaten zien: «Nere seme maiteak, maita zazue batak bestea»: *charissimi, diligamus nos invicem* (I Joan 4,7). Anbat aldiz hau aditzez asper-tu ta esan zioten bein aditzen zutenak: «Zertako da onenbat aldiz hau guri zuk esatea?». «Zeren Jesusen mandamentu berezia den», eranzun zien santuak, «aditzen dezutena, ta zeren zuek hau egiten badezue, egiñen dezuten egin bear den beste guzia»: *quia praeceptum Domini est: et, si fiat, sufficit*.



Badakizu nola den hau? edo zergatik elkar maitatzen dutenak egiten duten egin bear duten beste guziaz ere? Zeren elkar maite dutenak maite duten Jangoiko bera ta Jangoikoa maite dutenak egiten dioten Jangoiko berari dagokan honra, errespetatzen duten Jangoikoaren izena, izen hau blasfemitan, maldiziotan ta bear ez den juramentutan ez sarze-ko; zeren Jangoikoa ta Jangoikoarekin batean beste guziaz maite dituzte- nak ongi nai dien beren ait-amei, seme-alabei, erriko lagunei, errirutzen diran arrotzei ta munduko beste guziei; ta zeren orietatik bati ere egiten ez dioten bestek berei egitea naiko ez lukeen gauzarik; eta orregatik ez diete egiten aragizko zikinkeririk, eskuzko ebasterik, hitzezko deshonor-rik edo gogozko gaitzik. Eta orra non, Jangoikoak diona egiteagatik eta Jangoiko beraren amorez besteak maite dituztenak, oriek maitatzearekin egiten duten, S. Joan Ebanjelariak don gisan, egin bear duten guziaz: *praeceptum Domini est, et, si fiat, sufficit*. Orregatik dio S. Pablok hau egiten duenak egiten duela Jangoikoaren lege guziaz diona: *qui diligit proximum, legem implevit* (Rom. 13,8).

Hau ongi zekienaren gisan hitz egin zuen bein Elizako Doktore andi S. Ambrosiok. Aldi artan Theodosio enperadore andia sermoiez lau- datzen hari zen Santu Doktorea eta enperadore baitan arkitu zuen gau- zarik laudagarriena zen beartsu gaisoei egiten zien ena ta ongia; ta dio mundutik atera ta zerura sarzean galdegin ziotela hein aingeru zenbaitek eta gero besteak: «Zer egin dezu zeruan sarzeko?», ta eranzun ziela: «Jesusek esan bezala, besteak maitatu»: *interrogabant Angeli, vel Archangeli: quid egisti in terris? Dicebat: dilexi*. «Eta ederki eranzun zien», dio Santu Doktoreak, «bada besteak bear den gisan ta Jangoikoak nai eran onestea, Jangoikoak dion guziaz zuzenki egitea da»: *hoc est enim dicere: legem implevi*. Hau bera dio berriz ere Apostol S. Pablok, bada dio: «Maitanza da Jangoikoaren legeak eskatzen duen guziazaren bukanza»: *plenitudo enim legis est dilectio* (Rom. 13,11). Edo S. Gregoriok dion bezala, «birtute guziei bizia ematen dien sustraia»: *Virtutes ex una charitate generantur*.

§ II.

Orra, bada, zein egokia ta zein guk bear bezalako gauza Jesusek bere azken arratsean utzi zigun maitanzako mandamentu hau. Hau guri arrerazi naiez ta onek diona gogo obez guri eragiteagatik, Jesus berak egin zuen lenik guri eragin nai diguna, soldadu gerrakoen nagusi onak

egin oi duten gisan; bada soldadu oriei nai dutena eragiteko, orien nagu- si onak egiten dutena da orien egiteko latz gogorretan berak lenik astea ta ibai edo ur andiskote bizi bat igaro bear badute, berak lenbizikorik an sartu ta beste bazterrera joatea; armaz ta soldaduz etsaiak estalia dadu- katen muru edo murall erdi urratu batera igan bear badute, ara beren gerrari guziaz berak eramatea, ara lenbizikorik berak igatea ta era bereko beste gauzak gisa berean egitea. Gis orretan beren nagusia soldadu gerra- riak ekusi ezkeru, ez da guziaz artean bat aren ondolik ez dijoanik eta ark egiten duena egin nai ez duenik.

Hau bera da egin zuenarekin Jesusek guri eragin nai diguna ta orre- gatik esaten digu: «Maite zazue batak bestea, nik zuek maitatu zaituzte- dan bezala»: *diligite inimicos vestros, sicut dilexi vos*. «Etzinazten len zuek nere adiskide; zeren bekatu galduak gatik nere ta nere Aitaren etsai gaistoak ziñazten eta al-ere onetsi ta maitatu zaituztet nik eta nere pen-neke-tor- mentu ta eriotz gogorarekin bat egin zaituztet nere Aita aserretuarekin»: *cum inimici essemus, reconciliavit nos Patri*.

«Zuekin egin dudana egin dut nik munduko beste guzietan, bai ta neke-tormentuak eta gurutzeko eriotz gogorra eman zidaten berekin ere; bada orien alde egin diozkat nere Aitari nere otoitzak eta eskatu diot, zet egiten zuten etzekienei bezala, barka ziezaiela beren lan gaisto onetan egin zuten bekatu izugarria, bai ta beste edozein ere, eta zuen ta orien ta munduko beste guziaz zorren alde present egin diot nere Ait berari nere bizi guziaz ta eriotz gogorrean irabazi dudana. Eta orra, egin dut zuek eta munduko beste guziaz nere adiskide izan baziñazte egin nezaken guziaz. Atozte, bada, nere ondoren ta egizue elkarrekin hau bera ta maite zazu begiz, hitzez, eskuz ta lagunduz batak bestea».

«Orretako jaunz zaitze», esaten digu bakoitzari S. Paulok, «edo ar zazu Jesusen Biotz urrikaldunaren gisako biotz urrikalt bat, bearsu gai- soei barkatzeko ezin dakarkeen zorra; oriei berei edo beste orien erako guziei emateko beren gabenzak eskatzen duena; ar zazu gaistoan gogor- zak eta arrotasun sutu-galduak garaitzeko berakorz humilla; hitz leunez, arpegi ariñez ta begitartenez garaitu bear dituzu orien beren furrustadak eta lotsa-gabenzak. Egiten dizkitzuten bidegabenez, kalte ta txarkeri- obenak barkatzeko, ar zazu Jesus berarenaren gisako bular lasai ta pazienzi andia; hau da alabaña Jangoikoaren mandamentu berezi onek dion ta adirazten duena ederki egiteko bidea»: *induite vos, sicut electi Dei, vis- cera misericordiae, benignitatem, modestiam, patientiam, supportantes invicem, et donantes vobismetipsis, sicut et Dominus donavit vobis* (Colos. 3,12).



Hau zuk egiten badezu ta bake onean bizi bazara, txarkeri hau edo hura egin dizkitzuten berekin ere bake onean bizi bazara ta al dezun ona bearsu gaisoei egiten diezula, «bazoazke», dio Isaias profetak, «alke ta lotsarik bage Jangoikoari nai dezun gauzak eskatzera; bada ongitorri enarekin artuko zaitu ta esanen dizu: «Ona non nauzun (bear dezuna ta geiagoruri emateko): *tunc invocabis, et Dominus exaudiet, clamabis, et dicet: ecce adsum* (c. 58,9). Orrelakoei askotan ematen die Jangoikoak eskatzen ez dioten ona ere. Zori oneko arzalle orietatik izandu zen besteen maitatzalle on Abran patriarka.

Osab-illobak ziran Abran hau ta aren aldean bizi zen ta Loth zeritzan beste bat. Artanz eta beste ganadunz andiak zituzten batak eta besteak. Elkarren aldern zituzten bien arzaiak beren ardien bazkanzak eta bataren ardiak noiz edo berriz sarzen ziran bestearen belarrean ta andik sorzen ziran orien arteko ezбайдak eta erriertak. Ikasi zuen Abran patriarkak orien artean agitzen zen hau eta ekusi zuen ortik zetorkena, artako bidea mugaz oriei ez kenzeraz; ta hau kendu naiez ta bere alde Loth-ekin bake onean bizitzeagatik, zarrena ta Loth-en osaba bazen ere, billatu zuen Abranek Loth eta esan zion enez ta me-meki: «Ez nuke nai, nere illoba, izan zenezan naigaberik nere arzaian aldetik. Gazteak gazte dira ta ez dira buru onezeak gazte guziak, eta zureak eta nereak asi dira beren gaztekerietan ta aserraldietan, ta ez dira or geldituko berezten ezpaditugu. Orien bakerako, bada, ta zu ta ni ere nas ez gaitezen, obe izain da zuk eta nik geren bazterrak billatzea ta bakoitzak bere ganadua ta mutillak berekin eramatea. Ekus zazu, bada, bazter goiztarra, bai ta arratstarra ere, ta zoaz nai dezun aldera; goiz aldera bazoaz, joain naz ni arrats aldera; arrats aldera bazoaz, artuko dut nik beste aldea ta orrekin urratuko ditugu gure mutillen ta gure aser-bide guziak».

Egin zen ala ta berezi ziran bake onean Abran ta Loth, eta bake on hau sortu zuen Abran bedeikatu zuen Jangoikoak beste bat diña edo geiena bedeikatu duena baño agitz geiago; bada eman zion beretzat eta bere ondorengoendako Kanango bazterra, munduan zen bazterrik enena, ta bazter, gero Judako ta israeldarren erreinu egin zena. Erreinu onetarako ta beste bazterretarako eman ziozkan zeruan izar diña ondorengo ta orren ondorengoetatik bat da Jesus Jangoiko gizon egiña; bada Abranen odolekoa da Jesusen Ama Birjiña. Eta ill zenean, eman zion lurpean Abrani beretzat eta beste on guzientzat Jangoikoa gizon egin ta ill ta biztu arteko bere izeneko egontegi bat edo Abranen linboa. Eta Jesus berak andik artu ta eraman zuen berekin zerura, bere bakenz onen ta beste birtute guzian saria arzera.

An bertan baketi andi onen ta beste maitatzall enen lagun izanenez zara zu ere, aren gisan zuk ere egin ezkeroko egungo bere mandamentu andian Jesusek esaten dizuna; egizu, bada, badagikezu ta, Jesus berak lagunzen dizula, ta lagunduko dizu zuk eskatu ezkeroko. Eska zagozu, bada: bai arren, bai.



XLV

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko seigarren igandeko irakurraldia

*Misereor super turbam istam, quia ecce iam triduo
sustinent me.* Marc. 8.

Gaia: Otoitzgille onak erdisten du
bear den horduan eskatzen duena

Bere aldetik uzten ez daki olloak berak atera duen txit bat ere. Txita nora, ara doa olloa. Gaitzen bat norbaitek txitei egin nai diela iduritzen bazaio, asaldatzen da ollo klokari guzia ta badabil batetik bestera, txitak bildu ta beren perilletik atera ditzaño. Miruaren gerizia ekusi horduko, Jangoikoak daki zenbat egiteko ta arazo darabilen olloak, bere txitak gorde ta aren atzapar-pikotik libratu naiez. Egunaz askotan ta gabaz beti gordetzen ditu txitak bere egapean ta lumarte beroan. Berak klokaka ta ibilliz eramaten ditu txitak bazkategira ta an atzaparka zakarrak kenduz ta pikoz bazka ta janari ona billatuz erakusten die gero berak berez bizitzeko egin bearko dutena. Baña olloak hau guzia ta geiago txitekin egiñagatik, txitak iges egin ta gordetzen badira ta miruak gero edo zakurrak jaten baditu, obena ez da olloarena, berena da ta on dagiela.

Zein ere anitz den bere txitekin olloak egiten duena, agitz geiago da gurekin Jangoiko maitagarriak egin nai duena. Hau guri adirazteko esaten digu Jangoiko berak: «A, ta zenbat aldiz gorde nai izandu zaitudan, olloak bere txitak bezala, nere probidenzi ernearen ta lorik egiten ez duenaren egalpean, ta (askotan beinzat) ez dezu sartu nai izandu». Nai dugun guzian, bada, gordeko gaitu Jangoikoak eta urrunduko gaitu geren etsai guzien atzapar gaistoetatik; emanen digu bear duguna ta erakutsiko digu gañerako guziaren arki-bidea, egungo Ebanjelio santuz adirazten digun bezala.

Eremu batean egin zituzten irur egun Jesusen hitz onak aditzen lau mili buruk bezala, egungo Ebanjelio berak adirazten digunaz, ta egun orien buruan biurt-itzuli zen Jesus an arkitzen ziran Apostol bereetara, esaten zuela: «Urrikari ditut orrako gaiso oriek; bada irur egun da nere ondoren dabilzala ta jatekorik bage arkitzen dira, ta zerbait artu bage

bidalzen baditugu, indarrrik bagez ezin itxerako dira (zenbait beinzat); bada orietatik anitz urrutitik etorriak dira».

«Bai, Jauna, baña» (eranzun zioten bereala bere Apostol berak) «nork eremu onetan arkitu orrenbati jatera emateko bear den guzia?» Galdetzen die Jesusek zenbat ogi dituzten. «Jauna», eranzun zioten, «zazpi baizik ez». «Al-ere», esaten die Jesusek, «jar ta eser ditezela diranak». Arzen ditu gero bere eskuan zazpi ogiak eta (oi zuen gisan) bedekatu ta Jangoikoari eskerrak eman ta asten da ogi bakoitza puskatzen ta puskatzen, ta egiten zituen puskak Apostoluen eskuz ematen diezte jan bear zutenei, ta zazpi ogietatik atera ziran lau milla zati ta geiago. Orobat gertatu zen an arkitu ziran zenbait arrai txikirekin ere; bada oriek ere bedekatu ta igor-bidaldu ziezten jaten hari ziranei, ta guziak nai diña ogi ta arrai jan ta, gelditu ziran zatiekin bete ziran zazpi saski. Eta deus-ez bat zela orrenbatenzat Apostol onak uste bazuten ere, lau bider beinzat geiago gelditu zen eman zioten ogitik, lau millak nai diña jan ondoan. Eta ongi jan ondoan bidaldu zuen bakoitza bere itxera.

Orra egungo Ebanjelio santuak diona, eta orrek adirazten diguna? Len geniona. Olloak bere txitak baño agitz obeki zaitzen gaituela Jangoiko maitagarriak, eta zaitzen gaituela eman ez bear duguna, ta eman ez, bear den horduz ta bear bezala. Hau da aldi onetan ekusi bear duguna.

§ I.

Eternidade guzian ta beti bere gogoan iduki gaitu Jangoikoak gu, ta gogoan iduki gaitu ongi naiez ta zori on betikoan gu utzi naizik: *in charitate perpetua dilexi te* (Jerem. 31,3). Hordu beretik badaki Jangoikoak geren zori on hau erdisteko ta emen ongi bizitzeko bear duguna. Geren gurasoz, geren alde edo beste ongillez ematen zigun Jangoikoak lendabizian gerok ezin billa genetzakena, txita jaiio berriei beren bazka am-oloz edo itxeko bezala; ta txit berak azkartu ondoan beren bazka berez bezala, billatu bear dugu guk ere gerez dezakeguna, ta eskatu bear diogu egille Jangoiko maitariari gañerako guzia, ta eskatu bear, ukatuko ez digulako uste osoan. Ez digula ukatuko, dio Jangoiko berak, gauza eskatzen badiogu eskatu bear den gisan ta nastu bage, edo eskatzen badiogu animakoa bein ta gero gañez bezala beste guzia: *quaerite primum Regnum Dei, et justitiam ejus, et haec omnia adjicientur vobis* (Matth. 5,33).



Eskatu bear dira, bai, bein animako gauzak eta Jangoikoaren honorari dagozkanak; oriek dira alabaña lenbizikoak eta bearren diranak. Oriek erditsi ondoan datoz beste guziak, emen berean agitzen denak adirazten digun bezala. Errege edo zaldun baten itxean sarzerik ezpadezu, zeren zere txarkeriz aserretua dadukazun itxa-jauna, ta itxe artan nai badezu irabaz-bideren bat, etzara etxeko nagusia-ganutzen irabaz-bide hau ari bertatik eskatzera; egiten dezuna da argana beldur ta lots andiarekin joatea, humilki bere barkanza eskatzea, lenik aitorzen dezula leneko zere lots-gabenza ta oni zegokan kastigu andia. Hau zuk egin ta barkatzen badizu, ematen diozkatzu zueganako beraren ontasunagatik milimilla esker. Eta gero agerzen diozu zere bearra ta gabenza, ta humiltantz andiarekin eskatzen diozu urrikal dakizula, biotz eneko gizona bezala, ta dizula, arren, era onetako edo artako irabaz-bidea. Baña arganutzen zaranetik artara zuk hura beartu bage eskatzen badiozu irabaz-bide hau, ez hau ta zure lotsgabenzen barkanza erditsiko dezu ta len arkitzen zen baño aserreago geldituko da zugana.

Era berean, bada, egin bear diozkatzu Jangoikoari zere eskantzak eta otoitzak. Bearren dezun gauza da Jangoikoarekin beti ongi etorzea, Jangoikoa zuk ziñez maitatzea ta Jangoikoaren maitantz onek eskatzen dituen gauzak egitea ta artako bear den grazi-lagunza humilki ta ziñez berari zuk eskatzea; bai ta beste gauzetarako bearko dezun esku ta gaia ere; baña hau azkeneko aldian ta gañez bezala; hau da alabaña bata ta bestea erdisteko bidea, ta bata ta bestea galzeko bidetan dabill, lenbizikoa utzi ta bigarren hau eskatzen duena. Hau esan nai zuen Jesusek, esan zuenean: «Ez dezu erdisten eskatzen dezunik, zeren gaizki egiten dituzun zere otoitz-eskantzak»: *petitis, et non acci pitis, eo qudd male petatis* (Jacob. 4, v. 3).

Askotan eskatu diozu Jangoikoari dizula hau edo hura ta ez dizu eman. Zergatik, uste dezu? Zeren auzi txar artan sartu ziñan ta aserre zabilzan enez-onezko ajuste edo zuzenz on bat egiten ez dezula. Eskutan dituzun egiteko ta lanak gaizki ateratzen dira, zeren senarra gaizki dabilen, auzoko batekin gaizki zatozen edo beste ari berea itzulzen ez dituzun. Eritasuna ta lazeria ez da zure itxetik ateratzen, zeren uzten diezun zere humeei nai dutena egiten ta gaizki azitzen dituzun oriek berak eta zere itxeko beste guziak. Eta makur dabilza gañerako zure gauzak, zeren zuzenzen ez dituzun zere animakoak eta Jangoikoarekin gaizki arkitzen zaran ta bizi bekatu bizian; edo zeren lenbikitik eta gaizki eskatzen dituzun, azken aldian ta zere bizitz enarekin bera palakatu ta, eskatu bear zeniona.

Besteekin batean ematen ditu Jangoikoak emengo gauzak ere; baña besteak galerazteko ez den bidez ta askotan beinzat arleak nai etzuen eran edo erdizka. Eskatzen diozu Jangoikoari osasun osoa ta Jangoikoak ematen dizu osasun erdia ta uzten zaitu erdi on ta erdi eri. Eskatzen diozu ondasun andia, uda ugari bat eta era bereko beste gauza ta ez dizu ematen ondasun laurdena edo bat ere, bilze txarrak egiten dituzu udan ta beste gauzak ere agitzen dira eratsu berean. Eskutartean dakarzun egiteko bat zere on andirako nai zenuke; orretako eskatzen diozu Jangoikoari bere lagunza ta al-ere etzaitzu nai bezain osoki atera eskatzen zeniona. Animako naigabenz eta kezka andiekin arkitzen zara ta betiko galzeko beldur txikiarekin ez; eskatzen diozu Jangoikoari barreneko soseganza ta zure bekatu guziak barkatu diralako uste ta esperanz on bat eta gero ere aitzina doaz zure beldurra eta kezka.

Denbor berean lasai ta gaizki bizi diran ta bekatuan arkitzen diran aintz ibilzen dira arinki ta naigaberik bage; jaten ta edaten dute ta jostatzen dira zerurako dirala balekita bezain soseganz andiarekin. Oriek berak edo orien erako beste zenbaitek badituzte ondasunak, izaten dituzte nai bezalako gariketak eta udak, nai bezain ongi ateratzen zaie beren egitekoa ta orrekin batean badute osasun osoa. Beste anbat agitzen zaie ongi bizi diranetatik zenbaiti ere. Zer kontu da, bada, diozu, Jangoikoak gutaz duena?

Zuk bear bezain egoki-zuzena. Gaistoei ematen diezte Jangoikoak ondasun ta emengo zori on oriek, zeren emengo sari hau zor zaien egin dituzten zenbait gauz oni ta zeren beste mundurako sekulako nekea baizik irabazten ez duten ta emen eman bear zaien an ezin ar dezakeen saria. On zenbaiti ere ematen diezte Jangoikoak ondasunak eta beste onak, zeren dakien orien beren enerako izanen dirala; denbor berean ekusten du zure gaitzerako izanen lirakela eskatzen diozkatzun gauzak, eta zure animaren enari begiratu ta gero zeruan zuri mili ta milloi gauz obe emateagatik, ukatzen dizkitzu emengo galgarri oriek. Eta orra, zuri ongi naiez da ta zu obeki zaitzeko, ez dagokizuna Jangoikoari eskatuagatik ark zuri ez ematea.

§ II.

Beste zenbaitez eman bear duena ere ez du Jangoikoak bereala ematen ta askotan bearrean arkitzen diranei esan-erazten die len salmari onak



ziona: «Jauna, ta zergatik» (esaten zion salmariak), «zergatik nere bearrari ez-ekusi ta nere hitzari ez-aditu egin ta beste aldera jirutzen dezu zere begia? Noiz urrikalduko zara dudan gabenzaz ta nere biotz kezkatu gaisoaz?»: *quare faciem tuam avertis? oblivisceris inopiae nostrae, et tribulationis nostrae* (Ps. 43,24).

Egiten du Jangoikoak hau, zeren den emalle epeduna ta bere aldiraño gauzak ematen ez dakiena: *Altissimus est patiens reditor* (Eccl. 5,4). Bere eskuan ditu Jangoikoak gaistoari dagozkan zeanzak eta kastigu gogorak, bai ta onak eta gaistoak eskatzen dituzten gauz onak ere, ta alere bata ta bestea oni ta ari emateko bere aldiaren begira dago. Ez du Jangoikoak gaistoa sulezean ondatu oi, artako den gaizkia egin ta bereala, ta gero ere an hura ez ondatu naiez egiten ditu anitz gauz on, bere begiak ari zabal-erazi ta bekatu guziak begitan arrezazi naiez, ta azkenean ondatzen badu, izaten da bere bekatuan hura gogorturik ekusi ezkeru.

Onari ontart berak egiteko ere arzen ditu Jangoikoak askotan bein-zat bere neurri epeak, eta gaistoa bada eskatzen diona, egiten dio ez-aditu, bere bearrarekin kezkatu idiki ditzan animako begiak, ongi ekusteko bere tranze izugarria ta billa dezan beste gauzak baño len bere anima sendatzeko bear den gaia ta grazia, ta Jangoikoarekin bat egiñik ta presta dadin eskatzen dion beste gauzara.

Ona bada ta bekatu larririk ez duena hau eskatzen dion gizona, ez dio askotan ematen bere-bereala, berriz ta berriz eskatuz ta otoitz berriak ta beste gauz onak egiñez, obeki irabaz dezan eskatzen duena ta ar dezan ongien dagokan aldiren batean ta izan dezan gero zeruan honra ta glori andiagoa. Ederki hau adirazten duen gauza da Egipton mutil gazte Josef agituria.

Ango gerrako nagusi Putifar-en itxean arkitzen zen Josef gazte hau. Ezin obeki egiten zituen Josefek nagusiaren itxeko lanak ta gauzak eta aren eskuan utzi zuen nagusi prestuak bere itxe ta bes. te guzia. Putifar-en emazte ta beraren itxeko andreak eragin nai zion Josefri gauz itsusi gaisto bat, eta gauz, Putifar nagusiaren agitz deshonoraria. Eta ari hau ezin eragin ta gelditu zen guztiz sutu-mindua ta esan don bere senarrari Josefek egin nai izandu zuela berak ari eragin nai zion itsuseria. Aserretu zen gezur hau aditu ta nagusia, ta itxeko eskua ta gilzak kendu ta bidaldu zuen bere presondegira.

Presondegi artan arkitzen ziran Egipto bereko erregeren jauregitar bi. Biak izandu zuten amets bana. Beren ametsak agertu ziozkaten Josef gazteari ta Josefek bie beren ametsen zoria. Zori onekoari eskatu zion, andik atera ta erregeganatzen zen aldian, eska zezola hura ere andik atera

zezala, zeren sartu zuten an obenik bage; baña ongi atera zenak baietz esan bazion ere, aldi artan erregeri etzion aren alde hitz bat esan; baña hura berearen gisako amets nekagarri ta arazo andizko batekin kezkatua ekusi zuen aldi batez, hitz egin zion. Eta anbat obe Josef gaztearenzat; bada jauregitarak hitz egin zioneko, presondegitik atera ta eraman zuen errege bere jauregira, ta eraman zuen bere urrengo gizon an egiteko ta zuen esku guzia ta bere eraztun-sellua ari emateko, leneko aldi batez ekusi genuen bezala.

Orra horduan Josefi agi-gertatua, ta orra Jangoikoak bere eskaleekin askotan egiten duenaren ainzur ederra: sasoi obean ta geiago eman naiez, eskatzen dioten gauza bertan ez ematea. Luzatzen badu, bada, zuk eskatu ta bere emanza, ez da zer berandetsi; hordu obean begira dago Jangoiko maitea ta, zerbait luzatuagatik, azkenean etorriko da (ta etorriko anitz luzatu bage), dio Abakuk profetak: *si moram fecerit, expecta illum, quia veniens veniet, et non tardabit* (c. 2,3). Ta etorriko da eskatzen diozuna ta geiago zuri ematera edo orrek baño geiago balio duen obean bat ematera.

Arte orretan bizi zaitez Jangoikoak bage utziko etzaituelako uste osoan ta esazu Dabid erregek esaten zuena: «Jangoikoaren gobernuan ta kontura nago, ta bear dudarik artu bagez ez naz galduko, ez»: *Dominus regit me, et nihil mihi deerit* (Ps. 22,1), ta aldi berean esazu: «Jangoikoaren eskutik artu nai dudana nere enerako dela berak dakiena da, ta hau ere nai dut, berak dakien horduz ta ark berak nai duen eran», zeren zuri dagokizun ta Jangoikoak nai duen artu-era den, al dezuna zuk zere alde-tik egin ta beste guzia Jangoikoaren kontura uztea, S. Ignaziok beste anitzen artean egiten zuen bezala; bada onek egitekoren batekin arkitzen zen aldian egiten zuena zen, alegin guzian, berak hura bakarrik bukatu bear bazuen bezain osoki ta ziñez artan haritzea ta gero Jangoikoaren kontura, bear zen gisan aterako zelako uste osoan, uztea; ta azkenean etzen gelditzen ustel aren ust eta esperanz andia, ez eta milagroren bat artako bear zen aldian ere. Aditzekoa da bide onez bein agi-gertatua.

S. Ignazio Jesusen Konpañia bildu baño len joan zen Jerusalemgo toki santu guziak ekustera. Andik onarakoan arkitu zituen bazter aietan bi onzi prestatu. Benezi alderako andia ta sendoa bata ta bestea txar-zartua. Eskatu zuen andi sendoan zokotxo bat. Oni nagusiak ikasi zuen etzuela santuak onzi saririk eta etzuen artu nai izandu ta esan zuen: «Dioten bezain santua bada, ez du onzi beharrik; badoake oñez itsas gañean lurrean bezala». Santuak hau ekusi zuenean, «Egin dut nik niri zegokidana ta Jangoikoak lagunduko dit» esan ta sartu zen onzi txar erdi ustel urratuan, ta lagundu ere zion; bada elkarren aldean zebilzaia, izan-



du zuten bi onziak itsas-element izugarri bat; galdu zen onzi andi sendoa, baña txiki txarra ez ta itzuli zen santua nai zuen tokira.

Egizu, bada, zuk ere zuri dagokizuna ta utzazu Jangoikoaren kontura beste guzia; bere horduan ta eran ark emanen dizu aldian dagokizuna ta bear dezuna. Jangoikoak dizula hau beti zuk egiteko grazia. Bai arren, bai.

XLVI

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko zazpigarren igandeko irakurraldia

Omnis arbor, quae non facit fructum bonum excidetur, et mittetur in ignem. Matth. 7.

Gaia: Oarkabe galgarrian arzen du
erio gaistoak bekataria

Zaldun zenbaitek izaten dituzte baratz ederrak eta sagardi, paret andiz ingurutu gordeak. Baratz orietan azitzen dira azaburu ta jateko beste belar arkitzen diran onenak, orretako Erromatik edo urrutiko beste bazterren batetik aziak ekarri ta. Beren baratzetako paret ondootan ta aza ta belar orien inguruan ezarzen dituzte zenbait txermen ta beste arbol labur, belarrei eguzkia ta aizea kendu bage frut anitz eder ekarzen dituztenak.

Beren beste bazterretan aldatu ta sagardietan ere azirazten dituzte an edo emen arkitzen dituzten sagar, udare, gerezi ta beste arbol andi onak, eta onzat eraman duten bat edo beste ateratzen ezpada berak uste zutena, billatzen dute beste on bat, eta ari adartxo bat kendu ta txertatzen dute, bere aldian beren sagardiko oni erakarzeko bestearen udare, sagar edo fruta bezain ona.

Txertatu onek eta beste guziak ekar dezaten dagoten fruta, maneatzen du zaidunak bere mutiliez edo beste langillez bere baratzako ta sagardiko lurra; kenzen diozka lurrari bere arri, belar ta zakar guziak; ematen die arbol frutaginei dagoten engarria; kenzen diezte azpiko adar alferrak eta beste ongi ez datozen guziak, bakoitzak lurretik arzen duen zukurik galdu bage eman ditzan sagar, udare eta dagozkan beste frut onak.

Baña dagiela nai duena baratz-jabe ta sagardidun zaldun edo nekazariak bere sagar udareak eta beste arbol frutari guziak ongi maneatzen, fruta anitz on oriei eragiteko, ez du orretan Jangoikoak bere Elizako fededun bakoitzarekin egiten duenaren laurdenik ere egiten. Bataioz kenzen dio bekatu orijinalaren zakar guzia; bekatuaren sasitik aldatzen du Elizako lur ederki maneatuta; txertatzen du graziaz; estalzen du birtutez;



ematen dio maisuz, predikariz, konfesozez ta libru onez bear duen zeruko ongarria; bidalzen dio gogargiaren ta barreneko ezagunz onen inza ta Sakramentueta ur-grazia. Ingurutzen ditu bere mandamentuen muruz ta konseju onen estalkiz ta ematen dio udare edo fededun berari bere aingeru zaillea, lapurren atzaparrak eta beste etsaiak aren aldetik aienatu ta kontuz ta lasai idukitzeko.

Eta al-ere Jangoikoaren arbol edo fededun onek ekarzen ezpadu zeruko maira atera diteken frutarik edo egiten ezpadu zerurako irabazirik edo gauz onik, zer egiten du Jangoikoak? Emengo sagardi jabeak bere sagar alferrekin egiten duena ta egungo Ebanjelio santuak diona. «Aranzak ez dakar matsik, ez eta elorriak ere pikorik», dio Ebanjelio santuak, «eta sagar edo udare onak ere ez udare edo sagar gaistorik, ez eta udare edo sagar gaistoak ere gauz onik; udare ta sagar ta txermen edo arbol frutari bakoitzak dakar dagakan fruta: onak ona ta txarrak gaistoa. Eta azkenean egiten dena da (udare, gerezi ta edozein beste arbol frutari on bere tokian utzi ta aldi oro obeki maneatu, urrengo urtean egin dezan lenekoan egin duena baño sasoi obeko fruta) ta frut onik ez dakarren frutari arbola ondotik ebaki ta sutan auts egin dedin, bota ta erre».

Hau esan ondoan, «Begir egiozu», dio Jesusek, «bakoitzari ta ekus zazu eskutartean dakarrena: badira (fededunen artean) hitz onak esanagatik gauz onik egiten ez dutenak eta badira beste zenbait Jangoikoak nai duen guzia zuzenki egiten dutenak; egille on oiek zerurako jaiok dira, baño beste gaistoak ez dira arako sekulan», dio Jangoiko berak. Eta orain nik diot dion onetan Jesusek adirazten diguna, ta diot jaitsiko dirala sulezero edo infernura, ta jaitsiko, uste etzuten erio gaistok bukatzen dituela, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

§ I.

Presondegitik urkabera joan bear duten gaistagiñak jakin oi dute noiz bilzen diran juezak, dagoten bidea aiei ematera; baño urka berakoa bada ematen dien bidea edo sententzia, gordetzen die ezin geiagoraño edo konfesio ta komunio on baterako prestatu hordua datorren arte guzian; ta horduan ere ematen zaie berri latz gogor hau emari bear zaien tokira erakaririk ta an bere hitz leun onekin biotza beratuko dien konfessore bat edo beste, ta konfesor, guziaren berria duena arkitzen dela. Bekataria da bekaturik egiten duen hordutik dakiena sekulako urkabera ta

sulezeko tormentura bere burua kondenatu duela, eta al-ere izan ez oi du presondegitik gaistagiñak izan oi duen kezka ta beldurra; bada presondegitik gaistagiñak, juezak aren sententzia emateko bilzen diranetik jakin arte guzian zer sentenzi den eman diotena, lo guti egiten du ta guzia da ai ta kezka; ta bekataria bekaturik egin duenetik badaki ere bere gain duela urkabeko sententzia baño sentenzi milletan ta milletan gaistogaia, alakorik ezpaliz bezain lasai egiten du lo ta bat ere kezkarik bage edo bere kezka gutiarekin arkitzen da lasai ta aisa.

Zergatik ote? Zeren erdi illa den duen sinistanza ta uste duen urrutiko kontua dela beraren kondenatu bearra; ta kontu, datorren baño len zuzendu uste duena; bai ta zeren uste duen ere bekatuz aserretu duen Jangoikoarekin bake onak egiñen dituela ta grazi onez aterako duela bere sentenzi gogorretik bere burua. Baña beren uste hau ustel ateratzen zaie bekatari geienei edo beinzat anitzi, ta aldi artako edo besteko bekatu gaistoen sentenzi galgarriarekin gelditzen dira erio gaisto baten atzaparrean ta sekulako urkabean, ta gelditzen dira an oarkabe batean bezala uste baño len ta bat ere prestatu bage ill ta.

Bai, «bekatari guziak prestaturik arkitzen dira Jangoikoak noiz-nai erio gaistoz illak uzteko», dio S. Pablok: *vasa apta in interitum* (Rom. 9,22), eta bat-batean ala illak gelditu dira anitz; bada era orretan illa gelditu zen errege gaisto Faraon berekin zituen anitz mili soldadurekin, ta hura ta oriek erio gaistoz illak gelditu ziran beren bekatua egite berean, zeren orien bekatua zen israeldarre joaten ez utzi naia Jangoikoak deitzen zituen baztertera. Artu zuten israeldarrak arako bidea ta oriek geld-eraztera atera ziran lasterka Faraon ta Faraonen soldadu guziak. Ekusi zuten itsas-erdian israeldarrak beste aldera eraman zituen bide bat; sarzen dira an israeldarre darraiztela, Jangoikoak milagro bide bazterretara bilduak zeduzkan ur-mendietara begiratu bage, ta guztiak ur-mendien artean sartu ziraneko, utzi zuen Jangoikoak bere milagroa, elkargana ziran ur mendi biak, estali zuten bidea ta illak eta itoak gelditu ziran bide berean arkitzen ziran Faraon ta Faraonen soldadu, zaldi ta beste gauz guziak (Exod. 14,31). Zerbait onelako gertatu zaie era bereko beste anitz eta asko bekatari ta orien artean orain ekusiko dituzunei.

Azken bekatua egin zuen arrats berean gelditu zen erio gaistoz illa ta erreinurik bage errege Baltasar Babilonikoa. Orren bekatua zen Jangoikoaren Jerusalemgo Elizako kalizetan berak eta beraren zaldunak afari batean egin zuten edate-bekaturik; ta errege onek bere atseginzarako ta bekatutako artu zuen arrats bera artu zuen Jangoikoak ari bere bizia kenzeko; ta artako hura ill zutenei arrerazi zien Babilon-erri murrutu,



munduan arkitzen zen sendoena; ta arrerazi, batek ere uste etzuen bidez. Bide onez, bada, ta Babiloni sendoko errege, soldadu edo besterik oartu bage sartu ziran errian ta erregeren jauregi berean onen etsaiak eta utzi zuten errege Baltasar ezpatez josia, odolez betea, illa ta galdua. (Dan. 5).

Siriko erregeren soldadu-nagusi Olofernes arkitzen zen ezin arrotuagoa. Guziz estutuak, urik bage ta azkeneko tranze gogorrean zeduzkan gaitzik egin etzioten Betulitar gaisoak. Urrengo egunetatik batean bere eskura uste zituen ango erritar ta arrotz guziak, guziez egiteko gogo gaisoak ematen ziona; baña lenago gelditu zen bera erio gaiso baten orz gogorrez urratua; bada artara Jangoikoak igorri-bidaldu zuen Judith alarguna ta onen eskuz gelditu zen buru-bizirik bage ta ill otza, ta denbor berean jaitsi zen aren anima bere asmo galgarri ta beste bekatu guziekin sulezero, oriei dagozten neke ta tormentu guzien betiko sari gaisoa an arzera.

Oriek irurak eta era bereko beste millak eta milloiak uste etzuten erio gaisoz ta bat-batean galdu dute beren bizi bekatuduna, ta guziak gatik esan diteke errege santu Dabidek diona: «Artara oartu bage ta bat-batean bukatu dituzte beren egunak, eta bukatu dituzte agitz gaizki beren bekatu gaisoak gatik»: *subito defecerunt... perierunt propter iniquitatem suam* (Ps. 79,19); bada aldi orietan agi-gertatzen zaie Zakarias profetaz len Jangoikoak esanik zedukana, ta Jangoikoak oni esan erazi ziona da: «Orietara agertuko da Jangoikoa ta odeietik datorren ozpinarria edo tximista bezala izanen da tiratuko dien lanza edo saeta»: *Dominus Deus super eos videbitur, exhibit sicut fulgur jaculum ejus* (Zach. 9,4). Orra zein oarkabean arzen duen bekataria golpez datorren erio gaiso galgarriak.

Bakoitza bere bidez zetozenak ziran ekusi ditugun iru gizon andien eriotzak. Orietatik batek ere etzuen uste ill bear zuela ill zen erioz. Badira beste anitz bidez datozen eriotzak ere; bada badira leiotik, eskal-burutik, arbol gañetik, aldapa batetik edo edozein beste amiltegitik erori ta ilzen diranak; badira lai edo ur lats bat igarotze berean, igerian dabilzala, putzuren batean erori ta, edo beren onzia edo txalupa galdu ta, itoak gelditzen diranak; badira beren barrenean egin zaien anditsua ta postema lertu ta bizia galzen dutenak; bai ta etxe batek, zur batek edo arri batek azpian artu ta lerturik gelditzen diranak ere, ta ez dira oriek golpezko erio modu guziak. Orietatik batez edo bestez, bada, illen dira; ta nolana ill ditezela, beren bekatuan ilzen diran guziak illen dira gutien uste duten aldian ta uste ez duten eriotzaren atzapar gogorrean, ta illen dira erio gaisoak oarkabean azpiratzen dituela.

§ II.

Oriek bezain laster ilzen ez diran bekatari gaisoak ere ilzen dira laster aski ta berak uste zuten baño agitz lenago. Lenago ta lenago illen lirake, Jangoikoak elementei ta munduko beste gauzei, azken juzganz aldean utziko dien gisan, uzten balie bekatari gaisoekin egiten, dagoten lana; bada horduan pelean asiko da oriekin mundu guzia: *pugnabit pro eo orbis terrarum contra insensatos* (Sap. 5,21), ta ez du munduak utziko bere pelea, gaiso guziak illak ekusi arte guzian; baña askotan egiten du Jangoikoak bekatari-ekin Dabid errege Saulekin bein egiña.

Denbor andian ibilli zen errege Saul bere sui Dabidi bizia kendu naizik. Esan zioten bein Zif-ko eremu batean gorderik arkitzen zela Dabid ta irur mill soldadu artu ta joan zen aren billa. Gabak artu zituen eremuaren bazter aldean Saul ta Saulen soldadu guziak eta afaldu ta gelditu ziran an lo egiten. Jakin zuen hau bertan edo fit laster Dabidek eta joan zen gau erdian bezala nola zeuden an ekustera. Egi batetik ekusi zuen lo zeutzala Saul errege ta Saulen soldadu guziak, eta bere illob Abisai artu ta jaitsi zen errege zetzan tokira. Arkitu zuen lo ta lo, ta hura era artan ekusi ta esan zion illobak Dabidi: «Nai badezu, nere lanzarekin lenbiziko aldian utziko dut zure etsai gogor hau lurrean josia ta illa». «Ez ori», esaten dio Dabidek, «utzazu zarrez edo bere etsaien pelean batean ill dedin artean». Eta Saulek lurrean sarturik zedukan lanza ta aren bazterrean arkitzen zen ur-taza artu ta igan zen Dabid bere egira ta andik ojuka adirazi zion Sauli, bere suiaren ontasunari zor ziola hordu artan bizirik arkitzen zen gisan gelditzea ta on zedilla. Eta ezagu zezan Saulek izandu zuen perilla, itzuli zion bere lanza ta taza (Reg. 26).

Dabidek Abisairi bezala, bada, eragozten die geienetan Jangoikoak elementei ta beste gauzei, bekatariari lenbiziko edo bigarren bere bekatuan bizia kenzea, ta bekatari geienak anitz edo zenbait bekatu egin ta ere, bizi oi dira; baña orietatik ez guti ilzen dira uste ez duten aldian, Saul errege bezala; bada Saul ill zen filistarrak garaitu ta bizirik gelditu uste zuen aldian.

Hau guri adirazteko da ebanjelari S. Joanek esaten duen gauza, ta esaten duena da, ekusi zuela itxura gaisozko zaldi bat eta zaldien zaldun erioa: *ecce equus pallidus, et qui sedebat super eum, nomen illi mors* (Apoc. 6,8). Zaldizko onek, S. Pablok dionaz, esproñzat dakar bekatua: *stimulus autem mortis peccatum est* (1 Cor. 15,56). Eta esproñ-espuel onekin biziro darabil



erioak bere zaldia ta bekatariak uste baño agitz lasterrago erdisten du bekatari bera.

Bai, erdisten ta galzen du eriotzak bekataria berak uste baño agitz lasterrago edo, Job santuak dion bezala, Jangoikoak eman nai ziozkan egunak bete bage: *impius, antequam dies ejus impleantur, peribit* (Job. 15,52). Dabidek dionaz gizon aserre-odoltiak eta tolestuz beteak beren egunen erdiak ere ez dituzte lur gañ onetan egin bear: *viri sanguinum, et dolosi non dimidiabunt dies suos* (Ps. 54,25). Eta Espiritu Santuaren proberbioa da gaistoaren (egunak ez ezik) urteak ere laburtuko dirala: *anni impiorum breviabuntur* (Prov.).

Hau ala dela adirazi ta erakutsi zion Jangoikoak enperadore gaisto Anastasiori. Bidaldu zion Jangoikoak arrats batez enperadore oni beltz izugarri andi bat. Beltz onek esku batean zeraman enperadoreak bizi bear zituen urteen librua ta bestean pluma bere tintarekin, ta esan zion: «Orra, dakarzun bizi gaistoagatik kenzen dizkitzu Jangoikoak amalau urte», ta hau esate berean kendu ziozkan librutik beste anbeste; ta hau ark egin ta zenbait horduren buruan illa gelditu zen enperadore bekatuduna ta gelditu zen errege gaisto Saul bezain gaizki illa.

Orra nola darraikon gaizki bizi denari bere erio gaistoa. Arbol on frutadunari etzaio kenzen dadukan lurra; iraulzen zaio hau arro dedin ta ar dezan obeki odeiak dakarten inza ta euria, ta urbilzen zaizka berotzen ta sendotzen duten ongarri dagozkanak ere ta egiten zaio hau guzia eman dezan frut ena, leneko urteetan bezala urrengoan ere, ta zartuz agortu arte guzian ez dute kenzen dagon tokitik. Sasoi onean arkitzen dela ebaki ta sutara eramaten duten arbola da frut enik ez dakarren txarra.

Bethanitik Jerusalemara joan zen batez gosetu zen Jesus. Bide bazter artan ekusi zuen ostoz beterik arkitzen zen piko bat eta joan zen aren ondora, jateko pikorik ote zuen ekustera, ta etzuen arkitu ale bat ere. Horduan aserreturik bezala esan zion piko berari: «Ez dakarzula sekulan, arbol agorra, piko bat ere»: *nunquam ex te fructus nascatur in sempiternum* (Matth. 21,19) ta bereala igartu zen piko: *et are facta est continuo ficulnea*.

Eta frutarik ez dakarren arbola galerazten bada, fruta gaistoa dakarrenaz zer egin bear da? Kristo Jaun berak egun diona: «Ebaki ta erre ta auts egiñik uztea»: *excidetur, et in ignem mittetur*. Hau da, bada, gauz onik ez duen ta gaistoz betetzen den bekatariari dagokana ta, ekusi dugunaz, berak uste baño len agitzen zaiona. Ezertako ez den sagar, udare edo pikoari, ebaki bear denean, noiz-nai ta non-nai ematen zaio aizkora ta golpea, ta ori bera egiten duela Jangoikoak dio salmari enak bekatari gais-

toarekin ta igorzen diola edozein denboraz nolanaiko eriotza: *non est respectus morti eorum* (Ps. 72,4).

Noizbait uzten du sagardidunak sagar agor bat azkeneraño beste frutadun onen artean; bai ta Jangoikoak ere bekatari gaisto bat edo beste edo geiago anitz onen artean; baña sagar agorra ugari onen artean ugarzen edo onzen ez den bezala, onen artean azkeneraño biziagatik, bekatari gaistoa gutitan ondu oi da ta ondu lekuan sagar edo udare agorra zarrago ta igartuago ta sutarako prestatuago egon oi da; bada egon oi da sekulako sura jaitisiko ez delako uste osoan ta orregatik oarkabean bezala azpiratzen du bekatari hau ere bere erio gaistoak.

Naiz gaztetan, bada, naiz adin-erdian ta naiz azkenekoan arrapa gaitzala eriotzak, beti arrapatuko gaitu oarkabe gaistoan, gu ongi bizi ezpagara. Bizi gaitezen, bada, gaurdanik aitzina bad-ere; bada badagikegu gerok nai dugula ta Jangoikoak lagunzen digula ta Jangoikoak lagunduko digu, guk berari ziñez eskatu ezkerro. Eska dezegun, bada, ta egin dezagun egunik galdu bage. Bai arren, bai.



XLVII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko zorzigarren igandeko irakurraldia

Facite vobis amicos de mammona iniquitatis. Luc.

16.

Gaia: Nori ta nola egin limosna

«Zeren bataioan Jangoikoaren seme egiñak gelditu ziñazten», esaten digu S. Pablok egungo bere Epistolan. Zertako ote? Geroztik bizitzeko aragi gaistoak nai duen eran ez, baizik Jangoikoaren legeak eta buru onak adirazten duten gisan ta eran, ta ori da, dio, zeruan bat beti bizitzeko bidea.

Jangoikoaren legeak berezten dizkigu anitz gauza ta orietatik bat egungo Ebanjelio santuan. Ebanjelio onetan berezten digun gauza da limosna egitea ta degunarekin besteei beren bearra ta gabenza arinzea. Ara nola Jesusek hau berezten digun. «Gizon batek zuen», dio Jesusek, «beraren bazterren kontua zeraman bat. Aditu zuen kontueramalleak erdi galduak zeduzkala aren ondasunak eta bere kontuak; kontu onik ezin emanen ziola. Deitzen du nagusiak bere kontu-eramailea ta esaten dio: «Berri gaistoak dira aditzen ditudanak eta (kalte geiago izan ez deza-dan) utzi bear dezu nere bazterren kontua ta goazen orain kontuetara».

Arritu zen hau aditu ta kontu-eramalle gaistoa ta asi zen gerorako bere kontuak egiten ta esaten: «Mutil beroa gelditzen naz ni irabaz-biderik bage; langizan ezin hari niteke ta alkekizunak kenzen dit eskean ibilzea. Egin dezakedana da nagusia zor dutenen itxeetan bilzeko bideren bat billatzea». Deitzen ditu, bada, zordun guziak eta galdetzen dio lenbizikoari: Zenbat zor dezu zuk nagusia? Jauna, eranzuten dio, eun gurbil olio. Ez; ori, esaten dio, berrogei ta amar pagatu dituzulako papera ta esazu beste anbeste zor dezula, Galdetzen dio besteari: Ta zuk zenbat zor diozu? Jauna, eun anega. edo erregu gari. Ez, esazu larogei, ta ori gañerakoaren papera».

Kontu-eramallearen nagusiak esan zuen, hau ekusi ta: «Orra, animako argia dutenak zeruko gauzetan baño buru obekoak dira lurreko gauzetan munduko gaistoak. Eta orra», esan zien Jesusek hau kontatu

ondoan aditzen zeudenei: «Ilzen zarazten aldian ar zaitzaten sekula ko atsegintegietan, zeren diruarekin ta emengo beste gauzekin egizketzue al dituzuen adiskideak». Esan nai du: egizue limosna ta limosna. Orra egungo Ebanjelioan Jesusek berezten digun gauza: limosna egitea. Baña nori ta nola? Ori da aldi onetan guk ekusi bearra.

§ I.

«Egiten zaio limosna», dio S. Thomasek, «gabe ta beartsu arkitzen denari, ta egiten zaio urrikariz ta Jangoikoaren izenean zer bait ematen zaiola»: *quando datur aliquid indigenti ex compassione propter Deum.* Hau egiten dutenei, «Begira», esaten die Espiritu Santuak, «nori ematen diozun urrikariz ta Jangoikoaren izenean ematen dezuna»: *cum benefeceris, scito, cui feceris* (Eccl. 12,1); zeren, salmari onak dion bezala, zori onekoa den (orretan ez uts egin naiez) bearsu ta gabe arkitzen denari begira dagokana, bear duena aldian ari emateko»: *beatus, qui intelligit super egenum, et pauperem* (Ps. 40,2).

Badira bearsu beartasun ezin geiagokoarekin arkitzen diranak; bai ta orrenbat bear ez dutenak ere, andia izanagatik duten bearra ta gabenza. Albadezu urrikariz ta Jangoikoaren izenean emaiouzu batari ta besteari orietatik bakoitzak bear duena ta egiñen dituzu bi limosna; baña zere-tako ta beste bi oriek bear diña ezpadezu, emaiouzu al dezuna bear andi-goan arkitzen denari; bada ori aldi orretan bestea baño urrikalgarriagoa da ta lenenik zure lagunza eskatzen duena. Hau guri adirazteko da Daniel profetarekin Jangoikoak bein egiña. Babiloniko leoi goseti zenbaiten erdian ta bera ere agitz gosetua arkitzen zen bein Daniel profeta. Gilzapean zedukaten Babilondarrak Daniel ta leoi goseti orien erdian, orien orzez illa ekusi naiez. Andik urruti ta Judako bazter batean zijoan hordu berean Abakuk profeta bere langille zenbaiti barazkalzen ematera. Jangoikoak aingeru bat igorri ta esaten dio profet oni: «Ez, profeta, barazkari ori eraman bear diozu Babilonian preso ta gose andian arkitzen den Danieli»; ta aingeruak hau esan ta profeta bere barazkariarekin artu ta bat-batean eraman zuen Babiloniko leoien lezera ta eman zion Danieli bere langilleen barazkaria (Dan. 14). Langilleak ere bear zuten beren jatekoa; baña billa zezakeen Danielek ez bezala; bada beretatik bat, besteak lanean utzi ta, bazijoaken zerbaiten eske profetaren itxera, ta etzuen Danielek nork ekarri jan ta edan bear zuena.



Orra, beartsuenari lenenik limosna egin bear zaiola adirazteko Jangoikoak aldi artan egin zuena. Egin onek adirazten dizkigu beste bi gauz ere. Judatarra zen Daniel profeta, bai ta jatera eman zion Abakuk ere. Aingeruak ar zezaken Babilondarren bat, Abakuk profeta utzi ta, Danieli jatera emateko; edo Abakuk bere itxean utzi ta, eraman zezoken Daniel berari langilleetara Abakuk-ek zeraman jatekoa, ta ez bata egin zuen ta ez bestea, ta eraman zuen Abakuk profet judatarra judatar Daniel profetari jatera emateko. Badakizu zergatik? Guri adirazteko beren limosnekin gizonak gizonei ta al bada erritarrak erritarrei lagundu bear diela; eta agitz andia den aldian erritar baten edo beste edozeñen gabea ta bearra, zu baizik ezpada artatik hura atera dezakeanik, atera bear dezula zere janetik, soñetik edo erabilli oi dezun beste gauzetik zerbait ematen diozula bad-ere; ta bekatu larria lizakela, ori zuk egin nai gabez hura galzen uztea.

Gisa berean bekatu larria lizake urte gaistoan ta jatekorik bagez jende gaisoa erdi illa dabillen aldian garidunak, gero garestiako salzeko, bere garia gordetzea edo erritik ateratzea. Onelako urte batez hau egin zuten zenbait Flandesko Konde Karlos-ek billatu ta sal-erazi zien gorde-rik zedukaten guzia. Mindurik garidunak isillik ill-erazi zuten Kondea. Baña lan gaisto hau egin zuten garidun guziak ill ziran laster ta orien itxeak bukatu ziran denbor labur batean ta ill zuten hordutik asi zen Kondea milagroaz bazterrak betetzen ta Santutzat dadukate Brujas deritzan Flandesko erri batean (Molan. 2 May.).

Erritar bat eta arrotza arkitzen balira, bada, bear ta gabe berdin batean ta zuk batek bear duena baizik ezpazenu, arrotza utzi ta eman bearko zenioke erritarrari, zeren arrotza baño zure lagun urkoagoa den erritarra. Eta erritarren artean ere eman baño len ekusi bear dezu nori eman limosna. Bi badira errian bearsu ez dutenak, gaistoata bata ta bestea ona, ta ezpadezu bieie zer eman, emaiozu onari dezun piska, dio Espiritu Santuak: *benefac humili, et ne dederis impio* (Eccl. 12,6); ez eman, bada, gais-toari, gaistoak ematen zaionarekin indarrak ar ez ditzan gaitzerako ta emaiozu onari bere gauz onetan ari lagunzeko.

Erritar bearsu onen artean ere bada zer ekusi ematen dezuna nori eman jakiteko. Badira edo izan ditezke errian zurekin zure erritar izatea besterik ez duten bearsu onak. Izan ditezke zure egiteko, ofizio edo kongregazio berekoak, bai ta zure aldeak ere, ta alde beren artean bat baño bestea zure alde urbillagoa. Bati edo besteari emateko baizik ezpadezu, beartsu berdinsuak badira guziak, asi zaitetz zere aideetatik eta aideen artean ere urbillenetik. Zure aide urbillenak dira ait-amak, orien urren-

goak zure humeak, gero datoz zure aurriderenak eta zure humeen humeak eta gero batei ta beste darraiztenak, darraizten bezala. Orietatik edozeni, bada, eman bear diozu, besteak bezain beartsu arkitzen denean, besteri baño len zere limosna.

Aideei eman ondoan edo aide bearsurik ezpadezu, emaiozu bein zere egitekoko ta zure kongregazioko bearsuari; emaiozu gero erritarrari ta azkenean arrotzari, arrotzen edo beste orien artean ezpada besteak baño beartanz edo premi estu andiagorik duenik; bada orrelakoren bat denean, ori da aide ta beste guziak baño len zure limosna artu bear duena.

Besteen gisakoen artean ere len dira zerbait on zuri len egin dizutena. Eta orien artean sartu bear dituzu bularra zuri edo zure itxekoren bati eman ziona, zure itxean len ogia jan duena, zere eritasunean edo itxeko egitekoan lagundu dizuna ta era bereko beste zenbait.

§ II.

Badira beste irur urrikarizko emate edo limosn-modu ere; bata relijiotarrei, bestea purgategiko animei ta bestea Jangoikoaren Elizeiei egiten zaiena. Relijiotarren artean badara seroreak, Jangoikoaren izenean ta urrikariz ematen zaiona baizik ez dutenak, eta orietatik dira Kaputxinak. Gizon-relijioso era berean bizi diranak edo fraideak, agitz eta agitz geiago dira; bada besteen artean dira S. Franziskoren serne obserbante guziak, orien artean sarzen dirala Kaputxinoak eta S. Pedro Alkantarakoarenak, eta beste anitz fraide-modu dira bearrez ta jateko diña izan gabez eskean dabilzanak eta oriei urrikariz ta Jangoikoaren izenean zerbait ematea Jangoikoari atsegin ematen dion limosna da.

Badakizu zergatik? Zeren fraide on ta beste relijiotar guziak berak berez ta Jangoikoaren izenean beartsu ta gabe gelditu diranak diran ta Jangoikoak nai duen, beragatik zuten guzia utzi dutenak izan dezaten bizitzeko bear dutena ta izan dezaten hau urrikalti onen itxetik eta esku-tik. Beste alde ere zor zaie oriei berei ori; bada orietatik anitz beinzat etxe andiko edo oneko seme bearsuak dira, bearsu jakinsuak dira; ta jakinsu, konfesioz, predikuz ta hitz onez ongi bizitzeko ta eriotz on bana egiteko bidea mundutar gaisoei agerzen dienak, oriei berei beren bidean anitz aldetara lagunzen dienak eta beren etsaiak garaitzeko otoitzez ta mezaz grazi anitz erdisten dieztenak.



Eta Jangoikoaren izenean ta zuen onerako egiten dutenagatik ez ezik, beren birtuteagatik ere zor zaie zuen begitart ona, errespetua ta limosna; bada, oriek dira Eliza agitz honratu oi dutenak eta aldareak ere Santuz geienik betetzen dituztenak; bada relijioak munduan agertu ziran ezkeru, orietatik mundutarretatik baño agitz geiago igaten dira aldaretara.

Relijiotarrei limosn egitean, bada besterik ere ta da limosnariaren irabaz andia; bada Kristo Jaunak dion bezala, «on bat ongi arzen duenak (emanen oni beraren bearrak eskatzen duena) onaren izenean artuko du onaren sari ona; ta profet edo predikari bat arzen duenak (era berean ta beraren hitz onak aditzeko) predikariaren izenean artuko du predikari beraren saria (edo onari ongi egiten dionak izanen du onaren gauz on ta otoitz guzietan bere zatia; bai ta konfesiarenetan, predikariarenetan ta relijiotarretenetan ere, ori bera oriei egiten dionak): *qui recipit prophetam in nomine prophetae, mercedem prophetae recipiet* (Matth. 10,41); eta berez edozeñen otoitzak eta irabanzak baño andiagoak izan oi dira relijiotar konfesari edo predikari onenak, bai ta ongia edo limosna oni egiten dionaren irabaziak ere.

§ III.

Beste guziena baño agitz gogorragoa da anima purgatorioko gaisoen bearra; bada infernuko su bera bezain izugarrian erretzen daduzka Jangoikoak gau ta egun ta puntu oro, beren bekatu andi barkatu ta txiki guzien zorrak an ater artean, ta guk geren otoitzez, mezez, komuni onez, induljenziz ta limosnez lagunzen ezpadiegu, an era orretan egon bearko dute orietatik anitzek anitz eta anitz urtez.

Purgategiko anima guziak zordunak izanagatik, Jangoikoaren grazian daudenak eta andik atera horduko zeruan betiko sartu bear dutenak dira. Orietatik zenbait zure alde, zure predikan, konfessore, ongille, adiskide, erritar ta auzoko izanduak dira eta guziak dira agitz eskerdun onak, eta on bat egiten badiezu, ori bezalako amar ta eun an bertan daudela ta gero zeruan Jangoikoagandik erditsiko dizkitzutenak. Eta hau dakizun ezkeru, ez diezu lagundu bear al dezakezun bidez ta limosnaz?

Purgatorioko animei egin dakioken limosna da orien alde mezak ater edo enzutea, orien obira argia, ogia, dirua edo beste gauza eramatea; bada Jangoikoari orretan egiten zaion honrak eta arzen dutenaren alde Eliz-gizonak egiten dituzten otoitzak arin-laburzen dituzte animen ango

neke gogorrak; bai ta eskean dabiltzan fraide ta beste bearsu guziak emanen zaienagatik egiten dituztenak ere. Eta gauz orietatik dagizketzunak egiten ezpadituzu, agi lekikezu bigar Fuldako abade Adelardori gertatua.

Hau baño lenagoko abade guziak beren abadanza an ill ziran fraide ta monjeen maiko jantegian egun oro ezarrerazten zuten, bizi balira emanen zitzaien jan-edana, ta andik artu ta eramaten zien atezai-porteroak bearsuren bati edo besteri, eska zezoten Jangoikoari an ill ziranen alde. Denbor gutian ill ziran abade Adelardoren zenbait monje ta esan zuen, anitz jaten ziotela illak eta kendu zuen orien maiko jatekoa ta limosna.

Andik laster sartu zen koman gau-erdiko matutietara ta arkitu zituen ango kataderetan hura abade egin ezkeru ill ziran guziak, eta zena ikaraturik eman zion igesiari. Baña illetatik batek itsatsi ta geldirazi zuen an. Kendu zioten gañetik zekarren habitua ta zekazten korre purgatorioko suan ongi gogortuekin erdi urratu zioten bizkar guzia, ta esaten ziotela «Orain hau, emendik irur egunetik aitzina gañerako», joan ziran guziak erdi illa uzten zutela. Elizako gauzak arturik ill zen andik irugarren egunean. Egin zen berriz abade leneko abadea ta egin zuen illaren maian leneko illekin egiten zuena. Baña ogei ta amar egunen buruan agertu ta esan zion abade illak lenekoari: «Nik limosna kendu ta purgatoriora ziran monje guzien animak purgatoriotik atera arte guzian etzaizkit baliatu zuen limosnak eta otoitzak».

Orra, urrikaltia izaten ezpazara purgategi berean zuri ere agi-gerta dakikezuna: zu ara joan ta zuk bizi ziñala andik atera bear zenituenen alde izatea, zure alde esaten diran mezak eta egiten diran otoitz limosn eta beste gauz onak. Nai badezu, bada, balia dakizkitzun purgatorioko suan sarzen zaranetik urrikalti onen otoitzak, izan zaitez bizitzan purgatorio bereko gaisoen urrikalti ta egizu beti orien alde al dezuna.

Elizen ta aldareen apainzak ere Jangoikoak onzat arzen dituen limosn-honrak dira. Hau siñisteko aski dezu zerura bein ta gero Jerusalemgo Elizara begiratzea. Begira zazu zerura ta ekusiko dezu zeru atarian ta kanpoko aldetik arkitzen den izarrezko edertasuna, eta zeren zure begiak barrenera ezin sartu diran, galdegiozu an egondu zen Apostol S. Pablari zer arkitzen den an, ta eranzunen dizu ango gauzen gisakorik ez duela batek ere sekulan ekusi, aditu edo gogoan artu; ain andi, eder, egoki, zuzenak dirala guziak. Orra nolakoa Jangoikoari dagoan itxea edo jauregia!

Zoaz orain Jerusalemgo Eliza ta Elizaren zenbait apaingarri ekustera ta oriek ekusi ta ekusiko dezu gañerakoa. Josefok dionaz (ta ango gau-



zen berrilari ena ta israeldarra da Josefo hau) baziran Jerusalemgo Elizan urrezko amar mili kandeleru, ogei mili inzensario ta oriek eta gañerako urrezko gauzak laur-eun mili ta zillarrez egiñak zorzi-eun mili, kontatu bage bronzeko ta beste gaiezko gauzak. Zer Eliz izain zen, bada, orrenbat eta orrelako edergarri zituen Eliza? Eta al-ere ori egin ta orren presenta egin zion aldian, esan zion errege jakinsu Salomonek Jangoikoari: «Jauna, ez dira zure diña zeruen zeruak eta ez dakit nola sartu nai dezun itxe txar onetan».

Etxe txarra bazen, bada, Jangoikoarenzat Salomonen Eliz galant-apaindu munduan izandu den ongien egin, aberatsen ta ederrena hau, zer itxe izain dira Jangoiko berarenzat zure erriko ta gañerako erri andi txiketako Elizak? Emoza, bada, zere errikoa apain-ederzeko ta orko kongregazioko ta beste lan on guzirako argi-zati, diru edo al dezuna, ta guti izanagatik eman dezakezuna, onzat artuko dizu Eliz berean arkitzen den Jesus sakramentatuak eta ori zuk egiten dezun aldian esanen die noski an berekin dituen aingeru guziei, len Apostol berei, alargun gutidun batek Jerusalemgo Eliz andi ederrean egin zuena ekusi ta esan ziena. Utzi zituen an alargun onek limosnaz bi ardit bezala ta hau ekusi ta esan zien Jesusek Apostol berekin zituenei: «Ez da Eliz onetan sartu bearsu gaiso orrek diña eman duenik» (Luc, 21,3), eta esan zuen hau, zeren zuenetik besteak ematen zutena baño agitz geiago zen beretik ark emana.

Nai badezu, bada, urrikal dakizun Jangoikoa zere bekatu guziak barkatzeko ta dizun emen ongi bizitzeko bere grazia ta gero sekulako gloria, egizu al dezuna agertu ditugun lau bide oiez; bada emate hau da ori guzia Jangoikoagandik erdisteko bide guztiz egokia, errege Nabuko Donosori Daniel profetak hein esan zion bezala. Egizu, bada: bai arren, bai.

XLVIII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko bederatzgarren igandeko irakurraldia

*Non relinquunt in te lapidera super lapidem, eo
quod non cognoveris tempus visitationis tuae. Luc.*

9.

Gaia: Zenbat balio duen Jangoikoak
gure onerako ematen digun denbora ta hastiak

Nekazari batek galzen baditu bere lur maneanzak, bere ereinzak, bere jor, bere igitanz eta eulziak eta egiteko aldiak, etorriko zaio negu otza, arkituko da jatekorik bage ta geldituko da gosez illa, ta ez dira orrekin bukatuko nekazari alferraren bear eta neke guziak; gero gertatuko zaio urte guzian alfer egondu den lurrari agitu oi zaiona; bitarte orretan bekatuaren belar gaistoz ta zakarrez bete ta gero suz ta garrez erretzea; bada emengo lurra belar gaistotarako bezain toki ena da gizon alferraren anima bekatuaren belar ta zakar gaistorako, ta bekatu beren ta animako zakarren biltegia da suleze infernua ta oriek ara eramaten dituenaren saria ango suz ta garrez erretzen ta erretzen beti egotea.

Hau agi ez dakiun, egungo bere Epistolaren esaten digu S. Pablok: «Begira, nere senide i nak, ez da zer billatu beren bideko basoan israeldar alferrak bezala Jangoikoak debekatzen duen gauz gaistoa ta jostaket eroa; eta iges egin aragiaren zikinker guzitik, gerta ez dakigun oriei agitugertatua; bada era horretako gauzak egin ta egun batez ill ziran ogei ta iru mill». «Begira», dio berriz, «ez tentatu orien gisan Kristo Jaun Jangoikoa, Jangoikoak igor-bidal ez ditzan zuetara orietara len izurritz ta oñazez bete ta galdu zituzten sierpeen gisako beste anitz; eta ez da zer gaizki hitz egin Jangoikoaren izeneko Moisesek eta Aronek edo Jangoiko beraren predikar ta konfesor onak esaten dizkitzuten gauzez ta zeruko bideez, bidal ez dezan zuetara orietara bidaldu zuen aingeru illzalea; bada Jangoikoak israeldarrekin len egiña gurekin dagikenaren ainzur-itzala da». Orra Apostol santuak gaur diona. Alferkeri hau utz-erazi ta lan dagozkigunetan erabili naiez esaten digu Jesusek Ebanjelioz gaur, len Jerusalemgo erriari begira zegokala ta negarra zeriola esan zuena.



Erri artara zijoan batez ta aldetik begira zegokala asi zen Jesus esaten: «A, zere zenzua aldebat utzi dezun erria; baldin bazeneki ta gogora nai bazenu aldi onetan zere onerako prestatzen zaitzun on guzia! Gauz hau gordetzen zaie zure begiei, baña agertuko zaie beten ekus-aldia ta ekusiko dute, ta horduan zu lotatik irazarri ta perillez beterik arkitzen den baten gisan arriturik geldituko zara; bada uste ez dituzun erromatarren soldadu-sall andiak etorzeko daude onara. Etorri ta bazter guzietatik ingurutuko zaituzte. Egun oro estu-prensatuagoa arkituko zara; urratuko dituzte zure murallak; sartuko dira barrena; emendik eraman ta banatuko dituzte beren inperio luze zabalean zure seme-alabak eta oriei onara berriz itzulzeko uste guzia kenbzeko, zure itxeetako arririk arri gañean ez dute utziko; ta hau guzia agituko zaitzu, zeren galzen dezun zere onerako Jangoikoak orain ematen dizun aldia, edo zeren artu nai ez dezun ekustera etorri zaitzun Salbatzallea».

Hau esan ta sartu zen Jesus errian ta erriko Elizan. Arkitu zituen eliz atarian anitz, otoitz ta animako beste gauzetan ez, baizik saldu-erosian, diru trukean ta beste irabazitan, ta an arkitu zuen soka batekin azote bat egin ta, zeren galzen zuten an bestetarako Jangoikoak eman zien denbora ta zikinzen zuten Jangoiko beraren eliz ataria, batera ta bestera irauli zituen ango maiak, banatu zituen gañeko diruak eta aienatu zituen ango tratalar guziak. Eta guziarekin adirazi zigun gure egitekoa dela alferrik ez egotea, aldian aldiko gauzak egitea ta toki guzietan ta beti Jangoikoa serbitzea ta maitatzea. Saia zaitzen hau egitera, agerzera noa Jangoikoak artako ematen digun denborak balio duena.

§ I.

Bi hitzez adirazten digu Espiritu Santuak anitz balio duela Jangoikoak gure onerako ematen digun denborak; bada esaten digu: «Kontu, nere semea, ez galdu denborik»: *Fili, conserva tempus* (Eccl. 4, 23), ta ez luke Jangoikoak era orretako enkargurik egiñen, gauz andi bat ezpaziz denbora; bada emengo gizon andiak eta errege jaunak ere ez dute gauz txiki bat ematen duten aldian gordetzeko enkargurik egiten.

Espiritu Santuak adirazi digun hau esaten digu klaratuz S. Bernardok: *nihil pretiosius tempore*; esan nai du: ez da munduan denborak diña balio duen gauzarik. Eratsu berean hitz egin zuen Senekak, ez santua ta ez fededuna izanik ere; bada don munduko gauz guzien artean

geien balio duena denbora dela: *res omnium pretiosissima*, eta orregatik don Espiritu Santuak: «Kontu, nere semea, ez galdu denbora».

Orra, bada, anitz anitz balio duen gauza da denbora. Baña zergatik ote?, galdetu nai dezu noski. Zeren denboran ongi bizi denak oinpera dituen bere etsaiak, zeren beregandik aienatu dituen kalte arrigarri andiak eta zeren egin dituen irabanz andiak. Zuk ere Jangoikoak lagunzen dizula (ta lagunduko dizu zuk nai dezun guzian), badagizketzu denboran edo zere bizitzan adirazi ditugun iru gauzak.

Oinpera dezakezu, bada, zere denboran ongi biziz zere erakeri, apainket txar ta aizezko antuste guziarekin mundu arroa, zere ezer-ezari begiratu ta dagokizun soñekoa baizik jaunzten ez dezula, ta ori ere ekusten zaituztenen begiei atsegin egiteko ez, baizik estalirik eta Jangoikoak nai duen gisan ibilzeko. Oinpera dezakezu aragi atsegin-zalea, onen nainkunz zikiñak baruz, nekez ta penitenziz garaitzen dituzula; ta oinpera dezakezu sulezeko etsai amurratua ere aren txistu ta hitzket bizi galduei bi belarriak ers-itsiz ta aren tentanzak otoitz beroz ta zeruko lan grazidunez garaitzen dituzula; ta oriek dira zure etsai galgarri irurak.

Zere irur etsai oriek oinperatze onetan egiten dezu Zesar enperadoreak, errege Alexandrok eta munduko beste gerrari garaitzalle guziak egin dutena baño garaitz agitz andiango bat; bada munduko gizon zenbait garaitzea baño garaitz agitz andiango da mundu guzia garaitze hau, ta ekusi ditugun gizon gerrari garaitzalle oriek elkar arturik ere etzizutzen beren bizi guzian garaituko munduko gizonen erdiak ere, ta fededun onak nai duen aldi oro garaitzen du mundu guzia ta onekin batean aragi tentaria ta oriek biak baño indar geiago duen sulezeko deabru gaistoa. Ekus zazu, bada, anitz balio duen etsai indarsu izugarri oriek garaitzeko Jangoikoak ematen digun hasti-denborak.

Etsai oriek garaitzen dituen aldi ta denbor berean aien-urrurreraz ditzake bere kalte izugarri guziak eta besteen artean zerua galka ta suleze infernuko neke gogorak; bada ongi bizi denak ez du bekatu andirik egiten, ta egiten ez duenak galzen ez du sekulako atseginza ta zeruko zori ona, ta denbor berean eragozten du aratzen diranak beti erretzen daduzkan suleze-infernua. A, zer irabanzak bata ta bestea! Zein parerik bageak!

Nabuko Donosor erregeren aldian Jerusalem erbestaturik eta Babilondarren artean sarturik arkitzen ziran israeldar zenbait eta ezin adirazi zuten nai zuten diña an zuten kaltea ta naigabenza. Nola adiraziko dute, bada, zerutik erbestatuak eta sulezan ta infernuko suan ondaturik arkitzen diranak? Bada mili-milloietan ta agitz eta agitz andiangoak dira israeldarrak Babilonian zituzten kalteak eta naigabenzak baño sule-



zean denboraren galzale-gaistoak izanen dituztenak, eta beste alde urte gutikoak izandu ziran israeldarren Babiloniko neke-penak, eta beti beti iraunen dutenak dira denbora beren obenez galdu ta sulezeratzen diranen gogorak. Jan-edatea, adiskide onak ekustea, batetik bestera ibilzea ta atsedea ta lo egitea kezken etzien kalteak ziran israldarrak Babilonian ta Babilondarren bazterretan zituzten guziak; baña zerua galdu ta sule-zera jaisten diranen kalteak dira kalte ta neke kaltearren gain-gogotik bein ere kezken ez diranak eta puntu ta instant oro lerzen ta urratzen daduzkatenak eta amurranez betetzen dituztenak.

Kalte oriek, bada, ta beste guziak beregandik urrunzen ta aienatzen dituzte Jangoikoak ematen dien denboraz baliatu ta bere aldian egin bear dutena egiten dutenak eta bidenabar egiten dituzte irabanz guztiz andiak. Baña zein andiak? Len ere S. Pablok agertu dizkigunak: «begik ekusi ta belarrik aditu dituenak baño agitz eta agitz andiagoak, eta andiz baten ere gogoan oraindik sartu ez diranak»: *oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit, quae praeparavit Deus iis, qui diligunt illum* (1 Cor. 2,9).

Deus etzuen batek irabazten balitu, guk zeruko oriek irabazteko dugun nekea baño neke andiagorik bage, erreinu bateko urre ta ziliar ta ondasun ta honra guziak, zenbat balioko luke orrenzat orien irabaz denborak? Ekusten dezu. Eta al-ere pits bat bezala izanen lirake orren irabanz guziak eta munduko ondasunak fededun onak aldi oro egiten dituen aldean; bada Jangoikoarekin ongi arkitzen den ta bear den gisan hari denaren gauzarik txikienak ere irabazten du grazia, ta grazia parerik bageko ondasuna da; bada «graziaren edozein zatik munduak, zeruak eta Jangoikoak egin diruen beste gauz guziak baño geiago balio du», dio S. Thomasek: *bonum gratiae unius majus est, quam bonum totius universi* (1. 2ae q. 125 ar. 9 ad 2m). Bestela ere laster ta fite galduko lituke munduko irabazle orrek bere irabazi ta ondasun guziak; ta «sekulan galzen ez diran ondasun andiak dira denboraren edozein puntutan fededun onak irabazten dituenak», dio S. Jeronimok: *exiguum perituri temporis aeternitatis est pretium*. Orra, bada, zem-batekoa geren onerako Jangoikoak ematen digun denbora ta lan enen egin aldia.

§ II.

Baña onenbat balio duen denborari erakarzen diogu dakarken on guzia? Jangoikoak eman digu dugun denbora ta bizia egin ditugun beka-

tu gaistoen urrikanzarako, bekatu beren barkanza konfesio zuzenez erdisteko, Jangoiko gure bekatuz aserretuaren adiskidanza ta grazia erdisteko ta Jangoiko berari mili esker, honra ta glori emateko. Bai, dio S. Bernardok; baña zer da, dio, denboraz gizonak egin oi dutena? «Nagiro ta alferki dena galzea ta denbora pasa andik onara ibilzea»: *donec pertranseat hora; hora, quam tibi ad agendam poenitentiam, ad obtinendam veniam, ad acquirendam gratiam, ad promovendam gloriam miseratio Conditoris indulget* (De trip. cust.).

Nolakotsuak izandu ziran Senekak bere denboran ezagutu zituen langille oriek? Berak dionaz, alfer-gaistagiñak eta bear zen gauzarik egiten etzutenak; bada «begira», dio, «begira bizirik ekusten dituzunei ta ekusiko dezu gaistagintzan daramatela denbor zati bat, alferkerian geiena ta gañerakoa ez dagozten gauzak egiten»: *si volueris attendere, magna vitæ pars elabitur male agentibus, maxima nihil agentibus, tota aliud agentibus* (Ep. 1).

Esazu ezperen, beren denboran zer egiten dute oraingo mundutar anitz eta anitzek? Bururik Jangoikoagana jaso bage hasti guzia eraman batetik bestera, saldu erosian, itxeak egiten, gauzen karriotan, lurrak maneaten, gariak, matsak, sagarrak eta gaztañak bilzen edo ikatzkinzan, itzanzan, mandazainzan, arzanzan ta nekanzan edo era bereko beste egitekoren batean. Eta orretan hari ez diran aldian, jaten ta edaten hari dira edo berriketan daude edo lo. Jaia edo igandea datorrenean, enzuten dute meza bat (Jangoikoak daki nola) ta egun orietan ere gañerako hordu guziak daramazte jokoan, jostanzan, danzan, edanean edo hitz-onzikierian. Egiten dute urtean konfesio otz motel bat edo beste, ta orra unte guziko orien ibillera; orra denboraren zein galgarria!

«Geren egiteko guziak egin bear genituke Jangoikoaren izenean ta animen onerako, bai ta jan-edanak ere», dio S. Pablok: *sive manducatis, sive bibitis, sive aliud quid facitis, omnia in gloriam Dei facite* (1 Cor. 10,31); ta hau guk egiten bagenu, geren denbora agitz baliatuko litzaiegegu ta urtearen buruan, bai ta egun oro ere, irabanz andiekin geldituko giñake; baña egiten ditugun gauzak lurreko sari piskagatik edo zaldi ta idiak baño geiago gogoa Jangoikoagana goratu bagez, jentil eta turko ituak baño irabanz geiago egiten ez dugu egun, haste ta urte guzian, eta azkenean animaz aberatsak izan lekuan, gelditzen gara gabe ta beartsu, ta gelditzen, S. Basiliok dakarren buru gaistoko gizon bat bezain gaizki ta galduak.

Urbilzen da buru txar gaistozko gizon bat ur andirik ez dakarren ibai ugalde batera. Ibai edo urpe guzia urre puskaz, zillarrez, perlaz ta diamantez estalia datza ta guziak dira artu nai dituenarenzat. Ur bazterrean bada zerbait are apur ta arri koskor. Ekusten ditu gizatxar onek are



ta arri koskor oriek, bai ta urpeko urre, ziliar, perla ta diamante guziak ere ta, oñetakoak kendu ta andik ez ateratzeagatik, uzten ditu guziak beren urpean ta egun guzian hari da arri koskorrak bilzen ta are pillak egiten ta bere lan txar onetan ongi nekatu ta arratsean arkitzen da ogi bokadu bat bage ta zerekin erosi ez duela.

Era berean galzen ditu ur bazter artan urrengo eguna ta beste anitz ere, bai urteak eta urteak ere. Zer ondasunak gisa txar onek nai izan balu urte orietan egin zitzaizkenez! Eta zeren egin ez dituen, zein urte galduak! Bai? Bada milletan ta milletan galduagoak dira bekatariarenak; bada bekatariak Jangoikoarekin bakeak egin ta *Ave Mari* bat esanez edo edozein beste gauz on egiñez (S. Thomasek adirazi digunaz) irabaziko luke langillerik enenak ibai orretatik mili urtez gelditu bage urre, ziliar, perl eta diamante ateratzen ta ateratzen hari dela, irabazi lezakena baño agitz geiago; bada irabaziko luke grazi zati bat bad-ere ta grazi zati batek ondasun oriek eta beste munduko guziak baño geiago balio du. Bada zer irabanzak egin ditzake hordu batez fededun enak? Zer irabanzak egun guzian, haste osoan, ill batean ta urtean? Eta zer irabanzak bizi den urte guzietan? Eta zer kaltea, urte oriek giza txar ekusi dugunak bere egunak bezala bataitu batek galzea? Izan dezaken andiena, dio S. Buenabenturak: *nulla iactura gravior est nobis, quam iactura temporis perdit.*

Eta ez ote dio aserreturik Jangoikoak kenduko edo laburtuko fededunari irabazi orren andietarako eman zion denbora edo bizia, ekusten badu ez duela bat ere egiten edo agitz txikiak dirala egiten dituenak? Kendu zion beinatz ondasunketa ta ondasunketa zen Ebanjelioko gizatarrari; bada nai bezalako uda bildu ta urrengo urte askotan nola aisa bizi asmatzen hari zen arrats batez, eman zioten ilzeko sententzia: *stulte hac nocte animam tuam repetent a te* (Luc. 12,20). Eta oni baño ere geiago laburtu die Jangoikoak beren bizi gaistoa beste anitz ta orien artean orain ekusiko dugun gazteari.

Toledotik ez urruti bizitu zen zenbait denboraz ongi ta Jesusen Amaren debozi andian mutil gazte bat. Gaistatu zen gero ta utzi zituen leneko bere debozi guziak. Jangoikoak laburtu nai zion bertatik kondentatzeko bizia. Jesusen Amak erditsi ziozkan ogei ta amar egun penitentzia egiteko. Adirazi zion guzia Jesusen Konpañiko batez. Onek eraman zion berriarekin ta esan ziozkan gauzeekin arritu ta konfesatu zen mutil gaztea. Baña laster itzuli zen bere bekatura; konfesatu zen berriz; bekatura zen berriz ta berriz ere konfesatu zen. Baña etzuen geroz konfesatu nai izandu, ibere bekatura bazen ere, ta ogei ta amargarren arratsean ill

zen konfesatu bage ta amurraturik, konfesorea mugaz aren itxera bazen ere.

Hau baño obeki baliatzen ezpazara Jangoikoak ematen dizun denboraz ta denbor ekusi duguna bezain ondasundunaz, zure bizia ere Jangoiko berak labur diezakezu; ta zori gaistokoa zu hau agi-gertatzen bazaitzu; bada galduko dituzu irabaz zenitzaken ondasun andiak eta sartuko zara sekulako ekusi ditugun neke-tormentu guzien azpian. Jangoikoak dizula ez aratzeko ta ongi bizi zarala zeruko ondasun andiak irabazteko grazia: bai arren, bai.



XLIX

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amargarren igandeko irakurraldia

*Amen dico vobis, descendit hic justificatus in
domum suam ab illa.* Luc. 18.

Gaia: Zeruko bide zuzena
bekatuaren kalteak gogotik ez uztea

Humil beldurtiei lagunzen die Jangoikoak eta beren beldur humillagatik len edo gero honratzen ditu; baña arrotzar galduei ematen die burutik bera ta azkenean betetzen ditu lotsaz ta nekez. Hau guri adirazi ta beldur danean sarrerazi naiez da egungo Ebanjelioz Jesusek ematen digun berri bat. Jende-sail bati predikatzen hari zen batez ekusi zuen Jesusek beti bezala an arkitzen ziran zenbaitek beren gogoan zekarten gauza. Oriek aldi artan gogoan zekarten gauza zen beren alde goganz eta urte andi bat eta besteenzat agitz txarra ta utsa.

Berak zirala uste zuten munduko gizenak eta gizarte berean ez ezik, Jangoikoarekiko ere esku andia zutenak; bada uste zuten berak zirala munduko gizon santanzez ta birtutez beteak eta beste guziak arkitzen zirala animako bearrez ta utsez galduak eta orregatik begitan artuak eta oinpe berean zekarzten beste guziak: *in se confidebant tanquam justi, et aspernabantur ceteros.*

Orretan zeuden antustari arro oriek interprete jaunen ustez faritsetzar arroetatik ziran. Poliki jaunzten zituzten beren son-eko guklak; jatera zijoazen aldian jautzen ta garbitzen zituzten eskuak okalondo bere-raño; ekus zitzaten ta guzien honra beretu naiez guzien begietan egiten zituzten gauz onak eta oriek begira zegoztela etzuten egiten ongi etzirudien gauzarik. Eta zeren ardo gutirekin burua galzen dutenen erakoak ziran, unte zuten etzutela besterik bear manduko guzien ta Jangoiko beraren begitart ona ta maitanza irabazteko ta orregatik guztiz ongi nai zien beren buruei ta ezer-ezean zeduzkaten beste guziak.

Beren barreneko muñu hau oriei kenzeko ta bere eskura bear zen gisan berak ekarri naiez atera zien Jesusek orain zuk adituko dezun berri hau. «Igan ziran bein Elizan otoitzak egitera bi gizon» (esan zuen Jesusek

beraren hitz onak aditzen zeuden guziei begiratu ta), «Farise jakinsua bata ta perillezko tratuz bizi zena bestea edo publikanoa. Farise jaunak etzion belaunik ere Jangoikoari makurtu ta zutik edo jarririk zegola asi zen bere buruarekin isillik jardukitzen (ta jardukitze ta barrengo erausi hau da aldi artan ark egin zuen otoitz guzia): Nere Jauna, esan zion gizon onek Jangoikoari, eskerrak zuri zeren egin ez nauzun beste gizon lapur gaistagin, andre ezkondu berei ere barkatzen ez dienen gisakoa, ez eta arako tratale nastu hura bezalakoa ere. Bitan barutzen naz ni haste oro ta bilzen dudan guziaren amarrenak ematen ditut urte guzietan ta aldi bakoitzean».

Hau ark bere buruarekin zerausan aldian, Elizako zoko batean sarturik zegoan perillezko tratolari publikanoa. Bere bekatu gaistoak ematen zioten alkeak eta lotsak etzion uzten burua goratzen gañeko aldera ta egiten zuen guzia zen bere bizian egin zuen gaizkiaren damuz tund onak bere bularrari okabilka ematea ta suspirioka ta indar andiarekin esatea: «Jauna, bekataritza andi bat naz ni ta urrikal zakizkit, arren». Eta nola Elizatik jaitzi zirala uste dezue bata ta bestea? Farisetzarra Elizara zenean bezain arroa ta galdua ta bekataria beldurti humilla bekaturik bage ta Jangoikoaren graziz ederki jaunzia: *descendit hic iustificatus in domum suam ab illa.*

Orra Jesusek aldi onetan agertu zuen berria. Eta zer ote da berri onekin adirazi nai diguna? Jangoikoarekin ongi gelditu nai duen bekataria ez duela ill arte guzian gogotik utzi bear bere bekatua; hau da alabaña, ekusiko dugun bezala, zerurako bide zuzena.

§ I.

Badira zenbait bekataria beren bekatua konfesariari esan ta, konfesarriak ematen dien penitentzia egin ezkeru beren lan guzia bukatu dutela uste dutenak; baña ustanz txarrarekin asetzen dira ori uste dutenak; geiago da guri geren bekatua barkatzeko ta bere aldian zeruko gloria guri emateko Jangoiko bekatzuz aserretuak eskatzen diguna; bada eskatzen ta esaten digu: «Begira, egin dezun ta konfesatu rik dadukazun bekatuaren kema zere gogotik ez utzi bein ere»: *de propitiato peccato noli esse sine metu* (Eccl. 5,5). Zergatik ez? Aldi onetan ekusiko dugunagatik.

Baña orretan sartu baño len esazu, bekatu barkatuak ere kezkatu bear badu bekataria, zenbat kezkatu bear du bekataria bera konfesatu



duela jakiñagatik barkatu zaion ez dakien bekatu gaistoak? Eta nork esan ditu Jangoikoak barkatu dizkitzula egin dituzun bekatu guziak? Oriek zuri Jangoikoak barkatzeko, alegiñean ta bein baño geiagotan ekarri bear zenituen zere gogora; oriek berak ongi-ongki ekusi ta artu bear zenituen betiko begitan ta oriek egiñaz ongi urrikiturik aitortu ta konfesatu bear zenituen konfesararen onetan ta onen absolbanz-barkanza artu baño len artu bear zenituen, berriz bekatu bage, zere egunak bukatzeko asmo-neurriak eta orretarako utzi len gaizki maitatzen zenituen gauzak, eta maitatu len ezin ekusi zenituenak. Eta hau guzia gauz erraza dela uste dezu artara oitua etzegon bekatari batenzat?

Bekariatetik anitz oitzen dira bekatutik konfesiara ta konfesiotik bekatu. Bekatuak ez ditu egin aldian anitz izutzen ta gutiago izutzen ditu egin ta gero, ta ongi oztu ondoan edo zenbait egunen edo hasteren buruan, ta beren bekatu hau ta onen gisako beste guziak konfesatzeko prestatzen dira otz otzean ta kezka edo egin dituztelako naigabe andirik bage, ta prestanzaren erakoa da gero orien konfesioa, otza edo epela, ta bekatuaren urrikiment eta damu andirik agerzen ez duena.

Al-ere konfesatu den bekatariaren eritziz ona ta bear den gisakoa da egin duen konfesioa ta bere konfesioko iturrian utzi ditu bere ustez zituen bekatu guzien loiak eta gelditu da garbi-garbia ta grazidun egiña. Baña amets-anz-iduria izan oi da orren idur-eritzi ta uste guzia ta bere bekatu guziak konfesatu ta gelditu oi da bere bekatu beren zikinkerki guziarekin, proberbio batekin Espiritu Santuak adirazten digunaz: «Badira», dio Espiritu Santuak, «jendagi ro garbitu dirala uste ta zikin gelditzen diranak»: *generatio, quae sibi munda videtur, et tamen non est Iota a sordibus suis* (Prov. 30,12).

Hau bera zerutik jaitsi ta adirazi zuen S. Theresak ere; bada andik agertu ta esan zion bere ezagun bati: «Etzenuke siñistuko zernbat diran beren bekatu guziak konfesatu ta suleze infernura jaisten diranak, eta ara jaisten dira beren ustez ongi konfesatu ta gaizki konfesaturik gelditzen diranak; eta gaizki konfesatzen dira, zeren arzen ez duten egin dituzten bekatu gaistoen bear bezalako urrikimendu ta ondu nairik. Urrikiment eta ondunai hau eskuratzeko bidea da konfesatu diran ta konfesatzeko dauden bekatu gaistoak sarri ta mugaz gogoan erabiltzea; bada hau egi-ten duenak eskuratua daduka bere urrikiment eta ondunaia edo bere konfesorako eskurako du. Bekatuaren urrik-menturik izandu badu gizonak, izandu zuten Dabidek len ta gero S. Pedrok. Dabidi agertu zion Nathan profetak bere bekatuaren itsustasuna ta hura ekusi ta gelditu zen Dabid damuz erdallatua ta hitz biz ark hura konfesatu horduko, profet berak

esan bazion ere barkatu zuela Jangoikoak aren bekatua: *Dominus quoque transtulit peccatum tuum*, etzuen bere bizian gogotik utzi bekatu bein egiña. Zergatik, uste dezu? Zeren bere damu andiarekin sartu zitzaion biotza- ren erdiraño aren oroitzapena ta zebilkon beti, berak dionaz, bere begie- tan; bada dio: «Jauna, zu begira zengozkidala egin nuen nik nere bekatu itsusia ta badaramat, bai, zegokan saria; bada nere gain ta nere begietan dut nik beti hau»: *malum coram te feci...et peccatum imeum contra me est semper* (Ps. 50).

S. Pedrok ostegun santu arratsez ukatu zuen bein ta berriz ta iruga- rren aldian (ta aldi onetan juramentuz) Jesusi zor ziona, bai ta Jesusen eskolakoa zela ere. Amoriozko begiz begiratu zion Jesusek arrats berean ta begitan eman zion bere bekatu itsusiarekin. Alkez, lotsaz ta damuz beterik iges egin zuen bereala eta egondu zen damu ta negar urrengo egunetan edo iganderaño. Igandean biztu ta agertu zitzaion Jesus adiski- danzan ta horduko bekatu bage arkitzen zenari bezala. Urrengo berrogei egunetan ta zerura igan arte guzian egondu zen Jesus beste zen- bait aldiz ere S. Pedro-rekin ta egin ziozkan besteri baño ontart eta mesede geiago, ta azkenean egin zuen bere Bikario ta Elizako Aita Santu: ta al-ere ollarraren kanta aditzen zuen guzian bere bekatuaren damuz negar ta negar egondu zen emen bizitu zeño, zeren ollar kantak gogora ekarzen zion arrats artan egin zuen gaizkia ta Jainkoak bere graziarekin barreneraño sartu zion urrik-ment-damua.

Anitz izaten ez dira orien gisan beren bekatua barkaturik arkitzen dela jakiñagatik beti gogoan dadukatenak eta beti berriro begitan arzen dutenak; ez eta hura konfesatuagatik barkatu zaielako betria dutenak ere; baña siñes dezakee aren ziñezko damu-urrikia erditsiko dutela, hura sarri, maiz ta askotan gogoratzen badute; bada bekatua gogoan erabilze hau biotza beratzeko, Moisesek aitz gogorrari ura eman-erazteko artako zigorrak ematea bezala da.

Israeldar guziekin basoz ta eremuz zijoan Moises Egiptotik Kanango probinzi andira. Edatekorik bagez egarri andiarekin arkitzen ziran bein israeldar oriek. Eskatu zioten ura Moisesi, Jangoikoak artako eman zion esku andiarekin milagro andiak egiten zituenari bezala. Artu zuen Moisesek artako zuen zigorra ta an arkitzen zen aitz bati eman zion ukaldi-golpe bat; baña urik erakarri bage; eman don bigarrena ta eman zuen aitz-arri agor gogorrak israeldar berak ta orien ganadu guziak bear zutena ta agitz eta agitz geiago: *percutiens virga bis silicem, egressae sunt aquae largissimae* (Num. 20,11).



Orra bekatar gogorrari ere bere bekatuarekin agitzen zaionaren ainzur egokia: hura maiz gogoratu ta bein ezpada, berriz beratzea ta egiñaz ongi damaturik gelditzea; bada bere bekatua askotan, sarri ta maiz gogoraten duenak ekusiko du bein ta berriz ta geiagotan argatik galdu duela Jangoikoaren grazia ta zeruko gloria, ta erdisten ezpadu Jangoiko beragandik bere bekatuaren barkanza, jaitsiko dela sulezero erretzen ta erretzen an beti egotera, ta ez duela barkamenturik erditsiko gaizki egiñaz, ongi ta ziñez damaturik Jangoikoari humilki ta ondu-nai andiarekin ez eskatzera; ta bururik badu askotan hau gogoratzen duenak, bere burua orrenbat neketan ez sartu naiez pozik artuko ditu damu on hau ta ondu-naia. Eta orra, bekatua bere aldetik aienatu ta zerurako bide askunz on bat arzeko bidea, gogoan bekatua askotan ekarzea. Baña bekatua maiz eta askotan gogoratze onek badu on geiago ere, orain guk ekusi bear dugun bezala.

§ II.

Jangoikoak bekatua barkatu ta ere ez du barkatu oi bekatuari dagokan neke guzia. Bekatu barkatuari dagoka emengo edo purgategiko zerbait neke, ta zenbat ere txikiagoa bekatu barkatuaren damua, anbat andiagoa egin zuenari gerorako gelditzen zaion nekea. Bekatu berari dagoka, bekatariari bekatu egin ezpalu Jangoikoak eman uste ziozkan grazi zatietatik zenbait ukatzea. Bi nekagiro orietatik bere burua errazki ateratzeko ta zeruko bidean arinki ibilzeko ere anitz lagunzen duen gauza da bekatariak bere bekatu barkatua gogoan erabilzea(k).

Bekatua gogoan dakarren ta dakienak aren alde Jangoikoari zor diona arzen du (ta neke andirik bage) baruz, penitenziz, mezak enzunez edo aterreraziz, komunioz, induljenziz, otoiitez, limosnaz ta beste bidez bere zorrak ateratzeko asmoa, ta asmatu duena egiñez ateratzen ditu bekatuari zegozkan zorrak eta kenzen Jangoikoaren gogotik bere bekatua; bada Jangoikoak bere gogoan daduka bekatu barkatua, bekatutik gelditu zaion arzeko alde, ta hau artu ezker, ez du Jangoikoak zertako gogoan iduki bekatua; bada horduan ezpaliz bezala da Jangoikoarendako bekatu bera, ta orregatik dio S. Agustiñek: «Nai badezu utz dezan Jangoikoak gogotik eta ken dezan begietatik zure bekatua, ez dezazula zuk ken zereetatik»: *tu peccatum tuum ante faciem tuam converte, si vis, ut inde Deus faciem suam avertat* (In Ps. 50). Eta bekatua ezpaliz bezala Jangoikoak

alde bat utzi ezker, ez du bekatuagatik ukatuko bestela eman uste zuen grazirik edo lagunzik.

Orra, bada, bide zein ona bekataria bere burua bekatupetik atera ta zeruko bidean arinki ibilzeko bekatua gogotik ez uztea. Bai ta bekatu berririk ez egiteko ta zeruko bidetik ez ateratzeko ere, orain ekusi bear dugun bezala. Nai dezu, bekataria, ez galdu leneko bekatu zereen konfesioz ta penitenziz irabazi dezuna? Bada zere gogotik ez utzi len bekatuz galdu zenuena ta berriz ere gal zenezakena, esaten dizu Aita Santu S. Gregoriok; «gogoranz hau da alabaña birtuteen zaillerik enena»: *recordatio peccatorum custodia est virtutum*.

Zergatik dela uste dezu birtuteen ta animako irabanz guzien zaitzalle onen ona bekatuaren oroitzapena ta leneko zere bekatua askotan gogora ekarzea? Zeren oroitzapen, gogoranz onek agerzen diozkan bekatariari izandu dituen galzeko perillak eta perill orien goganzak beldurrez duen ara berriz ez urbilzeko. «Bai, gelditu nai badezu lotsaz ta beldurrez bete, oroi zaitetz leneko zere ibiller ta amiltegi izugarriaz», esaten dizu profeta Ezechielek: *recordaberis viarum tuarum, et confunderis* (16,6).

Bai, oroi zaitetz aurtasuneko zere zikinkeriez, gaztetasuneko zere ibiller galgarriez ta geroztik egin ta eragin dituzun gaistakeri guziez ta ekusatzu oriek egiten asi ziñanetik orain arte guzian izandu dituzun galzeko bideak eta perillak; bai ta non arkitzen ziñan ere, gaur amiltegi orretatik edozeñetan malkortu baziña edo Jangoikoak zutaz urrikaldurik besotik artu ta bezala gelditu ezpazindu? Non, baizik sekulako sulezean? Baña zenbat neke ta tormenturekin? Zure bekatu gaistoei zegozten guziekin.

Esan dezakezu noski gezurrik esan bage: «Nere buruko illeondoak diña badira nere bekatu gaistoak, bai ta nere buruari gañez eragiteko diña ere»: *multiplicatae sunt (iniquitates meae) super capillos capitis mei* (Ps. 39,13). Eta orrenbat izan edo gutiago nere bekatu berak, estali-lotuak bezala iduki dituzte nere begiak eta orain arte guzian ez dut ongi beinzat ekusi non arkitzen ninzan edo amiltegi ta gal-bide zein izugarrian nebillen ni denbor orretan: *comprehenderunt me iniquitates meae, et non potui, ut viderem* (Ps. 39,13).

Jangoikoari eskerrak, orain bad-ere idiki ditut begiak eta ekusi dut amiltegi ta perill beretan edo gaistoago askotan sar nitekela, len baño kontuzago nere oñak ez erabilzera; ta beldur izan naiteke berriz aratzen banaz, ez nazala len bezain errazki andik aterako; bada len anbat aldiz aserretu nuen Jangoikoa aserretuko nuke berrito ta aserretuzi neza, bein ere berriz palakatuko etzaidan gisan ta orra ni horduan betiko galdua!



Ez, ez; ez dut hau bezain gal-bide gaistotan oñik sartu nai nik. Zori gaistoan sartu nituen len ere; bada andik etorri dira nere bekatu guziak eta bekatu berei dagozten neke ta egiteko gogorrak. Gogorrakoak eta gogorrakoak Jangoikoak igorri-bidalzen badizkit ere, guziak artuko ditut Jangoiko beraren izenean ta leneko nere bekatu gaistoen alde ta nekagai, ta bekatu berririk ez egiteagatik prest nago nere bizia ta dudan guzia galzeko.

Era onetan hitz egiten du bere bekatu gaistoak begitan artuak daduzkan edo gogotik uzten ez dituen bekatariak; eta biotzez ta esperanzez hau esaten duen bekataria ongi prestaturik arkitzen da bekatu beren zorrak eskatzen duten penitenzi guzia egiteko; bai ta sekulan berriz bekatu ez egiteko ere. Eta orretan arkitzen den bekataria bekatu barkatuekin edo bekatu guzien barkanza erdisteko prestaturik arkitzen den bekataria da. Eta orra zerurako bide zein zuzena bekatua gogotik ez uztea. Jangoikoak dizula ori gogotik utzi bage bizitzeko bear dezuna, bai ta gauz on anitz egiten dituzula, ill horduko edo andik laster zeruan sartzeko grazia ere: bai arren, bai.

L

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amaikagarren igandeko irakurraldia

Et adducunt ei surdum, et mutum, et deprecantur eum, ut imponat illi manum. Matth. 7.

Gaia: Zori gaistokoa da
bekatuan gogorzen denaren eriotza

Beren begiz ekusten dutena baizik ez dute gizonak siñistu nai milagrozo bidez agerzen etzaiela; ta siñist-eraziko bazituzten Apostol jaunak gure legeko misteri andi-gordeak, egin bear izandu zituzten nork daki zenbat milagro ta gauz andi; ta al-ere eunetatik batek etzuen siñisten aditzen ziena; bada Elizako berri onak diotenaz, Españi guzian Apostol Santiagoren sermoiak aditu zituztenetatik zazpi baizik etziran bataitu; ta etziran geiago bataitu, zeren geiagok siñetsi etzuten ark ziona, izanagatik ark zion hau bere Apostol aren lagunak ziotena, eta ark hau esanagatik beste berak bezala ta milagro zenbait, bear zen aldian, egiten zituela.

Eta beste Apostol jaunak zebilzan bazterretan ere bakoitzak ziran bataitzen ziranak, Apostol hitzak aditu ta milagroak ekusi ta ere, bataitu bage gelditzen ziranen aldean, Jerusalengo, Antiokiko, Erromako ta beste errietako berriak edo histori zuzenak adirazten dutenaz; ta bakoitzagoak edo agitz gutiago izanen ziran bataituko ziranak, aditoen zutenaren alde ekusi ezpalituzte ekusi zituzten milagro andiak.

Gizona zer den dakienaren eran hitz egiten die S. Pablok egungo bere Epistolari Korintharrei; ta bataitu ta fededunak bezala beren siñistanza ta fede santan sendorturik uzteko agerzen die gure onerako ta bekatupetik guziok atera ta zerura eramateko Jesusek egin zuen milagrorik andiena; bada agerzen die bere etsaien eskuz ill ondoan Jesusen berezko biztea ta glorira igatea ta guri zeruko bidea trabarik bage ta ango atea zabalduak uztea.

Kristo Jaunak Apostol bereei erakutsi zien munduko adile guziei milagrozo predikatzeko bide hau, ta erakutsi zien berak egin zuenarekin; bada predikatzen asi zen alditik ill arte berean edo irur urtez egin zituen



milagro guziak ez lituke artuko, Ebanjelista S. Joaneke dionaz, mundu guziak. Predikatzeke bide hau agertu ez ezik, eman ere zien Jesusek Apostol bereei; bada eman zien bear zen aldian deabru gaistoak aienatzeko, errak buruan eskuak ezarri ta sendaturik uzteko, izurria ta pozoia beren kalterik bage edateko, ta beste milagro anitz egiteko eskua. Eta Apostol jaunen ondorengo predikari anitzi ere eman die Jangoikoak bear den aldirako esku bera ta esku onekin egin dituzte batak eta besteak anitz eta anitz milagro, ta milagroek ekarri dituzte gure legera edo atera beren bekatupetik bestela eskurako etzituzten anitz bekatari ta jentil.

Kristo Jaunaren milagro anitz ekusten zituzten zenbaitek eskatu zioten egungo Ebanjelio santuak dakarren milagroek gauza. Galileko itsas bazterrean zen batez ekarri zioten Kristo Jaunari gizon gor-mutu bat eta eskatu zioten eskuz ukitu ta senda zezala. Eskutik artu ta baztertu zuen Jesusek gizon gor mutua, sartu ziozkan bi belarrietan bere beateriak, zabal-erazi ziozkan ezpañak eta aoa, bere listuz busti zion mingañ-mihia, goratu zuen Jesus berak bere burua, begiratu zuen zerura ta asa zen negarrez ta suspirioka ta esan zion gor-mutuari: «Idiq-zabal zatzu», ta Jesusek hau esate berean, idiki ta zabaldu ziran gorraren belarri biak eta aoa, aditzen zuen esaten zen guzia sekulan gortasunik izandu ezpalu bezala ta hitz egiten asi zen bere bizi guzian hitz egin balu bezain ongi ta aisa.

Eskuz ukitu ta sendatzea eskatu zioten Jesusi gizon hura ekarri zioten artekoak, eta orra zenbat geiago egin zuen Jesusek eria sendaturik uzteko. Zertako ote? Guri adirazteko Jangoikoaren ta predikarien hitzak aditzen dituzten bekatari gaistoak beren egunak gaizki bukatzen dituzten gor gogorrek dirala eta hau da aldi onetan guk ekusi bear duguna.

§ I.

«Akaball-bukantz gaistoa du», dio Espiritu Santuak, «biotz gogorrezko bekatariak»: *cor durum habebit male in novissimo* (Eccl. 3,29). Zergatik ote? Ekusiko dugu, ekusi ta nola gogorzen den gaitz-bekatuan bekatariaren biotza.

Gogorzen da gaitz-bekatuan bekatariaren biotza ura neguan bezala. Bere iturritik irten-ateratzen da neguan hura erdi bero, erdi epela. Arzen du andik bera urrango lats edo ibairako bidea ta neguan arkitzen duen aize otzak kenduagatik berekin dakarren epelza, ez da ber-bereala

izotz-ormatzen ta badabil bere bidez azpiko ibai ur andiraño; baña trabaren bat arkitu ta bere bidetik bazterreko toki zabal batera atera ta gelditzen bada, neguko ifar otzak errazki ta laster kenzen dio daraman beronza. Neguko egun guzi.an ez da agerzen eguzkia edo berotzen ez du ur gelditu ifarrez oztua ta ifar berak aize ta aize egin ta oztuz ta oztuz dijoa. Urrango arratsean ifarra bizitu ta asten da ormatzen ura ta gisa berekoak badira urrango egun guztiak, orm egiten da, ta era berekoak izaten badira urrangoak ta urrango gau-egunak ta ur ormatua arkitzen bada eguzki gutik ukitzen duen toki lezeren batean, egiten da arri ta kristal, zenbaitek esaten dutenaz, edo Espiritu Santuak dion gisan, kristal ta arri dirudien orma: *frigidus ventus aquilo flavit et gelavit cristallus ab aqua* (Eccl. 43,22)... *in similitudinem lapidis aquae durantur* (Job 38,30).

Eratsu berean, bada, anima gaistoa ere gogorzen da bere gaitz-bekatuan. Ongi bizi den anima badabil bere bidez ta Jangoikoaren legea uzten ez duela ta ala dabillen aldian ez da bekatuan gogorzen, ez eta bekaturatzen ere; baña bere bide on hau utzi ta bazterzen bada ta sarzen perillezko jokoan, dancan, edantegian edo lagon-arte gaisto makurren atzapar galduan ta oriekin badabil zezenez zezen, festaz fest, bellez bell, bein ezpada berriz emanen dio hitz loiaren, ukitz zikiñaren edo oroitza-pen lizunaren aize otz gaistoak; eta lenbaitlen ematen ezpadio justiziko eguzki Kristo Jaunaren beroak eta graziak, eta predikari edo konfesor on baten hitzak bere bideratzen ezpadu, bazter ta ibiller orietako izotzak eta ortik datorren bekatuaren ifarrak edo infernuko neguko aize gogorrek egun oro geiago oztuko du ta ez da geldituko arri baten gisan bere biotza ormatu arte guzian.

Orra, ez du aize otz ifarrak bat-batean ura ormatzen; artako negu otzaren ta zeruko eguzkiak erdi utzia dadukan aldiaren begira dago. Hau bera da deabru gaistoak bekatariarekin egiten duena. Bazterzen du bein konfesio ta komunio batetik edo aitzakiren bat billarazi ta utz-erazten dio konfesio ta komunio aldi batekoa ta gero beste ta bestekoa; kenzen dio burutik kongregaziorako ta predikurako gogoa; galerazten dio Jesus sakramentua Elizan ekustea, Jesusen Amaren errosarioa esatea, egin oi zuen baruren bat egitea edo era bereko beste gauzaren bat; eta lenbizian ez du deabruak geiago nai; asetzen da biotzaren gogorzaren askunz orrekin, dio S. Juan Krisostomok: *illi solis duntaxat initiis opus est*.

Baña ez du nai deabruak biotzaren gogortzaren askunz-asier hau aretan gelditzeko; nai du ark hau biotz beraren gogortzak eskatzen dituen beste gauzak eragiteko ta egiten du emen bekatariarekin Ebarekin len paradisuan egiña. Ebari an begiak gorrerazi ziozkan Jangoikoak



debekatu zien frut ederra ekusteko; baña frut hura Ebari erakustea izan du zen Eba frutaren zal-erazteko, artara eskua gora-erazteko ta azkenean eskuan arrerazi ta jan-erazteko; ta lan gaisto hau Ebari eragin arte guzian etzen deabru engañaria gelditu.

Era orretan, bada, bear ez diran gauzak zuri eragin ta bekatu gais-toan gogorrerazteko eramaten zaitu gauz orien egintegi, joko, danz, bell eta fest-jostaket zenbaitetara; bada eramaten zaitu joka dezazun beste gazetako bear dezuna, besteren gauza edo ezin joka dezakezuna: danzara, an zuri begiz, gogoz, eskuz, oñez, ibilliz, hitzez, belaunez edo beste bideren batez egin dezazun Jangoikoaren legea urratu bage ezin dagikezuna. Edantegi berora, edanez zure burua edo osasuna gal-erazteko; hume gaisoak azitzeko ta zorrak ateratzeko bear zenuena gal-erazteko; zurekin an egoten diranen itxeko bakea nasteko edo zere itxeko gaisoak gero zuk aserrerazteko; lagun arte txarrera edo neska-mutil sallara edo fest artara ta onetara, batak bestea hitzez, eskuz edo beste bidez zikin-durik uztera; bukanz gaisto orien ondo ta billan dabill deabrua orietarako bidea ta askunza billatzen duen aldian; ta orregatik deabruak bere asier oriekin azkenean nai duena da amurraiari arranzaleak hamu bazkaz estalia botatzen dion aldian nai duena.

Ez dakizu zer den arranzaleak amurraiari hamu bazkaduna luzatzen dion aldian nai duena? Amurrai eroak bazk garbi utstzat eta beldurrik bage bazk hamuduna aoan arzea, hamuz hura josi ta bein bere eskura ta azkenean maira eramateko. Hau bera, bada, da deabruak nai duena len ekusi ditugun jostaketak edo gure aragi atseginz-zale galduak nai dituen beste bazkak agerzen dizkigun aldian; bada agerzen dizkigu bazk oriek estalzen duten bekatuaren amu zorrotza guri tragarazteko, bere eskura bein ta gero infernuko maira gu eramateagatik; eta bere arranz galgarri orretan dabill deabru gaistoa, ill ondoan gu sulezean betiko sartuak uzteko.

§ II.

Zenbait aldiz lenbiziko bekatuarekin eramaten du deabruak animarraia bere infernura, baña geienetan ez; ta bekatuaren hamuarekin emen gelditzen zaion bekatariak iges egin ez dezan, egiten duena da arranzaleak arpoia sartu dion balearekin egin oi duena. Arrai andiegia da balea hamuz ta hariz arrapatzeko ta hau atzitzeko billatzen du arranzal-mariñe-

llak arpoi bat bere sokarekin. Txalup ondoan balea ekusi horduko arzen du esku batean arpoia, bilzen du bestean ari ditzekon soka ta txalup gañera igan ta baleari tiratzen dio bizkar-saietsera. Arpoiak baditu amua-ren gisako trabak eta bein ongi sartu ezker, barrenean gelditzen zaio baleari arpoi punt-trab-duna. Arzen duen miñarekin sarzen da bereala urpean, ematen dio mariñelak soka ta badarraika beren txaluparekin, zeren dakien ez duela ats-asnaserik urpean arzen ta laster agertuko dela an edo emen.

Ur gañera datorreneko bilzen du mariñelak arpoi-soka bere txaluparekin bale erituaren aldean arkitzeko. Aratzen dira laster aren lagun txalup-dunak. Saiets bakoitzetik sarzen diozkate batak eta besteak eskuan ditzuten burdin zorrotz txuzo ta lanz luzeak, egiten dioten zulo-di guzitik odolez ustu ta lenbaitlen ill-erazi naiez. Horduko oñaze berriekin urratu nai ditu baleak bazterrak eta ondutzen da berriz itsasoan ta badabill urpean odola ta odola dariola, bearrak berriz ur gañera dakarren arte guzian. Berriz agerzen deneko an ditu bere aldean mariñelen txuzad berriak eta egiten du leneko aldian egiña; baña len bezain aserkunz eta asaldanz andiarekin ez, zeren len baño gutiago den duen odola ta indarra. Eta urrengoan edo beste agerraldiren batean gelditzen da betiko ur ganean ta txuzadaka kenzen diote nai bezain aisa duen odola ta bizia; ta beti eskuan iduki duten sokarekin txalupari lotu ta badaramate arraunka ur bazterrera; kenzen diote duen gizena, urtu ta lumera egiteko; erre ta jaten dute giarra ta salzen dute gañerako guzia.

Bekatuaren hamua iritsi duen bekataria badabill bale arpoidun onen gisan batetik bestera; baña bere eskuan iduki oi du deabru arranzaleak hamuaren haria edo beka-bidea; ta aragiaren edo gogo gaistoaren ats-asnasea artu nai duen aldian tiratzen du deabruak leneko bere jostaketara, edantegira, danzara edo beste bekatu-bideren batera ta bekatu berriz urratzen dio an bere biotza.

Uzten dio gero deabruak jaten ta edaten ta lo ta beste bere lanak egiten, bai ta konfesatzen ta komulgatzen ere; baña bere hamu-bekatuaren haria eskutik utzi bage, aldiak dakarren aldian ta bekatuduna bere bide galgarriratzen den guzian bekatuaren txuzada berriak ari emateko ta aldian baño aldian zeruko indar ta beldur gutiagorekin uzteko; bada bekatu bakoitzarekin galzen du bekatariak Jangoikoaren grazi-aldi ta lagunz andia, eta zenbat ere laburragoak zeruko lagunzak, anbat txikiagoak bekatudunaren indarrak; eta bidenabar zenbat ere gaitzera oitua-go, anbat beldur gutiagorekin bekatu berrian sartu ta arkitzen dena.



Gaitz-bekatura oitzen denak ekusten du zenbait denboraz ez diola Jangoikoak bizia kendu, ez eta osasunet eta ondasunet andirik ere; bada anitzi Jangoikoak kenzen ez die orrelakorik azkeneraño ta esaten du Eskriturako erotzar batek ziona: «Zer gaitz edo naigabe da nigana dena, nik gaizki ta bekatu egin badut ere?»: *peccavi, et quid mihi accidit triste?* (Eccl. 5,4), ta gelditzen da, bekatu ta bekatu egin ta ere, kezkarik bage ta ill bear ezpalu bezain lasai eta bekatuan gogorturik gelditzeko beldurrik ez duela. Baña orrelakoetatik zenbaiti agi-gertatzen zaie S. Gregorio andiak agerzen digun bati len gertatua.

Bizitz eneze gizon batek egin zuen larunbat santu batez bekatu. Egin bezain laster gelditu zen agitz arritua. Egun artan ta urrengoan edozein ots edo soñu adi zezaneko, an zetorrela uste zuen deabru amurratua, hura artu ta bizirik sulezean ondaturik uztera; ta ondatu beldurrez egiten zituen nork daki zenbat ziñatze, otoitz eta gauz on. Irugarren egunerako oztuise zen aren beldurra ta zazpigarren eguneko arkitzen zen beldurrik bage ta konfesioz oroitzen etzela. Ustekabean ta konfesatu bage ill zen egun artan ta ortzitu zuten beste illen gisan. Andik laster atera zen obi-arriaren zirritutik keez nasturrikako ta usai gaistozko su bat. Kendu zioten gañetik arria ta arkitu zuten illaren gorputza su ta gar egiña ta infernuko usaia zeriola; ta etzen itzali sua, ez eta kendu ere usai gais-toa, esku batean bill ziteken auts egin artean gorputz guzia (Dial. c. 13).

Baña bekatari hau ta onen erako zenbait ez dira orain guk ekusten ditugunak; guk orain ekusten ditugunak dira bekatari bekatuan gogorturik eta balea mariñelen eskuan bezala ilzen diranak. Ekusi dugu odola ta indarra kenduz ilzen dutela mariñelak beren balea; ta deabruak gogorzen du bekatariaren biotza, bekatariari gal-eraziz Jangoikoaren lagunz anitz eta grazi ta bekatari bera utzi artean, grazi ta lagunz orien odol gutirekin ta indarrrik bagez ur gañean gelditzen den balearen gisan ta eran. Horduan zenbat gauz on adituagatik, ez du bekatariak egiten egin bear lukena, zeren deabruak loturik dadukan bekatu beraren sokaz ta katez ta zeren bere bizi zikin izugarriak arritzen duen gauz enik egiten ez uzteko; ta gelditzen da, ilzen dagoen balea mariñel-arranzaleen atzaparretan bezala, deabru gaistoaren atzapar izugarrian; ta gelditzen, infernuko sutegian erretzen ta urzen sekulan ta beti egoteko. Orra bekatuan gogorzen denaren zori gaistoko akaball-bukanza. Eta orra gogorz orretarako bidea.

Artu dezu zuk ere arako bide hau? Asi zara egiten zenbait bekatu? *Fili, peccasti?* «Ken zaitez ortik eta ez bekatu berririk egin bein ere», esaten dizu Espiritu Santuak: *non adiicias iterum* (Eccl. 21, 1). Eta bekatu

berriak eragozteko artu ta lertu bear dituzu Babiloniko mutil txiki guziak. Zori enekoa hau egiten duena: *filia Babilonis misera... beatus, qui tenebit, et allidet filios ad petram* (Ps. 136, 8). Zer aur dirala uste dezu Babiloniko aur gaisto arri batean zuk lertu bear dituzunak, bekatu berririk ez egiteko? «Oriek dira», dio S. Agustinek, «bekaturako naikunz galgarriak»: *nascentes malae cupiditates* (hic). Eta naikunz oriek zuk lertzeko edo zeregandik aienatzeko, utz izkitzu agertu ditugun bekaturo bideak eta beste galgarri guziak; zai zatzu zere begiak eta animaren beste ate ta leioak, eta ez dizute biotza gogortuko zere bekatu egiñak. Aterako dezu zere burua erio gaistoaren atzapar gaistotik eta iganen zara zori eneko glorira. Jangoikoak dizula artako bear den lagunza ta grazia. Bai arren, bai.



LI

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amabigarren igandeko irakurraldia

Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo...

Fac hoc, et vives. Luc. 10.

Gaia: Atseginza ta bakea bekatutik ez,
baizik Jangoikoa maitatzetik datorren gauza da

Lege zarrean bizi ziranak lege berrikoak bezala Jangoikoak egiñak ziran. Lege zarreko guziak eta gu zeru baterako egiñak gara ta al-ere etziztuen Jangoikoak lege zarrekoak gu bezain meki tratatu. Lege zarrekoen-zat Eskritura santan agerzen zen Jangoikoa agitz izugarria ta lege berrian beti agertu da guztiz maitari maitagarria. Legea lege zarrekoei agertu zien aldian agertu zen Jangoikoa edo Jangoikoaren aingeru bat suzko ta keezko odeiez ingurutua ta mill element eta trumoien erdian sartua. Era izugarri orretan mendi-gaň batetik asi zen azpiko egalean arkitzen ziran israeldarrei agerzen beren legea, ta agertu zien bazter guziak urratu nai zituen ta ikaraz ta beldurrez israeldar berak zeduzkan klarin batekin eta klariñ aldi oro ots eta soflu izugarriagoa egiten zuenarekin.

Eta aldi artan sartu zien beldurrean iduki naiez ta agertu zien legeak ziona obeki eragiteko, hitz egiten zien gero israeldar berei agitz osoki ta hitz gutiko nagusi batek bere ogikoari edo errege gerrariak bere soldadu ta beste guziei bezala. Eta israeldar batek edo bestek austen bazuen Sinaiko menditik agertu zien legea, egiten zituen Jangoikoak bein suz, bein agorrez, bein sierpez ta beste anitz aldetara kastigu agitz andiak eta beretatik zenbait ondatu zituen bein suleze infernu bizian.

Beste biderik da lege gurekoekin Jangoiko berak artu duena. Egin zen gure gisako gizon, gure arte berean jaio ta bizitu zen ogei ta amairur urtez edo jaio zen hordutik ill arte guzian. Ekusten zutenak gizona baizik ez zela uste zuten Jesus ta Jangoiko-gizonzat ezagutzen zuten Apostol ta beste guziak ere beste bati bezala hitz egi ten zioten Jesusi, Jesusek berak artako ematen zien eskuarekin; bada beste anitz gauz leun meeren artean esaten zien bein etzuela gure na gusiaren ta errege izugarriaren izena nai; nai zuen izena zela gure Ait eta adiskide onarena: *ergo*

amodo voca me Pater meus tu es (Jerem. 3,4); *non dicam vos servos... vos autem dixi amicos* (Joan. 15,15).

Me-meki agertu zigun, bada, Jaun urrikalti Jesusek bere lege berria; ta bera zerura igan ta andik igorri zigun Espiritu Santua, amo-riozko bidez lege bera bein Apostol jaunei ta gero orien eskuz guri arrezterera, ta onez ta amorioz eragin nai digu beraren lege berri berak diona, egungo Ebanjelioz Jangoiko-gizon Jesus berak erakusten digun bezala. Ara nola.

Legeko bernia zuen jakinsu batek esan zion bein Jesusi: «Jauna, zer egin bear dut betiko zori on bat erdisteko?». «Legeak diona», eranzun zion Jesusek, «edo Jangoikoa ongi ezagutu ta biotz osoz, anima guziz ta dezun indarrarekin maitatzea ta Jangoiko beraren izenean beste guziei zere buruari bezala begiratzea, zeren beste guziak diran Jangoikoari dagozkan gauzak. Egizu zuk hau ta nai dezun ona erditsiko dezu»: *fac hoc, et vives*.

Jangoikoaren izen-amorez egiten baditugu geren lege berrian Jangoiko berak berezten dizkigun gauzak, erditsiko dugu, bai, sekula eo geren atseginza ta zori oneko bizitza, bai ta emen lurgañ berean izan dezakeguna ere. Bata ta bestea galdu zituzten israeldarren arteko gaistbak eta galzen ditu lege berriko gaistoak ere, zeren on bere maitatzalleanzat gordeak daduzka(n) Jangoikoak emengo bake ta soseganz oneko bizitza ta zori oneko bestekoa, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

§ I.

«Espiritu Santuak gugana datorren aldian dakarrena da», dio S. Pablok, «Jangoikoaren amoreta, atseginz andia ta barreneko bakea»: *fructus Spiritus Sancti est charitas, gaudium, pax* (Galat. 5,22), eta atseginz ta bake hau ezin izan ditzake Espiritu Santurik edo aren grazirik ez duen ta Jangoikoaren legea urratzen duen bekatariak.

Legearen urratzalea da deabruarekin tratuan sartu ta edozein mandamentu urratzen duen gizona ta geroko saritan ematen dio deabru merkatarri gaistoak oni bein aragiaren atseginz loi debekatua, berriz zenbait diru edo ondasun ta beste aldiren batez billatzen duen honra piska ta antust-gai artoa ta askotan onen naikunz ustela. Ala da, dio S. Agustiñek: *diabolus pessimus foenerator aliis luxuriam, aliis avaritiam, aliis superbiam commodat*. Baña zenbat dela uste dezu bere sal-aldian deabruak ira-



bazten duena? Eman dionak balio duena ta amarretan edo eunetan geiago? Bai ta eun mill-milloi-milloietan geiago ta geiago ere; bada ematen duen gauz txarraren alde arzen du bekatari gaistoaren anima: *animam pro usura diabolus exigit* (Apud Le Blanc, t. 4, n. 574). Eta bekatariaren animak balio du munduko urre, ziliar, perla, diamante, atseginz eta honra guziak eta zeruko eguzki ta izarrak baño mill-milloitan geiago ta geiago.

Hau bezain tratu gaistoa egin duen bekatariak ezin duke atseginz eta bake erdirik ere bere animaren zorra bere gain duen arte guzian, ta bitarte onetan da arranzaleak bota dion bazka jan naiez ark estalzen zuen hamua jan ta trabaturik eta preso gelditzen den arraiaren gisakoa; bada arraiak hamu zorrotza beregandik kendu ta egin dion zuloa ersi ta sendatu arte guzian ez du onik eta atseginz; ez eta bekatariak ere egin duen bekatua beregandik kendu ta anima graziz sendatua utzi artean; arte orretan (ta artaratzen ezpada, beti) ibilliko da ai-ez, naigabez ta kezkaz betea.

Al-ere munduko txoratu, gauzen bear den gisako berririk ez dutenak uste dute zori on batean ta atseginz andiarekin biziko dirala deabruaren eskutik gauz oriek beretu ezker: *beatum dixerunt populum, cui haec sunt* (Ps. 143,7), eta orien billan pozik sarzen dira artako dela uste duten edozein malkor, danz, artu-eman, joko edo beste bide makur galgarritan. Baña uste ustel gezurtia da orien uste txar hau; ta uste, oriek uste ez duten naigabez ta kezkaz ta ai-ez betea. Adi zazu egi onen testigu on batek bein esana.

Izandu zen Sizilian Dionisio zeritzan errege tirano gaisto bat. Aldetik ekusten zutenak uste zuten hura zela munduko gizon zori obekoena, zeren ekusten zuten ematen ziozkala bere buruari nai zituen atseginz eta kontentu guziak, onak izan oriek edo gaistoak. Demodes zeritzan ta errege beraren aldean ibilli oi zen gizon jakinsu batek, ari atsegin egin naizik eta lausengaz esan zion aldi batez: «Jauna, baderitzat munduko atseginz eta naikunz on guziak bildu dituzula zere biotzean ta ez dela zu bezain zori oneko gizonik jaio; Jangoikoari eskerrak guziagatik».

«Eskerrik asko, Demokles», eranzun zion errege Dionisiok, «agerzen didazun naikunz onagatik eta izan dezazun zati bat nere atseginz-etan, geldi zaitez gaur ta afalduko dezu nere maian». Ezin ohea zen erregeri ta erregeren maiko lagunei prestatu zioten afaria ta afal horduan jarri ziran guziak maian, bakoitzari erregek berezi zion tokian; ta jarri zen Demokles magi bageko ezpat zorrotz bat gañeko aldetik dindilirik zedukan kataderan; baña jarri zen an non jarzen zen etzekiela, ta jarri zen, atseginz eta poz laster aski ito zitzaionarekin; bada lenbiziko edanaldian

burua zerbait goratu ta ekusi zuen bere gañean zedukan ta erorzen bazen an bertan josiko zuen ezpat zorrotza; ta hura ekusi ta Jangoikoak daki nola gelditu zen eskuan zedukan urrezko taza; ain otz-arritua gelditu zen bere burua tranze artan ekusi ta.

Taza utzi ta aldatzera zijoan andik bere katadera(ra); baña «Ez, Demokles», esan zion erregek erdi aserreturik, «zaude zauden toki berean; ez da zer ortik igitu, nai ezpadezu ekusi dezun ezpatarekin josi zaitzan nere soldadu batek edo bestek». Artu zuen horduan izerdi otz batek Demokles burutik oñeraño eta egondu zen an arri egiña bezala, afaria bukatu ta erregek bere aldera deitu zuen arte guzian; eta egondu zen, bokadurik arzeko gogorik bage ta arzeko ere esku muturretan indarrik etzuela ta noiz ezpatak josi ta illa utzi bear zuen etzekiela.

Maiko aldia egin ta jaikitzeo baimena izandu zuen; ezpaldan kendu zen Demokles bere ezpat-petik eta egin zuen ai bat erioaren atzaparretatik atera baliz bezala; galdetu zion Dionisio erregek: «Demokles, zure gogarakoak izandu dira eman dizudan afaria ta aditu dezun musika?». Burua bildu ta solbardak goititze batekin eranzun zion Demoklesek zegokan guzia. Erregek hau ekusi ta esan zion adiskidanzan Demoklesi: «Nik ongi seguraturia nedukan zure gañeko ezpata ta al-ere orrenbat izutu ta naigabetu zaitu, Denbkles. Baditut nik nere biotz gañean mili ezpat eta al-ere zori oneko gizona nazala uste dezu? Baldin bazeneki zenbat beldur, zenbat naigabenz eta zenbat egiteko nekagarri sangaka dauden nere barren onetan, besterik esanen zenuke. Gaur nai dudanak asperzen nau bigarko ta badut beti bein ere asetzen ez den naikunzen bat edo beste ta besterik badirudit ere, zori gaistoko gizon urrikalgarria naz ni».

Hau da errege gaisto Dionisiok ziona ta hau bera da gaizki bizi den edozein bekatari esan dezakena; bada lagun arte berean ta bere jostaketan besterik badirudi ere, bere bakartasunean ta etorkizun izugarrietan oroitzen den guzian kezkaz ta ar gaistoz betetzen zaio bere barrena ta Jangoikoak daki orien ozkak zenbat naigabe ta ezin-egon sarzen dioten bere biotzean. «Ez, alferrik ibilliko zara batetik bestera», dio Espiritu Santuak: «ez da bakerik gaizki dabillenaren barrenan»: *non est pax impiis, dicit Dominus*.



§ II.

Non, bada, non arkituko dugu atseginz eta bake osoa? Jangoikoa maite duenaren barrenean, len ere salmariaren hitzez adirazi dugun bezala: *pax multa diligentibus legem tuam* (Ps. 118, 165). Jangoikoak nai duena nai izatea da Jangoikoa maitatzea eta hau nai duenak du barreneko atseginza ta bakea. Egi hau adi zazu bearsu gaiso baten ezpañez Jangoiko berak adirazia.

Gizon estudio andizko batek jakin nai zuen non ta nola arkitzen zen zori oneko atseginz eta bake on bat. Hau gogoan zuela atera zen bein Eliz batetik eta ekusi zuen Eliz atariko eskaleretan eskeko elbarri zauridun bat. Aren parera zenean, esan zion urrikaldurik: «Egun on, nere bearsu gaisoa». «Eskerrik asko, jauna», eranzun zion eskale zauridunak eta esan zion oni zitxekola: «Ez dakit izandu dudan nere bizian egun gaistorik». «A, gaisoa, gaitzez ta lazeriz betea ekusten zaitut burutik oñeraño ta egun gaistorik ez ekusi zuk bein ere?». «Ez, jauna», eranzun zion bearsu zauridun elbarriak; «bada goseak estutzen nabean aldian eskerrak ematen diozkat Jangoikoari ta Jangoiko berak nai duena egiten dudalako atseginzarekin banago alakorik ezpaliz bezala. Hau bera egiten dut egarriak estutzen nabean aldian. Eguzkiaren berotzerik andienak, neguko elementak eta eraunsi guziak, gorputzeko eritasunak eta sukarrak, lorik ezin egiñak eta oñaze ta gañerako neke guziak ez dute laburzen barreneko nere atseginza ta bakea, ta agerzen diran gaitz guziei irri egin ta gelditzen naz ni, ekusi ezpanitu bezain soseganz andiarekin».

«Eta soseganz eta bake orrekin geldituko ziñake», esan zion gizon jakin-naiak, «Jangoikoak bidalzen bazindu sulezero ta infernu bizira?». «Uri», eranzun zion bearsu batedunak; «badiut nik bi beso, Jangoikoari eskerrak: Jangoiko beraren amorea ta humiltasuna. Nere bi beso oien artean artua dadukat ta idukiko dut beti nere Redentore Jesus maitagarria, ta izaten banu sulezerako ordena, edo Jangoiko berak geldituko ninduke edo nerekin ara jaitisiko litzake ta naiago nuke zeruan Jangoikoarik bage baño Jangoiko berarekin sulezeko neke-tormentu guzien erdian egon»: *optatus mihi foret in in f erno cum Deo esse, quam vel in coelis sine illo*.

«Non dezu zuk zere Jangoikoa?», galdetu zion gizon jakinsuak. «Nere biotzean», eranzun zion bearsu batedunak. «Eta zer izan uste dezu?», galdetu zion berriz jakinsu berak. «Errege andi, nazan bezala», eranzun zion eskaleak; «bada beti egiten dut nai dudana, zeren nai ez dudan Jangoikoak nai duena baizik». Hau guzia esan don bearsu zauri-

dunak gizon jakinsuari, Jangoikoz ta Jangoikoaren amorez beterik arkitzen zenak bezala, ta esan zion hitz oso humiliez, arrotasunik bage ta biotzak dadukana baizik esaten ez dakienaren eran. Arriturik gelditu zen alakorik argandik uste etzuen jakinsua ta esan zuen lotsarik bage bere bizian aditu etzuela aldi artan bearsu argandik aditu zuena bezain erakuste zuzenik eta (ikasi) zuen atseginz eta bake onerako bidea dela Espiritu Santua edo Jangoikoaren grazia ta maitanza berekin izatea. (Taulerus, Dialog. inter Theolog. et pauper.).

Hau ala dela guri siñisterazteko aski da jakitea emengo atseginz eta bake ona dela zerukoaren ainzura ta iduria, ta gauza jakiña da zeruko bakea ta atseginza dela Jangoikoa bere zeruan ederki ekustea ta al den indar guziarekin an bera maitatzea. Zenbat atseginz eta sosegu dakarren Jangoikoaren ango ekuste ta maitanz onek ezin adirazi dezakee ango gauzetatik zerbait izandu dutenak baizik. Zeruko zerbait ekusten edo probatzen bazenu, esanen zenuke abade Silbanok ziona, ta onek ziona zen zeruko edozein arpegiren aldean emengo ederrena arpegi itsusi ustelduena baño agitz izugarriago iduritzen zitzaioa. Eta ango bokadu bat bein artu zuen abade Silbi(ano)k esan zuena da ango bokadu hura aoran sartu zuen ezkerre, ezterik goisoena iduritzen zitzaioa izurririk latz miñena baño agitz latzagoa ta miñagoa. Zer atseginzak, bada, zeruko ekuste garbiak eta ango janari goisoak ematen dutena? Eta zer atseginzak Jangoiko berak berez zerutar guziei an ematen diezten andiak? Bada oriek besteak baño mili milletan andiangoak dira ta zenbat ere zerutarren beraganako maitanz-amorea andiangoa den, anbat andiangoak dira beragandik oriek dituzten atseginzak.

Jangoiko beragandik da beraren emengo maitatzalleen atseginza ta bakea, ta zenbat andiangoa orien beraganako maitanza, anbat andiangoa oriek eman izan oi duten atseginza ta bakea. Andiak izandu ziran Apostol S. Pablok Jangoikoaren izenean itsasoz, idorrez ta beste anitz aldetara izandu zituen neke-tormentuak, baño guziak itotzen ziozkan Jangoikoak zion amorearen alde ematen zion atseginzak: *superabundo gaudium in omni tribulatione* (2 Cor. 7,8). S. Efen-ek bere nekeen ta relijioko penitenzien artean esaten zion Jangoikoari: «Jauna, ez niri onenbat atseginz, bada txikiegia da nere barren hau guzia arzeko»: *recede, Domine, parumper: vasis hujus infirmitas ferre non potest* (Apud Le Blanc, tom. 1, v. laetit.), eta S. Franzisko Xabierrek: «Jauna, ez geiago, ez geiago»: *satis est, Domine, satis est*.

Gaizki bizi diranak dira naigabe bat duteneko, kalte bat ekusi horduko edo eritzen diran aldian atseginzik bage ta naigabez ta illuntasunez



betetzen diranak eta beren itxeko guziak mindurik uzten dituztenak. Onetan gelditzen dira leneko orien atseginez zikiñiak; bai, dio Espiritu Santuak, atseginez gaistoari darraikon ondokoa da kezka, negarra ta naigabea»: *extrema gaudii luctus occupat* (Prov. 14,13).

Gaistoak len ta gero dituzten kezka, negar ta naigabe guziak alde bat utzi ta izan ditzazun emengo ta sekulako atseginez garbi bakedunak, emen bizi zaraño egizu zuzenki Jangoikoaren legeak diona ta maíta zazu ongi ta ziñez Jangoiko bera: bai arren, bai.

LII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amairugarren igandeko irakurraldia

Ostendite vos sacerdotibus. Luc. 17.

**Gaia: Nola ta zertako billatu bear duen
bekatariak konfesorea**

Guk bearren dugun gauza anima da; bada betiko zori onerako egin ginduen Jangoikoak eta zori onekoak ezin izan gaitezke geren anima galdu ezker ta hau galdu ezker galduko gara sekula guzirako. Animaren onenbat zori onerako gal-bideak non-nai arkitzen dira ta aisa galduko du, bide oriek utzi ta beste onak artu ta erne ta kontuz ez dabilenak. Eremutarrak mendi-basoko beren bizitegian eta fraide onak beren konbentu baztertuan badituzte beren gal-bide makurrak eta izan-du dira an beren animak galdu dituztenak. Jesusen eskolan arkitzen ziran Apostol berak etziran arkitzen beren galbiderik bage, ta denbor laburre-rako bazen ere, galdu zen S. Pedro ta an bertan galdu zen betiko judas. Lurreko paradisia zen zerukoaren ainzur eder bat. Paradisu onetan sartu zituen Jangoikoak Adan ta Eba bekatulik eta bekatulako griñik bage, ta al-ere batak eta besteak an bertan izandu zuten beren animen gal-bidea; beren bekatuz galdu ziran an bata ta bestea ta biak galdu zuten betiko lurreko beren paradisia.

Adanek an bekatu egin ta griñ gaistoz beteak etorri gara mundura etorri garanok; eta etorri gara mundu, deabruaren lakioz ta animen gal-bidez beterik arkitzen denera; bada munduko edozein menditan, edozein basotan, edozein aran ta toki zabaletan, edozein bidetan, edozein erritan, edozein kaletan, edozein itxetan ta Eliz beretan ere ezarri oi ditu deabru gaistoak bere lazo-lakio galgarri galstoak eta animen gal-bideak. Gaitzerako geren grin gaistoak bulzatzen gaitu gal-bide orietarunz eta Jangoikoari lagunza eskatuz gelditzen ezpagara, an bekatuz galduko gara. Eta billatzen ezpadugu erakusle onen bat edo animen gal-bide ta zeruko zuzenak agerzen dakiena, azkenean bekatuzko leze izugarrian ta suzko infernua galduko gara. Hau adirazten digu Jesusek egungo Ebanjelioko amar ezkabidun lepratsuri eragin zien gauzarekin.



Igaten zen Jesus noiz-ean bein Jerusalem ta zenbait aldiz igaten zen anitz lego bide egiten zituela. Igan-aldi luze orietatik bat izandu zen egungo Ebanjeliokoa; bada igan zen Samarian ta Galilean barrena ta bazter oriek Jerusalemendik urrutisko arkitzen ziran bazterrak ziran. Bere igan-aldietan egin oi zituen bidenabar bezala zenbait milagro ta igan oi zen Jerusalem, ango Elizan bere Aita ta gure Jangoikoa ekus ta adoratzera ta hau bera egiten guri erakustera.

Aldi onetako bere igan-aldian egin zuen amar bearsuren onerako milagr orietatik bat. Bideko erri txiki batera Jesus sarzean, agertu ziran amar ezkabidun lepratsu ta urrutitik asi ziran oiuka esaten: «Gutaz urrikal zaitetz, Jesus maisua». Orien otsera goratu zituen Jesusek begiak, ekusi zuen zuten gaitza ta esaten die: «Zoazte zeren buruak apaizei erakustera». Esan nai ziena zen: «Zoazte, egin da zuek nai dezutena ta sendatu zarate»; ta ibilzen asi horduko, ekusi zuten leprarik bage beren burua ta al-ere bidaldu zituen Jesusek Eliz-apaizetara, zeren lepratik sendatzen ziranak apezak billatu, beren buruak agertu ta sendatu zirala apaizak esan ta baizik, ezin sar zitezken besterik arkitzen zen tokian.

Egin zuen, bada, Jesusek hau amar ezkabidun lapratsu oriekin, bekatuaren lepra duten guziak ere hau bera egin bear dutela guri adirazteko ta oiei ere esaten die: «Zoazte apaiz konfesoretara zeren buruak oriei ongi agerzera»: *ostendite vos sacerdotibus*. Badakizu zein diran hau ongi egiten dutenak? Aldi onetan ekusiko dugu.

§ I.

Konfessorearen oñetara ongi dijoazen ta beren lan hau bear den gisan egiteko egiten duten lenbiziko gauza da egungo amar lepratsu gaisoak Jesus sendalleagana bezala joatea ta beren bekatuaren ezkabi ta lepra guzia humilki agertu ta animako osasuna billatzea; hau da alabaña lepradun amarrak Jesusekin egin zutena; bada zeraman jende guziaren erdira ots egin ta beren ezkabi edo lepra itsusia agertu ta eskatu zioten urrikal zekiela ta senda zitzala.

Ez dizu Jangoikoak eskatzen bekatuaren animako zere ezkabia kenzeke ager dezazula ojuka ta konfesariaren aldean arkitzen diranak aditzen dutela; eskatzen dizuna da konfesariari zere bekatu guziak humilki zuk adiraztea. Hau da Madalenak bekatuduna zen aldian egin zuena; bada bere bekatu gaistoarekin ezin burutuz, billatu zuen Jesus farise

baten itxean ta mdian, ta lotsaz ta alkez gibel aldetik Jesusen oñak billatu ta garbitu ziozkan bere begietako negarrarekin ta txukatu buruko illearekin. Orra zein humil joan zen Madalena bere bekatu guziak Jesusen oñetan konfesatzera. Orra, ongi joanen bazara, nola joan bear dezun Jesus beraren ordezeko konfessoreagana: humilki jaunzia, arrotasunik bage ta lotsaz ta alkez betea. Eta hau egiten ez duenari dagoka Jesusen gure Koppañiko konfesor batek dama arro bati egin zion ongorria.

Konfesor hau karidadez ta humiltanzez jaunzirik zebillen gizona zen. Elizako bazter batean konfesatzen zituen arganatzen ziran errumes, bearsu, nekazari ta era bereko beste guziak. Eliz berean konfesatzen zen dam andi bat eta ekusten zuen gizon hau bere konfestegian jendez ingurutua, ta buta ez bezalakoak baziran ere an bilzen ziranak, izandu zuen bein arekin konfesatu naia. Goiz batez joan zen Elizara bere pajez ta itxeko eskutariz ingurutua ta konfestegiaren alde batetik zegon jende guzia bazterrerazi ta urbildu zen ango leiotxo saredu txikira, bere ustez konfesatzen zegoaren ondolik konfesatzera; bafla ez horduan ta ez gero konfesatu zen an egun artan.

An hari zen konfesor humillak ez-ekusi egin zion dam andiari ta oñetan zedukanaren konfesioa bukatu ta an bertan gelditu zen beste ta besteak konfesatzen, burua itzuli-jiratu bage dam hura arkitzen zen alde-rra. Jaiki zen noizbait dama ta eskatu zion konfesa zezala hura ere. Txutitu zen horduan konfesaria ta esan zion damari: «Ma-dama, ni naz emen ekusten dituzunak bezalako bekatari gaisoak konfesatzeko bear diña dakidan gizon bat eta zu bezalako andiak konfesatzeko ez naz gauz». «Bekatuket andirik ez dakart nik, Jangoikoari eskerrak», esan zion damak, «eta konfesa nazake beldurrik bage».

«Ori ala izanen da, dama, baña nik ez dakit ekusten ditudan zure apainket-lagunak eskatzen duten diña; bada ori, nik deritzadanez, mundutarrak komedira edo danzara bezala konfesatzera zu etorzea da. Barkatu, bada, dama, nere ezer-eza ta guzien diña dakien bat billa zazu konfesio on bat egiteko». Esan zion hau guzia konfesariak damari lurretik begiak jaso bage, hitz mee humillarekin ta miñik ezin egin zezoken eran, ta agur andi bat damari egin ta asi zen berriz beste aldetik konfesatzen.

Hau ekusi-aditu ta beittitu zuen damak bere burua ta barreneko mindurarik bage utzi zuen egun artako konfesioa ta joan zen bere itxera. Egun guzian etzuen gogotik utzi bearsu gaisoen ta nekazar ezer-ezen konfesor onak esan ziona ta prestatu zen urrengo egunean konfesor berarekin konfesatzeko ta joan zen jaunzia danzarako bezala ez, baizik konfesi humil bati zegokan gisan ta Italiko Korzegan beinzat dam bir-



tut-dunak joan oi diran eran. (Joan oi dira lepoan lotzen den ta soñeko gañetik gorputz geiena arzen duen tafetan belzezko kapotilla batekin, fraideen kapill moduko estalki batean burua sarzen dutela ta penitente trajean). Ala hura ekusi ta artu zuen bearsu gaisoen konfesariak, eman ziozkan zegozkan konseju onak eta arrezaz zion len ez bezalako bizi modu bat. Orra konfesariagana agerzen zaran aldian egin bear dezun lenbiziko gauza: arrotasunik bage jaunzi ta humilki hura billatzea.

Era orretan konfesoera billatu zuen dama etzen joan mututurik an egotera; joan zen zuen konfeskizun guzia konfesoerari, beren lepra amar lepratsu gaisoak Kristo Jaunari bezala, humilki an agerzera ta bestela etzen sendatuko; bada konfesoera medikua da ta medikuak sendatzen ez du bere gaitza gordetzen dion eria.

Dam onek etzuen aldi artan billatu konfesor hau leneko bere konfesoerari ez esan naizik jakin bear zuen gauza, orrelako aldian beste zenbaitek egiten duten bezala. Nork, uste dezu? Adi zazu. Badira munduan (ta guti ez) dabilzanak bekatutik konfesiara ta konfesioteik bekatara; ta gis orretan dabilz, zeren bekatuak bideak uzteko ta ondurik gelditzeko bear den asmorik arzen ez duten; ez eta artu nai ere; ta dabilzan bidez ibilli naiez, orien ibilleren berna duen konfesia utzi ta billatzen dute arrotz bat, agerzen diozkate azken konfesioko beren bekatuak, gordetzen diote orien sustraia ta beren bekatuak bidea, ta absolbanza artuagatik, gelditzen dira beren bekatu guzien pean.

Ongi prestaturik konfesia billatzen duenak agerzen dio bere barren guzia ta ez dio gordetzen beraren gobernurako jakin bear duen, gauz andi txikirik, eta guzia aditu ta agin-manatzen ezpadio ere esan-manatu bear ziona, konfesatzen den bekatariak egin bear du esan ta manatu balio bezala; bada berez egin bearra da, konfesoerak jakin balu edo oartu baliz agin-manatu bear ziona; ta hau ez egitea ta ez egiteagatik konfesor arrotzak billatzea gaizki billatzea da ta konfeso gaisto bat egitea.

§ II.

Ongi konfesatu nai duenak egin bear du geiago ere; bada billatu bear du konfesoera, aren aotik aditzeko jakin bear duena. Jangoikoak esaten du lege zarrean gauz bat eta diogun hau da arekin adirazten diguna. Jangoikoak esaten digun gauza da: «Eulzian ta gari-trillan dabilen idiari ez da muturra zer lotu edo zare-zakuan zer sartu»: *non alligabis os*

bobis trituranis fruges tuas in area (Deut. 25,4), ta gauz onekin adirazi nai diguna da, Tertulianok, Theodoretok eta beste zenbaitek esaten dutenaz, gure anima maneatu ta zaitu bear duen konfesoerari mihi-mingaia ez dela zer lotu (Apud Delrio prov. 131). Pulpitutik hitz egiten dute predikari jaunak eta esaten dituzte anitz gauz on; baña erdietan ere ez dute guziekin hitz egiten, zeren zenbaitei dagozten gauzen bearrik ez duten besteak; batzuek alabaia onak dira ta besteak gaistoak, eta gaistoekin predikariak hitz egiten duen aldian, onak alde bat gelditzen dira. Eta gaiso beren artean ere zenbait maldizgilleak dira; baña ez dira edale galdu, jokale galgarri ta gaistagin makur gaistoko gizonak. Zenbait, beste alde, gaistoak dira edo aragizko zikinkeriz beteak, baña beste gaizkirik egiten ez dutenak, eta beste zenbait gis eta er bereko gaistagin ez dutenak; baña bai beren ebasket eta murmuranzak. Predikariak ebasketen ta murmuranzen gain diarduen aldian, geldirik uzten ditu maldizari, jokale ta gañerako bekatari guziak eta hau bera agi-gertatzen zaio edozein beste bekatari modurekin hitz egiten duen aldian.

Etzaio orrelakorik gertatzen konfesoerari oñetan duen konfegilleari hitz egiten dion aldian; bada ongi egiten badu ark bere konfesoia, agerzen diozka animako bere zauri guziak eta bekatu moduak eta hitz egiten dio gero konfesor onak dagokan gauzan ta ematen diozka bear dituen enplast eta sendagai artakoak; eta zeren ematen diozkan me-meki hitz egiten diola ta dagokan aldian, egiten diote beste batez egiñen etzio ten ona; bada Senekak dion bezala, meki ta bere denboran esaten diran gauzak obeki sarzen ta gelditzen dira aditzen dituenaren gogoan: *submissiora verba facilius intrant, et haerent*. Ep. 30.

Bekatariekin egin oi du deabruak sorginekin egiten duena. Lenbizian agerzen zai(e) sorgiñei deabru belz itsusia aingeru eder bat dirudiela; baña gero aren hitzera oitzen diranean, uzten du ez dagokan itxura ta agerzen zaie bein auz edo aker dirudiela ta berriz ta beste aldie tan katuaren edo ganadu izugarriren baten itxuran; ta al-ere ez dira sorgiñak izutzen ta badardukate deabru gaistoarekin beren ezagunarekin bezala. Gazteari edo beste galdu nai duen edozein bekatuaren asierak eta bideak agerzen diezte deabru gaistoak gaitzik ez duten ta jostaketako ta denbor pasa egin ditezken gauzen itxuran, ta orietara oitu ondoan, oitzen ditu bekatu ezagunetara ta erabilli oi ditu orien erdian lagun on atsegiñen artean bezala.

Baña ez dira mundutarrak bat-batean orretaratzen; lendabizirik badoaz konfesor jakinsu birtutedun bat gana ta humilki aditzen dute esaten diena. Zori onekoak egiten badute esaten diena; bada esaten ta mana-



tzen die bekaturako bideak uztea, ta esaten die bide orien bazterretatik ere urrunzea, bide beretara etsai gaistoak eraman ez ditzan len edo gero; ta manatzen die bata ta esaten bestea, Jangoikoak artako ematen dion argiarekin, gauzak bear den eran ekusten dituenak bezala; bada gañetik ekusten ditu konfesoreak konfesatzen denaren gauzak, eta ekusten ditu konfesatzen denak ez bezala; zeren konfesorea den zeruko izarrak ekusten dituen begia bezala, ta konfesatzen dena, bere betazala ezin ekusi duen begiaren gisakoa; ta ekusten dezu mili ta milloi legua urrun egonagatik zeruko izarrak ekusten dituela zure begiak, eta zure begi berak ezin ekusi duela gañeko betazal hau, begi bera ukiteen duela egonagatik: *oculus in coelo, ubi utique non est, videt stellam: palpebram, sub qua latet, non videt* (Ricard. a S. Vict. lib. de Trinit.).

Gizon jakinsu ta santu andia zen Pabiko Obispo S. Enodio; bazezien guk diogun hau, ta zekienak bezala, esaten ta gaztigitzen zien bere ezagunei: «Kontuz begiratu bear diezue nere hitzei ta beste gauz guziei ta agertu bear didazue makur dabillen guzia; ta ni Obispo izanagatik eta zuek ez, hau egiteko ez da zer beldurtu»: *nemo Ecclesiae Principem admonere timeat, si probet errantem* (S. Enod. op. 3). Hau bera gaztigitzen zien Eliz guziko Aita Santu, Kristo Jaunaren Bikario ta Doktore andi S. Gregoriok ere bere ezagunei ta kontuzko gizonen, ta batei ta beste gaztigitzen zien hau, zeren zekien gañetik daudenak bezain ongi ezagutzen ez dituela batek bere utsak.

Konfesariari bezain ongi ez dagoka bati ere egiteko hau; hau alabaña konfesariari berez dagokan egitekoa da, ta besteei besteen faltan urrikariz ta ongi naiez bezala. Zure konfesorea da gau illunaz argia daramana ta animaren oña non ezarri erakusten duena. Hau adirazten digu salmari onak esaten duen aldian: «Jaun, zure hitza da nere oñak zuzentzen dituen ta bideak agerzen dizkidan argia»: *lucerna pedibus meis verbum tuum, et lumen semitis meis* (Ps. 118, 105), ta Jangoikoaren hitza agerzen duen argigillea konfesatzen denarenzat konfesorea da: *lucerna ardens, et lucen* (Joan. 5,35).

Eta orra ongi konfesatuko denak nola billatu bear duen konfesorea: humil humilki, dena den bezala ta bere barren guzia ari agerzeko, esaten dion guzia onzat arzeko ta bear den aldian zuzenki egiteko. Eta esan dezon esan aldian esan bear diona, billatu bear du konfesor jakinsu birtuteduna, meki ta ongi adi dezan bere konfesioan esan nai diona ta aren aotik aldian aditzeko jakin bear duena. Jangoikoak dizula orrelako bat arkitzeko ta esaten dizun guzia ongi egiteko grazia: bai arren, bai.

LIII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amalaugarren igandeko irakurraldia

Non potestis Deo servire, et mammonae. Matth.

6.

Gaia: Jangoikoaren grazia ez galzeagatik
utzi bear da beste guzia

Bataitua zen Juliano zeritzan gizon gaisto bat. Egin zuten hau bere aldian enperadore ta soldadu guzien nagusi. Kargu onekin ta nai zuena eragiteko eskuarekin bere burua ekusi ta agertu zuen gogoan zekarrena, ta kristau lanak utzi ta asi zen jentilen gisan bizitzen, ta berak hau egiteari guti eritzirik, egin zuen alegiña beste guziei ere hau bera eragiteko. Onetako agindu ta manatu zuen ejerzituko ta inperi guziko kargudunak ar zezatela jentil legea edo utz zuten kargua ta geldi zitezela sekulan izan du ezpalute bezala.

Bataituetatik anitzek kristaunza ez uzteagatik utzi zituzten Julianoren kargu guziak eta asi ziran len baño ere kontuzago ta obeki bizitzen. Beste zenbaitek utzi zuten gure lege santa ta gelditu ziran zituzten kargu-eskuekin ta Juliano enperadorearen adiskide izateagatik galdu zuten Jangoikoaren grazia ta zerurako deretx-eskua. Arte artan zer egin etzekiela ibilli zen soldadu gazte kargudun bat, zeren zeritzan, gelditzen bazen zuen karguarekin, erditsiko zituela denboraz gerrari batek izan ditzaken andienak ere. Beste alde gogor egiten zitzaion Kristo Jaunaren iegea ta zeruko gloria alde bat uztea.

Gogoranz illun onekin sartu zen egun batez Elizan ta bere zorienez arkitu zuen an Obispo jaun Teuton; ta arkitu zuen beren siñistantz onean zeudela sendor fededunei esaten. Gazte hau an ekusi bezain laster ezagutu zuen Obispo jaunak gazte ark bere gogoan zerabillena ta artaz urrikaldurik utzi zituen bere fededunak eta bidera atera ta arpegi arin ta begi on bat agerzen ziola, artu zuen eskutik eta geldi-geldi, ta esaten ziola aldi artan zegokan guzia, eraman zuen aldar aldera, ta berak meza emateko eraman zuten misala idiki ta agertu zen lenbiziko Ebanjelioan ezarri zuen bere eskua; an bertan ezar erazi zion gerrari gazteari berea, ta



urrikarizko ta ongi naizko begiz begiratzeko ziola, esan zion Obispo santuak: «Gazte maitea, Ebanjeli onek diona edo zure enperadoreak esaten dizuna egin bear dezu? Bata ta bestea ezin dagizketzu, bietatik bat badagikezu ta zure eskuan dago egin gogo dezuna arzea ta ar zazu ongi dagokizuna»: *aut Evangelio, aut Caesari servire debes: utrumque coniungere non potes, dividere potes.*

Ona aldi artan Obispo jaun ark gazte ari esan ziona. Eta ona guzoi egungo Ebanjelioan Kristo Jaunak esaten diguna; bada esaten digu: «(Elkar arzen ez duten) bi nagusiren mutil ezin izan diteke bat ere, (zeren manatuko dion batak besteak nai ez duena ta denbor berean egiñen duen hau bera besteak ere), ta batari atsegin egiteagatik begitan artuko duen (ori eragotzi nai dion) besteak, eta zeren ongi nai dionaren gauzak egiteagatik, begiratzeko ere ez dion besteari. Ez, alferrik da», dio azkenean Jesussek; «ezin bil ditzaketzu Jangoikoaren grazia ta grazi hau galerazten duen (atseginz, arroket) ondasuna»: *non potestis Deo servire, et unammonae.*

Aditu zuena aditu ta zer egin zuen gerrari gazteak? Enperadorea utzi ta Jangoikoaren legean bizi ta santu egin; bada hau bera da San Marino. Eta Kristo Jaunak egungo Ebanjelioan diona aditu ta, zer da guk egin bear duguna? Jangoikoaren grazia ta adiskidanza ez galzeko beste guzia uztea. Hau da, gaur ekusiko dugun bezala, buru onak ere eskatzen duen gauza.

§ I.

Besteren ogian bizi nai duenak, nagusi on bat al badu, txar baten itxean ez du oñik sartuko, ta agitz gutiago sartuko du, ikasten badu nagusi txar hau guti duen giza txar bat dela ta bestea agitz aberatsa ta aberats bezain emallea; bada bururik badu, aisa ezagutuko du nagusi txar gutidun zur onen itxean izan lezaken guzia dela bizi gaistoa ta irabaz txikia; ta bera nor bada, ta ongi badabill beste onaren itxean, aisa biziko dela ta irabanz onak egiten dituela; ta ez da buru oneko gizonik aisa ta irabanz andian bizi ditekela, neketan ta irabanz txarrean bizi nai duenik.

Mundura gatozen guziok nagusitan bizi bear dugu, emen bizi garan arte guzian; bada bizi bear dugu Jangoikoaren serbitzuan edo deabru gaistoarenean. Jangoikoa nagusi ezin obe, aberats, emalleagoa da. Bai, ezin ohea; bada Jangoikoak bere ogikoei beren nekea arinzeko lagunzen die lan andi ta txiki guzietan; ta lagunzen, beso ezin indarsuagoarekin.

Animako gose-egarriarekin arkitzen den aldi ematen dio bear duen jan-edana, ta ibil dedin neke andirik bage, leunzen dio legeko uztarria ta karga guzia.

Nagus ezin ohea ez ezik, ezin aberatsagoa da Jangoikoa; Jangoikoarenak dira alabaña zeruko ta lurreko ta itsasoko ta beste bazter guzietako ondasunak, eta nai duen aldi oro egin ditzake et ta gis bereko anitz gauz eta nai diña beste ta beste; bai ta oriek baño mill-milloiez andi, obe, ederragoak ere. Orra zein aberatsa gure nagusi Jangoikoa. Bada on- aberats bezain emallea da ta eskatzen diozkaten guziei emateko ditu Jangoikoak bere ondasunak, Eskritura Santak dion bezala; bada dio: «Aberatsa da Jangoikoa bere eskalle guzientzat»: *dives in omnes, qui invocant illum* (Rom. 10,12).

Bere serbitzuko eskalleentzat nagusi ezin emalleagoa den Jangoikoa ezagutzeko, jakin bear dezu ematen diezten gauzen artean ematen diela bere grazia ta graziaren aldean are pikor bat bezala dela munduko urre guzia: *omne aurum in comparatione illius arena est exigua* (Sap. 7,9). Orra, bada, zein ona, zein aberatsa ta zein emallea bere serbitzalle onarenzat nagusi Jangoikoa.

Eta zer nagusi da deabru(a) galgarria? Guztiz gaistoa, guztiz bearsua ta malle ezin laburragoa. Bai, nagusi guztiz gaistoa da deabrua; bada bere gaistaginak gatik erretzen ta erretzen daduka Jangoikoak bere sulezean ta bere gaistaginz berak gatik an iduki bear du darraikon eternidade guzian. Nagusi guztiz bearsua da deabru gaistoa; bada bere bekatuz ta kulpaz galdu zuen, Jangoikoak eman ta zeruan izandu zuen ondasun guzia. Jangoiko berak andik aienatu ta ondatu zuen suleze bizian ta geroz ez du, ta izanen ere ez, pits bat irabazteko aldi-biderik. Deus ez duenak zer eman dezake? Deus bat ere. Al-ere liluratu ta itu-galduak daduzka arenperatzen diran gaisoak eta azkeneko kenzen die andik edo emendik besteri kendu ta ematen diena; ta ematen dien guzia da egungo bere Epistolari S. Pablok esaten duena: aragiaren naikunz eta ezti pisk zikiña edo sorginket galdu, aserkunz, erriert-kudu, ir, ordikeri, tripanz edo gis bereko beste gauz gaisto edo gaistora daraman bide makurren bat eta bide berean sarzen duen su-gar ta tentanz errea.

Bekatiari deabruak ematen dion hau ere ez da deabruak ari sari-tan emana; lapurreria da ta anitz balio duen beste gauza kenzeko emana; bada bekatiari ark hau emate berean kenzen dio zuen grazia ta zerurako deretxa, ta denbor berean bere gañ arrezazten dio eternidade guzian erretzen egon beharra, instant bateko atsedanzik uzten ez diola. Eta bere sari-ainzur hau eman horduko edo edozein bekatu eragiten dion hordu-



tik unten du deabruak bekatar gaistoa kezcape ta naigabenz illun agitz izugarrian. Orra emalle zein txar, gogor, madarikatua ta zakur zein amurratua bere nagusiztat bekatar eroak arzen duen deabru gaistoa!

Kristo Jaunak bere ogikoari ematen dion graziak eta birtuteak urrunzen ta aienatzen ditu aren aragiaren zikinkerri ta beste bekatu guziak; ematen dio zerurako deretxa ta biotzaren erdiraño sarzen dio, dio S. Pablok egungo Epistol berean, Jangoikoaren amorea ta besteen onginia, bai ta beste gauz on anitzen erdian bake sosegudun ta atseginz andi bat ere (ad Galat. 15).

Hau guzia onela den ezkerro, den bezala, non arkituko dezu buru eneko fededun bat Jangoikoa bezain nagusi on, aberats, emallea utzi ta deabrua bezain nagusi txar, bearsu, emalle gaisto bat artu naiko duenik? Beste gauz-etarako izan dezake buru ena, baña hau egin nai badu, orretan ez du buru andirik agertuko; bada bearren den egiteko andian, ekusi dugunaz, artuko du ar lezaken gal-biderik makur gaistoena.

Fededun guziak buru enekoak dirudite, bada guziak diote Jangoikoa nai dutela beren nagusiztat, eta zenbaitek geiago, besteak orrenbat ez, guziak egiten dituzte Jangoikoaren serbitzuko gauzak edo konfes-komuni otoitzak eta beste zenbait. Baña deabrua guziak beretu naiez leoi aserrearren gisan orien inguruan dabill, ta besterik ezin badu, dezaken aldian galezten die egin zituzten gauz onak gatik Jangoikoak eman dien sari-grazi, birtute ta zerurako deretx guzia. Hau ark egin ez dezon Jangoikoaren serbitzuko fededun onak egin bear duena da Jangoikoaren sari on grazi hau ta oni darraizkon birtute ta zerurako deretx osoa al duen bidez gordetzea ta hau ez galzeagatik beste guzia galzeko prest egotea.

§ II.

Bai, animagatik edo anima zerurako segurutzen duen grazia ez galzeko galdu bear du batek galeraz lezoken beste guzia: *cuncta, quae habet homo, dabit pro anima sua* (Job 2,4). Hau da beste gauz guzietan buru onezko gizonak egiten dutena: geiena balio duen gauza ez galzeagatik beste guziak uztea; orregatik Inditik aberats datorren batek itsasoko element izugarrian galdu bear badu urrez, perlaz ta diamantez beterik dakarren kutx edo beste guzia, beste guziak balio ezpadu kutxak diña, gelditzen du kutxa ta botatzen du itsasora beste guzia.

Egin bear badezu neguz bide luze bat, ez dezu arzen biderako soñekorik ederrena ta geien balio duena; gordetzen dezu hau errirako, Elizarako ta urteko egunik andienetarako; ta eurirako, loierako ta beste zere joan-etorrirako arzen dezu zarrena edo beste erdi galdu bat. Ill bati eman bear zaio obirako mañdira bat; ematen zaio berri, me, onena ez, baizik erdi zeatu bat. Prestatuz eskatzen badizute zere gauzaren bat, ematen dezu dezun enena? Ez, noski, ta erdikoa ere, baldin badezu besteren bat. Orra zere gauzekin egiten dezuna: onenak ongi ta azkeneraño gordetzea.

Etxeko gauzak baño gauz oberen bat badezu, gauz hau beste guziak baño obeki gordetzen dezu. Zure bizia zuretzat dituzun gauz guziak baño geiago balio duen gauza da eta hau ez galzeagatik mediku, botik, sendagaietan gastatzen dezu aldiak eskatzen duena. Hau bera egiten dute gizonak beste aldietan ere beren bizia ez galdu naiez.

Flot aberats bat Inditik zetorren batez atera ziran bidera Afrikako korsari lapurren onzi anitz. Eskatu zien flotakoei zekarten ondasuna ta flotakoak egin zutena zen onzien saietsak orien onzietara jiratu ta kargaturik an zeduzkaten sutunbei edo piez andiei su eman ta bal andizko present bat igorri ta bidaldu. Mairu lapurrak hau ekusi ta pelerrako prestatu zituzten beren onziak eta batak eta besteak haritu ziran pelean denbor luzean; mairuak flotako ondasunak gatik eta flotako gizonak ondasun berak gatik eta beren bizi ta eskua ez galdu naizik. Pelea bukatu baño len bukatu ziran flotako gizonen balak eta polbor utsarekin egiten zituzten beren tiroak. Ezagutu zuten hau mairu etsaiak eta urbildu ziran flotako onzietara ezpata eskuan, ara igan ta onziez, onziko guziez ta orien ondasunez jabetzera.

Flotako batek ekusi zuen an bertan ill bearra zela edo preso ta kautibo Arjela edo beste mairu erriren batera joan bearra, galzen ezpazuen zerbait ziliar ta diru, ta bere burua neke artan ez ekusi naizik, artu zuen zillarrez beterik arkitzen zen zorro bat eta sutunba polboraz kargatu ta sartu don bal ordeze ta tiratu mairu horduko aldera ziranzi, ta zorroko ezkutu guziak banatu ta ill zituzten anitz mairu. Flotako gizonak hau ekusi ta atera zituzten beste zorro guziak eta era bereko tiroz mairu anitz ill ta beste guziak beren onziekin aienatu zituzten beren begietatik eta gelditu ziran bizidun ta libre. Beren diru banatze ta lan hau egin ezpalute, galduko zuten diru hau ta zekarten beste ondasun guzia, bai ta beren bizi-buruen jabenza ere, ta sartuko ziran mairupeko irri ta neke guzien erdian.



Zuk zere biziagatik ez ezik, zere hume edo senarraren onerako bear den aldian gastatzen dezu dezuna; ta gastatzen dezu, zeren dezun ondatsun guzia baño geiagokoa den zuretzat zure humea edo senarra. Beste gauz edozeinetan gertatzen dena gertatzen da bizi berean ere ta askotan galzen dute gizenak bizia, ez galzeagatik biziak baño geiago batio duen gauza. Bizia baño geiagoko gauza da honra ta hau ez galzeagatik galzen dute hura. Pele ta batall gogor batetik iges egin ta bizi liteke gerrari soldadua; baño iges egiten balu, bere bizirako geldituko lizake honrarik bage; ongi nai ez dionak noiznai begitan emanen lioke bere igesket alkegarriarekin, ta geroz naigabe gaistoak ekusten lituela ta kezka betetik ibilli bearke luke, ta orrenbat lots eta alkekizun ez ekusteagatik ez du bere tokia utzi nai, an ill bearke duela baderitza ere, zeren honrarik bageko bizia baño gauz ohea deritzan honrarekin bere lanean illik gelditzea.

Buru oneko gizenak lurreko beste gauzetan bezala beren gorputze koetan ere hau bera egiten dute; bada golpe bat burura tiratzen dien aldian, hura arzeko ta burua gorde naiez buru gañera besoa goratzen dute, zeren buruak besoak baño agitz geiago batio duen; bada besorik bage bizi diteke bat eta egin ditzake gauz anitz, bai ta zeruko gloria irabazteko diranak ere; baño bururik bage ezin bizi diteke ta ezin egin deza ke munduan den gauzarik txikiena ere.

Lurreko ta gorputzeko gauzetan hau egiten duten fededunak animako beren gauzetan zer egin bear dute? Bear den gisan oriek ekusteko alik kontuzena begiratu; bada era orretan oriei begiratu ezker, ekusiko dute gorputzaren bizia ta lurreko gauzak bukatu ta autsetan laster gelditzen dirala ta animakoak sekulan ta beti iraun bear dutela; ekusiko dute gorputzaren lan, bear, neke ta naigabenz guziak gorputzaren eriotzarekin bukatuko dirala; baño Jangoikoaren grazia galdu ta bekatuan ilzen badira, sekulako neke-tormentu guzien artean ta deabru gaistoen atzapar gogorrean bizi bearke dutela.

Hau ekuste berean ekusiko du fededunak ekusi dugun beste guziak baño geiago batio duela Jangoikoaren graziak eta arzen duen zori eneko animari ematen diola zerurako esku-deretxa, arako sarbidea ta ango errege ta prinzip andien erdian toki berezi guztiz egokia, zeren Jangoikoaren graziak egiten duen Kristo Jaun beraren erako hume, ta hume ara ezker Kristo Jaun berarekin an beti atsegin-kontentuz, zori onez ta gloriz betetik bizi bearra.

Jangoikoaren grazidun arkitzen bazara, ez galdu munduko ondatsundi, atseginz eta honr guziak gatik ere zere grazia; eta baldin ezpadezu, damuzko ta konfesizko bidez bertatik billatu, ta berriz ez galzeko, beste guzia galduko bada ere, erneki bizi ta gorde; bai arren, bai.



LIV

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amabostgarren igandeko irakurraldia

*Ecce defunctus efferebatur filius unicus matris
suae. Luc. 3.*

Gaia: Ongi ill nai duenak egin bear ditu
aldi ta garai onean iru gauza

Guziei ezpada, anitzi beinzat agitzen zaie Dabidi bein agi-gertatua. Buru enezko ibilliz ta armak beti eskuan zituela garaitu zituen Dabidek beste bere etsaiak, bai ta filistar izugarriak ere, ta betiko bakea itxean sartu zuela ta zarz on baten begira zegola uste zuen aldian arkitu zen bere biziko gerraldi gaistoenean oin ta esku sartua; ta sartua, uste etzuen seme baten eskutik zetorkion gerraldian.

Absalon zen Dabiden seme gaisto hau. Absalonek ill zuen Dabid beraren beste seme ta bere anai erdi bat, ta al-ere azkenean barkatu zion Dabidek eta eman ziozkan bere itxea ta maia. Andik laster seme eskerbage gaistoak artu zuen bere ait Dabidi kendu ta aren erreinuz jabetzeko asmoa. Bildu zuen artako ejerzitu izugarri bat eta isilka ta egunik galdu bage joan zen Jerusalem, an arkitzen zen bere ait Dabidez egitera bere anai erdiarekin egin zuena edo ari bere erreinu guzia kenzeko aldiak eskatzuen zuena.

Absalon Jerusalem baño len izandu zuen Dabidek aren ibiller makurren ta asmo guzien berria, ta prisaka ta oñez atera zen bere itxetik eta erritik, eta utzi zion an zituen ondasun guziekin bere itxe ta erri guzia. Andik hura atera ta laster sartu zen Absalon Dabiden itxean ta jabetu zen Dabidek an zituen ondasun ta gauz guziez. Absalon onetan zebillen denboran Dabid igesleari gañeko aldetik bidera irten-atera ta asi zitzaion gaizki esaka Semei zeritzan giza txar bat eta gis artan jarraiki zion bide luzean. Orra aldi artan Dabidi agi-gertatua.

Eta bekatar gaisoei agitu oi zaiena? Anitzi beinzat bake-soseganz eta osasun onean arkitzen dirala uste duten aldian illak gelditzea: *cum dixerint pax, et securitas, tunc repentinus eis superveniet interitus* (1 Thesal. 5,3), edo uste etzuten eritasun baten atzapar gogorrez beren itxetik obirako

ateratzea; ta guti ez, ateratzea itxean sarzen den semearen, ondorengoa-
ren edo besteren baten gaizki esanekin ta atseginz andiarekin.

Golpezko eriotzez edo beste gisan beren itxetik obirako ateratzen diran orien artean anitz arkitzen dira oraindik gazte ta egungo Ebanjelioak dakarren ta Kristo Jauna milagro z biztu zuen mutillaren garai-adiunzan. Kristo Jauna zijoan bein Naingo errira; erriratze berean batu zituen erriko ate edo atari ondoan ill gazte andre alargun baten seme bakarra, eta ari zerraizkola, beraren am alarguna ta beste anitz. Illaren ama negarrez ekusi ta urrikaldu zen Jesus maitagarria ta esan zion: «Zaude isillik eta negarrik ez egin». Urbilzen da gero illagana ta zeramatenei zeudela geldi esan ta ematen die eskuz aren andei golpe bat. Gelditzen dira andak zeramazten gizenak eta esaten dio Jesusek mutill illari: «Gora adi, mutill», ta ill ezpaliz bezain arin bertan jarzen da bizturik bere and-il-kartolan ta asten da hitz egiten gaitzik ere izandu ezpalu bezala ta biztua, ta nioiz ere bezain osasun onean itzulzen dio Jesusek amari obira zeraman bere semea.

Jesusek bere eskuz ta zenbait santuz biztu ditu zenbait ill, ta bizirik eta beren oñez itzuli dira beren itxera; baña beste ill guziak uzten dute betiko beren itxea ta utziko dezu noizbait zuk ere zerea, ta damurik bage utziko dezu, mugaz ta garai onean egin ezkeror orain ukituko ditugun iru gauza. Badakizu zein diran? Goazen ekustera.

§ I.

Guzioi esaten digu Jangoikoak Isaias profetaz Ezekias erregeri gaztigatu ziona, ta ari gaztigatua ta guri esaten diguna da: «Etzara zu betiko etorria, ill bearra zara ta (gaizki ill nai ezpadezu) zere itxeko gauzak zuzendu bear dituzu»: *dispone domui tuae, quia morieris tu, et non vives* (Isai. 38,1).

Emen guk zuzendu bear dugun itxea da iru gel dituen itxe bat. Etxe onen gel bata da lurreko gauzen gela; animako gauzen gela da bestea, ta irugarrena sekulako gauzen gela; ta gauz bakoitza bere gelarako ongi prestatzen duena da ill ondoan itxe ongi prestatuan betiko sarzen den etxetar zori onekoa; ta zori un onetakoak izan nai badegu, guziak prestatu bear ditugu alik ongiena ta bakoitza bere horduz ta denbor egokian.

Geroko gure itxeko gel lenbizikoan sarzen diran gauzak dira bakoi-
tzak dituen lurreko gauzak, eta dira etxe, tresn, soñeko, diru, arzeko,



zelai, alor, sagardi ta beste bazter ta ondasun guziak. Oriek guk emen utzi bearrak dira, baña ongi kontaturik eta bakoitzari dagokan bidea ematen zaiola. Era onetan oriek utziko dituenak egin bear ditu bere kontu zuzen ta testamenta; ta egin mugaz, azken alderako utzi bage ta buru onarekin arkitzen dela. «Bai», dio S. Agustínek, «egizu zere testamenta osasun onean ta nai dezuna dagikezun aldian»: *fac testamentum, dum sanus es, dum tuus* (De cur, anim. form. 28).

Testamentuz gauzak ongi zuzendurik uzteko, ekusi bear dezu zer den zure itxean arkitzen dena, zer zuk zor dezuna ta zer bestek zuri zor dizuna. Ekusi bear dezu nori utzi zere itxea edo Jangoikoak eman dizuna edo dezunaren zatirik andiena ta nola zatitu beste guzia, ondorengo- en auzi ta ezбайдak kenzeko.

Besterik ezin ta ill-hordu berean egiten badezu testamenta, alie ongiena klaraturik utzazu guzia; baña egiten badezu zere akordu onean ta osasunan, artara baño len zuzendu bear dituzu zere artu-emanak eta eman bear diozu nori berea; ta zor diozun guziarekin arkitzen ezpazara, aldi artan dukezu(e)na, zure arzekoduna zu ill ta ez dabillen zure ondorengo lasaien ondoan negarra dariola edo ezin beretuz zor zaiona. Eta ill-horduraño egiten ezpadezu, gis onetan ibilzeko perill andian uzten dituzu; bada zordunak milagroaz ematen du hordu artan zor duena. Arzekodunen negarrak kenzeko, bada, ta garai onean nori berea zuk emateko ez da zer utzi testamenta hordu artarako ta egizu S. Agustínek berezi dizun denboran ta osasun ena dezun aldian.

Denbor onetan hau zuri eragiteko, bada besterik ere; bada ez dakizu zer eritasunek bukatuko dituen zure egunak eta anitz dira, S. Joan Krisostomok dion ta guk ekusten dugun bezala, batbatean, akordurik bage gelditzen diranak eta testamenta egiteko bururik izaten ez dutenak: *quot videmus subito, aut casu extingui?* Zenbait aldiz eritasunak ez du gaitz andirik agerzen azkeneraño; azpiratzen du horduan gaitzak eria ta ez dio indar ta buruket andirik uzten nai duena egiteko; ta testament bat ongi egiteko buru ena bear da, bai ta indar eta denbor ere. Beste zenbaitz lenbizitilik gogor gaistoa izanagatik eritasuna, itxeko ta an dabilzanak besterik adirazten diote eriarri, ta eri gaisoak bere sendatu naiarekin ta oriek ematen dioten uste ustelarekin galzen du testamenta ongi egiteko aldia ta berandu ezagutzen du etzaiola bururik gelditu gauzak bear den gisan egiteko ta horduan esaten diotela lenik esan bear ziotena ta esaten diotela dagiela testamenta, konfesa dedilla ta ar dezala, beste mundura dijoanek bezala, komunio santa ta presta dedilla eternidade guziko biaje luzera.

Denbor berean an dabilz barber-medikuak edo bietatik bat edo beste ta beren edar min, odol-isurze ta beste sendagai latzekin ematen diote anitz zer egin, anitz kezka eta naigabe ta zenbaitz beinbat beren itxekoak ez die testamenta egiteko bide andirik ematen, ta testamenta egin baño len kensej on bat ar dezatela esan lekuan, S. Agustínek dionaz, mehatxuz edo palakuz eragiten diote nai ez lukena: *si expectaveris in firmitatem, omnium minis, vel blandimentis duceris, quo tu non vis* (ubi sup.). Eta santu berak S. Joan Krisostomorekin dionaz, fededunen zenbait testament arkitzen dira federik ez dutenen testamentak diruditenak, Elizen alde, Jangoikoaren izenean, anima purgategikoenzat eta bearsu gaisoendako deus uzten ez dutenak; eta era ta gis onetako testamenta egiten duenak dirudi, Santuak dionaz, zer legetan bizi den ere ez dakien gizona; bada urrikalza, pietanza ta Jangoikoaganako esker ena da fededun enaren legeak agerzen digun gauza, ta iru gauz oriek alde bat edo ezpalira bezala uzten dituenak adirazten du lege bera ere era berean utzi duela.

Uts oriek kenzeko, bada, ta gauzak ongi zurrurik, agerian ta bear den gisan uzteko, egizu Jangoikoagatik eta zere enerako mugaz ta osasun onean zere testamenta, ta oroi zaitetz testamentan zere animaz, meza zenbait zere alde ater-erazteko; oroi zaitetz Jangoikoaren Elizaz, Jesusen Biotzaren kongregazioz ta purgatorioko animez; baña itxeko gaisoak anitz kargatu bage, ta anitz emateko ezpadaude, zerbaitxo gauz bakoitzarako berezten dezula. Hau egiten badezu osasunan ta eritu baño len, eritzen zaran aldian egiña arkituko dezu ill baño len egin bear dituzun gauzetatik bata. Goazen beste biak ekustera.

§ II.

Geren egunak ongi bukatzeko egin bear dugun bigarren gauza da animako gauzak konfesioz ongi zuzenzea. «Gure konzienzia ere itxea da», dio S. Bernardok: *conscientia nostra domus vocatur*; ta itxe, gurekin guk Jangoikoaren tribunalera eraman bearra; ta itxe, ongi guk ara eramateko, kontuz ekusi ta garbitu bear duguna; bestela gaizki artuak izanen gara ta zori gaistoko presondegira jaitsi bearrak.

Konzienziko itxe hau ongi garbitzeko kontuz begiratzen zaie dituen zoko ta bazterrei; arkitzen diran bekat-zakarrak and-ik kenzeko ta kontuzko begir-ekuste hau ez da eritasunaren azken aldeko lana ta egitekoa.



Aur denboran ta azkartu ezker ere egin oi dira zenbait gauz itsusi ta Jangoikoak daki nola ta zer damurekin konfesatzen diran horduko aldiatan. Gazte denbora aragiaren loikerirako lenekoa baño ere sasoi gaistoagokoa da ta Jangoiko berak daki sasoi orretan gazte anitzek begiz, eskuz, ezpañez ta beste zenbait aldetara egiten ta eragiten dituzten bekatu galduak; bai ta zein propositu bagekoak izan oi diran denbor orretan oriek egiten dituzten konfesioak ere. Aitzinago ta gogortuagoa izan oi da orietatik anitzen bizkunz gaistoa. Eta aldi zenbaitez ondu nai dutelako anzarekin ibilliagatik, berriz ta berriz ere beren bide makur-etaratzen dira ta orien leneko ondu-naiak ondu-nai usi ustelak zirala adirazten dute.

Saldu-erosi, sartu-atera, artu-eman ta egitekoz egiteko asten diranetik asten dira naspil berrien ta bekatu-gai andien bideetan, ta zuzenki ta ongi dabilzala uste duten aldi zenbaitez arkitzen dira bekatuz beteak eta sulezerako bide galgarritan agitz sartuak. Aldi azkenekoan zeruko argia eskatu ta guziari kontuz begiratzen lion eriak arkituko luke bere bizitza ari-mataz nastu bat bezain nastua ta non arkitzen den konfesio on bat eta zenbat diran gaistoak ezin ekusi duela. Bertatik ekusten duena da, betiko galdu nai ezpadu, konfesio onak gaistoetatik berezteko eta zenbat eta nolakoak diran egin dituen bekatu gaistoak jakiteko guzien konfesi berri jeneral bat egin bear duela, egiñez artako harilketan ari den kontuzko andreak ari-mataz nastua ongi berezi ta bere harillean bilzeko egiten duena.

Andre onek bere lanean egiten duena da harilki berean mataza zabaldu, nasturik arkitzen diran harizunz-albiñak poliki berezi, albinpunta billatu, non ta nola nastu den begiz ekusi, dituen trabak edo korapillo guziak kendu, bear den eran mataza ezarri ta arkitu duen ariburutik tiratu ta arilkia inguruan erabilliz hari guzia bere eskura eraman ta harill egiñez bildu.

Gis onetan, bada, ekusi bear du batetan berezki guzia konfesatu nai duenak zer hari-mataz den berak bere ibilbez ta konfesioz egiña, edo zer hari-modu ta bizkunz izandu duen aur denboran, gazte zen aldiatan ta gerozko bere denbor guzian, nolakoa izandu den bitart orretan egin duen konfesi bakoitza, izandu den ona edo onze ta sendatzerik etzekarrena, edo bekatu berriak eta bekaturako bideak galerazten etzituena, ona gaistoetatik berezi ta gaistoen korapillo guziak askatu ta damu andiarekin konfesariari agertuz guzia zuzenzeko.

Egiteko andiegia ta luzea lizake azkeneko eritasunarekin arkitzen den andre batenzat hari-mataz nastu bat askatu ta zuzendu ta, arill egitea; ta ez da egiteko bat ere ohea adin berean bizkunz nastu ta bekatu-

dun baten kontu guziak zuzeneta ta betiko konfesio on bat egitea. Osasuna ta sasoi ona badu, zuzenzen du andreak bere hari-mataz nastu, korrapillatua, ta sasoi onean arkitzen dirala beren animei ongi nai dieten guziak ere, zuzenzen dituzte konzienezko beren gauzak eta egiten dute beren betiko konfesioa ta egin oi dute Aita S. Ignazioren Exerzizioen batzuetan, misioko denboran, garizuman edo berariz artako arzen duten aldiatan. Eta hau da fededunak egin bear duen bigarren gauza, bere konzienezko itxeko gauzak mugaz ta garai onean zuzendurik uzteko, bere aldiatan gero eriotz on bat erdisteko.

§ III.

Hau bera erdisteko egin bear duen irugarren gauza da betiko itxe on batek eskatzen dituen gauzak mugaz, denboraz ta ongi prestatzea. Bai, guziok joan bear dugu ill ondoan sekulako geren itxera ta itxe ezin ohera edo itxe zori ezin gaistoagokora; bada joan bear dugu edo zerura edo infernura: *ibit homo in domum aeternitatis suae* (Eccl. 12, 5). Emengo itxeak geroko gure etxearen aldean bidez dabillen baten hostatua bezala dira; bada bidez dabillenen hostatua egiten duen denbora baño mill-militan denbor laburragoa da, gelena emen bizi denak ere geroko bere itxe on edo gaistoan egin bear duen denboraren aldean, zeren gelenaz ere zenbait urtetako denbora da emengo bere itxean egiten duena, ta bukanzik ez duten urteen denbora, onek berak eta beste guziok geroko geren itxean egin bear duguna. Eta onen laburra dela emengo itxeetako egondenbora ta egonza, alik ongiena apainzen baditu gizonak itxe onetako bere gauzak, nola ta noiz apaindu bear ditu betiko bere itxe zerura eraman bear dituenak? Alik lasterrena ta alik ongiena ta ill-horduaren begira egon bage; bada hau da emengo etxeetakoak prestatzen dituztenak ere egiten dutena.

Baña zer gauzak dira zori oneko geren itxerako prestatu bear ditugunak? Esan dugun konfesiotik ill arte guzian ongi bizitzea, Jangoikoaren izenean al ditugun gauz on guziak egitea, konfesioz, korunioz, mezaz, Jesus sakramentatua Elizan ekusiz, egiten dizkiguten txarkeri guziak barkatuz, al ditugun enak besteri egiñez, buruz, penitentziaz, Jesusen Ama ta santu guziak honratuz ta Espiritu Santuak dion gisan hordurik galdu bage ta biziro dezakegun on guzia egiñez: *quodcumque potest manus tua, instanter operare* (Eccl. 9,10). Eta zenbat ere geiago emen



egiten dugun, anbat gu zori obekoak sekula guzian. Jangoikoak digula hau guzia ta len adirazi ditugun beste bi gauzak egiteko ta eriotz on bat erdisteko grazia. Bai arren, bai.

LV Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amaseigarren igandeko irakurraldia

Et ipsi observabant eum. Luc. 14.

Gaia: Zer diran ta nondik datozen
goganber-juzganzak

Adanek bekatuz arrotu ginduenetik bakoitzak izan nai genuke beste guziak baño geiagokoa, geren gogara ta nai dugun gisan egiteko gogoak ematen diguna ta emen ongi dagokiguna; orregatik besteenei ez diegu geren gauzei bezain begi onez begiratu oi ta zenbait aldiz ageri ez den zer bait ekustea aski dugu, besteen barreneko berririk ez izanagatik, orien gauzak geren gogoz edo juzkoz makurzeko, ta askotan ibilli oi gara besteak beren gogoan dutena barrundatu naiez, geren juzkoz edo bestela oriek azpiratzeko. Hau da Jesusekin askotan farise-tzarrak egin zutena ta hau bera egin zuten egungo Ebanjelio santuak dakarren aldi batez ere.

Beren lan gaisto hau obeki egiteko, orietatik batek eraman zuen bein Jesus maitagarria bere maira ta barazkarira ta arekin batean eraman zituen bere gisako zenbait lagun. Jesus an sartu zenetik guziak zeuden ari begira, egiten ta esaten zuena kontuz ekusteko ta niola ere al bazuten gaitz aldera makurzeko.

Larunbata ta lege zarreko festa zen Jesusen barazkal egun hau ta aldi artan Jesusek barazkaldu zuen itxean arkitu zen gizon eri hidropesidun bat; Jesus tentatzeko ara eramana edo bestela, ez dakigu. Guk daki-guna da bai zekiela Jesusek oriek beren gogo gaistoan zutena ta egin zuela orien mihiak mututuak uzteko bear zen guzia.

«Ea, jaunak», esaten die Jesusek itxeko nagusiari ta ara bildu ziran beste guziei; «larunbata da ta legeko festa egungo eguna; egun onetan ez da zillegi lanik egitea; debekaturik daude edo ez urrikarizko lanak ere? Orra br eri urrikalgarri bat; senda dezaket ori gaur lan hau bigarko utzi bage? Zer diozue, bada, jaunak? Eri bat sendatzea ere debekaturik arkitzen den lana da?». Mututurik gelditu ziran ta zer esan etzekitela an arkitzen ziron guziak.



Farise-tzarrak era onetan ekusi zituenean, artu zuen Jesusek eskutik eria ta sendatu ta igor-bidaltu zuen pozez beterik bere itxera, eta egin zuen lan hau ongi egiña zela fariseu berei adirazteko, «Atozte», esan zien; «putzutik noiz ateratzen dezute larunbat batez ta fest egunez an erorzen den astoa edo idia? Fest-egun berean, ez da ala? II bat putzutik ateratzea baño lan agitz txikiagoa da, bada, ekusi dezuten bezala, eri bat eskutik artu ta sendaturik uztea. Zillegi bada, bada, fest egunean ganadu baten onerako lan gogor luze bat, zergatik zillegi izanen ez da eri gaiso baten onerako lan txiki erraza?». Len baño ere mutuagoak gelditu ziron fariseu tzarrak Jesusi hau aditu ta, ta zer eranzun etzutela ez-onzat emateko aldi artan Jesusek egiña.

Aldi artako bere lan onekin ta bere lan hau egin baño len ta egin ondoan esan zienarekin adirazi zien Jesusek fariseu berei ta munduko beste guziei, gaizki egiten dutela besteen gauzetan sarzen diranak eta gogoak ematen dien aldera botatzen dituztenak, Jangoikoak munduko guzien juez egin balitu bezala ta Jangoiko berak baizik ekusten ez dituen biotzeko berrien berria balute bezain ausardi andiarekin.

Bere maiko farise-tzarrei aldi onetan adirazi ziena adirazten digu Jesusek munduko beste guzietan ere, ta oriei ta guri adirazi diguna da besteen gauzen juzkoa Jangoikoari utzi bear zaion egitekoa dela. Eta errazkiago hau guk Jangoikoari uzteko aldi onetan ekusi bear dugu zer den goganberra edo sospetxa ta zer juzkoa eta nondik datozen bata ta beste, galerazteko biei gudanako bidea.

§ I.

Zikin dakiok beste bere honra ta fama hitzez, bai ta gogoz ta juzkoz ere. Zikin galgarria da hitzez honra besteri zikinzea ta ez da agitz ohea honra beraren gogozko zikinza; bada askotan hitzez zikinzen da obenik ez duen baten honra, ta hau ekusten dutenak eta gezurra dela dakitenak isil-erazten dute hitz gaistozko zikinza ta eragozten dute aren bide gaistozko zikinza; baño bide gaistozkoa ta gezurrezkoa izanagatik zikinza beraren goganberra ta juzkoa, juzko hau zikinza beraren barrenean gelditzen den zikinza da ta batek ere ezin eragotz edo ken dezaken zikinza, ta orregatik da zenbait aldiz hitzezko ta agerzen den zikinza baño zikin galgarriagoa.

Badakizu nondik eta nola asten den barrengo zikinza edo juzko hau? Asten da gogoaren ezabaidatik. Ekusten dezu ona edo gaistoa izan ditekeneren besteren gauz bat; baño ez dezu nolakoa den ekusteko bear den argia ta gelditzen zara ez batera ta ez bestera makurzen zarala, bi aldeetatik berdina gelditzen den balantza bezala. Ori gertatzen zaitzu gau illunaz leiotik ekusten dezun aldian kalez dijoan bat nor den edo nora dijoan, ta orregatik onez edo gaistoz dabillen ez dakizula, ta ezpadagokizu ori jakitea «dena dela» esan ta sarzen zara barrena, alakorik ezpaliz bezala.

Beste aldi batez leio berean zaudela agerzen da zeruian illargia ta karrikan mutil zure ezagun bat. Buru arinskotea du mutil ezagunak, ez dakizu itxekok bidalduko edo berez dabillen garai artan an, ez eta itxekok aldi ta garai artan zertara bidai zezakeen ere, ta gogoratzen zaitzu gaitzez bide dabilera. Mutillaren buru arriak, daraman bideak eta garaiak ori siñistera tiratzen zaitu, baño bere itxeko edo beste egitekoren batek daramalako beldurrak eragozten dizu gis orretako siñistanz juzgoa; al-ere makurzen zara zerbait onez ez dabilera aldera. Goganber-sospetxa da hau ta juzganzarako bigarren iginz-pausua. Irugarrena da ez delako beldurrekin mutil hau gaizki dabilera siñistera. Emendik ematen da juzganz osorako saltoa ta betterik agi edo gerra ditekela beldur ta goganberrik bageko juzkoa ta siñista.

Gure adiment-adintzak ez du denbor luze bearrik hau guzia egiteko; askotan ezabaidatik laster egiten du bere saltoa bein goganber-sospetxara, gero beldurrezko juzkora ta emendik beldur bagekora. Baño beste zenbait aizeak bein batera, bein bestera darabilen itsas-onzia bezala da gure burua ta adintz-adimentua, zeren batetik ekusten badu alde batera tiratzen duen gauza, bestetik ekusten duen bestera ots egiten diona ta ezin ekusi duen zein aldetatik arkitzen den egia ta berandu siñisten du bata edo bestea.

Ezbaidak, dudak eta goganber-sospetxak ez du zikinzen besteren honra ta fama; geienaz egiten duena da ats-asnase beroak ispilluan egin oi duena: denbor laburrerako zerbait estalzea, ta asnasearen bero piska joan horduko (ta fite ta laster joaten da) ispillua osorik eta leneko gisan uztea; bada goganber edo sospetxa joan horduko bere opinione on garbian gelditzen da besteren honra ta fama.

Juzgo osoak (bai ta beldurtiak ere) zikinzen du zenbait aldiz, besteetan ez, besteren honra. Zikinzen du artako bide andirik ez duela alde gaistora besteren gauzak makurzen dituenak eta ez du zikinzen dena den gisan ta gauzak ongi ekusirik ala deritzanak. Ekusten dezu bidez zabilera edo bidez datorren itxura txarreko atso zimurtu bat eta bestetara begi-



ratu bage zere buruari esaten diozu: «Munduan sorgiñik bada, hau sorgiña da», ta horduan zere juzkoz zikinzen dezu atso gaisoaren honra; bada sorginza egiten dute itxurak, urteak eta zimurzak ez, baizik deabruaren lagunzak eta arekiko ibiller-tratanzak, eta atso guzien artean milagro arkituko da bat edo beste (ta bearbada ez da arkitzen bat ere) era orretako tratanzik duenik. Besterik izanen lizake atso hura ekusi ta zuk esanagatik «Jesus!, hau sorgiña!», esan dezunera oarturik bertan itzulzen baziña zere baitara ta urratzen bazenu zere esana, berriro esan ta: «Jangoikoak daki nor den bakoitza ta itxura txarrak ez du bat sorgin egiten, ez eta onak ere santu»; bada lenbiziko zure esana ez lizake bekaturako bear den oarmentarekin egiña, edo ez lizake sinismen osoa; goganber utsa ta sospetxa izanen lizake, ta bekaturako bear da sinismen ta siñistaz oso gaistoa ta bide andirik bagekoa.

Zenbait aldiz gezurra da batek siñisten duena ta al-ere ez da bekatu aldi artako onen siñismena; zeren siñisten duenerako dituen siñistaz egizkorako izan oi diran señaileen erako señaile andi larriak. Andreki gais-toak diran etxe batera mutillak edo gizonak bilzea, bilzen badira beinzat gabaz ta banaka, ekusten duenak, ez du onzat emanen ango orien sar-ateara ta, ona bada, egiñen du bere alegiña berak berez edo artako denari hitz egitez orien arako sar-bidea galerazteko, ta al-ere sarzen diranen artean arki diteke bat edo beste onez ara dijoana, Alexandrian len arkitu zen bezala.

Bital zeritzan eremuko abade dirudun bat Egiptoko Alexandria joan ta illunabar anitzez sartu zen gaistaginenzat zeuden ango andreki galduen itxean. Onik asmatuko etzuen beste gizaki gaistoen bidez hura an sarzen ekusten zutenak eta al-ere gezurra zen oriek uste zutena, bada onez aratzen zen abade hau ta bere diruz besteen gaistaginzak eragozte-ara, ta ara horduko esaten zion emazteki bakoitzari: «Zenbat uste dezu arrats onetako zere gaistaginzagatik?». Eta «onenbat, jauna», ark eranzun horduko, «Ori, bada», esan ta ematen zion guzia; «baña begira», esaten ziola, «ez da gaizkirik zer egin gaur». Hau bera egiten zuen besteekin ere ta gaizkirik egin etzezatzen, guziak zaitzen ta otoitz egiten igarotzen zuen an gau guzia. Hau bera egiten zuen urrengoan ta aratzen zen beste arrats guzietan, hura ill ondoan Jangoikoak milagro agertu zuen bezala, ainge-ru bat Alexandritarrei artako bidalzen ziela.

§ II.

Beste anitzek ez dute Alexandritarrak aldi onetan izandu zutena bezalako biderik eta señalearik beren juzgo makurretarako ta orregatik egiten dituzte gaizki ta bekatu egiten dutela. Orrelako anitz egiteko bideetan dabilz zenbait ezkondu. Badakizu zein? Goganber txarrei ta sospetx ariñei buruan toki egiten dienak. Sospetx oriei gogo-buruan bein toki egin ezkerro, Jangoikoak daki zenbat nekatzen dituen gau ta egun deabru gaistoa eta jan-edan zein latzak eta miñak egiten dituzten berak, zenbat naigabe ta aldart gaisto ematen dien beren bizikideei, ta bizikide, obenik ez dutenei, ta zenbait aldiz sarzen dira Theodosio enperadore gazteak egin zuen erakeriaren erako erakeri bat egiteko bideetan ere.

Eguerri egunean joan zen enperadore hau elizako mezara ta deboziozko bere gauzak an egitera. Arako zela zekien aldiritar nekazari batek itxedan zion eliz atarian ta urbildu zenean aren oñetan belaunak ezarri ta bere gisako agur andi bat egin ta jakapetik atera zuen sagar guztiz andi eder bat eta Jangoikoagatik eskatu zion ar zezola guti balio zuen present hura. Sagarraren edertasunak geldirazi zuen enperadorea ta eskuetan artu ta erabilliz ta begiratu aldi oro iduritzen zitzaion ederragoa. Ekarriz zion nekazariari eman zion urrezko medall andi bat eta bidaldu zuen pozez ta kontentuz betea ta Elizan sartu baño len igor-bidaldu zion zaldunen baten eskuz bere emazte ta enperatriz Eudoxiari sagar bera, zeren zen zen bezalakoa ta ari ere, berari bezala, atsegin egiñen ziona.

Atsegin ta poz andiarekin artu zuen Eudoxiak sagarra, zeren zetorkion igorzen zionaren eskutik eta zeren zen zen bezain ederra, ta bestek ere izan zezan era bereko poz atseginza igor-bidaldu zion Paulino zeritzan beraren korteko zaldun prestu bati.

Etzion gogoak eman Paulinori Enperadorea izan zitekela sagar hura Eudoxiari igorri ziona; iduritu zitzaion beste alde enperadoreari egin zekikeon presenta zela sagar ain ederra ta aren eskuetara zuen alik lasterrena. Besterik egiten zuen, jakin balu zertako. Ekusi bezain laster ezagutu zuen Theodosiok bere sagarra, bai ta beraren emazte Eudoxiak bidaldu ziola Paulinori ere, ta bere emazte beraganako goganber-zeloak burua berotzen ziotela, egin zuen bereala bata ta bestea gaizki bide zebilzalako juzgoa. Al-ere alakorik gogoan ezpalu bezala, eman ziozkan bere eskerrak Paulinori eta estali zion gogoan zuena, bai ta egin gogo zuena ere, ta gorde zuen bere sagarra.



Sagarra berekin zeramala sartu zen bere emazte Eudoxiagana ta, alakorik ezpaliz bezala, galdetu zion: «Ta ekusi dezu nere sagarra?». «Bai, jauna», eranzun zion Eudoxiak, «eta aren ederra! Bazirudien hordu berean lurreko paradisuatik aterea. Eskerrak eta eskerrak aren alde». «Ongi, ta zer egin dezu?», esan zion Theodosiok Eudoxiari. «Jauna, jan», eranzun zion Eudoxiak gezurrez, egin zuena ez agertu naiez, «eta ederra bezain goisua ere zen guzia, ta hura jatean zeru bereko sagar bat jaten nuela neritzan». Baña bertan gezurtatu zuen Theodosiok emaztea ta gorderik zekarren sagarra agertu ta galdetu zion: «Ta sagar hau zer sagar da?». Hura ekusi ta arritu ta hitzik bage gelditu zen Eudoxia, gaitzik gogoan bage Paulinorekin egin zuena gaitzat Theodosiok artuko zuelako beldurrarekin. Ala artu ere zuen; bada egia izan baliz bezala bere gogo txarrak eman ziona ta ain arinki egin zuen juzkoa, (ta) ken-erazi zion Paulinori bizia. Orra zelo txarrak dakarrena, bide gutirekin juzko gaistoa ta bear ez den lanen bat eragitea.

Juzgo makur bidebageko besteen honraren zikinzalleetara anitz lagunzen dute juzgariaren bizi gaistoa eta barren illun melankolitsuak, Theodosio baño lenagoko beste enperadore baten egiteko makurrak adirazten dutenaz. Enperador juzgari gaisto hau Erromako ta erromatarren inperiko nagusi Neron da. Neron onek egin zituen, gizonek egin baditu, gaistaginzak eta besteen artean orain adituko dituzunak. Lau saietsetatik eman-erazi zion bein su Erromari edo munduko erririk ederren, aberatsenari, ta ango itxe ta jauregi guziei gañez egiten zien dorre batera igan ta begir-begira ta atseginz andiarekin egondu zen ango sugarrak eta keak ekusten eta ango gaisoen ai-kak eta negarrak aditzen. Beste aldi batez, zeren gogo gaistoa ala eman zion, ken-erazi zion bizia bere maisu gizon on jakinsu Senekari ta beste batez ill-erazi zuen bere ama bera.

Illuntasunez, bada, ta gaizkiz ta melankoliz bere barrena betea zedukan gizon onek etzekien juzgo onik egiten ta gaitz aldera arzen zuen ekusten zuen guzia. Egunean askotan leioko zirritutik begiratzen zuen karrikara ta ekusten bazuen an zebilzanetatik bat edo beste irriz ta farraz, naiz egin zezala farra ta irri Neronik munduan zelako oroipenik bage, uste zuen beragatik bista ta irri egiten zutela, ta bertan bizkarra garrot ukaldiz erdi urratzen zion, eta hau agi zekion nai etzuenak ibilli bear zuen an kontuz ta ongi oarturik, eta era orretan ekusten zituenean, uste zuen triste zebilzala ta illun, zeren hura zen orien nagusi ta enperador. Eta zebilzala nola-nai, beti egiten zituen juzko gaistoa. Hau ikasi zutenean, beste kalez ibilzen ziran erromatar gaisoak, Neron Erroman arkitzen zen guzian.

Neronen gisako gaistoa eta barren illunezko gizenak bidrio gorri urdin edo beste kolorezkoen gisakoak dira; bada bidrioen kolorezkoak iduritzen zaizka bidrio koloredunarekin begiratzen duenari ekusten dituen gauzak, eta gaistoa beraren gisakoak dirala uste du beste guziak eta gaizki dabilzala deritza, ezpadabilz beinzat hura dabilen gisan ta eran.

Oriek guziak, bada, ta beste guziok juzgo gaistorik ez egiteko egin bear duguna da ez dagozkigun gauzetan goganber ta sospetx gaistbak agertu horduko alde bat gerengandik botatzea ta besteen gauz guziak Jangoikoaren kontura ta beraren tribunalerako uztea; bada ez da gurea, Jangoikoarena da, bakoitzari bere gauzen kontu arzea. Jainko berak digu-la hau zuzenki egiteko grazia. Bai arren, bai.



LVI

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko amazazpigarren igandeko irakurraldia

Quod est mandatum magnum in lege? Matth. 22.

Gaia: Agitz txarrak dira Jangoikoak diona
ez egiteko bekatariaren aitzaki ta ez-naiak

Jesusekin ziardukaten guzietan azpian gelditzen ziran lege zarreko eskrib ta farise jakinsu guziak eta al-ere jokoan galdu ta galdu hari denak egiten duena egiten zuten, edo galdu-aldi oro jokatu-nai berri biziakin gelditu ta len galdua irabaz-kitatu ta irabanz andiak egin naiez berriz jokatzeara; bada eskrib ta fariseo Jesusek beti garaitu ta mututu uzten zituenak beren azpir-aldi oro arkitzen ziran Jesus garaitu ta beren buruak noizbait gañean ekusi-nai andiarekin; etzuten orretako aldirik galzen ta bidea zuten guzian Jesusen gañ ziran, ekusiz edo galdez hura garaitu naiez beteak.

Egungo Ebanjelio santuan dugu orien gis orretako gald-aldi bat. Urbildu zen Jesus maitagarriagana farise bat eta galdetu zion, dio Ebanjelio santuak: «Zein da legeko mandamentu andia?». «Buru ta biotz osoz edo ongi ezaguturik eta nai andiarekin Jauna maitatzea», eranzun zion Jesusek eta esan zion bereala: «Bigarrena da bakoitzak besteri bere buruari bezain ongi begiratzea». Eta nor zen Jesus bera orri ta an bildu ziran fariseei adirazteko, galdetu zion Jesusek: «Eta zer diozue, nor da Kristo edo noten semea da?». «Dabiden semea», eranzun zioten bertan ta bereala farise ardrak. «Or1 ez», esan zion Jesusek; «esazue ezperen: Ez dio Dabidek, «Esan zion Jangoikoak nere Jaunari (edo Kristori): atoz, jar zaitez nere eskoi aldean?»: *Dixit Dominus Domino meo, sede a dextris meis?* Bada Dabiden Jauna bada Kristo, nola da Dabiden seme? Ez dezue ekusten?». Ekusi zuten, bai, ta beren alkekizun andiarekin, ta gelditu ziran galdetok berririk Jesu egiteko gogo andirik bage, eta ekusi zuten nastuak utzi zituela nasturik utzi nai zuten Jesusek eta bidenabar agertu ziela ezin uka zezakeen egia.

Egi hau ezagutzeko aski da ekustea etxe on bateko jaun prestuari beraren hume eta beste etxetarrak zor diotena ta jaun beraren etxeko

humeekin ta gañerakoekin etxetar berak egin bear dutena. Etxejaun aita prestuari beienik-bein zor diote itxeko hume guziak eskumuñ, esker on ta maitanza; etxeko bere hume berak begiratu bear diote humilki ta errespetu andiarekin, ta hura honratzeko baizik erabilli bear ez dute aren izena, egiña edo ibillera, eta noizean bein ta berak nai duen aldi oro egin bear diozkate beren serbitzu lagunzak eta atsegin egiñen dioten beste gauzak; bada hau guzia zor zaio aitari izatez ere, orien beren jaunza duenari bezala.

Etxejaun aita nai du beraren hume ta itxeko beste guziak elkar ongi arzea ta bata besteari gaitzik ez egitea, ta atseginz hau ere zor diote etxetar guziak beren etxajaun onari, ta bigarren atseginz hau egiten ez diotenak egiten diote ez dagokan txarkeria ta atsekanza. Baña andiagoa egiten dio berari berez dagozkan ta len ekusi ditugun gauzetan uts egiten duenak.

Jangoikoa da munduko guzien etxajaun Aita. Jaun onek lenbiziko bere mandamentuz eskatzen ditu orain adirazi ditugun iru gauzak eta bigarrenaz beste guziak. Lenbiziko mandamentuan sarzen dira legeko iru mandamentu Jangoiko berari dagozkanak eta bigarreanean urrengo zazpiak. Amarrak diotena osoki egiten ez duenak ez du Jangoikoa maite ta urratzen ta austen du Jangoikoaren mandamentu andia, bai ta geienean beinzat besteren bat ere. Zergatik ori? Aitzaki txarrak artu ta egin, nai gabez egin bear duena. Aitzak guklak zuri utz-erazteko ta egin dezazun Jangoikoak bere legeko bi mandamentuz esaten diguna, agerzera noa aitzaki beren ezer-eza ta usteltasuna.

§ 1.

Ongi ezaguturik eta biotz osoz guk Jangoikoa onest-maitatzea da lenbiziko irur mandamentuetan ta urrengo zazpitan Jangoiko berak esaten diguna, ta esaten digu hau guri uts egin bage ta zuzenki eragin naizik. Badira fededunen artean anitz orietatik batean edo bestean utsegiten dutenak, eta uts egiten dute aitzaki txarren batez beren begiak estali ta; zeren lotsagarria ta alkeduna den orien uts-egite obendun bekatua ta begi agertuz ez ekusteko ohea. Beren uts-egite ta bekatu lotsagarria estalzeko arzen dute zenbaitek estalki bat eta besteak bestea, ta Jangoikoaren legeko mandamentuak bezala bitara bil ditezke oriek ere: bata da lege bera-



ren gogortasuna ta bestea bekatugilleen ez jakiña, ta bata ta bestea da aitzaki agitz txar ustela, orain nik ekus-eraz uste dudana.

Jangoikoaren legea urratzen duten ta orregatik Jangoikoa maitatzen ez duten zenbaitek esan oi dute: «Ona da, bai, ta zuzenki ezarria Jangoikoaren legea, baña orrek diona guk egiteko gaitz aldera agitz makurturik utzi ginduen Adanen bekatuak, eta Jangoikoaren legeak eragin bear digun gauz on bat egin nai dugun aldian agitzen zaiku perlesiz oñak elbarri daduzkanari gertatzen zaiona. Perlesi gaistoak uzten ditu oñak edo besoa oñazerik bage ta gaitzik ezpalute bezala, ta geldirik dagon perlesidunak leneko gisan ibilli ta lanak egin uste ditu, artara ezkerro; bafla jaikitza asi horduko alde batera edo bestera erortzen da ta berak bere begiz ekusten du ez dela uste zuena».

«Hau bera agitzen zaiku», diote aitzakidun bekatari nagiak; «tentan-zik bage ta bekatarako bidetik urrun gabilzan guzian zutik eta bekatuan erori bage ibilliko garala unte dugu, baña aragi nastuaren edo etsai gais-toen tentanz bat gugana ezkerro edo bide makurren batean oin bat sar-zen dugun aldian, bekatuaren lokatzean gautza, ta ezagutzen dugu», diote, «indar gutiko gizenak garala Jangoikoaren legeak diona osoki egiteko». Orra anitz bekatariaren aitzakia; baña aitzaki bekatariena, ta aitzaki, pits bat balio ez duena, orain ekusiko duzun bezala.

Oñak perlesiz zerbait galduak daduzkana ezin dabilke berez ta bakarrik bide luzean beinatz; baña besapetik arzen balu Sansonek diña indar dituen gizon batek, egin lezake bere bidea erorzeko perillik bage, ta bi urteko aurrak aurzaiak lagunzen diola baño agitz errazkiago; baña gizon indarsuak luzatuagatik bere eskua besapetik perlesiduna artu ta ibilzen lagunzeko, perlesidunak artu nai ezpalu aren lagunza ta gelditzen baliz oñik igitu bage, geldituko lezake bere naiez ta kulpaz; bada ibilzeko bear den lagunza bere eskuan duela artu nai ez duenak, ez du ibilli nai ta bere obenez ta kulpaz gelditzen da.

Onen gisako ezin egillea da Jangoikoaren legea urratzen duen beka-tari aitzakiduna; bada berak nai badu ta eskatu ezkerro, emanen dio Jangoikoak beraren legeak dion guzia ederki egiteko bear duen grazi guzia; ta lagunz eta grazi hau ez eskatu naiez egiten ezpadu, egiteko gogorik bagez uzten du ta ezin egiñez, flakiz ta indarrik bagez ez. Eta edozein eni edo bekatari ongi ta bear den gisan eskatu ezkerro, emanen dio Jangoikoak bere egitekorako bearko duen lagunza ta grazia. Hau dio Jangoikoak Trentoko bere Konzilioz, Konzili oni esan erazten diola: «Al duena egiten duenari Jangoikoak ukatzen ez dio bere grazia»: *facienti quod est in se Deus non denegat gratiam*. Agitz lenago ta Elizaren askunz beretik

ere bere Apostol S. Pabloren ezpañez agertu zigun Jangoikoak zori eneko dotrin ta egi hau, ta agertu, bere Apostol berari esan erazi ta: «Jangoikoak lagunzen didala (ta lagunduko dit nik nai dudana aldi oro) ez da mundu guzian ta animako nere gauzetan nik ezin dagikedanik»: *omnia possum in eo, qui me confortat*.

Uztarria da berez, ez dut ukatzen, Jangoikoaren legea: *jugum*; karga da berez, bai, lege hau: *onus*; ta gurutzea da; ta gurutz, zerura nai duenak bere soñean eraman bearra, lege beraren emalle Jesusek dionaz: *qui vult venire post me... tollat crucem suam*; ta zerura nai duenak nekatu bear du emendik arako bere bidean, ta biziro al-ere, zeren ez den beste bidez aratzen denik, die, Jesusek: *Regnum coelorum vim patitur, et violenti rapiunt illud*; baña zuk ere aitortu bear dezu uztarri, karga ta gurutze gogor astunagoa dutela deabruaren, munduaren ta aragiaren legean bizi diranak, eta lege makur onetan bizi diranei infernuko neke gogorak beretzea, fededun onei zero guzia irabaztea baño agitz geiago kosta zaiela.

Bada deabruaren legean bizi denak begitan artu bear du berak nai duena egiten ez dion edo gaizkiren bat egiten dion edozein, ta ibilli bear du nondik eta nola bendekatuko den, ta denbor berean ibilli bear du irakiten dagon ur gaziak bezala, aserre ta soseganz onik ez duela. Munduaren legean bizi dena dabil benran ta munduko estimanzan beste guziak egitekoz, diruz edo ondasunez garaitu naizik, eta zenbat ere artan iganagoa, anbat geiago igan nai duela; baña bein ere berak nai diñako honrarik arkitu bage ta bera baño geiagokoak edo goitiago arkitzen diranak ezin ekusi dituela.

Aragiaren legean bizi dena bere burua edo gorputz-anima atseginz loiez zikindu naiez, gabaz ta isilka dabil; ta dabil, duena galzeko ta bere bizia laburzeko bide guztiz egokian, ta geienetan edo askotan beinatz agitz illun ta sekulako galdu bear duelako beldur andiarekin, ta al-ere dabil bere nekeen arinzallerik arkitzen ez duela.

Baño Jangoikoak bere lege garbian bizi denari ematen diozka bere grazia ta lagunza, ta grazi ta lagunz onekin agitz leunzen dio bere uzta-rria (*Jugum meum suave*), ta arinzen dio bideko bere gurutz eta karga guzia (*et onus meum leve*); ta bidenabar bere nekeen alde zeruan eman bear dion atseginz andiaren ustearekin sarzen dio biotzaren erdiraño poz eta soseganz andi bat, eta orregatik zenbat ere geiago nekatzen den zerna irabazten ta Jangoikoaren legeak diona egiten, anbat biziroago dabil bere bide zuzenean ta anbat glori geiago irabazten du gerorako, bai ta bere barreneko atseginz eta sosegu geiago ere, gauz onen berria dutenak esaten dutenaz. Eta orra zein gezurtia Jangoikoaren legea lege gogorra dela



ta legeak diona egiteko indar gutikoak dirala dioten bekatar gaistoen aitzaki galdua. Ez da, bada, bat ere ohea beste anitzek agerzen dutena.

§ II.

Beste bekatar anitzek arzen dute beren buruak estalzeko beste bide, ta galdetzen zaien aldian nola egin duten anbat gaistaginz eta bekatu, eranzuten dute, zeren uste zuten etzela bekatu. Baña aitzakia da geien aldietan esaten dutena; ta aitzaki, lenekoa bezain txar ustela. Zergatik, uste dezu? Zeren nai dutela ta beren obenez arkitzen diran beren uste txar orretan.

Bere gauzak ekusteko gorputzak ez ezik animak ere badu bere begia; bafila begi, guzia beti ekusten ez duena ta gutitan ez, eziñez ez, baik bere gaistakeriz. Hau bera agitzen zaio gorputzeko begiari ere. Ezin bestez ekusten ez du gorputzaren begi itsu jaio edo itsutu denak, ez eta ero gelditzen edo adimenturatzen ez den animarenak ere; eta orien ez ekustea ta ez ekusiz uts egitea ez da uts-egite obenduna ta bekatua, ta ibilli oi den bidez dabillega austen baditu itsu batek an utzi dituzten taz eta bidrio zenbait, ez ekusiz ta uste etzuela austen ditu ta ez du artan obenik, ez eta zer pagaturik ere. Era berean animaz itsu arkitzen dira aurrak adin artera guzian ta eroak beti; ta adindun ta ezagunza dutenezat zillegi ez diran gauzak egin ta ere, ez dute egiten bekatu, zeren itsuak diran adimentuz ta ez dakiten zer egiten duten. Hau agitzen zaie adimendunei ere gauz gaistoren bat egiten duten aldian, egin ezkeru oartu bage; ta orregatik ez luke autsiko isteriak bostgarren mandamentua, tiroz gizon bat illagatik, sasi batean ekusi ta arz edo otsoa delako ustean ilzen balu.

Baña begi ekusle ona duenak oñetan duena ekusteko idikitzen ezpala ta bere naiez itsu ibilli ta austen balitu itxeko gauzak, karrikan salzeko dauden kristalak edo bidera atera dituzten arrautzak, bere obenez ta kulpaz ausiko lituke ta bere gain izanen luke egin d(it)uen kaltea. Badira animako begidunak, egin bear dutena ez egin naiez, begiak isten ta estalzen dituztenak eta hura utziz ta utzi bear zen gaistaginz egin ta bekatu egiten dutenak. Beren naizko itsu obendun orietatik dira predikariaren ta konfessorearen hitz onen igesi dabilzanak, buru enezko lagunetara bilzen ez diranak eta zuzendu bear lituzkeen humeen ibilkunz makurrei begiratzten ez dienak, hume berak dituzten joan-etorri, sartu-atera ta hitzket galgarri, jostanz zikin perillezkoei ez ekusi egiten dienak, hume berak gal

dezaten beldurrez bide makur oriekin billatzen duten ezkonza ta itxea. Itsuket oriek eta era bereko beste edozein egiten dituztenagatik esan ditek beren naiez ta berariz dirala animaz itsu: *nohuit intelligere, ut bene ageret*, eta bekatu dela aldi orietan egin bear zutena ez ekusi ta uztea.

Ekusleak erabilzen badu begia bein batera ta bein bestera gauzak ongi ekusteko gelditu bage, begirik ezpalu bezala da ta bere ekuste guziak lagunzen ez dio egin bear duena egiten ta aldi artan ark hau ez egitea bere naiez uztea ta bekatu da.

Badira beren naiez sarzen diranak bidezko lan, egiteko ta arazo andietan ta saldu-erosi nastu ez zuzenetan, bai ta aragiari atsegina egiten dioten jan-edan, danz, jostatze makur, sartu-atera ez on, eskuk loitsu ta beste ibiller galgarritan ere; ta or oitzen dira zillegi ez diran gauzak egitera ta Jangoikoaren lege santa urratzera; eta ala oriek, nola len ekusi ditugun ta gis bereko beste guziak kontuz ekusi bagez ekusi bear zutena, egiten ez dute egin bear zuten ona ta egiten dute egin bear etzuten gaitza ta gaistaginz. Ala ere galdegiezu nola egin duten beren lan gaistoa ta eranzuten dute: «Ez genuen uste gaistoa ta bekatu zela». Baña orien aitzaki hau gauzari kontuz ez begiratu naiez begiak isten ta estalzen dituenaren aitzaki txar-galdua da; ta aitzaki, nola-nai ibilliz besteren arrautz, kristal, bidrio ta beste gauzak austen dituenaren ta uste-bagean ausi dituela dionaren gisakoa; ta aitzaki, enzat inork artuko ez diona ta gauz ausien jabeari esan-eraziko likeona: «Non zenituen, bada, begiak ekusteko non ezarzen zenuen oña? Bada damu gaistoarekin bad-ere, pagatu bearko dituzu ausi dituzun gauz andi ta txiki guziak».

Hau bera esanen dio Jangoikoak egin edo utzi bear dituen gauzei ongi ta kontuz begiratu bagez makur dabillenari ta bidenabar esanen dio: «Buru gaistozkoa da etorkizunari begiratzten ez dion gizona, ta nere maitatzalle onak eta nere legeak diona egin nai duenak ongi oarturik eta non dabilen ekusirik oñak ezarzen ditu»: *virī mali non cogitant iudicium: qui autem inquirunt Dominum, animadvertunt omnia* (Prov. 28,5).

Itsu-itsuan bezala ta zertan ta non dabilzan begiratu bagez bekat-bideetan sarzen diranei agitzen zaie deabruarekin, soldaduen nagusi andi Anibalekin afrikar anitzi bein gertatua. Afrikar oriekin pelean zebillen batez igesi bezala joan zen andik Anibal, bere soldadu guziak artu ta; baña afrikar berei utzirik oarkabeen edo ezin bestez bezala nai diña ardo ta ogi ta ja-ki. Afrikar, pelean nekatu ta gosez ta egarritz beteak mai pres-tatuak ekusi horduko, asi ziran jaten ta edaten ta ase ta bete ta buruak galdu artean etziran gelditu beren jan-edan goisoan. Hau egin ta laster loak artu zituen guziak, zeren *mandra-gora* deritzan frutaren sukuak le



andi bat ematen duen ta frut orren sukuarekin nastu zuen Anibalek utzi zien ardoa. Zelatan utzi zituenak adirazi zioten andik ez urruti gelditu zen Anibali gertatzen zena. Itzuli zen Anibal bere soldadu guziekin lo zeutzan afrikarretara ta gañerakoak irazarri ziraneko ill zituen orien erdiak eta bigarren peleatik bizirik atera ziran afrikar bakoitz-bakarrak esaten zuten gero, ta esaten beren damu andiarekin: «Nork usteko zuen ardo goiso ark zuela anbat gaitz eta izurri?».

Orra deabru gaistoak bekatari gaisoekin egiten duenaren ainzur egokia: edari enzat ematea bekatuz eta bekatuako izurritz beteak arkitzen diran jostaket eta jaki galduak. Galdu nai ezpadezu, bada, betiko zere burua, utz aitzaki txar galgarri guziak eta bekatuako bide eman dezakeen ibilz eta gauz guziak; ikasi ongi Jangoikoaren legeak diona ta egin beti dien guzia. Egiten badezu, maitatuko dezu, eta bear den gisan, Jangoikoa, bai ta beste edozeñ ere. Jangoiko berak dizula artako bear den grazia ta bere denboran betiko gloria. Bai arren, bai.

LVII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko emezorigarren igandeko irakurraldia

Offerebant ei paralyticum. Matth. 9,2.

Gaia: Etorkizunaren oroipena da
zeruko bideko nekeen aringarria

Besteen errietan ta bere errian bat bera zen beti Jesus maitagarria ta beti zen ongillea. Oraindano aldietan ekusi ditugu beste errietan Jesusek egin zituen zenbait milagro ta egungo Ebanjelio santuan arkitzen dugu bere errian egin zuen bat. Itsasoko beste aldean arkitzen zen Jesusen erri hau. Itsasoz bere errira zen aldi batez ekarri zioten Jesusi eri perlesidun bat; eta ekarri zioten senda zezan beste errietako eriak sendatu zituen gisan ta bere milagro. Eri perlesidunak eri zedukan gorputza ez ezik anima ere, ta biak sendatu ziozkan Jesusek eta lenenik anima; bada animaren eritasuna da bekatua, ta bekatuan arkitzen zen perlesidunari esan don: «Barkatzen zaizkitzu zere bekatu gaistoak», eta barkaturik gelditu ziran guziak; bada Jangoikoaren hitzak egiten du esaten duena ta hau da Jesus Jangoiko-gizonaren hitzak ziona: *remittuntur tibi peccata tua.*

Aldi antan Jesusek egiten ta esaten zuenaren zelatan zeuden betiko gisan zenbait eskriba-tzar ta Jesusek ziona aditu ta, «Nor da hau?», esaten zuten beren gogoan, «(Jangoiko bera bai-liz bezala) bekatu gaistoak barkatzeko?». Etzuten oriek uste Jangoiko-gizona zela Jesus, baña ala zen, ta ekusten zuen beren gogoan zekarten erausi galdua ta zenzat ezagu zezaten esaten die: «Zer da zeren gogo txar orretan daraustezue-na? Bekatu gaistoak barkatzea edo eri bat sendatzea errazago da? Ezagu dezazuen, bada, gizon egin nazan onek bai-dudala emen ere edozein bekatu barkatzeko eskua, bai ta eriak sendatzeko ere, ekus zazue egitera noana». Eskribei hau esan edo adirazi ta, «Qri», esan zion perlesiz galduari, «jaiki zaitez zautzan oatzetik, arzazu bizkarrean azpiko zere oatzea ta zoaz zere orrekin gaitzik bage zere itxera». Jesusen hitz hau aditu bezain laster sendatu zen perlesidun eria ta gaitzik izandu ezpalu bezain arin ta aisa eraman zuen bere oatzea. Hau ekusi ta arritu ziran eskribak eta an arkitzen ziran beste guziak eta ezagutu zuten bata egiten zuenak



egin zezakela bestea ere ta gorputzean ez ezik animan ere sendatu zuela eria ta kendu ziola gorputzeko perlesia ta bekatuen animako ezkabia.

Eritasun agitz gaistoa da gorputzeko perlesia ta animakoa ez da bat ere ohea. Gorputzeko perlesiak ez du beti artzen gorputz guzia; bada zenbait aldiz artzen du alderdi bat eta ez bestea, ta besteetan artzen du izter bat, beso bat edo oin edo esku bat eta besterik ez; baña perlesi animakoak beti arzen du anima osoa. Animak ez du saiets, bazter, zatirik eta artu ezkeror arzen du den guzia.

Gorputzeko perlesiak bat ukitu horduko, billatzen du eriak edo eriarren itxekoren batek medikua edo barbera, ta onen eskuz artzen du sendagairen bat, dela odol isurtzea, dela barren arintza edo beste obeki dagokana, ta joaten da edo eramaten dute bere aldian ur beroetara, an lasaitzeko ta mehetzeko lotu ta loditu zaion odola, ta bein hau egin ta sendatzen ezpada, berriz ta berriz ere egiten du hau bera; ta egiten du aldi oro geiago eritzeko beldurrez ta sendatu naiez. Hau bera da animako perlesiz kri dagonak egin beharra: eritu ta lenbaitlen osasuna billatzea ta egin dituen bekatu guzien damu andiarekin konfesioko ur beroak artzea, ta bein ez ezik berriz ta berriz ere ta guztiz sendatu ta ongi sendortu arte guzian hau egitea; ta gero bekatu berrien perlesitik igesi egiteko etorkizunaren oroitzapen on bat edo beste gogoan erabiltzea. Eta aldi onetako gure egitekoa da oroitzapen orietatik zenbait bereztea.

§ I.

Eritasun gaistotik atera denak berriz ez eritzeko egiten duena da gaitz egin dezoken gauzarik ez jatea ta bere horduan on egiñen diona artzea, naiz goisora izan hau, naiz latza ta miña. Eta egiten du ark hau gaitz berrien aldarte gaistoak ez ekusteko eta osasun onean bizi naiez. Hau bera da bekatuz eritu ta konfesioz sendatu denak egin behar duena: bekatuak bideak eta bekatu-gai guziak alde bat uztea ta birtutearen osasunan irauteko diran gauzak egitea ta oriek egiteko etorkizunaren oroitzapen bat edo beste gogoan erabiltzea.

Orretarako oroitzapen egokia da bekatuari darraikon lots-alkea edo noizean bein ta bekatuak bidean arkitzen den guzian bakoitzak bere buruari esatea: «Ta egiten badut, zer alkea ta lotsa noizbait nik ekusi beharra! Milletan obe neretzat lan lotsagarri hau alde bat uztea ta artu

dudan zeruko bidean irautea». Hau ala dela ederki adirazten du orain ekusiko dezun berriak.

Dendari jodun batek ari ta oni ta beste anitz-askori egiten ziezten zenbait gauz eta soñeko; ta egiten, jabe berak zekarten edo berak billa-prestatzen zien gaiez ta, oi den gisan, gelditzen ziran zatiak; baña etzitzen itzulzen guziak, «Zati onek» (esan ta) «arenzat ez du anitz balio ta on izanen da adobakiren baterako, beste hau kutunen bat edo beste egiteko ta bestea beste zerbaiterako», ta zatika ta zatika gelditu zituen oial andiak egiteko aski ziran puskak, eta pusk elkar artu ta anitz balio zutenak.

Bere lan txar onen buruan artu zuen jodun ebaslea eritasun azkenekoa zirudien batek eta kri denboran eritasunak baño agitz geiago estutu ta naigabetu zuen ekusi zuen gauza batek. Sukarrak, buruko miñiak, lorik ezin egiñak eta eritasunaren beste aldarte gaistoak iduki zuten eria guztiz nekatur. Gis artan zegola ekusi zuen deabru-tzar agitz izugarri bat, bander andi luze bat eskuan zekarrela. Bander hau kri dendariak ostu-ebatsi zituen zatiz egiña zen. Deabrua asi zitzaion ai-ajaka ta banderarekin aize egiten, ta bander-aizeak, infernukoa bailiz bezala, izerdi ta izerdi zedukan eria ta lotsaz ta alkez betea, zeren ekusten zuen leneko gauz makurrak zuzendu ta zorrak atera bage iltzen bazen, kondenatua utziko zuela Jesusek bere tribunalean obendun gaisto galdua bezala.

Jangoikoak nai ta bizirik utzi zuen deabruak dendari jodun eria. Sendatu zen hau ta zuzendu zituen leneko makurrak, eta makur berritan ez sarzoko gogoan ongi-ongi sartu zuen ekusi zuen bander izugarriaren oroitzapena ta bekatuari darraikon alkekizuna; ta gogotik joan etzekion esan ere zien itxeko guziei: «Örie; oialak nik ebakitzen ditudan guzian esan behar didazue: kontu, nagusia, ez da zer banderaz aztu». Egin zuten itxekoak nagusiaren esana ta esaten ziotena aditu horduko, «Ola», zion dendari kri sendatuak, «zati bakoitza bere jabeari, bander berriren gairik deabruari ez emateko ta alkekizun lotsagarriarik ez ekusteko», ta gelditzen etzuen zen txikienik ere len bezalako alkekizunik ez ekusteko ta Jangoikoaren tribunalean ongi atera naiez.

Orra bekatuaren eritasun gaistotik ateratzen denak egin beharra: bekatuak dakarren itsustasuna ta itsusitasun izugarriari darraikon lotsa-alkea gogotik ez uztea ta aragi loitsu, mundu ero edo deabru galduak gaitzera makurtu nai duen aldian, bere buruari esatea: «Ongi, ta zet on atera dut nik lotsaz ta alkez len bete minduten nere bekat gaistoetatik, eta lotsa-alke bera baizik atera dezaket berriro negiken best edozeinetik? Agitz eroa ninzake bekatuaren ezti apur bat ez uzteagatik ekusi nai banu emen bein ikasten dutenen ta gero nere Jangoikoaren tribunalean bekatuari



darraizen alke lotsagarria. Erotzen ezpanaz, ez beinzat; ez berriz alako-rik, ez». Hau egiten duenak errazki garaituko du edozein etsai ta gelditu-ko da bekatura bage ta birtutearen bidean.

§ II.

Errazkiago geldituko da birtutearen bide berean ta bekatura bage, bekatuaren alkekizunaz oroitzen den aldian oroitzen bada bekatuari dagokan betiko neke izugarriez; bada agitz gutiagogatik ere egiten dute gizonak oñaze ta neke andia dakarren zer edo zer, ta zenbaitek urkabe-ko lots-nekea ez ekusi naiez uzten dituzte beren gorputzeko zañiak zur-eskiñezko oatze potroan dautzala tiratuz ta tiratuz luzatzen, bai ta besoko ta izterreko aragia sokaz estutuz lertzen ere; ta ekusten dezu neke zein izugarria ta oñaze zein latza aldi antan ta borreroak lan gogor hau egin arte guzian ekusi behar dutena, bada lanak iraun oi du zenbait horduz ta bitarte guzian zur-eskinez eginikako oatzean dautza, ta an dautza soñe-kozik bage edo ator utsean.

Juezak ezarzen dituzte oriek an, ta nekez ta oñazez an erdi 1erzen dituzte, idaroki naiez erdizka baizik ezin ikasi duten gaistaginzen bat edo beste, ta beren gaistaginza agertu bage anbat nekeren artean irauteko gaistagiñak egiten dutena da, etorkizun izugarria gogoan idukitzea ta artarako zerbait egitea. Ona orietatik batek bein egiña.

Badira lur gañean deus-ez bat edo agitz guti dutenak eta al-ere anitz balute bezala aisa ta lasai bizi diranak. Orietatik batek artu zuen orretarako bide gaisto bat eta asi zen isilka arrapatzen al zuena, naiz itxeetakoa izan, naiz elizakoa. Askotan egin zituen bere lan gaistoak artara nior ohartu bage; baña azkenean barrundatu zituen batek edo bestek eta eman don jakin behar zuenari zuen goganberraren berria. Sartu zuen onek lapurra preso; baña onen ibilleren arrastoak billatu ta ere, etzuen gauza garbirik arkitu. Al-ere eman zuen adirazi dugun tormenturako sententzia.

Lapurrak hau ikasi zuenean, egin zuen isilik oatzearen oñean ta bere oatzeko tormentu gogorrean ekus zezaken tokian urkab-antz bat, eta soka meekin beso-izterrak estutu ta oñazez borreroak betetzen ziozkan aldian ta beste sok-ekin oñeko behatzetatik tiraka hari zitzaionean, begiratzen zuen urkabera ta esaten don bere buruari: «Ago isillik, bukatuko dituk laster emengo hire neke guziak eta geroz libre bi beste nekeetatik;

baña salatzen baduk bere burua ta agerzen bere lapurketa, hurkabean galduko duk bere bizia ta an utziko hau borreroak sokaz itoa ta hurkatua, ta an bertan ta presondegitik arako bidean ekusi beharko dituk anitz lots eta deshonra; ez arren, ez; ago isilik». Eta bere hurkabeari begiratu ta era onetako gauzak gogoan erabilliz, mututurik egondu zen neke artako denbor guzian ta gelditu zen hurkabera bage ta libre.

Aisa ta errazki geldituko da bekataria ere bekatura bage ta sekulako neke-tormentu ta su izugarritzko hurkabetik libre, gogorzen bada ez egiteko animaren borrero aragiak, mundu gaistoak eta deabru amurratuak nai duenik eta orietatik batak edo besteak gaitz aldera eraman nai duen aldian esaten badu: «Begira, nere anima maitea, etsai galgarriak agerzen dizun bekatu bide hau suleze-infernurako bidea da; ez or oñ-puntarik ere sartu, andik artu ta deabruak ara eraman etzaitzan. Zaude zauden tokian, egon nai ezpadezu infernuko hortan suzko sokez lepotik lotua, burutik oñetaraño ta ezur ta muñ su ta gar egiña ta milla nekez ta tormentuz bete. Begira, berriz ere konfesatuko zaralako ustean ez berriz bekatura; millaka ta millaka dira uste txar orrek infernuan ondatu dituenak, eta zu ere arako zara, orietatik bat izaten bazara». Ez du perillik hau eta era bereko gauzak gogoan erabiltzen dituenak bekatu berririk egin dezan, ta orregatik da gogorantz hau gogorantz egokia bekatu berriak aienatzeko ta zeruko bidean azken horduraño irauteko.

§ III.

Bekatu berak aienatzeko ta zeruko bidean irauteko bide zuzen ego-kia da birtuteari dagokan atsegintzak eta gloria gogoan arzea, arzen bada noizean bein ta bekatu bidean agerzen den aldian. Orrenbat bage ta beingoan hau gogoan arzea aski izandu zen bekatari gaisto bat bekatutik atera ta zeruko bidean ongi sarturik uzteko. Bekatari hau anitz estudianteren maisu zen; ta maisu, bere erakuste guziak ederki egiten zituena, bera gaizki bizi zen gizona bazen ere.

Estudianteak eta estudianteen maisu hau arkitzen zitan bakunz-Unibersidade ta erri andi batean. Erri artara joan zen predikari andi bat. Joaten ziran estudiante guziak aren hitz onak aditzera. Baña etzuen arga-na urbildu nai orien maisuak, zenbat ere egiten zuten estudiante berak hura ara eramateko. Beren maisuaren txarkeri hau ezin eramanez elkar artu zuten zenbait estudiante indarsuk, besoetan artu ta bazen ere, hura



predik-sermoira nai ta ez eramateko. Arzen dute, bada, bein batak besotik eta beste lagunak andik edo emendik eta esaten diote: «Orra, maisua, onez onean ez dezu sermoirik aditu nai; bada bortxaz bad-ere aditu behar dezu gaurkoa beinzat».

Maisua hau aditu horduko asi zen okalondoka, ostikoka ta ozka bere burua estudianteen eskuetatik atera naiez; baña ark baño indar geiago zuten estudiante azkarrak eta erdi arrastan ta erdi airean eraman zuten elizara. Horduko pulpitoan ta bere sermoiean arkitzen zen predikaria. Predikariaren hitzak ez aditzeagatik estali zituen maisu gaistoak bere bi beharriak eta aren eskurik ere ez ekusi naiez, makurtu zuen burua ta bildu zituen betazalak; baña ara eraman zuten estudiante dizipuloak besoetatik artu ta kendu ziozkaten andik eskuak, zuzendu zioten burua ta iduki zuten predikariari begira ta naa ta ez aren hitzak aditzen zituela.

Aditu zituen zenbait eta besteen artean S. Estebanek judatarrei esan ziena; ta S. Estebanek oriei esana da: «Jangoikoaren eskoi aldean jarririk ekusten dut Jesus ta hau an niri erakusteko zabaldu ditu Jangoikoak zeruko atea»: *ecce video coelos apertos, et Jesum stantem a dextris Dei.* (Act. 17,34). «Ara», zion predikariak, «ara; dago Jesus gure alde Ait eternoaren eskoi aldean. Ara, agerzen diozka gure bekatu guzien zorrak ateratzeko bere neke-tormentuak eta neke-tormentu andiekin egin zituen irabanz guklak; eta irabanz, bazterrik ez dutenak. Ara, eskatzen dio barka ditzala gure bekatu gaistoak; eskatzen dio digula ongi bizitzeko bere grazia ta bere denboran sekulako gloria; ta eskatzen dio guri ongi naiez ta zori oneko doatsu izan gaitzen gu eternidade guzian ta bukanzik bageko sekulan».

«Emengo gure nekea (ta neke, onenbat ondasun irabazten duena) neke laburra da ta denbor berean da neke Jangoiko berak arinzen duena; note ez du, bada, onen merke ta aisa erosi naiko betiko atseginza ta zeruko glori ta zori on ederra? Guzia galduko du», zion gero predikariak, «emengo atseginz txar loi laburrak gatik bekatu bidean dabillen buru bageko gizonak. Instant batekoak emengo gozanzak eta sekula guzian iraunen dutenak oriei darraizten neke-tormentu andi gogorrak»: *momen-taneum quod delectat, aeternum quod cruciat.* «Eta zein da zuen artean», zion azkenean predikariak, «gauza txiki on bat edo beste ez egin naiez anbat zori on, atseginz eta ditxa galdu nai dituena ta emengo atseginz txar loi galdu zikin bat ez galtzeagatik eternidade guziko su-garren erdian erretzen ta amurranzez beterik egon nai duena? Bada bietarik bat izanen da betiko gure zoria, ta izanen da bakoitzak nai duena. Zein ona bata ta zein gaistoa bestea».

Hau aditu ta ezagutu zuen maisu jakinsuak hordurañoko bere era-keria, ta bortxaz ara joan bazen ere, gogoz ta ziñez begitan artu zituen bere bekatu zikiñak, utzi zituen betiko leneko bere ibiller makurrak eta artu zuen bizi zen arte guzirako zeruko bidea. (Ex vit. PP. Praed. p. 9, c. 10).

Bada hau bein aditze berak onenbat eragiten badu, zer eragin ez dezake hau bera askotan, gogoz ta biotzez arze-austeak? Gogora zazu, bada, ta biotz-errez autsi len agertu ditugun beste gauz guziekin batean ta ekusiko dezu zenbat lagunzen dizun zeruko zere bidean. Jangoikoak dizula artarako behar den grazia ta lagunza: bai arren, bai.



LVIII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko emeretzigarren igandeko irakurraldia

*Reliqui vero tenuerunt servos eius, et contumeliis
affectos occiderunt. Matth. 22.*

Gaia: Agitz itsusia da Jangoikoaganako
bekatariaren esker-gabenza

Ezteiak prestatzen dituenaren lana ta naia da datozen gudak nai diña ta nai duten gisan jan-edan ta kontent uztea; ta gauz onen berria duten alde ta ezagun artako diranak, ezkonberriak edo aren ait-amak deitu ezkeru, pozik aratzen dira, egitekoren batez, ezin bestez, andiz, aserrez edo dollorkeriz gelditzen ezpadira.

Bai dituela Jangoikoak ere era onetako dollorak gauz ageria da, gaurko Ebanjelioko eztei parabolak adirazten duenaz. «Prestatu zuen errege batek bere semearen eztei-jate andi bat», dio Jesusek egungo Ebanjelio santuan; ta onen ezkontzaren berriarekin arkitzen ziran zenbait edo berri hau bidalzen ziela, gaztigatu zien errege zetozkiola; baña agitu zen usteko etzuen, bada usteko zuen, guziak ezpazen ere, anitz beinzat arako zirala, ta etziran ara deitu zituenen laurdenak, ez eta bakar bat ere; ta geiago dena, guziak gelditu ziran biderik bage ta beren dollorkeriz.

Hau ekusi ta bigarren mandatariekin gaztigatu zien: «Eztei jatea prestatua dago; ill-erazi ditut idiak, maneatu da gelia ta eltze on bati dagokan beste guzia, sasoi onean daude egazti ta maira aterako diran beste gauzak eta zoaztela, dio, aren eztei maira». Baña alferrik guzia, bada etzuen batek ere artu arako biderik eta zenbait beinzat joan ziran bata batera ta bestea bestera ta bertan gelditu ziranak deileei esan ziezten milla gaistakeri ta azkenean arrapatu ta an bertan illak utzi zituzten guziak.

Berri hau aditu ta agitz aserretu zen errege aita; bidal-igorri zituen ara bere soldadu armaz beteak eta ill-erazi zituen deileen illzalle guziak, eta erre ta arrasatu zuen erria, hau aditzen zutenak zentzuturik ta beldurrez beteak uzteko.

Bihotz onekoa ta agitz ongillea zen errege hau, ta aren ezteira etziran zaldunen ta gizon andien ordeztatu zituen pozik ara joan ziran beharsu anitz. Bidal-igorri zituen mandatar berak bidaburuetan ta edozein bazterretan arkitzen zituzten bearsu, nekazar ta beste guzien eske. Mandatariak joan ta eraman zituzten arkitu zituzten guziak eta bete zen eztei maia. Baña etorri ziran guziak etziran erregeren eztei maiari zegozkanak eta ara ziranak ekustera sartu ta arkitu zuen itxura txarrean jauntzi bat, ta aserraturik esan don zorrozki: «Adiskidea, ta zer ausardi da zurea? Soñeko txar orrekin nola onara zara?». Gis artan erregek artu ta gelditu zen agitz galdu ta mututua; esaten die bereei erregek: «Oin ta esku lotu, ta ken ortik ori ta eraman presondegiko barren illunera ta utzi an betiko orzen ikarez, kezka ta neq-oñazez bete».

Eztei berri ta parabol onen bukanzan, «Ikasi», esaten die Jesusek adile guziei, «anitz eta asko dirala bein ta berriz nik deitu ta ere, nere gloriko eztei-mai doatsuratzen ez diranak». Zergatik ote?, galdetuko dezu. Zeren eskergabe, buru galduko gaistoak diran ta Jangoikoaren deia ta hitza adituagatik, ez aditu egin ta gogo gaistoak ematen dien aldera, egungo ezteietara deitzen gisan, joaten diran. Nork hau egiten duen ta gauz zein itsusia den, ekusi behar dugu oraingo aldian.

§ I.

Egungo Ebanjeli santuan gertakizun batekin agerzen du Jesusek gertatzen den gauza; bada parabola da ta izandu ez den, baña agi-gerta litekena egungo Ebanjelioko erregeren eztei kontua, ta onek adirazten duen ta gertatuko den gauza da anitzi Jangoikoak bere fede santaz eta siñnistanz onez zerura deitu ta ere, bakan-bakoitzak eta guti izatea zeruko eztei mairano Jesusi darraizkonak.

Bai, izandu ez diranak dira egungo Ebanjelioko erregeren ezteiak, baña eztei oriekin adirazten dizkigu Jesusek aspaldian irauten ta eternidade guzian iraunen duten beste eztei batzuek; bada adirazten dizkigu betiko Ait Errege Jangoikoak munduko guzientzat zeruan prestatu dituenak; eta prestatu ditu bere Seme Jangoiko gizon egin ta gurutze batean ill ta Elizarekin ezkondu zenaren alde; ta eztei oriek iraun dute Abranen linbokoak Jesusek berekin zeruan sartu zituenetik, eta iraunen beti-beti ta bakanzik eta bukanzik bage sekul guziko eternidadean.



Bere eztei orien berria ematen die Jangoikoak barreneko inspiran-zez ta gogargiz munduko guziei ta anitzi Eskritur santez, gizonen libruz, predikari egokiz ta erakusl enez. Baña munduko anitz-askok eta geien-geienak ez-aditu egin ta badoaz bata batera ta bestea bestera, bata juda-tarren lege bukatura, bestea Mahomaren set zikiñera, bestea deabruaren itxur-idolo galgarriren batera ta besteak Luteroren, Kalbinoren edo era bereko beste itsuren baten aldera. Jangoikoak orietara igortzen ditu bere mandatari onak. Mandatari oriek dira Jangoiko beraren legeko predikari ta erakusle artakoak. Mandatarietatik anitz illak gelditu dira, igesle gais-toen atzapar gogor odoluan. Zori oneko ill orietatik dira Apostol jaunak eta beste martir guziak edo beinzat anitz. Hau guzia ekusi ta ere, ez da batere enoi-kansatu gure Jangoikoa, ta bidalzen ditu beti mandatari berriak berriro munduratzten diranak deitzera. Badabilta mandatari ta predikari oriek munduko lau bazterretan ta al dituzten guziak ekartzen dituzte Jangoikoaren lege santara ta zeruko eztei bidera.

Baña Jangoikoaren lege-bideratzen diran guziak ez dabilta legeko soñekoz ongi jauntziak. Legeko soñekoa da Jangoikoaren grazia ta grazi hau bage arkitzen dira, Kristo Jaunak dionaz, aberatsen arteko guti ez; bada Kristo Jaunak dio bein: «Ai, aberats tristeak, emen dezute zuek zeren atseginz guzia ta emengo atseginz galgarritan bizi diranak ez dute zeruko atseginz-gai Jangoikoaren grazirik». Eta dio berriz: «Kamelu bat orratz zulo txikian bezain gaitz da aberatsa zeruan sartzea», ta badakizu, aberats graziduna ari albin-zuntz meea jost-orratz zuloan bezain aisa zeruan sartuko lizakela. Beraz Jesusek adiratzten duenaz, aberatsetatik ez guti dira grazirik bage arkitzen diranak eta Jangoikoaren legeko soñeko-rik ez dutenak.

Hau bera agitzen zaie fededun gazte ez gutiri, ta agi-gertatzen zaie, zeren gaitzerako beren grin beroak eramaten duen lagun ta jostanz gal-garriren batera, ta an edo beren bakartasunean eragiten diezten zikinkeri graziaren galgarri gaistoak. Eta gero konfesatzera joanagatik eraman oi ez dute beren grin gaistoa eskuratzeko, leneko lagun ta jostanz perillez-ko guziak aldebat uzteko ta ongi, garbiro ta behar den gisan bizitzeko asmo ta gogorik, eta konfesatu ta gelditzen diran len bezain bekatudun ta Jangoikoaren grazizko soñekorik bage. Oriek ere, leneko aberats ez-onak bezain galduak dira edo ez dira Jangoikoaren zeruko ezteietan sar-tuko, eriotzak era orretan arrapatzen baditu.

Era berean ta Jangoikoaren graziren soñekorik bage bizi oi dira saldu-erosian dabiltzan markatarietatik zenbait. Geiago ta geiago irabazi naiez billatzen dituzte irabaz-bide beren uste itsuz; onak; baña

Jangoikoaren begian makur-galgarriak eta ebaste estalirako guztiz ego-kiak. Egiten dituzte, bada, saldu-erosi zuzenen artean zenbait makur ta gaisto. Zuzenen ez dituzte konfesioz beren ibiller makurrak eta makur gelditzen dira beti ta Jangoikoaren grazirik eta legeko soñekorik bage, eta oriek ere ezin igan ditezke zeruko ezteietara ta Jangoikoaren glorira.

Hau bera gertatzen zaie anitz andre ta neskatxi. Batak eta besteak beren buruak eder-eraz ta gizakiei on-eraz naiez apainzen dira alik ongie-na, ateratzen dira leiora edo itxe-atarira; badabilta kalez kale ta Elizan sarzen diran aldian ere jarzen dira gizakien aurkez edo ekus ditzakeen tokian ta eran, ta neskatx anitz beinzat, aldia erditsi ezkerro, sarzen dira giz-ar-tean edo gelditzen dira mutillen ondoan. Hau oriek egitea sua mulloaren aldera edo belbor ondora eramatea bezala da ta gizon edo mutill anitzi bekatu bidea ematea, ta bide hau oriei edo edozein bes-teri ematea bekatu gaistoa da ta Jangoikoaren grazia ta zeruko eztei-soñekoa galzea. Orra oriek ere zeruko ezteietarako soñekorik bage dabil-tza ta beste bizkunz eta soñeko arzen ez dutela, sekulako galduko dira.

Badira fededunen arte berean beste anitz ere eztei orietako soñeko-rik ez dutenak eta Jangoikoaren grazirik bage dabiltzanak. Orietatik dira ait-ama hume gaiso gazteak kontuz azitzen ta aziak zaitzen ez dituztenak, eta hume berei beren aldian dagoten bizi-bidea ematen ez dietenak. Orietatik dira beren gaistakeriz edo lasaitasunez zorpetik ateratzen ez diranak; orietatik, beren egitekoak ongi maneatzten ez dituztenak edo ikasi bagez gaizki ta makur dabilzanak; eta orietatik, aserretu ziran hor-dutik baketu nai ez dutenak, aztura ta oikur gaistoak uzten ez dituztenak eta beste gaizki bizi diran guziak. Oriek guziak, bada, Jangoikoaren zeru-ko eztei-etarako soñekorik eta grazirik biilatu nai ez dutenak; eta orrega-tik dira Jangoikoak deitzen dien aldian beste aldera doazen eskergabe gaistoak; eta eskergabe, gaitzik besteei egiten edo eragiten badie, orien ta beren animen illzalle gogorak.

§ II.

Zein gaisto itsusia den oriek Jangoikoari agerzen dieten eskerga-benza, orain agertuko dizut aiseri txar bat gana gizon batek izandu zue-narekin edo izan lezakenarekin; bada parabola ta berariz egiñ-asmatura da aditu behar dezun berria, ta kontua, ez gauz agi-gertatua.



Egiteko batez atera zen itxetik gizon nekazari bat. Bere bidez sartu zen baso baztertu batean ta baso erdira zeneko, aditu zuen urrutitik: «Bidezkoa, lagunza Jangoikoagatik, lagunza!». Bide bazterretik zetorren otsa ta bidezkoa ibiliz urbilzen zen otsgilleagana. Aren aldera zenean, ezagutu zuen bazterreko aitz zulatu batetik ateratzen zela otsa ta oja. Ara zen ta ara zela ezagutu zuenean, asi zen barreretik esaten an zetzana: «Jangoikoak ekarri zaitu gaur nere onerako, or arkitzen zarana; atera nazazu emendik eta eskerdun onak bezala egiñen dut beti zuk nai dezuna, ta aterako nazu zulo hau estali didan gañeko arria kendu ta».

Andia bazen ere, basoan arkitu zuen agaien batez baliatzen zela ta bere mañarekin kendu zuen bidezkoak zulo gañeko arria. Ark bura kendu horduko, igan zen arri zulotik dragoi-tzar andi bat eta lotu zitzaion bidezko bere bidegilleari; ta zulo artan luzaro egondu zelako ta gose andi bat zuelako aitzakiarekin, ito ta jan behar zuela esan zion an bertan ta ber-bereala.

«Ori da», bidezkoak erantzun zion, «araistian zuk zeniona ta egin dizudan onari dagokan eskerra?». «Ez, baña bai», esan zion dragoiak, «gizonaren esker gaistoari dagokana; bada ez da munduan gizona baño gauz eskergabeagorik». Eta ezbai anitzen buruan esan zion dragoiak bidezkoari: «Ots emazu, ta goazen norgana nai, ta esaten badu ez dela egia orain nik diodan hau, utziko zaitut bizirik, eta bestela ill ta janen zaitut». «Goazen, bada», erantzun zion bidezkoak eta artu zuten norbait billatzeko bidea.

Andik laster arkitu zuten zakur sokaz lepotik aritz bati lotu bat eta galdetu zioten zein zen munduko guzien artean esker gaistoanekoa. Eta zakurrak bat ere trikatu bage erantzun zuen: «Gizona, ta hau zuek siñes dezazuen, ekusten dezue munduan geiena zor zidanak niri egiña; bada gabaz ta egunaz, eizian ta itxean ta bidez ta urez ta nonnai egin dut nik beti nere nagusiak nai zuena ta ez diot egin bein bad-ere berak nai etzuen gauzarik eta al-ere orra azkenean eman didan saria, otsoen bazkatak eimen loturik uztea».

Hau aditu ta ikaratu zen bidezkoa ta ekusi zuen ari itsasteko dragoiak bere ortzak zorrozten zituela, ta bertan urra zezan beldurrez, «Ez du balio», esan don dragoiari, «zakur baten esanak, eta zakur, nagusi gais-to batek egin dionaren minarekin hitz egiten duenarenak». «Ongi da, bada», esaten dio dragoiak, «eta goazen nai dezunagana».

Badijoaz norbaiten billa ta ekusten dute batetik bestera dijoan aiseri bat. Ots egin ta geldirazten dute ta esaten diote dakarten ezbaia ta len-dabizitik agitu guzia. Guzia ekusi ta esaten die aiseriak hitz egin nai diela

biei isillik eta banaka, ta gizonagana urbildu ta esaten dio belarrira: «Zere ollategian uzten banauzu gau batez nai dudana jaten, aterako zaitut dragoi-tzar onen atzapar gaistotik». «Pozik al-ere», erantzuten dio gizonak, eta diona egiñen duelako ustean, joaten da aiseria dragoiagana ta ari ere adirazten dio isillik eman uste duela aren alde bere sententzia. Eta esaten die gero bie: «Sententzia emateko ekusi nai dut non ta nola arkitzen zen dragoia ta andik hau ateratzeko bidari gizonak egiña». Biak baiez esan ta joaten dira irurak gauza gertatu zen tokira.

Ara ziranean, «Ara», esaten dio dragoi-tzarrak, «ni nentzan zuloa». «Baña nola zeunden an?», esaten dio aiseriak. «Ara nola», esan ta sartzen da dragoia. Hura ara zeneko, keñuz aiseriak adirazi ta gañera botatzen dio gizonak leneko arria ta uzten du dragoia len bezain estalia ta karrasiz ta deadarrez bazter guziak urratzen dituela. Hura ala an utzi ta esaten dio aiseriak gizonari: «Orra, egin dut nik zuk nai zenuena ta utzi niri gaur idikia, esan bezala, zere ollategia»; ta ark «Bai, bada» erantzun ta badoaz bata batera ta bestea bestera. Illundu zuenean artu zuen aiseriak ollategi-rako bidea. Utzi zion hau gizonak idikia, baña aiseriak ez uste bezala; bada an sartzean sartu zuen burua gizonak ezarri zion tranpan, gelditu zen lazo lepotek lotua ta ito zen negarra zeriola ta esaten zuela: «Ongi gertatu zait gertatu zaidana, bada lagundu diot nere gaitzerako munduan den eskergabeenari edo gizon gaistoari, giza-tzar dragoi baten ortzetatik ateratzeagatik ollo bat edo beste ukatu didanari ta azkenean neroni nere bizia kenzen didanari».

Ekusten dezu zein itsusia giza txar onen aiseri ongilleaganako gogortasun eskergabea? Eta zein itsusia ote da Jangoikoarekiko gizon bekatariak duena? Bada Jangoikoak eman zion gizonari duen izanza, eman zion fededunari duen siñianza ta grazia, ta graziarekin zerurako eskua ta deretxa. Len bere bizia ta odola gurutze batean ematen zituela atera zuen Jangoikoak gizon bera sulezeko dragoi izugarri deabru gais-toaren atzapar gogorretik, eta bekatuz berriz deabru beraren atzapar-eta-ratzen deneko, utzi diozka Elizako sakramentu bortitzak, atera dezaten atzapar beretatik eta bekatuari dagokan infernu sututik. Balakuz, beldur-rez ta beste mili aldetara egiten du anitz, arako bidetik atera ta zeruko bere glorira eraman naiez: baña bekatari gaistoak ez-ekusi ta aditu egiten dio Jangoikoari ta bere bekatu berriekin berekiko iltzen du berriz ere bere Jangoikoa: *Rursum sibimetipsis crucifigentes Filium Dei* (Hebr. 6,6). Arki diteke eskertasun-gabe itsusi hau baño itsusiagorik? Eta onekin Jangoikoaren ontarteei ta fabore andiei erantzuten dienei ez dagote Ebanjelioko ezteietara joan etziran eskergabeei erregek eman ziena beza-



lako saria, edo bekatuko eriotza ta sekulako illunbea ta infernuko neke ta tormentu guzia? Bai segurki. Eta naiko dezu zuk zeretzat? Ez? Izan mitez, bada, eskerdun ona ta egizu humilki Jangoikoak adirazten dizuna; bada guzia izanen da zure onerako ta eternidade guzian Jesusen eztei ezin obeagoan ta gloriko jan-edan guztiz goiso asperzen ez dutenak egi-ten egoteko: bai arren, bai.

LVIX

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko ogeigarren igandeko irakurraldia

Domine, descende priusquam moriatur filius meus.

Joan. 4,49.

Gaia: Zein diran erien ekusle gaistoak, zein onak

Bere burua batek agertu artean ez da munduan bat ari begiratzen dionik; eta agertu ta ere, begiratzen dio bakoitzaren agerzari dagokan gisan, ta agerzen bada edozein beste bezala, begiratzen dio beste edozeini bezain oarkabenzan ta arinki; baña agerzen bada edertasunez jaunzia ta egiteko andiak eskut-artean dituela, norknai begiratzen dio ohar-men andiarekin ta arritu baten eran. Hau len munduari beste zenbaitekin agitua da, bai ta errege andi Alexandroekin ere; bada Alexandroren ger izugarri ta irabanz andiak lur gailean agertu ziran aldian arriturik mututu zen mundua, dio Eskriturak: *siluit terra in conspectu eius* (Mach. 1,3). Eta Jesus maitagarriarekin era bereko zerbait gertatu zitzaion egungo Ebanjelioko erregetxo bati.

Emen gure lur gañean Jangoiko-gizon egiñik Jesus agertu ta predikatzen ta zegozkan lan andiak egiten asi zenetik, asi ziran ekusten zutenak begiratzen Jesusi horduraño ez bezala. Era orretan Jesusi begiratu ziotenetatik izandu zen errege bat. Bere erakuste ta sermolak egiten asi ta laster arkitu zen Jesus Kana zeritzan Galiletarren erriko eztei batean. Eztei-jana baño len bukatu zen eztei ardoa ta eztei emalleak lots-alterik ekus etzezan, urez beterazi zituen Jesusek ard-onziak eta bertan egin zuen ura ardo; ta ardo, malkoak len edan zutena baño obe ta obeagoa.

Jesusen egiteko ta milagro hau ekusi ta ikasi zutenak geroz begiratu zioten Jesusi besteei ez bezala, ta arganatzen ziran anitz beren behar aldietan, ta arganatzen besteren eskuz ezin zutena arenez izan naizik. Argana ziranetatik bat izandu zen Kafarnaun zeritzan errian bere semea ilzen zedukan erregetxo bat.

Ikasi zuen onek aldi berean itzuli zela Jesus ura milagro z ardo egin zuen erri Kana Galilekora ta hordurik galdu bage billatu zuen beste milagro bat ari eskatzeko, ta ekusi bezain laster eskatu zion joan zekiola bere



itxeraño, an erio gogorraren atzaparretan arkitzen zen semea milagrozt sendatzera.

Semea gorputzean bezala, animan aita jentila sendatu naiez esan zion Jesusek oni: «Esaten zaitzuenik ez dezue siñistu nai, esaten zaitzuenaren alde milagroren bat ekusi artean». Eriaren aitak berea ta berea zuen gogoan ta españetan, ta aditu zuenari eranzun bage esan zion Jesusi: «Jauna, nere semea ill baño len atoz, arren, nere itxera». Eta Jesusek urrikaldurik esan zion ait-guraso kezkatuari: «Zoaz itxera ta arkituko dezue bizi-sendatua zere semea». Sinistu zuen gizonak Jesusen hitza. Artu zuen bere itxerako bidea ta bidera aterarik beren poz andiarekin itxeko zenbaitek esan zioten sendatu zela aren semea. «Zer horduz sendatu da?», galdetu zien aitak. «Zazpietakoan», eranzun zioten itxetik etorri ziranak. Eta ezagutu zuen aitak sendatu zela seme ilzen zegona Jesusek esan zion hordu berean, ta hau ekusi ta ezagutu zuten ark eta aren itxeko guziak zen bezala Jangoikotzat Jesus maitagarria ta siñistu zuten aditu zioten guzia. Oriei hau eragitearekin adirazten digu Jesusek ekusten ditugun eriak onerazteko egin btar duguna. Eta hau zer den da gaur guk ekusi beharra, ta egñien dugu ekusiz zein diran erien ekusle gaistoak, zein onak.

§ I.

Jangoikoa da gure biziaren, eriotzaren ta eriotzera daraman eritasunaren jaun ta jabea. Hau berak bere jakinsuaren ezpañez esanik dadukan gauza da: *tu es, Domine, qui vitae, et mortis habes potestatem* (Sap. 16,13). Bizi denari ematen dio Jangoikoak deritzan aldian osasuna ta deritzan horduz gaitza edo eritasuna, ta ematen diozka bata ta bestea naiz ona izan ta naiz gaistoa arzen dituen, ta ematen diozka bere onerako bata ta bestea; bada ematen dio ongi bizi denari osasuna, egin ditzan gogo osoz, atseginz andiarekin ta biziro beraren egitekoak eskatzen dituen ta Jangoikoari zor diozkan gauzak, eta osasun bera ematen dio gaistoari, eskerdunari bezala, eragin naiez dagokan on guzia. Eta osasuna bezala eritasuna ere ematen die Jangoikoak bie beren onerako.

Eritzen diran hordutik urrikalgarriak dira ona ta gaistoa, baño bakoitza bere bidez; ta onez lagundu nai dien urrikaltiak lagundu behar die behar den gisan, ta batari dagokan bidez besteari ez. Artako ikasi behar du urrikalti onak noiz den onezkoa eriak duen eritasuna ta noiz

bere bekatu gaistoen alde datorkiona, ta batari ta besteari lagundu behar die bururik autsi bage. Etzuten hau egin Job eriarekin hura ekustera joan ziran beraren irur adiskidek.

Arkitzen zen bein eri Job, zeren ona ta Jangoikoaren adiskidea zen, ta arkitzen zen eri mundukok izandu duen eritasunik andienetatik batekin ta agitz txarki ezarria; bada arkitzen zen burutik oñeraño zauri egña; arkitzen zen bazter guzietatik materia ta usteltasuna zeriola; arkitzen zen zerlon zikinkeria kenzeko tella puska bat baizik etzuela, ta arkitzen zen agitz aberats eta ondasundun izandu baten ere, guztiz beharsu ta ohaizerik bagez goroztegi batean etziña.

Joben era ta eritasun onen berria izandu zuten beraren irur adiskidek eta urrikariz joan ziran hura ekustera ta beren hitz enez aren nekanzak arinzer; baño hitz egin zioten bear etzen gisan ta bidez, ta beren hitzez aren neq-oñaze latz gogorak arindu ez ta anitz bear etzen ez baitan sarreraziz ta odei-soñu, trumoi-tximist-arri ta gis bereko beste asko gauzen bernia eman-eraziz autsi zioten burua; ta al-ere etzioten bakean utziko berak ez esatera: «Neretzat zuek ekusle nekari gogorak bazazte; noiz utzi uste dituzue kearen eran aize egiten diran zeren berriket eta erausi oriek?»: *consolutores onerosi omnes vos estis. Numquid non habebunt finem verba ventosa?* (Job 16,2).

Zerbait orrelako esan dakieke eri gaisoen beste zenbait ekusleri ere, bada buruaren nekanza ta miña da orien ekusteetatik eri gaisoak atera oi dutena. Hau egia dela ekusteko begir egiozu ekusle oriek eriekin egiten dutenari. Gaztea edo gatz-antzakoa bada eria, bilzen dira beraren gisako beste zenbait eta aren neke-tristurak arintzeko arzen dute ez eriarri ta ez ekusleei dagoten bidea, ta bidea da uste txarrez eriarri burua betetzea ta egin behar lituken gauzen gogoa gogotik kenzea.

Arkitzen dute ekusle oriek eria saiets-min gaistoarekin erdi galdua edo gaitzak agitz azpiratua. Arkitzen dute barber-medikuak ezagutzen ez duten sukar ta kalentur biziarekin, edo arkitzen dute anz onik ez duen gaitzarekin ta ongi keisat-nekatua, ta eriarren ill-perilla ezagutu ta ere, besterik uste ta ekusten dutenen gisan hitz erdi arin bat edo beste eriarri esan ta badoaz bestetara ta hau ekusi edo aditu duten ekusle galduak ematen diote fit-laster sendatuko delako ust ustela ta esaten diote arin-azala dela ta egun gutikoa duen eritasuna ta ark uste baño len ekusi uste dutela txutik eta gaitzik ekusi ezpalu bezain sendor sendatua.

Esaten dioten hau eriarri sinist-erazi naizik asten dira zenbait aldiz andik onara dabilzanak dakazten edo kartaz etorri diran joan-etorri ta berri txarrak esaten; beste zenbaitez ekarzen diozkate gogora leneko



bererakeri ta ara-onarak edo ekusle berak noizbait egin zituztenak edo egin uste dituztenak eta arratsalde guziko edo eriarekin dauden denborako orien erausia da aragia ta mundua ta atseginza ta arrotasuna.

Beldur badira beren erausi luzearekin eriarri autsiko diotela burua, bazterzen dira aren oa-burutik eta beraren gela berean asten dira jokoan, eriarri adirazi naiez ez duela etorkizun gaistoaren perillik eta bai-dagoke-la aldi artan ill behar duelako beldurrik bage.

Hau bera adirazten die zenbait eriri beren itxeko berak ere, ta eriarren ekusle onak edo ekustera joaten den relijios edo apaiz egokiak bereririk adiraz ez diozan, ekusteko biderik eman bage ta lotan dagolako edo medikuak barrena sarzeko bidea galerazi duelako aitzakia artu ta eskal-burutik bidalzen dute bere(n) itxera edo derizten aldera.

Orrekin eri gaisoak sendatuko delako ustearekin uzten du alde bat animako kontu guzia ta gero, gero guziaz zuzendu nai dituenean, arkitzen da artako hastirik edo bururik ez duela; bada gogorzen da aren eritasuna ta gutien uste duenean arkitzen da eriotzaren atzaparrean ta konfesatzen da, arzen du azken komunioa ta egiten du beste guzia zer egiten duen ez dakiela edo ezagunz eta buru agitz guti dadukala. Eta agi-gertatzen zaio hau ekusle gaistoen berriketa arin ta lan galgarriak gatik. Ekusi dezu zeintsu diran erien ekusle oriek. Goazen orain eri beren ekusle onak ekustera.

§ II.

Eritzen diran guziak ez dira Joben gisako santuak eta askotan bein-zat edo geienetan bekatutan arkitzen dira; bada S. Anbrosiok erakusten duenez, bekatuari darraizen saria da eritasuna, ta sari ta pena gogorra: *infirmas poena peccati est*. Eta S. Anbrosiok baño agitz ienago esana daduka Espiritu Santuak hau bera edo hau adirazten duen beste gauza; bada esana daduka: «Jangoikoaren begietan uts egiten duena medikuaren eskura beharra da», ta eria da, dakizun bezala, medikuaren eskuratzen dena: *Qui delinquit in conspectu eius, qui fecit eum, incidet in manus medici* (Eccli. 38,15).

Eritasunak nasten du eriarren barrena, kenzen dio jangura ta gogo guzia, bai ta begietako loa ere. Dakarren sukarrarekin ta oni darraizen egarriarekin erretzen ta nekatzen du eritasunak eriarren gorputza. Botikako ur-autsak lazten ta minen diote ahoa ta eztarria; ateratzen dio-

ten odolak eta laburtzen dioten janak uzten du erdi illa edo indar guti-koa, ta geroz nekez aldatzen du eriak batetik bestera bere burua ta neke-zago goratzen edo iraulzen gorputza.

Gau guzian edo geienean bakarrik eta isillik dago eria, bai ta egunaz ere denbora zati andietan, ta aldi orietan leneko bere atseginzak ta obena ezka gogorak egiten diozkate bere bihotzean ta konzienzian, ta zenbat ere andiagoak leneko beraren atseginz, loi, oben eta bekatu gaistoak, anbat andiagoak horduan egiten diozkaten bzkak, S. Anbrosiok dionaz: *Deus enim febrim, et tremorem, et cetera flagella emittit iuxta merita peccatorum*.

Bekatuagatik denean ere ez da beti bekatariari bizia kenzeko bekatariaren eritasuna; igorzen ta bidalzen dio Jangoikoak eritasunaren miñarekin begiak idik-erazteko ta bere bekatu guzien damuz bererik beregana itzul-erazteko. Ala da, dio S. Joan Krisostomok; bada dio animako bekatuagatik zeatzen duela Jangoikoak bekatariaren gorputza, edo zeatzen duela gorputzeko miña kenzeagatik bekatari zeatuak senda dezan bere anima: *Deus ob animi peccatum corpus flagelle ut ad quaerendum remedium convertatur*, ta sendatu naiarekin ta bere bekatuaren damu onarekin ekusten badu Jangoikoak bekataria, barkatzen dio bekatua ta bere graziarekin batean ematen dio berak deritzan aldian gorputzeko osasuna ta bizi luzea; hau da orretarako errege Ezekiasen eritu zen batez egin zuena, negar ta negar egitea ta Jangoikoari bizia eskatzea; ta gaztigatu zion Jangoikoak Isaias profetaren ezpañez: «Aditu dut zure otoi-ta, ekusi dut zure negarra ta emanen dizut amabost urteko bizia»: *audivi orationem tuam: vidi lachrymas tuas: ecce ego adjiciam super dies tuos quindecim annos* (Isai. 8,5).

Eritzen denak ez daki bere bekatuagatik edo zergatik den duen eritasuna, ta bururik badu, horduan egin behar duena da damuzko negarrez Jangoikoa aserre badaduka, palakatzea; ta bekatuarekin ezpadu, Jangoikoak nai duenerako bere anima ongi prestatzea. Hau egiteko bidea da lenbaitlen konfesio on bat egitea.

Eritzen diran anitzek uste dute hau egiten badute ta Elizako gauzak artu ezkeron ill beharko dutela ta luzatzen dute bata ta bestea eriotzaren ortzetan sartu arteraño ta egiten dute horduan guzia prlsaka, burua nastua dadukatela ta kasi zer egiten duten ez dakitela, ta azkenean galzen dute gorputzeko osasuna ta ez dakigu zertan gelditzen den animakoa.

Hau seguratzeko beinik-bein ta eriak dagokan aldian gorputzaren osasuna erdisteko bide zuzena da eritu ta laster konfesatzea. Hau ongi zekienak bezala debekatu zien medikuei Aita Santu S. Pio bostgarrenak eriak ekustea, konfesatzen ezipaziran eritu ta irugarren eguneko.



Eta eriak ill behar duela baleki ere ta sendatzeko usterik ez izanagatik, egin behar luke hau bere onagatik; bada ongi konfesatzeak berekin dakar eritasuneko neke guziak ongi ta meki artzeko grazia ta bidenabar oriek meki artzea ta purgatoria bage animako zorrak ateratzea, dio Bedak: *infirmas carnis, si patienter sustineatur, erit quasi purgatorium ignis.*

Orregatik, bada, erien ekusle on urrikalti guziak beren hitz onez ta eme-emekitxo zuzendu behar dituzte eriak lenbaitlen konfesatzera ta ekus-aldi bateko esanarekin ezin hau, eragiñagatik, ez dute egiteko on hau beren esku-tartetik utzi behar, berriz ta berriz ere hau bera adirazi behar die, baña bururik eriei autsi bage; ta hau egiten badute, egiñen dute erien ekusle onen lana ta egitekoa. Eta orien esanik eriak ez egiñagatik, ez dute deus galduko ta orien esana egin bagez eriak galzen badira, eri berena izanen da ta ez erien ekusleena oben ta kulpa. Zori gaistoko eria, onez esaten zaionik aditu gabez, konfesatu bage ilzen ta galzen dena! Inglaterrako errege Konradoren soldadu bat bezala. Erregek oni bein ta berriz konfesa zedilla esan ta ere, eteen konfesatu ta galdu zen. Eta eria konfesatuagatik berandu ta gaizki konfesatzen bada, orobat galduko da. Gal etzaitezen, bada, asi zaitetz bertatik ongi bizitzen ta eritzen zaran aldian lenbaitlen ta ongi-ongi konfesa zaitetz. Jangoikoak dizula orretarako behar den lagunza ta grazia: bai arren bai.

LX Espiritu Santuaren Bazk-ondoko ogei ta batgarren igandeko irakurraldia

*Et iratus dominus eius, tradidit eum tortoribus,
quoadusque red deret universum debitum. Matth.*

18.

Gaia: Geroko kontuaren beldurrak
zenzarazten du bekataria

Adimentudunak gara Jangoikoari eskerrak, bai ta minkor-minbe-reak ere. Ez dagokigun ta dagokiguna ezagutzen dugu adimentuz, ta minkorzak ez dagokigunaren iges ta dagokigunaren billan erabilzen gaitu. Ongi egiten den gauzarenzat berezi du Jangoikoak dagokan saria ta eginkunz makur bakoitzarenzat zeanza ta neke gogorra, ta agerzen digu bata ta bestea neke-zeanzen beldurrez utz-erazi naiez ibiller makur ta bekatu gaistoen bidea ta sari onaren zaletu ta eragiteko egin bear den on guzia. Jangoikoak nai duen hau zuk egiteko ibilli bear dezu kontuz, erne ta adimentuko begiak zabal-idikiak dituzula. Hau zuk egin ta (bururik badezu) errazki, etorkizun gaistoaren beldurrez utziko dezu bekatara daraman bidea ta zerbait neke dakarrena izanagatik, artuko dezu birtute ta sari onera zuzenzen duena. Hau egin bagez galdurik gelditu zen egungo Ebanjeli santuan agerzen den gizona.

Erregek, Ebanjeli santuak dionaz, bere peko guziak deitu ta eskatu zien zituzten artu-emanen kontua. Amar mil talenturen zorrarekin arkitzen zen bat eta ez izanez nondik atera, agin-manatu zuen erregek zor aren alde bere andre, hume ta zuen andi ta txiki guziarekin sal zedilla. Argandik hau aditu ta arritu zen zordun serbitzaria, bota zituen bere bi belaunak lurrera, bildu zuen esku bata besteagana ta batetan biak eta denbora berean bere begiak humilki goratzen zituela, eskatu zion bere nagusi errege arzekodunari zerbait epe ta denbora zor ziona nonbait bilzeko ta eskatu zion obenik etzuten bere andre ta hume gaisoak gatik. Era artan hura ekusi ta urrikaldu zen errege nagusia ta egin zuen eskatu ziona ta geiago; bada barkatu zion bere zor guzia ta jaikirazi ta bidaldu zuen pozez betea.



Nork etzuen usteko gizon onek diña on ta barkanz bere nagusi arzekodunari zor zionak etziola bere lagun bati edozein zor txar barkatuko, edo onek ari, berak bere nagusi erregeri bezala eskatu ezker, emanen bere zorraren diña nonbait billatzeko zerbait aldi ta denbora? Baña hau da giza txar eskergabeak egin etzuen; bada bere zor anda nagusi erregek barkatu ziolako pozarekin aren itxetik atera ta batu-topatu zuen zerbait zor zion bere lagun gaiso bat eta ekusi bezain laster itsasi ta ito nai zuen eman zezen bere-bereala zor ziona. «Itxozu, gizona», esaten zion me-meki ta humiltanz andian lagun zordun gaisoak; «utzadazu ta alik lenena billatu ta ekarriko dizut nere zor guzia», ta belaunikaturik hau esan bazion ere, ezetz esan ta sarrerazi zuen presondegi gogorrean. Bien lagunak adirazi zioten guzien nagusi erregeri hau guzia eta nagusiak barkatu zion serbitzariaren gogortasunaz aserreturik, erakarri ta zegokana esan ta sarrerazi zuen zor ziona ezin paga zezaken presondegi batean. «Hau bera egiñen du nere Aita zerukoak», dio parabol hau dakarren Jesusek, «bekatari gaistoarekin». Etzuen bere lagunarekin egiñen serbitzari gogorrek egin zuena, jakin balu agi-gertatu zitzaiona ta ez lizake sulezeke presondegirako bekataria, siñisten balu egiten dituen bekatu gaistoei dagoten kontu izugarri ta sekulako nekea ta orregatik bat ez galzeko bidea da egiten duenaz Jangoikoari kontu eman bear diola gogoan erabilzea.

§ I.

Jangoikoak igorzen baligu bere zerutik edo sulezetik bat eta onez baletor hau, esanen liguke, jakinsu baten ezpañez Espiritu Santuak bein esana. Badakizu zer? Berak diona: «Ikas zazu», dio «ta oroi zaitzez Jangoikoaren tribunalean niri agituaz; bada hau bera da an zuri agi-gertatu beharra»: *memor esto iudicii mei, sic enim erit et tuum* (Eccl. 38,23) ta hau bera lizake beste mundutik onez letorkigunak esanen ligukena.

Argandik guk hau aditu ta gald-egiñen genioke: «Ta zer da an zuk ekusia ta zuri an agi-gertatua?». Nik ez dakit horduan ark eranzunen ligukena, baña badakit eranzun lezakela S. Agustinek esaten diguna, ta S. Agustinek esaten diguna da: «Bere gorputza utzi bezain laster arkitzen da ill denaren anima bere kontutegi Jangoikoaren tribunalean. Tribunal kontutegi artan gañeko aldetik arkituko du animak juez aserre egiñik Jangoikoa»: *superius iudex iratus*; azpiko aldean ta bere oinpean idukiko du

deabru galduen suleze-infernu idiki izugarria sufrezko suz, illunbe belbez ta gaisto amurratuz betea: *inferius horrendum chaos*. Eskoi aldetik agertuko zaizka bere bizian egin dituen bekatu andi ta txiki guziak eta bekatu, munduko suge ta sierpe izurdunak baño agitz geiago izutuko dutenak: *a dextris peccata accusantia*; ezker aldetik kont-al baño deabru geiago, suzko kako izugarriekin artu ta hura berekin sulezera eramateko prest daudenak: *a sinistres infinita daemonia ad supplicium trahentia*, ta bere barrenean arkituko du ozka ta karraisa salatuko, erreko ta urratuko duen konzienzia: intus konszentia urens. Eta zer egin dezake edo nora iges egiñen du era ta gis onetan an arkitzen den animako *quo fugiet peccator sic de prehensus?*».

«Tribunal artan ez da deabrua agertuko», dio santu doktoreak, «isilik egoteko; agertuko da an arkitzen den animari al duen gaitz guzia egiteko. Baña gezurtia bad-ere, egiz an ta gezurrik bage egiñen dio animari al duen gaitz guzia; bada an arkitzen den juezaren begietan ez da gezur jokoan hariko deabrua. Lenbizikorik an deabruak egiñen duena da», dio, «bataioko bere hitzarekin animari begitan ematea ta, «Oroitzen zara», esatea, «bataioko grazia erdisteagatik esan zenuenaz? Oroitzen zara nola grazia hau erditsi naiez esker gaistoak betiko eman zeniezten deabruari, deabruak eragiten dituen aragi lan gaistoei ta mundu arroaren erokeri guziei?: *Abrenuntias Sathanae et operibus eius et pompis? Abrenuntia*. Bai, ala da; ezin uka dezakezu».

«Ongi, bada», esanen dio gero deabru amurratuak, «baña nerekin beti aserre arkitzen ziñan zu? Anima onaren ibiltzak izandu dira geroztik onara zuk ekarri dituzunak? Etzara zu geienean edo askotan beinzat nik, deabru galduak, nai nuen gisan ta ezin makurrago ibilli? Etzenuen zuk egiten niri, zere etsai galduari, atsegin ta Jangoikoari atsekabe egiñen ziona, Jangoikoarena baño agitz gogorragoa izanagatik nik zuri eragiten nizuna? Niri atsegin egiteko galzen zenuen festan, jokoan, jan-edan galgarrian edo era bereko beste gauzan zere dirua ta Jangoikoaren izenean ta zeruko irabazian etzenion ardit bat ematen animen mezari, Sakramentu andiaren argiari edo erriko beharsu gaisoari. Etzenion Jangoikoari egunean hordu erdi bat eman nai edo mezan edo libruan edo otoitz on garbian ta hordu osbak arratsalde anitz eta eguneko zati andak ematen zeniozkan tripanz, zezen-fest, neska mutil danz edo gogo gais-toak nai zuen beste gauzaren bati. Jangoikoari atsegin egiteagatik etzenituen belaunak agitz urratzen ta barurik ez egiteko ta beste gauz enak uzteko aitzaki txarrak billatzen zenituen al zenuen guzian; baña nik, zure tentari deabruak nai nuen joan-etorri ta beste gauza askotan galzen zeni-



tuen gau-egunak eta urratzen zenuen zere osasuna ta burua. Atozea, bada; ta hau zen Jan:goikoarekin ongi ta nerekin aserre edo Jangoikoarekin aserre ta nere ta zere gogo-gisara bizitzea? Hau bataioan eman zenuen lenbiziko zere hitza osatzea edo urratzea zen?». Orra aldi artan deabru gaistoak adiraziko dizuna.

Artuko du gero beste biderik ere ta esanen dizu: «Ta batai bereko beste bi hitzak gorde ta osatu edo urratu dituzu? Ekus dezagun. Batai berean eman zenuen bigarren hitza zen aragi nastuak eskatzen dituen ta nik, deabru zur etsaiak, eragin oi ditudan gaistaginetan etzinala sartuko sekulan. Baña egin dezu zuk zure hitz onek ziona? Ez dezu askotan autsi zere hitz on hau? Ez dezu zere gogo gaistoari atsegin egin naiez, hitzez ta gogoz ta lanez zikindu Jangoikoaren lege santa, ta lege, bataio berean gordeko zenuela bein ta berriz adirazi zenuena? Egin bazenu zure hitzak ziona ta bizitu baziña garbiro, izanen zenuen izandu dezuna baño osasun ta diru geiago, biziko ziñan bizitu zaran baño luzaroago, etziñan gaur arkituko arkitzen zaran tranze latz gogorrean ta iganen ziñan zeruko atseginez zori onekora. Autsi ta urratu dezu zere hitza, bizitu zara zere aragi loiak eta nik nai genuen gisan ta orra zu zori gaistoko nere lagun izan beharra».

«Badezu orretarako gai geiago ta geiago ere, bada lenbizikoa ta bigarrena bezala autsi dezu zere bataioko irugarren hitza. Hitz onek ziona zen etziñala sartuko mundu eroak eta buru aizetu batek billatzen dituen arrotanz, bendeku sutu ta apainket galgarritan, ta bideak eman dizun aldi oro apaindu zara zere alegin guzian, ez diozu barkatu nai zenuen ona egin ez dizunari, ez eta nai etzenuen hitz bat esan dizunari ere, ta antust eta arrotanza da aldi gaistoak zekarren guzian agerzen zenuena. Eta orra, zu bizitu zara zere bataioan esan zenuenik egiñen etzenuela esan bazenu bezala». «Eta orra, Jauna», esanen dio gero deabru berak Jangoiko Juezari: «nerea da lanez ta bekatuz hitzez zuretu zen anima bataiatu gaisto hau»: *aequissime iudex, iudica meum esse per culpam, qui tuus esse noluit per gratiam* (Orat. Cont. Iud. c. 4). Eta orra suleze-infernutik datorren animak esan lezakena; ta oni ditxekola: «Jangoikoak, nengokana bezala, eman ta beretu ninduen deabru gaistoak eta eraman suleze- ra ta andik etorri naz gaur hau zuri adiraztera; ta orra, badakizu niri agitua, ta ni bezala bizitzen bazara, zuri ere Jangoikoaren tribunal berean gertatuko zaitzuna. Besterik izanen lizake zerutik letorren animak ekarriko lizun berria; bada izanen lizake zori oneko berria, ta berri, Jangoikoaren tribunalean egiteko gaistoak izandu etzuelakoa ta zeruan atseginez eder goisoz beterik arkitzen delakoa, ta agertu zaitzula esanen

likezu zuri esatera zori on onetan arkitzen dela, zeren egin zuen bere bataioko hitzak ziona ta aren lagun izan uste badezu, dagizula zuk ere hau bera».

§ II.

Eta orra, betiko zori ona erditsi nai duenak bere gogoan artu ta erabilli beharra: bere bizitzaren kontua juez Errege Jangoikoari eman beharko diola; ta eman beharko, juez Jangoiko guzia dakienari, juez Jangoiko nai duena dagikenari ta juez Jangoiko sekulako zori ona onari ta gaistoari betiko neke-tormentu gogorrek eman behar diozkanari.

Etorkizun izugarria da bataioko bere hitzak autsi ta gaizki bizi denari darraizen kontu gaisto ta sari arrigarri hau; ta etorkizun, bururik ez duen batek baizik beretzat naiko ez duena. Buruduna zara zu zerekiko ta buru onduna. Eta siñistuko dut nik alakoa zarala etorkizun arrigarrari onetatik iges egiten badezu; ta iges egiñen dezu, ongi bizi bazara; ta ongi biziko zara, gogoan erabilzen badezu aditu dezuna edo noizean bein ta etsai gaistoaren tentaldietan bad-ere hau zuk gogoratzen dezula.

Kontu hau alde bat utzi ta bere gogara bizi zen aldian zikindu zuen Dabidek besteren ezkontza, zikindu zuen bere anima ta aserretu zuen gure Jangoiko juez zorrotza; baña gero bere erakeria ezagutu ta egiñaz damutu ta artu zuen berriz alakorik ez egiteko asmoa; bai ta egin zuena sekulan gogotik ez uzteko ta gau oro negarrez urratzen haritzeko asmoa ere, ta «Bai», zion, «bai, nere begietan dakart beti nere bekatua»: *peccatum meum contra me est semper*; ta nere begietatik hau nik gerorako kenzeagatik eta Jangoikoak bere tribunalean gogorki ar ez nazan, gau oro negarrez busti ta garbituko ditut nere oa-zurak eta maindire guziak: *lavabo per singulas noctes lectum meum, et lachrymis meis stratum meum rigabo* (Ps. 6,7). Guziaren ondotik dio: Jangoikoa aserretu ta sulezea irabazi dudalako, ikarak autsa ogitzat jan-erazten dit eta negarrez nats-erazten dit nere edaria: *cinerem tanquam panem manducabam, et potum meum cum fletu miscabam* (Ps.). Eta onetan asi ezkeru, etzuen Dabidek urratu Jangoikoaren lege santa.

Ez dezu zuk ere urratuko Jangoikoaren lege bera, Dabiden eran gogora ezkeru bekatuari darraikon kontu ta nekea. Gutiaogatik ere uzten dituzte gizonak beren bekatu ta gaistaginzak. Ekusten badezu begira dagokizula alkateren bat, uzten dezu geldirik ebatsi ta ostu nai



zenuen sagar, humerri edo edozein beste gauza eta bazoaz aitzina alako-rik ezpaliz bezala. Ez dezu hitz bat aterako besteren gain, baldin badakizu zu baño geiagokoa dela bestea ta ikas lezakela zure hitza ta gaitza, ta arritua geldituko zinake adituko etzuelako ustean hura zuk esaten dezun denboran agerzen baliz an hura. Hau da Antigono zeritzan erregerekin beraren zaldun zenbaiti bein agitua.

Bere gelan sarturik arkitzen zen errege Antigono, ta arkitzen zen, atarian zeuden beraren zaldun zenbaiten ustez lo ta lo; ta lo zetzalakoan asi ziran erregez txarki minzutzen. Iratzarria ta jaikia arkitzen zen errege ta aditu zuen beraren zaldunak zerausten guzia. Atera zuen isillik burua ta esan zien meki zaldun erausleei: «Zaldunak, zoazte aratago, adi ez dezan erregek zeren artean daraus-zuena» ta joan ziran erregek aditu zituelako alkearekin zegoten kastigua emain zielako beldur ta ikara agitz andian.

Aditzen du Jangoikoak zuk esaten dezun guzia ta ekusten du egiten dezuna, bai ta zere gogoan darabiltzun asmorik txikiena ere; ta guziari begira dagoka, bakoitzari emateko dagokan saria edo kastigu gogorra; bada zer lotsa ta alkea Jangoikoaren tribunalean zuk ekusi beharra, ekusten dezun aldian ekusi zuela Jangoikoak zuk egin edo asmatu zenuen gaistakeria, ta ekusten dezunean deabru gaistoa ta zere bekatu bera ez ezik, zere aingeru zailea ere zere gain ta kontra dezula ta eskutik artu ta ateratzen zaituela Jangoikoaren tribunalera, ta kondena zaitzan, Orijenesek dionaz, ateratzen zaituela: *unusquisque angelorum in iudicio aderit produciens illos, quibus praeiuit* (Hom. 66 in Hum.).

Tranze zein izugarria den hau adirazteko guztiz egokia da Bedak dakarren berri arrigarri bat. «Ezagutu nuen», dio Bedak, «gizon langille andi bat, baña bere irabazitik itxeko gaisoei guti ta gañerako guzia bere tripa-zantzari ta gaistakeriari ematen ziona. Artu zuen gizon hau berak uste baño len bere azkeneko eritasunak eta artan ekusi zuten begira zegozkanak guztiz asalatu ta ezin-egonez betea, ta ekusi zuten eskua azpiko aldera jiratu ta «Ara», esaten zuela, «ara idiki-zabaldua ta nere begira infernu guzia». Ekusi zuten bazter batera jiratu ta «Ara» esaten zuela, «ara nere bekatudi izugarria; ara zenbat eta ara zein itsusi gaistoak eta zein andiak». Ekusi zuten bat-batean beste aldera itzuli ta esaten zuela: «Ara, ezin kont-al dina deabru guztiz belz moldakaitzak eta su ta gar egiñak. Eta ara nere aingeru bera ere nere kontra ta begi zorrotz izugarritz niri begira». Hau esan ta estali zuen maindirez aurpegia, asi zen orroz bazterrak urratzen ta egun guzia ta gaba orroz ta iraulka eraman ta ill zen amurratua, konfesioz ezpaliz baño kaso geiago egiten etzuela (Lib.

5 Hist. Angl. c. 54). Jangoikoak dezula tranz artaz maiz oroitzeko, kontuz bizitzeko ta beldurrik bage tribunal artan agerzeko grazia. Bai arren, bai.



LXI

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko ogei ta bigarren igandeko irakurraldia

Cognita autem Jesus nequitia eorum, ait: Quid me tentatis, hypocritae? Matth. 22,18.

Gaia: Lausengariaren ta lausenga
aditzen duenaren galgarria da lausenga

Gaitzez dabillanak nekez arzen du bide zuzen bat. Nai ez du ekus dezaten non dabillen. Isilka ta inguruka ta gabaz dabillen lapurraren gisan dabil ta bere burua noizbait agerzen badu, gisa batez edo bestez ez dena dela adirazten du ta azkenean ispillu gezurti batek egiñen lukeena egiten du ta berea kendurik eta gabe uzten du billatzen duen gauzaren jauna ta jabea.

Badakizu zet den ispillu gezurtiak egiñen lukena? Begira dagokanari ez dena dela adirazi ta duen honra kentzea. Begiraten balu ispillu gezurtira buruko illeak eta zintak nasturik daduzkan ta arpegi zikindua-rekin dagon andre batek, arkitzen dela usteko luke arpegi garbi ederrarekin ta ille orrazatu ta zintaz apainduarekin, ta uste orretan agerzen baliz ederki orrazatu ta garbi apaindurik arkitzen diran lagun artean ta ara bildu diran gizaki gazteen begietan, ekusiko luke hura ekuste berean ziñatzen dirala zenbait deabruen bat an agertu baliz bezala, irriz ta farraz asetzen dirala beste zenbait eta beste guziak hura bezain gauz itsusi zikin bat ez ekusi naiez estaltzen dutela beren aurpegia edo jiratzen dutela burua beste aldera.

«Hau zer da?» ark galdatzen luenean, bazterreko andreak atera ta ematen balio ispillu eder behar bezalako bat eta esaten: «Begira egiozu or zere buruari ta ekusiko dezu», ark hura artu ta ekusten luenean bere aurpegi guzia zikinkeriz betea ta guztiz itsustua ta arkitzen balu burua ille nastuz ta lokarri baldanez bildua, arrituko lizake guzia ta andik joan ta gela bazterturen batean sartu ta, berekin balu ispillu gezurtia, oinpera bota ta lertuko luke bere-bereala, ta bistaz ta burlaz esanen lioke bere lan hau bukatu ta: «Al baduk, oa besterenbat lotsaz ta alkez, aldi onetan ni bezala, beterik uztera», ta ez lizake jend-artera aterako bere burua ongi

garbitu ta apaindu artean ta geroztik ez luke bere burua edozein ispillutan ekusiko.

Mihi edo mingain lausengariak dira lapur gaisto, ispillu gezurtiak. Orietatik bat eman nai zioten bein Jesusi, egungo Ebanjelio santuak diotaz, farisetzar arro galduak, baña zer zen zekienak bezala beren arekin eman zien mutur ta sudurretan. Ara nola. Fariseo-tzar arroak artu zuten bere hitzez Jesus nastu-loturik uzteko asmoa. Artako mandatari egokiak igorri ta esaten diote, beren ustez, lausengaz ta gezurrez: «Maisua, badakigu egia baizik ez dutela zure ezpañak agerzen ta egiz ta behar den gisan erakusten dezula zeruko bidea ta ez diozula bati besteei baño geiago begiraten ta edozemi, dena dela, esaten diozula egi utsa, naiz latza izan naiz gogor-gazia. Orregatik gatoz gaur zugana ta esan behar diguzu zillegi den enperadoreari eskatzen duen tributo bat ematea».

Aiek uste ezagatik, bazekien Jesusek beren arte makurrean ta gogo gaistoan zerabilten nasketa ta «Tolestuz beterik zabilzaten gisa txarrak», esaten die; «zertako dira orrenbat joan-etorri ta tentanz? Atozte: norena da zuen diruaren aintzur ta sello hau?» «Jauna», eranzuten diote, «Enperadorearena». «Emozue, bada», esaten die, «Enperadoreari berea, bai ta Jangoikoari ere zor zaiena». Hau aditu ta Jesus bakarrik utzi ta badoaz alkez ta lotsaz beteak. Orra lausengari gezurtiarekin zuk egin beharra: ezarzen dizun sarean nasturik utzi eta hordu gaistoan aienatzea. Orretarako agertu nai dizkitzut gaur orren sare txar oriek. Atoz ekustera.

§ I.

Berez Jangoikoari dagoka, ta besteri ez, laudanza ta honra. Jangoikoaren antz-iduria arzen du beraren eskutik grazia artu ta birtutedun ta aren hume egiten denak eta geroztik eman dakioke oni ere zerbait laudanz eta honra; baña ez Jangoikoari diñakoa, ez eta arenaren gisakoa ere, zeren Jangoikoari dagokan guzien egille Jaun-Jabeari bezalako ta orregatik al den laudanzik eta honrarik andiena, ta birtutedunari duen honra-gai piska bestegandik duenari bezalako ta orregatik dagoka laudanz eta honra agitz laburra. Laudanz ez egoki lausenga da Jangoikoaren grazirik ez duen ta gaizki dabillinari, grazidunari ematen zaion honra ematea; bada ematen zaio ez dagokan gauzarekin burua arrazzteko ta gezurrezko atsegin bat ari egiteko ta hau laudanz gezurti lausenga galgarria da.



Bai ta bakoitzari dagokana baño honr geiago egitea edo ematea ere. «Ala da», dio Santo Thomasek: *adulatio est excessus delectandi verbis vel factis* (2. 2. q. 110). Errege, Mais ta gis bereko beste zenbaiti badagozte lurreko zerbait begirun ta honr; baña ez beren peko askok egiten diezten diña. Erdi itsua zen Siziliko errege Dionisio ta ari atseginz ero txar bat egin naizik, bilzen zituzten betazalak aren aldean zebiltzan zaldunak, uzten zituzten eskutik ematen ziezten tazak eta platerak eta berariz iraulzen zituzten maiko gatz-onzia ta beste gauzak, zeren hau ezin bestez ta bere ekuste laburrez egiten zuen errege Dionisiok. Alde batera makurtua erabilzen zuen burua Mazedoniko errege Alexandrok eta oni ere onen zaldunak, Dionisiori bereak bezala, atsegin egiteko era berean erabilzen zuten beren burua(k).

Onen aita Felipe Mazedoni bereko erregek etzuen izter bat bestea bezain luzea, ta zuzen ez, baizik urgonka ibilzen zen, ta oni ere atsegin egiteagatik gisa berean ibilzen ziran onen zaldunak, onen zaldunak izter ta zanko berdiñak izan ta ere. Irur errege orien zaldunen erakeria baño erakeri andiagoa zen Mitridates erregeren zaldun ta jauregitar guziena. Erakeriz bezala egin zen barber ta mediku errege hau ta ark sendatu zituelako atseginza ta lausenga ari egiteko, etzin ta eritzat gelditzen ziran jaiki bage aren zaldunak eta aren eskuz arzen zituzten sangri, auts, edari ta beste sendagai guziak, gero esateko erregek zuten gaitza kendu ta itzuli ziela leneko osasuna, ta jaikitzen ziran etzin ziran egunean baño odol ta indar gutiagorekin. Motel minzaten zen filosof andi Aristoteles ta atseginz lausengari txar bat ari egiteko gis ber baldan motelki minzaten ziran aren eskolako gazte guziak, guziak izanagatik mihi garbizko ta motelkeririk bageko hitzdunak.

Aditu dituzunak baño lausenga txar galgarriagoa da zu baño geiago denari edo zere kideari atsegin egin naizik aren gisan zere burua orrazt-jauzun-apaindurik ibilzea, lenekoa bezain ona ta kostu gutikoa ez izanagatik bien oraingo orrazt-jauzun-apainza. Eta zure hau ekusi ta bestek arzen badu artako bidea, anbat gaistoago.

Ibillizko ta lanezko lausengak dira ekusi ditugunak. Hitez ta minzoz egiñak beste anitz. Orietatik da bear ez den gauzarako hau edo hura laudanz ustelez leunzea, bere burua arrotaztea ta aren gauz gaizki egiñak eta gaistoak laudagarritzat, onzat edo ez gaistotzat emate-banatztea: *laudando eum, de quo laudandus non est, aut plusquam laudandus est, aut non eo fine quo est laudandus* (D. Th. ubi sup.).

Soñekorik bage dagonari dagokan gauza da soñezkoa, baña ez da edozein soñeko edozeini dagokana ta aur bati ematen badiozu soldadu

baten soñekoa, urrez ta sedaz ta zillarrez egiña izanagatik soñeko hau, ez da aurr.arenzat soñeko egokia, aurra itotzeko edo lerturik uzteko den soñekoa da. Gisa bereko soñekoa da birtutean aurra denarenzat alabanz andia ta lausenga, eta uts egiten du ori ari ematen dionak, aurrari soldaduren soñekoa jaunzten dionak diña ta agitz geiago.

Onek baño ere agitz geiago uts egiten du bere gaistakeriagatik errierta eta esker gaistoa dagozkan galduari ematen dionak ez dagokan laudanza; bai ta onzat eta birtutetzat ematen duenak ere aren obena ta gaistaginza. Hau egiten zuten enperadore Bitelioren jauregitar zenbaitek. Enperadore hau hari zen beti bati kenzen besteari eman nai ziona, ta berak zuena ta besteei kendua ematen zien gero neurririk bage, naiz hura oriek irabazia izan ta naiz ez; ta al-ere bere jauregitar ta zaldun lausengari gaistoak esaten zioten egiten zuela munduko gizonik zuzenenak eta emallerik andienak zegiken egitekoa, ta beren lauseng eta esate gezurtiz burua arrotazi ta egun oro eragiten ziozkaten erakeri ta emate galgarri geiago. Hau bera egiten dute humeen ebaste, gazteen arinz, andreen ezpainz eta besteen joko, tripanz eta gauza galgarri zenbait onzat ematen dituzten gaistoak, eta beren hizkunz lausengari, bare, linderdari zikiñen gisakoz aserretzen dute Jangoikoa, gaierazten dituzte beren lagunak eta beretzen eragiten diezten bekatu guziak.

§ II.

Orien eran uts egiten dute ta besteen bekatudun egiten dira ait-amei humeen gezurrezko berriak eramaten dieztenak. Badaki batek ait-amak gizon egitera igorri dutela semea. Badaki ez duela mutillak ikaste onik egiten ta, alferrak egin oi duena, egiten dituela jokanz galgarri ta beste anitz gaistakeri; ta al-ere badoa aren ait-ametara ta atsegin egin naizik, esaten die lausengaz ez dena ta siñisterazten die estudio ta ikaste ona baizik ez dela aien semea edo aldea, ezin obeak dirala dituen lagunak, maiz aski konfesatzen dela ta gauza guziak egiten dituela behar den gisan ta guztiz ederki.

Pozez betetzen zaie bihotza hau aditu ta, ta uzten dute bere bide galgarrian gaizki dabillen semea edo aldea, ta bere gaistaginzetan lagunzen diote soñekoz, diruz ta eskatzen dien edozein beste bidez, ta ez du aitak edo aldeak gezur hau ikasten beranduraño ta mutillak duen denbora ta dirua galdu arte guzian. Hordurako egin du lausengariak bere lana



ta nai zuena; bada bere berri gezurti galduen alde artu ditu mill esker ta beste lausengaz ta gezurrez billatzen zuena. Eta gero aitak edo amak berritsu gezurtiari zerbait esanagatik, aisa onek gezur berriz estalzen du bere burua ta esaten dio: «Nik aditu nuen esan nizuna ta, gezurra baten, egitzat niri bestek saldua da ta nik artu nuen gisan zuri emana ta esana, ta Jangoikoak didala egin dudan utsaren ta artu dezun atseka(be)nzaren alde egizko berri onak ekartzeko aldia». Orrekin ateratzen du lausengari gezurtiak ait-amen edo alde damuz betearen eskutik bere burua; baña Jangoikoaren tribunalerako berekin darama esan dituen gezurren ta estali dituen gaistakerien obena.

Badira hitzik ateratzen ez duten ta betteren gaistaginzak estalzen dituzten beste lausengari zenbait ere, ta oriek dira agertu behar lituzkeen bide gaistoak agerzen ez dituztenak; eta ez dituzte agerzen, gaizki dabilzaneekin gaizki ez gelditu naiez edo orien guraso gaisoei, nagusi edo alde atsekaberik ez emateagatik eta oriek ere beretzen dituzte agerzen ez dituzten bekatu guziak, zeren bekatu oriek ez agerzea den eragotzi edo ken-erazi behar zituztenen eskuak lotzea. Bereak hau egin ziotelako damuak laburtu zituen enperadore Zesar Augustoren egunak.

Izandu zuen enperadore Zesar Augustok Julia zeritzan alaba bat. Andiak ziran enperadoreak zituen joan-etorri, artu-eman eta beste zer-egiañak eta ezin zegoken beti alaba zaitzen. Zaitu zuten beren denboran Mezenas ta Agripa zerizten zaldun enperadorearen etxetiar bik. Baña ill ziran biak laster ta gelditu zen Julia bere gain bezala; bada gañerako zaldunak mututu ziran ez ari ta aren aitari hitzik esateko, egiñagatik ark nai zuena ta edozein gaistaginz.

Ederra zen Julia, diru zalea zen ta gizakoia ta eman zien nai zuten bidea bere atseginz zikinei ta irabanz loiei. Ekusten zuten enperadorearen zaldunak eta etxetarrak aren alabaren bizi zikin deshonoraria. Bazerausten beren artean ta gaistotzat ematen zuten ekusten zutena, baña etzen trebe guzietatik bat ere Prinzesaren aitari esateko Erroma guziak zekien berri zikiña. Berri hau banatu zen laster Inperio guziko bazterretan ta sartu zen noizbait enperadorearen belarrarian ere.

Urrutitik ikasi zuenean Zesar Augustok beraren itxean agitzen zena, ta agitze ta lan zena bezain lotsagarri deshondraria, arritu zen zen guzia ta egiteko gaisto bat an bere eskuz ez egin naiez, itxetik atera ta sarrerazi zuen itsas isla baztertu batean bere alaba ta urratu ziozkan bere gaizki zikinatarako bide guziak; baña gelditu zen, denboraz gauzak ikasi bagez, lan hau berandu egin zuelako damuarekin ta bere itxean esankizun gais-to bat uzten zuelako naigabez betea.

Naigabez, bada, ta damuz beterik esaten zion Zesar Augustok bere buruari, gauz hau beraren gogoratzen zen guzian (ta gogoratzen zen maiz aski ta kasi beti): «Zori tristeko gizona ni, bada nere Inperio ta bizi guziak baño mill-milletan geiago balio du nere honrak, eta nere Inperioko bazterren ta nere bizitzaren alde baditut nik eun millaka soldadu, ezpata eta beste armak, eta nere Inperio guzian ez dut izandu nere honraren alde hitz bat atera duenik».

«Isilketa gogor madarikatu hau baño ere nere honraren agitz galgariagoa izandu da», zion enperadoreak, «ongi nai didatela dioten te nere aldean dabilzatan zenbaiten hitzketa lausengari gezurtia; bada oriek nere itxean gertatzen zena ta niri zegokidana esan ez, ta esaten zidaten etzela mundu guzian arkituko nere alabaren gisakorik; hau zela esaten zidaten munduan agertu den damarik behar bezalakoena ta edertasunean ez ezik, adimentuz, hitzez, esku-lanez ta gauzen erabilleran parerik bagekoa. A zuek», esaten zuen azkenean, «adiskideen aintzuran nere honraren (bai ta nere biziaren ere) etsai gogorak; bada zuen lausengak eta esate gezurtiak lotan bezala iduki naute ni nere honra galdu arte guzian ta zuek gatik hau galdu dudalako naigabenzak fite ta laster bukatuko du nere bizia». Eta hau zen agitu ere zena, bada andik laster ill zen enperadorea.

Lausengari guziak ez dituzte laburzen gezurrez arrotzen dituzten guzien biziak, baña guziak dira, dio S. Jeronimok, beren lauseng-ekin arrotzen ta galzen dituztenen etsai leunak: *adulator est blandus inimicus*. Zergatik uste dezu? Aditu dezunagatik; bada aditu dezu lausengariak bere gezur arroekin gaistatzen dituela zenbait, beren egitekoetan lasaitu ta kenzen diela beste zenbaiti hau edo hura ta gauz orietatik edozein batek besteari egitea gaizki egitea da ta gaizki bat batek bati egitea, izan dedilla leundez, lausengaz edo nola nai, orren egillea egiten dionaren etsai izatea da.

Ez dagizula zuk orrelakorik, bukanz gaistoren bat norbaiti edo zere buruari eman nai ezpadiozu, ta burua gezurrez edo lausengaz arrotu nai dizuna, aiena zazu zere bazterretik, Kristo Jaunak egungo Ebanjelioko mandatarri gaistoak aienatu zituen bezala. Bai arren, bai.



LXII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko ogei ta irugarren igano deko irakurraldia

Filia mea modo defuncta est. Matth. 9,18.

Gaia: Bekatua da erio gaistoaren latzgarria

Adanek bekatu egin zuenetik ilzeko sentenzi pean gaude mundura gazozen guziok; bekatuaren saria da alabaña eriotza: *stipendium peccati mors* (Rom. 6,23). Ill zen Adan berak egin zuen bekatuagatik; ill dira Adanek bekatuz makurtu zituen gure aitzineko guziak; Adanek makurtu ginduen bizi garanok; era berekoak izanen dira gure ondoren etorriko diranak, eta etorkizunak eta etorri garanak ill beharrak gara, gu baño len etorri ziranak ill ziran bezala.

Non, nola edo noiz? Hau da gutarik batek ere ez dakien gauza. Zartuak badaki ez dela gazterik ill, baña ez daki zenbat urte, ill, haste, egun edo horduren buruan ill beharra den; dakien guzia da len edo gero ill beharra dela. Gazteak eta beste edozeñek ere badaki hau bera, baña ez daki gazterik, geroiseago, zartu ta edo noiz ill beharra den. Zarrak, gazteak eta beste guziok dakiguna da erioz illen garala, baña zer erio moduz edo zer eritasunez, ez.

Eriak sendatzen dabillanak badaki hau guzia ta al-ere egiten du aleña erien bizia luzatzeko ta eriak duten gaitzari bere indarrak kendu naiez, eta askotan garaitzen du gaiztu denaren eritasuna. Baña sendaleak sendatzen duena ere ilzen da urrengo gaitzarekin edo besteren batez. Eta eritzen diranetatik anitz ilzen dira lenengo gaitzarekin edo aurtasunetik atera bage. Orietatik bat egungo Ebanjelioko neskatxa.

S. Joanen eskolakoekin Jesusek ziardukan batez joan zen aren billa gizon andi edo prinziipe bat, eta zegozkan agur humillak egin ta hitzik galdu bage, «Jauna», esan zion, «orain ill da nere alaba ta atoz, arren, aren burua eskuz ukitu ta bizirik uztera». Jaiki zen Jesus hau aditu ta, ta bere eskolarrak zerraizkola joan zen illaren aitarekin onen itxera.

Arako bidean ekusi zuen Jesus odol-isurzezko gaitzarekin zebillen andre batek. Amabi urte zen gaitz hura beregandik ezin kenduz zebillela, ta Jesus ekusi ta esan zuen berekiko: «Aski nuke Jesusen so ñekoaren

ertz bat ukitzea, gaitzik bage ta osasun osoan gelditzeako». Uste onekin urbildu zen Jesusen gibel aldera, egin zuen asmatu zuena ta ark Jesusen soñeko erza ukitu horduko, itzuli zen Jesus argana ta esan zion bereala: «Bai, emakumea, ongi atera zaitzu zere siñistanza ta ustea ta sendatu zara», ta bertan gelditu zen ongi sendatua.

Hau egin ta jarraiki zion Jesusek bere bideari. Neskatx illaren itxea arkitu zuen doluzko soñarlz ta beste jendez besea, ta guziei begiratu ta «Zoazte emendik», esan zien, «ez datza illa itxeko alaba». Hau aditu ta batak besteari begiratu ta asi ziran farraz ta irriz; baffa al-ere kendu ziran Jesusen bidetik. Sartu zen Jesus illaren gelan, artu zuen eskutik illa ta jaiki zen biztua. Egunen batez berak gu ill ezkerro biztuko gaitu (ta betiko) munduko guziok. Horduan ongi bizteko orain guk dagikeguna da geren eriotzari bere laztasuna kenzea. Badakizu zer den eriotzaren lazgarri laztasun hau? Orain guk ekusi bear dugun bekatu gaistoa.

§ I.

Bi egiteko ditu eria sendatzen dabillanak: bata da eria bizia albaez luzatzea ta bestea eriak artu behar dituen sendagaiei duten laztasuna ta miña kenzea edo beinzat arin-leunzea. Orreta(ra)ko kenzen dio edari nastuari bere loitasuna ta uzten du garbi-ederra, eztiz edo zukarez goisotzen ditu edari miñak eta urrez edo zillarrez estalzen auts latz, biribil-pildorak, eta zenbait aldiz arri ederrak eta perlak ere auts eta edari egiten ditu eria bion biotza arinzeke ta neke gutiagorekin arrezazteko eri beraren gogoari atsegiñik egiten ez dion ta hartu bear duen beste gauza.

Erien sendale berak eta beste guziok ere baditugu beste bi egiteko. Bata da bide gaistoz ta laburrez datorren eriotza geren aldetik aienatzea ta bestea geren eriotzari bere gazi ta laztasun guzia kenzea. Bide gaistoz ta laburrez datorren eriotza da bekatuaren estratez datorrena, bada bekatuaren estratez ta bide mear ertsiz dabiltzanak lasterrago arrapatzen ta garaitzen ditu erio gaistoa. «Ala da», dio Espiritu Santuak, bada dio: «laburtuko dira gaistoen urteak ta onak balira baño gutiago biziko dira»: *anni impiorum breuiabuntur* (Prov. 10, 27). Eta orra lenbiziko gure egitekoa, bekatuaren estrat eta bide gaistotik iges egitea.

Baña azkenean, len edo gero ill bearrak gara guziok eta bigarren gure egitekoa da geren eriotzari bere laztasuna kenzea edo bekatuaren ortzik ez duen erioz batekin geren egunak bukatzea; bada bekatuaren



ortzik ez duen erioak laztasunik ez du ta ez dio begiz miñik egiten ilzen denari.

Begir egiozu ezperen bataiatu ta bekatuaren adinera bage ilzen den aurrari ta ekusiko dezu zein egia den diogun hau; bada ekusiko dezu bere eritasun guzian ta ill' hordu berean ere ez duela animako kezkarik, eta gorputzaren nekeak edo oñazeren batek keisatzen ezpadu, amaren bularra arzean lotan gelditzen zen aldian bezain lasai ta sosegudun arkitzen dela ilzen den horduan, ta illa gelditzen denean dirudiela bizia galdu duela ez, baizik loa, iratzar-esnatu bage, aitu ta bukatu zaiola. Orregatik begira dagozkanak esan oi dute: «Zori onekoa zu, bada nola ez dakizula bukatu dezu lur gañeko zere bizia ta nekea, joan zara gure artetik sulezean edo purgatorioan gelditzeko beldurrik bage ta ill' horduko sartu zara gañeko zeruan, egin zara ango aingeru ta santu guzian lagun ta eternidade guziko doatsu. A, bere eriotzan ta sekula guzian nor lizaken zure gisakoal». Orra zein kezkarik bagea ta soseguduna bekatuak ez duten aurren eriotza, ta orra orien eriotzari begira daudenak esan oi dutena, ta zuk ere, noski, an arkitu bazara, noizbait esana.

Gis berean hitz egiten dute begira daudenak ongi bizitu diran ta bekatuaren kezkarik bage ilzen diran birtutedun andien eriotzan ere; bada aldi orietan esan oi dute: «Orain zori oneko bere eriotzan bildu du on onek len, ongi bizi zela, ereñi zuen birtutearen gari ta ale zoritua. Orain ekusi dugu nola ilzen diran ongi bizi diranak. Oriek dijoaz leneko negarrak idortuko diezten ta zori oneko atseginnez beteko dituen Jangoiko maitagarriagana. A, gure eriotza izaten baliz orienaren gisakoal». Eratsu berezea izanen da bizitz on baten buruan ilzen den edozeñen eriotzan ekusten dutenen hitzketa.

Bizitz on baten ondoan ilzen den edozeñek mintasun andirik bage hitz egin oi du ilzeko bere puntuan ta gogoak gogoan dadukana baizik esan ez oi du hordu artan. Adi zazu besteen artean ilzeko zeudela bi gizon andi on jakinsuk esan zutena. Florenziko Arzobispo S. Antonino da bata. Onek mundu onetatik besterako bere abian esan zien berekin zituenei, an bertan kanta zezotela egun artako ofiz-errezoa, ta osasun osoarekin ta eliz-koruan arkitzen baliz bezala berak asi zuen kanta ta kantatu zuen: *Deus, in adiutorium meum intende*. Kantari besteekin azpitik eta aopean bezala, besterik indar bagez ezin ta, kantatu zuen al zuen denboran gañerako guzia, ta hau gero ezin ta, joan zen ezpañak erabilliz kantarien gisan, ta oriek kantatu zutenean, *Oculi mei semper ad Dominum, quoniam ipse evellat de laqueo pedes meos* (Ps. 24,16), esan nai du, «Nere begiak beti Jangoikoari begira, zeren den nere oñak lakiotik aterako dituen»,

iraul-jaso zituen bi begiak gañeko aldera, ta iraul-jaso amorez beteak, eta atseginnez agitz edertuak utzi zituen begira zegozkanak negarrez urtuak eta andik laster gelditu zen soseguz illa ta bidaldu zuen anima begiak len bidaldu zituen tokira ta sekulako glorira. (Act. SS. die 2 Mai.).

Theolojiako maisu agitz jakinsua zen Jesusen Konpaniko Aita Franzisko Suarez. Siñistuko dezu zuk hau, dena ikasi ezkerro, edo gizon onek egin zituela ogei ta anbat libru andi; ta orietan agertu zuen jakinz andiagatik, Erromako A. Santuak eman ziola Doktore Eximioren izena; ta jakinz agitz andizkoaren jabeari baizik ezin eman dakikeon izena da izen hau. Theolojiako jakinza bezain andia zen hau santuen jakinza ta birtutean. Azkenean ill' zen gizon jakinsu hau ere; baña ill' zen gerorako beldurrik bage ta esaten ziela ill' horduan bere bazterrean zituenei: «Ez nuen uste ekusten dudan bezain soseguduna ta goisoa zela eriotza».

Eratsu berean minzatu ta hitz egin dute beren ilzeko puntuan jakinsu birtutedun orien gisan bizitu diran beste anitzek ere. Eta orien erako beste guziak hordu artan esan balute ekusten zutena, ori bera esan ta joanen ziran beste mundura; bada Espiritu Santuak esana daduka: «Jangoikoaren begietan anitz balio duena ta guztiz ederra dela ongi bizi diranen eriotza»: *pretiosa in conspectu Domini mors sanctorum eius* (Psal. 115,14).

§ II.

Jangoikoaren begietan gaizki dirudien eriotza ta eriotz guztiz galgari gaisto-latza da gaistoen eriotza; bai, dio Espiritu Santu berak: *mors peccatorum pessima* (Psal. 33,22). Zergatik ote? Zeren gaistoen eriotzak duen enen eriotzak ez duen ezten zorrotz agitz latzgarri itsusi bat. Badakizu zer ezten? Bekat izugarria. Bekatuaren eztena da, bai, gaistoen eriotza, gaisto berenizat agitz lazten-gogorzen ta Jangoikoaren begietarako guztiz belzten ta itsusten duen gauza ta denbor berean da suleze-infernurako bide zuzena.

Hau ederki adirazten digu ebanjelari S. Joanek, eta adirazten ekusgai izugarri bat agerzen digula. Agerzen digun ekusgaia Jangoikoak lenago berari agertua da ta agerzen digu esaten digula: «Begira nengoen ni bein Jangoikoak banaka agerzen zizkidan gauz zenbait ta agertu zizkidanen artean ekusi nuen erdi illa zirudien zaldi bat. Izugarria zen zekarren zaldizkoa ta hau baño ere izugarriagoa oni ondolik zerrakona; bada



erio bera zen zaldizkoa ta oni ondotik zerraikona infernu bizia»: *Et ecce equus palidus, et qui sedebat super eum, nomen illi mors, et infernus sequebatur eum* (Apoc. 6,8).

Ekusten dezu zer ekusgaia aldi ontan S. Joanek agerzen diguna? Ez da hau sekulan ez ekusteko ohea? Bada al-ere ekusi beharko du, ta ezin alderagotik, ilzen den bekatudunak, zeren Jangoikoak bere bekatu guzien alde bidalzen dion zaldizko korreo ta saria den. Bihotz amurratua dakarren zaldizkoa da erio gaisto hau. Erio onek eztenezko esproinzak arzen ditu: ilzeko dagonak egin dituen bekatu guziak. Ez dio baketan uzten dakarren zaldiari edo bekatariaren biziari, ta bekatudunak gutien uste duen aldian, aren gañean dira erio amurragarri hau ta oni darraikon infernua; ta oriek ark ekusi edo barruntatu horduko, arritzen da den guzia ta bere gogo illunean esaten du Antioko errege bekatariak ezpañez len ziona.

Gizon onek, len ere guk ekusi dugun bezala, Jerusalem bere soldadu guziekin sartu ta egin zituen zegizken gaistaginz guziak. Zikindu zuen Jangoikoaren ango eliza, idolo txar galgarri ta oriei zegozten ofrend-usiak ara eramanez. Andik ostu ta eraman zituen berak nai zuen tokira urrezko kaliz, taz, inzensario ta Jangoikoaren ango beste gauz ederrak, eta ango donzell, eliz-gizon ta erritar beste guziekin egin zuen arrizko bihotza zuen batek zegiken guzia, ta al-ere urrengo zazpi urteetan bizitu zen ondasunez bere peko guziak betetzen ta Jangoikoaren Eliza honratzen haritu baliz bezain aisol ta kezkarik bage.

Bitarte onetan ta gutien ark uste zuen aldian argana zen bere eritasun gogor ta milla nekerekin zaldizko erio izugarria. An zetorkiola barrundatu horduko, bizi azetsirik eman don bere burua oatzeari ta bere barreneko tristurak kendu ziozkan zituen indarrak: *et incidit in langorem prae tristitia*, ta egun oro berritu ta anditu zen aren barreneko trieur ta naigabenz hau.

Bere naigabenz zer bait aringarri naiez, deitu zituen aldean zituen zaldunak eta hitz-nekatu erdi illarekin esaten die: «Iges egin du loak nere begietatik; kezka ta naigabez bete zait barren guzia ta ona ni oriek arinezko zer egin nezaken ez dakidan gizona! Itotzen nabil nere tristuren ta illunz latz gogorren artean, onzia galdu ta itsas aserretuaren olast-bagetan dabilen mariñela bezala. Eta orra azkenean kontura ta ezagutu dut nondik datorren nere gaitzaren latzgarri gogor hau; bada dator len nik Jerusalem egin nituen bekatu gaistoetatik»: *Nunc reminiscor malorum, quaei feci in Ierusalem* (I Macab. 5). Eta hitzez ezpad-ere gogoz ta bihotzez

hau bera dio bere in horduan edozein bekatudunek; bada bekatua bekatuan ilzen diran guzien zat da eriotzaren mingarri latz izugarria.

Bekaturik bage ilzen denak, ilzen bad-ere gorputzeko nekez ta oñazez betea, len S. Lorenzo, Sta. Tekla, S. Bizente ta beste amabi milletan milla martir ill ziran bezala, barrendik idukiko du Jangoikoaren grazia ta bizitz onari dagokan arinza ta S. Ambrosioren eran esanen du: «Zuzen, on ta maitagarria da bere serbitzuan iduki gaituen Jangoikoa; ez du nai, ez, erio gaistok gu garbitzea; eriotz on bana ta sekulako atseginzaren sari ona da ark guri eman nai diguna ta emanen digu bizitz on batekin artara gu prestatu ezker». Presta gaitezen, bada, ta ar ditzagun Jangoikoaren eskutik datozkigun neke hau ta eriotza: *mori non timeo, quia bonum Dominum habemus*, ta artuko ditugu emendik ill arte guzian ongi bizitzen bagara. Jangoikoak digula artarako behar den beraren lagunza ta grazia: bai arren, bai.



LXIII

Espiritu Santuaren Bazk-ondoko ogei ta laugarren igandeko irakurraldia

*Erit enim tunc tribulatio magna, qualis non fuit
ab initio mundi usque modo, neque fiet.* Matth.
24,21.

Gaia: Egiteko gogorra da alferkerian
ta joan-etorri ta arazo anditan
bizi diranendako azken juzganza

Abenduko igandetik asten da Eliz-urtea ta egungo igandearekin bukatzen Eliz-urte bera. Kant izugarri batekin asi zen egun artako Ebanjelio santua ta kanta berarekin ta horduko izugarza galdu ez duen kantarekin bukatzen du egungoak bere egitekoa ta Eliz-urtea. Ebanjelio artako kanta zen azken juzganz eguneko tronpeten soñua ta egun berean ta lenagokoetan ere munduko jende agitz estutuak eta itsaso aserretuaren orraak, bagak eta olastak erabilliko duten eskanbilla ta arazo arrigarria: *et in terris pressura gentium prae confusione sonitus maris, et fluctuum.* Soñu ta eskanbill ta arazo bera da, baila beste bidez agertua, egungo Ebanjelio santuan arkitzen duguna. Horduko arazo, kanta ta eskanbilla egun artako irakurraldian agertu genuena da ta egungoa orain guk agertu beharra.

Daniel profetak adirazia daduka, dio egungo Ebanjelio santuak, Jangoikoaren itxe santuan gertatuko den akaball itsusi izugarria ta hau ikasten duenak jakin beza bakoitzak aldi artan egin beharra. Horduko nekantzak Judan edo errian arkitzen dituen guziak lenbaitlen igan bitez gañeko mendira ta tellatuan arkitzen diranak ez dute zer jaitsi azpiko gelara an utzi zuten gauza arzero, ta lur-lanean hari den nekazariak utz beza galdutzat itxean gelditu zaion soñekoa. Zori tristekoak horduko egunetan humedun ta aurrak azitzen hari diranak. Eskatu Jangoikoari zuen igeska agi-gerta ez dedilla neguan edo egun santuan; bada parerik ekusi ez duten ta ekusi ere behar ez dutenak izanen dira aldi artako arazo, odol-irakinz eta bihotzen dardar, salto, ito-nai ta ezin egonak eta gañera-ko neke guziak.

Berez izan behar zutenak baño gutiago izanen dira aldi artako egun nekedunak, eta ala ez izatera, on berak ere galduak izanen lirake aldi izugarri artan. Denbor artan norbaitek esanagatik «Ara non den Kristo», ez da zer ara joan, ez eta zer sinistu ere; bada agertuko dira anti-Kristo ta anti-profetak edo Kristo jaunaren ta profeten izena gaizki artuko duten gizonak, eta giza txar oriek egiñen dituzte milagro beren itxurako gauzak eta alde onetatik eta beste bidez egiñen dute beren eginala, onak berak eta santu andiak ere beren alde ta Jangoikoaren etsai egin naiez. Orra, bada, agertu dizuet, dio Jesusek, etorkizuna, ta dio geiago ere, bada dio:

«Egun orietako nekeen buruan agertuko dira eguzkia illundua ta argirik bage illargia, izarrak zerutik eroriko dira ta ikaratuko zeruko indardi berak edo birtute andiak. Hordu berean agertuko da zerutik datorren Kristo Jaunaren estandart gurutz santua ta negarrez asiko dira lurreko guziak eta ekusiko dute Kristo Jaun bera nola datorren odei gañean bere Jainkontzaren edertasun guziarekin ta aingeruz ingurutua. Berak artara bidalzen dituen aingeru bereziak bilduko dituzte bazter guzietan adituko den tronpeta soñuarekin zeruan ta lurrean arkitzen diran an guziak. Pikoa adar berriz ta ostoz betetzen den egunetan ekusten dezue aldean dela uda (ta prestatzen zarazte horduko zeren lanetara ta bilzen dezue negu guzirako beharko dezutena) ta aditu dituzuen gauzak asten diranean, jakiñen dezue ez dela urrun kontu izugarrietako egun hau ta eternidade guziko gaba. Kontu, bada (esan nai digu Jesusek) nola zabilzten ta prestatzen dituzuen an bearko dituzuen gauzak. Gaurko Ebanjel santuan esaten die Jesusek hau besteei ere bai, ta aldi onetan ekusiko ditugun alfer ta arazari guziei.

§ I.

Badira gure artean, bai, alfer Jangoikoaren kontu andirako gauzak prestatzen antz nekatzen ez diranak. Alfer guziak ez dira egiteko guzietan alfer. Eternidadeko gauz askotan alfer izanagatik, lurreko beren gauzetan langille andi bortitzak dira zenbait. Haste guzian nekatzen dira oriek ezin geiagoraño ta esku-tartetik utzi bage egiten dituzte egun orietako beren egiteko guziak; baña igande bat edo jai osoa datorren aldiko alferzen dira, egun orietan egin behar lituzkeen gauzak ez egiteko. Jai-igandeko gauzak dira Jangoikoaren serbitzuko gauzak, eta gauz, osoki, garbiri ta bekatuz zikindu bage egin beharrak, eta hau da hast-eguneta-



ko lan guzian nekazari onak diran anitzek egiten ez dutena; bada egiten ez dituzte egun orietan Jangoikoari dagozkan ta orien beren animak eskatzen dituen gauza guziak, edo zikinzen dituzte Jangoiko beraren legeak debekaturik daduzkan beste gauzak egiñez.

Jangoikoaren legeak debekatzen dituen lanak dira tripanz, gañezko edanz ta borondegiko egonaz luze, jokantz galgarri ta beste gaistaginz guziak. Gauza debekatu beretatik dira neska-mutil sallan ta besteen arrean zenbait aldiz izaren diran begirun ta hitz-ket lizunak, eskuk, itsask, ukitz zikiñak eta era bereko beste gauzak. Gauz debekatu beretatik dira festan, dantzaz edo dantz-festen estalpean hitzez, gogoz edo edozein beste bidez egiten diran gauz ez-garb-onak. Eta haste guzian lurreko beren lanak ederki egiten dituzten anitz alferzen dira igande-jaia datorreneko ta uzten dituzte legizken gauz on anitz eta egiten dituztenak ere zikinzen dituzte adirazi ditugun gauzetatik batekin edo bestearekin. Orregatik nekazari zenbaiten Eliz-nagusi jaun batek esan oi zuen: «Nere eliztarrak aingeru dira lan-egunean ta deabru jai-eguna ta igandea datozeneko».

Aferkeri gaistoa berengandik aienatzeko ta deabrutu ez ditezen egun orietan haste guzian aingeru gisan bizitu diranak, esaten dute gure Doktore Eximiok, Silbestrok eta beste theologo andiak lan galgarri oriek eta alferkeri enoigarria alde bat uzteko zillegi dela isililik eta gordean donzellak eta beste edozeñek jai osoan ta igandean zerbait esku-lan egitea len, Jangoikoaren legero irugarren mandamentuaren klarantz-aldian adirazi genuen bezala. Onetan ekusiko dezu gauz zein itsusia den Jangoikoaren begirako ta prestantz zein gaistoa Jangoiko beraren tribunalerako nekazari ta langille orien jai-igandeetako alferkeria ta ibiller gaistoa.

Itsusi gaistoagoa izaten da jai ta haste alfer diran beste zenbaitek egin oi dutena. Haste guziko nekazari zenbaiten jai-eguneko alferkeria izaten da zenbait urtez nekatu ta urteren batez atsedan duten lurren ta alorren erakoa; ta haste ta igande lan bage ta egiteko andirik ez dutela bizi diranen alferkeria, beti edo unte askotan geldirik dauden alorren gisakoa. Zenbait urteren buruan hein edo berriz gelditu ta aldi bakar batez alferzen diran alerrak ekarzen dute zerbait zakarketa; baña ez guztiz andia. Zakarketa andia ta anitz aldetarako zakarketa dakarten alorrek dira urte batean, beste urtean ta zenbait urtez errenko ta arreo golderen ortzik, laipuntarik edo aitzur golpe bat ekusten ez dutenak.

Gisa berean, bada, haste guzian nekatzen diran zar-gazteak jai-egunetan alferzen badira, ekarzen dute adirazi dugun zakarra, zenbaitek bata ta besteak bestea, bakoitzak (geienean beinzat) beraren adiñari dagoka-

na. Zakarketa ta gaistaginz andiak dakazten gizakum-emaztekiak dira jai ta haste alfer ta nagj diranak, orien ta len adirazi ditugun jai-egunetako alferren berria dutenak adirazten dutenaz. Adi zazu orietatik batez bati bein gaztigatua.

Badakizu nork nori? San Jeronimo deritzan Elizako Doktore andiak Eustokio birjin birtutedunari. Gaztigatu zion, bada, bein ark oni: «Sinis zazu zere sinistanzan uts egiteko beldurrik bage alferkeria dela aragi-kontuzko ta beste zikinkerik guzien iturria»: *tene firmissime, quod omnis concupiscentiae, et immunditiae mater est otiositas*. Sinisten zuen hau ta erakusten jentil arteko gizon jakinsu Diojenesek ere; bada beraren eskolan zebilzanei esaten zien noizean bein: «Gauza jakiña da amorketa ta aragiaren loikeria dela alferren egitekoa»: *amor est negotium otiosorum*.

Hau guzia ta geiago adirazten digu Espiritu Santuak esaten digun aldian: «Anitz gaistaginz erakutsi du alferkeriak»: *multam malitiam docuit otiositas* (Eccl. 39,29). Eta agitz geiago erakusten dio beti edo denbor luzean alfer bizi denari; bada bein ere bere lanetik gelditzen ez den maisu gaistoa da alferkeria, ta era orretako maisuak bein edo berriz argantzen den ikasleari baño agitz geiago erakusten dio beraren aldetik kenzen ez den betiko ikasleari, ta betiko ikaslea da betiko alfer nagia; bada gizonaren gogoak ez daki geldirik egoten, ta bein ta berriz ta askotan aditzen ta ekusten duenak erakusten dio alferrari bere pasione ta grin gaistoak bazkatzen, ta oriek bazkatzea da alfer-nagiak nai duena ta gaistakeri guziatarako bide zabala; ta orregatik alferkeria da alferrari anitz gaistaginz erakusten diozkan maisu gaistoa, ta alferkeria berengandik batek kendu arte guzian eginñen ditu juzgantz-egunerako kontu-gai izugarri anitz eta asko, ta infernuko suan bere burua beti erretzen idukitzeko egokiak diran bekatu-zakar ta ikazketa andiak.

Oriek batek berengandik kenzeko ta geroko konturako gai onak bilzeko bidea da egin behar diran gauz onak beren horduz ta aldian egitea ta beste guzian alferkeria berengandik aienatzea, ta buruz, mihiz edo eskuz zer edo zer egiten haritzea. Hau da relijiotar ta apez onak, hau da kontuz bizi diran era bereko zaldun, jakinsu, langille ta beste guziak egiten dutena, ta hau bera da Egiptoko ta beste bazterretako eremutarrak ere len egiten zutena: libruzko, otoitzko edo buruzko egitekorik etzuten aldian eskuzko lanen bat egiten haritzea ta alferkeriari sar-bide guziak galeraztea. Kontu izugarria ta geldier amurratua da hau bera egiten ez duten betiko alferren edo jaietan bad-ere alferzen diranen begira dagona.



§ II.

Eratsu bereko kontu ta geldiera da arazo ta egiteko geiegitan sartuak dabilzan guziena; bada beren ondasun-zalzak eta kutizi sutuak eragiten diezte Jangoikoaren juiziorako kontu-gai gaistoak eta sulezerako bekatuzko ikatz pill izugarri andiak. «Arazari ta egiteko askotan sartueta-tik etzaitzela izan», esaten dizu Espiritu Santuak: *fili, ne in multis sint actus tui* (Eccl. 11.10).

Zeinsu dirala uste dezu egiteko anitzdun ta gizaki arazari oriek? Besteren egitekotan sartu ta berenak egiteko behar dina hasti billatzen ez dutenak. Izan ditezke oriek eliztarrak, bai ta besteetatik ere. Eliztarra zen ta eliztar, len San Bernardoren konbentu berean fraide izandua, Eujenio zeritzan Aita Santua. Bazekien San Bernardok arazo ta egitekotan sartuegia bizi zela Aita Santu hau ta relijioko bere semeari bezala egin ziozkan bost liburu ta erakutsi zion nola bizi bere egiteko berri andian, animako zer-egin andia alde bat utzi bage.

«Egiteko madarikatuak dira», (esaten dio an beste gauzen artean San Bernardok Aita Santu oni), «animako egiteko andiak eskatzen duen hastia kenzen dizuten guziak, eta non gelditu uste dezu, asi zaran gisan bazabilz emendik aitzina; bada begiz ta buruz sartua zabilz besteren egitekotan ta zereraze hastirik ez dezula»: *et quo trahere te habent hae occupationes maledictae, si pergis, ut coepisti, ita tradere te totum illis, ut nihil tibi relinquas?*

Aita Santu onen gisako arazari nasi-nastuak dira eliztar beren itxekoen ta besteen zentuak beren gain artu ta saldu-erosi ta beste egiteko zenbaitetan sartu ta beren errezo ta beste apaiz-lanak ez ongi egiten dituztenak; begira dagozten eziisleei esankizuna ematen dienak eta beren egitekorik andiena ta geien-gelen balio duena azken tokian ta debozio ta sosegu bage egiten dutenak. Gis onetako eliztarrak arkitu balu, zerbait esanen zion eliztarren ta fededun guzien buru Eujeniori, ekusi duguna gaztigatu zion San Bernardok; bada Aita Santu Eujenioren egiteko arazari guziak berak berez edo besteren eskuz egin behar zituenak ziran; ziran alabaña, San Bernardo berak adirazten digunaz, fededunen auzipleitoak ekustea, besteen ezбайдak zuzenzea ta era bereko beste gauzak egitea; ta ekusten dezu zein oriek ez bezalakoak diran ekusi ditugun beste eliztar orien egitekoak.

Baña kontatuak edo agitz guti dira egiteko orietan sarzen diran eliztarrak; egitekoz ta arazoz beren buruak betetzen dituztenak dira tribunaletako jakinsu ta beste gizenak, erri andietako merkatari ta erri beretako

ta besteetako tratant, mandazai ta saldu-erosian dabilzan jendeak, baña ez guziak.

Orietatik zenbaitek arzen dituzte beren gain egiteko geiegi ta ez dituzte behar den eran egiten edo zuzenzen, izan bagez eskatzen duten indar ta burua.

Beste zenbaitek nolerebait oriek zuzenduagatik, zuzenzen ez dituzte beren itxeko edo berez dagozten zenbait, ez eta beren animeei daguztenak ere. Eta agitzen zaie hau, zeren besteren egitekoetan sarzen duten beren indar, buru ta gogo guzia, ta gero arkitzen diran hastirik, indarrak, bururik edo gogorik bage beren gauzak zuzenzeko, itxea zaitzeko, humeei jakin behar dutena erakusteko, utzi behar dutena eragozteko ta egin behar dutena eragulteko; bai ta zeren animako beren gauzak eta lanak moldatzen ta egiten dituzten ere beren ibilleren ta naspillen erdian ta zer egiten duten ta zertan hari diran ez dakitenen gisan; bada mezara badoaz edo sermoien bat aditzera Elizan sartuagatik, an daude gorputzez ta begiz, bai, baña beren gogoa ta bihotza andik urruti dutela ta eskutartean dituzten egitekoz-egiteko dabilzala, ta sermoia ta meza bukatu ta gelditzen dira zer aditu edo egin duten ez dakitela ta Jangoikoari eskeinz edo eskantz on bat egin bage atera diralako kezkarakin.

Eta noiz edo berriz konfesatzera joanagatik eta komunio santa artu ta ere, ara ziranean bezain idor ta agor gelditzen dira ta beren konfesakomulgatzeekin agitzen zaie bere jan-edanekin etikadunari gertatzen zaiona. Badakizu zer? Igar ta illun beti bizitzea ta azkenean beren irabazi-naiaren kalenturaz ta sukarrez illak gelditzea, etikaduna bere jan-edan, lo egite ta sendagai guzien artean gorputzeko sukarrez ta kalenturaz illa gelditzen den bezala, ta ala gelditzen da, zeren kenzen etzaion ditxekon sukar-kalentura.

Hau guri adirazteko egokia da egitekoz ta irabaz-lanez beterik bizi-tu zen merkatari batek hordu artan ziona. Ilzeko zegon hau ta esaten zionari presta zedilla konfesio-komunioz Jangoikoaren tribunalerako, ez-aditu egin ta galdetzen zion: «Zenbana dabil illea alako ta onelako tokitan?», ta konfesoreak esanagatik; «Gizona, ez da ori oraingo zure egitekoa, erioaren atzaparretara zoaz ta konfesioz ongi prestatzen ezpazara, beti ta sekula guziko galdu beharra zara», eranzuten ziona zen: «Etorri dira ille-zakuak? Noiz dator igazko illeen dirua?». Eta era berean zerausala gelditu zen mutu ta illa. Eta egitekoz bete guziak orrelakorik ez esanagatik, noski, hau bera gogoan dutela ta beten irabaz-naiak eragin diezten bekatu gaistoen amurranzez beteak illak gelditzen dira. Era berean gelditu nai ez duenak egin beza San Bernardok Aita Santu Eujeniori esa-



ten ziona: egiteko geiegi ez arzea ta guzien artean ongulena ta lenbiziko-rik bere animakoa zuzen ta kontuz egitea. Jangoikoak dizula artarako behar den gogoa ta grazia. Bai arren, bai.